



Iturria: *Jesu Christoren evangelio saildua*, Ioannes de Haraneder  
(Patxi Altunaren edizioa). Euskaltzaindia, 1990.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HaranederEbanjelioa.htm>

## **JESU KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA**

**Joanes Haraneder**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## AITZIN SOLHASA

Elizako Aitek ohi diotena Eskritura Saindua eta guziz Testament berria daritzana, zeinek zarratzen baiditu Jesukristoren Ebanjelio Saindua eta Apostoluen Egiñkariak, buthunak eta eskribuak, da Jesukristok bere haurrei utzi izan daroen Testamenta, Jainkoaren umeen bazka eta ogia, Jainkoaren izpirituak miragarriki guziei aphaindu izan daroena; guziak hel ahal dakizkeio, eta denbora berean guzien hel-ahalak ditu ixitzen, zeren misterio batzu baiditu zarratzen argituenak konzebi ahal baiño gorago-koak, eta egia batzu baiditu erakusten gutien jakintsun direnak ere hazte-ko propi direnak.

Baiñan ezin akhabatuzko lana liteke Elizako aitek liburu jainkozko hunen laudoriotan eta hau maiz eta behar den izpirituarekien irakurtzetik heldu diren probetxuen gaiñean atxeki izan ohi dituzten solhaz ederrak hemen aiphatzea. Aski da erratea Jainkoaren hitza dela. Berdin hunen abantailletan erran ahal daitezken guziek ezin hain ungi sentiaraz dezake- te hunen prezagarritasuna, nola baidezakete senti irakurtzen dutenek berek, baldin izpiritu ethorkor eta bihotz humill batekien irakurtzen badute, bethiere zinki datxeizkolarik Elizaren ganako sumisioneari eta obedientziari.

Horri dagokala lehiatu ere dire Franziaiko Aphezpikuak liburu sakra- tu hau franzesezko lengoaiarat itzulia bere diozesetako fidelen eskuetan ematerat, nahiz Jainkoaren ume guziek jakin dezaten bere Aitaren Testa- menta eta guziak ditezen haz bere Aitak eman izan daroen ogitik. Baiñan Jainkoak haiñitz grazia bereziz seiñalatu izan dituen arren eskaldunak bere haur maiteenetarik batzu bezala, ondikoz orai arterainokoan nihor ez da izatu irakurtzerat eman izan daroenik bere Aita onaren Testamenta, eska- rarat, eskaldun guziek adi dezaketengoaierat, itzulia; nihor ez da izatu



bere Aita amulsuak utzi izan daroen ogia eskurat eman daroenik. Egia da bada Joanes Leizarraga zeritzan Berakoizko aphez edo erretor zen batek noizbeit aspaldi inprimarazi izan zuela Testament berriko liburua, berak eskararat itzulirik; baiñan nola dohakabe hura, errelijione katholika eta egiazkoa utzirik ordukotz ja itzulia baitzen bera Kalbiñen sekta izurritaturat eta haren heresia pozoatuaz kutsatua, ezin gelditu da bere obrari iretxeki gabe zenbeit lekhotan berak hartu izan zuen izurritik eta iretsi izan zuen pozoinatik; eta hala, beldurrez ezen, zenbeit arima fidelek bere gose izpiritualetan liburu khutsatu hura azarkaturik, jan ustean bere Aitaren ogi phurutik, jan ez dezan gizon etsai eta dohakabe hark han barraiatu izan duen pozoatik ere, gure jaun Aphezpikuak, bere ardien salbamenduarentzat duen griñaz eta hek bazka on eta sainduetan erabiltzeko duen arduaraz, desiraturik diozesa huntako zenbeit aphezek Testament berriko liburu sakratu hau eskararat garbiki eta fidelki itzul dezaten, entseiatu izan gare gure egin ahal guziaz haren handitasunaren xedea bethetzerat; eta hortarakotz, iretxeki izan gaizko lehia handi batekien Eliza Ama Sainduaz beregainki aprobatua Vulgata daritzan textuaren ez xoilki sensuari, baiñan oraiño egin ahal bezanbat letrari berari; eta letrari zorrotxki eta urratsez urrats jarraikiz, sensua gure lengoaian ezin ungi azarka daiteken lekhotan, ez gare atrebitu gere burutarik deusera ematerat; aitzitik baliatu izan gare Jaun Maitre De Saci eta Alta Bouhours textu hura bera franzeserat itzuli izan duten bi author aprobatuen baithan aurkhitu dugun laguntzaz, batean batari, bertzean bertzeari garraizkola, textu sakratu haren sensu garbia eta naturala gure lengoaian atzemateko gaitzenik diren lekhotan batak edo bertzeak bide zelhaiena erakutsi izan darokun arauera.

Har zazue beraz, gure herritar jainkotiarrak, eta jan zazue lehia handirekien zuen Aita onak eman izan darotzuen ogitik, eta frogatuko duzue janari salbagarri horrek, lehenago Elias Profetari gerthatu zitzaion bezala, emanen darotzuela indarra Jainkoaren mendiraiño heltzeko, baldin bihotz garbi eta xuxen batekien hartzen baduzue.

Irakurazue zuen Aitaren Testameta eta ahal bezanbat gogoz har ere zazue, hortan ikhasteko Aita amulsu hark destinatu darozkitzuen ontasun eternalak, hetarat heltzeko irakasten darozkitzuen bideak, eta hek ardies-teko berak ematen darozkitzuen laguntzak. Frogatuko duzue zenbat konsolazione atherako duzuen, miseriazko haran huntan batzen zaizkigun atsekabeen artean, irakurtza horrek geroko deskansu eternalaz ematen darokun esparantzatik; zenbat indar, mundu huntan jasan behar ditugun guduen artean gure Aita guziz botheretsuak agindu darozkigula erakusten

darozkigun laguntzen igurikitzetik; zenbat argi, mundu illhunbetsu huntako errebelamenduen artean Nausi dibino haren beraren partez presentatzen darozkigun erakuspenetarik; gerthuki ezen arima fidelek liburu Jainkozko huntan dituzte aurkhituko, bizitze huntako gerthakari guzietan nola konportatu behar duketen irakatsiko darozten erregela segurak eta salbagarriak.

Noiz ere ordean bathuko baitzaitzue, liburu Sakratu hau irakurtzean, zenbeit gauza aditzen ez duzuenik, zakizkote argitako Aitari, izpiritu humill batekien galdetzen diozuelarik, arren adiaraz diekazuen zuen salbamenduarentzat nezesario ditekena; zohazkote Elizako arzainei eta aphezai, othoitzen egiten diozuelarik explika dietzatzueten jakitea probetxu duketzuen gauzak; eta hori ardiets ahal dezakezuen bizkitartean, sinhetsazue, adora zazue, humilia zaitezte, bazka zaitezte klarki adituko dituzketzuen egiez, eta lehia zaitezte, aditzen ditutzuen egia hek leialki begiratzuz, merezitzerat oraino aditzen ez ditutzuekenen ungi aditzeko grazia. Disposizione horiekien jartzen bazarete liburu saindu hunen irakurtzerat, ignorant zaretenek edirenen duzue hemen egiazki jakintsun izateko aski dena; pobre zaretenek, dohatsu izateko behar den egiazko aberatstasuna; aflijituak zaretenek, deskansua; arima eria duzuela dakusazuenek, osasuna; bekhatuan hiltzeko beldur zaretenek, ziñezko bizitze berrian sartzeko bidea.

HALABIZ



## J. KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA SAN MATTHAEOREN ARAUERA

### I. KAP.

**1** Jesus Kristo Dabiden semearen eta Abrahamen semearen jenderazionearen liburua. **2** Abrahamek jenderatu zuen Isaak; Isaak-ek jenderatu zuen Jakob; Jakobek jenderatu zuen Juda eta haren anaiak. **3** Judak jenderatu zituen Thamarrenganik Fares eta Zara; Faresek jenderatu zuen Esron; Esronek jenderatu zuen Aram. **4** Aramek jenderatu zuen Aminadab; Aminadabek jenderatu zuen Naason; Naasonek jenderatu zuen Salomon. **5** Salmonek jenderatu zuen Booz Rahaben ganik; Boozek jenderatu zuen Obed Ruthen ganik; Obedek jenderatu zuen Jese eta Jeseek jenderatu zuen Dabid, errege ondoan izan zena.

**6** Dabid erregeak jenderatu zuen Salomon, Uriasen emaste izan zena ganik. **7** Salomonek jenderatu zuen Roboam; Roboamek jenderatu zuen Abias; Abiasek jenderatu zuen Asa. **8** Asak jenderatu zuen Josafat; Josafatek jenderatu zuen Joram; Joramek jenderatu zuen Oziaz. **9** Oziazek jenderatu zuen Joatham; Joathamek jenderatu zuen Axaz; Axazek jenderatu zuen Ezekiaz. **10** Ezekiazek jenderatu zuen Manase; Manasek jenderatu zuen Amon; Amonek jenderatu zuen Josias. **11** Josiasek jenderatu zuen Jexonias eta hunen anaiak, juduak Babiloniarat eramanak izan ziren denboratsuan.

**12** Eta Babiloniarat eramanak izan ziren ondoan, Jexoniasek jenderatu zuen Salathiel; Salathielek jenderatu zuen Zorobabel. **13** Zorobabelek jenderatu zuen Abiud; Abiudek jenderatu zuen Eliazim; Eliazimek jenderatu zuen Azor. **14** Azorek jenderatu zuen Sadok; Sadokek jenderatu zuen Axim; Aximek jenderatu zuen Eliud. **15** Eliudek jenderatu zuen Eleazar; Eleazarek jenderatu zuen Mathan; Mathanek jenderatu zuen Jakob. **16** Eta Jakobek jenderatu zuen Josef, Mariaren esposa, zeinaganik sorthu baida Jesus, Kristo deitzen dena.

**17** Badire, beraz, guziz Abraham ganik Dabiden ganako artean hamalau jenderazione; Dabiden ganik, berriz, Babiloniarat judutarrak era-

manak izan ziren artean hamalau jenderazione; eta Babiloniarat eramanak izan zirenetik Jesus Kristo ganako artean hamalau jenderazione.

**18** Bada Jesus Kristoren sortzea nola izan zen: Maria haren ama esposatua zelarik Josefekien aurkhitu zen izorra, elkharganat zitezken baino lehenago; konzebitu baitzuen bere sabelean Izpiritu Sainduaren berthutez. **19** Eta nola Josef haren senharra justua baitzen eta ez baitzuen nahi desohoratu, sekretuki utzi nahi izan zuen. **20** Baiñan gogoeta hortan zegoela, agertu zitzaion ametsetan Jaunaren aingeru bat eta erran zioen: «Josef, Dabiden Semea, ez duzula beldurrik Maria zure emastea zure ganat hartzeaz, ezen haren baitan sorthu dena Izpiritu Saindua ganik da. **21** Erdiko da, bada, seme batez, zeina deithuko baiduzu Jesus, ezen hark libratuko du bere populua bere bekhatuetarik». **22** Eta hau guzia egin izan da, konpli zedintzat Jaunak profetaz erran izan duena: **23** Birjina batek konzebituko du sabelean eta erdiko da seme batez, zeinari emanen baidiote izena Emanuel; erran nahi da, Jainkoa gurekien. **24** Josefek, bada, iratzarri zenean, egin zuen aingeruak manatu zioen bezala eta hartu zuen berekien bere emastea, **25** eta ez zuen ezagutu bere seme lehenbizi jajoaz erdi zenean, zeinari eman baitzioen izena Jesus.

### II. KAP.

**1** Sorthu zenean, bada, Jesus Bethleem Judeako hirian Herodes erregeren denboran, ethorri ziren orientetik magoak Jerusalemert, **2** galdez zebitzala: «Non da judutarren errege sorthu berria? Ikusi dugu ezen haren izarra orientean eta haren adoratzera heldu gare». **3** Hori aditurik Herodes erregea altaratu izan zen eta Jerusalemeko hiri guzia ere harekien batean. **4** Eta billarazirik aphezen prinze guziak eta populua eskribauak, galdez zegokoten hea non sorthu behar othe zuen Kristok. **5** Eta hek erran zioten Bethleem Judeakoan sorthu beharra zela, ezen hunela da eskribatua profetaz: **6** «Eta hi Bethleem Judeako leihorra, ez haiz ttipiena Judeako hiri prinzipalen artean; ezen higanik ilkhiko duk Israelgo ene populua gobernatuko duen buruzagia».

**7** Orduan Herodesek ixillik erakharririk Magoak, galdegin zaroen artha handirekien izarra agertu zitzaieneko denbora. **8** Eta Bethlemerat egortzerakoan erran zaroen: «Zoazte, informa zaitzete arthoski haur hartaz, eta aurkhitu dukezuenen, adiaraz diezadazue nathorren ni ere haren adoratzerat». **9** Errege horla mintzatzen aditu ondoan, goan ziren; eta



orduan orientean ikusi izan zuten izarra aitziñean zioakoten, haurra zen tokiaren gaiñean arribaturik, geldi ziteken artean. **10** Ikusi zutenean, bada, izarra boztu izan ziren handizki. **11** Eta etxean sarthu zirenean, aurkhitu zuten haurra bere ama Mariarekien, eta ahuspez jarririk adoratu zuten; gero bere thresorak zabaldurik ofrendatu ziotzaten presentak, urrea, insensua eta mirha. **12** Eta lotan abisu izanik ez zeitezela bihur Herodesen ganat, goan ziren bere herrirat bertze bide batez.

**13** Hek partitu eta, Jaunaren aingeru bat agertu zitzaioen Josefi lo zegoela eta erran zioen: «Jaiki zaite, har zazu haurra eta bere ama eta zoaz ihesi Ejiptorat eta zaude han nik erran diezakezudan artean. Ezen Herodes ibilliko da haurraren bilha hilarazi nahiz». **14** Jaiki zen Josef eta hartu zituen haurra eta bere ama gauaz eta goan zen Ejiptorat. **15** Eta egon zen han Herodes hil ziteken artean, konpli zedintzat Jaunak profetaz erran zuena: «Ejiptotik erakharri dut ene Semea». **16** Orduan Herodes, ikusirik magoak hartaz trufatu zirela, hasarratu zen borthizki eta igorri zuen Bethleemen eta hango inguru guzietan hiltzerat bi urthetako eta gutiagotako ziren haur guziak, magoetarik jakin denboraren arauera. **17** Orduan konplitu zen Jeremias Profetak erran izan zuena: **18** «Habarrots handi bat aditu izan da Raman, nigar eta marrubiazkoa; Rakel dagoela auhenez bere haurren gaiñean eta konsolatu ere nahigabez, zeren ez diren».

**19** Hil izan zenean bada Herodes, agertu zitzaioen Josefi Ejiptoan lo zatzala Jaunaren aingeru bat **20** eta erran zioen: «Jaiki zaite, har zazitzu haurra eta bere ama eta zoaz Israelgo lurrerat; hil dire ezen haurra galazazi nahiz zebiltzanak». **21** Jaiki zen Josef eta hartu zituen haurra eta bere ama, eta ethorri ziren Israelgo lurrerat. **22** Aditurik ordean Arkelaussek erregiñatzen zuela Judean Herodes bere aita zenaren orde, beldurtu zen harat goateaz, eta lotan abisu izanik, aldaratu zen Galileako parterat. **23** Eta ethorri zen egoterat Nazareth zeritzan hiri batetarat, konplitu izan zedingatik profetaz errana izan zena: «Deithua izanen da Nazarendarra».

### III. KAP.

**1** Denbora hetan, bada, ethorri izan zen Joanes Baptista Judeako mortuan predikatzerat, **2** erraten zuela: «Egizue penitentzia, hurbil da ezen zeruetako erresuma. **3** Hura da Isaiaz profetaz aiphatua izan dena, erran izan duenean: Boz bat da desertuan oihuz dagoenarena: Aphain zatzue Jaunaren bideak; xuxen zazitzue haren bidezak».

**4** Joanesek zuen, bada, bestimenda kamelu illezkoa zen eta larruzko gerriko batez zen gerrikatua, eta haren janharia ziren larrepotak eta basa estiak. **5** Orduan heldu ziren haren ganat Jerusalem eta Judea guzia, bai eta Jordan inguruko herri guzia; **6** eta bathaioa errezibitzen zuten haren ganik bere bekhatuak konfesatzen zituztelarik.

**7** Ikusirik, bada, farisauetarik eta saduzearretarik haiñitz heldu zirela haren bathaioerat, erran izan zaroen: «Bipera sugeen kasta, nork irakatsi darotzue mehatxatzen zaituzten kolerari ihes egiten? **8** Egitzue, beraz, penitenziazko fruitu behar bezalakoak, **9** eta begirautzue zeben baitan erratetik: Abraham guk aita dugu. Erraten darotzuet ezen gai dela Jainkoa barri hautarik beretarik ere sorarazteko umeak Abrahami. **10** Jadan ezen haizkora arruntzatu da arbolaren erroaren gaiñean. Hala, beraz, fruitu onik ekhartzen ez duken arbola guzia izanen da ebakia eta surat arthikia. **11** Nitaz denaz bezanbatean, bathaiatzen zaituztet urean penitentzia egin dezazuentzat; baiñan ene ondoan ethorriko dena ni baiño botheretsuago da, eta ez naiz gai haren oiñetakoak ekhartzeko ere; hura da Izpiritu Sainduan eta suan bathaiatuko zaituztena, **12** zeñiak eskuan baidu bere bahea eta garbituko du ungi bere bihitokia; bilduko du bere bihia bere bihitokie-tarat; lastoak ordean erreko ditu behin ere iraungi ez daiteken su batean».

**13** Orduan Jesus ethorri izan zen Galileatik Jordanerat Joanesen ganat, hartaz bathaiatua izateko. **14** Bainan Joanesek gibelatzen zuen zio-tsola: «Ni behar naiz zutaz izan bathaiatua eta zu heldu zare ene ganat?». **15** Jesusek ordean ihardetsi zioen: «Utz nazazu orai horla egiterat, ezen horla da konbeni konpli dezagun justizia guzia». Orduan Joanesek utzi zuen egiterat. **16** Bathaiatu zenean bada Jesus, ilkhi zen berehala uretik eta ordu berean zabaldu zitzaizkon zeruak; ikusi zuen Jainkoaren Izpiritujausten zela uso baten idurian eta bere gaiñerat heldu zitzaioela; **17** eta horrekien batean jautsi zen boz bat zerutik zioena: «Horra non den ene Seme maitea, ene atsegin guzia egiten duena».

### IV. KAP.

**1** Orduan Jesus eramana izan zen Izpirituaz morturat, han deabruaz tentatua izan zedin gatik. **2** Eta barurtu baitzen berrogoi egunez eta berrogoi gauez, ondoan gosetu zen. **3** Eta tentatzaileak hurbildurik, erran zioen: «Baldin Jainkoaren Semea bazare, errazu barri hauk ogi bilhaka dai-



tezela». **4** Baiñan Jesusek ihardetsi zioen: «Eskribatua duk: Ez da ogi xoi-llez bizi gizona, baiñan Jainkoaren ahotik ilkhitzen den hitz guziaz».

**5** Orduan eraman zuen deabruak hiri saindurat eta ezarri zuen ten-pluaren gorenean, **6** eta erran zioen: «Baldin Jainkoaren Semea bazare, etxa zaite hor behera; eskribatua da ezen: Bere aingeruei manatu diote zutaz artha izan dezaten eta eskuetan altxa zaitzaten, zure oinak jo ez dezan zenbait harriren kontra». **7** Jesusek ihardetsi zioen: «Halaber eskribatua ere duk: Ez duzu tentatuko zure Jainko Jauna».

**8** Deabruak berriz eraman zuen mendi hagitz gora batetarat eta erakutsi ziotzan munduko erresuma guziak eta hekien gloria handia, **9** eta erran izan zioen: «Emanen darozkitzut horiek guziak, baldin ahuspez jarririk adoratzan banauzu». **10** Orduan Jesusek erran zioen: «Hoakit, Sata-na, eskribatua duk ezen: Kure Jainko Jauna duzu adoratuko eta hura xoilki duzu zerbitzatuko». **11** Orduan deabruak utzi zuen; eta denbora berean aingeruak hurbildu zitzaizkon eta zerbitzatzan zuten.

**12** Aditu baitzuen, bada, Jesusek preso emana izan zela Joanes, aldaratu zen Galilearat. **13** Eta Nazaretheko hiria utzirik, ethorri izan zen egoterat Kafarnaum itsas basterrekoan, Zabulongo eta Neftaliko mugarritan; **14** konplutua izan zedin gatik Isaias profetak erran izan zuena: **15** «Zabulongo leihorra eta Neftaliko leihorra, Jordanez haratago itsasorako bidea, jentillen Galilea; **16** ilhunbetan zatzan populu hark ikusi izan du argi handi bat eta heriotzearen itzaleko herrian zeudezenei sorthu zaie argia». **17** Ordutik hasi zen Jesus predikatzen, ziotsala: «Egizue penitentzia, hurbil da ezen zeruetako erresuma».

**18** Jesusek, bada, Galileako Itsas basterrean zebillala, ikusi zituen bi anaia, Simon Piarres zaritzana eta Andres haren anaia, sareak itsasoan etxatzen zituztela, ezen arraiñ zaleak ziren, **19** eta erran zaroen: «Jarraik zakizkidate eta egiñaraziko zaituztet gizonen arranzale». **20** Eta hek berehala sareak utzirik, jarraiki zitzaizkon. **21** Handik aitziniago goan eta, ikusi zituen bertze bi abride, Jakes Zebedearen semea eta Joanes haren anaia, barku batean bere aita Zebedearekin, bere sareen antolatzen hari zirela; eta deithu zituen. **22** Hek ere denbora berean bere sareak eta bere aita utzirik, jarraiki zitzaizkon.

**23** Eta Jesus bazebillan Galilea guzian hekien sinagogetan irakasten zuela eta predikatzen Erresumako Ebanjelioa eta sendatzen zituela langidura eta eritasun guziak populuaren artean. **24** Eta nola haren fama

barraiatu baitzen Siria guzian, ekhartzen ziotzaten eri ziren guziak eta langidura bai tormenta haiñitz suertez hartuak zirenak, deabruaz posedituak, ilhargi-aldiak zituztenak eta paralitikoak, eta sendatzen zituen. **25** Eta ondotik zarraizkon haiñitz jende tropela Galileatik, Dekapolitik, Jerusalemetik, Judeatik, eta Jordanez haratagotik.

## V. KAP.

**1** Jesusek ikusi zuenean, bada, jende oste hura guzia, igan zen mendibaten gaiñerat eta, han jarri zen ondoan, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak. **2** Eta bere ahoa idekirik, irakhasten zaroen ziotsotela:

**3** «Dohatsu izpirituz pobre direnak, zerengatik hekiena baida zeruetako Erresuma. **4** Dohatsu estiak, zergatik lurraren jabe izanen baidire. **5** Dohatsu nigarrez daudezenak, zergatik konsolatuak izanen baidire. **6** Dohatsu justiziaren gosea eta egartsua dutenak, zeren izanen baidire sasiatuak. **7** Dohatsu urrikalkor direnak, zeren berek ere miserikordia ardietsiko baidute. **8** Dohatsu bihotz garbitakoak, zeren hek baidute ikusiko Jainkoa. **9** Dohatsuak baketiarrak, zergatik hek deithuko baidire Jainkoaren umeak. **10** Dohatsu persekuzioea jasaten dutenak justiziarentzat, zerengatik hekiena baida zeruetako Erresuma. **11** Dohatsu zaitezket gizonen madarikatuko zaituztenean, persekutatuko zaituztenean eta gaitzki suerte guziak falsoki erraten dituztenean zuen kontra ene gatik. **12** Alegera zaitezte orduan eta bozkaria zaitezte, zeren golardo handi bat baidago zuentzat zeruetan, ezen borla persekutatu ere dituzte zuen aitziniñean izan diren profetak.

**13** Zuek zarete lurreko gatza. Baldin gezatzen bada gatza, zertan gazituko dute bera? Deusetako gehiago ez da on, kanporat etxatua eta gizonen ostikatua izateko baizen. **14** Zuek zarete munduaren argia. Hiri bat ezin daiteke estalia, mendi baten gaiñean denean, **15** eta lanpa bat ez dute bizten erreguaren azpian emateko, bainan ematen dute kandelaren gaiñean, argi detzantzat etxean diren guziak. **16** Hala distia beza zuen argiak gizonen aitziniñean, ikus detzatentzat zuen obra onak eta glorifika dezaten zuen Aita zeruetan dagoena.

**17** Ez dezazuela uste izan ethorri naitekela legea edo profeten desegiterat; ez naiz ethorri hek desegiterat, aitzitik bai konplitzerat. **18** Erraten darotzuet ezen egia: zerua eta lurra lehen iraganen dire, ezen ez legean direnetarik iota bat edo puntu bat utziko baida, guziak konplituak izan



gabe. **19** Nork ere, bada, hautsiko baidu manamendu hetarik xumeeneta-rik ere bat eta borla baidaroe erakutsiko gizonei, behatua izanen da zerue-  
tako Erresuman azkenekoa bezala; baiñan hek begiratuko dituen eta  
begirutzen irakatsiko duena, izanen da handi zeruetako Erresuman. **20**  
Erraten darotzuet ezen, baldin zuen justutasuna ez bada frankoki handia-  
goa eskribau eta farisauena baiño, ez zarete sarthuko zeruetako Erresu-  
man.

**21** Aditu duzue erran zitzaiera lehenagokoei: Ez duzu hillen, eta nork  
ere heriotzerik egiñen baidu, merezi izanen du kondemnatua izatea jui-  
menduaz. **22** Bada nik erraten darotzuet: bere anaiaren kontra hasarratu-  
ko ere denak, merezi izanen du kondemnatua izatea juiamenduaz. Bere  
anaiari erraten dioenak Raka, merezi izanen du kondemnatua izatea kon-  
seilluaz. Eta erraten dioenak Erroa, merezituko du ifernuko surat kon-  
demnatua izatea. **23** Baldiñetariak, bada, aldarean zure ofrenda presenta-  
tzen duzunean, orhoitzen bazare zure anaiak baduela zerbait zure kontra,  
**24** utzazu han zure ofrenda aldarearen aitzinean eta zohaz lehenik bake-  
tzerat zure anaiarekien eta ondoan ethorriko zare zure ofrenda egiterat. **25**  
Akorda zaiten lehen bai lehen zure partidarekien, harekien bidean zareño,  
libra ez zaitzan juieari eta juieak libra ez zaitzan justiziako ministreari eta  
preso emana izan ez zaitzen. **26** Erraten darotzut egia: Ez zare ilkhiko  
handik, non ez duzun pagatzen azken kornadurainokoa.

**27** Aditu duzue erran izan zitzaiera lehenagokoei: Ez duzu adulterio-  
rik egiñen. **28** Bada nik erraten darotzuet: Nork ere behatuko baidio emas-  
teki bati haren ganako hirrits gaixto batekien, jadan adulterioa egin dukela  
bere bihotzean. **29** Baldiñetariak zure begi eskuiñak eskandalisatzen bazai-  
tu, iraz zazu eta arthik urrun zu ganik; hobe duzu ezen zure menbrotarik  
bat galtzea, ezen ez zure gorphutz guzia izan dadin arthikia ifernurat. **30**  
Eta baldin zure esku eskuiñak eskandalisatzen bazaitu, ebaki zazu eta art-  
hik urrun zure ganik; hobe da ezen zuretzat gal dadin zure menbrotarik  
bat, ezen ez zure gorphutz guzia izan dadin arthikia ifernurat.

**31** Errana izan da oraiño: Nork ere utziko baiduke bere ematea,  
eman diozala utzten duelako eskribu bat. **32** Eta nik darotzuet erraten:  
Nork ere utziko baidu bere ematea, adulterioaren kasuz landan, adulte-  
rioa egiñarazitzen dio; eta senharraz utzia den bat bere emastetzat hartzen  
duenak, adulterioa egiten du.

**33** Aditu duzue oraiño erran izan zitzaiera lehenagokoei: Ez zare  
goanen egin dukezun juramentuaren kontra, baina bihurtuko diozu Jau-

nari juramentuz agindu duzuna. **34** Eta nik darotzuet erraten: Ez deza-  
zuela egin juramenturik batere, ez zeruaz, zeren gatik Jainkoaren thronua  
baida, **35** ez lurraz, zeren haren oiñetako alkhia baida, ez Jerusalemez, zer-  
gatik errege handiaren hiria baida. **36** Ez duzu juramenturik egiñen zure  
buruaz, zeren ezin zure ille izpi bat xuriaraz edo beltzaraz baidezazuke. **37**  
Baiñan izan bedi hunelakoa zuen hizkuntza: Bai, hala da; edo ez, ez da  
hala; ezen gehiagoko dena gaixtotik heldu da.

**38** Aditu duzue errana izan dela: Begia begiaren orde, eta hortza hor-  
tzaren orde. **39** Bada nik erraten darotzuet: ez zaitetzela bihurri egiten zai-  
tzuen gaixkiaz; aitzitik norbaitek jotzen bazaitu eskuiñeko matraillan,  
phara diozozu bertzea ere. **40** Eta zurekien hauzitan hari nahi duenari eta  
arropa eraman nahi dautzunari, utz diozozu zure kapa ere. **41** Eta nihork  
bortxatu nahi bazaitu harekien goaterat milla pausu, zohazko bertze bi  
milla pausu ere. **42** Galdetzen darotzunari emozu, eta ez diozozula ihes  
egin prestamuz galde egin nahi darotzunari.

**43** Aditu duzue errana izan dela: Maitatuko duzu zure lagun proxi-  
moa eta higinduko duzu zure etsaia. **44** Eta nik darotzuet erraten: Maita  
zatzitzue zuen etsaiak; egiozue ungi higin zaituztenei eta egizue othoitz  
persekutatzen zaituztenentzat eta gaixki zarabiltzatenentzat, **45** izan zai-  
teztentzat zuen Aita zeruetan denaren umeak, zeñiek altxarazten baidu  
bere iguzkia onen eta gaixtoen gainean eta erorarazten uria justuen eta  
injustuen gainerat. **46** Ezen maitatzen badituzte xoilki zuek maitatzen  
zaituztenak, zer esker izanen duzue? Publikanoek ere ez dute hori egiten?  
**47** Eta zuen lagunei baizen agur egiten ez badiozue, zer egiten duzue hor-  
tan bertzek baiño gehiago? Paganok ez baidute naski hori egiten? **48** Izan  
zaitetze beraz perfet, zuen Aita zeruetakoa perfet den bezala.

## VI. KAP.

**1** Begirautzue zuen obra onak egitetik gizonen aitzinean, hetaz iku-  
siak izatea gatik; bertzela ez duzue izanen saririk zuen Aita zeruetan dena  
ganik.

**2** Noiz ere, bada, eginen baiduzu amoiña, ez dezazula joaraz tronpe-  
ta zure aitzinean, hipokritek egiten duten bezala, sinagogetan eta karrike-  
tan gizonez ohoratuak izatea gatik. Erraten darotzuet egia: Izatu dute  
haiñek bere golardoa.



**3** Zuk, bada, egiñen duzunean amoiña, ez dezan jakin zure esku ezkerak zer egiten duken zure eskuñeko eskuak. **4** Zure amoina izan bedi sekretuan; eta zure Aita, gorderik egiten dena ikusten duenak, emanen darotzu saria.

**5** Halaber othoitzza egiten duzunean, ez zaitezten izan hipokritak bezala, zeñiek lakhet baidute sinagogetan eta karriken kantoietan xutik daudezela othoitzak egitea, gizonez ikusiak izatea gatik; erraten darotzuet egia: Errezibitu dute hek bere saria. **6** Bainan zu, zure othoitzza egiñen dukezunean, sar zaite zure gelan eta, athea zarraturik, othoitz zazu zure Aita sekretuan; eta zure Aita, sekretuan iragaten dena ikusten duenak, emanen darotzu saria. **7** Zuek othoitzak egitean, bada, ez dezazuela haiñitz eras, paganoek egiten duten bezala; uste dute ezen, bere erasia handiaren gatik direla entzunak izanen. **8** Ez zareten, beraz, hekien iduriko; badaki ezen zuen Aitak zeren zareten behar, galdegin ere diokezuen baiño lehenago.

**9** Hunela, beraz, egiñen diozue zuek othoitz: Gure Aita zeruetan zarena, erabill bedi sainduki zure izena, **10** ethor bedi zure Erresuma, egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere; **11** eman diezaguzu egun gure egunoroko ogia, **12** eta barkha dietzagutzu gure zorrak, guk gure ganat zordun direnei barkhatzen darostegun bezala, **13** eta ez gaitzatzula utz tentazionean erortzerat, aitzitik begira gaitzatzu gaitzetik. Hala biz. **14** Ezen baldiñetariak barkhatzen badiotzatzue gizonei hek zuen kontra egiten ditusten hobenak, zuei ere barkhatuko darozkitzue zuen Aita zeruetakoak zuen bekhatuak. **15** Baiñan ez badiozue barkhatzen gizonei, zuen Aitak ere ez darozkitzue barkhatuko zuen bekhatuak.

**16** Behintzat barurtzen zaretenean, ez zaitezela izan triste, hipokritak bezala; debizatzen dituzte ezen bere bisaiak, gizonei agertzea gatik barurtzen direla. Erraten darotzuet egia, izatu duketela hek bere saria. **17** Baiñan zuk, barurtzen zarenean, gantzu zazu zure burua eta garbi zure bisaia, **18** ez agertzea gatik gizonei barur zarela, baizen xoilki zure Aita gordea dagoenari; eta zure Aita, gauza gordeenak ere ikusten dituenak, emanen darotzu saria.

**19** Ez detzatzuela bill zuen thresorak lurrean, zeinetan herdoillak eta harrek jaten baidituzte eta ohoiñek atheratzen eta ebasten. **20** Baiñan bill zatzitzue zuen thresorak zeruan, non ez herdoillak eta ez harrek ez baidituzte jaten, non ohoiñek ez baida ebatsiko eta eramanez dituenik. **21** Ezen non ere baida zure thresora, eta han diteke zure bihotza.

**22** Kure gorphutzaren argizagia zure begia da; baldin zure begia sinple bada, zure gorputz guzia argitsu izanen da. **23** Baiñan baldin zure begia gaixtoa bada, zure gorputz guzia illhunbetsu izanen da; ordean zure baitan den argia ilhunbe baldin bada, ilhunbeak berak nolakoak izanen dire, bada?

**24** Nihork ezin zerbitza detzake bi nausi, ezen edo bata higin izanen du eta bertzea du maitatuko, edo bata obedituko du eta bertzea du meziprezatuko. Ezin zerbitza detzaketzue Jainkoa eta intresa.

**25** Hargatik darotzuet erraten: Ez duzuela griñarik bizitzekoaz, nondik izanen duzen jatekoa eta nondik izanen duzen zuen gorphutzaren beztitzekoa; bizia ez da gehiago jatekoa baiño eta gorputza beztitzekoa baiño? **26** Beha diozozue aireko hegastinei, ez baidute hek egiten hazillik ez uztarik eta bihitokietarat deusik biltzen; eta halarik ere zuen Aita zeruetakoak hazten ditu. Ez zarete zuek haiñitz gehiagokoak hek baiño? **27** Nor da zuetarik bere pensa ahal guziekien ere beso batez bere thailla handi dezakena? **28** Zergatik, bada, griñetan ematen zarete jauntzkuraz? Konsidera zatzue larretako liliak nola handitzen diren; ez dire hek hari lanean, ez iruten. **29** Bada erraten darotzuet Salomon bere gloria guzian ez dela egundaino hetarik bat bezala bestitua izatu. **30** Beraz larreko belhar bat egun xutik dena eta bihar laberat arthikia ditekera Jainkoak hala beztitzen badu, zenbatenez hobeki egiñen zaituzte zuek, o fede gutitako gizonak? **31** Ez zareten beraz griñatsu, eta ez derrazuela: Zer janen dugu, edo zer edanen dugu, edo zer jauntziko dugu, **32** ezen paganoak dire penetan horien guzien gaiñean; badaki ezen zuen Aitak horien guzien beharra duzuela. **33** Bilha zazue, beraz, lehenbizikorik Jainkoaren Erresuma eta haren justizia, eta horiek guziak emanen zaizkitzue bertze alde. **34** Hargatik, bada, ez zareten grinatsu biharamunekoaz; ezen biharamunak izanen du beretzat bere artha. Egun bakhoitxak aski du bere gaitza.

## VII. KAP.

**1** Ez dezazuela juia, juiatuak izan ez zaiteztentzat. **2** Zer ere juiamenduz juiatuko baidituzte berteak, juiamendu beraz izanen zarete zuek ere juiatuak; eta zer ere neurri egin baidiokezue bertzei, eta neurri bera eginen zaitzue zuei ere. **3** Zergatik ikusten othe duzu fitsa zure anaia-aren begian, eta ez baiduzu ikusten laza zeurean? **4** Edo nola erraten diokezu zure anaia: utz nazazu khen diezazudan fits bat begitik, laz bat





zere nek duzularik zure begian? **5** Hipokrita, khen zazu lehenik laza zure begitik eta orduan ikusiko dukezu nola khen fitsa zure anaiaren begitik.

**6** Begira duzula gauza sailduak ozarrei ematetik, eta ez detzatzula etxa zure perlak urdeen aitzinera, beldurrez ostika detzaten eta zure kontra oldarturik zathika ez zaitzaten.

**7** Galde zazue eta emanen zaitzue; bilha zazue eta aurkhituko duzue; jo zazue athea eta idekiko zaitzue. **8** Ezen galdetzen duen guziak izaten du eta bilhatzen duenak aurkhitzen du eta athea jotzen duenari idekiko zaio. **9** Eta zein da ere zuen artean gizona, bere semeak ogia galdetzen badio, barri bat emanen diokena? **10** Edo galdetzen badio arraiña, emanen othe dioke sugea? **11** Baldinietariak bada zuek, gaitxtoak zaretelarik, badakizue gauza onen ematen zuen umeei, zenbatenez hobeki zuen Aita zeruetan denak emanen bide darozte egiazko gauza onak galdetzen diotzatenei? **12** Zer ere, beraz, nahi baiduzue egin diezazuen zuei gizonak, eta hek guziak egin diotzatzue zuek ere hei; hortan dauntza ezen legea eta profetak.

**13** Sar zaitzete athe hertsitik, zeren athe largoa eta bide largoa baida galtzerat daramana, eta haiñitzak dire hartan sartzen direnak. **14** Ala xumea baida athea eta hertsia bidea bizitzerat daramana, eta gutiak baidira hura aurkhitzen dutenak.

**15** Begira zaitzete profeta falsoetarik, zeiniek ethortzen baitzaizkitzue ardiñ larruz bestituek, eta barnean baidire otso arrapatzaileak. **16** Ezagutuko dituzte bere fruituetarik. Bill othe daitezke elhorrietarik mahatsak edo laharretarik fikoak? **17** Hala, ona den arbola guziak ekhartzen ditu fruitu onak eta gaitxtoa den arbola guziak fruitu gaitxtoak ditu ekhartzen. **18** Arbola onak ezin ekhar detzake fruitu gaitxtoak eta arbola gaitxtoak ezin ekhar detzake fruitu onak. **19** Fruitu onak ez dakharzketen arbola guziak ebakiak izanen dire eta surat arthikiak. **20** Ezagutuko dituzte, beraz, bere fruituetarik.

**21** «Jauna, Jauna» oihuz darozkidanak ez dire hargatik sarthuko guziak zeruetako Erresuman; baiñan nork ere egiten baidu ene Aita zeruetan denaren borondatea, eta hura sarthuko da zeruetako Erresuman. **22** Haiñitzek erranen darotet egun hartan: Jauna, Jauna, ez ditugu guk zure izenean egin profeziak, khasatu deabruak eta egin haiñitz mirakuillu? **23** Eta nik orduan deklaratu daroet: Egundaino ez zaituztet ezaugu; zohazte ene ganik, gaitxtakeriako langilleak.

**24** Nork ere, bada, entzuten baiditu ene hitz hauk eta obretan ematen, eta hura izanen da gizon zuhur baten pare, zeiniek bastitu baiduke bere etxea harriaren gainean. **25** Eta abiatu izan denean uria, ethorri direnean ibaiak, altxatu direnean haizeak eta egotsi direnean etxe haren kontra, ez da erori izan etxea, zeren fundatua baitzen harriaren gainean. **26** Eta nork aditzen baiditu ene hitz hauk eta ez egiten, eta hura izanen da gizon erho baten pare, zeiniek bastitu baiduke bere etxea harearen gainean. **27** Eta erori izan denean uria, abiatu direnean ibaiak, altxatu direnean haizeak eta jautsi direnean etxe haren gainera, erori izan da etxea eta handia ere izan da haren erorikoa».

**28** Akhabatu zuenean, bada, Jesusek solhas hori, miretsiak zeudezen populuak haren dotrinaren gainean; **29** hari zitzaien ezen irakasten bothere izanez bezala, eta ez hekien eskribau eta farisauak bezala.

## VIII. KAP.

**1** Jesus, bada, jautsi zenean menditik, jende tropa haiñitz jarraiki zitzaizkon, **2** eta lepradun batek ethorriarik, adoraten zuen ziotsola: «Jauna, nahi baduzu garbi nazazuke». **3** Eta Jesusek eskua hedaturik ukitu zuen ziotsola: «Nahi dut, izan zaite garbitua». Eta ordu berean garbitua izan zen haren lepra. **4** Eta erran zioen Jesusek: «Begirautzu nihori erratetik; baiñan zohaz, ager zakizko aphezari eta ofrenda zazu horlako ordutako Moisek exlejitu izan duena, hori balia dakioten lekhukotasuntzat».

**5** Jesus sarthu zenean bada Kafarnaumen, ehun gizonen kapitain bat ethorri zitzaioen othoizten zuela, **6** eta erraten zioela: «Jauna, ene sehia etxean dagot ohatua eta paralisiaz hartua eta sofritzen du handizki». **7** Jesusek erran zioen: «Ethorriko naiz eta sendatuko dut». **8** Baiñan kapitain hark ihardetsi izan zioen: «Jauna, ez naiz ni gai zu ene etxean sar zaitzen; baiñan errazu xoilki hitz bat eta sendatua izanen da ene sehia; **9** ezen ni ere gizon bat naiz bertzeren manuaren azpian ezarria, soldaduak neure azpiko ditudana; eta erran diozadan bati, Zohaz horrat, badoha; erran diozadan bertzeari, Zato hunat, heldu da; eta ene muthillari, Egizu hau, eta egiten du». **10** Jesus horiek aditzeaz jarri zen espantutan, eta erran zaroen jarraiki zitzaizkon jendei: «Erraten darotzuet egia: Ez dut aurkhitu horren fede handirik Israel guzian. **11** Erraten ere darotzuet, hainitz ethorriko direla orientetik eta okzidentetik eta jarriko zeruetako Erresuman Abraham eta Isaak eta Jakobekien; **12** eta Erresumako umeak ego-



tziak izanen dire kanpoko ilhunbetarat; eta han izanen dire nigarrak eta hortz karraskatzeak». **13** Orduan Jesusek erran zioen ehun gizonetako kapitaiñari: «Zohaz eta egin bekizu sinhetsi duzun arabera». Eta sendatua izan zen haren sehia oren berean.

**14** Eta ethorri zenean Jesus Piarresen etxerat, ikusi zuen haren ama-giñarraua ohean zatzala sukharrekin. **15** Ukitu zioen eskua eta utzi zuen sukharrak; eta berehala jaikirik eman zen hekien zerbitzuan. **16** Arratsa ethorri zenean, ekharri ziotzaten hainitz presuna deabruaz posedituak zirenak, eta khendu ziotzaten izpiritu gaixtoak bere hitzaz eta sendatu zituen eri guziak, **17** konplitua izan zedintzat Isaiaz profetaz erran izan dena: «Berak hartu izan ditu gure flakitateak eta garraiatu izan ditu gure errasunak.

**18** Ikusirik, bada, Jesusek jende aralde hainitz bere inguruan, manatu zaroen bere dizipuluei iragan zezatela lakuaren bertze alderat. **19** Orduan eskribau bat hurbildu zitzaioen eta erran zioen: «Nausia, jarraikiko natzaitzu zohazen toki guzietarat». **20** Eta Jesusek ihardetsi izan zioen: «Axeriek badituzte bere zilhoak eta aireko hegaztiñek ohatzeak; baiñan Gizonaren Semeak ez du non burua pausa». **21** Bere dizipuluetarik bertze batek erran zioen: «Jauna, permeti diezadazu lehenik nohan ene afta ehorzterat». **22** Baiñan Jesusek erran zioen: «Jarraik zakizkit niri eta utz zitzu hillak bere hillen ehortztera?».

**23** Eta sarthu zen barkuan bere dizipuluak berekien zituela. **24** Eta berehala itsasoa handitu zen halako maneraz, non uhiñek estaltzen baitzuten barkua; eta orduan hura lo zegoen. **25** Dizipuluak, bada, hurbildu zitzaizkon eta iratzarri zuten, erraten ziotela: «Jauna, salba gaitzatu; gal-tzen hari gare». **26** Jesusek ihardetsi zaroen: «Zergatik izitzen zarete, gizon fede aphurretakoak?». Eta denbora berean jaikirik, manatu zaroen haizei eta itsasoari, eta egin zen kalma handi bat. **27** Orduan jarri ziren espantituak han ziren gizonak erraten zutela: «Nor othe diteke hau, haizeek eta itsasoak obeditzen baidute?».

**28** Iragan zenean Jesus itsasoaren bertze alderat Jerasendarren herri-rat, ethorri zitzaizkon aitziañerat bi gizon posedituak, thonbetarik ilkhiak, eta hain furiosak, non ez baitzen nihor ausartatzen bide hartarik iragate-rat. **29** Eta hasi zitzaizkon oihuz erraten ziotela: «Zer dohatzu zuri gutaz, Jesus Jainkoaren Semea, denbora baiño lehen ethorri baitzare gure tormentatzerat?». **30** Zen, bada, hetarik ez urrun urdalde handi bat bazkan zaudezenak; **31** eta deabruak othoizten zuten ziotsotela: «Baldin hemen-

dik khasatzen bagaitutzu, igor gaitzatu urdalde hortarat». **32** Erran zaroen: «Zohazte». Eta hek ilkhirik goan ziren urde aldetarat; denbora berean tropela hura guzia abiatu zen lausterrez itsasoan behera eta itho ziren urean. **33** Orduan urde-zaiñak goan ziren ihesi eta hirirat ethorri-rak kon-datu zituzten horiek guziak eta deabruak posedituak zirenei gerthatu zitzaiena ere. **34** Denbora berean hiri guzia ilkhi zitzaioen Jesusi aitzinerat eta ikusi zutenean, othoiztu zuten aldara zedin hekien basterretarik.

## IX. KAP.

**1** Jesus barkurat iganik iragan zen lakhuaren bertze alderat eta ethorri bere hirirat. **2** Eta aitziañerat eman baitzioten paralitiko bat ohean etz-na, Jesusek ikusirik hekien fedea, erran zioen paralitikoari: «Ene hurra, egizu kuraie; barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak». **3** Iskribauetarik zen-baitek erraten dute bere baitan: «Gizon horrek blasfemia egiten du». **4** Baiñan Jesusek ezagaturik gogoan zer zarabillaten, erran zaroen: «Zergatik darabiltzatzue gogoeta gaixtoak zuen bihotzetan? **5** Zer da errexago erratea: Barkhatzen zaitzkitzu zure bekhatuak, ala erratea: Altxa zaitte eta ibill zaitte? **6** Bada dakizuentzat Gizonaren Semeak baduela bothere lurrean barkhatzeko bekhatuak, erran zioen orduan paralitikoari: «Altxa zaitte, eramazu zure ohea eta zohaz zure etxerat». **7** Eta altxatu zen eta goan zen bere etxerat. **8** Ikusirik bada hori, balditu zen populua eta jarri zen gloria bihurtzen Jainkoari, zeiañak horlako botherea eman baitzaroen gizonei.

**9** Eta handik iragatean, ikusi zuen Jesusek gizon bat jarria bureuean, Mathiu zeritzana, eta erran zioen: «Segi nazazu». Eta berehala altxaturik jarraiki zitzaioen. **10** Eta Jesus gizon haren mahainean zegoela, hainitz publikano eta bekhatore ethorri-rak, jarri ziren mahainean Jesusekien eta haren dizipuluekien. **11** Hori ikusirik farisauek erran zioten haren dizipuluei: «Zergatik jaten du zuen nausiak publikanoekien eta gizon bekhatorekien?». **12** Baiñan Jesusek aditurik hori, erran zaroen: «Ez dute sendoek miriku beharrik, bai ordean eriek. **13** Zohazte, bada, eta ikhas zazue zer erran nahi duen hunek: Nahiago dut urrikalmendua ezen ez sakrifizioa; ez naiz ezen ethorri justuen deitzerat, baiñan bai bekhatoreen».

**14** Orduan hurbildu zitzaizkon Joanesen dizipuluak, erraten ziotela: «Zergatik farisauak eta gu barurtzen gare maiz eta zure dizipuluak ez dire barurtzen?». **15** Eta Jesusek ihardetsi zaroen: «Esposaren adiskideak izan



othe daitezke triste, esosa hekiekien deiño? Bainan ethorriko da denbora esosa khenduko zaiouena eta orduan dire barurtuko. **16** Nihork ez bide dio ematen oihal berrizko pedazurik tresna zahartu bati. Eraman liozoke ezen bere puska tresna zahartuari eta gehiago hauts ere lezake. **17** Ez dute halaber ematen arno berria zahagi zaharretan, zeren horla egiñez hausten baidire zahagiak, arnoa isurtzen baida eta zahagiak galtzen baidire. Baiñan arno berria ematen dute zahagi berrietan eta biak konserbatzen dire».

**18** Hauk hei erraten zarozten orduan, ethorri zitzaion sinagogako prinze bat eta adoratu izan zuen ziotsola: «Jauna, orai doi doia hill zait ene alaba; baiñan zato, emazu zure eskua haren gainean eta biztuko da». **19** Eta Jesus altxaturik, jarraiki zitzaioen bere dizipuluekien batean.

**20** Denbora berean emaste bat hamabi urte hartan odol isuri batez penatua zena, hurbildu zitzaioen gibeletik eta ukitu zuen haren arropa pertala. **21** Zioen ezen bere baitan: «Uki ahal badezat xoilki haren arropa, sendatua naiteke». **22** Jesusek orduan itzulirik eta hura ikusirik, erran izan zioen: «Animo har zazu, ene haurra; zure fedea sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua izan zen emastea.

**23** Ethorri zenean Jesus Sinagogako prinzearen etxerat eta ikusi zituenean xirolariak eta jende multzo bat habarrots handitan, erran zaroen: **24** «Aldara zaitzete, ez da ezen hilla neskaxa hau, baiñan lo datza». Eta trufatzen ziren hartaz. **25** Aldararazi zirenean bada jende hek, sarthu izan zen eta hartu zioen eskua eta neskaxa hura altxatu zen. **26** Eta gauza hunen famak jo zuen herri guzia.

**27** Handik ilkhitzen zela Jesus, jarraiki zitzaizkon bi itsu, oihuz erraten ziotela: «Urrikal gaitzkitzu, Dabiden Semea». **28** Eta ethorri zenean etxerat, itsu hek hurbildu zitzaizkon eta Jesusek erran izan zaroen: «Sinhosten duzue egin ahal diezakezuedala hori?». Erraten diote hek: «Bai, Jauna». **29** Orduan ukitu ziotzaten begiak, erraten zaroela: «Egin bekizue zuen fedearan arauera». **30** Eta berehala ideki ziren hekien begiak eta Jesusek debekatu zaroen borthizki erranik: «Begirautzue nihork jakin ez dezan». **31** Baiñan hek ilkhi eta banatu zuten haren fama herri hartan guzian.

**32** Hek ilkhi zirenean, ekharri izan zioten gizon bat mutua, deabruaz poseditua zena. **33** Eta deabrua khendu zitzaioenean, mutua mintzatu zen eta populua jarri zen miretsia erraten zutela: «Ez ahal da egundaino ikusi

Israelen hunelakorik». **34** Ordean Farisauek zioten kontrarat: «Deabruen prinzeaz khentzen ditu deabruak».

**35** Eta Jesus bazebillan bazter guzietan hirietarat eta herrietarat, irazasten zuela hekien sinagogetan eta predikatzen zuela Erresumako Ebanjelioa eta sendatzen ere zituela langidura eta eritasun guziak.

**36** Ikusirik, bada, jende tropela hek guziak, urrikaldu zitzaizkon, zeren unhatuak eta nekhatuak baitziren eta etzanak hor hemen artzainik ez duten ardiak bezala. **37** Diotsate orduan bere dizipulei: «Egiazki usta handia da, ordean lanegille da guti. **38** Othoitz zazue, beraz, uztaren nau-sia, igor detzan langilleak bere ustarat».

## X. KAP.

**1** Orduan Jesusek deithurik bere hamabi dizipuluak, eman zaroen bothere izpiritu lohien gainean hekien kasatzeko, bai eta langidura eta errasun guzien sendatzeko.

**2** Hamabi Apostoluen izenak, bada, hauk dire: lehenbizikoa Simon, zeina deithzen baida Piarres, eta Andres haren anaia, **3** Jakobe Zebedearena eta Joanes haren anaia, Filipe eta Bartholome, Thomas eta Mathieu publikanoa, Jakobe Alfearena eta Thadee, **4** Simon Kanaangoa eta Judas Iskariotes, zeñiak traditu ere baitzuen.

**5** Hamabi horiek igorri zituen Jesusek, mezu hau emanik eta erranik: «Ez zohaztela jentilletako alderat eta ez zaitzete sar Samaritanoen hirietan. **6** Aitzitik zohazte lehenago Israelgo etxeko ardi galduetarat. **7** Eta goaten zaretan lekhuetan predika zazue erraten duzuela: Hurbildu da zeruetako Erresuma. **8** Eriak senda zatzue, hillak bitz zatzue, lepradunak garbi zatzue, deabruak khasa zatzue. Dohainik eman zaitzuen dohainik emazue. **9** Ez duzuela gurarik izateko urrerik, ez zilharrik, ez dirurik zuen karpetan, **10** ez zaxhurik bidekotz, ez bigarren aldagarriarik, ez zapatarik, ez makhillarik; merezi du ezen langilleak bere jana.

**11** Zein ere hirietan, bada, edo herrietan sarthuko baitzarete, informa zaitzete nor diteken han gai zuen errezibitzeko; eta egon zaitzete han, goan behar zaitzeten artean. **12** Etxean sartzean ordean, egizue agur erranik: Bakea dela etxe huntan. **13** Etxe hark merezitzen badu, ethorriko da zuen bakea haren gainerat; eta merezient ez bada, zuen bakea bihurtuko da zuen ganat. **14** Eta norbaitek errezibitu nahi ez zaitzutenetan eta



zuen hitzak aditu nahi ez dituenen, etxetik edo hiritik ilkhitzearekien batean, iharros zazue zuen oiñetako herrautsa. **15** Erraten darotzuet egia: juiamenduko egunean Sodomako eta Gomorhako lurrari baiño gutiago barkhatuko zaio hiri hari.

**16** Horra non igortzen zaituztedan ardi batzu bezala otsoen arterat. Izan zaitetzte, beraz, prudente sugeak bezala eta simple usoak bezala. **17** Baiñan begira zaitetzte gizonetarik. Eramanen zaituzte ezen bere batzarretarat eta azotaraziko zaituzte bere sinagogetan. **18** Eramanak izanen zarete ene ariaz gobernadoreen eta erregeen aitzinerat, lekhukotasuntzat baliatzeko hei eta nazioei. **19** Ezartzen zaituztenean, bada, hekien eskuetan, ez zaitetzela gogoetan jar, nola edo zer erranen diozuen; emanen zaitzue ezen orduan berean hei zer erran. **20** Ez zarete ezen zuek mintzo zaretenak, baiñan zuen Aitaren Izpiritua daiteke zuen baitan mintzo dena. **21** Libratuko du, bada, anaiak anai heriotzerat eta aitak semea, eta altxatuko dire umeak burasoen kontra eta hillaraziko dituzte; **22** eta gaitsesiak izanen zarete gizonez ene izenaren gatik; baiñan nork ere iraunen baidu akhabantzaraño, eta hura izanen da salbatua. **23** Noiz ere, bada, persekutatuko baitzaituzte hiri batean, zohazte ihesi bertze batetarat. Erraten darotzuet egia: Ez duzue akhabatuko Israelgo hiri guziak irakasteaz, Gizonaren Semea ethor daiteken arteraño.

**24** Dizipulua ez da eki nausiaz gorago eta sehia bere jaunaz gorago. **25** Aski da dizipuluarentzat izatea bere nausia bezala eta sehiarentzat izatea bere jauna bezala. Baldin familiako aita deithu izan badute Beelzebuth, zenbatenaz gehiago desohoratuko bide dituzte haren sehiak?

**26** Ez zareten, beraz, hekien beldur; deusere ezen ez da estalirik agertu beharko ez duenik; deusere gorderik ezagutua izan behar ez duenik. **27** Nik ilhunbean erraten darotzuedana errazue zuek argitan eta orai beharrrat erraten zaitzuen predika zazue etxe gaiñetan. **28** Ez duzuela beldurrik gorputza hiltzen dutenez eta arima ezin hill dezaketenez; baiñan zareten beldur hobeki bai arima eta bai gorputza ifernuan galaraz detzakenaz. **29** Ez da egia bi garraio kornadu batean saltzen direla? Eta hala ere hetarik batere ez da erortzen lurraren gaiñerat zuen Aitaren nahia gabe. **30** Bada zuen buruko illeak ere guziak kondatuak dire. **31** Eta hala, ez duzuela beldurrik; hainitz etxe-xorik baiño gehiago duzue balio.

**32** Nork ere, beraz, ni ezagutuko bainau gizonen aitzinean, nik ere hura ezagutuko dut ene Aita zeruetan denaren aitzinean. **33** Eta nork ere

nitaz ukhatuko baidu gizonen aitzinean, nik ere hura arnegatuko dut ene Aita zeruetan denaren aitzinean.

**34** Ez dezazuela uste izan ethorri izan naizela bakea ekhartzerat lurrerat; ez naiz ethorri izan bakea ekhartzerat, aitzitik bai ezpata ekhartzerat. **35** Ethorri izan naiz ezen separatzerat gizona bere alta ganik eta neskatxa bere ama ganik eta erraño bere amagiñarraua ganik. **36** Eta gizonak bere etxean dituen jendeak ditezke haren etsaiak. **37** Nork ere maiteago baidu bere aita edo bere ama ni baiño, eta haina ez da ona enetzat; eta nork maiteago baidu bere semea edo bere alaba ni baiño, haina ez da gai enetzat. **38** Bere gurutzea hartzen ez duena eta niri segitzen ez zaitana ez da on enetzat. **39** Nork ere begiratzen baidu bere bizia, eta hark galduko du; eta nork ere galduko baldue bere bizia ene amorea gatik, eta hark du aurkhituko. **40** Nork ere zuek hartzen baitzaituzte, eta hark ni hartzen nau; eta ni hartzen nauenak hartzen du ni igorri nauena. **41** Profeta bat errezibitzen duenak profetaren izenean, izanen du profetaren saria; eta justu bat errezibitzen duenak justuaren izenean, izanen du justuaren saria. **42** Eta nork ere emanen baidio xumeen hautarik bati beira bat ur hotz xoilki, ene dizipulua delakoan, erraten darotzuet egia: Ez du galduko bere pena».

## XI. KAP.

**1** Jesus, akhabatu ondoan erakuspen horiek emateaz bere hamabi dizipuluei, goan zen handik irakasterat eta predikatzerat inguruetako hirietan. **2** Joanesez, bada, aditurik zephoetan zagoen lekhitik Jesuskristoren obrez mintzatzen, igorri izan zituen bere dizipuluetarik bia, **3** hari erratera: «Zu zare ethorri behar zarena ala bertzerik iguriki behar othe dugu?». **4** Eta Jesusez ihardetsi zaroen: «Zohazte, errozue Joanesez zer aditu eta zer ikusi izan duzuen. **5** Itsuek ikusten dute, mainguak badabil-tza, lepratsuek garbituak dire, gorrek aditzen dute, hillak bizten dire, pobreei Ebanjelioa irakasten zaie; **6** eta dohatsu ditezke nitaz eskandalarik hartzen ez duena». **7** Hek goan zirenean, bada, hasi zen Jesus populari erraten Joanesez: «Zeren ikusterat goan othe zarete desertuan? hai-zeak darabillan seska baten? **8** Ordean, zeren ikusterat goan zarete? Gizon guriki eta ederki bestitu baten ikusterat? Guriki bestitzen direnak erregeen etxetan ohi dire. **9** Zeren ikusterat, beraz, goan zarete? Profeta baten? Bai, erraten darotzuet, eta profeta baiño gehiago den baten. **10**



Hortaz izan da ezen eskribatua: Huna non igortzen dudane ingurua zure aitzinean, zeiniek aphaindu baidu zure bidea zure aitzinean.

**11** Erraten darotzuet egia: Emastetatik sorthu izan direnen artean, jaiotza ez da Joanez Baptizta baino handiagorik; ordean zeruko Erresuman den xumeena handiago da hura baino. **12** Joanes Baptistaren denboratik hunat, bada, bortxak darama zeruetako Erresuma, eta bortxatarrak daramate. **13** Profeta guziak ezen eta legeak Joanes ethorri arteraino ethorkizunaz mintzatu izan dire. **14** Eta nahi baduzue ungi hartu, hori bera da ethorri beharra zen Elias hura. **15** Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala.

**16** Baiñan zer iduri duela jenderazione hunek erranen dut? Haur batzuen pare da, zeinak plaza batean jarriak bere lagunei oihuz baidagozte, **17** erraten daroela: Kantatu darotzuegu eta ez zarete dantzatu; auhenak egin ditugu eta ez duzue nigarrak isuri. **18** Ethorri izan da ezen Joanes jaten ez edaten ez zuela, eta diote: Deabruaz poseditua da. **19** Gizonaren Semea, berriz, ethorri da jaten eta edaten duela eta diote: Horra gizon bat jale eta edaille handia, publikanoen eta jende bekhatoren adiskidea. Baiñan zuhurtzia justifikatua ditekete bere umeez».

**20** Orduan hasi zitzaizen erantzuten hiriei, zeinetan egin izan baitzituen hainitz mirakuillu, zeren ez zuten egiten penitentzia: **21** «Zorigaitz hiretzat, Koro-zain; zorigaitz hiretzat, Bethsaida! Zeren Tiren eta Sidonen egin izan balire zuetan egin izan diren mirakuilluak, aspaldi egiñen baitzuten penitentzia zakhu eta hautspean. **22** Hargatik darotzuet erraten: Juiamenduko egunean Tir eta Sidon ez direla hain garraxki tratatuak izanen nola zuek. **23** Eta hi, Kafarnaum: bethi haiz, bada, zeruraino altxatuko? Ifernuraino behekatua izanen haiz; zeren Sodoman egin izan balire hi baitan egin izan diren mirakuilluak, benturaz oso iganen baitzen egungo eguneraino. **24** Hargatik darotzuet erraten, juiamenduko egunean ez dela hain garraxki izanen tratatua Sodomako herria nola hi».

**25** Denbora hartan Jesusek erran zituen hitz hauk: «Eskerrak darozkit, ene Aita, zeruaren eta lurraren Jauna, zeren estali diotzotzuten hauk munduko zuhurrei eta prudentei eta erakutsi diotzotzuten sinpleei eta xumeei. **26** Baike, ene Aita; hori heldu da, zeren horla nahi izan baiduzu. **27** Ene Aitak niri eman darozkit gauza guziak; eta nihork ez du eza gutzen Semea Aitak baizen, eta nihork ez du ezagutzen Alta Semeak baizen eta Semeak erakutsi izan nahi dioenak baizen.

**28** Zatozte ene ganat enkoniatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik deskaristatuko zaituztet. **29** Har zazue ene ustarrria zeuen gaiñerat eta ikhas zazue ene ganik manso eta humill naizela bihotzez eta aurkhituko duzue zuen arimen sosegua. **30** Ene ustarrria estia da ezen eta ene karga ariña».

## XII. KAP.

**1** Denbora hartan Jesus ziohan ogipetik larunbat egun batez eta haren dizipuluak gose izanez, hasi ziren ogi buru hausten eta jaten. **2** Farisauak, bada, hori ikusirik erran zioten: «Horra non egiten duten zure dizipuluek larunbat egunetan egitea zilhegi ez dena». **3** Baiñan hark erran zaroen: «Ez duzue irakurri zer egin izan zuen Dabidek, bera eta bere lagunak gose izan ziren batez, **4** nola sarthu izan zen Jainkoaren etxean eta jan zituen ofrendako ogiak, zeinetarik ez baitzitzaien zilhegi, ez harekien zirenei ere jatea, aphez xoiliei baizen? **5** Ala ez duzue irakurri legean, larunbat egunetan aphezek tenpluan larunbata hausten dutela eta hala ere hoben gabe direla? **6** Erraten darotzuet, bada: Tenplua baino zerbaitago da hemen dena. **7** Baziñakite zer erran nahi duen hunek: Nahiago dut urrikalmendua ezen ez sakrifizioa, ez bide zinituzten sekulan kondemnatuko inozentak. **8** Nausi da ezen Gizonaren Semea larunbataren ere».

**9** Eta handik aldaratu eta, ethorri izan zen hekien Sinagogarat, **10** zeinetan aurkhitu baitzen gizon bat esku bat elkortua zuena, eta galdez zegozkon, hura zerbaitetan akusatu nahiz, hea zillegi zen larunbat egunetan nihor sendatzea. **11** Ihardetsi zaroen hark: «Zein ditekete zuen artean gizona ardi bat lukena eta, hura erortzen bazaio larunbat egun batez putzu batean, harturik handik athera ez lezakena? **12** Bada zenbatez ez da baliosagoa gizona ardia baino? Beraz zilhegi da ungi egitea larunbat egunetan». **13** Orduan erran izan zioen gizon hari: «Heda zazu zure eskua». Hedatu zuen eta egin zitzaioen bertzea bezain sendo. **14** Baiñan farisauak ilkhirik, hasi ziren konseillu atxikitzen haren kontra, nola hura gal othe zezaketen.

**15** Hori jakinik, bada, Jesus aldaratu zen handik eta hainitz presuna jarraiki zitzaizkon eta guziak sendatu zituen. **16** Eta manatu zaroen, ez zezatela hura ager. **17** Konplitua izan zedintzat Isaiaz profetak erran zuena: **18** «Huna non den ene zerbizaria, hautatu izan dudana, ene maitea, zeinetan ezarri baidut ene konplazentzia guzia; pausatuko dut ene



Izpiritua horren gainean eta irakatsiko diote nazioneei justutasuna. **19** Ez du ihardukiko, ez eginen oihurik, eta nihork ez du adituko horren boza karrketan. **20** Ez du hautsiko seska arrailatua eta ez du iraungituko oraiño khea duken mitxa, biktoriaat athera dezaken artean juiamendua. **21** Eta haren izenean izanen dute nazionek esperantza».

**22** Orduan ekharri zioten aitzinerat deabruaz poseditua zen bat, itsua eta mutua, eta sendatu zuen halako maneraz, non hasi baitzen mintzatzen eta ikusten. **23** Eta populu guzia jarri zen espantitua, eta zioten: «Ez othe da hau Dabiden Semea?». **24** Baiñan farisauek hori aditurik erran zuten: «Hunek ez ditu deabruak khentzen Beelzebut deabruen prinzearen bertutez baizen». **25** Jesusek, bada, ezaguturik hekien gogoramenduak, erran izan zaroen: «Bera beraren kontra partitua diteken erresuma guzia iraulia izanen da eta bera beraren kontra partitua diteken hiriak edo etxeak ezin iraunen du. **26** Baldin Satanek Satan khentzen badu, bere kontra partitua da; nola, bada, iraunen du haren erresumak? **27** Eta baldiñ nik Beezebuten berthutez khentzen baditut deabruak, zuen umeek noren berthutez dituzte khentzen? Horren gatik, bada, izanen dire hek berak zuen juie. **28** Baldiñetariak ordean nik Jainkoaren izpirituaz khentzen baditut deabruak, beraz zuetaraino heldu izan da Jainkoaren Erresuma. **29** Baiñan nola sar ahal daiteke nihor borthitzaren etxean eta eraman ahal detzake haren armak eta haren gauzak, non ez duen lehenik amarratzen borthitza, gero ondoan arrobatzeko haren etxea? **30** Enekiek ez dena ene kontra daiteke eta enekien biltzen ez duena barriatzen hari da.

**31** Hargatik darotzuet erraten: Zer nahi den bekhatu eta blasfemia barkhatua izanen zaie gizonei, baiñan Izpiritu Sainduaren kontrako blasfemia ez zaie barkhatuko. **32** Nor nahi mintzatu diteken Gizonaren Semearen kontra barkhatuko zaio; baina baldin nihor mintzatu bada Izpiritu Sainduaren kontra, ez zaio barkhatuko ez mende huntan eta ez ethorkizuneko mendean. **33** Edo errazue arbola bat ona dela eta haren fruitua ere ona dela, edo errazue arbola gaixtoa dela eta haren fruitua ere gaixtoa dela; ezen fruitutik ezagutzen da arbola. **34** Bipera kasta, nola erran ahal detzaketzue gauza onak zebonek gaixtoak zaretan denboran? Bihotzaren frankiatik mintzo da ezen ahoa. **35** Gizon onak bere thresor onetik ditu atheratzen gauza onak eta gizon gaixtoak bere thresor gaixtotik ditu atheratzen gauza gaixtoak. **36** Bada erraten darotzuet: Gizonek erran duketen hitz alfer guziaz kontu emanen dute juiamenduko egunean. **37** Ezen zeure hitzetarik izanen zare justifikatua eta zeure hitzetarik izanen zare kondenatua».

**38** Orduan ihardetsi izan zioten eskribauetarik eta farisauetarik zenbaitek eta erran: «Nausia, zenbait mirakuillu nahi ginduke ikusi zure ganik». **39** Baiñan ihardetsi izan zaroen hark eta erran: «Kasta gaixto eta adulteros hunek mirakuillu bat galdetzen du eta etzaio emanen bertzerik Jonas profetarena baizen. **40** Ezen Jonas izan zen bezala balearen sabelean hirur egun eta hirur gauzez, hala Gizonaren Semea ere luraren bihotzean hirur egunez eta hirur gauzez egonen da.

**41** Ninibitarak altxatuko dire juiamenduko egunean arraza hunen kontra eta kondenatuko dute, zeren hek penitentzia egin baidute Jonasek predikatzearekin batean; eta bizkitartean hemen dena Jonas baiño gehiagokoa da. **42** Hegoako Erregiña altxatuko da juiamenduko egunean arraza hunen kontra eta du kondenatuko; zeren hura ethorri izatu baida Turraren bertze basterretik Salomonen zuhurtzia aditzerat; eta bizkitartean Salomon baiño gehiagokoa hemen da.

**43** Izpiritu lohia ilkhia ditekenean gizon baten ganik, badoha lekhu agorretarat deskantsu bilha dabillala eta ez du aurkhitzen. **44** Orduan erraten du: Bihurtuko naiz neure etxerat, zeñetarik ilkhi izan bainaiz. Eta ethorriarik kausitzen du hutsa, garbitua eta antolatua. **45** Denbora berean badoha, hartzen ditu berekien bertze zazpi izpiritu bera baiño gaixtoagoak eta sarthurik gelditzen dire han; eta gizon haren azkeneko estatua gaixtoagoa diteke are lehenbizikoa baiño. Horla gerthatuko zaio arraza gaixto huni ere».

**46** Oraiño populuari mintzo zitzaioela, ethorriarik haren ama eta haren anaiak, kanpoan zeudezen harekien mintzatu nahiak. **47** Erran izan zioen bada norbaitek: «Horra non daudezen kanpoan zure ama eta zure anaiak zure galdez». **48** Baina hori erraten zioenari ihardetsi izan zioen eta erran: «Nor da ene ama eta nor dire ene anaiak?». **49** Eta hedaturik bere eskua bere dizipuluetarat: «Huna», diotsa, «ene ama eta ene anaiak. **50** Nork ere ezen egiten baidu ene Aita zeruetan denaren borondatea, hura diteke ene anaia, ene arreba eta ene ama».

### XIII. KAP.

**1** Egun hartan berean etxetik ilkhirik Jesus zegoen jarria itsas baste-  
rean. **2** Eta bildu ziren haren ganat jende aralde haiñitz; horren gatik barku batetarat iganik jarri zen han, populu guzia urbasterrean zegoela. **3** Eta mintzatu zitzaien hainitz gauzez parabolatan erraten zaroelarik:



«Huna non ilkhi izan den ereille bat ereinterat. 4 Eta ereinten hari dela ereintzaren parte bat erori zen bidearen basterrerat eta aireko xoriek ethorririk jan zuten. 5 Bertze parte bat erori zen toki legartsuetarat, zeifetan ez baitzuen bihiak lur hainitzik; eta berehala ilkhi zen, zeren hura zen lurrak ez baitzuen loditasunik. 6 Baiñan iguzkia altxatu eta, errea izan zen eta, nola ez baitzuen egin errorik, ihartu zen. 7 Bertze parte bat erori izan zen otheperat eta otheak handitu ziren eta itho zuten. 8 Bertze parte, bada, erori izan zen lur onerat eta ekharri izan zuen bihi batee ehunka, bertzeak hirur hogoika, bertzeak hogoi eta hamarka. 9 Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala».

10 Bere dizipuluek hurbildurik erran zioten: «Zergatik mintzo zaizte hitz estalitan?». 11 Eta ihardetsi zaroen eta erran: «Zeren zuei eman izan baitzaitzue zeruetako Erresumako misterioak ezagutzea, baiñan hei ez baitzaie emana izan. 12 Duenari ezen emanen zaio eta izanen du frankiaz; baiñan ez duenari duena ere khenduko zaio. 13 Horren gatik mintzo natzaie hei parabolatan, zeren ikusten dutelarik ez baidute ikusten eta aditzean ez baidute aditzen, ez konprenitzen. 14 Eta konplitzen da hekien baitan Isaias profetak erraten duena: Aditzez adituko duzue eta ez duzue konprenituko, eta ikustez ikusiko duzue eta ez duzue ikusiko; 15 loditu da ezen populu hunen bihotza eta aditze gogorra egin zaie eta bere begiak zarratu dituzte, begiez ez ikusi nahiz, beharriez aditu ez nahiz, bihotzez konpreni ez dezaten eta konberti ez daitezen eta senda ez detzadan. 16 Baiñan dohatsu dire zuen begiak, zeren ikusten baidute, eta zuen beharriak, zeren aditzen baidute. 17 Erraten darotzuet ezen egia: Haiñitz profetek eta justuek dutela desiratu ikustea zuek ikusten duzuen eta ez baidute ikusi, eta aditzea zuek aditzen duzuen eta ez baidute aditu.

18 Zuek, bada, adi zazue ereillearen parabola. 19 Nork ere aditzen baidu Erresumako hitza eta ez baidu hartzen ungi, heldu da izpiritu gaixtoa eta arrapatzen du haren bihotzean erein izan dena; hura diteke bidearen basterrean erein izan dena. 20 Toki harritsuan erein izan dena, berriz, hura da hitza aditzen duena eta berehala bozkarioekien errezibitzen duena; 21 ordean ez du barnean errorik eta ez da denbora batetako bai-zen. Ezen heldu zaioenean atsekaberik eta persekuzionerik hitzaren ariaz, berehala behaztopatzen da eta erortzen. 22 Elhorriean erein izan dena, hura da hitza aditzen duena, baiñan mende huntako antsiak eta aberatsasunen engañioak ithotzen dute haren baitan hitz hura eta fruitu gabe-koa edireten da. 23 Aitzitik lur onean erein izan dena, hura da hitza adi-

tzen duena eta ungi hartzen duena eta fruitua ekhartzen duena: bataak ehun, bertzeak hirur hogoi, eta bertzeak hogoi eta hamar».

24 Bertze parabola proposatu zaroen, erraten zaroelarik: «Zeruetako Erresuma gizon baten iduritako egin da, zeñek erein izan balduke hazi ona bere landan. 25 Baiñan etxe gizonak lo zeudezela, ethorri zen haren etsaia eta erein zuen iraka haren ogiaren erdian eta goan zen. 26 Handitu zenean, bada, belharra eta burutu lastoa, hasi zen iraka ere agertzen: 27 Orduan familiako aitari ethorri zitzaizkon bere sehiak erraterat: Jauna, hazi ona ez duzu zuk erein zure landan? Nondik dire, bada, hemen irakak? 28 Ene etsai den gizon batek egin du hori. Eta bere sehiak erran zioten: Nahi duzu goazen eta bil dezagun? 29 Ihardetsi zaroen: Ez, beldurrez iraka biltzearekien batean athera dezazuen bihi ona ere. 30 Utzatzitzue bata eta bertzea handitzerat uztaraiño, eta uztaren denboran erranen daroet ogi ephaillei: Bil zazue lehenik iraka eta amarra zazue zametan erretzeko; ordean ogia bil zazue ene soillarurat».

31 Proposatatu zaroen berriz bertze parabola bat, erraten zaroelarik: «Zeruetako Erresuma mustarda haziaren iduriko da, zeña gizon batek hartu eta ereinten baidu bere landan. 32 Hazi hura hazi guzietarik xumeena; ordean handitu ditekenean, handiago da bertze belhar guziak baiño eta egiten da arbola bat, halako moldez non aireko hegaztiñak ethortzen baidire haren adarretan pausatzerat».

33 Erran zaroen oraiño bertze parabola bat ere: «Zeruetako Erresuma lemamiaren pare da, zeña emaste batek harturik, estaltzen baidu hirur neurri iriñetan, orre guzia altxa diteken artean».

34 Horiek guziak hitz estalietan erran ziotzaten Jesusek populuari eta ez zitzaien mintzo parabolarik gabe, 35 konplitia izan zedintzat profetaren errana: «Idekiko dut ahoa parabolatan mintzatzeko; irakatsiko ditut mundua kreatua izan denetik gordeak zeudezen gauzak».

36 Orduan populua utzirik, ethorri zen Jesus etxerat eta dizipuluak hurbildu zitzaizkon erraten ziotela: «Explika diezaguzu landako irakaren parabola». 37 Ihardetsi zaroen eta erran: «Hazi ona ereinten duena da Gizonaren Semea; 38 landa da mundua, hazi ona berriz Erresumako umeak dire eta iraka izpiritu gaixtoaren umeak dire. 39 Etsaia, bada, hek erein dituen da, deabrua. Uzta da munduaren akhabantza eta bihi ephailleak dire aingeruak. 40 Irakak, beraz, nola biltzen baidire eta suan erretzen, hala gerthatuko da munduaren akhabantzan ere. 41 Igorriko ditu



Gizonaren Semeak bere aingeruak eta bilduko dituzte haren Erresumatik eskandala emaille guziak eta gaixtakeria egiten duten guziak. **42** Eta egoztiko dituzte suzko laberat; han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak. **43** Orduan justuek distiatuko dute iguzkiak bezala bere Aitaren Erresuman. Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala.

**44** Zeruetako Erresumak iduri du thresor bat landa batean gordea dena; hura aurkhitu duen gizonak gordetzen du eta, hartaz duen bozka-riorekien badoha, dituen guziak saltzen ditu eta erosten du landa hura.

**45** Zeruetako Erresumak iduri du oraiño gizon bat tratuan hari dena eta perla ederren bilha dabillana. **46** Aurkhiturik, bada, perla bat balio handitakoa, goan zen saltzerat zituen guziak eta erosi izan zuen perla hura.

**47** Zeruetako Erresuma oraiño, itsasoan arthikitzen den sare baten pare da, zeñiak arrain suerte guzietarik hartzen baidu. **48** Bethea diteke-  
nean, thiratzen dute arrantzalek uraren basterrerat eta, han jarririk, berez-  
ten dituzte eta ematen onak otharretan eta etxatzen gaixtoak kanporat. **49**  
Hori gerthatuko da mendeen akhabantzan; ilkhiko dire aingeruak eta  
aldaratuko dituzte gaixtoak justuen artetik. **50** Eta arthikiko dituzte suzko  
labetat; han izanen dire nigarrak eta hortzkarraskak.

**51** Konprenitu ditutzue hauk guziak?». Erran zioten hek: «Bai, Jauna». **52** Hark berriz erran zaroen: «Hargatik, bada, eskribau zeruetako Erresuman jakintsun den guzia, familiako alta baten pare da, zeñiek atheratzen baiditu bere thresoretik gauza berriak eta zaharrak».

**53** Eta akhabatu zituenean Jesusek parabola horiek, goan zen handik. **54** Eta ethorri-  
rik bere herrirat irakasten zaroen bere sinagogetan, halako maneraz non miretsirik  
erraten baitzuten: «Nondik othe ditu hunek zuhurtzia hori eta mirakuillu horiek? **55**  
Hau ez da harotz baten semea? Hunen ama ez da Maria deitzen eta hunen anaiak,  
Jakobe, Josef, Simon eta Juda? **56** Eta hunen arrebak ez dire guziak gure artean?  
Non ditu, beraz, hunek horiek guziak?». **57** Eta eskandalisatzen ziren haren  
sujetean. Baiñan Jesusek erran izan zaroen: «Ez da profeta bat ohorerik gabe  
bere herrian baizen eta bere etxean baizen». **58** Eta ez zuen egin han mirakui-  
llu hainitzik, hekien sinhets-gogortasuna zela kausa.

#### XIV. KAP.

**1** Denbora hartan aditu zuen Herodes tetrarkak Jesusen fama, **2** eta  
erran zaroen bere ofizialei: «Hori eki Joanes Baptista da; hura biztu dite-  
ke hilletarik; hargatik mirakuilluak egiten dire haren eskuz». **3** Herodesek  
ezen, harrarazirik Joanes, estekarazi zuen eta ezarrarazi presondegian,  
Herodias bere anaiaren emastea gatik. **4** Joanesek erraten zioen: «Ez zai-  
tzu zilhegi emaste hori izatea». **5** Eta hilarazi nahi baitzuen Herodesek,  
populuaren beldurtzen, zergatik profeta batentzat baitzedukaten. **6** Hero-  
desen sor egunean, bada, dantzatu izan zen Herodiasen alaba gorthearen  
erdian eta agradatu zitzaioen Herodesi, **7** halako moldez, non juramentu-  
rekiek agindu baitzioen emanen zioela galde ziozoken guzia. **8** Eta hark,  
aitzinetik bere amak irakatsi zioen bezala: «Indazu», diotsa, «hemen  
berean plat batean Joanes Baptistaren burua». **9** Tristatu izan zen errege  
galde hortaz, baiñan hala ere, egin izan zuen juramentua gatik eta  
mahaiñean harekien zirenen gatik manatu zuen eman zekioela. **10** Igorri  
zituen denbora berean Joanes Baptistari presondegian burua ebakitzerat. **11**  
Ekharri zioten haren burua plat batean eta eman zioten neskaxa hari  
eta hark eraman zioen bere amari. **12** Haren dizipuluak ethorri-  
rik gero, hartu zuten haren gorputza eta ehortzi zuten eta ethorri ziren Jesusi  
erraterat.

**13** Aditu zuenean hori, goan zen Jesus handik barku batean, aldaru-  
tu nahiz lekhu desertu batetarat, eta populuak hori jakin zuenean, jarrai-  
ki zitzaizkon oiñez hainitz hirietarik. **14** Barkutik ilkhitzean, ikusi zuen  
jende bilduma handi bat, urrikaldu zitzaizkon eta sendatu zituen hekien  
erriak. **15** Arratsa ethorri zenean, ethorri zitzaizkon bere dizipuluak errate-  
rat: «Lekhu mortu bat da hau eta muga jauzia ere da; igorrazitxu jendeak,  
dohazen herrietarat eta eros dezaten jateko behar dutena». **16** Baiñan Jesu-  
sek erran zaroen: «Ez da mengoarik dohazen; emozue zuek jaterat». **17**  
Ihardetsi izan zioten hek: «Ez ditugu hemen bortz ogi eta bi arrain bai-  
zen». **18** Erran zaroen: «Ekhar dietzadatzue niri hek hunat». **19** Eta jende  
tropela hei manaturik jar zitezela belharraren gainean, hartu zituen bortz  
ogiak eta bi arraiñak eta, altxaturik begiak zerurat, benedikatu zituen eta  
zathiturik ogiak eman ziotzaten dizipuluei eta dizipuluek jende hei. **20** Jan  
zuten guziek eta ase ziren eta altxatu zituzten gaiñerakoetarik hamabi  
saski puska bezalakoak. **21** Bada jan izan zutenen nonbrea zen bortz milla  
gizonetakoa, emastez eta haur xumeez landan.

**22** Handik berehala hertzatu zituen Jesusek bere dizipuluak barku  
batetarat igaterat eta hura baiño lehenago iragaterat uraren bertze bazte-  
rrerat, populua igor zezaken bizkitartean. **23** Eta populua igorri zuen





ondoan, igan zen mendi batetarat bera bakharrik othoitzean egoterat eta, arratsa ethorri zenean, berbera zen han bakharrik.

**24** Barkua bizkitartean itsasoaren erdian tiraiñez zehatua zebillan, ezen haizea kontra zuten. **25** Baiñan gauazko laugarren goardian ethorri zitzaien Jesus uraren gaiñean zebillala. **26** Eta ikusi zutenean uraren gaiñean zebillala, altaratu ziren eta erran zuten: «Fantasma ditek». Eta izialduraren podorez hasi ziren oihuz. **27** Berehala Jesus mintzatu zitzaien eta erran zaroen: «Duzuen fidantzia; ni naiz; ez zaitezte la izi». **28** Piarresek ihardetsi zioen eta erran: «Jauna, baldin zu bazare, mana zazu ethor nadin zure ganat uraren gaiñean». **29** Jesusek erran zioen: «Zato». Eta Piarres barkutik jautsirik, abiatu zen uraren gaiñean Jesusen ganat goateko. **30** Baiñan ikusirik haize borthitza zela, izitu zen eta, hasi baitzen ondorat goaten, egin zioen oihu eta erran: «Jauna, salba nazazu». **31** Eta berehala Jesusek eskua hedaturik hartu zuen eta erran zioen: «Gizon fede gutitako, zergatik jarri ere haiz dudatan?». **32** Eta igan zirenean barkurat, gelditu zen haizea. **33** Barkuan zirenak, bada, hurbildu zitzaizkon eta adoratu zuten, erraten ziotela: «Egiazki Jainkoaren Semea zare».

**34** Eta uraren bertze alderat iraganik, ethorri izan ziren Jenesargo lurrerat. **35** Ezagutu zutenean lekhu hartako gizonak, gastiatu zuten inguru hartako herri guzietarat eta ekharri ziotzaten eri guziak, **36** othoizten zutelarik, utz ziozoten bere arrobaren pertalak bederen ukitzerat; eta ukitu zituzten guziak sendatuak izan ziren.

## XV. KAP.

**1** Orduan hurbildu zitzaizkon Jerusalemetik heldu ziren eskribau eta farisau batzu eta erran zioten: **2** «Zergatik zure dizipuluak dohaz zaharren tradizionearen kontra, ez dituzte ezen eskuak garbitzen jaterakoan?». **3** Ihardetsi zaroen hark eta erran: «Zergatik zohazte zebonek Jainkoaren manuaren kontra, zuen tradizioea segitzea gatik? Ezen Jainkoak erran izan du eta manatu: **4** Ohora zatzitzu zure aita eta ama; eta oraiño: Bere aitari edo amari hitz gaixtoak erraten diotzana, izan dadillala heriotzez punitua. **5** Eta zuek aitzitik diozue: Nork ere erranen baidio bere aitari edo amari: Nik Jainkoari ofrendatzen diodan guzia zuen probetxuko ditek, **6** egon ahal daitek haiña bere aita edo ama lagundu gabe. Eta manera hortan ezeztatzen duzue Jainkoaren manamendua, zaharrek utzirikako errana dela kausa. **7** Hipokritak, ala ungi pensatu izan baidu zuetaz Isaia-

sek erran izan duenean: **8** Populu hunek ezpainez ohoratzen nau; haukien bihotza ordean urrun da ene ganik, **9** bada alferrik ohoratzen naute, gizonen doktrinak eta ordenuak irakazten dituztenean».

**10** Eta deithurik bere ganat populua, erran zaroen: «Adi zazue hau eta har zazue ungi. **11** Ez du ahoan sartzen denak lizuntzen gizona, baiñan ahotik ilkhiltzen «denak lohitzten du gizona». **12** Orduan hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak eta erran zioten: «Badakizu farisauak hitz hori aditurik eskandalisatu direla?». **13** Baiñan hark ihardetsi zaroen eta erran: «Ene Aita zeruetakoak landatu ez duken landare guzia erroetarik atheratua ikanen da. **14** Utzatzue horiek,itsuak dire eta itsuen gidariak; bada itsu batek gidatzen badu bertze bat, biak erortzen dire hosiñean».

**15** Piarresek hitza harturik, erran izan zioen: «Explika diezaguzu parabola hori». **16** Jesusek ihardetsi zioen: «Oraiño zuek ere adimendu gabe zarete? **17** Ez duzue konprenitzen ahoan sartzen den guzia sabelerat dohala eta sekretetarat etxatzen dela? **18** Baiñan ahotik ilkhiltzen direnak bihotzetik heldu dire eta hek lohitzten dute gizona. **19** Bihotzetik heldu dire ezen gogoeta gaixtoak, gizon hiltzeak, adulterioak, lohikeriak, ebasakoak, falso testimonioak, blasfemioak. **20** Horiek dire gizona lizuntzen dutenak; bainan eskuak garbitu gabe jateak ez du gizona lohitzten».

**21** Jesus handik ilkhirik, aldaratu zen Tirgo eta Sidongo partetarat. **22** Eta emaste kanaandar bat, baster hetarik ilkhia, hasi zitzaioen oihuz, erraten zioela: «Nauzun urrikari, Jauna, Dabiden Semea; ene alaba dut hagitz tormentatua deabruaz». **23** Baiñan ez zioen hitzik ihardetsi eta, hurbildurik bere dizipuluak, jarri zitzaizkon othoizten, erraten ziotela: «Egizu galdetzen duena eta igorrazu, zeren oihuz baidarraiku ondotik». **24** Ihardetsi zaroen eta erran: «Ez naiz igorria Israelgo etxeko ardi galduetarat baizen». **25** Baiñan hura hurbildu zitzaioen eta adoratu zuen, erraten zioela: «Jauna, heltzakizkit». **26** Ihardetsi zioen eta erran: «Ez da justu haurren ogia hartzea eta ozarrei ematea». **27** Hark berriz erran zioen: «Hala da, Jauna; ordean potxo xumee ere bederen jaten dute bere nausien mahaiñetik erortzen diren papurretarik». **28** Orduan Jesusek ihardetsi izan zioen eta erran: «O emastea, handia dun hire fedea; egin bekin desiratzen dunana». Eta sendatua izan zen haren alaba ordu berean.

**29** Jesus handik aldaraturik, ethorri zen Galileako itsas-basterretik eta mendi baten gaiñerat iganik, jarri zen han. **30** Ethorri zitzaizkon hainitz jende aralde, berekien zakharzetela mutuak,itsuak, mainguak, hebainduak eta hainitz bertze eri suerte, zeiañak etxatu baitzituzten haren oiñeta-



rat eta sendatu zituen; **31** halako maneraz, non miretsiak jarri baitziren jende hek, ikusirik mutuak mintzo zirela, mainguak xuxen zabiltzala, itsuek ikusten zutela; eta handiesten zuten Israelen Jainkoa.

**32** Jesusek, bada, bildurik bere ganat bere dizipuluak, erran zaroen: «Urrikaltzen zaizkit jende hauk, zeren hirur egun huntan enekien baidau-dez eta ez baidute jatekorik; eta ez ditut nahi jan gabe igorri, bidean flaka ez daitezen». **33** Dizipuluek ihardetsi izan zioten: «Nondik izanen dugu desertu huntan ogirik aski horrenbertze jende asetzeko?». **34** Jesusek berriz erran zaroen: «Zenbat ogi ditutzue?». Ihardetsi izan zioten hek: «Zazpi eta zenbait arrain xume». **35** Orduan Jesusek manatu zuen popu-lua jar zedillala lurraren gainean. **36** Gero harturik zazpi ogiak eta ziren arraiñak eta, eskerrak bihurturik, hautsi zituen eta eman ziotzaten bere dizipuluei, eta dizipuluek eman ziotzaten populuari. **37** Guziek jan izan zuten eta ase ziren; eta sobra gelditu ziren pusketarik eraman zituzten zazpi otharre betheak. **38** Ziren, bada, jan izan zutenak laur milla gizon, haur xeheak eta emasteak bertze alde. **39** Populua despeitu ondoan, igan zen Jesus barku batetarat eta ethorri izan zen Majedango bazterretarat.

## XVI. KAP.

**1** Orduan farisauak eta saduzearrak ethorri zitzaizkon tentatzera eta egin zioten othoitz, erakuts ziozatela zenbait seiñale zerutikako. **2** Baiñan ihardetsi zaroen: «Arratsean erraten duzue: denbora ederra izanen da, gorri da ezen zerua. **3** Eta goizean erraten duzue: gaur denbora xarra egiñen du, gorrikara da ezen eta goibeldua zerua. **4** Badakizue, beraz, zeruaren iduririk juiatzen eta ez dakizue, bada, ezagutzen Jainkoaz markatuak diren denboren seinaleak? Arraza gaixto eta adulterios hunek seiñale bat galdetzen du eta ez zaio bertzerik emanen, Jonas profetarena baizen». Eta goan zen hek utzirik.

**5** Ahantzi zitzaien, bada, haren dizipuluei ogien hartzea, uraren ber-tze alderat iragatean. **6** Jesusek erran zaroen: «Begirautzue behintzat fari-sauen eta saduzearren orhantzatik». **7** Bainen hei gogorat ethorri zitzaien eta zioten bere baitan: «Ez dugu hartu ogirik». **8** Jesusek ordean hori eza-guturik, erran izan zaroen: «Zergatik darasazue zeben baitan ez duzuela hartu ogirik, gizon fede aphurretakoak? **9** Ez duzue oraiño konprenitzen eta ez zarete orhoitzen bortz ogi bortz milla gizonentzat aski izan zire-nez? Eta zenbat saski eraman zinituzten? **10** Eta ez, zazpi ogi laur milla

gizonentzat aski izan zirenez? Eta zenbat otharre eraman zinituzten? **11** Nola ez duzue konprenitzen ez nitzaitzuela ogiz mintzo, erratean: Begira zinezazuela farisauen lemamitik eta saduzearren altxagarritik?». **12** Orduan konprenitu zuten ez zaroela erran, begira zutela ogiaren orhantzatik, baiñan bai farisauen eta saduzearren dotrinatik.

**13** Ethorri zen, bada, Jesus Kaesar Filipeko parteetarat eta interro-gatu zituen bere dizipuluak, erraten zaroela: «Nor diote gizonak dela Gizonaren Semea?». **14** Ihardetsi izan zioten hek: «Batzuek Joanes Baptis-ta, bertzeek Eliaz, bertze batzuek berriz Jeremias edo profetetarik zen-bait». **15** Jesusek erran izan zaroen: «Eta zuek nor naizela diozue?». **16** Simon Piarresek hitza harturik erran zioen: «Zu baitzare Kristo, Jainko biziaren Semea». **17** Jesusek, bada, ihardetsi izan zioen eta erran: «Doha-tsu zare, Simon Joanesen semea, zeren ez baidarotzu hori irakatsi hara-giak ez odolak, bainen bai ene Aita zeruetan denak. **18** Bada nik zuri erra-ten darotzut Piarres zarela eta harri horren gainean bastituko dudala ene Eliza eta ifernuko atheak ezin hari garaituko zaizkola. **19** Emanen daroz-kitzut zeruetako Erresumaren gakhoak. Zer ere zuk estekatuko baiduzu lurraren gainean, eta hura estekatua izanen da zeruetan ere; eta zer ere zuk lexatuko baiduzu lurraren gainean, eta hura lexatua izanen da halaber zeruetan ere». **20** Denbora berean manatu zaroen bere dizipuluei ez zio-zatela nihori erran hura zela Jesus Kristo.

**21** Ordutik hasi zitzaien Jesus bere dizipuluei erakutzten goan behar-ko zuela Jerusalemerrat eta hainitz pairatu hango aitzin gidarien partetik, eskribauetarik eta aphezen prinzeetarik; hillen zutela eta hirur garren egu-nean biztuko zela. **22** Eta aparterat harturik, hasi zitzaioen Piarres eran-tzuten, ziotsolarik: «Baldinba ez, Jauna, ez bide zaitzu gerthatuko horla-korik». **23** Baiñan itzulirik erran izan zioen Jesusek Piarresi: «Zohaz ene ganik, Satana, eskandala zaitut nik zu, zergatik ez baiduzu gusturik Jain-koaren gauzentzat, aitzitik bai lurrekoentzat».

**24** Orduan Jesusek erran izan zaroen bere dizipuluei: «Nihork nahi badu ethorri ene ondotik, egin bioza ukho bere buruari eta jasan beza bere gurutzea eta jarraik bekit niri. **25** Nork ere ezen nahiko baidu bere burua salbatu, eta hark galduko du; eta nork ere galduko baidu bere burua ene gatik, eta hark aurkhituko du. **26** Zer probetxu luke ezen gizonak mundu guzia ere irabaztea, baldin bere arima galtzen badu? Edo zer eman dezake bere arimaren ordain? **27** Ezen Gizonaren Semea ethorriko da bere Aitaren glorian bere aingeruekien; eta orduan bihurtuko dio batbe-



derari bere obren arauera. **28** Erraten darotzuet egia: Badire hemen direnetarik zenbait, heriotzea frogatuko ez dutenak, ikus dezaketen artean Gizonaren Semea bere Erresuman heldu dela».

## XVII. KAP.

**1** Handik sei egunen buruan Jesusek harturik berekien Piarres eta Jakobe eta Joanes, haren anaia, eraman zituen apart mendi gora batetarat. **2** Eta tranfiguratua izan zen hekien aitzinean. Haren bisaia distiatzen zuen iguzkiak bezala eta haren bestimendak egin ziren xuri elhurra bezala. **3** Betbetan agertu zitzaizten Moisez eta Elias harekien mintzo zirela. **4** Piarresek, bada, erran izan zioen Jesusi: «Jauna, on da hemen izatea; plazer baduzu, egitziun hemen hirur etxola, bata zuretzat, bertzea Moiserentzat eta bertzea Eliasentzat. **5** Mintzo zen oraino, eta betbetan hedoi argitsu batek estali izan zituen; betbetan boz bat ilkhi zen hedoiptetik erraten zuena: «Hauxe da ene Seme maitea, zeinetan baita ene atsegin guzia; hau adi zazue». **6** Dizipuluak hori aditurik, erori ziren bisaiaz lurrerat eta izialdura handi batez sesituak izan ziren. **7** Baiñan Jesus hurbildu zitzairen, ukitu zituen eta erran zaroen: «Altxa zaitezte eta ez duzuela beldurrik». **8** Orduan begiak altxatu eta, ez zuten ikusi nihor Jesus berbera baizen. **9** Eta menditik jausten hari zela, manatu zaroen Jesusek eta erran: «Ez diozuzuela nihori erran zer ikusi duzuen, Gizonaren Semea hilletarik bitz daiteken artean».

**10** Orduan dizipuluek galdegin zioten eta erran: «Zergatik, bada, eskribauek erraten dute, Eliasek lehenago ethorri behar duela?». **11** Baiñan Jesusek ihardetsi izan zaroen eta erran: «Egia da Elias ethorri beharra dela eta gauza guziak bere estaturako dituela. **12** Baiñan erraten darotzuet nik: Elias jadan ethorri izan dela eta ez dute ezagutu; aitzitik, egin dute haren gainean nahi zuten guzia; hala sofriaraziko ere diote Gizonaren Semeari». **13** Orduan konprenitu zuten dizipuluek Joanes Baptizat mintzatu zitzaie-la.

**14** Eta ethorri izan zenean populua ganat, hurbildu zitzaioen gizon bat eta haren aitzinean belhauniko jarririk, erran zioen: «Jauna, urrikal bekizu ene semea, zeren ilhargi-aldiak baiditu eta hainitz sofritzen baidu; ezen maiz erortzen da surat eta urerat ere. **15** Ekharri izan diotet zure dizipuluei eta ezin sendatu dute». **16** Jesusek bada ihardetsi izan zioen eta erran: «O jenderazione sinhets gogorra eta gaizkoatua; noiz artean izanen

naiz zuekien? noiz artean sofrituko zaituztet? Ekhar diezadazue hura niri hunat». **17** Eta Jesusek mehatxaturik deabrua, ilkhi zen haren ganik eta sendatu zen haurra ordu beretik. **18** Orduan hurbildu zitzaizkon dizipuluak ixillik Jesusi eta erran izan zioten: «Zerengatik othe guk ezin khendu dugu deabru hura?». **19** Jesusek erran zaroen: «Zuen sinhets gogortasuna dela kausa. Erraten darotzuet ezen egia: Baldin bazindute sinave hazia bezanbateko fedea, erran ziniozokete mendi horri: Aldara zaite hemendik horrat, eta aldaratuko liteke, eta deusere ez litzaiketue ezin eginik. **20** Baiñan deabru suerte horiek ez dire khentzen orazioneaz eta baruraz baizen».

**21** Galilean zirela, bada, erran izan zaroen Jesusek: «Gizonaren Semea libratua izan beharra da gizonen eskuetarat. **22** Hillaraziko dute eta hirur garren egunean bitztuko da hilletarik». Eta tristatu izan ziren hortaz handizki.

**23** Eta ethorri izan zirenean Kafarnaumerat, hurbildu zitzaizkon Piarresi didrakmen tributua hartzen zutenak, eta erran zioten: «Zuen nausiak ez ditu pagatzen bidrakmak?». **24** Erran zioen hark: «Bai, bada». Eta etxean sarthu zenean aitzindu zitzaioen Jesus erraterat: «Zer zaitzu, Simon? Lurreko erregeek noren ganik hartzen dute zergera? bere umeenganik ala atzeetarik?». **25** Ihardetsi zioen hark: «Atzeetarik». Erran izan zioen Jesusek: «Beraz hartarik libro dire umeak? **26** Bainan eskandalisa ez detzagun jende horiek, zohaz itsasorat eta etxa zazu amua eta lehenbizi atzamanen den arraiña har zazu eta, ahoa zabaldu diokezunean, aurkhituko diozu laur drakmako bat; hura harturik emozute enetzat eta zuretzat».

## XVIII. KAP.

**1** Denbora hartan hurbildu ziren dizipuluak Jesusen ganat eta erran zioten: «Nor othe da zeruetako erresuman handiena?». **2** Eta Jesusek erakharririk haur xume bat, ezarri zuen hekien erdian **3** eta erran zaroen: «Erraten darotzuet egia: Baldin ez bazarete konbertitzen eta egiten haur xume batzu bezala, ez zarete sarthuko zeruetako Erresuman. **4** Nor ere, beraz, humiliatuko baida eta egiñen haur xume hau bezala, hura diteke handiena zeruetako Erresuman. **5** Eta nork [ere] errezibituko baidu hunelako haur xume bat ene izenean, ni neroni nauke errezibitzen. **6** Eta baldin nihork eskandalisatzen badu ene baitan sinhesten duten xume hautarik bat, hobe lizate harentzat eman diozoten errota barri bat lephotik



dilindan eta etxa dezaten itsasoa behera. **7** Zorigaitz munduarentzat eskandalengatik, mengoa da ezen gertha daitezen eskandalak. Ordean zorigaitz gizon harentzat, zeïnen ganik heldu baida eskandala.

**8** Baldiñetariak, bada, zure eskuak edo zure oiñak eskandalisatzen bazaitu, ebaki zatzitzu eta egotz urrun zure ganik. Hobe da zuretzat bizitzean sar zaitezen manxar edo maingu, ezen ez bi eskuak edo bi zangoak ditutzula etxatua izan zaitezen su eternalerat. **9** Eta baldin zure begiak eskandalisatzen bazaitu, iraz zazu eta arthik urrun zuganik; hobe da zuretzat begi bakhar batekien sar zaitezen bizitzean, ezen ez bi begiak dituzula arthikia izan zaitezen ifernuko surat.

**10** Begirautzue xume hautarik bat ere meziprezatzetik; erraten darozuet ezen horien aingeruek zeruetan bethi dutela ikusten ene Afta zeruetan denaren bisaia. **11** Ezen Gizonaren Semea ethorri izan da galdua zena salbatzerat. **12** Zer zaitzue? Baldin gizon batek balitu ehun ardi eta hetarik bat errebelatzen balitzaio, ez lioake laur hogoi eta hemeretziak mendietan utzirik bilhatzerat errebelatu izan zaiोजना? **13** Eta gerthatzen baldin bada aurkhi dezan, erraten darozuet egia: Bozkario gehiago duela hartaz, ezen ez laur hogoi eta hemeretzirebelatu ez direnez. **14** Hala ez da zuen Aita zeruetan denaren borondatea gal dadin xume hautarik batere.

**15** Baldiñetariak, bada, zure anaiak bekhatu egiten badu zure kontra, zohaz eta erakuts diozozu bere falta zure eta haren artean partikularrean. Aditzen bazaitu, irabazi dukezu zure anaia. **16** Baiñan aditzen ez bazaitu, har zatzu oraiño zeurekien presuna bat edo bia, gauza guzia egon dadin bi edo hirur lekhukoen ahoan. **17** Baldinetariak hek ere aditzen ez baditu, errozu Elizari; eta aditzen ez badu Eliza ere, beha diozozu pagano bati eta publikano bati bezala. **18** Erraten darozuet egia: Zer ere amarratuko baiduzue lurraren gaiñean, eta hura amarratua izanen da zeruan ere; eta zer ere desamarratuko baiduzue lurraren gaiñean, eta hura desamarratua izanen da zeruan ere.

**19** Berriz ere darozuet erraten, baldinetariak zuetarik bia akort badiere elkharrekien lurraren gaiñean, zer nahi galdetuko duketenen gauzaren gaiñean, ardietsiko dutela ene Aita zeruetan dena ganik. **20** Non ere ezen izanen baidire bia edo hirur bilduak ene izenean, han naiteke hekien erdian».

**21** Orduan hurbildu zen Piarres haren ganat eta erran zioen: «Jauna, zenbat alditaraiñoakoan ofensatu nauenean ene anaiak barkhatu beharko

diot? zaspitarainokoan?». **22** Jesusek ihardesten dio: «Ez daroztut erraten zaspitaraiñoakoan, baiñan hirur hogoi eta hamarretan zaspitaraiñoakoan.

**23** Hargatik da zeruetako Erresuma konparatua errege batekien, zeïnek nahi izan baitzaroen kontu errendarazi bere sehie; **24** eta kontuen hartzen hasi zenean, ekharri zioten aitzïnerat bat, zeïnak zor baitziotzan hamar milla talentu. **25** Nola bada ezbaitzuen bihurtzekorik, manatu izan zuen haren nausiak sal zezatela hura, haren emastea, haren haurrak eta hark zituen guziak, eta bihuraz ziozotela zor zuena. **26** Sehi hark bere burua haren oiñetarat etxaturik othoizten zuen, erraten zioela: Jauna, har diezadazu pasientzia eta guziak pagatuko darozkitzut. **27** Sehi haren nausiak, bada, urrikalmendu harturik hartaz, utzi zuen goaterat eta barkhatu izan zioen bere zorra.

**28** Ilkhitzean bada handik sehi hura, aurkhitu zuen bere sehi lagun bat ehun denario zor ziotzana, eta lephotik itho hurrena zarabillan, erraten zioela: Bihur diezadak zor darotakana. **29** Eta sehi lagun hark bere burua haren oiñetarat arthikirik, othoizten zuen erraten zioela: Duzun aphur bat pasientzia eta guziak pagatuko darozkitzut. **30** Baiñan hark ez zuen nahi izan aditu ere; aitzitik goan zen eta emanarazi zuen preso, bihur ziozoken artean zor zioena. **31** Ikusirik, bada, haren sehi lagunek zer iragaten zen, pena handi bat hartu zuten eta ethorri zitzaizkon bere nausiarri erraterat iragan ziren guziak. **32** Orduan erakharri zuen bere nausiak eta erran zioen: Sehi gaixtoa, barkhatu izan daroat zor ninduan guzia, zeren othoiztu izan nauan. **33** Ez zitzaikan, bada, hiri ere urrikaldu behar hire sehi laguna, niri hi urrikaldu hatzaitan bezala? **34** Eta hasarraturik eman izan zuen bere nausiak burreuen eskuetarat, zor zioen guzia paga ziozon artean. **35** Horlaxe egiñen daroztue zuei ere ene Aita zeruetakoak, baldinetariak zuetarik bat bederak barkhatzen ez badiozue zuen anaiari bihotz onez».

## XIX. KAP.

**1** Jesus, akhabatu ondoan solhas horiek, goan izan zen Galileatik; eta ethorri zen Judeako basterretarat Jordango bertze alderat. **2** Jarraiki zitzaizkon jende tropela hainitz eta sendatu izan zituen hekien eriak. **3** Hurbildu zitzaizkon, bada, farisauak ere hura tentatu nahiz eta erran izan zioten, hea zilhegi othe zitzaioen gizon bati bere emastea uztea zernahigatik. **4** Ihardetsi izan zaroen eta erran: «Ez duzue irakurri, hastetik



gizona egin zuenak gizona eta ematea egin zituela eta erran izan zaroela: **5** Arrozoin horren gatik utziko ditu gizonak bere aita eta ama eta atxiki-ko du bere emastearekien eta izanen dire biak bat haragi batean? **6** Eta hala gaugoro ez dire bia, baiñan haragi bat; beraz Jainkoak juntatu izan duena gizonak ez beza aparta». **7** Hek berriz erran zioten: «Zergatik, bada, exleitu izan du eman dakioela emasteari separazioneko eskribua eta utz dadilla?». **8** Ihardetsi zaroen: «Zuen bihotzen gogortasuna dela kausa permititu izan darotzue Moisek zuen emasteak utzte; baiñan hastetik ez da horla izatu. **9** Bada erraten darotzuet: Nork ere utzten baidu bere ematea, adulterioaren kasuz landan, eta hartzen baidu bertze bat, adulterioa egiten duela; eta bertze batez utzia izan denarekien ezkontzen denak ere, adulterioa egiten duela». **10** Bere dizipuluek erraten diote: «Gizonaren kondizioea emastearen alderat horlakoa baldin bada, ez da on ezkontzea». **11** Erran izan zaroen: «Ez dire guziak gai hortakotz, haiñak baizen, zeinei eman izan baitzaie zerutik. **12** Badire ezen ebakiak bere amaren sabelean danik halako sorthu direnak; badire ebakiak, gizonak hala egin dituztenak, eta badire berak ebakitzat egin izan direnak zeruetako Erresuma irabaztea gatik. Har ahal dezakenak hori, har dezala».

**13** Orduan ekharri ziotzaten haur xume batzu, eskuak pausa ziotzaten amoregatik buruen gainean, eta hekientzat othoitz egin zezan gatik; eta dizipuluek arbuiatzen baitzituzten, **14** Jesusek erran izan zaroen: «Utzatzue haur horiek eta ez detzatzuela debeka ene ganat ethortzetik; horlakoena da ezen zeruetako Erresuma». **15** Eta eskuak hei pausatu ondoan, goan zen handik.

**16** Denbora berean gizon gaste bat hurbildu zitzaioen eta erran zioen: «Nausi ona, zer ungi egin behar nuke bizitze eternala ardiesteko?». **17** Jesusek ihardetsi izan zioen: «Zergatik deitzen nauzu ona? Jainkoa bera da bakharra ona dena; nahi baduzu, bada, bizitzean sarthu, begira zatzu manamenduak». **18** Galdegin zioen: «Zein manamendu?». Jesusek erran zioen: «Ez duzu nihor hillen, ez duzu eginen adulteriorik, ez duzu ebatsiko, ez duzu erranen faltso testimoniorik, **19** ohora zatzitzu zure alta eta zure ama eta malta zazu zure lagun proximoa zeure burua bezala». **20** Erran zioen gizon gaste hark: «Horiek guziak goardatu ditut ene gasteda-sunetik; zer dut oraiño eskas?». **21** Jesusek erran izan zioen: «Nahi baduzu izan perfet, zohaz, sal zatzu ditutzunak eta emotzute pobreei, eta izanen duzu thresor bat zeruan; eta gero zato, jarraik zakizkit niri». **22** Aditu zuenean, bada, gizon gaste hark hitz hori, goan zen guziz tristatua, zeren ontasun handien jabe baitzen.

**23** Eta Jesusek erran zaroen bere dizipuluei: «Erraten darotzuet egia: Aberats bat nekhez sarthuko dela zeruetako Erresuman. **24** Berriz ere darotzuet erraten: Errexago da kamelu bat iragatea orratz baten xillotik, ezen ez aberats bat sartzea zeruetako Erresuman». **25** Aditurik horiek, Apostoluak balditu izan ziren handizki, zioten ezen: «Nor salba ahal dai-teke, beraz?». **26** Jesusek, bada, behaturik erran zaroen: «Gizonentzat hori ezin egina da; ordean Jainkoarentzat guziak eginkidin dire».

**27** Orduan Piarresak hitza harturik, erran izan zioen: «Huna guk non utzi ditugun guziak eta jarraiki gaitzkitzun; zer izanen dugu bada sari?». **28** Jesusek bada erran zaroen: «Erraten darotzuet egia; zuek, niri jarraiki zaizkidatenak, Rejenerazioneko denboran, Gizonaren Semea jarriko denean bere Majestatearen thronuan, jarriko zaretela zuek ere hamabi thronuen gainean eta juiatuko ditutzuela Israelgo hamabi leinuak. **29** Eta nork ere utziko baiditu bere etxea edo bere anaiak edo arrebak edo bere alta edo ama edo bere emaztea edo bere haurrak edo bere lurak ene izena gatik, haiñak izanen duela ehunetan hainbertze eta bizitze eternalaren jabe izanen dela. **30** Hainitz; bada, izanen dire lehenbizi zirenak azken eta azken zirenak lehenbizi».

## XX. KAP.

**1** Zeruetako Erresuma konparatzen da familiako aita batekien, zeina ilkhi baitzen goiz goizetik langilleak egiterat bere mahatstikotz. **2** Eta langillekien akordaturik denario batean egunekotz, igorri izan zituen bere mahastirat. **3** Ilkhirik oraiño hirugarren orentsuan, ikusi zituen bertze batzu plazan alfer zeudezenak, **4** eta erran zaroen: «Zohazte zuek ere ene mahastirat eta emanen darotzuet behar dena». **5** Eta goan ziren. Ilkhi zen, bada, berriz ere seigarren orentsuan eta bederatzigarrenean ere eta gauza bera egin izan zuen. **6** Fiñean ilkhi izan zen hamekagarren orenaren inguruan, eta aurkhiturik bertze batzu han zeudezenak deus egin gabe, erran zaroen: «Zergatik zaudete hemen egun guzian alfer deus egin gabe?». **7** Ihardetsi zioten hek: «Nihork ez baigaitu eraman». «Zohazte», erran zaroen, «zuek ere ene mahastirat». **8** Arratsa ethorri denean, bada, mahastiarren jabeak erraten dio bere etxegizonari: «Deit zatzitzu langilleak eta emozute jornala, hasi azkenekoetarik eta lehenbizikotaraiño». **9** Hamekagarren orentsuan ethorri zirenek, bada, izatu zuten denario bana. **10** Lehenbizikoak berriz ethorri zirenean, uste izatu zuten izanen zutela gehiago, baiño hek ere ez zuten izatu denario bana baizen. **11** Eta hura hartzean,



erantzuten zuten familiako aitaren kontra, **12** ziotela: «Azkeneko hauk ez dire haritu lanean oren batez baizen eta gure berdin egiten ditutzu, zeñiek jasan izan baidugu egunaren eta beroaren karga». **13** Baiñan hark errepustatzat erran izan zioen hetarik bati: «Adiskidea, ez darotzut egiten bidegaberik; ez zare akordatu enekien eguneko denario batean? **14** Har zazu zure dena eta zohaz; nik nahi diot eman azkeneko huni ere zuri bezanbat; **15** ala ez zait zilhagi nahi dudana egitea? ala zeren naizen ni on, zare zu bekhaizti? **16** Horlaxe izanen dire azkenak lehen eta lehenak azken; hainitzak dire ezen deithuak, gutiak ordean hautatuak».

**17** Jerusalemerat ziohala bada Jesus, hartu zituen hamabi dizipuluak aparterat eta erran zaroen: **18** «Huna non goazen Jerusalemerat eta Gizonaren Semea libratua izanen zaie aphezen prinzeei eta eskribauei, zeinek kondenatuko baidute heriotzerat. **19** Eta libratuko diote jentillei hartaz burla egin dezatentzat eta azota dezatentzat eta gurutzefika dezatentzat; eta bitztuko da hilletarik hirur garren egunean».

**20** Orduan hurbildu zitzaioen Zebedearen semeen ama bere bi semeekien eta adoratu izan zuen, markaturik zerbait nahi ziokela galdetu. **21** Erran izan zioen: «Zer nahi dukezu?». «Errazu», diotso hark, «ene bi seme hauk izan daitezen jarriak bata zure eskuiñean eta bertzea zure ezkerrean zure Erresuman». **22** Ihardetsi zaroen, bada, Jesusek eta erran: «Ez dakizue zer galdetzen duzuen. Edan dezakezue nik edan behar dudan kalixetik?». Erran zioten hek: «Edan dezakegu». **23** Hark berriz erran zaroen: «Hala da. Ene kalixetik edanen duzue; ordean ene eskuiñean edo ezkerrean jartzea ez da ene baitan zuei ematea, baiñan hainentzat izanen da, zeinei preparatu baidaroe ene Aitak». **24** Eta hori aditurik bertze hamarrek, hasarratu ziren bi anaien kontra. **25** Jesusek, bada, erakharri zituen bere ganat eta erran zaroen: «Badakizue jentillen prinzeak nausitzen zaiztela eta hekien artean handien direnek eskudantziarekien tratatzen dituztela. **26** Ez da hala izanen zuen artean; baiñan nork ere nahiko baidu izan zuen artean handien, izan bedi haiña zuen zerbitzari; **27** eta nork ere nahiko baidu izan zuen artean lehenbiziko, izan bedi haiña zuen sehi. **28** Hala nola Gizonaren Semea ez baida ethorri izan zerbitzatua izaterat, baiñan bai zerbitzazterat eta bere bizia ematerat hainitzen erresketamenduarentzat».

**29** Jerikotik ilkhitzen hari zirela, jarraiki zitzaizkon jende aralde hainitz. **30** Eta bi itu basterrean zeudezenak aditurik Jesus iragaten zela, hasi zitzaizkon oihuz erraten ziotela: «Jauna, Dabiden Semea, gaitzatzun urrikari». **31** Populuak, bada, mehatxatzen zituen ixillarazi nahiz, baiñan hek

oraino oihua gorago zaramaten erraten ziotela: «Jauna, Dabiden semea, gaitutzun urrikari». **32** Orduan Jesus trikatu zen eta erakharrik, erran zaroen: «Zer nahi duzue egin diezazuedan?». **33** «Jauna», erran zioten hek, «gure begiak argi daitezen». **34** Urrikaldu zitzaizkon bada Jesusi, ukitu zioztaten begiak eta berehala bista ethorri zitzairen eta jarraiki zitzaizkon.

## XXI. KAP.

**1** Hurbildu izan zirenean Jerusalemerat eta ethorri Betfajerat, Olibetako mendiaren ondorat, Jesusek igorri izan zituen bi dizipulu, **2** erraten zaroelarik: «Zohazte zuen aitzinean den herriska hortarat eta berehala aurkhituko duzue astaka bat eta haren umea harekien; lexa zazue eta ekhar diezadazue. **3** Eta nihork deusik erraten badarotzue, errozue Jaunak hekien beharra duela eta berehala utziko darozkitzue». **4** Hori guzia, bada, egin izan da, konpli zedintzat profetaz errana izan zena, zioenean: **5** «Errozu Siongo alabari: Huna zure Errege non heldu zaitzun esti eta manso, astaka baten gaiñean jarria eta ustariaren azpian dabillanaren umearen gaiñean».

**6** Dizipuluak, bada, goan ziren eta egin izan zuten Jesusek manatu zaroen bezala. **7** Eta ekharrik asto emea eta haren umea, eman zituzten hekien gaiñean bere arrobak eta jarrarazi zuten gaiñean. **8** Jende tropa handi batek ere hedatu zituzten bere bestimendak bidearen gaiñean; bertze batzuk berriz arboletarik adarrak hautsirik, etxatzen zituzten hark iragan behar zuen biderat. **9** Jende hek guziak, bada, bai aitzinean zioazonak eta bai ondolik heldu zirenak, oihuz zeudezen erraten zutelarik: «Hosana, agur eta ohore Dabiden Semeari. Benedikatua dadillala Jaunaren izenean heldu dena. Hosana, agur eta gloria duela zerueta gorenean». **10** Eta sarthu izan zenean Jerusalem altaratu izan zen hiri guzia, erraten zutelarik ezen: «Nor othe da hau?». **11** Populuek, bada, zioten: «Horixe da Jesus profeta Galileako Nazarethekoa».

**12** Sarthu zen Jesus tenpluan eta kasatu zituen tenpluan saltzen eta erosten hari ziren guziak eta aurthiki zituen moneda ganbiatzaillen mahaiñak eta uso saltzaillen kadirak. **13** Eta erran zaroen: «Eskribatua da: Ene etxea deithua izanen da othoitzeke etxea; zuek ordean egin duzue hartaz ohoin banku bat».

**14** Eta ethorri zitzaizkon itsuak eta mainguk tenplurat eta sendatu zituen. **15** Ikusirik, bada, aphezen prinzeek eta eskribauek hark egin izan



zituen mirakuilluak eta haurrak oihuz zegozkola tenpluan eta erraten ziotela: «Hosana, agur eta gloria Dabiden Semeari», hasarratu izan ziren, 16 eta erran zioten: «Aditzen duzu zer erraten duten horiek?». Jesusek ihardetsi zaroen: «Bai bada; eta zuek ez duzue egundaino irakurri nola den errana: Haur xumeetarik eta bulharrekoetarik athera dukezu laudariorik perfetena?». 17 Eta hek han utzirik, goan zen hiriaz kanporat Bethaniarar eta egon zen han biharamuneraiaño.

18 Biharamun goizean, bada, hirirat bihurtzen zela, gosetu zen 19 eta ikusirik fiko ondo bat bide basterrean, goan zen haren alderat eta, ez baitzioen aurkhitu ostorik baizen, erran zioen: «Sor ez dadillala hire ganik sekulan fruitu garabik». Eta ihartu zen berehala fiko ondo.

20 Hori ikusirik harritu ziren dizipuluak eta erran zuten: «Nola berehala ihartu izan othe da fiko ondo hori?». 21 Orduan Jesusek erran zaroen: «Erraten darotzuet egia: baldin fedea baduzue eta ez bazarete kordokatzen zuen gogoetan, ez solamente egiñen duzue fiko ondoaz egiten ikusi duzuen, baiñan erraten badiozue halaber mendi horri: Khen adi hortik eta arthik adi itsasorat, egiñen da. 22 Eta zer nahi othoitzean fedearkien galdegiñen duzuen, guzia ardietsiko duzue».

23 Ethorri izan zenean tenplurat, hurbildu zitzaizkon aphezen prinzeak eta popularen kargudunak irakasten hari zen denboran eta erran zioten: «Zer autoritatez egiten ditutzu gauza horiek? eta nork eman darotzu bothere hori?». 24 Jesusek ihardetsi izan zaroen eta erran: «Galde bat dut nik ere zuei egiteko, zeinaren gaiñean erraten badoratazue behar dena, nik ere erranen darotzuet zer autoritatez horiek egiten ditudan. 25 Joanesen bathaioa nondikakoa zen? zerutikakoa ala gizonetikakoa?». Bainan hek gogoetan zeudezen, ziotsatarik bere baitan: 26 «Baldin ihardesten badugu zerutik zela, erranen daroku: Zergatik, beraz, ez duzue hura sinhetsi? Ihardezten baldin badugu berriz gizonetarik zela, beldur izateko dugu popularen». Guziek ezen Joanes profeta batentzat zadukaten. 27 Ihardetsi izan zioten, bada, Jesusi eta erran: «Ez dakigu». Eta hark ere hei ihardetsi izan zaroen: «Nik ere ez darotzuet erranen zer botherez egiten ditudan horiek».

28 Zer zaitzueke, bada, erratera nohatzuenaz? Gizon batek zituen bi seme eta lehenbizikoari adrezaturik erran izan zioen: Ene semea, zohaz gaurko huntan ene mahastian lanean haritzerat. 29 Seme hark ihardetsi zioen eta erran: Ez dut nahi goan. Ondoan ordean urrikiturik goan zen. 30 Ethorririk, bada, bertze semeaganat, erran izan zioen gauza bera;

baiñan hark ihardetsi izan zioen: Banoha, Jauna. Eta ez zen goan. 31 Bi hetarik zeiniek egin izan du aitaren nahia?». «Lehenbizikoak», diotsate. Jesusek berriz erran zaroen: «Erraten darotzuet, eta hala izanen da, publikanoak eta emaste galduak aitzinduko zaitzkitzuela Jainkoaren Erresumarat. 32 Ethorri izan zaitzue ezen Joanes justiziaren bidez eta ez duzue sinhetsi; publikanoek eta emasteki galduak aitzitik sinhetsi dute; eta zuek hori ikusi arren, ez duzue izan urrikirik ondoan, ez sinheterik».

33 Adi ezazue bertze parabola bat»: Gizon bat familiako aita, zeiniek landaturik mahasti bat, inguratu izan baitzuen hesi batez eta egin baitzuten lurtean barna han dolareak eta bastitu izan baitzuen dorre bat; gero mahastizain batzuei alokataturik, goan izan zen atze herri batetarar. 34 Hurbildu zenean, bada, fruituen denbora, igorri izan zituen bere sehiak mahasti zaiñetarar, mahastiko fruituen altxatzerar. 35 Baiñan mahasti zaiñek harturik haren sehiak, zehatu izan zuten bat, hill zuten bertze bat eta harrikatu bertze bat. 36 Igorri izan zituen bertze sehi batzu, lehenbizikoak baiño gehiago are, eta manera berean tratatu izan zituzten hek ere. 37 Azkenean igorri izan zaroen bere semea bere baitan zioelarik: Agian errespetatuko dute ene semea. 38 Baiñan mahastizainek ikusirik semea, erran izan zuten bere artean: Huna primua; zatozte, hill zagun eta horren primuaren jabe izanen gare. 39 Eta harturik arthiki zuten mahastiaz kanporat eta hil zuten. 40 Ethorriko ditekenean, beraz, mahastiaren jabea, zer egiñen othe daroe mahastizain hei?». 41 Ihardesten daroe hek: «Gaixto hek galaraziko baiditu dohakabeki eta bere mahastia alokatuko baidaroe bertze mahastizain batzuei, hango fruituak bere denboretan bihurtuko diotzatenei». 42 Jesusek erran zaroen berriz: «Ez duzue egundaino irakurri Eskrituratan errana: Bastitzen hari zirenek arbiatu izan duten harri hura bera egin izan da horma bethetzat; Jaunaz egin izan da hori eta miragarri ere zaie gure begiei?»

43 Hargatik darotzuet erraten khenduko zaitzuela Jainkoaren Erresuma zuei eta emanen zaiola populu bati, hango fruituak ekharriko dituenari. 44 Harri haren gaiñerat eroriko dena hautsiko da; eta nori ere eroriko baitzaio berriz hura gaiñerat, eta haiña lehertuko du». 45 Aditu zituztenean aphezen prinzeek eta farisauek Jesusen parabolak, ezagutu zuten hetaz mintzo zela, 46 eta hartu nahi baitzuten, popularen beldur izan ziren, zeren profeta batentzat baitzadukaten.



## XXII. KAP.

1 Jesusek oraiño parabolatan mintzo zela, erran izan zaroen: 2 «Zeruetako Erresuma konparatzen da errege batekien, zeiniek egin izan baitzituen bere semearen estaiak 3 eta igorri bere zerbitzariak, estaietarat gonbidatuak zirenak erakhartzerat; baiñan hauk ez zuten nahi izan ethorri. 4 Berriz ere igorri izan zituen bertze sehi batzu eta erran zaroen: Errozue gonbidatuak direnei: Ene bazkaria preparatua dut, ene idiak eta gizenarazi ditudan gauzak hillak dire eta gauza guziak prest; zatozte estaietarat. 5 Baiñan hek kasurik egin gabe, goan ziren, bata bordarat, bertzea bere merkatalgorat, 6 bertzeek berriz hartu zituzten haren sehiak eta afruntuz bethe ondoan, hill zituzten. 7 Erregek bada hori aditurik, irakitu zuen koleraz eta, bere armadak igorriak, suntsiarazi zituen gizon hiltzaille hek eta erre zuen hekien hiria. 8 Orduan erran zaroen bere sehie: Estaiak bada preparatuak dire, baiñan gonbidatuak zirenak ez ziren digne ethortzeko. 9 Zohazte beraz bide kantoinetarat, eta aurkituko dituzketzuen guziak erakhatzue estaietarat. 10 Eta haren sehiak ilkhirik bideetarat, bildu zituzten aurkhitu izan zituzten guziak, onak eta gaixtoak, eta estaietako sala bethe izan zen arrotzez. 11 Sarthu zen, bada, errege mahaiñean zirenen ikusterat eta, ikusirik han gizon bat estaietako arropaz bestitua ez zena, 12 erran zioen: Adiskidea, nola sarthu zare hemen estai arroba gabe? Eta gizon hura gelditu zen mutu. 13 Orduan erran izan zaroen erregek bere jendei: Eskuak eta zangoak amarraturik arthik zazue kanpoko ilhunbeetarat; han izanen dire nigarrak eta hortz karraskak. 14 Hai-nitzak dire ezen deithuak eta gutiak hautatuak».

15 Orduan goan ziren farisauak eta hartu zuten xedea, hura bere hitzetarik atzematekoa. 16 Igorri ziotzaten, bada, bere dizipuluak herodiarrekien batean erraterat: «Nausia, badakigu egiatia zarela eta Jainkoaren bidea egiaz irakasten duzula, nihortaz antsia izan gabe; ez duzu ezen egiten gizonen artean presunen berezkorik. 17 Erraguzu beraz zure iduria: Zilhégi zaiku Kaesarri pagatzea tributua ala ez?». 18 Jesusek ordean eza-guturik hekien malezia, erran zaroen: «Hipokritak, zergatik tentatzen nauzue? 19 Erakuts diezadazue tributua ematen duzuen dirua». Eta hek erakutsi izan baitzioten denario bat, 20 Jesusek erran zaroen: «Norena da imajina hau eta gaiñean eskribatua den izena?». 21 «Kaesarena», diotsate hek. Orduan Jesusek erran zaroen: «Bihur diotzatuzue, beraz, Kaesari Kaesari dagozkonak eta Jainkoari Jainkoari dagozkonak». 22 Eta aditu zutenean hori, miretsi zuten haren errepusta eta goan ziren hura utzirik.

23 Egun hartan berean igorri izan zitzaizkon saduzearrak, zeiniek baidiote ez dela hillen bitzterik, eta egin zioten galde bat, 24 erraten ziotelarik: «Nausia, Moisek exleitu izan du norbait hiltzen baldin bada haurrik izan gabe, esposa dezala haren anaiak haren ematea eta eman diotzala haurrak bere anaia zenari. 25 Ziren, bada, gure artean zazpi anaia eta lehenbizikoa emaste batekien ezkondu eta hill zen eta, ez baitzuen haurrik, utzi izan zioen bere ematea bere anaiari. 26 Gauza bera izan zen bigarrenaz, hirugarrenaz eta zazpitaraiñoko guziez. 27 Azkenik eta guzien ondoan hill izan da emaste hura. 28 Hillen bitztea ethorriko denean, beraz, zazpietarik zeinena izanen da ematea? Ezen guziena izatu da». 29 Jesusek, bada, ihardetsi izan zaroen eta erran: «Enganatzen zarete ez jakinez Eskriturak eta zer den Jainkoaren botherea. 30 Hillak bitztuko diren ondoan ezen, ez dute izanen gizonen emasterik, ez emasteek senharrik, baiñan izanen dire Jainkoaren aingeruak bezala zeruan. 31 Hillen bitzteaz denaz bezanbatean, ez duzue irakurri nola erran izan darotzuen Jainkoak: 32 Ni naiz Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa? Bada Jainkoa ez da hillen Jainkoa, bai ordean biziena». 33 Eta populuak hori aditurik, miresten zuen haren doktrina.

34 Baiñan farisauak, aditurik saduzearrak ixilarazi zituela, bildu ziren elkhar ganat, 35 eta hetarik batek, legeko doktor ere zenak, egin izan zioen galde hau hura atzeman nahiz: 36 «Nausia, zein da legeko manamendu handia?». 37 Jesusek ihardetsi izan zioen: «Maitatuko duzu zure Jainko Jauna zure bihotz guziaz, zure arima guziaz eta zure izpiritu guziaz. 38 Hori da manamenduetarik handiena eta lehena. 39 Bigarrena, berriz, eta horren parekoa dena da: Maitatuko duzu zure lagun proximoa, zeure burua bezala. 40 Bi manamendu horietan zarratzen dire lege guzia eta profetak».

41 Bilduak baitziren bada farisauak, egin zaroen Jesusek galde hau, 42 erraten zaroela: «Zer uste duzue Kristoz, noren semea dela?». Ihardetsi zioten hek: «Dabidena». 43 Eta bada erran zaroen: «Nola, bada, Dabidek Izpirituz deitzen du bere Jauna, diolarik: 44 Jaunak erran izan dio ene Jaunari: jar zaite ene eskuineko aldean, ezar detzakedan artean zure etsaiak zure oiñen azpiko eskabeltzat? 45 Baldin, beraz, hura deitzen badu bere Jauna, nola diteke haren semea?». 46 Eta nihork ezin ihardetsi zioen hitz bat eta egun hartaz gerostik nihor ez zen atrebitu gehiago hari galderik egiterat.





### XXIII. KAP.

1 Orduan Jesus mintzatu zitzaizen populuari eta bere dizipuluei, 2 erraten zaroelarik: «Moiseren kadiran jarriak dire eskribauak eta farisauak. 3 Begira zatzitzue eta egitzue, beraz, hek erraten darozkitzueten guziak; ordean ez zazuela egin hek egiten dutena, ezen erraten dute zer egin behar den eta berek ez egiten. 4 Amarratzen dituzte ezen karga pisuak eta ezin jasanezkoak eta ezartzen gizonen soiñetarat; berek ordean ez dituzte nahi erriaz higitu ere. 5 Bere obra guziak egiten ere dituzte, gizonen behatuak izatea gatik; ekhartzen dituzte ezen bergamio xerrendak bertzeek baiño zabalagoak, eta arroben pertaletako franjak bertzeek baiño luzeagoak. 6 Lakhet dute jankorretan lehenbiziko plazak izatea eta sinagogetan lehenbiziko kadirak, 7 plaza bethean agurrak errezibitzea eta gizonen nausitzat deithuak izatea. 8 Zuek ordean ez dezazuela desira deith zaitzaten nausiak; nausi bat baizen ez duzue ezen, eta zuek guziak anaiak zarete. 9 Ez zazuela deith nihor lurraren gainean zuen aita; Aita bat baizen ez duzue ezen, zeña baida zeruetan. 10 Ez detzatzuela utz zeben buruak deitzerat nausiak, zergatik zuen nausi baxharra Kristo baida. 11 Zuen artean handien dena izanen da zuen zerbitzari. 12 Ezen nor ere goratuko baida, eta hura behehitua izanen da; eta nor ere behehituko baida, eta hura izanen da altxatua.

13 Zorigaitz bada zuentzat, eskribau eta farisau hipokritak, zergatik zarratzen baidiozue gizonen zeruetako Erresuma; ezen ez zarete sartzen zebonek eta ez dituztue uzten sartzerat sarthu nahi luketenak. 14 Zorigaitz zuentzat, eskribau eta farisau hipokritak, zeren iresten baidituztue allargunen etxeak, zuen orazione luzeen atzekian; horren gatik duzue izanen juiamendu garratzago bat. 15 Zorigaitz zuentzat, eskribau eta farisau hipokritak, zeren itsasoz eta leihorrez baitzabiltzate judu berri bat egitea gatik; eta egin ditekenean, errendatzen baiduzue ifernuko seme, zebonek baiño dobleaz areago.

16 Zorigaitz zuentzat, gidari itsuak, zeinek erraten baiduzue: Baldiñetariak nihork egiten badu juramentu tenpluaz, hori ez da deusik; ordean baldin egiten badu juramentu tenpluko urreaz, zor duke. 17 Erhokak eta itsuak, zer da ezen gehiagokoa, urrea ala tenplua, urrea santifikatzen duena? 18 Eta bardin diozue: Nihork egiten badu juramentu aldareaz, hori deusik ez da; ordean egiten badu juramentu aldarearen gainean den ofrendaz, zor du. 19 Itsuak, zer da handiago, ofrenda ala aldarea, emaitza santifikatzen duena? 20 Nork ere, beraz, egiten baidu juramentu aldareaz,

egiten du juramentu hartaz eta haren gainean den guziaz. 21 Eta nork ere egiten baidu juramentu tenpluaz, egiten du juramentu hartaz eta bere egoitza han egiten duenaz. 22 Eta zeruaz juramentu egiten duenak, egiten du juramentu Jainkoaren thronuaz eta hartan jarria dagoenaz. 23 Zorigaitz zuentzat, eskribau eta farisau hipokritak, zeinek pagatzen baidituztue mendaren, milhuaren eta kuminaren hamarrenak, eta uzten legeak dituen gauzarik inportantenak, justizia eta miserikordia eta fedea; hauk behar ziren egin, ordean bertzeak utzi gabe. 24 Gidari itsuak, zuen edatekoa irazten duzenak, uli xume bat iresteko beldurrez, eta kamelu bat iresten duzenak!

25 Zorigaitz zuentzat, farisau eta eskribau hipokritak, zeren xahutzen baiduzue xoperaren eta plataren kanpoko aldea, barrenean ordean betheak baitzarete ohoinkeriaz eta lohikeriaz. 26 Farisau itsua, xahu zazu lehenik xoperaren eta plataren barneko aldea, kanpoko aldea ere izan dadintzat xahua. 27 Zorigaitz zuentzat, farisau eta eskribau hipokritak, zeren thonba xuritu batzuen pare baitzarete, zeñak kanpotik gizonen ederrak iduritzen baitzaitze, eta barnean betheak baidire hillen hezurrez eta haxkeria suerte guziez. 28 Hala zuek ere kanpotik iduritzen zaitze gizonen justuak; barnean ordean betheak zarete hipokrisiaz eta gaixakeriaz. 29 Zorigaitz zuentzat, eskribau eta farisau hipokritak, zeinek bastitzen baidituztue tonbak profetei eta berregintzen baidituztue justuen ehortz-lekhuak, 30 eta erraten baiduzue: Gu izan bagine gure aiten denboretan, ez ginduen hek bezala isuriko profeten odola. 31 Hortik beretik lekhukotasuna bihurtzen duzue zeben buruen kontra, profetak hill izan dituztenen umeak zaretela. 32 Hala akhaba zazue mukuratzeaz ere zuen aiten neurria.

33 Suge biperen arrazak, nola eskapa zaitezketen ifernurat kondenuatuz izatetik? 34 Hargatik, bada, banohazkitzue igortzerat profetak, zuhurrak eta eskribauak, eta hetarik batzu hillen dituztue, bertzeak gurutzefikatuko dituztue, bertze batzu azotatuko dituztue zuen sinagogetan eta persegituko dituztue hiriz hiri, 35 ethor dadintzat zuen gainerat lurraren gainean isuri izan den odol inozent guzia, hasi Abel justuaren odoletik eta Zakariaz, Barakiasen semearen, odolerainokoa, zeña hill izan baiduzue tenpluaren eta aldarearen artean. 36 Erraten darotzuet egia; Horiek guziak ethorriko dire jenderazione hunen gainerat.

37 Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen ohi ditunana eta hire ganat igortzen direnak harrikatzen ditunana. Zenbat aldiz nahi izan ditiñat biri-



bilkatu hire umeak, oillo batek bere xitoak bere hegalen azpirat biltzen dituen bezala, eta hik ez dun nahi izatu? **38** Sarri, bada, geldituko zaitzue etxea nihor gabe. **39** Erraten darotzuet ezen, ez nauzuela ikusiko gaur gehiago, erran dezakezuen artean: Benedikatua dela Jaunaren izenean heldu dena».

#### XXIV. KAP.

**1** Jesus tenplutik ilkhirik ziohala, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak hari erakusteko tenpluaren asentu ederrak. **2** Baiñan ihardetsi izan zaroen eta erran: «Ikusten dituzue horiek guziak? Erraten darotzuet egia: halako manieraz desegiñak izanen dire, non ez baida geldituko harria harriaren gaiñean». **3** Eta Olibetako mendiaren gaiñean zegoela jarria, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak bakhartasunean eta erran izan zioten: «Erraguzu noiz gerthatuko diren gauza horiek eta zer izanen den seiñalea zu ethortzekoa eta mendeen akhabantzarena». **4** Ihardetsi izan zaroen Jesusek eta erran: «Begirautzue zenbaitek engana ez zaitzaten; **5** ethorriko dire ezen hainitz ene izenaren azpian, erraten dutelarik: Ni naiz Kristo, eta enganatuko dute hainitz jende. **6** Adituko ere dituzue gerlak eta gerlen ospeak; begirautzue ordean altara ez zaitezten, ezen horiek arribatu beharrrak dire, baiñan ez diteke oraiño akhabantza. **7** Altxatuko dire ezen populuak populuaren kontra eta erresuma erresumaren kontra, eta izanen dire izurritzeak, goseteak eta hainitz lekhuetan lur ikharatzeak. **8** Horiek guziak ditezke ondikoen hasteak. **9** Orduan libratuko zaituzte tormentatuak izateko, hillaraziko zaituzte eta nazione guziez gaitzetsiak izanen zarete ene izenaren ariaz. **10** Denbora hartan hainitzak izanen dire eroriko direnak; gizonek tradituko dute eta higinduko elkhar. **11** Eta altxatuko dire hainitz profeta falso, zeñiek enganatuko baidituzte hainitz presuna. **12** Eta nola gaixtakeria handia izanen baida, halaber hotztuko da hainitzen karitatea. **13** Nork ere, bada, iraunen baidu azkeneraiño, eta hura izanen da salbatua. **14** Eta predikatua izanen da Erresumako Ebanjelio hau mundu uniberso guzian, lekhuotasuntzat balia dakientzat nazione guziei, eta orduan izanen da akhabantza

**15** Ikusiko duzuenean, bada, desolazionezko abominazionea, Daniel profetak aitziñetik errana lekhu Sainduan —irakurtzen duenak adi dezala—, **16** orduan Judean direnek ihes egin bezate mendietarat, **17** etxe estaliaren gaiñean dena ez bedi jauts etxetik deusen eramaterat **18** eta larrean izanen dena ez bedi bihur bere arrobaren hartzerat. **19** Zorigaitz, ordean,

emaste izorrentzat eta haurrak eredoskiten duketenentzat egun hetan. **20** Egizue bada othoitz, zuen iheskoa gertha ez dadin neguan edo sabato egunean. **21** Izanen da ezen orduko tribulazionea hain handia, non ez baida izatu halakorik munduaren hastetik huneraiño eta ez izanen ere sekulan. **22** Baldin laburtuak izan ez balire egun hek, ez zen salbatuko gizon garabik; ordean hautatuen amoreagatik laburtuak izanen dire egun hek. **23** Baldin orduan zenbaitek erraten badarotzue: Huna Kristo hemen da eta horra hor da, ez dezazuela sinhets, **24** zeren altxatuko baidire kris-to falsoak eta profeta falsoak, zeñiek egiñen baidituzte hain prodijio handiak eta gauza espantagarriak, non enganatuak izan bailitezke, posible balitz, hautatuak berak ere. **25** Behintzat abisatzen zaituzketet aitziniñetik. **26** Baldiñetariak, beraz, erraten badarotzute: Huna non den desertuan, ez zaitezte la ilkhi harat goateko. Baldin erraten badarotzute: Huna non den etxearen xoko batean, ez dezazuela sinhets, **27** ezen orientetik ilkhitzen den xismista bat okzidenteraiño nola agertzen da, eta hala izanen da Gizonaren Semearen ethortzea. **28** Non ere izanen baida gorphutza, eta harat bilduko dire arranoak ere.

**29** Tribulazionezko egun hekien ondoan berehala iguzkia goibelduko da eta ilhargiak ez du emanen bere argia; izarrak eroriko dire zerutik eta zeruetako bothereak kordokatuko dire. **30** Eta orduan agertuko da Gizonaren Semearen seiñalea zeruan; orduan lurreko populu guziak nigarrretan eta auhenetan egonen dire eta ikusiko dute Gizonaren Semea ethortzen zeruetako hedoietan, bothere eta majestate handirekien. **31** Eta igorriko ditu bere aingeruak tronpeta soiñu eta habarrots handirekien, zeñiek bilduko baidituzte haren hautatuak munduaren laur kantoiñetarik, zeruko baster batetarik hasi eta bertzeraiño.

**32** Ikhas zazue, bada, parabola bat fiko-arbolatik hartua; haren adarrak ja samurrak direnean eta direnean ostatzen, ezagutzen duzue uda hurbill dela. **33** Hala zuek ere horiek guziak ikusten dituzketzuenean, jakizue Gizonaren Semea hurbill eta athean ere ditekela. **34** Erraten darotzuet egia, ez dela akhabatuko jenderazionea hau, non ez diren horiek guziak konplitzen. **35** Zerua eta lurra iraganen dire, baiñan ene hitzak ez dire iraganen.

**36** Egun hura ordean eta oren hura nihork ez daki, ene Aitak berak baizen, ez eta zeruetako aingeruek ere. **37** Noeren denboran gerthatu izan zena, bada, gerthatuko da Gizonaren Semea dathorkenean. **38** Ezen nola uholdearen aitziñeko egunetan hari baitziren jendeak jaten eta edaten,



ezkontzen eta bere umeen ezkonarazitzen, Noe arkan sar ziteken artean, **39** eta ez baitzuten ezagutu uholdearen ethortzeko muga ethor ziteken artean eta guziak eraman zetzaken artean, hala izanen da Gizonaren Semea dathorkenean ere. **40** Landan izanen diren bi gizonetarik bata izanen da hautetsia eta bertzea utzia. **41** Errotan ehotzen hari diren bi emastetarik bata izanen da hautatua eta bertzea utzia. **42** Zaudete beraz atzarriak, zeren ez baidakizue zer orenez ethorriko den zuen Jauna.

**43** Jakiteko duzue ezen, familiako aitak baleaki zer mugaz ethorriko diteken ohoiña, atzarria bide legokela, eta ez lezakela utz bere etxea zilhaterat. **44** Hargatik, bada, zuek ere zaudete bethiere prest, zeren zuek uste ez duzuen orenean ethorriko baida Gizonaren Semea.

**45** Zeiñ uste duzu dela zerbitzari leiala eta prudenta, bere nausiak ezarri dukena bere familiaren gaiñean, hei jaterat emateko bere denboran? **46** Dohatsua diteke zerbitzari hura, zeñia aurkhituko baidu bere nausiak horla hari dela. **47** Erraten darotzuet egia, haiña bere ontasun guzien gaiñean ibeniko duela. **48** Baldiñetariak, ordean, erraten badu zerbitzari gaixto hark bere baitan: Ez dago oraiño ethorririk ene nausia, **49** eta hasten bada zehatzen bere sehi lagunak eta jaten eta edaten hordiekien, **50** ethorriko da zerbitzari haren nausia igurikitzen ez duen egunean eta hark ez dakien orenean, **51** eta aldaratuko du eta emanen dio bere partaiatzat hipokritekien punitua izatea; han izanen dire nigarrak eta hortz karrakadurak».

## XXV. KAP.

**1** «Orduan zeruetako Erresuma izanen da konparatua hamar Birjinekien, zeñiak bere lanpak harturik goan baitzitzaizten esposei aitzinerat. **2** Ziren, bada, hetarik bortz erhoak eta bortz zuhurrak. **3** Bortz erhoek bere lanpak hartzean ez zuten hartu oliorik berekien. **4** Zuhurrek ordean hartu izan zuten olio bere jarroetan lanpekien batean. **5** Berantzen baitzuen, bada, esposak ethortzerat, logaletu ziren guziak eta loharkatu. **6** Baiñan gau erditan egin izan zen oihi handi bat: Huna esposa non heldu den, zohazkote aitzinerat. **7** Orduan berehala altxatu ziren birjina hek guziak eta aphaindu zituzten bere lanpak. **8** Erhoek, bada, erran zieten zuhurrei: Iguzue zuen oliotik; zeren gure lanpak irangitzen baitzaizkigu. **9** Zuhurrek ihardetsi zioten eta erran: Beldurrez guk duguna ez dadin aski izan guretzat eta zuentzat, zohazte aitzitik salzailletarat eta eros zazue

behar dukezuen. **10** Zihoazen bizkitartean, ethorri izan zen esposa eta prest zirenak sarthu ziren harekien estaietarat eta zarratua izan zen athea. **11** Noizbait, bada, ethorri izan ziren bertze birjinak ere eta erran zioten: Jauna, Jauna, idekguzu. **12** Baiñan ihardetsi zaroen hark eta erran: Erraten darotzuet egia: ez zaituztet ezagutzen. **13** Zaudete beraz atzarriak, zeren ez baidakizue eguna ez orena».

**14** «Jaunak egiten du ezen gizon batek bezala, zeñiak herriz kanporat urrun goan behar eta, erakharri baitzituen bere zerbitzariak eta eman hekien eskuetan bere ontasunak. **15** Bati eman ziotzan bortz talentu, bertzeari bia eta bertze bati bat, batbederari bere gaidasunaren arauera; eta partitu zen berehala. **16** Goan zen, bada, bortz talentuak izan zituena, trafikatu zuen diru harekien eta irabazi zituen bertze bortz. **17** Halaber bia izan zituena ere irabazi zituen bertze bia. **18** Ordean bat baizen izatu ez zuena goan zen lurtean zilho bat egiterat eta gorde zuen han bere nauziaren dirua. **19** Denbora handiaren buruan ethorri izan zen zerbitzari hekien nausia eta kontu errendarazi zaroen. **20** Ethorririk bortz talentu errebitu zituena, presentatu ziotzan bertze bortz ere erraten zioelarik: Jauna, eman izan darozkidatzu eskuetan bortz talentu; huna hek eta bertze bortz irabazi izan ditudanak. **21** Erran zioen bere nausiak: Biondagizula, zerbitzari ona eta leiala; zeren gauza gutiren gaiñean leial izan zaren, ibeniko zaitut hainitzen gainean; sar zaite zure Jaunaren bozkarioan. **22** Ethorri zen gero bi talentu errebitu izan zituena eta erran zioen: Jauna, bi talentu eman izan darozkidatzu eskuetan; huna hek eta bertze bia gehiago irabazi izan ditudanak. **23** Erran zioen bere nausiak: Biondagizula, zerbitzari ona eta leiala, zeren gauza gutiren gaiñean leial izan zaren, hainitzen gaiñean ifiniko zaitut; sar zaite zure Jaunaren bozkarioan. **24** Ondoan ethorri zen talentu bakhar bat errebitu izan zuena ere eta erran zioen: Jauna, badakit gizon zorrotz bat zarela, uztatzen duzula erein ez duzun tokian eta biltzen duzula deusik eman ez duzun tokian; **25** eta hala beldurturik goan naiz eta gordea atxiki dut zure talentua lurtean barnea; huna non duzun zurea. **26** Baiñan ihardetsi izan zioen bere nausiak eta erran: Zerbitzari gaixtoa eta laxoa, baziñakien uztatzen dudala erein ez dudan tokian eta biltzen dudala deusik arthiki ez dudan lekhu; **27** arren eman behar zinduen, beraz, ene diruan ganbiadoreen eskuetan, ethorri eta erretiratuko bainuen irabaziarekien. **28** Khen diozozue, bada, hor duen talentua eta emozue hamar talentuak dituenari, **29** ezen duen guziari emanen zaio eta izanen du franko; baiñan ez duenari duela diruriena ere khen-



duko zaio. **30** Eta arthikazue zerbitzari alfer hori kanpoko ilhunbeatarat; han izanen dire nigarrak eta hortz karraskadurak.

**31** Noiz ere, bada, ethorriko baida Gizonaren Semea bere majestean aingeru guziak berekien dituela, jarriko da bere gloriaren thronuan. **32** eta bilduko dire nazione guziak haren aitzinerat eta apartatuko ditu batzu bertzeen ganik, artzain batek ardiak akherren ganik aldaratzen dituen bezala, **33** eta ezarriko ditu ardiak bere eskuñeko aldean, akherrak berriz ezkerreko aldean. **34** Orduan erranen daroe erregek bere eskuñekoei: Zatozte, ene aitaren benedikatuak; goza zaitzte munduaren hastetik preparatua izan zaitzuen Erresumaz. **35** Izan naiz ezen gose eta eman darotazue jaterat; izan naiz egarri eta eman darotazue edaterat; izan naiz arrotz eta hartu nauzue etxerat; **36** nintzen bilhuzia eta bestitu izan nauzue; nintzen eria eta bisitatu izan nauzue; nintzen presondegian eta ethorri zaizkidate ikusterat. **37** Orduan ihardetsiko diokete justuek eta erranen: Jauna, noiz ikusi zaitugu guk zu gose ziñela eta eman darotzugu jaterat; egarri zinela eta eman darotzugu edaterat? **38** Noiz ikusi izan zaitugu lekhortar eta zaitugu hartu izan etxerat, edo bulhuzia eta zaitugu bestitu? **39** Edo noiz ikusi izan zaitugu eri edo presondegian eta gaizkitzu ethorri ikusterat? **40** Eta ihardetsiko daroe erregek: Erraten darotzuet egia: noiz eta ere egin izan baidiozue hori ene anaia xumeen hautarik bati, niri neroniri egin izan darotazueke. **41** Ondoan, berriz, erranen daroe haren ezkerreko aldean izanen direnei: Zohazte ene ganik, madarikatuak, su eternalerat, zeñña preparatua izan bada deabruarentzat eta haren aingeruentzat. **42** Izan naiz ezen gose eta ez darotazue eman jaterat; izan naiz egarri eta ez darotazue eman edaterat. **43** Izan naiz bideante eta ez nauzue hartu etxerat; nintzen bilhuzia eta ez nauzue bestitu; nintzen eri eta presondegian eta ez zaizkidate ethorri ikusterat. **44** Orduan ihardetsiko diokete hek ere eta erranen: Jauna, noiz ikusi izan zaitugu guk zu gose edo egarri edo arrotz edo bilhuzia edo eri edo presondegian eta ez zaitugu lagundu? **45** Baiñan hark ihardetsiko daroe: Erraten darotzuet eta hala da: noiz eta ere utzi baiduzue xumeen hautarik bat lagundu gabe, ni neroni utzi nauzueke. **46** Eta orduan goanen dire hauk suplizio eternalerat; justuak berriz bizitze eternalerat».

## XXVI. KAP.

**1** Jesusek akhabatu izan zituenean solhas horiek, erran zaroen bere dizipuluei: **2** «Badakizue bi egunen ondoan izanen dela Bazko eta Gizo-

naren Semea libratua izanen dela gurutzefikatua izateko». **3** Orduan bildu ziren aphezen prinzeak eta populuaren arteko zaharrak aphez handi Kaifaz zaritzanaren salarat **4** eta atxiki zuten batzarra Jesus fiñeziaz hartzeko eta hillarazteko. **5** Zioten bada: «Ez da hori egin behar bestako denboran, beldurrez zerbait altaramendu izan ez dadin populuaren artean».

**6** Bethanian zela, bada, Jesus Simon lepratsuaren etxean, **7** hurbildu zen haren ganat emasteki bat, alabaztrazko jarro bat eskuan zuela ungentu preziatu batez bethea, eta mahaiñean jarria zegoela, isuri izan zioen buruaren gaiñerat. **8** Ikusirik hori dizipuluek hasarratu ziren eta erran zuten: «Zertako hori gal horla? **9** Sal ziteken ezen ungentu hori garastia eta eman pobreei». **10** Ordean Jesusek hori jakinik erran zaroen: «Zergatik egiten diozue damu emasteki huni? Obra on bat egin du ene alderat. **11** Berdin bethi dituzketzue pobreak zuekien; ordean ni ez nauzue bethi izanen. **12** Ezen hunek ungentu hori ene gorphutzerat arthikitzean ene ehortzteari dagokala egin izan du. **13** Erraten darotzuet egia: Ebanjelio hau predikatua izanen den lekhu guzietan, erran nahi da mundu guzian, errana izanen da hunek egin izan duena hunen orhoitzapenetan eta laudoriotan».

**14** Orduan goan zen hamabietarik bat Judas Iskariotez zaritzana aphezen prinzeatarat, **15** eta erran zaroen: «Zer nahi darotazue niri eman, eta nik hura zuei emanen darotzuet eskuetarat?». Eta hek kondatu ziotzaten hogoi eta hamar denario. **16** Eta geroztik atizaren bilha zebillan hura hekien eskuetarat emateko.

**17** Azimetako lehenbiziko egunean, bada, ethorri zitzaizkon dizipulak Jesusi eta erran zioten: «Non nahi duzu prepara diezazugun Bazkoa jateko behar dena?». **18** Jesusek ihardetsi zaroen: «Zohazte hirirat hunelakoren ganat eta errozue: Nausiak dio: Ene denbora hurbill da; zure etxerat heldu naiz ene dizipuluekien Bazkoa egiterat». **19** Egin zuten dizipuluek Jesusek manatu zaroen bezala eta preparatu izan zuten Bazkoarentzat behar zena.

**20** Arratsa ethorri zenean, bada, eman zen mahainean bere hamabi dizipuluekien, **21** eta jaten hari zirela, erran zaroen: «Erraten darotzuet eta hala izanen da; Zuetarik batek tradituko nau». **22** Tristaturik hortaz handizki, hasi zitzaizkon zein bere alde erraten: «Ni othe naiz, Jauna?». **23** Ihardetsi zaroen eta erran: «Enekien eskua platerat ematen duena daiteke ni tradituko nauena. **24** Gizonaren Semea behintzat badoha, hartaz eskribatua izan den bezala; baina zorigaitz gizon harentzat, zeññetaz traditua



izanen baida Gizonaren Semea. Hobe liteke haiñarentzat ez lizen jaio egundaino». **25** Hitza harturik bada Judasek, zein baitzen hura traditzen zuena, erran zioen: «Nausia, ni othe naiz?». Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Erran dukezu».

**26** Afaitan hari zirela, hartu zuen Jesusek ogia eta benedikaturik hautsi zuen eta eman zaroen bere dizipuluei, ziotsotela: «Har zazue eta jan zazue: hau da ene gorputza». **27** Ondoan harturik kalixa, eskerrak bihurtu zituen eta eman zaroen, ziotsotela: «Edan zazue huntarik guziek; **28** hau da ene odola ezen, alienzia berrikoa, zeina isuria izanen baida haiñitzentzat bekhatuen barkhamendutan. **29** Erraten darotzuet, bada, ez dudala edanen hemendik harat mahastiko fruitu huntarik, zuekien berriro hura ene Aitaren Erresuman edanen dukedan eguneraio».

**30** Eta esker errendatzeko himnoa kantaturik, goan ziren Olibetako mendirat. **31** Orduan erraten daroe Jesusek: «Zuek guziak eskandalisatuko zaite ene gatik gau huntan; eskribatua da ezen: Joen dut artzaiña, eta barraiatuko dire arthaldeko ardiak. **32** Ordean hilletarik biztuko naizen ondoan, goanen naiz zuen aitzinean Galilearat». **33** Hitza harturik, bada, Piarresek erran zioen: «Guziak eskandalisa balitez ere, ni ez naiz zutaz sekulan eskandalisatua izanen». **34** Erran zioen Jesusek: «Erraten darotzut egia: gau huntan oillarrak jonen duen baiño lehen, hiruretan arnegatuko nauzu». **35** Baiñan Piarresek erran zioen: «Behar banu ere hill zurekien, ez dut zutaz ukhatuko». Gauza bera erran zioten dizipulu guziek ere.

**36** Aphur baten buruan goan zen Jesus hekiekien Jetsemani deitzen zen lekhu batetarat eta erran zaroen bere dizipuluei: «Zaudezte hemen, horra honaraino othoitz egiterat nohan bizkitartean». **37** Eta harturik berekien Piarres eta Zebedearen bi semeak, hasi zen tristatzen eta dolo-ratua izaten. **38** Orduan erran izan zaroen: «Triste da ene arima heriotze-raiñoakoan; zaudezte hemen atzarriak enekien». **39** Eta urrunxeago goanik, jarri zen bisaia lurraren kontra othoitz egiten, erraten zuela: «Ene Aita, baldin posible bada, aldara bedi kalix hau ene ganik; halarik ere ez bedi egin nik nahi dudana, baiñan bai zuk nahi duzun bezala». **40** Ondoan ethorri zen bere dizipuluetarat eta aurkhiturik lo zauntzala, erran zioen Piarresi: «Ezin egon zarete, bada, oren batez enekien atzarriak? **41** Zau-dezte erne eta egizue othoitz, eror ez zaitezten tentazionean; Izpiritua hala da atzar da, baiñan haragia flako». **42** Goan zen berriz bigarreanean othoitz egiterat erraten zuela: «Ene Aita, baldiñetariak ezin iragan bane-di kalix hau edan gabe, egin bedi zure borondatea». **43** Ethorri zen gero

hekiekian ganat eta aurkhitu zituen lo zauntzala. Ezen begiak pisu zituzten. **44** Eta hek utzirik, goan zen oraino berriz hirurgarreanean othoitz egiterat, hitz berak erraten zituela. **45** Ondoan gero ethorri izan zen bere dizipuluetarat eta erran zaroen: «Egizue lo orai eta pausa zaitezte. Huna non hurbiltzen den orena, eta Gizonaren Semea libratua izaterat doha bekhatoren eskuetarat. **46** Altxa zaitezte, goazen; huna non den hemendik hurbill ni traditu behar nauena».

**47** Oraino mintzo zela, etorri izan zen Judas hamabietarik bat eta harekien batean jendetze handi bat armekien eta makhillekien, aphezen prinzeek eta populuaren kargudenez igorriak izan zirenak. **48** Hura traditzen zuenak, bada, eman izan karoen seiñalea erraten zaroela: «Zeini ere musu nik emanen baidiot, eta hura diteke; zatxezkate hari». **49** Eta berehala hurbildurik Jesusi, erran zioen: «Agur, nausia». Eta musu eman zioen. **50** Jesusek ihardetsi izan zioen: «Adizkidea, zertarat ethorri zare hunat?». Orduan hurbildurik harekien zirenak, etxatu ziren Jesusen gaiñerat eta hartu zuten. **51** Eta Jesusekien zirenetarik batek, eskua hedaturik, athera zuen bere ezpata, jo zuen aphezen prinzearen muthilla eta ebaki zioen beharri bat. **52** Orduan erran zioen Jesusek: «Emazu zure ezpata bere tokian; ezen ezpata hartuko duten guziak ezpatatz hillen dire. **53** Uzte duzue ez dezakedala othoitz ene Aita eta ez lietzakedala igor orai berean aingeruzko hamabi lejione baiño gehiago? **54** Nola konplituko dire, beraz, Eskriturak, zeinek baidiote horiek horla gerthatu beharrak direla?». **55** Ordu hartan berean erran zaroen Jesusek jende hei: «Ohoi baten ganat bezala ethorri zarete hunat, ezpatekien eta makhillekien ene hartzerat. Egun oroz zuen erdian nindagoen, tenpluan irakasten nuela, eta ez nauzue orduan hartu! **56** Hau guzia, bada, egin izan da profetek eskribatu izan dutena konpli zedintzat. Orduan dizipulu guziak hura utzirik goan ziren ihesi.

**57** Eta jende hek harturik Jesus, eraman zuten Kaifaz aphezen prinzean ganat, zeina baitan bilduak baitziren eskribauak eta populuko zahar-rak. **58** Piarres bada jarraiki zitzaioen urrundik aphezen prinzearen etxe-ko eskaratzeraino, eta barnat sarthurik jarri zen shekiekien gauzaren akhabantza ikusteko. **59** Arte hortan aphezen prinzeak eta batzar guzia lekhu-kotasun falso baten bilha zebiltzan Jesusen kontra hura hillarazitzekotzat. **60** Ordean ez zuten aurkhitzen nahi bezalakorikan, hainitz lekhuako falso ethorri ziren arren; azkenean bada ethorri izan ziren bi lekhuako falso. **61** Eta erraten zuten: «Hunetxek erran izan du: Desegin dezaket Jainkoaren tenplua eta hirur egunen buruko berriz egin dezaket». **62** Orduan altxatu



zen aphezen prinzea eta erran zioen: «Ez duzu deus ihardesten hauk zure kontra deklaritzen dituztenen gainean?». **63** Baiñan Jesus ixillik zegoen. Orduan aphezen prinzeak erran izan zioen: «Errekeritzen zaitut Jainko biziaz erran diezaguzun hea zu zaren Kristo Jainkoaren Semea». **64** Ihardetsi zioen Jesusek: «Erran duzu, ni naiz; eta hala erraten darotzuet: Egun batez ikusiko duzue Gizonaren Semea Jainkoaren majestataren eskuinean jarria, heldu dela zeruko hedoen gainean». **65** Orduan aphezen prinzeak hautsi zituen bere bestimendak zioelarik: «Blasfematu du. Zertako behar dugu gehiagoko lekhukorik? Horra non aditu duzuen zebonek blasfemia. **66** Zer zaitzue?». Ihardetsi zuten hek eta erran: «Merez du heriotzea». **67** Orduan thu egin zioten bisaiarat eta jazarri zioten ukhabilloz, bertzeek berriz ematen ziotzaten zapardalakoak, **68** erraten ziotela: «Asma diezaguk, Kristo, nor den mazelakoz jo hauena».

**69** Arte hortan Piarres kanpoan zegoen eskaratzean jarria eta hurbildu zitzaion neskato bat ziotsalarik: «Zu ere Jesus Galileakoarekien ziñen». **70** Baiñan hark ukhatu zuen guzien aitzinean ziotsalarik: «Ez dakit zer diozun». **71** Eta ilkhitzen hari zela atheaz kanporat, ikusirik bertze neskato batek, erran zaroen han zirenei: «Hau ere Jesus Nazarethkoarekien zen». **72** Berriz ere ukhatu zuen juramenturekien erranik: «Ez dut ezagutzen gizon hori». **73** Aphur baten buruan hurbildu ziren han zeudezenak eta erran zioten Piarresi: «Segurki zu ere horietarik zare, ezen zure hitzkuntzatik seiñale zare». **74** Orduan hasi zen arneguz eta juramentuz erraten, ez zuela ezagutzen gizon hura; eta berehala oillarrak jo zuen. **75** Eta orhoitu zen Piarres Jesusek erran izan zioen hitzaz: Oillarrak joren duen baiño lehen, hiruretan arnegatuko nauzu; eta kanporat ilkhirik, nigar egin zuen minki.

## XXVII. KAP.

**1** Goiza ethorri izan zenean, batzarra atxiki zuten aphezen prinzek eta populuaren arteko zaharrek Jesusen kontra, hura hillarazitzeke. **2** Ondoan amarraturik eraman zuten eta eman Ponzio Pilate bere gobernadorearen eskuetan. **3** Orduan ikusirik Judas, hura traditu zuenak, kondentatua zela, urrikitu zitzaion eta ekharri zazkoten hogoi eta hamar denarioak aphezei eta zaharrei, **4** ziotsotelarik: «Bekhatu egin dut, traditu bait dut justuaren odola». Baiñan hek ihardetsi izan zioten: «Zer dohaku guri? Hiri dagok ikustea». **5** Eta arthikirik diru hek tenpluan, aldaratu zen eta goan bere burua urkhatzerat. **6** Aphezen prinzeek bada harturik dirua,

erran izan zuten: «Ez da zilhegi hori ematea thresorean, zergatik odolaren prezioa baida». **7** Eta elkharren artean batzar eginik, erosi zuten diru hartaz eltze egille baten landa lekhortiarren ehorzteko. **8** Horren gatik da deithua landa hura Hazeldama, erran nahi da Odol landa, egungo egunean oralño. **9** Orduan izan zen konplitua Jeremias profetak erran izan zuena: «Errezibitu dituzte hogoi eta hamar diru peza, zeñiak baitziren merkaduriatua izan denaren prezioa eta Israelgo umeek merkaduriatu zutenarena. **10** Eta eman izan dituzte elze egille baten landa erosteko, Jau-nak exleitu izan daroten bezala». **11** Jesus presentatua izan zen, bada, gobernadorearen aitzinean eta interrogatu zuen gobernadoreak ziotsola: «Zu zare judutarren Erregea?». Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Diozuna naiz». **12** Eta akusatzen baitzuten aphezen prinzeek eta populuko zaharrek, ez zaroen deusik ihardetsi. **13** Orduan erran zioen Pilatusek: «Ez duzu aditzen zenbat gauzez akusatzen zaituzten?». **14** Baiñan ez zioen deusik ihardetsi erran ziotzoketen gauza garaben gainean, halako maneraz non miretsia bait zegoen handizki gobernadorea.

**15** Bazkoko besta handian, bada, ohitza zuen gobernadoreak populari utzteko presonieretarik nahi zuketen bat; **16** eta zuen orduan presonier famos bat Barrabas zeritzana. **17** Guziak bildu zirenean, bada, erran zaroen Pilatusek: «Zein nahi duzue larga diezazuedan, Barrabas ala Jesus, Kristo deitzen dena?». **18** Bazakien ezen inbidiaz eman zutela haren eskuetarat.

**19** Bizkitarte hortan bere kadiran jarria zegoela, igorri izan zioen bere emasteak erraterat: «Ez duzun egitekorik justu horrekien; hainitz sofritua nago ezen egun, horren suietean izatu dudam amets batean».

**20** Baiñan aphezen prinzeek eta zaharrek burutaratu zioten populari Barrabas galde zezatela eta Jesus galaraz zezatela. **21** Erran zaroen bada gobernadoreak: «Zein nahi duzue bietarik larga diezazuedan?». Baiñan hek ihardetsi zioten: «Barrabas». **22** Pilatusek erran zaroen: «Zer egiñen dut, beraz, Jesus Kristo erraten diotenaz?». **23** Ihardetsi zioten guziek: «Gurutzefika bedi». Erran zaroen gobernadoreak: «Zer gaizki egin duke, bada?». Baiñan hek oihua gorago zaramaten, ziotsotelarik: «Gurutzefika bedi».

**24** Ikusirik, bada, Pilatusek ez zuela probetxurik, aitzitik alboratamendua handituaz zihoala, ura erakharririk garbitu izan zituen eskuak populuaren aitzinean, ziotsalarik: «Inozent naiz ni justu hunen odoletik; zuek ihardetsi beharko duzue». **25** Eta populu guziak ihardetsi zioen:



«Dela horren odola gure gaiñean eta gure umeen gaiñean». **26** Orduan utzi zaroen Barrabas eta eman Jesus, azotarazirik gurutzefika zezatentzat.

**27** Denbora berean gobernadorearen soldaduek eramanik Jesus Palazioaren eskaratzerat, bildu zuten banda guzia haren alderat, **28** eta bere arrobak khendurik, estali zuten eskarlatazko kapa batez. **29** Gero arantz ezpartzatuz eginik khoroa bat, eman izan zioten buruaren gaiñean eta seska bat eskuñeko eskuan; eta haren aitzinean belhaurikaturik, trufatzen ziren hartaz ziotsotelarik: «Agur Judutarren Erregea». **30** Eta bisaiarat thu egiñik, hartzen zioten seska eta jotzen hartaz burua. **31** Hartaz burlatu ondoan horla, khendu zioten eskarlatazko kapa hura, eta bere tresnez bestiturik, eraman zuten gurutzefikatzerat.

**32** Ilkhiten hari zirela, bada, aurkhitu zuten gizon bat Zirenakoa Simon zaritzana eta bortxatu zuten Jesusen gurutzea garraiatzerat. **33** Eta ethorri izan ziren Golgotha deitzen zen lekhurat, zeina baida Kalbarioko lekhu. **34** Han eman zioten arnoa edaterat miñarekien nahastatua, baiñan dastatu ondoan, ez zuen edan nahi izatu. **35** Gurutzefikatu zutenean, bada, partitu zituzten haren tresnak zortherat etxaturik, konplitua izan zedintzat profetaren erran bau: «Partitu izan dituzte bere artean ene tresnak eta arthiki izan dute ene arroba zortherat». **36** Eta jarririk, haren goardan zeudezen. **37** Eman izan ere zuten haren buruko gaiñean eskribuz haren kondenezionaren sujeta, hitz hautan: «Hau da Jesus judutarren Erregea». **38** Denbora berean gurutzefikatu zituzten harekien bi ohoiñ, bata haren eskuñetarik eta bertzea ezkerretarik. **39** Eta handik iragaten zirenek, blasfemioz bethetzen zuten, burua higiturik, **40** ziotsotelarik: «Hea bada, hik Jainkoaren tenplua desegiten duan horrek eta hirur egunez berriz bastitzen, salba zak heure burua. Baldin Jainkoaren Semea bahaiz, jauts hadi gurutzetik». **41** Manera berean aphezen prinzeak ere burlatzen ziren hartaz, eskribauekien eta zaharrekien batean ziotsatelarik: **42** «Bertzeak ditu salbatu eta bere burua ezin salba dezake. Baldin Israelgo Erregea bada, jauts bedi oraintxe gurutzetik eta sinhetsiko dugu honen baitan. **43** Fida da Jainkoa baitan; libra beza bada Jainkoak, baldin maite badu, bazioen ezen: Haren Semea naiz ni». **44** Erantzute bera egiten zioten harekien gurutzefikatuak ziren ohoiñek ere.

**45** Seigarren orenetik, bada, bederatzigarrenerañokoan lurra estalia izan zen guzia ilhunbez, **46** eta bederatzigarren orenaren inguruan egin izan Jesusen oihu handi bat, erraten zuelarik: «Eli, Eli, lama sabathani?; erran nahi da: Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik nauzu utzi?». **47** Han

zirenetarik zenbaitek, bada, hori aditurik zioten: «Elias deitzen du hunek». **48** Eta berehala laster egin zuen hetarik batek esponia bat miñagrez bethetzerat eta seska baten puntan ezarririk eman zioen edaterat. **49** Bertzeek berriz zioten: «Utzazueia, ikus dezagun hea ethorriko othe den Elias horren libratzerat». **50** Baiñan Jesusen berriz ere oihu gora bat egiñik, hill zen.

**51** Denbora berean tenpluko beloa erdiratu izan zen bi zathitarat gaiñetik hasi eta beheererañ; lurra ikharatu zen; harriak erdiratu ziren; **52** thonbak ideki ziren eta hainitz sailak zirenen gorphutzak bitzitu izan ziren; **53** eta hobietarik ilkhirik hura bitzitu zen ondoan, ethorri izan ziren hiri saildurat eta agertu zitzaizkoten baiñitzi. **54** Bizkitartean egun gizonen kapitaiña eta harekien Jesusen begiratzen zeudezenak ikusirik lur ikharatze eta bertze iragaten ziren guziak, izitu ziren hagitz eta erran izan zuten: «Egiatzki Jainkoaren Semea zen hori».

**55** Ziren, bada, han emasteki hainitz urrundik beha zeudezenak, zeñak Jesusi jarraiki baitzitzaizkon Galileatik, hura zerbitzatzen zutela, **56** zeñen artean baitziren Maria Magdalena, Maria Jakoberen eta Josefren ama eta Zebedearen haurren ama.

**57** Arratsaren gaiñerat ethorri izan zen gizon aberats bat Arimathea-koa Josef zeritzana, hura ere Jesusen dizipulu izana. **58** Goan zen Pilatusen ganat eta eskatu zioen Jesusen gorphutza eta berehala Pilatusen manatu zuen eman zekioela. **59** Harturik bada gorphutza Josefek, ezarri zuen mihise xuri batean barna, **60** eman zuen bere thonba berrian, zeñia baitzuen egiña arroka bat zilhatuak hartan, eta harri handi bat thonbaren atherat iraulirik, goan zen. **61** Eta zeudezen Maria Magdalena eta bertze Maria jarriak sepulturaren aldean.

**62** Biharamunean, bada, zeñia baitzen sabathoko preparazionea erraten diotenaren ondoko eguna, ethorri ziren aphezen prinzeak eta fari-sauak elkhar harturik Pilatusen ganat, **63** eta erran zioten: «Jauna, orhoitu gare; suernatzaile hark bizi zela erraten ohi zuen: Hirur egunen buruan biztuko naiz hillen artetik. **64** Mana zazu, beraz, goardatua izan dadin thonba hirur garren eguneraiño, beldurrez ezen haren dizipuluak ethor ez daitezzen ebasterat haren gorphutza eta erran ez diozaten populuari: Bitzitu da hiletarik; eta gaixtoago liteke are azkeneko enganio hori lehenbizikoa baiño». **65** Ihardetsi zaroen Pilatusen: «Baditutze goardak; zohazte, begirazi zazue, zaitzuen bezala». **66** Goan ziren, bada, eta sepultura seguratzeko zigillatu izan zuten harria eta goardak eman zituzten.



## XXVIII. KAP.

**1** Aste hura akhabatu zenean, bada, ondokoaren lehenbiziko eguna doi doia argitzearekien batean, ethorri izan ziren Maria Magdalena eta Maria bertzea sepultura ikusterat. **2** Eta betbetan egin izan zen lur ikharatze handi bat, ezen Jaunaren aingerua jautsi zen zerutik, eta hurbildurik aldaratu zuen sepultura zarratzen zuen harria, eta jarri zen haren gainean. **3** Zen, bada, haren behakundea distiant xismista bezala eta haren bestimendak xuri elhurra bezala. **4** Eta hain izialdura handiak sesitu zituen goardak, non egin baitziren hilak bezala. **5** Mintzo zitzaiea, bada, aingerua emastekiei erran zaroen: «Ez duzuela beldurrik zuek; badakit ezen Jesus gurutzefikatua izatu denaren bilha zabiltzate. **6** Ez da hemen, ezen bitztu da, erran izan zuen bezala. Zatozte, eta ikus zazue Jauna ezarria izan zen lekhoa. **7** Eta laster egizue erraterat haren dizipuluei bitztu dela; eta huna, badoha zuen aitzinean Galilearat, han duzue ikusiko. Huna non erran darotzuekidan aitzinerat».

**8** Ilkhi ziren berehala emasteki hek thonba zen lekhotik, beldurkunda eta bozkario handirekien, eta goan ziren lasterka berri horren ematerat haren dizipuluei. **9** Denbora berean Jesus bathu zitzaien bere aitzinean eta erran zaroen: «Agur». Eta hek hurbildurik lothu zitzaizkon oiñetarik eta adoratu izan zuten. **10** Orduan erran zaroen Jesusek: «Ez duzuela beldurrik. Zohazte, errozue ene anaiei do hazela Galilearat, han naute ikusiko».

**11** Hek goan eta, goardetarik zenbait ethorri izan ziren hirirat eta kondatu ziotzaten aphezen prinzeei iragan ziren guziak. **12** Orduan elkharganat bildurik eta batzarra eginik zaharreki, eman zaroen soldaduei diru suma handi bat, **13** ziotsetela: «Errazue, haren dizipuluak gauaz ethorri izan direla eta ebatsi dutela haren gorputza, zuek lo zinaudeztela. **14** Baldin hori jakiten badu ere gobernadoreak, guk goguatuko dugu eta gerizatuko zaituztegu». **15** Soldaduek dirua hartu eta egin zuten erran zitzaien bezala, eta ornen hori barriatua izan zen eta dirau egungo eguneraino juduen artean.

**16** Hameka dizipuluak goan ziren Galilearat Jesusek exleitu izan zaroen mendirat. **17** Eta han ikusi zutenean, adoratu zuten; batzu, bada, dudetan jarri ziren. **18** Baiñan hurbildurik Jesus mintzatu zitzaien ziotsetela: «Niri eman zait bothere guzia zeruan eta lurrean. **19** Zohazte, beraz, eta irakats zatzue jende guziak, bathaiatzen dituztelarik, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean, **20** irakasten diotuztelarik nik manatu izan darozkitzuetedan guzien begiratzen; eta segura zaitzte bethi ere zuekien izanen naizela mendeen akhabantzaraio».

## J. KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA SAN MARK-EN ARAUERA

### I. KAP.

**1** Jesus Kristo Jainkoaren Semearen Ebanjelioaren hastapena, **2** hala nola baida eskribatua Isaias profetaren baitan: «Huna non dudan igortzen ene aingerua zure aitzinean, zeinek aphainduko baidarotzu zure bidea zure aitzinean. **3** Adituko da desertuan oihuz dagoenaren boza: Aphain zazue Jaunaren bidea, xuxen zatzue haren bideskak». **4** Joanes zen desertuan, bathaiatzen hari zela eta predikatzen penitenziazko bathaioa bekhatuen barkhamenduarentzat. **5** Judeako herri guzia eta jerusalendar guziak bazohazen haren ganat, eta bere bekhatuak konfesatzen zituztelarik, bathaioa erreztizen zuten Jordango ibaian. **6** Eta zen Joanes bestitua kamelu illez, larruzko gerriko bat zuen gerrian, xartalez eta basa eztiz bizi zen, eta predikatzen zuen zioelarik: **7** «Heldu da ene ondoan ni baiño borthitzago den bat; eta ni ez naiz gai lurrerat beheiturik haren zapata lokharrien lextzeko. **8** Nik bathaiatu zaituztet urez, baiñan hark bathaiatuko zaituzte Izpiritu Sainduaz».

**9** Denbora hartan berean ethorri izan zen Jesus Nazareth Galileatik eta izan zen bathaiatua Joanesez Jordanean. **10** Uretik ilkhi zen bezain sarri, ikusi izan zituen zeruak zabalduak eta Izpiritua uso baten anzuran jausten zela eta haren gainean gelditzen. **11** Eta boz bat aditu zen zerutik: «Zu zare ene Seme maitea; zure baitan dut ene gogo guzia».

**12** Ondoan berehala Izpirituak butatu izan zuen morturat. **13** Eta egon zen han berrogoi egunez eta gauez; tentatua izan zen Satanez; bizi zen han bestien artean eta aingeruek zuten zerbitzaten.

**14** Joanes preso emana izatu zen, bada; ethorri zen Jesus Galilearat Jainkoaren Erresumako Ebanjelioa predikatzen zuela, **15** erraten zuelarik: «Konplitu da denbora eta Jainkoaren Erresuma hurbil da; egizue penitentzia eta sinhets zazue Ebanjelioa».

**16** Galileako itsaso basterrean zebillan ordu batez, ikusi izan zituen Simon eta Andres, haren anaia, sareak itsasorat etxatzen zituztela, arran-





tzaleak ziren ezen. **17** Eta erran zaroen Jesusek: «Zatozte ene ondotik eta egiñaraziko zaituztet gizonen arrantzale». **18** Berehala utzirik bere sareak jarraiki zitzaizkon. **19** Handik aphur bat aitzina eta, ikusi izan zituen Jakobe Zebedearen semea eta Joanes, haren anaia, hek ere bere sareen antolatzen hari zirela barku batean; **20** eta berehala deithu izan zituen eta hek, utzirik bere aita Zebedea barkuan bere langilleekien, segitu zuten.

**21** Ethorri ziren gero Kafarnaumat eta berehala sarthu zen Jesus sabato egunean sinagogan; han hari zen irakasten. **22** Eta espantituak zeudezen haren dotrinaz, irakasten baitzaroen ezen autoritate zuen gizon batek bezala eta ez eskribauek gisa. **23** Zen, bada, hekien sinagogan gizon bat izpiritu lohiaz poseditua; eta jarri zen oihuz, **24** erraten zuelarik: «Zer duzu zuk gurekien, Jesus Nazarethkoa? Gure galtzerat ethorri zare, Jainkoaren Saindua?». **25** Baiñan mehatxatu izan zuen Jesusek, erraten zioelarik: «Ixil adi eta ilkhi adi gizon horren baitarik». **26** Orduan izpiritu lohia, gizon hura porroskaturik eta oihi handi bat eginik, ilkhi izan zen haren ganik. **27** Eta espantitu ziren guziak halako manieraz, non bere artean galdez baitzeudezen ziotsotelarik: «Zer othe da hau? Zer othe da dotrina berri hau? Buruperekien manatzen baidaroe izpiritu lohiei eta hek obeditzen ere baidote». **28** Eta denbora berean jo zuen haren famak Galilea guzian.

**29** Sinagogatik ilkhi eta berehala ethorri ziren Simon eta Andresen etxerat Jakobe eta Joanekien. **30** Zetzan, bada, Simonen amagiñarraua ohean hel gaitzekien eta berehala mintzatu zitzaizkon hartaz. **31** Eta hurbildurik alxarazi zuen eria eskutik harturik; eta betbetan utzi zuen sukharak eta eman zen hekien zerbitzatzen.

**32** Iguzkia sarthu eta arratsean ekharri izan ziotzaten eri guziak eta deabruaz posedituak zirenak. **33** Eta bildua zen hiri guzia athe aitzina. **34** Sendatu zituen haiñitz presuna eritasun diferentez tormentatuak zirenak eta khendu zituen hainitz deabru; ordean ez zituen uzten deabruak mintzatzerat eta erraterat nor zen bazekitela.

**35** Biharamunean hagitz goiz jaikirik, ilkhi zen eta goan bakhar lekhu batetarat, eta jarri izan zen othoitzean. **36** Eta jarraiki zitzaizkon Simon eta harekien ziren bertzeak. **37** Eta aurkhitu izan zutenean, erran zioten: «Guziak zure bilha dabiltza». **38** Ihardetsi izan zaroen: «Goazen hurbilleko herrietarat eta hirietarat, hetan ere predika dezadan; hartakotz ethorria naiz ezen». **39** Eta hari zen predikatzen hekien sinagogetan eta Galilea guzian eta deabruen khenzen.

**40** Denbora hartan ethorri izan zitzaioen lepratsu bat errekerimenduz, eta haren aitzina belhaurikaturik erran izan zioen: «Baldin nahi baduzu, garbi nazakezu». **41** Urrikaldu zitzaioen, bada, Jesusi eta eskua hedaturik ukitu zuen eta erran zioen: «Nahi dut; zaren garbi». **42** Hori erran izan zuen bezain sarri, goan zitzaioen bere ladretasuna eta garbitua ediren zen. **43** Eta berehala igorri zuen handik mehatxaturik, **44** ziotsola: «Begirautzu nihori erratetik. Baiñan zohaz eta erakuts diozazu zure burua aphezen prinzeari eta ofrenda zazu zure garbitzearentzat, Moisek exleitu izan duena lekhukotasuntzat balia dakientzat». **45** Baiñan hura ilkhirik, hasi zen erraten gauza eta banatzen halako manieraz, non Jesus ezin gehiago sar baitzeiteken hirian ageririk; aitzitik kanpoan baitzegoen bakhar lekhetan eta harat ere ethortzen zitzaizkon alde guzietarik jendeak.

## II. KAP.

**1** Berriz ere sarthu zen Kafarnaumen zenbait egunen buruan. **2** Eta aditu zutenean etxean zela, bildu ziren hanbat jende, non ezin iduki baitzezaken etxeak, ez eta athe inguruek ere; eta hari zitzaien Jainkoaren hitza predikatzen. **3** Ordu hartan ekharri izan zioten paralitiko bat, laur gizonek garraiatzen zutena, **4** eta nola ezin hurbil baitzezaketzen Jesusen aitzina jendetzearen fuertzaz, urratu zuten etxearen estalkia, eta idekidura handi bat eginik, erautsi izan zuten behererat paralitikoa zetzan ohea. **5** Ikusirik, bada, Jesusek hekien fedea, erran zioen paralitikoari: «Ene haurra, barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak». **6** Eta ziren han jarriak eskribauetarik zenbait, zeiniek erasten baitzuten bere bihotzetan: **7** «Zer darasa hunek? Blasfematzen du. Nork barkha ahal detzake bekhatuak Jainkoak berak baizen?». **8** Jesusek berehala ezaguturik bere Izpirtuaz zer gogoeta zerabillaten bere barrenean, erran zaroen: «Zergatik darabiltzatzue gogoeta horiek zuten bihotzetan? **9** Zer da errexago? Ala erratea paralitikoari: Barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak, ala erratea: Altxa zaitte, eramazu zure ohea eta ibill zaitte? **10** Dakizuentzat, bada, Gizonaren Semeak baduela bothere lurrean bekhatuen barkhatzeko», erran izan zioen paralitikoari: **11** «Zuri nagotzu: altxa zaitte, eramazu zure ohea eta zohaz zure etxerat». **12** Altxatu zen betbetan eta bere ohea harturik, abiatu zen guzien aitzina; halako manieraz, non espantitu baitziren guziak eta glorifikatzen baitzuten Jainkoa, ziotsotelarik: «Egundaino ikusi ez dugu hunelakorik».



**13** Handik bihurtu zen berriz itsaso alderat; eta populu guziaz heldu baitzitzaioen, instruitzen zituen. **14** Eta iragaitean ikusi izan zuen Lebi Alfearen semea, bureuean zegoela jarria eta erran zioen: «Jarraik zakizkit». Jaiki zen eta segitu zuen. **15** Eta Jesus haren mahaiñean eman baitzen, jarri izan ziren halaber haiñitz publikano eta bekhatoros Jesusekien eta haren dizipuluekien, haiñitz ziren ezen jarraitkitzen zitzaizkoenak. **16** Eskribauek eta farisauek ikusirik publikano eta bekhatorosekien jaten zuela, erran zaroten haren dizipuluei: «Nondik heldu da, publikano eta bekhatorosekien jaten eta edaten baidu zuen nausiak?». **17** Hori aditurik Jesusek, erran zaroen: «Ez dute sendo direnek miriku beharrik, baiñan bai eri direnek; ez naiz ezen ethorri justuen deithzerat, baiñan bai bekhatoreen».

**18** Joanesen eta farisauen dizipuluak, bada, barurtiarrak baitziren, ethorri zitzaizkon eta erran zioten: «Zergatik barurtzen dire Joanesen eta farisauen dizipuluak eta zureak ez dire egiten?». **19** Ihardetsi zaroen Jesusek: «Estaietako jendeak barur ahal othe daitezke esposa hekiekien deiño? Eki, esposa berekien duteiño ezin barur daitezke. **20** Baiñan ethorriko dire egunak, zeinietan idekiko baitzaie esposa eta orduan dire barurtuko.

**21** Nihork ez dio josten oihal berrizko pedazu bat arropa zahar bati. Ezperen, pedazu berriak eramaten dio zaharrari zenbait zathi eta arropa gehiago hautsten da. **22** Halaber nihork ez du ematen arno berria zahagi zaharretan; ezperen, leher eragiten daroe arnoak zahagiei, eta isuriko da arnoa eta galduko ere dire zahagiak; baiñan arno berria eman behar da zahagi berrietan».

**23** Gerthatu izan zen oraiño Jauna iragaten zela eraintzetan gairi sabato egun batez, haren dizipuluak bidean zihoazela, hasi zitezen ogi buruka hausten eta hartzen. **24** Erran zioten bada Farisauek: «Ikusazu; horra nola egiten duten zure dizipuluek, sabato egunean egitea zilhegi ez dena». **25** Ihardetsi izan zaroen: «Ez duzue egundaiño irakurri zer egin izan zuen Dabidek, beharrean aurkhitu zenean, bera eta harekien zirenak gosez hertzatuak izan ziren batez? **26** Nola sarthu izan zen Jainkoaren etxean, Abiathar aphez handiaren denboran, eta jan izan zituen proposizioneko ogiak, zeinietarik jatea ez baitzitzaien zilhegi aphezzei baizen, eta nola eman izan ziotzaten harekien zirenei ere?».

**27** Erran zaroen oraino: «Sabatoa gizonarentzat egiña izan da eta ez gizona sabatoarentzat. **28** Bada Gizonaren Semea sabathoaren ere nausi da».

### III. KAP.

**1** Sarthu izan zen Jesus bertze aldi batez ere sinagogan eta zen han gizon bat eskua elkortua zuena. **2** Eta begira zegozkon hea sabatho egunean sendatuko zukeen, hartaz gero hura akusatzeko. **3** Orduan erran zioen eskua elkortua zuen gizonari: «Altxa zaite guzien erdirat». **4** Gero erran izan zaroen hei: «Zilhegi othe da sabatho egunean ungi egitea? bizia salbatzea ala idekitzea?». Baiñan hek ixillik zeudezen. **5** Baiñan Jesusek alde guzietarat behatze hasarratu bat etxatzen zaroela, notatua baitzen hekien bihotzetako itsumenduaz, erran zioen gizon hari: «Heda zazu eskua». Hedatu zuen eta sendatu zitzaioen eskua. **6** Ilkhirik bada berehala farisauak, jarri ziren batzar egiten haren kontra herodianoezien, nola galduko othe zuten.

**7** Baiñan Jesus bere dizipuluekien aldaratu zen itsaso parterat eta jarraiki zitzaioen jendetze handi bat Galileatik eta Judeatik, **8** Jerusalemetik, Idumeatik eta Jordanez bertze aldetik; eta Tirgo eta Sidongo inguruetan zirenetarik ere ethorri zitzaioen aralde handi bat, aditurik hark egiten zituen gauzak. **9** Eta erran zaroen bere dizipuluei iduk ziozotela han barku bat zerbitza ahal zekioena, jendetze hark leher ez zezan. **10** Ezen nola haiñitz sendatzen baitzuen, zerbait plaga zuten guziak etxatzen ziren haren gaiñerat, hura ukitu bederen nahiz. **11** Eta izpiritu lohiek hura ikusten zutenean bere buruak arthikitzen zituzten haren oiñerarat, ziotsatelaririk oihuz: **12** «Zu zare Jainkoaren Semea». Baiñan hark mehatxatzen zituen handizki ez zezatentzat ager.

**13** Igan zen gero mendi batetarat, eta deithu zituen bere ganat berak nahi zituenak; eta ethorri zitzaizkon. **14** Berezi izan zituen hamabi harekien izateko eta predikatzerat igortzeko. **15** Eta eman zaroen botherea erhasunen sendatzeko eta deabruen khasatzeko. **16** Hek ziren Simon, zeinari eman baitzioen izengoitia Piarres; **17** eta Jakobe Zebedearena eta Joanes Jakoberen anaia, zeinei eman baitzaroen izengoitizat Boanerjez, erran nahi da Ihurzuriaren semeak; **18** Andres, Filipe, Bartholome, Mathiu, Thomas, Jakobe Alfearena, Thadee, Simon Kananarra, **19** eta Judas Iskariotez, zeiniek bera traditu ere baitzuen.

**20** Eta ethorri izan zirenean etxerat, bildu zen berriz harat oste handia, non ezin har ere baitzetzaketan bere othruntzak. **21** Hori aditurik, ethorri ziren haren ahaideak haren hartzerat, erraten zuten ezen zoratu zela.

**22** Jerusalemetik ethorri izan ziren eskribauek, berriz, zioten Beelzebuth zuela barnean eta deabruen prinzearen partez kasatzen zituela dea-



bruak. **23** Baiñan hark erakharririk hek bere alderat, erraten zaroen paraboletan: «Nola Satane kasa ahal dezake Satana? **24** Baldin erresuma bat partitzen bada bera beraren kontra, ezin iraun dezake erresuma hark. **25** Eta baldin etxe bat partitzen bada bera beraren kontra, ezin iraun dezake etxe hark. **26** Beraz baldin Satana altxatzen bada bera beraren kontra, partitua diteke, ezin iraunen du, baiñan akhabo da hartaz.

**27** Nihork ezin eraman detzake borthitz baten armak haren etxean sarthurik, non ez duen lehenik borthitza estekatzen, gero ondoan haren etxea arrobatzeko.

**28** Erraten darotzuet egia: Barkhatuko zaizte gizonen umei egiñen dituzketen bekhatu eta blasfemio guziak, **29** baiñan nork ere blasfematu-ko baidu Izpiritu Sainduaren kontra, eta hark ez du ardietsiko sekulan barkhamendurik; aitzitik hobenduri izanen da sekulan iraganen ez zaioen bekhatu batez». **30** Erraten baitzuten ezen izpiritu lohia berekien zuela.

**31** Ethorri ziren, bada, haren ama eta haren anaiak eta kanpotik zeudezela igorri zuten norbeit haren bilha. **32** Eta zegoen jendetze bat jarria haren inguruan, eta erran zioten: «Horra non daudezen zure ama eta zure anaiak kanpo hortan zure galdez». **33** Orduan ihardetsi izan zaroen eta erran: «Nor da ene ama eta nor dire ene anaiak?». **34** Eta behaturik bere ingurutakoei, «Horra», diotsa, «ene ama eta ene anaiak. **35** Nork ere ezen egiñen baidu Jainkoaren borondatea, hura diteke ene anaia, ene arreba eta ene ama».

#### IV. KAP.

**1** Gero berriz hasi zen irakasten itsas bazterrean; eta hain jendetze handia bildu zen haren alderat, non barku batetarat iganik, han jarri baitzen, mundu guzia leihorrean itsas bazterrean zegoela. **2** Eta irakasten zaroen paraboletan hainitz gauza, eta erraten zaroen bere doktrinan:

**3** «Adi zazue. Ilkhi izan zen ereille bat ereinterat. **4** Eta ereiten hari zela, ereintzaren parte bat erori zen bide bazterretarat eta aireko xoriek ethorriarik jan zuten hura. **5** Bertze parte bat erori zen lekhu harritsuatarat, zeñetan bihiak ezbaiztuen lur haiñitzik; eta berehala ilkhi zen zer ezbaiztuen lurak loditasunik.

**6** Eta iguzkia goratu zenean, erre zen, eta nola ez baiztuen errorrik, ihartu zen.

**7** Bertze parte bat erori izan zen elhorriperat eta elhorriek handituri-rik itho zuten hura, eta ez zuen ekharri fruiturik. **8** Bertze parte bat berriz erori izan zen lur onerat eta eman zuen fruitu; burutu zen eta handitu, bihi batzuk ematen zutela batentzat hogoi eta hamar, bertzeek hirur hogoi eta bertzeek ehun». **9** Eta erraten zaroen: «Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala».

**10** Baiñan bakharririk izan zenean, galdegin zioten harekien ziren hamabiek parabolaren sensua. **11** Eta erran zaroen: «Zuei eman izan zaitzue Jainkoaren Erresumako misterioen ezagutzea, baiñan kanpoan direnentzat hitz ezta litan dohaz guziak, **12** halako moldez, non begiz ikusirik ere ez baidute ikusten, eta behariz aditurik ere ez baidute aditzen, konberti ez daitezten eta bere bekhatuak barkha ez dakizkoten».

**13** Eta bada erran zaroen: «Oraiño ez dakizue parabola hori? Nola beraz jakinen dituzte parabola guziak? **14** Ereillea da hitza ereinten duena. **15** Dire bada bide bazterretan direnak», zeñetan erein izan baida hitza, zeñiek entzun duketenekotz, berehala heldu baida Satana eta arrapatzen baidu hekien bihotzetan ereina izan zen hitz hura. **16** Dire halaber lekhu harritsuatarat hazia errezibitzen dutenak haiñak, zeñiek enzutean hitza, berehala bozkariorekien hartzen baidute; **17** ordean ez baidute erro-rik bere baitan, iraupen gutitako dire eta gero, heldu zaienean ezaldarterik eta atsekaberik, hitzaren ariaz berehala behaztopatzen dire. **18** Dire berriz elhorriperat hazia errezibitzen dutenak haiñak, zeñiek entzuten baidute hitza; **19** baiñan mundu huntako antsiak eta aberatstasunen enganioak eta bertze gaiñerako pasioneak hekien gogoan barna sarthurik, ithotzen dute hitza eta fruitu gabe bihurtzen. **20** Fiñean lur onerat hazia hartzen dute-rik dire haiñak, zeñiek entzuten baidute hitza eta errezibitzen eta ekhar- tzen fruitua, bata hogoi eta hamar, bertzeak hirur hogoi eta bertzeak ehun batentzat».

**21** Erraten zaroen halaber: «Kandela ekhartzen othe da gaitziru edo ohe azpian emateko? Aitzitik ez othe da kandelerean ezartzeko ekhar- tzen? **22** Deusere ez da ezen gorderik agertu beharko ez ditekenik, eta ez da gerizean egin denik, kanporako ez denik. **23** Beharriak dituenak entzu- teko, entzun dezala». **24** Erraten zaroen oraiño: «Goardia emazue zer adi- tzen duzen; ezen zer ere neurritz neurthu baidiekezue bertzei, eta neurri beraz neurthuko zaitzue zebei ere, eta oraiño berretuko ere zaitzue. **25** Ezen duenari emanen kaio eta ez duenari duena ere khenduko zaio».



**26** Gehiago erraten zaroen: «Jainkoaren erresumaz diteke, gizon batek hazia lurrerat arthikitzen balu bezala. **27** Ala dagoen lo, ala dabillan jaikia gauaz eta egunaz, hazia ilkhitzen da eta hazten da, hark nola ez dakiela. **28** Bere baitarik ezen ekhartzen du lurra lehenik belharra, gero burua, gero ogi bihi bethea buruan. **29** Eta ondu ditekenean bihia, berehala ezartzen zaio ihiteia, zeren ethorri baiditeke uztaren denboran».

**30** Erraten zuen oraiño: «Zeren pare dela erranen dugu Jainkoaren Erresuma edo zer konparazionez konparatuko dugu? **31** Konpara daiteke mustarda haziarekien, zeña lurrean ereinten denean, lurrean diren hazi guzietarik xumeena baida; **32** baiñan erein den ondoan, garatzen da eta egiten belhar guzietarik handiena; hain adar handiak ekhartzen ditu, non aireko hegastiñak egon ahal baiditezke haren itzalean».

**33** Horlako hainitz errefaueetan mintzo zitzairen, adi ahal zezaketen arauera; **34** eta parabola gabe ez zitzairen mintzatzen. Baiñan bakharrik zirenean, bere dizipuluei guziak zarozten explikatzen.

**35** Egun hartan berean erran zaroen arratsa ethorri zenean: «Iragan gaitzezen uraren bertze alderat». **36** Eta populua utzirik, eraman zuten zen barkuan; eta baziren bertze barkuak ere harekien. **37** Orduan altxatu zen haize xirimola handi bat eta uhiñak sartzen ziren barkuan hura bethetze-raiñokoan. **38** Bizkitartean Jesus lo zatzan xopa gaiñean, bururdi baten gaiñean, eta iratzarri zuten ziotsotelarik: «Nausia, ez duzu antsiarik? Gal-tzerat goaz». **39** Iratzarri eta, bada, mehatxatu zuen haizea eta erran zioen itsasoari: «Ixil adi eta kalma». Eta berehala haizea gelditu zen eta kalma handi bat egin zen. **40** Eta erran zaroen: «Zergatik zarete horren izikor? Nola ez duzue oraiño federik?». Eta hek, izialdura handi batek hartuak, ziotsoten batak bertzeari: «Nor othe da hau?, haizeak eta itsasoak obeditzen baidute».

## V. KAP.

**1** Ethorri zirenean itsasoaren bertze alderat Jerasendarren herrirat, **2** jauzten hari zela Jesus barkutik, ilkhi zitzaion gizon bat izpiritu lohiaz poseditua thonbetarik, **3** zeñetan egiten baitzuen bere egoitza, eta nihork ezin esteka zezakena gatheetz ere. **4** Ezen haiñitzetan zephoez eta gathez estekatua izan baitzen, hautsi izan zituen gatheak eta zathikatu zepoak, eta ezin nihork hezi zezaken. **5** Gau eta egun bethi thonbetan eta mendietan zegoen oihuz eta bere burua harriz porroskatzen zuela. **6** Ikusirik

bada Jesus urrundarik, ethorri zitzaioen lausterka eta adoratu izan zuen, **7** oihu gora batekien erraten zioela: «Zer duzu zuk enekien, Jesus Jaungoikoaren Semea? Jainkoaz zaitut errekeritzen, ez nazazula tormenta». **8** Erraten zioen ezen Jesusek: «Ilkhi adi, izpiritu lohia, gizon horren ganik». **9** Eta galdegin izan zioen: «Nola deithzen haiz?». Ihardetsi zioen hark: «Lejionea deitzen naiz, zeren hainitz baigare». **10** Eta othoizten zuen handizki, arren ez zezan khasa herri hartarik kanporat. **11** Zen, bada, han urdalde handi bat mendia aldapetan bazkatzen zena. **12** Eta izpiritu gaixto hek errekeritzen zuten, erraten ziotelarik: «Igor gaitzatu urde horietarat, sar gaitzezen horietan». **13** Jesusek permititu izan zaroen berehala; eta ilkhirik izpiritu lohi hek poseditua zegokaten gizona ganik, sartu ziren urdetarat; eta arthalde guzia baitzen bi millen ingurua, arthiki izan zen itsasorat eta itho ziren han. **14** Urdeak bazkatzen zituztenak, bada, goan ziren ihesi, eta eraman zuten berri hori hirirat eta kanpoetarat; eta ilkhi ziren jendeak ikusterat zer egin izan zen. **15** Ethorri ziren gero Jesusen ganat eta ikusi zuten deabruaz tormentatua ohi zen hura, jarria, bestitua eta bere sensu onean; eta izitu ziren. **16** Eta ikusi zutenek kondatu baitzieten zer gerthatu zitzaioen deabruaz poseditua ohi zenari eta zer, berriz, urdaldeari, **17** berehala hasi zitzaizkon othoitzez, arren ziohan hekien basterretarik. **18** Barkurat igaten hari zela, bada, jarri zitzaion othoitzez deabruaz tormentatua izan ohi zena, arren permeti ziozan harekien izan zedin. **19** Baiñan Jesusek ez zuen nahi izan hartu; aitzitik erran zioen: «Zohaz zure etxerat, zure hurkoetarat, eta konda diozozute zein grazia handiak egin darozkitzun Jaunak eta nola urrikaldu zaizkon». **20** Goan zen, eta hasi zen predikatzen Dekapolisen, zein grazia handiak egin ziotzan Jesusek; eta guziak miretsiak zeudezen.

**21** Iragan baitzen berriz Jesus barkuan itsasoaren bertze alderat, jendetze handi bat bildu zen haren ganat itsas basterrerat. **22** Ethorri zitzaioen harat sinagogako buruzagi bat, Jairus zeritzana, eta ikusi zuenekoitz arthiki zuen bere burua haren oiñetarat. **23** Eta othoiztu zuen handizki, erraten zioela: «Ene alaba hurren dut; zato, pausa diozozu eskua gaiñean, senda dadintzat eta bizi dadin». **24** Goan zen Jesus harekien; eta jarraiki zitzaioen oste handi bat, zeñek hainitz hertsten baitzuten alde guzietarik.

**25** Eta emaste bat, hamabi urthe hetan odol isuriarekien zena, **26** miriku hainizetarik haiñitz sofritu zuena eta zituen guziak despendatu zituen arren, batere probetxatu ez zena, aitzitik gaixkiago aurkhitzen zena, **27** aditurik mintzatzen Jesusez, ethorri zen jendetze haren artean gibeletik, eta ukitu zuen haren bestimenda; **28** zioen ezen: «Baldin uki ahal



badezat bederen haren arropa, sendatua izanen naiz». **29** Eta ordu berean agortu zen haren odol-ithurria, eta sentitu zuen bere gorputzean sendatua zela plaga hartarik. **30** Eta berehala Jesusek bere baithan ezagutu baitzuen haren ganik ilkhi zen berthutea, itzuli zen tropelaren alderat, eta erran zuen: «Nork ukitu du ene arropa?». **31** Erran izan zioten bere dizipuluek: «Ikusten duzu jende multzoak hertsten zaituela, eta diozu nork ukitu zaituen?». **32** Eta beha zegoen inguruatarat ikusteko hori egin zuena. **33** Baiñan emaste hura iziturik eta ikharaturik, baitzakien zer iragan zen haren baithan, ethorri zen eta bere burua aurthikirik haren aitzinean, aithortu zioen zen guzia. **34** Hark berriz erran zioen: «Ene haurra, zure fedeak salbatu zaitu; zohaz bakearekien eta zaren sendatua zure plagatik».

**35** Oraino mintzo zela, ethorri ziren sinagogako buruzagia baitarik hari erraterat: «Kure alaba hill da; zergatik nekhatzen duzu gehiago nusia?». **36** Jesusek bada aditurik hek ziotena, erran zioen sinagogako buruzagiari: «Ez duzula beldurrik; sinhets zazu solamente». **37** Eta ez zuen nahi nihor jarraik zekion, Piarres eta Jakobe eta Joanes, Jakoberen anaia, baizen. **38** Ethorri zirenean sinagogako buruzagiaren etxerat, ikusi zuen jende tropela bat nigarrez eta deihagoraz zeudezenak. **39** Eta sarthu zenean, erran zaroen: «Zergatik altaratzen zarete, eta nigar egiten duzue? Neskaxa hau ez da hilla, baiñan lo datza». **40** Eta burlatzen ziren hartaz; baiñan hark guziak khendurik, hartu zituen neskaxaren aita eta ama eta berekien eraman zituenak, eta sarthu zen neskaxa zetzan lekhurat. **41** Eta harturik neskaxaren eskua, erran zioen: «Thalita cumi»; erran nahi baida: «Neskaxa, nik diotsut, alxa zaite». **42** Altxatu zen berehala neskaxa eta hasi zen ibiltzen, hamabi urthetako zen ezen; eta espantitu izan ziren handizki. **43** Baiñan manatu izan zaroen hertsiki begira zutela nehork jakin zezan, eta erran zaroen eman ziozatela jaterat neskaxari.

## VI. KAP.

**1** Jesus handik ilkhi eta goan zen bere herrirat eta jarraiki zitzaizkon bere dizipuluak. **2** Eta sabbatho eguna ethorri zenean, hasi zen irakasten sinagogan; eta entzuten zutenetarik hainitz miretsirik haren jakintasunaz, zioten: «Nondik heldu zaizko huni horiek guziak? Zer othe da huni eman kaioen zuhurzia hori? eta, Hunelako mirakuilluak egiten baidire hunen eskuz. **3** Hau ez da harotz hura, Mariaren semea, Jakoberen, Josefen, Judasen eta Simonen anaia? Hunen arrebak ere ez dire hemen gure artean?». Eta eskandalisatuak ziren haren ariaz. **4** Baiñan Jesusek erraten

zaroen: «Ez ahal da profeta bat ohore gabe bere herrian baizen, bere etxean eta bere hurkoe artean baizen». **5** Eta ezin egin zuen han mirakuillurik batere, lekhat zenbait eri bakhoitz eskuak hekien gainean emanik baitzituen sendatu.

**6** Hala miretsia zegoen hekien sinhets-gogortasunaz; hargatik bazebillan ingurutako herrisketan irakasten. **7** Eta deithurik hamabiak, hasi zen hekien igortzen birazka; eta eman zaroen botherea izpiritu lohien gainean. **8** Manatu zaroen ez zezatela deusik eraman bidekotz, bere makhilla baizen; ez zakhurik, ez ogirik, ez eta zarpan dirurik; **9** baiñan ziohazela bere zapatak oiñetan eta ez zaitezela besti arropa doblez. **10** Erran zaroen halaber: «Zein ere etxetan sarthuko baitzarete, zaudete han lekhu hartarik ilkhi zaitezketen arteraino. **11** Eta ez baitzaituzte errezibituko, ez aditu nahiko, handik ilkhitzean iharrosazue zuen oiñetako herrautsa, lekukotasuntzat balia dadintzat hekien kontra. **12** Abiatu ziren, bada, eta predikatzen zioten populuei penitentzia egin zezatela. **13** Deabru hainitz khenzen zuten eta eri hainitz gantzutzen zuten olioz eta sendatzen.

**14** Aditu zuen, bada, errege Herodesek mintzatzen Jesusez, ezen haren izena jadan famatua zen, eta zioen: «Joanes Baptista bitztu diteke hilletarik; hargatik egiten dire hanbat mirakuillu haren eskuz». **15** Bertzek zioten: «Elias diteke». Bertzek berriz zioten: «Profeta bat diteke edo lehenagoko profetetarik bat bezalakoa». **16** Horiek aditurik, Herodesek erran zuen: «Nik ebakiarazi diodan Joanes hura da, hilletarik bitztu ditekena».

**17** Ezen Herodes hunek jendeak igorririk harrarazi izan zuen Joanes eta estekaturik emanarazi presondegian, Herodias bere anaia Filiperen emastea zela kausa, zeina hartu baitzuen emastetzat; **18** zeren erraten baitzioen Joanesek Herodesi: «Ez zaitzu zilhegi zure emastetzat izatea zure anaiaren emastea». **19** Horrengatik zitzaioen aher Herodias eta nahi zukeen hillarazi; ordean ezin zagiken. **20** Ezen Herodes beldurtzen Joanesentzat, baitzakien gizon justua eta saindua zela; errespetatzen ere zuen, eta hura entzunik hainitz gauza egiten zuen eta gogotik entzuten ere zuen. **21** Ethorri zen bada halako egun bat, zeinetan Herodesek bere sor-eguneko banketa ematen baitzaroen bere gortheko handiei, armadako ofiziale lehenbizikoei eta Galileako prinzipalei. **22** Eta sarthurik Herodiasen alaba, dantzatu zen eta agradatu zitzaioen hanbatetarañokoan Herodesi, bai eta harekien mahaiñean zirenei, non erregek erran izan baitzioen: «Galde diezadazu nahi duzuna eta emanen darotzut». **23** Eta juramentu ere eginik erran zioen: «Bai eki; zer ere galdetuko baidarotzazu, eta hura



guzia emanen darotzut, lizela ere ene erresumaren erdia». **24** Hura ilkhirik, goan zitzaion bere amari erraterat: «Zer galdetuko othe dut?». Amak ihardetsi zioen: «Joanes Baptistaren burua». **25** Eta berehala sarthurik lauster handitan errege zen lekhourat: «Galdetzen darotzut», diotsa, «orai berehala eman diezadazun plat batean Joanes Baptistaren burua». **26** Tristatu zen hortaz errege, baiñan hala ere egin izan zuen juramentua gatik eta mahaiñean harekien zirenen gatik, ez zioen nahi izan egin damurik. **27** Hala bere goardetarik bat igorri zuen mezuarekien ekhar ziozala Joanesen burua plat batean. Goardak ebaki izan zioen burua presondegian. **28** Eta ekharri zuen plat batean eta eman zioen neskaxari eta neskaxak eman zioen bere amari. **29** Hori aditurik, ethorri ziren haren dizipuluak eta eraman zuten haren gorphutza eta ezarri thonba batean.

**30** Arte hartan bildurik Apostoluak Jesusen ganat, kondatu ziotzaten egin izan zituzten guziak eta irakatsi izan zituztenak. **31** Eta erran zaroen: «Zatozte aparterat bakhar lekhu zenbaitetarat eta pausa zaitezte aphur bat». Hainitz ziren ezen haren ganat heldu zirenak, batzu bertzeen ondolan, eta ez zuten jateko astirik ere. **32** Sarthu ziren bada barku batean, eta aldaratu ziren lekhu desertu batetarat. **33** Baiñan zenbaitek ikusi baitziztuzten goaten eta bertze hainitzek berriz ezagutu baitzuten hori, lauster egin zuten harat oiñez hurbilleko hiri guzietarik, eta arribatu ere ziren hek baiño lehen.

**34** Ilkhitzen hari zela, ikusi zuen Jesusek jendetze handi bat eta urrikaldu zitzaizkon, zeren artzaiñik gabeko ardiak bezala baitziren; eta jarri zen hainitz gauza hei irakasten. **35** Baiñan berandua ere baitzen, ethorri zitzaizkon bere dizipuluak eta erran zioten: «Lekhu hau desertu bat da eta muga jauzia ere da; **36** igorratzu horiek hurbilleko bordetarat eta herriskaterat, jateko behar dutena erosterat». **37** Ihardetsi izan zaroen hark eta erran: «Emozue zebonek jaterat». Hek berriz erran zioten: «Goanen othe gare erosterat berrehun kornaduren ogia, horiei jaterat emateko?». **38** Jesusek erran zaroen: «Zenbat ogi ditutzue? Zohazte, ikusazue». Eta jakin zutenean, erran zioten hek: «Bortz ogi ditugu eta bi arrain». **39** Orduan manatu zituen jarraraz zetzatela salerka belhar ferdearen gaiñean. **40** Eta jarri izan ziren herrunketan, ehunazka eta berrogoi eta hamarnazka. **41** Hartu zituen, bada, Jesusek bortz ogiak eta bi arrainak, eta begiak altxaturik zerurat, benedikatu zituen eta hautsirik ogiak eman zarozten bere dizipuluei, hek berriz eman ziotzaten zat populuari aitziañerat; eta bi arraiñak ere partitu zarozten guziei. **42** Jan izan zuten guziek, eta ase ziren.

**43** Eta eraman zituzten hamabi otharre betheak, gelditu ziren zathietarik eta arraiñetarik. **44** Ziren, bada, jan zutenak bortz milla gizonetaraiño.

**45** Eta berehala bortxatu izan zituen bere dizipuluak barkuan sartzerat eta haren aitziañean goaterat uraren bertze alderat, Bethsaidako parterat, berak populua despei zezaken bizkitartean. **46** Eta jendeak igorri izan zituenean, goan zen mendirat othoitz egiterat. **47** Gaua ethorri zenean, barkua zen itsasoaren erdian eta hura bakharrik leihorrean. **48** Eta ikusirik bere dizipuluak nekhe handirekien hari zirela arrauketan, haizea zuten ezen kontra, gauazko laurgarren goardiaren inguruan, ethorri zitzaien itsasoaren gaiñean zebillala eta nahi zitzaien iragan aitziañat. **49** Baiñan hek ikusi zutenean itsasoaren gaiñean zebillala, uste izan zuten fantasma bat zela eta oiñu handi bat egin zuten. **50** Ikusi zuten ezen guziek eta altaratu izan ziren. Baiñan berehala mintzatu zitzaien eta erran zaroen: «Sosega zaitezte; ni naiz; ez duzuela beldurrik». **51** Gero igan zen hekienganat barkurat eta gelditu izan zen haizea; eta hek are gehiago espantitu ere ziren bere baithan. **52** Ez zuten ezen gogoan ungi hartu ogiez egin zuen mirakuillua, itsutua baitzen hekien bihotza.

**53** Eta iragan zirenean bertze alderat, ethorri ziren Jenesarethgo leihorrerat eta han portu hartu zuten. **54** Barkutik ilkhi zirenekotz, ezagutu zuten hango jendeek. **55** Eta kurritu zituzten inguru hartako herriak eta hasi ziren ekhartzen alde guzietatik ohetan eriak, non zen aditzen zuten toki guzietarat. **56** Eta non ere sartzan baitzen herrietan, herrisketan edo hirietan, ezartzen zituzten eriak plaza publikoetan eta errekeritzen zuten utz zetzala haren bestimendaren pertalak bederen ukitzerat; eta ukitzen zuten guziak ziren sendatzen.

## VII. KAP.

**1** Farisau batzu eta Jerusalemetik ethorriak ziren eskribauetarik zenbait ethorri ziren elkhar harturik Jesusen ganat **2** eta ikusirik haren dizipuluetarik zenbait esku lohiekien, erran nahi da garbitu gabeekien, jaten hari zirela, erasi zuten hekien kontra. **3** Farisauek ezen eta judutar guziek ere ez dute jaten eskuak maiz garbiturik baizen, aitzinekoen erakuspuna goardatzen dutela. **4** Eta merkatutik heldu direnean ere ez dute jaten, non ez diren garbitzen; bertze hainitz gauza ere badire begiratzeko eman zaiztenik, hala nola oporren eta elzeen, kobrezko baxeren eta oheen garbitzea. **5** Galdegiten zioten bada Farisauek eta eskribauek: «Zergatik ez



dabilta zure dizipuluak aitzinekoen emankarien arauera, baiñan esku lohiekien dute jaten?». **6** Baiñan hark ihardetsi izan zaroen eta erran: «Ordu onez profetisatu izan zuen Isaiasek zuetaz, hipokritez, eskribatua den bezala: Populu hunek ezpainez nau ni ohoratzen, ordean horien bihotza urrun da ene ganik; **7** eta alferretan ohoratzen ere naute, gizonen erakuspenak eta ordenamenduak irazasten dituztela, **8** ezen Jainkoaren manamenduak utzirik, gizonen erakuspena duzue begiratzten, elzeak eta ophorrak garbitzen ditutzuela eta bertze horlako hainitz gauza ere egiten ditutzuela».

**9** Erraten zaroen halaber: «Bide dakizue Jainkoaren manamenduen ezeztatzen zuen tradizioneari atxikitzeke, **10** ezen Moisek erran izan du: Ohora zatzitzu zure aita eta zure ama; eta bere aita edo ama ahapaldiztatu duena heriotzez punitua izanen da **11** Zuek diozue aitzitik: Gizon batek erraten badio bere aitari edo amari: Ene ganik diteken korbona, erranahi da ofrenda, zuri ere balia dakizula, konplitzen du legea. **12** Eta ez duzue uzten deus ere gehiagokorik egin dezan bere aitarentzat edo amarentzat, **13** ezeztatzen duzuela manera hortan Jainkoaren manamendua zebonek asmatu duzuen tradizione batez; eta horlako bertze hainitz gauza ere egiten dituzue».

**14** Jesusek erakharririk berriz populua erran zaroen: «Adi nazazue ungi guziek eta har zazue ungi nik darotzuedana. **15** Ez da deusere gizonaz kanpokorik, haren barnean sartzeaz hura hidoizta ahal dezakenik; baiñan gizonaren baitharik ilkhitzen direnak dire hura lohitzen dutenak. **16** Nihork baldin beharriak baditu aditzeko, adi dezala». **17** Gero sarthu zenean etxean, galdegin zioten bere dizipuluek hea zer erran nahi zuen parabola hark. **18** Eta erran izan zaroen: «Zuek ere horren tontoak zarete? Ez duzue, bada, konprenitzen kanpotik gizonaren barnerat sartzen den deusek ezin hura hidoizta dezakela; **19** zeren hura ez baida sartzen haren bihotzerat, baiñan baidoha sabelerat, handik sekretetarat, berekien daramala janari guziek lohi duketena? **20** Baiñan», ziotzoten, «gizona baitharik ilkhitzen direnak dire hura lizuntzen dutenak, **21** ezen gizonen barnetik eta bihotzetik ilkhitzen ohi dire pensamendu gaixtoak, adulterioak, fornikazioneak, gizon hiltzeak, **22** ebaskoak, abariziak, gaixtakeriak tronperiak, lohikeriak, begi gaizkoatua, blasfemia, orgilleria, zoramendua. **23** Horiek guziak barnetik heldu dire eta horiek dute lizuntzen gizona».

**24** Eta handik altxaturik, goan zen Tirgo eta Sidongo parterat eta, etxe batean sarthu baitzen, ez zuen nahi nihork jakin zezan, baiñan ezin

gorde zen. **25** Ezen han zela aditurik, emaste bat, zeñaren alaba poseditua baitzen izpiritu gaixto batez, sarthu zen berehala eta arthiki zen haren oiñetarat. **26** Emaste hura zen paganoa eta ethorkiz Sirofensiarra, eta othoitzez zegokon, arren khasa zezan deabrua haren alaba ganik. **27** Baiñan Jesusek erran izan zioen: «Utzaku sasia deitezen behin haurrak, ezen ez da ungi haurren ogia hartzea eta xakurrei etxatzea». **28** Hark berriz ihardetsi zioen eta erran: «Hala da, Jauna, baiñan xakur xumeak ere mahain azpian jaten dute bederen haurren ogi papurretarik». **29** Orduan erran izan zioen: «Hitz horrengatik, bada, zohaz; ilkhi da deabrua zure alaba ganik». **30** Eta goan zenean bere etxerat, aurkhitu zuen ilkhi zela deabrua eta alaba ohe gainean zetzala.

**31** Jesus berriz ilkhirik Tirgo basterretarik, ethorri zen Sidonen gaindi Galileako itsaso alderat, Dekapolisko basterren erditik iragaten zela. **32** Eta ekharri zioten gizon bat gorra eta mutua, eta errekeritu zuten haren gainean pausatzeaz eskua. **33** Orduan Jesusek jende artetik aparterat hura eramanik, ezarri zituen bere erriak haren beharrietan, eta thu egiñik ukitu zioen mihia. **34** Eta begiak zerurat altxaturik, egin zuen suspira bat eta erran izan zioen: «Ephpheta»; erran nahi da, «idek zaitte». **35** Berehala ideki ziren haren beharriak eta lexatu zen haren mihia eta mintzo zen trebeki. **36** Jesusek manatu zaroen nihori ez errateaz, baiñan zenbatenez hark gehiago debekatzen baitzaroen, eta hanbatenez hek gehiago kanporatzen zuten. **37** Eta zioten hainitz miresten zutelarik: «Ungi egin ditu gauza guziak; adiarazi daroe gorrei eta mintzarazi ditu mutuak».

## VIII. KAP.

**1** Egun hetan nola jendetze handi bat baitzen Jesusekien eta ez baitzuten jatekorik, deithu izan zituen bere dizipuluak eta erran zaroen: **2** «Urrikaltzen zait populu hau, ezen badu ja hirur egun enekien daudezela eta ez dute jatekorik. **3** Eta baldin igortzen baditut barurik bere etxetarat, flakatuko dire bidean; ezen horietarik zenbait urrundik ethorriak dire». **4** Ihardetsi izan zioten bere dizipuluek: «Nola aurkhi ahal liteke ere ogirik aski deserto huntan haukien asetzeko?». **5** Eta galdegin zaroen: «Zenbat ogi dituzue?» Ihardetsi zioten hek: «Zazpi». **6** Orduan manatu zuen populua jar zedillala lurraren gainean; eta harturik zazpi ogiak, eskerrak errendatu eta hautsi zituen, eman zarozten bere dizipuluei, hek populuari partitzeko; eta partitu izan ziotzaten. **7** Bazituzten halaber arrain guti batzu ere, zeñiak benedikatu baitzituen, eta manatu zituen parti ziotzate-



la populuari. **8** Jan zuten, bada, eta ase ziren; eta altxatu zituzten zazpi otharre betheak gelditu izan ziren zathitarik. **9** Baziren jan zutenak laur milla presunen ingurua; eta igorri zituen. **10** Handik berehala sarthurik barku batean bere dizipuluekien, ethorri zen Dalmanuthako parterat.

**11** Eta ethorririk farisauak, hasi ziren harekien ihardukitzen eta hura tentatu nahiz, galdetu zioten zer bait seiñale zerutik erakuts ziozatela. **12** Baiñan Jesusek bihotzaren barnetik hatsberherapen bat eginik erran izan zuen: «Zergatik dagot nazione hau seiñale galdez? Erraten darotzuet egia, ez zaiola emanen jenderazione huni seiñalerik». **13** Eta hek han utzirik, sarthu zen berriz barkuan eta iragan zen bertze alderat.

**14** Ahantzi zitzaien, bada, dizipuluei ogiak hartzea eta ogi bakhar bat baizen ez zuten berekien barkuan. **15** Eta Jesusek eman baitzaroen manu hau: «Begira zaitzete ungi Farisauen altxagarritik eta Herodesen lebamitik», **16** uste zuten hek eta elkhari ere erraten zaroen: «Eki hori, ogirik zeren ez dugun». **17** Eta hori ezaguturik Jesusek, erran izan zaroen: «Zergatik darasazue zuen gogoan ogirik ez duzuela? Oraino ez duzue ezagutzarik, ez adimendurik? Oraino gogorkitua duzue zuen bihotza? **18** Begiak ditutzuelarik ez duzue ikusten, beharriak ditutzuelarik ez duzue aditzen. Eta ez zarete gehiago orhoitzen. **19** Bortz ogi hautsi izan nituenean bortz milla gizonentzat, zenbat saski altxatu zinituzten zathiz betheak? «Erran zioten hek: «Hamabi». **20** Eta zazpi ogi hautsi izan nituenean laur milla gizonentzat, zenbat otharre altxatu zinituzten, puskaz betheak? «Zazpi», diotsate hek. **21** Eta erran zaroen: «Nolatan, bada?. Ez duzue, bada, oraino konprenitzen zer erran nahi dudan?».

**22** Ethorri zirenean bada Bethsaidarat, ekharri izan zioten itsu bat eta othoiztu zuten, arren uki zezan. **23** Hartu zuen itsua eskutik, eta eramnik herriaz kanporat, egin zioen thu begietarat, eta eskuak haren gainean emanik, galdegin zioen hea deusik ikusten zuen. **24** Itsuak behaturik erran zioen: «Ikusten ditut gizonak dabiltzala haritzak balire bezala». **25** Gero berriz ere eman ziotzan eskuak begien gainean eta hasi zen ikusten hobeki eta sendatu zen bain ungi, non klaroki ikusten baitzitu gauza guziak. **26** Eta igorri izan zuen bere etxerat, erraten zioelarik: «Zohaz zure etxerat, eta baldin sartzen bazare herrian, ez diozazula erran nihori hune-lakorik».

**27** Goan zen handik Jesus bere dizipuluekien Filipe Zesareako herrisketarat; eta bidean egin zaroen galde hau bere dizipuluei: «Nor naizela diote gizonak?». **28** Ihardetsi zioten hek eta erran: «Batzuk Joanes

Baptista, bertzeek Elias, bertzeek berriz lehenagoko profetetarik bezalako bat». **29** Orduan erran izan zaroen: «Eta bada zuek, nor naizela diozue?». Piarresek ihardetsi zioen eta erran: «Zu zare Kristo». **30** Eta mehatxurekien debekatu zaroen, ez ziozatela nihori erran hartaz hori.

**31** Denbora berean hasi zitzaien deklaritzen halabeharra zela gizonaren Semeak sofri zezan hainitz, izan zedin erreprobatua kargudunetz, aphezen prinzeetz, eta eskribauez izan zedin hillarazia; eta hirur egunen buruan bitz zedin hilletarik. **32** Eta mintzo zen hortaz ageriki. Orduan Piarresek harturik aparterat, erantzuten hasi zitzaioen. **33** Baiñan itzulirik eta bere dizipuluei behaturik, errepremitu zuen garrazki Piarres, erraten zioelarik: «Zohaz, aldara zaitte ene ganik, Satana, zeren ez baiduzu gusturik Jainkoaren gauzentzat, aitzitik bai lurrekoentzat».

**34** Eta erakharririk populua bereganat bere dizipuluekien batean, erran zaroen: «Baldin nihork nahi badu ene ondoan ethorri, egin biozo ukho bere buruari, eta ekhar beza bere gurutzea eta jarraik bekit niri. **35** Nork ere ezen nahiko baidu bere burua salbatu, galduko du; eta nork ere galduko baidu bere burua ene gatik eta Ebanjelioa gatik, salbatuko du. **36** Eta zer probetxu luke gizonak, irabaz baleza ere mundu guzia, baldin galtzen balu bere burua? **37** Edo zer eman dezake gizonak bere buruaren ordaintzat? **38** Ezen nihor ahalkatzen bada nitaz eta ene hitzaz arraza adultera eta bekhatoros hunen artean, Gizonaren Semea ere ahalke izanen da hartaz, noiz eta ere ethorriko baida bere Aitaren glorian bere aingeru sainduiekien». **39** Hau ere erran zaroen: «Erraten darotzuet egia, badi-rela hemen direnetarik zenbait hillen ez direnik, ikusi izan gabetakorik arribatzen Jainkoaren Erresuma bere botherearekien».

## IX. KAP.

**1** Handik sei egunen buruan Jesusek harturik Piarres, Jakobe eta Joanes eramian zituen mendi gora batetarat hek bakharrik berekien aparterat, eta tranfiguratu izan zen hekien aitzinean. **2** Haren bestimendak egin ziren argia bezain distiant eta elhurra bezain xuri; hain xuri bai, non ez bailiteke posible bolazalek lurraren gainean hain xuririk egin lezan. **3** Eta agertu zitzaizten Elias eta Moises Jesusekien mintzo zirela. **4** Orduan Piarresek hitza harturik, erran zioen Jesusi: «Nausia, ungi gare hemen; egitzigun hemen hirur etxola, bata zuretzat, bertzea Moiserentzat eta bertzea Elia-sentzat». **5** Ez zakien ezen zer erraten zuen; hain ziren ezen izituak eta





harrituak. **6** Denbora berean hedoi batek estali zituen eta ethorri zen boz bat hedoiPETIK, erraten zuena: «Hauxe da ene Seme maite maitea; hau adi zazue». **7** Eta berehala behatu baitzuten alde guzietarat, nihor gehiago ez zuten ikusi Jesus bera baizen zela hekiekien. **8** Menditik jausten hari zirela, manatu zaroen nihori ez ziotzatela erran ikusi zituzten gauzak, Gizonaren Semea hiletarik bitztuko denean baizen.

**9** Eta hek gauza bere baithan gordea atxiki zuten, elkharri galdegiten zaroelarik, zer erran nahi othe zuen errate hunek: hiletarik bitztuko denean. **10** Gero galdegin zioten eta erran: «Zer erraten dute, bada, Fari-sauek eta eskribauek, Elias ethorri beharra dela lehenago?» **11** Ihardetsi izan zaroen Jesusek: «Egia da, Elias ethorriko da lehenago eta gauza guziak bere estaturako ditu eta Gizonaren Semeaz eskribatua izan den bezala, hark ere sofrituko du hainitz; gaitzetsia eta mesprezaturia izan den da. **12** Baiñan erraten darotzuet zuei, Elias bera jadan ethorri izan dela, eta haren gainean egin izan dutela nahi zuten guzia, hartaz eskribatua izan den bezala. **13** Ethorri izan zenean bere bertze dizipuluetaratik, ikusi zuen jende mulzo handi bat hekien inguruan eta eskribauak hekiekien zihardukatela.

**14** Eta berehala populu guzia espantitu zen eta izitu Jesus ikustean, eta lauster eginik haren ganat, salutatu zuten. **15** Orduan galdegin zaroen: «Zertaz dihardukazue zuen artean?». **16** Eta jendetze haren artetik batek hitza harturik, erran zioen: «Nausia, ekharri izan dut ene semea zureganat, zeina poseditua baida izpiritu mutu batez. **17** Hartzen duen guzian arthikitzen du lurraren kontra, eta haurrari arrapoa dario, hortzak karraskatzen ditu, eta ihartzen hari da guzia; othoiztu ditut zure dizipuluak, arren khen diozaten izpiritu gaixto hura, eta ezin egin dute». **18** Ihardetsi zaroen Jesusek eta erran: «O jende sinheste gabeak, noiz arteraño pairatuko zaituztet? Ekharrazue haurra ene ganat». **19** Ekharri izan zioten eta Jesus ikusi zuenekoitz izpirituak, iharrosi zuen haurra, eta lurrerat eroririk itzulika zebillan haguna zarioela. **20** Jesusek galdegin zioen haurraren aitari: «Zenbat denbora du hori gerthatzen zaiola?». Eta hark erran zioen: «Bere haurtasunetik. **21** Eta maiz aurthiki izan du surat eta bai urerat, galazari nahiz; baiñan deusik ahal badagizu, gaitzatzun urrikari eta lagun gaitzatzu». **22** Jesusek ihardetsi zioen: «Baldin sinhets ahal badezazu, gauza guziak ahalkor zaizko sinhesten duenari». **23** Berehala haurraren aitak erran zioen oihuz eta nigarrez zegoelarik: «Sinhesten dut, Jauna; hel zakizkit ene sinhetsgogorrean». **24** Eta ikusirik Jesusek populu tropelaka heldu zela, mehatxatu zuen izpiritu lohia erraten zioelarik: «Izpiritu gorra

eta mutua, nik manatzen haut: ilkhi adi haur horren ganik eta gehiago ez hadin sar horren baithan». **25** Orduan izpiritu hura ilkhi zen oihu handi bat eginik eta haurra hainitz porroskaturik; eta egin zen haurra hilla bezala, halako maneraz non hainitzek baitzioten hill ere zela. **26** Baiñan Jesusek eskutik harturik altxatu zuen eta jaiki zen haurra. **27** Jesus sarthu zenean etxean, bere dizipuluek galdegin zioten apartean: «Zergatik ezin guk kasatu dukegu deabru hura?» **28** Jesusek ihardetsi zaroen: «Deabru suerte horiek ezin khen daitezke orazionez eta barurez baizen». **29** Handik ilkhirik goan ziren Galilean gaindi eta ez zuen nahi nihork jakin zezan.

**30** Bizkitartean irakasten zaroen bere dizipuluei eta erraten: «Gizonaren Semea libratua izanen da gizonen eskuetaratik eta hillen dute eta bitztuko da hillen denetik hirugarren egunean». **31** Baiñan hek ez zuten deusik konprenitzen hizkuntza hortan eta izi ziren hari galdegiterat horren explikazionea. **32** Ondoan ethorri ziren Kafarnaumerat eta etxerat zirenean, galde egin zaroen: «Zertaz minzo ziñeten elkharren artean bidean?».

**33** Hek ordean ixillik zeudezen, zeren bidean iharduki izan baitzuten elkharren artean, zein ziteken hetarik handiena. **34** Eta jarri zenean, erakharri zituen hamabiak eta erran zaroen: «Baldin nihork nahi badu izan lehenbiziko, izanen da guzietarik azkena eta guzien zerbitzaria». **35** Gero hartu zuen haurtxo bat eta hekien erdian emanik, besarkatu zuen eta erran zaroen: **36** Nork ere errezipituko baidu hunelako haurtxoetarik bat ene izenean, ni errezipitzen nauke; eta nork ere ni errezipitzen bainau, eta hark ez nau ni xoilki errezipitzen, baiñan bai ni igorri izan nauena». **37** Orduan Joanesek hitza harturik, erran zioen: «Nausia, ikusi dugu gizon bat zure izenean deabruak khentzen dituen, zeña ez baida guretarik, eta debekatu dugu».

**38** Baiñan Jesusek ihardetsi zioen: «Ez dezazuela debeka; ez da ezen nihor, ene izenean mirakuillu bat egin dukenean, berehala nitaz gaizki minza ahal daitekenik. **39** Ezen zuen kontra ez dena, zuen alde da. **40** Hala nork ere emanen baidarotzue beira bat ur ene izenean, zeren Kristorenak zareten, erraten darotzuet egia, ez duela galduko bere saria. **41** Eta baldin nihork eskandalisatzen badu ene baithan sinhesten duten xume hautarik bat, hobe luke haiñak, errota barri bat lephoan amarraturik, etxa lezaten itsasoan behera.

**42** Baldin zure eskuak trebekaratzitzen bazaitu, ebaki zazu; hobe da zuretzat sartzea bizitzean esku bakhoitzdun, ezen ez bi esku ditutzula goatea ifernurat, behinere iraungituko ez den surat; **43** zeñetan hekien



harra ez baida hiltzen eta sua ez baida iraungitzen. **44** Eta baldin zure oiñak behatztoparazten bazaitu, ebaki zazu; hobe da zuretzat maingu ere sartzea bizitze eternelan, ezen ez bi oiñak ditutzula arthikia izatea ifernurat, behiñere iraungituko ez den surat; **45** zeñetan hekien harra ez baida hiltzen eta sua ez baida iraungitzen. **46** Baldin zure begiak bazaitu eskandalisatzen, iraz zazu; hobe da zuretzat okher sartzea Jainkoaren erresuman, ezen ez bi begiak ditutzula arthikia izatea ifernuko surat; **47** zeñetan hekien harra ez baida hiltzen eta sua ez baida iraungitzen. **48** Ezen guziak suaz gazituak izan beharrak dire, hala nola biktima guziek gatzaz gazituak izan behar baidute.

**49** Gauza ona da gatza; baldin ordean gatza gezatzen bada, zertaz gazituko duzue? Izan zazue zebeñ baithan gatza, eta duzuen bakea elkharren artean».

## X. KAP.

**1** Jesus handik abiatu ethorri izan zen Judeako bazterretarat Jordanaz bertze alderat, eta tropelak bildu izan baitziren berriz haren ganat, hasi zen ohi bezala berriz ere hei irakasten. **2** Eta Farisauak ere harat ethorririk, galdez zegozkon hura tentatzea gatik, hea zilhegi zaioen gizonari bere ematea uztea. **3** Baiñan ihardetsi zaroen eta erran: «Zer manatu izan darotzue Moisek?». **4** Hek berriz erran zioten: «Moisek permetitu izan du separazioneko eskribu bat eginik ematea uztea». **5** Jesusek ihardetsi zaroen eta erran: «Zuen bihotzeko gogortasuna gatik eman darotzue ordenamendu hori. **6** Baiñan kreazionearen hastetik Jainkoak gizon bat eta emate bat egin zituen. **7** Horren gatik du utziko gizonak bere aita eta bere ama, eta da egonen bere emastearekien. **8** Eta dire izanen biak haragi bat eta hala gaur gehiago ez dire bia, baiñan haragi bat. **9** Jainkoak bat egin izan duena, beraz, ez beza gizonak separa». **10** Etxerat zenean, bada, bere dizipuluek galdegin zioten gauza hortaz beraz, **11** eta erran zaroen: «Nork ere utzten baidu bere ematea eta bertze bat esposatzen, adulterioa egiten du haren kontra. **12** Eta baldin emasteak utzten badu bere senharra eta bertze batekien ezkontzen bada, adulterioa egiten du».

**13** Orduan ekharri ziotzaten haurtxo batzu uki zetzantzat eta dizipuluek arbuaitzen baitzituzten mehatxurekien hekien presentatzaileak, **14** Jesusek hori ikusirik, damu hartu zuen eta erran zaroen: «Utzatitzue haurtxoak ethortzerat ene ganat, eta ez detzatzuela debeka; horlakoena da

ezen Jainkoaren erresuma. **15** Erraten darotzuet egia: Nork ere ez baidu errezibituko Jainkoaren erresuma haurtxo baten antzura, ez dela han sartuko». **16** Eta besarkaturik haurtxo hek eta eskuak hekien gainean emanik, benedikatu zituen.

**17** Ilkhitzen hari zela bideari emateko, ethorri zitzaioen lausterrez presuna bat eta haren aitzinean belhaurikaturik galdegin zioen: «Nausi ona, zer egin behar dut bizitze eternela ardiesteko?». **18** Jesusek ihardetsi zioen: «Zergatik deitzen nauzu ona? Ez da nihor onik, Jainkoa bera bai zen. **19** Manamenduak badakitzu: Ez dezazula egin adulteriorik, ez dezazula nihor hill, ez dezazula ebats, ez derrazula falso testimoniorik, ez diozozula egin nihori bidegaberik, ohora zatzu zure aita eta ama». **20** Eta hark ihardetsi zioen: «Nausia, horiek guziak begiratu izan ditut neure gastetasunetik». **21** Jesusek bada behaturik, onetsi zuen eta erran zioen: «Gauza bat eskas duzu oraiño: Zohaz, ditutzun guziak sal zatzitzu, eta emotzute pobreei, eta izanen duzu thresor bat zeruan; zato gero eta segi nazazu ni». **22** Baiñan gizon hura hitz horrek tristaturik goan zen guzia doloratua, zergatik ontasun hainitzen jabe baitzen.

**23** Orduan Jesusek ingurutarat behaturik, erran zaroen bere dizipuluei: «Ala nekhez sarthuko baidire Jainkoaren Erresuman diru hainitz dutenak». **24** Eta espantituak baitziren hitz horietaz dizipuluak, Jesusek berriz erran zaroen: «Ene haurrak, ala gaitx baida aberatstasunetan bere fidantzia ematen dutenak sartzea Jainkoaren Erresuman. **25** Errexago da kamelu bat orratz baten zilhotik iragatea, ezen ez aberats bat Jainkoaren Erresuman sartzea». **26** Eta are gehiago miresten zuten, ziotelarik: «Eta nor, beraz, salba ahal diteke?». **27** Baiñan Jesusek hei behaturik, erran zaroen: «Hori gizonen baithan inposiblea da; ez ordean Jainkoa baithan, guziak ezen posible dire Jainkoarentzat».

**28** Orduan Piarres hasi zitzaioen erraten: «Huna guk utzi izan ditugu guziak eta jarraiki gaitzkitzu zuri». **29** Jesusek ihardetsi zioen: «Erraten darotzuet egia: Nihor ez da utzi dukenik etxea edo bere anaia edo bere arreba edo bere aita edo bere ama edo bere haurrak edo bere lurak ene gatik eta Ebanjelioa gatik, **30** zeñiek ez baidu errezibituko ehunetan hanbat oraindanik mende huntan berean, etxe eta anaia eta arreba eta ama eta haur eta lur, atsekabekien batean; eta ethorkisuneko mendean bizitze eternela ere. **31** Ordean lehenbiziko zirenetarik hainitz izanen dire azkeneko eta hainitz azkeneko zirenetarik berriz lehenbiziko».



**32** Eta bidean zihoazela Jerusalemerat igateko, aitzinean zihoakoten Jesus eta espantituak eta izituak zihoazen haren ondotik. Jesusek hartu zituen berriz ere hamabiak aparterat, eta hasi zitzairen erraten zer arribatu behar zitzaion: **33** «Huna non goazen Jerusalemerat, eta Gizonaren Semea libratua izanen zaie aphezen prinzeei eta eskribauei eta kargudunei; eta kondenatuko dute heriotzerat eta libratuko paganoen eskuetarat. **34** Eta trufa egiñen diote, thu eginen diote bisaiarat, azotatuko dute eta hiliaraziko dute eta hilletarik biztuko da hirugarren egunean.

**35** Orduan ethorri zitzaizkon Jakobe eta Joanes Zebedearen semeak eta erran zioten: «Nausia, nahi ginduke guk, galdetu gogo darotzuguna egin zinezagun». **36** Ihardetsi zaroen: «Zer nahi duzue egin diezazuedan?». **37** «Eman diezaguzu», diotsate, «bata zure eskuiñeko aldean eta bertzea zure ezkerrekoan jar gaitezen zure glorian». **38** Baiñan Jesusek erran zaroen: «Ez dakizue zer galdetzen duzuen. Edan dezakezue nik edan behar dudan kalixa, eta nik bathatua izan behar dudan bathaioan izan ahal zaitzekete bathaiatuak». **39** Ihardetsi zioten bek: «Egin dezakegu hori». Jesusek berriz erran zaroen: «Nik edan behar dudan kalixa edanen duzue, hala da; eta nik bathaiatua izan behar dudan bathaioaz bathaiatuak izanen zarete. **40** Ordean ene eskuineko edo ezkerreko aldean jartzea, ez dagot niri zuei ematea, baiñan haiñei emanen zaie, zeinei preparatua izan baitzaie».

**41** Eta hori aditurik, bertze hamarrak hasi ziren hasarratzen Jakoben eta Joanesen kontra. **42** Baiñan Jesusek bere ganat erakharririk erran zaroen: «Badakizue populuen gainean autoritate dutenek erakusten dutela hekien gainean bere nausitasuna, eta hekien prinzeek bere manuko dagozkatela hek. **43** Ordean ez da horla izanen zuen artean; aitzitik nork ere nahiko baidu izan handiena, eta hark beharko du izan zuen muthill. **44** Eta nork ere nahiko baidu izan zuetarik lehenbiziko, eta beharko du izan guzien zerbitzari. **45** Ezen Gizonaren Semea ere ez da ethorri izan zerbitzatua izaterat, aitzitik bai zerbitzaterat eta bere bizia ematerat hainitzen erresketamenduarentzat».

**46** Ondoan ethorri ziren Jerikorat eta Jerikotik ilkhitzen hari zela bere dizipuluekien eta jendetze handi batekien, itu bat Bartimeo, Timeoren semea, zegoen jarria bide basterrean eske; **47** eta aditurik Jesus Nazarethekoa zela, hasi zen oihuz erraten: «Jesus, Dabiden Semea, nauzun urrikari». **48** Eta mehatxuz zegozkon hainitz, zegoela ixillik; bainan hark oihua hagitz zaraman gorago: «Dabiden Semea, nauzun urrikari». **49** Orduan Jesus gelditu zen; eta manatu zuen erakhar zezatela; eta deithu

zuten erraten ziotelarik: «Egizu kuraie; altxa zaite; deitzen zaitu». **50** Eta hura bere kapa etxaturik, altxatu zen eta ethorri Jesusen ganat. **51** Jesusek hitza harturik, erran izan zioen: «Zer nahi duzu egin diezazudan?». Itsuak ihardetsi zioen: «Nausia, egizu ikus dezadan». **52** Jesusek, bada, erran zioen: «Zohaz, kure fedea salbatu zaitu». Eta instant berean hasi zen ikusten eta jarraiki zitzaion Jesusi bidean.

## XI. KAP.

**1** Jerusalemerat hurbildu zirenean eta Bethanariat Olibetako mendia aldetik, igorri zituen bere dizipuluetarik bia, **2** eta erran zaroen: «Zohazte zuen aitzinean den herriska hortarat eta han sarthu zaretenekotz, aurkhituko duzue asto ume bat estekatua, zeinaren gainean nihor ez baida oraino jarri izan; lexa zazue eta ekhar diezadazue. **3** Eta baldin nihork erraten badarotzue: Zer hari zarete?, errazue: Jaunak baidu horren beharra. Eta berehala utziko du hunat ekhartzerat». **4** Goan ziren, bada, eta aurkhitu zuten asto umea estekatua kanpoan, athe aitzinean, bi bideen erdian, eta lexatu zuten. **5** Eta han zirenetarik zenbaitek, erran zaroen: «Zer hari zarete, asto ume hori lexatzen baiduzue?». **6** Ihardetsi izan zaroen hek Jesusek manatu izan zaroen bezala; eta utzi zaroen eramaterat. **7** Ekharri zioten, bada, asto umea Jesusi, estali izan zuten bere tresnez eta jarri zen haren gainean. **8** Haiñitzek halaber hedatu zituzten bere bestimendak bidean, bertzek berriz adarrak ebakirik arboletarik hedatzen zituzten hura iragaten zen tokian. **9** Eta hala aitzinean zihoazanak, nola ondotik heldu zirenak, oihuz zeudezen erraten zutelarik: «Hosana, agur eta gloria. **10** Benedikatua dela Jaunaren izenean heldu dena. Benedikatua dela gure aita Dabiden Erresuma heldu zaikuna. Hosana, agur eta gloria zeruen gorenean». **11** Sarthu zen gero Jesus Jerusalem eta goan zen tenplurat eta alde guzietarat behatu ondoan, berandua ere baitzen jadan, goan zen Bethanariat hamabi Apostoluekien.

**12** Biharamunean Bethaniatik ilkhitzen zirela, gosetu zen. **13** Eta ikusirik urrundik fiko ondo bat ostoak zituena, ethorri zen hea deusik aurkhituko othe zuen hartan; eta hurbildu zenean, ez zuen aurkhitu ostorik baizen, ez zen ezen fikoen denbora. **14** Orduan Jesusek erran zioen fiko ondoari: «Hemendik harat gehiago sekulan hire ganik nihork jan ez dezala fruiturik». Eta aditu zuten haren dizipuluek hori.



15 Jerusalemerat ethorri eta sarthu zen tenpluan, eta hasi zen khen-tzen handik saltzen eta erosten hari zirenak eta arthiki zituen ganbiado-reen mahaiñak eta uso kolonba salzailleen alkhiak. 16 Ez zuen ere uzten nihor, erabill zezan gauzarik batere tenplutik. 17 Eta hari zitzaien irakasten, erraten zaroelarik: «Eskribatua ez da ene etxea othoitzeko etxea izanen dela deithua nazione guzietan? Bizkitartean zuek egin duzue hura ohoiñen gordelekhu bat». 18 Hori aditurik, aphezen prinzeak eta eskribauak bilha zebiltzan nola galaraz othe zezaketen; beldur zitzaizkon ezen, zeren populu guzia espantutan baitzegoen haren dotrinaz. 19 Arratsaren gaiñerat ilkhitzen zen hiritik.

20 Biharamun goizean iragaten zirela, ikusi zuten fiko ondoa erroetarik ihartua. 21 Eta orhoiturik, Piarresek erran zioen: «Nausia, huna zuk madarikatu izan duzun fiko ondoa non den ihartua». 22 Jesusek hitza harturik erran zaroen: «Duzuen Jainkoa baithan fidanzia. 23 Erraten darotzuet egia: Nork ere erranen baidioke mendi huni: Khen adi hortik eta arthik adi itsasorat, eta hori bere bihotzean dudarik gabe, baiñan sinhetsirik erran duken guzia egiñen dela, hala eginen zaio. 24 Hargatik darotzuet erraten: Zer ere othoitzez galdetuko baiduzue, sinhetsazue ardietsiko duzuela, eta hala helduko zaizkitzue ere. 25 Ordean othoitzean jartzen zaretenean, baldin deusik nihoren kontra baduzue, barkha diozozue, zuen Aita zeruetan denak ere zuei barkha dietzatzuentzat zuen bekhatuak. 26 Ezen baldin zuek barkhatzen ez baduzue, zuen Aita zeruetan denak ere ez darozkitzue barkhatuko zuen bekhatuak».

27 Ondoan ethorri ziren berriz Jerusalemerat; eta tenpluan zebillala, ethorri zitzaizkon aphezen prinzeak, eskribauak eta kargudunak. 28 Eta erran zioten: «Zer autoritatez egiten ditutzu gauza horiek eta nork eman darotzu bothere horien egiteko?». 29 Jesusek, bada, ihardetsi izan zaroen eta erran: «Nik ere gauza bat nahi darotzuet galdegin. Ihardets diezadazue eta ondoan erranen darotzuet zer autoritatez egiten ditudan gauza horiek. 30 Joanesen bathaioa zerutik zen ala gizonetarik? Ihardets diezadazue». 31 Baiñan hek elkharren artean arrozoinatzen zuten ziotelarik: «Baldin erraten badugu zerutikan zela, erranen daroku: zergatik, beraz, ez duzue hura sinhetsi: 32 Erraten badugu berriz gizonetarik zela, beldur izateko gare populuarentzat». Ezen guziek zadukaten Joanes egiazki zela profeta. 33 Eta hala ihardetsi zioten Jesusi eta erran: «Ez dakigu». Jesusek berriz erran zaroen hei: «Nik ere ez darotzuet erranen zer autoritatez egiten ditudan horiek».



## XII. KAP.

1 Gero hasi zitzaian Jesus paraboletan erraten: «Gizon batek landatu izan zuen mahasti bat, inguratu zuen hesiz eta egin zuen lurtean putzu bat dolharentzat, bastitu zuen dorre bat, eta laborariei alokaturik mahastia, goan zen lekhu urrun batetarat. 2 Sasoiña ethorri zenean, igorri zaroen mahastizainei bere zerbitzari bat, hekien ganik errezibitzeko mahastiko fruituetarik zor ziotena. 3 Baiñan hek hura harturik zehatu zuten eta igorri hutsik. 4 Berriz igorri izan zaroen bertze zerbitzari bat, eta hura buruan zaurthu izan zuten eta injurio suerte guziak egin ziotzaten. 5 Bertze bat oraiño igorri izan zuen; hura hill zuten, eta bertze hainitz ere igorri baitzarozten ondoan, hetarik batzuek zehatu eta bertzeak berriz hill zituzten. 6 Fiñean seme bakhoitz eta maite bat izan eta hura ere igorri izan zaroen azkenekotz, erraten zuelarik ezen: Agian ene semearentzat izanen dute zerbait ikustate. 7 Baiñan mahastizaiñek bere artean erran zuten: Huna primua; zatozte, hill zagun eta guretzat izanen da ontasuna. 8 Harturik, bada, hill zuten eta arthiki mahastitik kanporat. 9 Zer egiñen othe du, beraz, mahastiaren jabeak? Ethorriko da, galaraziko ditu mahastizaiñ hek eta emanen daroe bere mahastia bertzei. 10 Eskriturako erran hau ez duzue irakurri: Bastitzaileek arbuiatu izan duten harria egin izan da kantoineko harri burua; 11 Jaunaz egiña izan da hori eta da gauza miragarria gure begietan?». 12 Aiher ziren bada haren gelditzerat, baiñan beldur popularentzat, ezagutu zuten ezen hetaz minzo zela parabola hortan; eta hura han utzirik, goan ziren handik.

13 Gero igorri izan ziotzaten farisauetarik eta herodiarretarik zenbait, hura bere hitzetan atzeman nahiz. 14 Eta hek ethorririk, erran izan zioten: «Nausia, badakigu egiatia zarela eta nihoren antsiarik ez duzula, ezen ez diozu behatzen gizonaren iduriari, baiñan egiazki irakasten duzu Jainkoaren bidea. Zilhegi da tributua pagatzea Kaesari?». 15 Eta hark ezaguturik hekien hipokrisia erran zaroen: «Zergatik tentatzen nauzue? Ekhar diezadazue denario bat ikus dezadan». 16 Ekharri zioten eta hark erran zaroen: «Norena da figura hau eta eskribu hau?». «Kaesarena», diotsate hek. 17 Jesusek ihardetsi izan zaroen eta erran: «Errenda diotzatzue, beraz, Kaesaren direnak Kaesari eta Jainkoaren direnak Jainkoari». Eta miretsi zuten haren erreputa.

18 Ondoan ethorri zitzaizkon saduzearrak, zeñiek erraten baidute ez dela hillen bizterik, eta galde hau egin zioten: 19 «Nausia, Moisek eskribuz utzi izan daroku: Baldin norbeiten anaia hiltzen bada eta uzten badu

dek berak deitzen du hura bere Jauna. Eta nondik da haren semea?». Eta populuaren parte handi batek gogo onez aditzen zuen.

38 Eta erraten zaroen bere irakasteko maneran: «Begirautzue eskribu baretarik, zeñiek lakhet baidute arroba luzeekien ibiltzea eta plaza publikoetan agurrak izatea, 39 bai eta sinagogetan lehenbiziko kadiretan eta banketetan lehenbiziko plazetan jartzea; 40 zeñiek iresten baidituzte alhargunen etxeak, orazione luzeak egiten dituztelako atzekian. Halakoek kondenezione garratzago bat izanen dukete».

41 Eta Jesus jarririk zegoela thresoraren aitzinean, beha zegoen nola populuak etxatzen zuen dirua harat eta nola hainitz aberatsek ematen zuten haiñitz. 42 Ethorri zen, bada, alhargun pobre bat eta eman zituen bi kornadu xume, zeñiek egiten baizuten ardit bat. 43 Orduan bere dizipuluak bere ganat deithurik erran zaroen Jesusek: «Erraten darotzuet egia, alhargun pobre horrek eman duela gehienik thresorerat eman duten guzietarik. 44 Ezen bertze guziek frankiaz zutenetik eman dute; horrek ordean bere pobreziatik eman du zuen guzia».

## XIII. KAP.

1 Eta tenplutik ilkhitzen hari zela, erran zioen bere dizipuluetarik batek: «Nausia, beha zazuia nolako harriak eta nolako asentuak diren». 2 Baiñan Jesusek ihardetsi zioen eta erran: «Ikusten ditutzu asentu handi horiek guziak? Ez da geldituko harria harriaren gainean destruitua izanen ez denik».

3 Ondoan jarria zegoela Olibetako mendian tenpluaren biztan, galdegin izan zioten Piarresek, Jakobek, Joanesek eta Andresek: 4 «Erraguzu noiz horiek gerthatuko diren eta zer seiñale izanen den gauza horiek guziak konplitu beharko direnean». 5 Horren gainean Jesus hasi zitzaian erraten: «Begirautzue nihork engana ez zaitzaten. 6 Ethorriko dire ezen ene izenean hainitz erranen dutenak: Ni naiz Kristo. Eta enganatuko dituzte haiñitz. 7 Noiz ere, bada, adituko baiduzue mintzatzen gerlez eta gerla hotsez, ez zaitezela izi; ezen horiek hala beharrak dire, baiñan ez diteke oraiño akhabantza. 8 Altxatuko da ezen populua populuaren kontra eta erresuma erresumaren kontra, eta izanen dire lur ikharatzeak lekhu haiñitzetan eta goseteak. Horiek ditezke doloreen hastapenak.

9 Ordean zuek goardia emozue zuen buruei; eramanen zaituzte ezen juien batzarretarat, azotaraziko zaituzte sinagogetan, eta presentatu



dek berak deitzen du hura bere Jauna. Eta nondik da haren semea?». Eta popularen parte handi batek gogo onez aditzen zuen.

**38** Eta erraten zaroen bere irakasteko maneran: «Begirautzue eskribuetarik, zeñek lakhet baidute arropa luzeekien ibiltzea eta plaza publikoetan agurrak izatea, **39** bai eta sinagogetan lehenbiziko kadiretan eta banketetan lehenbiziko plazetan jartzea; **40** zeñek iresten baidituzte alhargunen etxeak, orazione luzeak egiten dituztelako atzekian. Halakoek kondenaizone garratzago bat izanen dukete».

**41** Eta Jesus jarririk zegoela thresoraren aitzinean, beha zegoen nola populak etxatzen zuen dirua harat eta nola hainitz aberatsek ematen zuten haiñitz. **42** Ethorri zen, bada, alhargun pobre bat eta eman zituen bi kornadu xume, zeñek egiten baizuten ardit bat. **43** Orduan bere dizipulak bere ganat deiturik erran zaroen Jesusek: «Erraten darotzuet egia, alhargun pobre horrek eman duela gehienik thresorerat eman duten guzietarik. **44** Ezen bertze guziek frankiaz zutenetik eman dute; horrek ordean bere pobreziatik eman du zuen guzia».

### XIII. KAP.

**1** Eta tenplutik ilkhitzen hari zela, erran zioen bere dizipuluetarik batek: «Nausia, beha zazuia nolako harriak eta nolako asentuk diren». **2** Baiñan Jesusek ihardetsi zioen eta erran: «Ikusten dituzu asentu handi horiek guziak? Ez da geldituko harria harriaren gainean destruitua izanen ez denik».

**3** Ondoan jarria zegoela Olibetako mendian tenpluaren biztan, galdengin izan zioten Piarresak, Jakobek, Joanesek eta Andresek: **4** «Erraguzu noiz horiek gerthatuko diren eta zer seiñale izanen den gauza horiek guziak konplitu beharko direnean». **5** Horren gainean Jesus hasi zitzairen erraten: «Begirautzue nihork engana ez zaitzaten. **6** Ethorriko dire ezen ene izenean hainitz erranen dutenak: Ni naiz Kristo. Eta enganatuko dituzte haiñitz. **7** Noiz ere, bada, adituko baiduzue mintzatzen gerlez eta gerla hotsez, ez zaitzeltela izi; ezen horiek hala beharrak dire, baiñan ez diteke oraino akhabantza. **8** Altxatuko da ezen populua popularen kontra eta erresuma erresumaren kontra, eta izanen dire lur ikharatzeak lekhu haiñitzetan eta goseteak. Horiek ditezke doloreen hastapenak.

**9** Ordean zuek goardia emozue zuen buruei; eramanen zaituzte ezen juieen batzarretarat, azotaraziko zaituzte sinagogetan, eta presentatu

nen jenderaizone hau, non ez diren konplitzen horiek guziak. **31** Zerua eta lurra iraganen dire, baiñan ene hitzak ez dire iraganen. **32** Egun hartaz eta orenaz denaz bezanbatean, nihork hura ez daki, ez zeruan diren aingeruek, ez Semeak ere, Aitak berak baizen.

**33** Begirautzue; zaudete atzarriak, eta egizue othoitz, ez dakizue ezen noiz diteken denbora hura. **34** Hala nola kanporat dohan gizon batek uzten baidu bere etxea bere zerbitzarien artharen azpian, hei zeinei bere egin behar duten obra exleiturik, eta manatzen baidio athalzaiñari dagoe-la atzarria. **35** Zaudete beraz atzarriak, ez dakizue ezen noiz ethorriko diteken etxeko jauna, arratsean ala gauerditan ala oillarritean ala goizean; **36** uste gabeen ethor ditekenean, aurki ez zaitzaten lohakhatuak. **37** Eta zuei erraten darotzuedana, guziei erraten dioketet: zaudete atzarriak».

### XIV. KAP.

**1** Zen, bada, Bazko eta ogi lebami gabekoen besta bi egunen buruan; eta aphezen prinzeak eta eskribauak zebiltzan bilha, nola Jesus fiñeziaz atzemanen zuten eta hillaraziko zuten. **2** Zioten ordean: «Ez da hori egin behar besta egunean, zerbait alborotamendu altxa ez dadin popularen artean».

**3** Jesus, bada, Bethanian zela Simon lepratsuaren etxean eta mahaiñean zegoela, ethorri izan zen emasteki bat, jarro bat nardo burutuzko ungentu preziatuz bethea zakharkena; eta jarroa hautsirik, isuri izan, zuen haren buruaren gainerat. **4** Ziren, bada, zenbait hori bere bait-han gaitxetsi zutenak eta ziotenak: «Zertako galdu behar zen ungentu hori horla? **5** Sal ahal ziteken ezen ungentu hori hirur ehun denario baiño gehiagotan eta eman pobreei». Eta bazarasaten emaste haren kontra. **6** Baiñan Jesusek erran zaroen: «Utzazue gaxoa; zergatik, damu egiten diozue? Obra on bat egin du ene alderat. **7** Bethiere ezen pobreak zuekien dituzketzue eta nahi duzuenen hei ungi egin ahal diozokezue; ordean ni ez nauzue bethi izanen. **8** Ahal duena hunek egin du; gantzutu du aitzine-rat ene gorputza ehorts orduko. **9** Erraten darotzuet egia: non ere predikatua izanen baida Ebanjelio hau mundu uniberso guzian, hunek egin duena ere kondatua izanen da hunen laudoriotan».

**10** Orduan Judas Iskariotez hamabietarik bat goan zen aphezen prinzeetarat Jesus hei libratzeko xedez. **11** Hek hori aditzeaz atsegin hartu



zuten eta agindu ere zioten dirua emateko eta ordutik atiza bilha zebillan hura hei libratzeko.

**12** Lebami gabeko ogien lehenbiziko egunean, bada, zeinetan Bazkoko bildotsa sakrifikatzen baitzuten, erran izan zioten bere dizipuluek: «Norat nahi duzu goazen eta prepara diezazugun Bazkoa jateko behar dena?». **13** Igorri zituen bere dizipuluetarik bia eta erran zaroen: «Zohazte hirirat eta bathuko zaitzue gizon bat pegar bat ur daramana; jarraik zakizkote hari. **14** Eta non ere sarthuko baida, errozue etxeko jaunari: Nausiak dio: Non da ene dizipuluekien Bazkoa janen dukedan lekhua? **15** Erakutsiko darotzue hark gela handi bat aphaindua; eta han prepara diezazugue behar dena». **16** Goan ziren haren dizipuluak eta ethorri izan ziren hirirat eta hark erran bezala aurkhitu zuten eta preparatu zuten Bazkoko behar zitekena.

**17** Arratsa ethorri zenean, bada, ethorri zen harat hamabiekien. **18** Eta mahaiñean zeudezela eta jaten hari zirela, erran zaroen Jesusek: «Erraten darotzuet egia, zuetarik batek tradituko nauela, zeñiek enekien jaten baidu». **19** Eta hek hasi ziren tristatzen eta batek bertzearen ondoan galdetzen: «Ni othe naiz?». **20** Ihardetsi izan zaroen: «Hamabietarik bat da, zeñiek eskua platean enekien ematen baidu. **21** Gizonaren Semea badoha alabainan, hartaz eskribatua izan den bezala: baiñan zorigaitz gizon hai-narentzat, zeinetetaz Gizonaren Semea izanen baida traditua; hobe liteke gizon harentzat egundaiño sorthu ez balitz».

**22** Jaten hari zirela, hartu izan zuen Jesusek ogia eta benedikaturik hautsi zuen eta eman zaroen, erraten zaroelarik: «Har zazue, hau ene gorphutza da». **23** Ondoan harturik Kalixa, eskerrak errendatu eta, eman zaroen eta edan zuten guziek hartarik. **24** Eta erran zaroen: «Hau ene odola da, testament berrikoa, zeñia isuriko baida haiñitzentzat. **25** Erraten darotzuet egia, ez dudala edanen hemendik harat mahastiko fruitu huntarik, hura berririk Jainkoaren Erresuman edanen dudan eguneraiño».

**26** Eta eskerren emateko himno bat kantatu ondoan, goan ziren Olibetako mendirat. **27** Orduan erran zaroen Jesusek: «Guziak eskandalisatuko zarete nitaz gau huntan, eskribatua da ezen: Jonen dut arzaña eta barraiatuko dire ardiak. **28** Baiñan hilletarik biztuko naizenean, goanen naiz zuen aitzinean Galilearat». **29** Piarresék bada erran zioen: «Guziak eskandalisa balitez ere zutan, ni ordean ez naiz egiñen». **30** Jesusek erran zioen: «Erraten darotzut egia, zuk zeronek gaurko gau huntan berean, oillarrak bietan kantatuko duken baiño lehen hirur aldiz arnegatuko nau-

zula». **31** Baiñan hark are lehia gehiagokorekien ziotson: «Zurekien hill behar banu ere, ez zaitut arnegatuko». Eta orobat erraten zuten guziek ere.

**32** Ondoan ethorri ziren Jethsemani deitzen zen lekhu batetarat eta han erran zaroen bere dizipuluei: «Jar zaitzte hemen, ene othoitza egin dukedan artean». **33** Harturik bada Piarres, Jakobe eta Joanes berekien, hasi zen izitzen eta enkoniatzen. **34** Eta erran zaroen: «Tristatua da ene arima heriotzeraiño koan; zaudete hemen atzarriak». **35** Eta urrunxeago goanik, arthiki zuen bere burua lurrerat othoitzez zegoela, baldin egin baziteken, urrun zedin haren ganik oren hura. **36** «Ene Aita, ene Aita», ziotsan; «gauza guziak posible dire zuretzat; aldara zazu kalix hau ene ganik; halarik ere, bada, egin bedi zure borondatea eta ez enea». **37** Ethorri zen gero bere dizipuluetarat, eta aurkhiturik lo zauntzala, erran zioen Piarresi: «Simon, lo zauntza? Ezin egon zare oren batez atzarria? **38** Zaudete atzarriak eta egizue othoitza, sar ez zaitzeten tentazionean; izpiritua agudo da, ordean haragia flako». **39** Eta berriz ere goanik, egin zuen othoitza solhas bera zaukala. **40** Gero ethorriarik, berriz ere aurkhitu zituen oraino lokhartuak, hekien begiak ezen kargatuak ziren eta ez zakiten zer ihardets ahal ziozoketen. **41** Ethorri zen oraiño hirugarrenean eta erran zaroen: «Egizue lo orai eta pausa zaitzete; aski da; ethorri da orena; huna non Gizonaren Semea dohan libratua izaterat bekhatosen eskuetar. **42** Altxa zaitzete, goazen; huna non den ni traditzen nauena hemendik hurbill».

**43** Eta oraiño minzo zelarik, ethorri zen Judas Iskariotes hamabiatarik bat eta harekien batean jende tropa handi bat ezpatekien eta garrotekien, aphezen prinzeez, eskribaez eta kargudenez igorriak. **44** Eman zaroen, bada, traidoreak seiñalea, erraten zaroela: «Nori ere nik musu emanen baidiot, eta hura diteke; zatxezkate hari eta eramazue segurki». **45** Eta ethorri zenean, berehala hurbildurik Jesusen ganat, erran zioen: «Agur, Nausia». Eta eman zioen musu. **46** Orduan hek eskua gainean eman zioten eta hartu zuten. **47** Han zirenetarik batek ezpata atheraturik, jo zuen aphez handiaren muthilla eta ebaki zioen beharria. **48** Jesusek hitza harturik, erran zaroen: «Ohoin baten ondoan bezala heldu zarete ene ganat, ezpatekien eta makhillekien ene hartzerat. **49** Egun oroz zuen artean nintzen tenpluan irakasten hari nintzela, eta ez nauzue hartu; baiñan konplitu behar dute Eskriturek». **50** Orduan bere dizipuluek utzi zuten eta goan ziren guziak ihesi. **51** Gizon gaste bat, bada, jarraiki zitzaioen mihise bat baizen soinean ez zuela; eta hartu nahi baitzuten, **52** mihi-sea utzirik, itzuri zitzaien bulhuzgorria.



53 Eraman zuten Jesus aphez handia ganat eta bildu ziren harat aphez guziak eta eskribauak eta kargudunak. 54 Piarres, bada, jarraiki zitzaioen urrundik aphez handiaren etxeko eskaratz barneraño eta jarri zen sehiakien su basterrean berotzen. 55 Bizkitartean aphezen prinzeak eta batzar guzia lekhukotasun bilha zebiltzan Jesusen kontra hura hillarazitzeke, eta ez zuten aurkhitzen. 56 Hainitzek ezen lekhukotasun falsoak bihurtzen zituzten haren kontra; ordean hekien lekhukotasunak ez ziren akort batzuek bertzenekien. 57 Batzuk bada altxaturik, ekharri zuten lekhukotasun falso bat haren kontra, erraten zutelarik: 58 «Aditu baidugu guk hau erraten: Desegiñen dut nik tenplu eskuz egin hori eta hirur egunez bertze bat bastituko dut, eskuz egiña izanen ez dena». 59 Baiñan hekien testimonio hori ere ez zen balia zitekena. 60 Orduan aphez handiak guzien arterat jaikirik, galdegin zioen Jesusi erraten zioelarik: «Ez duzu deusik ihardesten hauk zure kontra ekhartzen dituzten testimonioen gaiñean?». 61 Baiñan Jesus ixillik zegoen eta ez zuen deusere ihardetsi. Berriz galdegin zioen aphez handiak eta erran: «Zu zare Kristo Jainko benedikatuaren Semea?». 62 Jesusek erran zioen: «Ni naiz; eta ikusiko duzue Gizonaren Semea jarria Jainkoaren majestatearen eskuñean, heldu dela zeruko hedoiñen gaiñean». 63 Orduan aphez handiak bere tresnak hautsirik, erran zaroen: «Zertako behar dugu gaiñerako lekhukorik? 64 Aditu duzue blasfemia. Zer zaitzue?» Guziek kondenatu zuten hiltzea merezi zuela. 65 Denbora berean hasi zitzaizkon batzu bisaiarat thu egiten eta begiak estalirik zaphardalako ematen, erraten ziotelarik: «Pensa zak nork jo hauen». Eta muthillek mazelakoak ematen ziotzaten.

66 Arte hartan Piarres beherean baitzen eskaratzean, ethorri zen harat aphez handiaren neskatoetarik bat, 67 eta ikusirik Piarres berotzen zegoela, beha beha jarririk, erran zioen: «Zu ere Jesus Nazarethekoarekien ziñen». 68 Baiñan hark ukhatu zuen eta erran: «Ez dut ezagutzen ere eta ez dakit zer erran nahi duzu». Eta ilkhi zen kanporat eskaratzaren aitziañerat; eta oillarrak jo zuen. 69 Eta neskato batek ondoan oraiño han ikusi baitzuen, erran zaroen berehala han zirenei: «Hau jende hetarik diteke». 70 Baiñan hark ukhatu zuen berriz ere. Eta handik aphur baten buruan berriz han zirenek ere erran zioten Piarresi: «Segurki zu hetarik zare, ezen galilearra zare». 71 Hura orduan hasi zen arneguz eta juramentuz erraten: «Ez dut ezagutzen ere zuek diozuen gizon hori». 72 Eta berehala jo zuen oillarrak bigarren aldiko eta orhoitu zen Piarres Jesusek erran izan zioen hitzaz: «Oillarrak bietan jonen duen baiño lehen, hiruretan ukhatuko duzu nitaz». Eta jarri zen nigarrez.

## XV. KAP.

1 Eta goiz goizean berehala, batzarra atxikirik aphezen prinzeek kargudunekien eta eskribauekien eta konseillu guziarekien batean, estekaturik Jesus eraman zuten eta eman Pilatusen eskuetarat. 2 Pilatussek galdegin zioen: «Zu zare judutarren erregea?». Jesusek ihardetsi zioen eta erran: «Zuk diozuna naiz». 3 Bizkitartean hainitz gauzez akusatzen zuten aphezen prinzeek. 4 Pilatussek, bada, berriz ere galdegin zioen eta erran: «Ez duzu deus ihardesten? Ikusazu zenbat gauzez akusatzen zaituzten». 5 Baiñan Jesusek ez zuen deusik ihardetsi gehiago; halako maneraz non miretsia baitzegoen Pilatus.

6 Bazkoko bestetan, bada, largatzen ohi zaroen presonieretarik nahi zuketan bat. 7 Eta zen orduan bat Barrabas zaritzana sedizioneko lagun batzuekien preso ezarria, zeñiek sedizionean egin ere baitzuen heriotze bat. 8 Ethorri zenean, bada, populua palazioaren aitziañerat, hasi zitzaizkon galdetzen egin ziozatala bethiere egiten ohi ziotena. 9 Pilatussek, bada, ihardetsi zaroen eta erran: «Nahi duzue larga diezazuedan judearren erregea?». 10 Bazakien ezen inbidiaz eman zutela aphezen prinzeek haren eskuetan. 11 Ordean aphezek zirikatu zuten populua galdetzerat larga ziozatala lehenago Barrabas. 12 Pilatussek, bada, berriz ere ihardetsi zaroen eta erran: «Zer nahi duzue, beraz, egin dezadan judutarren erregeaz?». 13 Baiñan hek berriz ere erran zioten oihuz: «Gurutzefika zazu hori». 14 Pilatussek erraten zaroen: «Ordean zer gaizki egin du?». Eta hek are orduan oihua gorago zaramaten erraten zutelarik: «Gurutzefika zazu hori». 15 Pilatussek, bada, populuaren gogara egin nahiz, largatu zaroen Barrabas; eta Jesus azotaturik eman zaroen eskuetarat gurutzefikatzeke.

16 Orduan soldaduek eraman zuten palazioko salarat eta bildu zuten konpaina guzia. 17 Eta bestitu ondoan eskarlatzako kapa batez, eman zioten arantze bihurkatuz egiñikako khoroa bat. 18 Ondoan hasi zitzaizkon salutaten erraten ziotelarik: «Agur, judearren erregea». 19 Jotzen zioten burua kanabera batez; eta thu egiten zioten bisaiarat eta belhaunikaturik adoratzan zuten. 20 Horla trufatu ondoan hartaz, khendu zioten eskarlatzako kapa hura eta bestiturik bere soiñekoz, eraman zuten gurutzefikatzerat.

21 Eta gizon bat Simon Zirenakoa zaritzana, Alexandreren eta Rufusen aita, borda batetarik heldu zela han iragaten zena, bortxatu zuten haren gurutzea eramaterat. 22 Gero eramanik Golgotha daritzan leku





batetarat, zeñiek erran nahi baidu Kalbariako lekhoa, **23** eman zioten edaterat arno mirharekien nahastatua; baiñan ez zuen hartu nahi izatu. **24** Eta gurutzefikatu izan zutenean, partitu zituzten haren bestimendak, zortherrat etxaturik nork zer eramanen zuen. **25** Zen, bada, egunaren hirugarren orena, hura gurutzefikatu zutenean. **26** Eta zen haren kondenezionaren kausa eskribatua manera huntan: «Judearren erregea». **27** Gurutzefikatu zituzten harekien bi ohoin ere, bata haren eskuñietarik eta bertzea ezkerretarik. **28** Eta horla konplitua izan zen Eskriturak erran zuena: «Gaixtagiñen herrunkan ezarria izan da». **29** Handik iragaten zirenek zeraunsoten blasfemioz, burua higitzen zutelarik eta erraten ziotelarik: «Hea bada, Jainkoaren tenplua urratzen duana, eta hirur egunik barnean berriz bastitzen duana. **30** Salba zak hire burua gurutzetik jautsirik». **31** Halaber aphezzen prinzeek ere eskribauekien batean trufa egiten zutelarik, zioten: «Bertzeak ditu salbatu eta bere burua ezin salba dezake. **32** Kristo Israelgo erregea jauts bedi orai gurutzetik, ikus dezaguntzat eta sinhets dezaguntzat». Harekien gurutzefikatuak zirenek ere laidoztatzen zuten orobat.

**33** Eguberdia ethorri zenean, ilhunbeek estali zuten lur guzia bederatzi garren oreneraiño. **34** Eta bederatzi garren orenean Jesusek egin zuen oihu handi bat, erraten zuelarik: «Eloi, eloi, lama sabahtani»; zeñiak erran nahi baidu: «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik abandonatu nauzu?». **35** Eta han zirenetarik zenbaitek hori aditurik zioten: «Orizue, Elias deithzen du». **36** Denbora berean goan zen bat lausterka esponia bat minagrez bethetzerat, eta hura seska bati iretxikirik presentatu zioen, erraten zuelarik: «Utza-zueia», ikusagun hea ethorriko den Elias hori gurutzetik khentzerat». **37** Jesusek, bada, oihu handi bat eginik, errendatu zuen izpiritua. **38** Denbora berean tenpluko bela egin zen bi zathi, gaiñetik hasi eta behereraiño. **39** Eta ikusirik han aitzinean zegoen ehun gizonen kapitaiñak oihugora hura egiñik hill zela, erran zuen: «Egiakzi gizon hori Jainkoaren Semea zen». **40** Baziren halaber han emastekiak urrundik beha zeudezenak, zeñien artean baitzen Maria Magdalena, Maria, Jakobe gastearen eta Josefena ama, eta Salome; **41** zeñiak jarraitzen baizitzaizkon Galilean zenean eta zeñiek laguntzen ere baitzuten bere ontasunetarik; eta baziren oraiño bertze haiñitz ere harekien Jerusalemerat ethorri izan zirenak.

**42** Arratsa ethorri zenean, zeren sabatoaren bezpera eta preparazioneko eguna baitzen, **43** ethorri izan zen Josef Arimathiakoa, zeina baitzen kargudun ohorezko bat eta zeñiak halaber idurikitzen baitzuen Jainkoaren erresuma, eta goan zen ausarki Pilatusen ganat Jesusen gorputza galde-

tzerat. **44** Pilatussek miretsirik hain lauster hill othe zen, erakharri izan zuen zenteneroa eta galdegin zioen hea jadan hiltzen. **45** Eta hill zela jakin eta zenteneroa ganik, eman zioen gorputza Josefi. **46** Josefek, bada, mihise bat erosirik, erautsi zuen Jesus gurutzetik, eta mihiseaz estalirik ezarri zuen arroka bat zilhaturik egina zen thonba batean eta itzuli zuen harri bat thonbaren bokanerat. **47** Maria Magdalena, bada, eta Maria Josefena ama beha zeudezen, non ematen zen.

## XVI. KAP.

**1** Sabato eguna iragan zenean, Maria Magdalenak eta Maria Jakoberen amak, eta Salomek, erosi izan zituzten aromatak Jesus hetaz gantzuzterat ethortzeko. **2** Eta goiz goizean partiturik astearen lehenbiziko egunean, ethorri ziren thonbarat iguzkia atheratzean. **3** Zioten ordean elkharren artean: «Nork khenduko daroku harria thonbaren athetik?». **4** Baiñan behatzearekien batean ikusi zuten harri hura khendua, eta hagitz baitzen ere handia. **5** Eta thonbarat sarthurik, ikusi zuten gizon gaste bat jarria eskuñietarik, arropa xuri batez bestitua; eta izitu ziren. **6** Baiñan hark erran zaroen: «Ez zaitezela izi; Jesus Nazarethekoaren bilha zabiltzate, gurutzefikatua izatu denaren; biztu da; ez da hemen; huna lekhoa hura ezarri zutena. **7** Baiñan zohazte eta errozue haren dizipuluei eta Piarresi, badohala zuen aitzinean Galilearat; han ikusiko duzue erran izan darotzuen bezala». **8** Emasteki hek ilkhirik thonbatik, abiatu ziren ihesi, ikharak hartu zituen ezen eta izialdurak; eta ez zioten deusik erran nihori; hain ziren ezen izituak.

**9** Bizturik bada Jesus, astearen lehenbiziko egun goizean agertu zitzaion lehenik Maria Magdalenari, zeña ganik khendu baitzituen zazpi deabru. **10** Hura goan zitzaion erraterat harekien ohi zirenei, zeñiak dolamenez baizeudezen eta nigarrez. **11** Baiñan hek aditu zutenean bizi zela eta hark ikusi zuela, ez zuten sinhetsi.

**12** Horren ondoan berriz agertu zitzaion bertze iduri baten azpian hetarik bie, borda batetarat ziohazela. **13** Eta hek ethorririk erran zioten bertze dizipuluei, baiñan hek ere ez zituzten sinhetsi.

**14** Azkenean agertu zitzaion hamekei mahaiñean zeudezela; eta erreportxu egin zaroen bere sinhets gaitzatasunaz eta bihotzeko gogortasunaz, zeren ez baitzituzten sinhetsi hura biztu zela ikusi izan zutenak. **15** Ondoran erran zaroen: «Zohazte mundu guzirat; predika diozue Ebanjelioa



kreatura guziei. **16** Sinhetsiko duena eta bathaiatua izanen dena salbatua izanen da; baiñan sinhetsiko ez duena, kondenatua izanen da. **17** Sinhetsiko duketenei jarraikiko zaizte mirakuillu hauk: ene izenean khasatuko dituzte deabruak, lengoia berriez mintzatuko dire; **18** sugeak khenduko dituzte; baldin zerbait edarihillgarri edan balezate ere, ez diote kalterik egiñen; erien gaiñean eskuak pausatuko dituzte eta sendatuko dire».

**19** Eta Jesus Jauna hunela hei mintzatu ondoan, altxatu zen zerurat eta jarria dago Jainkoaren eskuñetarik. **20** Hek berriz goan ziren predikatzerat lekhu guzietan, Jaunak hekiekien obratzen zuela eta bere hitza indarztatzen zuela hari zarraizkon mirakuilluez.

## J. KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA SAN LUK-EN ARAUERA

### I. KAP.

**1** Nola hainitz presuna lehiatu izan baidire eskribuz ematerat gure artean konplitu diren gauzen historia, **2** hastetik berek ikusi izan dituztenek eta hitzaren ekharzaille izan ere direnek kondatu izan darokutena-  
ren arauera, **3** uste izatu dut, o Theofile guziz exzellenta, nik ere jakin ondoan gauza horiek bere hastapenetik, guziak zerbait arrimurekien eskribuz eman behar darozkitzudala, **4** ezagut dezazuntzat irakatsi izan zaizkitzun gauzen egia.

**5** Herodes Judeako Erregeren denboran zen aphez bat Zakariaz zeritzana, Abia aphezaren alditan tenpluan zerbitzatzen zuena; eta haren ematea ere Aaronen leinutikakoa zen Elisabeth deitzen zena. **6** Biak ziren justuak Jainkoaren aitzinean, Jainkoaren manamendu eta ordenantza guzietan erratekorik gabe zabitzenak. **7** Eta ez zuten haurrik, zeren agorra baitzen Elisabeth eta biak baitziren adin handitakoak.

**8** Gerthatu zen, bada, Zakariaz bere aldian hari zela Jainkoaren aitzinean aphezetasuneko funtzioea egiten. **9** Aphezen artean zen ohitzaren arauera, zortha eror zekion Jaunaren tenpluan sarturik inzensua ofrendatzeko. **10** Eta populu guzia kanpotik zegoen othoitzean inzensua erretzen hari zen denboran. **11** Agerthu zitzaion, bada, Jaunaren aingeru bat zegoela inzensutako aldarearen eskuñetik, **12** eta Zakariaz altaratu zen hura ikustean, eta izialdura batek hartu zuen. **13** Baiñan aingeruak erran zioen: «Ez zaitezela izi, Zakariaz, zeren entzuna izan baida zure othoitza, eta Elisabeth zure ematea erdiko zaitzu seme batez, zeñari emanen baidiozu izena Joanes. **14** Boztuko zare eta alegeratuko, eta hainitz presuna bozkariatuko dire haren sorzean. **15** Handia izanen da ezen Jaunaren aitzinean; mahats arnorik, ez bertze arnorik ez du edanen eta bere amaren sabeleandanik bethea izanen da Izpiritu Sainduaz. **16** Israelgo umee-tarik hainitz ditu konbertituko bere Jainko Jaunaren ganat. **17** Eta hura ibilliko da haren aitzinean Eliasen izpirituarekien eta berthutearekien, itzul-tzeko burasoen bihotzak bere umeen alderat eta izpiritu sinhets gogorrak



justuen zuhurtziarar, Jaunari preparatzeko populu perfet bat». **18** Zakaria-sek ihardetsi zioen aingeruari: «Nondik hori jakinen dut segurki? Ezen ja zaharra naiz eta ene emastea adinean aitziañarua da». **19** Aingeruak erran izan zioen: «Ni naiz Gabriel, Jainkoaren aitziañean nagoena, eta igorria izan naiz zuri mintzatzerat eta berri horren ematerat, **20** Eta orai beretik mututzerat zohaz eta ezin mintzatuko zare, hauk arriba daitezken eguneraino, zeren ez duzun sinhetsi nik erran darotzudana, zeina konplutuko baida bere denboran». **21** Bizkitartean populua zegoen Zakariasen begira eta miretsia, zeren zegoen tenpluan hainbertze denbora. **22** Ilkhi zenean, bada, ezin mintza zekikeien eta ezagutu zuten zenbait ikuskari ikusi izan zuela tenpluan eki; ezen kheinuak egiten ziotzaten eta mutu gelditu zen.

**23** Haren ofizio egiteko egunak konplitu zirenean, goan zen bere etxerat. **24** Handik zenbait egunen buruan Elizabeth haren emastea izorra gerthatu zen eta bortsz ilhabetez egon zen gordea, ziotsalarik: **25** «Grazia hau egin nahi izatu darot Jaunak denbora huntan, zeiañetan behatu baidarot gizonen artean jasaten nuen laidoa khentzeko».

**26** Seigarren ilhabetean zela bada Elizabeth, igorria izan zen Jaunaz Gabriel aingerua Galileako hiri batetarat, Nazareth deitzen zenerat, **27** Birjina baten ganat, zeiañak baitzuen espostzat gizon bat Dabiden etxetikakoa, Josef zeritzana, eta Birjina hark zuen izena Maria. **28** Sarthurik aingerua hura zen lekhuana, erran zioen: «Agur, graziaz bethea, Jauna da zurekien, benedikatua zare emasteen artean». **29** Aingeruaren hitz horiek aditurik, trublatu zen eta jarri zen gogoetan, zer othe ziteken agur hori eta salutatzeko hori. **30** Aingeruak erran zioen: «Ez zaitezela izi, Maria, aurkhitu duzu ezen grazia Jainkoa baithan. **31** Konzebitzerat zohaz zure sabelean eta emanen duzu mundurat seme bat, zeiañari emanen baidiozu izena Jesus. **32** Hura izanen da handi eta izanen da deithua Jaungoikoaren Semea; hari emanen dio Jainko Jaunak bere aita Dabiden thronua; erregeiañatuko du eternitateaz Jakobean etxearen gainean **33** eta haren erresumak ez du izanen akhabantzarik». **34** Orduan Mariak erran zioen aingeruari: «Nola hori egiñen da, ezen ez dut ezagutzen gizonik?» **35** Aingeruak ihardetsi zioen, eta erran: «Izpiritu Saindua ethorriko da gainetik zure baitarat eta Jaungoikoaren berthuteak estaliko zaitu bere itzalaz; eta hargatik da izanen zure ganik sorthuko den Saindua deithua Jainkoaren Semea. **36** Horra non Elizabeth zure kusiña ere den izorra seme batez bere zahartzean; eta seigarren ilhabetean da; **37** ez da ezen deusere inposible denik Jainkoarentzat». **38** Orduan Mariak erran zioen: Huna non naizen Jauna-

ren zerbitzaria; egin bekik zure erranaren arauera». Eta goan zen haren ganik aingerua.

**39** Denbora hartan berean goan zen lausterrez Maria mendietarat Judaren leinuko hiri batetarat; **40** eta sarthurik Zakariasen etxean, salutatu zuen Elizabeth. **41** Elisabethek aditu zuenokotz Mariaren agurra, hasi zitzaion haurra jauzika bere sabelean eta bethea izan zen bera Izpiritu Sainduaz; **42** eta jarri zen oihuz erraten: «Benedikatua zare emaste guzien artean eta benedikatua da zure sabeleko fruitua. **43** Eta nondik heldu zait zorion hau, ene Jaunaren ama heldu baida ene ganat? **44** Ezen zure boza, salutatu nauzunean, ene beharrietarat heldu izan den bezain sarri, bozkarioz saltoka hasi zait haurra ene sabelean. **45** Eta dohatsua zare, sinhetsi baiduzu Jainkoaren partez erran zaizkitzunak konplutuko direla». **46** Orduan erran zuen Mariak:

«Glorifikatzen du Jauna ene arimak, **47** eta ene izpiritua boztua da ene Jainkoa eta Salbatzailea baithan; **48** zeren behatu baidio bere zerbitzariaren aphaltasunari, ezen hemendik harat dohatsua erranen darotet mende guzietako jendeek. **49** Zeren gauza handiak egin baiditu ene baithan guziz botheretsu denak; Saindua ere da haren izena. **50** Eta haren miserikordia isurtzen da jenderazionetik jenderazionerat haren beldur direnen gainerat. **51** Erakutsi du bere besoaren indarra; barraiatu ditu superbioek bere gogoetan zarabiltzaten deseiañuak. **52** Erorarazi ditu botheretsuak bere thronuetarik eta altxatu ditu beheratuak zirenak. **53** Jatekorik ez zutenak bethe ditu ontasunez eta aberatsak igorri ditu hutsik. **54** Hartu du artha Israel bere zerbitzariak, orhoiturik bere urrikalmenduaz; **55** gure aitei agindu izan zaroen bezala, Abrahami eta haren ondokoei bethikotzat. **56** Egotu zen, bada, Maria hirur ilhabetez Elizabethekien eta gero bihurtu izan zen bere etxerat.

**57** Bizkitartean ethorri zitzaion Elizabethi erditzeko muga eta erdi zen seme batez. **58** Aditurik haren hauzoek eta ahaideek seiñalatu zuela Jaunak handizki bere miserikordia haren gainean, bozten ziren harekien. **59** Eta zortzigarren egunean ethorri ziren haurraren zirkonzisatzerat eta izendatzen zuten Zakariak bere aitaren izenaz. **60** Baiñan ihardetsi zaroen haren amak eta erran: «Ez bada, baiñan Joanes deithuko da». **61** Erran izan zioten hek: «Ez da eta nihor zure ahaideetan izen hortaz deithzen denik». **62** Kheiañu egin zioten, bada, haren aitari marka ziozatela zer izen nahi zuen eman zekioen haurrari. **63** Eskaturik tableta batzu, eskribatu zuen hetan, zioelarik: «Horren izena Joanes da». Eta guziak espantitu ziren. **64**



Denbora berean ideki zen haren ahoa eta libratu haren mihia eta mintzatu zen benedikatzun zuelarik Jainkoa. **65** Izialduraz bethe ziren alde heta-ko jende guziak, eta gauza horiek guziak famos egin ziren Judeako mendietako herri guzietan. **66** Aditu zituzten guziek ezen, gogoan hartu zituzten zinki, erraten zutelarik: «Zer izanen othe da haur hori?». Ezen Jaunaren eskua harekien zen. **67** Eta Zakariaz haren alta bethea izan zen Izpiritu Sainduaz eta inspiratua izanik erran zuen: **68** «Benedikatua dela Israelen Jainko Jauna, zeren bisitatu baidu eta erresketatu bere populua; **69** eta altxatu baidaroku salbamenduko antepara bat Dabid bere zerbitzariaren etxean, **70** bere profeta saindu bethidanik izatu direnen ahoz agindu izan duen bezala; **71** libratuko ginituela gure etsaien eskuetarik eta gu gaitzes-ten gaituzten guzienetarik, **72** gure aitei miserikordia egitea gatik eta bere alienzia sainduaz; **73** gure aita Abrahami egin zioen juramentuaz, eginen zarokula grazia hori, **74** gure etsaien eskuetarik atherarik, hura zerbitza ginezantzat beldurrik gabe, **75** saindutasunean eta justizian haren aitzinean gaudezela gure biziko egun guzietan. **76** Eta zu haurtxoa, deithua izanen zare Jaungoikoaren profeta; ibilliko zare ezen Jaunaren aitzinean haren bideen aphaizten, **77** emateko haren populuari salbamenduko zientzia hekiek bekhatuen barkhamendutan, **78** gure Jainkoaren urrikalmenduzko erraiez, zeinez bisitatu izan baigaitu goratik ilkhirik, **79** argitzerat ilhunbe-pan eta heriotzearen itzalpean dauntzanak eta gu ematerat bakearen bidean».

**80** Haurra, bada, handitzen hari zen eta Izpirituz borthizten eta zegoen desertuetan, Israelgo populuairen aitzinean agertu behar zuen artean.

## II. KAP.

**1** Gerthatu zen, bada, publika zedin mezu bat Kaesar Augustorena, haren inperioko jende guzien kontua eskribuz hartzeko. **2** Kondagune hori izan zen lehena, Zirinus Siriako gobernadoreak egin zuena. **3** Eta bazioazen guziak bere izenen ematerat zein bere hirietarat. **4** Goan zen, bada, Josef ere Galileatik Judean Nazaretheko hiritik Dabiden hirirat, zein deitzen baitzen Bethleem, zeren zen Dabiden etxekoa eta familiakoa, **5** bere izena eskribuz ematerat, Maria bere esposarekien batean, zeina baitzen izorra. **6** Lekhu hartan zeudezela, gerthatu ziren haren erditzeko egunak betheak. **7** Eta erdi zen bere Seme lehen jaioaz, eta oihalez troxaturik,

ezarri zuen maniadera batean, zeren ez baitzen tokirik hekiekintzat ostatu.

**8** Ziren inguru hartan artzain batzu gauak kanpoan zaramatzatenak, zeinek bere goardia alditan bere arthaldea begiratzun baitzuten. **9** Betbetan Jainkoaren aingeru bat agertu zen hekiek aldean, zeruko klartasun batek inguratu zituen eta izitu ziren handizki. **10** Baiñan aingeruak erran zaroen: «Ez duzuela beldurrik; ezen berri handi bat ematerat heldu natzaitzue, zeina bozkario handi baten sujeta izanen baida populu guziarentzat. **11** Sorthu zaitzue ezen egun Dabiden hirian Salbatzaille bat, zeina baida Kristo Jauna. **12** Eta huna seiñalea hura ezagutaraziko darotzuena: aurkhituko duzue haur bat troxatua, maniadera batean ezarria». **13** Denbora berean jarri zen armada zerukoaren aralde handi bat aingeruarekien Jainkoa laudatzen eta erraten: **14** «Gloria Jainkoari zeru gorenetan eta bakea lurrean gizon bihotz zuzenetakoei».

**15** Goan zirenean aingeruak hekiek ganik zerurat, artzainek erran zioten elkharri: «Goazen Bethlemeeraino eta ikusagun zer egin den eta zer erakusten darokun Jaunak». **16** Goanik bada lausterrez harat, aurkhitu zituzten Maria eta Josef eta haurra maniaderan etzana. **17** Eta hala ikusi zuten bere begiz aingeruak haur hartaz erran zaroena hala zela. **18** Eta aditu zuten guziak espantitu ziren artzainek kondatu ziotzaten gauzez. **19** Mariak, bada, bazagozkan eta bazarabiltzan horiek guziak bere gogoan. **20** Eta bihurtu ziren artzainak glorifikatzen eta laudatzen zutelarik Jainkoa aditu eta ikusi izan zituzten gauza guziez, hala nola erran baitzitzaien.

**21** Konplitu zirenean zortzi egunak haurraren zirkunzidatzeko, eman zioten izena Jesus, zein baitzen amaren sabelean konzebitu baiño lehen aingeruak markatu zuen izena.

**22** Eta konplitu zirenean amaren purifikazioneko egunak, Moiseren Legearen arauera eraman zuten Jerusalemerat Jaunari presentatzekotzat, **23** Jaunaren legean eskribatua den bezala: «Amaren sabeletik lehenbizi ilkhitzen den muthilla konsekratua izanen zaio Jaunari», **24** eta sakrifiziotzat ofrendatzeko, Jaunaren legean errana den bezala, «uso tortoilla pare bat edo bi uso kolonba ume».

**25** Zen orduan Jerusalem gizon bat, Simeon zeritzana; eta zen gizon hura justua eta Jainkoaren beldurtia, Israelen konsolamenduaren begira zegoena eta Izpiritu Saindua haren baithan zen. **26** Jakin ere zuen Izpiritu Sainduaren erakuspenez ez zela hillen, non lehenago ez zuen



ikusten Kristo Jaunarena. **27** Ethorri zen tenplurat inspirazione bat izanik eta Jesus haurra bere burasoek zakharketela, harentzat konplitzeko legeak exleitu izan zuena, **28** hartu zuen bere besoetan eta benedikatu Jainkoa, ziotsalarik: **29** «Oraintxe, Jauna, uzten duzu bakean hiltzerat zure zerbitzaria, zure hitzaren arauera; **30** ikusi baidute ene begiek zuk ematen darokuzun Salbatzaillea, **31** populu guzieren biztarat agertzen duzuna, **32** nazio-ne guziak argituko dituen argizagia eta Israel zure populuaren gloria».

**33** Eta haren aita eta ama miretsiak zeudezen hartaz erraten zirenen gainean. **34** Simeonek benedikatu zituen hek ere eta erran zioen Maria haren amari: «Haur hori daiteke hainitzen galtzapeneko eta hainitzen salbamenduko Israelen eta herresatzat gizonen kontrestari paratua izateko. **35** Eta zeronek ere arima izanen duzu ezpata batez bezala iragana, ager daitezentzat hainitzen bihotzetako gogoetak».

**36** Bizi zen halaber orduan Ana profetiazko dohaiña zuena, Fanuelen alaba, Aseren leinutikakoa, adiñean hainitz aitzinatua, zazpi urthez bizi izan zena neskatxa zenetik senhar izan zuenarekien. **37** Gelditu zen alargun laur hogoi eta laur urtetarainokoa, tenplutik ilkhitzen ez zela eta gauak eta egunak baruretan eta othoitzetan zaramatzala. **38** Hura ere ordu hartan berean ethorririk, eman zen Jaunaren laudatzen eta mintzo ere zitzaien haur hartaz Israelen erresketamenduaren begira zeudezen guziei.

**39** Akhabatu zutenean, bada, Jaunaren legeaz exleitua zen guzia, bihurtu ziren Galilearat, Nazaretheko hirirat, zeinetan egoten baitziren. **40** Bizkitartean haurra handitzen hari zen eta indarztatzen; zuhurtziaz beha zen eta Jainkoaren grazia harekien zen.

**41** Goaten ziren haren burasoak urthe guziez Jerusalemerat Bazkoko bestan, **42** eta heldu izan zenean hamabi urthetarat, goan baitziren Jerusalemerat, bestan goaten ohi ziren bezala. **43** Bestaren egunak iragan eta bihurtzen zirela, gelditu izan zen Jesus haurra Jerusalemen haren burasok ez zakitela. **44** Ustez ezen, bada, konpaiñiako lagun zenbaitekien heldu ahal zela, egin zuten egun baten bidea eta haren bilha zebiltzan bere ahai-deen eta ezagunen artean. **45** Baiñan aurkhitu ez zutenean, bihurtu ziren Jerusalemerat haren bilha zebiltzala. **46** Gerthatu zen aurkhi zezaten hirur egunen buruan tenpluan dotoren erdian jarria, hekien aditzen eta interrogatzen hari zela. **47** Eta miretsiak zeudezen hura aditzen zuten guziak haren zuhurtziaz eta haren errepustez. **48** Espantitu ziren hura hala ikusteaz eta erran zioen bere amak: «Semea, zergatik horla egin darokuzu? Huna zure aita eta ni non ibilli garen doloratuak zure bilha» **49** Ihardetsi

izan zaroen: «Zergatik ziñabiltzaten ene ondoan? Ez ziñakiten ene aitari behatzen zaizkon gauzetan behar dudala izan okupatua?» **50** Baiñan hek ez zuten konprenitu hark erran zaroena.

**51** Ondoan abiatu zen hekiekien eta ethorri Nazaretharat eta sumetitia zegokoten eta haren amak gogoan zatxezkan horiek guziak eta bihotzean. **52** Eta Jesus aitziañatuz ziohan zuhurtzian, adiñean eta grazian Jainkoaren eta gizonen aitziañean.

### III. KAP.

**1** Tiberio Kaesaren enperadorekoaren hamabortzgarren urthean, bada, Pontio Pilate Judeako gobernadore zela, Herodes Galileako tetrarka, Filipe berriz haren anaia Itureako eta Traxoniten herriko tetrarka eta Lisaniak Abilenako tetrarka zela, **2** Ana eta Kaifaz aphezen prinze zirela, adiarazi zitzaion Jainkoaren hitza desertuan Joanes Zakariasen semeari; **3** eta ethorri zen Jordango aldeko herri guzietarat, predikatzen zuela penitentiaren bathaioa bekhathuen barkhamendutako, **4** eskribatua den bezala Isaiak profetaren erranen liburuan: «Boza da mortuan oihuz dagoenarena: aphain zazue Jaunaren bidea, xuxen zatzitzue haren bidezkat. **5** haren guziak behetako dire eta mendi eta mendizka guziak beheratuak izanen dire, makhur direnak xuxenduko dire eta bide gaitzak zelhai bihurtuko, **6** eta gizon guziek ikusiko dute Jainkoa ganik heldu den salbamendua».

**7** Erraten zaroen, bada, hartaz bathaiatuak izaterat araldeka heldu zirenei: «Bipera kasta, nork abisatu zaituzte ihesi egiteaz zuen gainerat erortzerat dohan kolerari? **8** Egitzue, beraz, penitentiakozko fruitu behar bezalakoak eta ez zaitezteela has erraten: «Abraham aita dugu». Erraten darotzuet ezen, harri horietarik ere Jainkoak soraraz diotzokela haurrak Abrahami. **9** Jadan haizkora arruntzatu da arbolen erhoen gainerat eta hala fruitu onik ekhartzen ez duen arbola guzia pikatua izanen da eta surat arthikia».

**10** Eta galdegiten baitzioten jende hek eta erraten: «Zer egiñen dugu, beraz?», **11** hark ihardesten zaroen: «Bi aldagarri dituenak eman bioza bat ez duenari eta jatekorik duenak egin beza gauza bera». **12** Ethorri ziren, bada, publikanoak ere bathaiatuak izaterat eta erran zioten: «Nausia, zer da guk egin behar duguna?» **13** Erran zaroen hark: «Ez dezakuela deusere egin manatu zaitzuenaz gehiagokorik». **14** Soldaduek ere halaber galdegiten zioten: «Eta guk zer egin behar dugu?». Eta hark ihardesten karoen:



«Ez diozozuela egin nihori bortxarik, ez gaixtakeriarik; eta kontenta zaitzte zuen pagaz».

**15** Uste baitzuen, bada, populuak eta guziek bere gogoetan baitzarabillaten Joanesez, ez othe zen hura Kristo, **16** Joanesez deklaratu izan zaroen eta erran guziet: «Nitaz denaz bezanbatean, nik urez bathaiatzen zaituztet; ethorriko da ordean ni baiño botheretsuago bat, zeinaren zapata lokharrien lexatzeko ni ez bainaiz gai; hark bathaiatuko zaituzte Izpiritu Sainduaz eta suz. **17** Zethabea eskuan duke eta xahutuko du bere bihi-tegia; bilduko du bihia bere tokikarar eta erreko ditu lastoak behiñere iraungitu ez den su batez». **18** Bertze haiñitz gauza ere irakasten ziotzan populuari bere exortetan.

**19** Baiñan nola Joanesez erantzuten baitzioen Herodes tetrarkari Herodias bere anaiaren emastearen sujetean eta egin zituen hainitz bertze gaixtakerien gatik, **20** Herodesek horien guzien gaiñerat hau ere iretxeki zuen: zarrarazi baitzuen Joanes presondegi batean.

**21** Populu guziak, bada, bathaioa errezibitzen zuen orduan, Jesusek ere errezibitu baitzuen; othoitzean zegoela zabaldu zen zerua, **22** eta jautsi zen Izpiritu Saindua haren gaiñerat figura ageri zen baten azpian, uso kolonba bat bezala; eta aditu zuten zerutik boz hau: «Zu zare ene Seme maitea; zure baithan edireten dut ene atsegia».

**23** Jesus orduan ziteken hogoi eta hamar urtheren ingurutako adiñean eta iragaten zen Josefen semetzat, zein baitzen Eliren seme, zein baitzen Mathaten seme, **24** zein baitzen Lebiren seme, zein baitzen Melkiren seme, zein baitzen Janaren seme, zein baitzen Josefen seme, **25** zein baitzen Mathatiaren seme, zein baitzen Amosen seme, zein baitzen Nahumen seme, zein baitzen Hesniren seme, zein baitzen Nagjeren seme, **26** zein baitzen Mahathen seme, zein baitzen Mathatiasen seme, zein baitzen Semeiren seme, zein baitzen Josefen seme, zein baitzen Judaren seme, **27** zein baitzen Joanaren seme, zein baitzen Resaren seme, zein baitzen Zorobabelen seme, zein baitzen Salathielen seme, zein baitzen Neriren seme, **28** zein baitzen Melkiren seme, zein baitzen Adiren seme, zein baitzen Kosanen seme, zein baitzen Elmadhanen seme, zein baitzen Heren seme, **29** zein baitzen Jesusen seme, zein baitzen Elieseren seme, zein baitzen Joriren seme, zein baitzen Mataten seme, zein baitzen Lebiren seme, **30** zein baitzen Simeonen seme, zein baitzen Judaren seme, zein baitzen Josefen seme, zein baitzen Jonaren seme, zein baitzen Eliakimen seme, **31** zein baitzen Melearen seme, zein baitzen Menaren seme, zein baitzen

Mathatharen seme, zein baitzen Nathatanen seme, zein baitzen Dabiden seme, **32** zein baitzen Jeseren seme, zein baitzen Obeden seme, zein baitzen Boozen seme, zein baitzen Salmonen seme, zein baitzen Nasonen seme, **33** zein baitzen Aminadaben seme, zein baitzen Aramen seme, zein baitzen Esronen seme, zein baitzen Faresen seme, zein baitzen Judaren seme, **34** zein baitzen Jakoberen seme, zein baitzen Isaaken seme, zein baitzen Abrahamen seme, zein baitzen Thareren seme, zein baitzen Naxoren seme, **35** zein baitzen Sarujen seme, zein baitzen Ragauren seme, zein baitzen Falejen seme, zein baitzen Heberen seme, zein baitzen Saleren seme, **36** zein baitzen Kainanen seme, zein baitzen Arfakaden seme, zein baitzen Semen seme, zein baitzen Noeren seme, zein baitzen Lameken seme, **37** zein baitzen Mathusaleren seme, zein baitzen Henoken seme, zein baitzen Jareden seme, zein baitzen Malaleelen seme, zein baitzen Kainanen seme, **38** zein baitzen Henosen seme, zein baitzen Sethen seme, zein baitzen Adamen seme, zein baitzen Jainkoaz kreatua.

#### IV. KAP.

**1** Jesus, bada, Izpiritu Sainduaz bethea partitu zen Jordanetik eta goan arazi zuen Izpirituak deserturat **2** berrogoi egunetakotzat eta han tentatua izatu zen deabruaz. Egun hetan guzietan ez zuen jan deusere; eta hek iragan eta, gosetu zen. **3** Orduan erran izan zioen deabruak: Baldin Jainkoaren bazare, errozu harri huni egin dadillala ogi». **4** Jesusek ihardetsi zioen: «Eskribatua duk, ez dela ogiz xoilki bizi gizona, baina Jainkoaren hitz guziaz». **5** Eraman zuen deabruak mendi gora baten gaiñerat eta erakutsi ziotzan instant batez munduko erresuma guziak. **6** Erran zioen: «Emanen darotzut puxanza hori guzia eta erresuma horien gloria; niri eman zaizkit ezen, eta nik nahi dudanari ematen diotzat; **7** baldin adoratzan banauzu, guziak zure izanen dire». **8** Jesusek ihardetsi zioen eta erran: «Eskribatua duk: Zure Jainko Jauna duzu adoratu eta hura bakharra zerbitzatuko». **9** Eraman zuen gero Jerusalematar; ibeni zuen tenpluaren gainean eta erran zioen: Baldin Jainkoaren Seme bazare, etza zaite hemendik behera; **10** eskribatua da ezen, aingeruei zutaz gomendatu daroela, begira zaitzarentzat, **11** eta eskuetan erabilliko zaituztela, zure oinez jo ez dezazun zenbait harriren kontra». **12** Baina Jesusek ihardetsi izan zioen: «Errana duk: Ez duzu tentatuko zure Jainko Jauna». **13** Deabruak akhabatu ondoan bere tentazione guziak, utzi zuen denbora batetaraño.



**14** Handik goan zen Jesus Izpirituaren mobimenduz Galilearat eta haren fama banatu zen herri hartan guzian. **15** Hasi zen irakasten hekien sinagogetan eta zen guziez ohoratua.

**16** Ethorririk bada Nazaretherat, zinetan hazia izatu baitzen, sarthu izan zen ere ohitzaren arauera sabato egunean sinagogan eta altxatu zen irakurtzerat. **17** Eman zioten Isaiaz profetaren liburua eta ideki zuenean aurkhitu zuen hitz hauk eskribatuak ziren lekhuia: **18** «Jaunaren Izpiritua ene gainean da; horrengatik nau gantzutu eta konsekratu; igorri izan nau pobrei Ebanjelioa predikatzerat, bihotza zathitua dutenak sendatzerat, **19** gathiboei librantzaren berria ematerat eta itsuei bizta erakhartzerat; gaitzez hebainduak deskansuan ezartzerat; Jaunaren zorionezko urthea eta haren justizia eginen den eguna publikatzerat».

**20** Ondoan liburua plegaturik, bihurtu zioen ministreari eta jarri zen. Sinagogako guzien begiak hari zegozkon harmatuak. **21** Hasi zitzaien bada erraten: «Egun ditezke konplituak aditu dituztuen Eskriturako hitz horiek». **22** Guziek aithorra ematen zioten eta, miretsirik haren ahotik ilkhitzen ziren hitz graziakoez, «Ez da», ziotsaten, «Josefen semea?».

**23** Horren gainean hark erran zaroen: «Eki erranen derautazue erre-fau hau: Mirikua, senda zaite zeroni. Kafarnaumen egin ditutzula aditu ditugun bezain gauza handiak eginzitzu hemen ere zure herrian. **24** Erraten darotzuet egia», diotsa oraiño: «profetarik batere ez da ungi errezebiturik bere herrian. **25** Egiaz erraten darotzuet: haiñitz alhargun baziren Eliasen denboran Israelen, zarratua izatu zenean zerua hirur urthe eta erdiz eta gosete handi bat izan zenean mundu guzian. **26** Bizkitartean hetarik batere ere ganat ez zen igorria izan Elias eta bai Sarepta Sidongogan zen emaste alhargun baten ganat. **27** Halaber hainitz lepratsu baziren Israelen Elisee profetaren denboran eta hala ere hetarik batere ez zen izan sendatua eta bai Naaman, zein baitzen Siriakoa». **28** Sinagogan ziren guziak hori aditurik sumindu ziren, **29** eta altxaturik kasatu zuten hiritik kanporat eta eraman mendi baten puntarat, zeñaren gainean baitzen basitua hekien hiria, hura handik behera arthikitzeke. **30** Baiñan goan zen, hekien erditik iragaten zela.

**31** Jautsi zen Kafarnaumerat, zein baitzen Galileako hiri bat, eta han hari zitzaien irakasten sabatto egunetan. **32** Eta espantituak zeudezen haren doktrinaz, zergatik autoritaterekien minzo baitzen. **33** Gerthatu izan zen sinagogan gizon bat izpiritu lohi batez poseditua, zeñek oihu handi bat eginik, **34** erran baitzuen: «Utz gaitzatu gu. Zer dugu guk zure-

kien, Jesus Nazarethekoa? Gure galtzerat ethorri zare? Badakit eki nor zaren, Jainkoaren Saindua baitzare». **35** Baiñan Jesusek mehatxaturik erran zioen: «Ago ixillik eta ilkhi adi horren ganik». Deabruak arthiki zuen gizon hura lurrerat guzien erdian eta ilkhi zen haren ganik kalterik egin gabetakorik. **36** Guziak espantitu ziren eta minzo ziren elkharri erraten karoelarik: «Zer othe da hau, burupekien eta nausitasunekien manatzen baidaroe izpiritu lohiei eta ilkhitzen baidire berehala?» **37** Eta haren fama banatu zen herri guzian.

**38** Ilkhirik, bada, Jesus sinagogatik, sarthu zen Simonen etxean eta Simonen amaginarraua sukhar handi batekien baitzetzan, othoitztu zuten hel zakioela. **39** Haren alderat ethorririk, manatu zioen sukharri, eta sukharra utzi zuen eta hura berehala jaikirik abiatu zen hekien zerbitzatzen.

**40** Iguzkia sarthu zenean eririk zuten guziek, zer nahi erhasun suerte zuten, ekharri ziotzaten eta hark sendatzen zituen zein bere aldian eskuak gainean ezarririk. **41** Ilkhitzen ziren deabruak haiñitzen ganik, oihez erraten zutelarik: «Zu zare eki Jainkoaren Semea». Baiñan hark mehatxaturik ixilarazten zituen, zeren zakiten hura zela Kristo.

**42** Argitu zenean ilkhi zen eta goan zen desertu batetarat. Jendeak abiatu ziren tropelaz haren bilha eta aurkhitu zuten eta, nola gelditu nahi baitzuten, beldurrez utz zetzan, **43** erran zaroen: Bertze hiriei ere predikatu behar daroet Jainkoaren Erresumako Ebanjelioa, hartako naiz ezen igorria». **44** Eta hari zen predikatzen Galileako sinagogetan.

## V. KAP.

**1** Gerthatu zen, bada, egun batez Jesus Jenesareheko lakhuaren bazterrean zegoela, hainitz hersten baitzuten jende aralde batzuk Jainkoaren hitza aditzeko zuten lehiaz, **2** ikusi izan zituen bi barku lakhuaren bazterrean geldituak, zeñetako arranzaleak baitziren jautsiak eta hari baitziren sareen garbitzen. **3** Iganik barku hetarik batetarat, zeñia baitzen Simonena, othoiztu zuen urrun zezala aphur bat leihoretik; eta jarririk instruitzen zuen populua barku gainerik. **4** Mintzatzetik gelditu zenean, erran zioen Simoni: Eraman gaitzatu ur handirat eta larga zatzue sareak arraiñen atzematuko». **5** Simonek ihardetsi zioen: «Nausia, gau guzian nekhatu gare deusik atzeman gabe; baiñan hala ere erraten darotazunez geroztik, hedatuko dut sarea». **6** Hori egin zutenean, hartu zuten arrainez bain kuantitate handia, non hausten baitzitzaien sarea. **7** Eta seiña egin zioten bertze barkuan



ziren lagunei: «Zatozte laguntzerat». Ethorri ziren hek eta bethe zituzten bi barkuak hanbat, non ondoratzen baitziren. **8** Hori ikusi zuenean Simon Piarresek, erran zioen Jesusi: «Urrun zaite ene ganik, Jauna, zeren gizon bekhatoros bat bainaiz». **9** Ezen hartu zituzten arraintzearen ikusteak izialduraz bethe zituen hura eta bai harekien ziren guziak, **10** bai halaber Jakobe eta Joanes, Zebedearen semeak ere, zein baitziren Simonen lagun; baiñan erran zioen Simoni Jesusek: Ez duzula beldurrik; hemendik harat hariko zare gizonen atzematzen». **11** Eta bertze barkua leihorreat ethorri ondoan, guziak utzirik jarraiki zitzaizkon Jesusi.

**12** Jesus alde hetako hirietarik batean zela, lepraz bethea zen gizon batek ikusirik, aurthiki zuen bere burua lurrerat eta othoitz egin zioen, erraten zioelarik: «Jauna, baldin nahi baduzu, garbi nazakezu». **13** Eta Jesusek eskua hedaturik ukitu zuen, ziotsolarik: «Nahi izan zaiten garbi». Eta betbetan goan zitzaion lepra. **14** Manatu zuen nihori ez ziozala erran; baiñan «Zohaz», diotsa, «erakuts diozazu zure burua aphezari eta ofrenda zazu garbitzearentzat Moisek exleitu izan duena, frogatzat balia dakien». **15** Eta nola haren fama geroago eta gehiago banatzen baitzen, jendetze handi batzu bilzen ziren haren aditzerat eta bere eritasunetarik sendatuak izaterat. **16** Hura ordean erretiratzen zen deserturat eta han egoten zen othoitzean.

**17** Egun batez, bada, jarria zegoela irakasten, ziren han jarriak fari-sauak eta legeko doktorak ere, Galileako eta Judeako herrizka guzietarik eta Jerusalemetik ere ethorri zirenak; eta Jaunaren berthutea zen ageri erien sendatzean. **18** Orduan jende batzu ethorri ziren gizon bat zakhar-ketela paralitikoa ohe batean eta zebiltzan sarthu nahiz eta hura Jesusen aitziñean eman nahiz. **19** Baiñan ezin aurkhituz nondik sararaz, jendetze handia zela kausa, igan ziren etxe gainerat eta jautsi zuten theilletarik bere ohearekien guzien erdirat Jesusen aitziñerat, **20** zeñiek hekien fedea ikusirik erran baitzioen: «Gizona, barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak». **21** Orduan eskribauak eta farisauak hasi ziren bere baithan erraten: «Nor da blasfemio erraille hau? Nork barkha ahal detzake ezen bekhatuak Jainkoak berak baizen?». **22** Ezagaturik, bada, Jesusek hekien gogoramenduak, ihardetsi zaroen eta erran: «Zer gogoeta darabillazue zuen bihotzetan? **23** Zer da errexago? Ala erratea: Barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak, ala erratea: Altxa zaite eta ibill zaite? **24** Bada jakin dezazuentzat Gizonaren Semeak baduela botherea lurrean barkhatzeko bekhatuak», erran zioen paralitikoari: «Nik darotzut erraten: altxa zaite, eramazu zure ohea eta zohaz zure etxerat». **25** Altxatu zen gizona berehala hekien aitziñean eta

harturik zatzan ohea, goan zen bere etxerat Jainkoari gloria bihurtzen zioela. **26** Orduan guziak jarri ziren espantu handi batean Jainkoaren handitasunak publikatzen eta izialduraz betherik ziotsaten: «Ala guk gauza miragarriak baiditugu ikusi egungo egunean».

**27** Horien ondoan ilkhi zen Jesus, eta ikusirik publikano bat Lebi deitzen zena burreuean jarria, erran zioen: «Jarraik zakizkit». **28** Eta hura gauza guziak utzirik, jaiki zen bere lekhitik eta jarraiki zitzaion. **29** Egin ere zioen banket handi bat bere etxean, eta ziren publikanozko et bertze halako jendetze tropela handi bat mahaiñean jarriak hekiekien. **30** Eta bazarasaten farisauek eta eskribauek, haren dizipuluei erraten ziotelarik: «Zergatik publikanoekien eta bekhatorosekien jaten duzue?». **31** Jesusek hitza harturik, erran zaroen: «Sendo direnek ez dute mirikuren beharrik, baiñan bai eri direnek. **32** Ez naiz ethorri justuak deitzerat, baiñan bai bekhatorosak penitenziarat deitzerat».

**33** Ordean hek erran zioten: «Zergatik Joanesen dizipuluak eta bai farisauenak ere dire barurtzen eta orazionetan egoten, eta zureak hari dire jaten eta edaten?». **34** Ihardetsi karoen: «Baruraz othe detzaketzue espasaren adiskideak esposa hekiekien deiño? **35** Baiñan ethorriko dire egunak, zeinetan esposa khenduko baitzaie, eta orduan dire barurtuko». **36** Konparazione bat egin ere zaroen: «Nihork ez bide dio ematen oihal berritik pedazua soiñeko zaharrari, ezperen berriak hausten du zaharra, eta oihal berritikako pedazu hura ez dagoko ungi zaharrari. **37** Eta nihork ez bide du ematen mahats arno berria zahagi zaharretarat, ezperen mahats arno berriak hausten ditu zahagiak eta isurtzen da eta zahagiak galtzen dire. **38** Baiñan mahats arno berria eman behar da zahagi berrietarat eta bata eta bertzea dire salbatzen. **39** Eta ez da nihor arno zaharra edaten duenean nahi lukenik berehala berritik; erraten baidu ezen: Zaharra hobea da».

## VI. KAP.

**1** Gerthatu zen, bada, sabato egun batean, zeñi erraten baitzioten bigarren lehena, iragaten zela Jesus ogipean gaindi, haren dizipuluek hauts zetzaten ogi burukak eta jan zetzaten eskuz bihurturik. **2** Eta farisau batzuk erraten zioten: «Zergatik egiten duzue sabato egunean zilhegi ez dena?». **3** Jesusek hitza harturik, erran zaroen: «Ez duzue irakurri zer egin izan zuen Dabidek, gose izan zenean bera eta harekien zirenak? **4** Nola





sarthu izan zen Jainkoaren etxean eta hartu zituen eta jan proposizioneko ogiak eta eman harekien zirenei, zeinetarik jatea ez baitzitzaien zilhegi aphezei baizen? 5 Gizonaren Semea», diotsote oraino, «nausi da sabatho-aren ere».

6 Gerthatu zen bertze sabatho egun batez, sar zedin Jesus sinagogan; eta jarri zen irakasten eta zen han gizon bat esku eskuña ihartua zuena. 7 Beha zegozkon, bada, eskribauak eta farisauak, hea sabatho egunean sendatuko othe zuen, aurkhitu nahiz nondik hura akusa. 8 Baiñan hark, baitzekien gogoan zer zarabillaten, erran izan zioen eskua ihartua zuen gizonari: «Altxa zaite eta eman zaite hor erdi hortan». Altxatu zen eta eman zen han. 9 Gero Jesusek erran zaroen hei: «Galde bat dut zuei egiteko: zilhegi da sabatho egunetan ungi egitea ala gaixki egitea, gizon bati bizia salbatzea ala idekitzea?». 10 Eta guziei behatu ondoan ingurutarat, erran zioen gizon hari: «Heda zazu zure eskua». Hedatu zuen eta sendatu zitzaioen osoki. 11 Hek guziak baldituak gelditu ziren eta bazarasaten elkharren artean zer egiñen othe zuten Jesusen kontra.

12 Denbora hartan goan zen Jesus mendirat othoitz egiterat eta egon zen han gau guzian othoitz egiten Jainkoari. 13 Eta eguna ethorri zenean, deithu izan zituen bere dizipuluak eta hetarik berezi zituen hamabi, zeñiak deithu ere baitzituen Apostoluak. 14 Simon, zeini eman baitzioen izena Piarres, eta Andres haren anaia, Jakobe eta Joanes, Filipe eta Bartholome, 15 Mathieu eta Thomas, Jakobe Alfearena eta Simon, zelos bethea deitzen dena, 16 Juda Jakoberen anaia, eta Judas Iskariotes, zein izan baitzen traidorea.

17 Gero hekiekien jautsirik, gelditu zen lekhu zelhai batean eta harekien haren dizipuluen araldea, eta jendetze handi bat Judeako, Jerusalemeko eta Tirgo eta Sidongo itsas basterretako populuatarik, 18 zeñiak ethorri izan baitziren haren aditzerat eta bere eritasunetarik sendatzerat; izpiritu lohiak posedituak zirenak ere sendatzen ziren. 19 Eta populu guzia hura ukitu nahiz zebillan, zergatik haren ganik ilkhitzen baitzen berthute bat guziak sendatzen zituena.

20 Orduan begiak altxaturik bere dizipuluen alderat, ziotsan: «Dohatsu zarete pobre zaretenak, zeren zuena baida Jainkoaren Erresuma. 21 Dohatsu orai gose zaretenak, zeren sasiatuko baizarete. Dohatsu orai nigar egiten duzuenak, zeren hirri eginen baiduzue. 22 Dohatsu izanen zarete gizonak gaitxetsiko zaituztenean, aldaratuko zaitzunean, afruntatuko zaituztenean, eta zuen izena ere gaixtotzat arbuatuko dutenean Gizo-

naren Semearen ariaz. 23 Orduan zaitezte alegera eta bozkaria, horra ezen golar do handi bat zuentzat dagoena zeruan; horla tratatzen ohi zituzten profetak ere horien aitek. 24 Baiñan zorigaitz zuentzat, aberatsak, zeren baiduzue zuen konsolazionea mundu huntan. 25 Zorigaitz zuentzat, sasiatuak zaretenak, zeren izanen baitzarete gose. Zorigaitz zuentzat, orai hirriz zaudetenak, zeren eginen baiduzue nigar. 26 Zorigaitz zuentzat gizonak lausengatuko zaituztenean; horla egiten zioten ezen ohi, profeta falsoei ere horien aitek.

27 Baiñan erraten darotzuet aditzen nauzuenei: Malta zatzue zuen etsaiak; egiozue ungi zuek higin zaituztenei. 28 Benedika zatzitzue zuek madarikatzen zaituztenak eta egizue othoitz gaizki erabiltzen zaituzteneztat. 29 Mazela batean jotzen zaituenari para diozozu bertzea ere, eta zure kapa eramaten darotzuna ez dezazula debeka arropa ere eramatetik. 30 Eman diozozu eskatzen darotzun guziari, eta zure eramaten darotzunari ez diozozula galde. 31 Fiñean nola ere nahi baiduzue egin diezazuten zuei gizonak, eta hala egin diozozue zuek ere hei. 32 Baldin ez baidituzue maite zuek onesten zaituztenak baizen, zer esker dukezue?. Ezen bekhatorosek ere maite dituzte hek maitatzen dituztenak. 33 Eta baldin ungi egiten badiozue zuei ungi egiten darotzuetenei, zer esker dukezue? Bekhatorosek ere ezen hori egiten dute. 34 Baldin prestatzen badiozue, bihurtuko darotzuela idurikitzen duzuenei, zer merezimendu dukezue? Bekhatorosek ere prestatzen diote bekhatorosei, ordaiñez hekien ganik hainbertze izateagatik. 35 Zuek, bada, malta zatzue zuen etsaiak; ungia egizue eta presta zazue handik deusere iduriki gabe, eta izanen da zuen golar doa handia, eta izanen zarete Jaungoikoaren umeak, zergatik hura ona baida ingratentzat eta gaixtoentzat ere. 36 Izan zaitezte, beraz, urrikalmendutsu, zuen aita urrikalmendutsu den bezala.

37 Ez dezazuela juia eta ez zarete juiatuak izanen. Ez dezazuela kondena eta ez zarete kondenatuak izanen. Barkha zazue eta barkhatuko zaitzue. 38 Emazue eta emanen zaitzue; isuriko zaitzue zuen altzorat neurri ona, ungi zapatua eta higitzean gaindiz «dohana; ezen zebonek neurthuko duzuen neurri beraz neurthuko zaitzue.

39 Konparazione hau ere egiten zaroen: «Itsu batek itsua gida dezake? Ez dire biak hobirat erortzen? 40 Dizipulua ez ahal da nusia bezalako den guzia. 41 Zergatik, bada, ikusten duzu fitsa zure anaiaren begian eta laza ez duzu ikusten zeurean? 42 Edo nola erran diozokezu zure anaiari: Anaia, utz nazazu khi-



diezazudan fits bat zure begitik, zeronek zeure begian duzun laza ikusten ez duzun denboran? Hipokrita, khen zazu lehenik laza zeure begitik eta orduan ikusiko duzu nola khen fitsa zure anaiaren begitik.

**43** Ez da ezen arbola ona fruitu gaixtoak ekhartzen dituena, ez eta arbola gaixtoa fruitu onak ekhartzen dituena. **44** Ezen arbola bakoitza bere fruitutik ezagutzen da. Ez dituzte ezen elhorrietarik biltzen fikoak, ez bain guti laharretarik mahatsak. **45** Gizon onak bere bihotzeko thresor onetik atheratzen ditu gauza onak; eta gizon gaixtoak thresor gaixto bate-tarik gaixtoak atheratzen ditu; bihotzeko frankiatik ezen minzo da ahoa.

**46** Zergatik, bada, erraten darotazue: «Jauna, Jauna», eta ez duzue egiten nik erraten dudana? **47** Erakusterat nohatzue noren iduriko den ene ganat heldu den gizon guzia eta ene erranak aditzen eta obretan ematen dituena. **48** Gizon bat diduri, zeïnek bastitzen baidu etxe bat eta barna haintzurturik ezarri baiduke zimendua harriaren gaiñean; uholde abiatu-rik ibaia jazarri dio etxe hari eta ezin higitu duke, zeren zen fundatua arrokaren gaiñean. **49** Ene erranak aditzen dituena berriz eta obretan ematen ez dituena gizon baten iduriko da, zeïnek bastitzen baidu bere etxea lur gaiñean zimendurik gabe; ibaia heldu da etxe hari jazartzerat eta berehala erori dateke etxea, eta barraiadura handi bat egin da hartaz».

## VII. KAP.

**1** Akhabatu zuenean, bada, Jesusek populuari errateaz errateko zituenak, sarthu zen Kafarnaumen. **2** Eta zentenero baten sehia hainitz maite zuena zen eri, hill hurrena. **3** Eta aditu baitzuen mintzatzen Jesusez, igorri izan ziotzan judutarren kargudunak othoitz egiterat, ethor zedin haren sehia sendatzerat. **4** Ethorrik, bada, hek Jesusen ganat, othoizten zuten lehiatuki erraten ziotelarik: «Merezi du hori egin diozozun, **5** maite du ezen gure nazioea eta sinagoga bat ere bastitu daroku berak». **6** Goan zen, bada, Jesus hekiekien eta etxetik urrun handi ez zela, igorri ziotzan zenteneroak bere adiskide batzu erraterat: «Jauna, ez zaitezela nekha, ez naiz ezen digne zu ene etxean sar zaitezen. **7** Hargatik ere neure burua ez dut gai estimatu zure ganat ethortzeko; baiñan errazu hitza eta ene sehia sendatua izanen da. **8** Ezen gizon bat naizen arren bertzeren azpikoa, nik ere baditut soldaduak neure azpiko; erran diozadan batari: zohaz, badoha; eta bertzeari: zato, heldu da; eta ene sehiari: egizu hau, egiten du». **9** Hori aditurik Jesus sarthu zen espantuetan, eta itzulirik ondotik zarraiz-

kon jendetarat, erran zaroen: «Erraten darotzuet egia: Israelen ere ez dut aurkhitu hain fede handirik». **10** Eta bihurtu zirenean igorriak izan zirenak etxerat, aurkhitu zuten sendatua eri izan zen sehia.

**11** Ondoan goan zen Jesus Naim deitzen zen hiri batetarat eta goan ziren harekien haren dizipuluak eta jendetze handi bat. **12** Hurbiltzen zela, bada, hiriko portaletarat, huna non zaramaten gorphutz bat bere ama alhargunaren seme bakoitza eta hiritik akua handi bat ziohan harekien; **13** zeïña ikusi izan zuenean Jaunak, urrikalmendu harturik hartaz erran baitzioen: «Ez dezazula egin nigarrik». **14** Eta hurbildurik ukitu zuen katabuta; hura zaramatenak gelditu ziren, bada, eta erran zuen: «Gizon gastea, altxa zaite, nik darotzut erraten». **15** Altxatu zen berehala jartzerat hilla zena; eta hasi zen mintzatzen eta Jesusek bihurtu zioen bere amari. **16** Guziak, bada, sesitu zituen izialdurak eta hasi ziren Jainkoa glorifikatzen erraten zutela: «Profeta handi bat altxatu da gure artean eta Jainkoak bisitatu duke bere populua». **17** Eta aria hortaz erraten zutena hartaz banatu zen Judea guzian eta ingurutako herri guzietan.

**18** Erran baitziotzaten Joanesi bere dizipuluek horiek guziak, **19** deit-hu izan zituen Joanesek bere dizipuluetarik bia eta igorri zituen Jesusen ganat hari erraterat: «Zu zare ethorri behar duzuna ala bertze bat behar dugu iguriki? **20** Ethorri zirenean, bada, Jesusen ganat gizon bek, erran zioten: «Joanes Baptistak igorri gaitu zure ganat, zuri galdegiterat hea zu othe zaren ethorri behar dena, ala bertze bat iguriki behar dugun?» **21** Eta ordu berean Jesusek sendatu izan zituen hainitz presuna eritasunetarik eta plagetarik, bai eta izpiritu gaixtoetarik eta hainitz itsuei bizta eman izan zaroen. **22** Gero erreputatzat erran zaroen: «Zohazte erraterat Joanesi zer aditu duzuen eta zer ikusi duzuen: itsuek ikusten dutela, mainguak ibiltzen direla, lepratsuak garbituak direla, gorrek aditzen dutela, hillak bizten direla, Ebanjelioa zaiela pobrei predikatzen **23** eta dohatsu ditekela ene sujetean eskandalisatuko ez dena».

**24** Goan zirenean Joanesen mandatariak, hasi zitzairen Joanesez erraten populuari: «Zeren ikusterat goan othe zarete deserturat? seska haizeak erabiltzen duen baten? **25** Ordean, zeren ikusterat goan zarete? Gizon guriki bestitu baten? Ikusten duzue tresna ederrak darabiltzatenak eta atseginpean bizi direnak erregeen etxetan ohi direla. **26** Zeren ikusterat, bada, ilkhi zarete? Profeta baten? Baiki, erraten darotzuet, eta profeta baino gehiagokoaren. **27** Hartaz da eskribatua: Horra non igortzen duan ene aingerua kure aitzïnean bidea aphainduko darotzuna.



**28** Erraten darotzuet ezen: Emastetarik jaiο direnen artean profeta handiagorik Joanes Baptista baiño nihar ez da. Ordean Jainkoaren erresuman xumeen dena handiago da are hura baiño». **29** Eta populu guziak hori aditurik eta bai publikanoek ere justifikatu zuten Jainkoaren konduita, bathaiatuak baitziren Joanesen bathaioaz. **30** Ordean farisauek eta legeko doktorek mesprezatu zuten Jainkoak hekien alderat zuen deseñua, ez baitziren bathatuak hartaz.

**31** Erran izan zaroen, bada, Jaunak: «Norekien, bada, konparatuko ditut jenderazione huntako gizonak eta nor didurite? **32** Haur batzu didurite, zeñiak plaza publiko batean jarriak mintzo baitzaizko elkharri diotsatelarik: «Jo darotzuegu xirola eta ez zarete dantzatu; kantatu darozkitzuegu auhenak eta ez duzue egin nigar. **33** Ethorri izan da ezen Joanes Baptista ogirik jaten ez duela eta arnorik edaten ez duela eta diozue: Deabrua du berekien. **34** Ethorri izan da Gizonaren Semea, jaten duela eta edaten duela eta diozue: Huna gizon bat jankorrean dabillana eta arno edaillea, publikanoen eta bekhatoren adiskidea. **35** Baiñan justifikatua izan da zuhurtzia bere ume guziez».

**36** Othoiztu zuen, bada, farisau batek harekien jaterat goateaz eta sarthurik farisauaren etxean, jarri zen mahaiñean. **37** Denbora berean hiriko emasteki gaixki bizi zen batek, jakinik mahaiñean zela farisau haren baithan, ekharri zuen jarro bat urrin onezko ungentuz bethea, **38** eta jarririk gibeletik haren oinetan, hasi zen bere nigarrez haren oinak bustitzen; eta bere buruko illeaz zituen xukhatzen, musu ematen zaroen eta gantzutzen zituen ungentuz. **39** Ikusirik, bada, hura gonbidatu izan zuen farisauak, erran zuen bere baithan zarasalarik: «Baldin hau profeta balitz, baleakike eki nor eta nolakoa den emasteki hori, ukitzen duena; gaixki bizi dena baida». **40** Orduan Jesusek hitza harturik erran izan zioen: «Simon, zerbait dut zuri errateko». Eta ihardetsi zioen: «Nausia, errazu». **41** Bi zordun zituen hartzekodun batek; batak zioen zor bortz ehun denario eta bertzeak berrogoi eta hamar. **42** Ez baitzuten pagatzekorik, barkhatu zaroen bie. Zure ustez zeñiek du maite gehienik?» **43** Simonek ihardetsi zioen eta erran: «Ene ustez haiñak, zeñari gehiago baidio barkhatu». Jesusek erran zioen: «Ungi juiatu duzu». **44** Eta emastekia ganat itzulirik erran zioen Simoni: «Ikusten duzu emaste hau? Sarthu naiz zure etxean, urik ez darotazu eman ene oiñen garbitzeko; hunek aitzitik bere nigarrez busti ditu ene oiñak eta bere illeaz ditu xukhatu. **45** Musu bat ez darotazu eman, baiñan hau sarthu denetik hunat, ez da gelditu ene oinei musu ematetik. **46** Olio burua ez darotazu gantzutu, baiñan hunek ungentuz ditu gan-

tzutu ene oiñak. **47** Hargatik darotzut erraten barkhatzen zaizkoela hainitz bekhatu, zeren duen hainitz maitatu; bainan gutiago barkhatzen zaioenak gutiago du maitatzen». **48** Erran zioen, bada, emasteki hari: «Barkhatzen zaizkitzu zure bekhatuak». **49** Eta hasi ziren harekien mahaiñean zirenak erasten bere baithan: «Nor othe da hau, bekhatuak ere barkhatzen baiditu?» **50** Jesusek, bada, erran zioen emasteki hari: «Zure fedea salbatu zaitu; zohaz bakearekien».

## VIII. KAP.

**1** Gero ondoan goan zen hiriz hiri eta herriz herri predikatzen zuela eta irakasten Jainkoaren Erresuma, eta hamabiak harekien ziren. **2** Bai eta emasteki batzu ere sendatuak izan zirenak izpiritu gaixtoetarik eta eritasunetarik: Maria, Magdalena zaritzana, zeñia ganik ilkhi izan baitziren zazpi deabru; **3** Joana, Herodesen intendant Xusa zeritzanaren ematea; Susana eta bertze hainitz bere ontasunetarik bere beharretan fornitzen ziotenak.

**4** Jendetze handi bat, bada, bildu baitzen eta hirietarik mundu handi bat heldu baitzitaion, erran izan zaroen parbolez: **5** «Ilkhi izan zen ereille bat bere bihia ereinterat eta ereiten hari zela, bihi parte bat erori zen bide basterretarat, ostikatua izan zen eta jan zuten aireko xoriek. **6** Bertze parte bat erori zen harritarat, eta sorthu eta berehala ihartu zen, zeren ez baitzuen hezetasunik. **7** Bertze bat berriz erori zen elhorriperat eta elhorrriak bihiarekien handiturik itho zuten. **8** Bertze parte bat erori zen lur onerat eta sorthurik ekharri zuen batenzat ehun». Horiek erratean oihuz zegoen: «Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala».

**9** Galdegin zioten, bada, bere dizipuluek zer erran nahi zuen parabola horrek. **10** Eta erran zaroen: «Zuei eman zaitzue Jainkoaren erresumako misterioaren ezagutzea; bertzei ordean hitz estalitan baizen ez; halako maneraz, non ikustean ez baidute ikusten eta aditzean ez baidute aditzen».

**11** Huna, bada, zer den parabola. Hazia da Jainkoaren hitza. **12** Bide basterretan direnak, daitezke hitza entzuten dutenak; ordean gero ethortzen da deabrua eta eramaten du hitz hura hekien bihotzetik, beldurrez ezen sinhetsirik salba daitezen. **13** Lekhu harritsuetakoak dire hitza enzunik errezibitzen dutenak bozkarioekien; ordean errorik ez dute, denbora batetaketoz dute sinhesten eta tentazioneko denboran ihesi dohaz. **14**



Elhorriperat erortzen denak markatzen ditu hitza entzuten dutenak; ordean ithotzerat uzten dutenak bizitze huntako ansiez, aberastasunez eta atsegiñez, eta fruiturik ekhartzen ez dutenak. **15** Fiñean lur onerat erortzen denak ditu markatzen, entzunik bihotz on eta exzellent batekien hitza, gelditzen eta begiratzen dutenak eta pasientziaz fruitua ekhartzen dutenak.

**16** Nihor ez bide da, lanpa bat biztu ondoan, jarro batez estaltzen duenik edo ohe azpian ematen duenik; aitzitik ematen dute kandeler baten gaiñean, sartzen direnek argia ikus dezaten gatik. **17** Ez da ezen sekreturik agertzen ez denik, ez gauza gorderik jakiten ez denik eta kanporatzen ez denik. **18** Goardia emozue, beraz, nola aditzen dukuen; ezen duenari emanen zaio, eta ez duenari khenduko zaio duela uste duena ere».

**19** Ethorri ziren, bada, haren ganat haren ama eta haren anaiak, eta ezin hurbill zekizkon jendetzearen fuertsaz. **20** Eta erran zioten: «Kure ama eta zure anaiak kanpoan daudez zu ikusi nahiak». **21** Baiñan ihardetsi izan zaroen eta erran: «Ene ama eta ene anaiak haiñak dire, zeñiek aditzen baidute eta obretan ematen Jainkoaren hitza».

**22** Egun batez iganik barku batetar bere dizipuluekien erran zaroen: «Iragan gaitezen lakhuaren bertze alderat». Eta abiatu ziren. **23** Iragaten hari zirela loharkatu zen eta egin zen lakhua gaiñean haize xirimola bat hain handia, non urez bethetzen baitzen barkua eta hirriskutan baitziren. **24** Ethorri zitzaizkon, bada, eta iratzarri zuten erraten ziotelarik: «Nausia, galtzen hari gare»: Baiñan hark jaikirik mehatxatu zituen haizeak eta itsasoko tenpesta, eta egin zen kalma handi bat. **25** Gero erran izan zaroen: «Non da zuen fedea?». Hek berriz izituak zeudezen eta miretsirik erran zioten elkhari: «Nor othe da hau? Haizeei eta itsasoari manatzen baidaroe eta hek obeditzen baidute».

**26** Irabazi zuten gero Jerasendarren herrirat, zeñia baida Galileaz bertze aldean. **27** Jautsi zenean Jesus leihorreat, bathu zitzaion gizon bat aspalditik deabruaz poseditua zena eta bulhuzia zabillana, thonbaz bertze egoitzarik ez zuena. **28** Jesus ikusi zueneko arthiki zuen bere burua haren oiñetarat eta oiñu handi batekien erran zioen: «Zer dut nik zurekien, Jesus Jaungoikoaren Semea? Othoi, ez nazakula tormenta». **29** Manatzen zuen ezen izpiritu lohia ilkhi zedillala gizon haren ganik, ezen maiz sesitzen zuen biolentziarekien; gathez estekaturik eta burdiñak oiñetan emanik goarda zezaten arren, estekaillu guziak hautsirik eramaten zuen deabruak deserturat. **30** Galdegin zioen, bada, Jesusek eta erran: «Zer da hire izena?».

Hark erran zioen: «Lejionea»; zergatik deabru hainitz sarthu izan baitziren haren baithan. **31** Eta othoiztu zuten deabru hek, arren ez zetzan mana lezerat ziohazela. **32** Zen, bada, han urdalde handi bat mendian bazkatzen zirenak eta othoitz egin zioten deabruak arren permeti ziozaten hetan sar zaitezen; eta permetitu zaroen. **33** Ilkhi ziren, bada, deabruak gizon haren ganik eta sarthu ziren urdeetan. Denbora berean urdaldea abiatu zen lausterrez lakhuan behera eta itho ziren. **34** Hori ikusirik urdezaiñek ihesi egin zuten eta goan ziren berria ematerat hirirat eta herrietarat. **35** Ilkhi ziren, bada, ikusterat zer gerthatu othe zen; ethorri ziren Jesusen ganat eta aurkhitu zuten gizon hura, zeñaren ganik ilkhi baitziren deabruak, jarria haren oinetan, bestitua eta bere sensu onean; eta izitu ziren. **36** Erran ere zioten gauza ikusi izan zutenek nola libratua izatu zen deabruzko lejonetik. **37** Orduan othoiztu zuten Jerasendar guziek, arren urrun zedin hetarik; zeren izialdura handi batek hartuak baitziren. Igan zen, bada, barkurat eta goan zen bertze alderat. **38** Gizon hura, zeñetarik deabruak ilkhi baitziren, othoitzegoz zegoen harekien izan nahiz. Baiñan Jesusek igorri izan zuen erraten zioelarik: **39** «Bihur zaitte zure etxerat eta konda zazu zer fagore egin darotzun Jainkoak». Eta goan zen hiri guzian banatzen zuela Jesusek egin izan zioen fagorea.

**40** Bihurtu izan zenean Jesus, errezibitu zuten jendetze handi batek, guziak ezen haren begira zeudezen. **41** Berehala ethorri zitzaioen sinagogako buruzagi bat, Jaire deitzen zena, eta bere burua arthikirik Jesusen oiñetarat othoiztu zuen ethortzeaz haren etxerat, **42** zeren alaba bat baitzuen baxharra hamabi urthe zituzkena, eta hura hiltzen hari baitzitzaioen. Gerthatu zen, Jesus harat ziohala, izan zedin tropelez herstua. **43** Eta emaste bat hamabi urthe hartan odol isuri batez eri zena, mirikueta bere ontasun guziak despendatu izan zituena eta batek ere ezin sendatu izan zuena, **44** hurbildu zitzaion gibeletik eta ukitu zuen haren arrobaren pertala eta berehala gelditu zitzaion bere odol isuria. **45** Jesusek erran zuen: «Nor da ni ukitu izan nauena?». Guziek, bada, ukhatzen baitzuten, Piarresek eta harekien zirenek erran zioten: «Nausia, jende tropek butatzen zaituzte eta hurren lehertzen, eta diozu nork ukitu zaituen?». **46** Jesusek ihardetsi zuen: «Ukitu nau norbaitek, ezagutu dut ezen berthute bat athera izan dela ene ganik». **47** Ikusirik, bada, emaste hark ezin gorde zela, ethorri zen ikharan, arthiki zuen bere burua haren oiñetarat eta mundu guziaren aitzinean deklaratu zuen zerengatik ukitu izan zuen eta nola berehala sendatua izan zen. **48** Orduan erran zioen Jesusek: «Ene haurra, zure fedea salbatu zaitu; zohaz bakearekien». **49** Oraino mintzo zela,



ethorri zitzaion norbait sinagogako prinzipalari erraterat: «Hil da zure alaba; ez dezazula nekharaz nausia». **50** Jesusek, bada, hitz hori aditurik, eran zioen neskatxaren aitari: «Ez duzula beldurrik; sinhets zazu solamente eta salbo izanen da». **51** Eta etxerat ethorri zenean ez zuen utzi berekien sartzerat nihor, lekhat Piarres, Jakobe, Joanes eta neskatxaren aita eta ama baizen. **52** Nigarrez zeudezen guziak eta auhenez, baiñan erran zaroen: «Ez zazuela egin nigarrrik. Ez da hilla neskatxa, baiñan lo datza». **53** Eta trufatzen ziren hartaz, baitzakiten hilla zela. **54** Jesusek, bada, eskua harturik egin zioen oihu erraten zioelarik: «Neskatxa, altxa zaite». **55** Arima bihurtu zitzaioen gorphutzerat eta jaiki zen berehala eta manatu zaroen eman ziozabela jaterat. **56** Espantitu ziren haren aita eta ama, eta Jesusek debekatu zaroen nihori ez ziozabela erran zer gerthatu zen.

## IX. KAP.

**1** Jesusek erakharririk hamabi Apostoluak, eman zaroen indarra eta botherea deabru guzien gainean, bai eta eritasunen sendatzekoa ere. **2** Gero igorri zituen predikatzerat Jainkoaren Erresuma eta eriak sendatzerat. **3** Eta erran karoen: «Ez dezazuela deus ere eraman bidekotz, ez makhillarik, ez moltsarik, ez ogirik, ez dirurik; eta ez duzuen bigarren aldagarriarik. **4** Zein ere etxetan sarthuko baitzarete, han egon zaitzete eta ez zaitzetezela ilkhi handik. **5** Baldin ez bazaituzte hartzen, hiri hartarik ilkhitzean zuen oiñetako herrautsa ere iharros zazue hekien kontrako lekhukotasuntzat». **6** Abiaturik bazebiltzan herriz herri Ebanjelioa predikatzen zute-la eta eriak sendatzen zituztela lekhu guzietan.

**7** Aditu zuen, bada, Herodes tetrarkak mintzatzen Jesusek egiten zituen guziez, eta ez zakien zer pensa; batzuk erraten baitzuten Joanes biztu zela hilletarik; **8** bertzeek berriz Elias agertu zela eta bertze batzuk profeta lehenagokoetarik bat zela, mundurat bihurtua. **9** Eta zioen Herodesek: «Joanesi nik burua pikarazi diot; nor da bada hau, zeinietaz horlako gauzak baiditut aditzen?». Eta nahi zuen ikusi.

**10** Bihurtu zirenean Apostoluak kondatu ziotzaten Jesusi egin izan zituzten gauza guziak, eta hek berekien harturik goan zen aparterat lekhu desertu batetarat, Bethsaidako ondorat. **11** Jendetzeek hori jakin zutenean, jarraiki zitzaizkon eta Jesusek hartu zituen; mintzo zitzairen Jainkoaren Erresumaz eta sendatzeko beharra zutenak sendatzen zituen.

**12** Eguna hasi zen, bada, beheratzen eta ethorri zitzaizkon hamabiak erraterat: «Igorrazituz jende hauk, dohazen ostatatzerat inguruetakoa herrietan eta herrisketan, eta ediren dezaten jateko behar dutena, ezen hemen lekhu desertu batean gare». **13** Jesusek erran zaroen: «Emozue zebonek jaterat». Hek berriz ihardetsi zioten: «Ez dugu bortz ogi eta bi arrain baiño gehiago, non ez garen naski goaten erosterat jende hauk guzientzat jatekoa». **14** Baziren ezen bortz milla gizon edo. Erran zaroen, bada, bere dizipuluei: «Jarraraz zatzue salerka, berrogoi eta hamar saler bakhotxean». **15** Egin zuten hala eta jarrarazi zituzten guziak. **16** Jesusek, bada, harturik bortz ogiak eta bi arraiñak eta behaturik zerurat, benedikatu zituen eta eman zarozten bere dizipuluei, zerbitza ziotzatatentzat jende hei. **17** Jan zuten guziek eta sasiatu ziren eta sobratu zitzaientetik eraman zituzten hamabi saski zathiz betheak.

**18** Ondoan bakhartasunean othoitzean zegoela, harekien baitziren haren dizipuluak ere, galdegin zaroen eta erran: «Nor diote naizela jendeek?» **19** Ihardetsi zioten hek: «Batzuk Joanes Baptista zarela; bertzek Elias, bertze batzuk berriz profeta lehenagokoetarik bat biztu dela». **20** Erran zaroen, bada: «Eta zuek nor naizela diozue?». Simon Piarresek ihardetsi izan zioen eta erran: «Kristo Jainkoarena». **21** Baiñan Jesusek dixidaturik debekatu zaroen nihori hori ez erratea, **22** erraten zuelarik: «Halabeharra da Gizonaren Semeak sofri dezan hainitz, izan dadin kondenatua kargudunez, eta aphezen prinzeez eta eskribaez izan dadin hilla-razia, eta hirurgarren egunean bitz dadin».

**23** Gero erran zaroen han ziren guziei: «Baldin nihork nahi badu ene ondotik ethorri, egin bioza ukho bere buruari, garraia beza bere gurutzea egun oroz eta jarraik bekit niri; **24** ezen bere bizia salbatu nahi dukenak galduko du; eta aitzitik bere bizia galdu dukenak ene gatik, salbatuko du. **25** Zer probetxu du ezen gizonak mundu guzia irabaztea ere, bere burua galtzen badu eta bere kaltetan hari bada? **26** Nor ere nitaz ahalke izanen baida eta ene hitzez, Gizonaren Semea ere ahalke izanen da hartaz ethorriko denean bere majestatean, Aitarenean eta aingeru sainduenean. **27** Erraten darotzuet bada egia: badire hemen present direnetarik hillen ez direnak, ikusi izan gabetakorik Jainkoaren Erresuma».

**28** Hitz horiek erran ondoan, zortzi egunen buruan edo, hartu zituen berekien Piarres, Jakobe eta Joanes eta igan zen mendi batetarat othoitze egiterat. **29** Othoitzean zegoela, egin zen haren bisaia bertze bat eta haren bestimenda xuri eta distiant. **30** Eta betbetan agertu ziren bi gizon, hare-



kien mintzo zirenak; ziren, bada, hek Moises eta Elias, **31** majestatz betheak agertzen zirenak; eta zuten erraten nola behar zituen finatu bere egunak Jerusalemen. **32** Piarres ordean eta harekien zirenak logalez pisatuak ziren; iratzartzean ikusi zuten Jesusen gloria eta harekien zeudezen bi gizonak ere ikusi izan zituzten. **33** Eta hek haren ganik partitzerat zioazela, erran zioen Piarresek Jesusi: «Nausia, on da guretzat hemen izatea; eta hala egitzigun hirur etxola, bat zuretzat, bat Moiserentzat eta bertze bat Eliasentzat». Ez zakien ezen zer erraten zuen. **34** Horien erraten hari zela, ethorri zen hedoi bat, zeinek estali baitzituen eta izitu ziren hedoi-pean hek sarthu zirenean **35** Denbora berean ilkhi zen hedoiPETIK boz bat erraten zuena: «Hauxe da ene Seme maitea: hau adi zazue». **36** Boz hark oraiño zirauela, Jesus aurkhitu zen bera bakharrik eta hek atxiki zuten hau sekretuan, nihori deusik erran gabe denbora hartan ikusi izan zituzten gauzetarik.

**37** Biharamunean menditik jausten zirela, jendetze handi bat ilkhi zitzaian biderat. **38** Gizon bat jendetze haren artetik hasi zitzaion oihuz erraten: «Nausia, othoitz egiten darotzut: beha zazu ene semea ganat, ezen hori dut ene haur bakharra. **39** Eta izpiritu gaixtoak sesitzen du eta betbetan oihu handi batzu egin aratitziten diotza, arthikitzen du, iharros-ten du arrapoa ahotik darioela, eta nekhez uzten du zathikatu duen ondolan ere. **40** Othoitz egin daroet zure dizipuluei khen diozatala eta ezin egin dute». **41** Jesusek ihardetsi zaroen: «O nazio sinhets gaitxa eta gaizkoatua! Noiz artean izanen naiz ni zuekien eta jasanen zaituztet? Ekharrazu hunat zure semea». **42** Eta hurbiltzen hari zela haurra, arthiki zuen deabruak lurrerat eta iharrosi zuen borthizki. **43** Baiñan Jesusek mehatxaturik izpiritu lohia, sendatu zuen haurra et bihurtu zioen bere aitari. **44** Guziak espantitu ziren Jainkoaren handitasunaz, eta guziak miretsiak baitzeudezen hark egiten zituen guziez, erran zaroen bere dizipuluei: «Har zazue ungi gogoan erraterat nohatzuen; ethorriko da ezen egun bat, zeifietan Gizonaren Semea emana izanen baida gizonen eskuatarat». **45** Baiñan hek ez zuten konprenitzen hizkuntza hori; gauza estali bat zen hekientzat hala, non ez baitzuten deusik konprenitzen eta izi ziren ere horren gainean hari deusik galdetzerat.

**46** Ethorri zitzaian, bada, gogoeta bat, hea zein othe zen hekien artean handiena. **47** Baiñan Jesusek ikusirik hekien bihotzeko gogoetak, hartu izan zuen haur bat eta hura bere aldean ezarririk, **48** erran zaroen: «Nork ere errebituko baidu haur hau ene izenean, ni nauke errebitzen,

eta ni errebitzen nauenak duke errebitzen ni igorri nauena, ezen zuen guzien artean xumeen dena diteke handiena».

**49** Harturik bada hitza Joanesek, erran zioen: «Nausia, ikusi dugu gizon bat zure izenean deabruak khentzen dituen, eta debekatu izan dugu, zeren ez baida gurekilakoetarik». **50** Eta Jesusek erran zioen: «Ez dezazuela debeka, ezen zuen kontra ez dena zuen alde diteke».

**51** Konplitu hurren zenean denbora mundutik goan behar zuena, hartu zuen aire seguratu bat Jerusalemert goateko, **52** eta igorri zituen mandatariak bere aitzinean abisu ematerat. Goan ziren eta sarthu ziren Samaritanoen hiri batean hari behar zena preparatzeko. **53** Baiñan ez zituzten hartu, zeren ageri baitzen Jerusalemert zihoala. **54** Ikusi zutenean, bada, hori haren dizipulu Jakobek eta Joanesek, erran zioten: «Jauna, nahi duzu erragun jauts dadillala sua zerutik eta irets detzala horiek?» **55** Baiñan itzulirik erreprentitu zituen erraten zaroelarik: «Ez dakizue zer Izpiritutako zareten; **56** Gizonaren Semea ez. da ethorri izan gizonen bizia khentzerat, aitzitik bai ematerat». Eta goan ziren bertze herri batetarat.

**57** Gerthatu zen, bada, bidean zihoazela erran ziozan gizon batek: «Jarraikiko natzaitzu zohazen lekhu guzietarat». **58** Ihardetsi zioen Jesusek: Azeriek badituzte bere zilhoak eta zeruko hegastinek bere ohatzeak; Gizonaren Semeak, ordean, ez du non pausa bere burua». **59** Erran zioen, bada, bertze bati: «Jarraik zakizkit». Eta hark ihardetsi izan zioen: «Jauna, permeti diezadazu lehenago, nohan ene aita ehorzterat». **60** Jesusek berriz erran zioen: «Utzatzu hillek ehortz detzaten bere hillak, bainan zu zohaz predikatzerat Jainkoaren Erresuma». **61** Bertze batek berriz erran zioen: «Jauna, jarraikiko natzaitzu; ordean permeti diezadazu lehenago desegin nadin etxean ditudanez». **62** Ihardetsi zioen hari Jesusek: «Nihor eskuz lothu ondoan goldeari gibelat beha jartzen denik, ez da propi Jainkoaren Erresumakotzat».

## X. KAP.

**1** Horien ondoan berezi izan zituen Jaunak hirur hogoi eta hamabi bertze dizipulu eta igorri zituen birazka bere aitzinean berak goan gogo zuen hiri eta lekhu guzietarat. **2** Eta ziotzoten: «Uzta handia da, ordean langille da guti. Egiozue, beraz, othoitz uztaren nausiarik igor detzala langilleak bere uztarat. **3** Zohazte; horra non igortzen zaituztedan otsoen



arterat bildots batzu bezala. **4** Ez daramazuela sakhurik ez molsarik ez oiñetakorik, eta nihor ez dezazuela bidean saluta. **5** Zein nahi etxetan sar zaitezten, berehala errazue: Bakea dela etxe huntan. **6** Eta baldin edireten bada han bakezko umerik, pausatuko da zuen bakea haren gaiñean; bertzela bihurtuko da zuen ganat. **7** Etxe berean egon zaitezte jaten duzuela eta edaten hekien baithan denetik; merezi du ezen langilleak bere saria. Ez zabiltzatela etxe batetik bertzerat. **8** Eta zein nahi hirietan sar zaitezten, baldin hartzen bazaituzte, jan zazue aitziañerat emanen darotzuetena. **9** Senda zatzue han ditezken eriak eta errozue: Hurbildu da zuen ganat Jainkoaren Erresuma. **10** Zein nahi hirietan berriz sar zaitezten, baldin hartzen ez bazaituzte, ilkhi zaitezte karriketarat eta errazue: **11** Zuen hiritik lothu zaiegun herrautsa ere iharosten dugu zuen kontra. Jakin ezazue ordean Jainkoaren Erresuma hurbil dela. **12** Erraten darotzuet Sodomarrak egun hartan emekiago izanen direla tratatuak hiri hura baiño.

**13** Zorigaitz hiretzat, Korozaim; zorigaitz hiretzat, Bethsaida!, zergatik Tirgo hirian edo Sidongoan egin izan balire zuetan egin izan diren mirakuilluak, aspaldi eginen baitzuten penitentzia zilizioan eta hautspean zaunzala. **14** Halaber Tiri eta Sidoni emekiago goanean zaie juiamenduko egunean ezen ez zuei. **15** Eta hi, Kafarnaum, zeruraino goratu haizena, ifernuetaraino beheratua izanen haiz. **16** Zuek aditzen zaituztenak ni aditzen nauke eta zuek mesprezatzten zaituztenak ni nau mesprezatzten; ni mesprezatzten nauenak berriz, ni igorri nauena du mesprezatzten».

**17** Bihurtu izan ziren, bada, hirur hogoi eta hamabiak bozkarioiekien erraten ziotelarik: «Jauna, deabruak ere sumetitzen zaizkigu zure izenean». **18** Eta Jesusek erran zaroen: «Ikusten nuen Satana xismista bat bezala erortzen zerutik. **19** Hona non eman izan darotzuedan botherea ostikatzeko sugéen eta eskorpionen, bai eta etsaiaren indar guzien ere, eta deusek ez darotzue eginen daiñurik. **20** Halarikan ere ez zaitezte bozkaria, zeren izpirituak sumetitzen zaizkitzuen; bozkaria zaitezte aitzitik, zeren zuen izenak eskribatuak diren zeruetan».

**21** Ordu hartan berean Jesusek izan zuen alegantzia bat Izpiritu Saindua ganikakoa eta erraten zuen: «Eskerrak darozkitzut, ene Aita, zeruko eta lurreko Jauna, gauza hek estali baidiotzatzute zuhurrei eta jakinei eta agertu baidiotzatzute xumei. Baiki, ene Aita, zeren den horla zure plazera. **22** Gauza guziak eman darozkit niri ene Aitak eta nihork ez daki nor den Semea Aitak baizen, ez nor den Aita Semeak baizen eta nori ere Semeak agertu nahiko baidio, eta hark baizen».

**23** Eta bere dizipuluetarat itzulirik, erran zaroen: «Dohatsuak begiak, zuek dakusazuena ikusten dutenak. **24** Erraten darotzuet ezen, hainitz profetek eta erregeek nahi izan dutela ikusi zuek ikusten duzuen eta ez baidute ikusi, eta aditu nahi izan dutela zuek aditzen duzuen eta ez baidute aditu».

**25** Orduan altxatu zen legeko dotor bat hura tentatu nahiz, eta erran zioen: «Nausia, zer egiñen dut bizitze eternala izateko?». **26** Jesusek ihardetsi zioen: «Legean zer da eskribatua? zer irakurtzen duzu?» **27** Hark errepusta eman zioen: «Maitatuko duzu zure Jainko Jauna zure bihotz guziaz, zure arima guziaz, zure indar guzietan eta zure izpiritu guziaz, eta zure lagun proximoa zeure burua bezala». **28** Erran zioen Jesusek: «Ungi ihardetsi duzu; egizu hori eta biziko zare». **29** Hark berriz, nahiz gizon prestutzat agertu, erran zioen Jesusi: «Eta nor da ene lagun proximoa?». **30** Hitza harturik, bada, Jesusek erran kuen: «Gizon bat zihoan Jerusalemetik Jerikorat eta erori zen ohoinen eskuetan, zeiniek bilhuzi baitzuten eta kolpez zaurthu ondoan, goan ziren hill hurrena utzirik. **31** Gerthatu zen, bada, aphez bat iragaten bide beraz eta hura hala ikusi arren, iragan zen trikatu gabe. **32** Manera berean lebita bat hurbill zelarik eta ikusi zuelarik, iragan zen hura ere. **33** Baiñan samaritano bat bidean zihoala, ethorri zen gizon hura zen lekhurat eta ikusirik urrikaldu zitzaion. **34** Hurbildu zitzaion eta lothu ziotzan bere zauriak, olio eta arnoa hetarat isuririk; eta bere abrearen gaiñean ezarririk, eraman zuen ostatu batetarat eta hartaz artha izan zuen. **35** Biharamunean athera zituen bi diru peza eta eman ziotzan ostalerari ziotzolarik: Artha izan zazu gizon huntaz eta zer ere gehiago despendatuko baiduzu, eta hura nik emanen darotzut bihurtzen naizenean. **36** Hirur horietarik zein daritzazu izan dela ohoiñen eskuetararik erori izan zenaren proximoa?». **37** Hark ihardetsi izan zioen: «Hartaz urrikalmenu izan duena». Horren gaiñean erran zioen Jesusek: «Zohaz eta zuk ere egizu gauza bera».

**38** Egun batez, bada, Jesus bidean zihoala bere dizipuluekien, sarthu zen herri batean eta emazteki Martha zeritzan batek errebitu izan zuen bere etxean. **39** Eta hunek zuen aizpa bat Maria deitzen zena, zeina jarririk baitzegoen Jaunaren oiñetan haren hitzaren aditzen. **40** Martha, bada, hari zen lehia handiekien hainitz zerbitzuren preparatzen; eta ethoririk Jesusen aitzinerat erran ikan zioen: «Jauna, ez duzu konsideratzen ene aizpak neroni utzten nauela bakharririk zerbitzatzerat? Erran diozozu, beraz, lagun nazala». **41** Baiñan ihardetsi izan zioen Jaunak eta erran: «Martha, Martha, khexatua zare eta altaratzten zare hainitz gauzen arthaz; **42** bizki-



tartean gauza bat da bakharra nezesario dena. Mariak parterik hoberena du hautatu, zeïña ez baitzaio khenduko».

## XI. KAP.

**1** Egun batez lekhu batean zegoela othoitzean, akhabatu zuenean bere othoitz, erran izan zioen bere dizipuluetarik batek: «Jauna, irakats diezaguzu othoitz egiten, Joanesek ere irakatsi daroen bezala bere dizipuluei». **2** Eta erran zaroen: «Othoitz egiten dukezuenean errazue: Aita, santifika bedi zure izena, ethor bedi zure Erresuma; **3** iguzu egun oroz gure eguneko ogia; **4** barkha dietzagutzu gure bekhatuak, guk geronek ere barkhatzen deroztegunaz geroz guri zor darokuten guzi; eta ez gaitzatzula utz tentazionerat». **5** Erran zaroen oraiño: «Baldin zuetarik norbaitek balu adiskide bat eta balihoako hura gau erditan erraterat: Adiskidea, presta dietzakidatzu hirur ogi, **6** zeren ene adiskide bat bidean zihoaana ethorri baitzait etxerat eta ez dut deusik hari jaterat emateko; **7** eta hark etxe barnetik ihardets balioza eta erran: Ez nazazula inportuna, jadan ene athea zarratua da, eta ene haurrak eta ni ohean gare; ezin jaiki naiteke ematerat, **8** baldinetariak hala ere baleago athea jotzen, erraten darotzuet, ematen ez baliotza ere jaikirik zeren den haren adiskidea, haren muthirioa dela kausa bederen jaiki litekela eta eman liotzokela zenbat ere behar baiditu, eta hek. **9** Eta hala nik ere erraten darotzuet: Galde zazue eta emanen zaitzue; bilha zazue eta edirenen duzue; jo zazue eta idekiko zaitzue; **10** ezen galdetzen duen guziak izaten du; bilhatzen duenak edireten du eta athea jotzen duenari idekiko zaio. **11** Zeïñ ahal da zuen artean aita, bere semeak ogia galdetzen dioenean barri bat eman liozakena? Edo arraiña eskatzen dioenean, arraiñaren orde suge bat eman liozakena? **12** Edo eskatzen badio arroltzea, eskorpion bat eman liozakena? **13** Bada zuek gaixtoak zaretelarik dakizuenaz geroz gauza onak ematen zuen emeei, zenbatenaz are hobeki zuen Aita zerukoak emanen bide daroe Izpiritu ona galdetzen diotenei?».

**14** Egun batez Jesus hari zen deabru baten khentzen eta hura zen mutua; eta khendu izan zuenean deabrua, minzatu zen mutua eta miretsi zuen populu guziak. **15** Zenbaitetik, bada, hetarik erran izan zuten: «Beelzebuth deabruen prinzearen bidez ditu khentzen deabruak». **16** Eta bertze batzue berriz, hura tentatu nahiz, zerutikako zerbait seiñalaren eske zegozkon. **17** Baiñan hark ikusirik gogoan hek zarabillatena erran izan zaroen: «Bera beraren kontra partitua den erresuma guzia desolatua iza-

nen da eta etxea etxearen gaiñerat eroriko da. **18** Beraz Satana ere, bera beraren kontra partitua bada, nola iraunen du haren erresumak? Erraten baiduzue Beelzebuthen bidez khentzen ditudala nik deabruak. **19** Baldinetarik, bada, nik Beelzebuthen bidez khentzen baditut deabruak, zuen umeek noren bidez khentzen othe dituzte? Hargatik dire izanen hek berak zuen juje. **20** Ordean Jainkoaren erriaz khentzen baditut nik deabruak, dudarik gabe da Jainkoaren Erresuma ethorria dela zuen ganat. **21** Gizon borthitz eta ungi armatu batek begiratzen duenean bere eskaratza, segurean dire hark dituen guziak. **22** Baldin ordean hura baiño borthitzago den bat heldu bada hura garaitzen duena, eramanen diotza bere arma guziak, zeïñetan baitzen fida, eta partituko ditu haren tresnak. **23** Enekien ez dena ene kontra diteke eta enekien biltzen hari ez dena, barraiatzen hari da. **24** Izpiritu lohia ilkhi daitekenean gizon baten ganik, badoha lekhu idorretarat errepausu bilha eta edireten ez duenean, erraten du: Bihurtuko naiz ene etxerat, zeïñetarik ilkhi izan bainaiz. **25** Eta ethorri ditekenean, aurkhitzen du erkhatzez garbitua eta aphaindua. **26** Orduan goaten da eta hartzen ditu bertze zazpi izpiritu berekien bera baiño gaixtoagoak, sartzen dire eta egoten dire han, eta gizon haren azkeneko estatua gaixtoagoa edireten da lehenbizikoa baiño».

**27** Horla minzo zela, oihua altxaturik emasteki batek jendeartetik erran zioen: «Dohatsu sabela zu ekharri zaituena eta dohatsuak bulharrak zuk edozki ditutzunak». **28** Baiñan Jesusek erran zioen hari: «Aitzitik dohatsuak presunak Jainkoaren hitza entzuten dutenak eta obretan ematen dutenak».

**29** Jendetzeak, bada, biltzen hari baitziren, hasi zen erraten: «Nazione hau nazione gaixto bat da; seinale eske dago, eta seinalerik ez zaio emanen Jonas profetaren seiñalea baizen. **30** Ezen Jonas izatu zen bezala seinale bat Ninibitarrentzat, hala izanen da Gizonaren Semea ere nazione hunentzat. **31** Hegoa parteko erregina altxatuko da jujamenduko egunean nazione huntako gizonen kontra eta kondenatuko ditu, zeren hura ethorri izan baida munduaren bertze bazterretik Salomonen zuhurtzia aditxerat; eta huna hemen Salomon baiño gehiagokoa. **32** Ninibitarrak altxatuko dire jujamenduko egunean nazione hunen kontra eta kondenatuko dute, zergatik hek penitentzia egin baitzuten Jonasek predikatu izan zaroen pontutik; eta huna hemen Jonas baiño gehiagokoa.

**33** Nihork ez du irazakitzen lanpa bat lekhu estali batean edo gaitziru azpian emateko; bainan ematen dute kandeler gaiñean, etxean sartzen





direnek argia ikus dezatentzat. **34** Zure gorphutzaren argizagia da zure begia. Baldin zure begia garbia bada, zure gorphutz guziak izanen du argi; baldin ordean gaizkoatua bada, halaber zure gorphutza ilhunbean izanen da. **35** Begirautzu, beraz, zure baithan den argia izan ez dadin ilhunbea bera. **36** Baldin, beraz, zure gorphutza guzia argitua bada eta ez badu ilhunberik zenbait parteetan, izanen den guzia argitsu eta argizagi distiant batek bezala darotzu argituko».

**37** Mintzo zen denboran farisau batek othoiztu zuen ziohala bazkai-tarat harekien; goan zen eta jarri zen mahaiñean. **38** Farisaua, bada, hasi zen bere baithan erasten, zergatik ez othe zen garbitu Jesus bazkal aitzinean. **39** Baiñan erran zioen Jaunak: «Orai zuek, farisauak, xoperaren eta plataren kanpoko aldea garbitzen duzue; zuen barnea ordean bethea da arrapakeriaz eta gaixtakeriaz. **40** Erroak, kanpoko egin duenak ez du egin barnekoa ere? **41** Guziarekien ere egizue amoiña eta guziak garbi izanen dituzte. **42** Ordean, zorigaitz zuentzat, farisauak, zeren pagatzen baiduzue detxima mendarena, arroda belharrarena eta belhar suerte guziena, eta utzten baiduzue justutasuna eta Jainkoaren amudioa; hauk bada behar ziren egin, hek utzi gabetarik. **43** Zorigaitz zuentzat, farisauak, zeren lakhet baiduzue sinagogetan lehenbiziko kadirak izatea eta plaza handietan agurrak errezibitzea. **44** Zorigaitz zuentzat, zeren thonba ageri ez diren batzuek bezala baizarete, zeñen gainean gizonak baidabilta jakin gabe thonbak direla».

**45** Horren gainean hitza harturik legeko dotor batek, erran zioen: «Nausia, gu ere desohoratzen gaitutzu horla mintzatzeaz». **46** Baiñan Jesusek erran izan zioen: «Zorigaitz zuentzat ere, legeko dotorak, zeren kargatzen baidituzte gizonak ezin jasan detzaketen kargez eta zebonek erriaz ere ez baidituzte ukitzen. **47** Zorigaitz zuentzat, zeñiek bastitzen baidituzte profeten thonbak; bizkitartean zuen aitek hillaraziak dire. **48** Egiakzi zebok duzue agertzen aprobatzen duzuela zuen aitek egin izan dutena; halaz eta hek hillarazi dituztenaz geroz profetak, eta zuek bastitzen dituztenaz geroz hekien thonbak. **49** Hargatik erran izan ere du Jainkoaren zuhurtziak: Igorriko ditut hekien ganat profetak eta apostoluak eta hetarik hillaraziko dituzte batzu eta persekutatuko bertzeak, **50** galde dakioentzat nazione huni kontu munduaren krazioneaz geroztik isuri izan den profeta guzien odolaz, **51** hasi Abelen odolatik eta Zakariasen odoleraño, zeña hill izan baitzuten aldarearen eta tenpluaren artean. Baike erraten darotzuet: galdetuko zaio hortaz kontu nazione huni. **52** Zorigaitz zuentzat, legeko dotorak, zeren eraman baiduzue zienziaren

gakhoa; zebonek ez baitzarete sarthu eta sartzerat zihoazenak debekatu izan baidituzte». **53** Horiek erraten zaroztenean, bada, farisauak eta legeko doktorak hasi zitzaizkon hagitz hertsten eta galdea galdearen gainean eginez nekhatzen, **54** zerbaitetan hura atzeman nahiz eta ahotik hari zerbait idaroki nahiz, ondoan hartaz akusatzekotzat.

## XII. KAP.

**1** Bizkitartean jende tropela handi batzu bildu baitziren Jesusen alde-rat, batzuek bertzeak lehertzeraño koan, hasi zitzairen erraten bere dizipuluei: «Begirautzue farisauen lebamitik, zeñia baida hipokrisia. **2** Deus ere ez da estalirik agertuko ez denik, ez gorderik jakiñen ez denik. **3** Ezen ilhunbean erran dituzketzuenak erranen dire egun klarean, eta geletan beharritat erran dukezuen kondatuko da etxe gainetan. **4** Erraten darotzuet, bada, zuei ene adiskideei: Ez duzuela beldurrik gorphutza hiltzen dutenentzat, zeñiek gero ez baidute deusera gehiagorik zuei egiteko. **5** Baiñan erakusterat nohatzue norentzat izan behar duzuen beldur. Izan zaitezte beldur, bizia ideki ondoan bothere duenentzat ifernurat igortzeko. Baike erraten darotzuet: harentzat izan zaitezte beldur. **6** Ez da egia bortz etxe-xori saltzen direla bi tolosanotan? Bizkitartean hetarik batere ez baida ahantzia Jainkoaren aitzinean. **7** Aitzitik zuen buruko illeak ere guziak dire kondatuak; ez duzuela beraz beldurrik; hainitz etxe-xorik elkarrekien baiño gehiago duzue zuek balio. **8** Erraten darotzuet, bada: Nor ere deklaratu baida ene alde gizonen aitzinean, Gizonaren Semea ere deklaratu da haren alde Jainkoaren aingeruen aitzinean. **9** Ordean ni gizonen aitzinean ukhatuko nauena, ukhatua izanen da Jainkoaren aingeruen aitzinean. **10** Nihork erraten badu zerbait Gizonaren Semearen kontra, hari barkhatuko zaio; ordean Izpiritu Sainduaren kontra blasfematzen duenari ez zaio barkhatuko. **11** Noiz ere, bada, eramanen baitzaituzte sinagogetarat, kargudunetarat eta bothere dutenentzat, ez duzuela griñarik nola edo zer ihardetsiko duzuen edo zer erranen duzuen; **12** ezen Izpiritu Sainduak irakatsiko darotzue ordu hartan berean zer erran beharko duzuen».

**13** Orduan erran zioen jende artekoetarik batek: «Nausia, errozu ene anaiari eman diezadala neure partea primezatik». **14** Baiñan Jesusek erran zioen: «Gizona, norke ezarri nau ni juje edo partitzaile zuen artean?». **15** Gero erran zaren: «Hara bada, begira zaitezte abarizia guzietarik, zeren



eta zer nahi abundanzian izan dadin gizon bat, ez baidatza haren bizia ontasunezko frankian».

**16** Ondoan ekharri zaroen konparazione bat ziotsalarik: «Gizon abe-rats batek zuen landa bat xoill hainitz eman zioena; **17** eta gogoetan zegoen bere baithan erraten zuelarik: Zer egiñen othe dut, ezen ez dut non zarra bildu ditudanak? **18** Diotsa, bada: Egiñen dut hauxe: urratuko ditut neure bihitokiak eta egiñen ditut handiagoak eta emanen ditut hetan bildu ditudanak eta ene ontasun guziak. **19** Eta erranen diot neure buruari: Baduk ontasun franko bildua hainitz urthetako; errepausa hadi, jan zak, edan zak eta egik bonbazia. **20** Ordean Jainkoak erran zioen: Erhoa, gau huntan hire bizia galdetzerat dohazkik, eta gerokotz daduzkanak noren-tzat izanen dire? **21** Gauza bera da, beretzat thresor biltzen hari denaz eta Jainkoa baithan aberats ez denaz.

**22** Hargatik darotzuet erraten», diotsate bere dizipuluei: «Ez duzue-la griñarik ez zuen bizitzekoarentzat, zer janen othe duzuen, ez eta zuen gorphutzarentzat, zertaz bestituko othe zaretan. **23** Bizitzea gehiagokoa da jatekoa baiño, eta bai gorphutza jaunzkura baiño. **24** Kontsidera zatzit-zue beleak; ez baidute hek ereinten, ez biltzen, ez baidute sotarik, ez bihitegirik, eta halere Jainkoak hazten baiditu. Eta zenbatez ez zarete zuek gehiagokoa hek baiño? **25** Eta zein da zuetarik bere artha guziarekien ere bere thailari beso baten goratasuna iretxek ahal diozokena? **26** Baldin, beraz, ezin badagikezue gauzarik gutiena, zergatik zarete griñatsu gaiñe-rakoez? **27** Kontsidera zatzue loreak nola handitzen diren. Ez dire lanean hari, ez iruten. Bizkitartean nik darotzuet erraten: Salomon bera bere gloria guzian ez zen hain berregin nola hetarik bat. **28** Baldin, beraz, lore bat, egun landan belhar dena eta bihar laberat arthikiko dena, Jainkoak horla badu beztitzen, zenbatenaz gehiago ez du egiñen zuentzat, fede aphurre-tako jendeak? **29** Eta hala ez duzuela griñarik zer janen duzuen edo zer edanen duzuen eta ez zaitezela gogoetan jar; **30** ezen horiez guziez munda-ko jendeak dire griñetan eta zuen Aitak badaki horien beharra duzue-la. **31** Aitzitik bilha zazue lehenik Jainkoaren Erresuma eta haren justizia eta horiek guziak emanen zaizkitzue gehiago. **32** Ez duzuela beldurrik, art-halde xumea, ezen zuen Aitaren atsegiña da zuei ematea bere Erresuma. **33** Sal zatzit-zue ditut-zuenak eta ematzit-zue amoiñetan. Egizue izaterat moltsa batzu zahartzen ez direnak, thresor bat zeruetan behiñere ahitzen ez dena, ohoiñak hurbiltzen ez zaizkoena eta harrek gatatzen ez dutena; **34** ezen non ere baida zuen thresora, eta han diteke halaber zuen bihotza.

**35** Den zuen gerria gerrikoz herstua eta ditut-zuen lanpa irazakiak zuen eskuetan; **36** eta izan zaitezte gizon batzuen pare, zeñiak baidaudez bere nausiaren begira noiz bihurtuko den estaietarik; dathorkenean eta athea jo dukenean berehala idekitzeko. **37** Dohatsuak zerbitzariak, nausiak dathorkenean atzarriak aurkhituko dituenak. Erraten darotzuet egia: bere arropa iztergoraturik jarraraziko dituela haiñak mahaiñean eta ibilliko dela hekien zerbitzaten. **38** Eta baldin ethortzen bada bigarren goardian edo hirugarren goardian, eta hala aurkhitzen baditu, dohatsuak ditezke zer-bitzari hek. **39** Jakin zazue, bada, hau: baldin baleaki aita familiakoak zer mugaz ohoina ethorriko den, atzarria bide legokela, eta ez lezakela utz zil-hatzerat bere etxea. **40** Eta hala, zaudete zuek ere prestatuak, zergatik zuek uste ez duzuen orduan ethorriko baida Gizonaren Semea».

**41** Erran izan zioen, bada, Piarresak: «Jauna, guretzat erraten duzu parabola hori ala guzientzat?». **42** Ihardetsi zioen Jaunak: «Nor uste duzu dela despensari leiala eta zuhurra, zeñia ezarri baiduke nausiak bere fami-liaren gaiñean, behar denean batbederari emateko bere neurri ogia? **43** Dohasua diteke zerbitzaria, nausiak dathorkenean horla hari dela aurkhi-tuko duena. **44** Ziñ ziriez darotzuet erraten: dituen ontasun guzien gaiñean ezarriko duela haiña. **45** Baldin ordean erraten badu zerbitzari hark bere gogoan: Berantzen du ene nausiak ethortzerat; eta hasten bada zehatzen mutillak eta neskatoak, jaten, edaten eta horditzen, **46** ethorriko da zerbitzari haren nausia hark igurikitzen ez duen egunean eta ez dakien orenean, khenduko du eta saritzat emanen du infidelen baltsan. **47** Zerbi-tzari haiña, bada, zeñiak jakin baidu nausiaren borondatea eta ez baida egon prestatua eta ez baidu egin hark nahi zuen bezala, zehatua izanen da garrazki. **48** Jakin ez duena, ordean, eta gastigua merezi duketen gauzak egin dituzkena, gutiago izanen da zehatua. Hainitz eman izan zaioenari hainitz galdetuko zaio eta zenbatenaz gauza gehiago fidatu baitzaio nor-baiti, eta hanbatenaz gehiagoko kontua bihurraziko zaio.

**49** Sua ematerat ethorri izan naiz ni lurrerat, eta zer nahi nuke iraza-ki dadin baizen? **50** Bathaio batez, bada, behar dut izan bathaiatua, eta zer hersturatan ez naiz, hura konpli dadiken artean? **51** Uste duzue bakea dela ni ethorri izan naizena ematerat lurraren gaiñean? Ez, segurutzen zaituz-tet, baiñan aitzitik targa. **52** Ezen hemendik harat bortz presuna direnean etxe batean, izanen dire batzuek bertzeen ganik aldaratuak; izanen dire hirur bien kontra eta bia hiruren kontra. **53** Abiatuko dire aita semearen kontra eta semea bere aitaren kontra; ama alabaren kontra eta alaba ama-



ren kontra; amagiñaurrau bere erreñaren kontra eta erreña bere amagiñaurraren» kontra».

**54** Erraten zaroen gero jendetzei ere: «Ikusten duzuenean hedoi bat altxatzen iguzki sartzetik, berehala erraten duzue: Uria heldu da; eta hala gerthutzen ere da. **55** Eta ikusten duzuenean hegoa abiatzen, erraten duzue: Bero eginen du; eta hala egiten ere du. **56** Hipokritak, badakizue ezagutzen zeruko eta lurreko idurikunde diferentek zer markatzen duten; denbora bau, bada, nola ez duzue ezagutzen? **57** Eta zergatik zebeburutarik ere ez duzue jukatzen justu dena? **58** Noiz ere, bada, baitzohaz zure partidarekien jujea ganat, esaia zaitte bidean harekien egitekoetarik ilkhitzerat, beldurrez bortxaz eraman ez zaitzan jujea ganat eta jujeak eman ez zaitzan serientari eta serientak ezar ez zaitzan presondegian. **59** Erraten darotzut: ez zare handik ilkhiko azkeneko pelataraiñokoa pagatu dukezun artean».

### XIII. KAP.

**1** Denbora hartan berean aurkhitu ziren han jende batzu kondatu ziotenak Galilear hekien egitekoa, zeñen odola Pilatusek balsatu izan baitzuen hekien sakrifizioekien. **2** Horren gaiñean Jesusek erran izan zaroen: «Uste duzue Galilear hek zirela Galilea guziko gizonik gaixtoenak, zeren horla izan diren tratatuak? **3** Aitzitik, erraten darotzuet: Baldin penitentzia egiten ez baduzue, guziak galduko zarete hek bezain ungi. **4** Hala nola hemezortzi hek, zeñen gaiñerat erori baitzen Siloeko dorrea eta hill baitzituen, uste duzue hobendunago zirela hek Jerusalemeko habitant guziak baiño? **5** Seguratzan zaitzuet, aitzitik; baiñan penitentzia egiten ez baduzue, guziak galduko zarete hek bezain ungi».

**6** Erran zaroen bada parabola hau: «Gizon batek zuen fiko ondo bat landatua bere mahastian eta haren fruituen bilha ethorri eta ez zuen aurkhitu. **7** Erran zioen bada mahastizainari: Jadan hirur urthe hautan heldu naiz fiko ondo huntako fruitu bilha, eta ez dut atzematen batere; pika zazu, beraz. Zergatik lurra ere okupatzen du? **8** Mahastizaiñak ihardetsi izan zioen: Jauna, utzazu oraiño urthe huntan ere haintzur dezadan oiñetan eta ongarria eman diozadan, **9** eta ikusiko duzu hea fruiturik ekharriko duen ordu onean, ezberen gero pikatuko duzu».

**10** Hari zen, bada, irakasten hekien sinagogan sabatho egunetan. **11** Eta egun batez aurkhitu zen han emasteki bat izpiritu batek hemezortzi

urthe hartan langiarazi zuena; guzia makhurtua ere zen eta niholere ezin beha zezaken goiti. **12** Jesusek ikusirik erakharri izan zuen bere ganat eta erran zioen: «Emastekia, enparatua zare zure erhasunetik». **13** Pausatu zioztan eskuak gaiñean eta denbora berean xuxendu zen eta Jainkoari gloria bihurtu zioen. **14** Baiñan sinagogako buruzagi batek gaitzetsirik zeren sabatho egunean sendatu zuen Jesusek, erran zioen populuari: «Sei egun badire laneko; hetan zatozte sendatzerat eta ez sabatho egunean». **15** Hitz bidaldurik, bada, hari Jaunak erran izan zaroen: «Hipokritak, zuetarik batbederak ez du lexatzen sabatho egunean bere idia edo bere astoa eta establiatik atheraturik eramaten edaraterat? **16** Eta bada Abrahamen alaba hau Satanek hemezortzi urthe huntan estekatua zadukana, ez zen behar lexatu estekadura hortarik sabatho egunean?». **17** Solhas horrek ahalkez gorriarazi zituen haren etsai guziak, eta populu guzia berriz zen bozkariatua egi-ten ikusteaz hanbat gauza gloriagarri.

**18** Ziotsan bada oraiño: «Zeren pare othe da Jainkoaren Erresuma eta zerekien konparatuko duket? **19** Mustarda hazia du iduri, zeña harturik gizon batek etxatu izan baidu bere baratzean. Hazi hura handitu zen eta egin zen arbola handi bat halako maneraz, non zeruko xoriak pausatzin baitziren haren adarretan».

**20** Berriz ere oraiño erran zuen: «Zerekien konparatuko duket Jainkoaren Erresuma? **21** Lebamia du iduri, zeña harturik emaste batek ematen baidu eta estaltzen hirur neurri iriñetan, guzia orhatu ditekenez artean».

**22** Bizkitartean baziohan Jesus hiriz hiri eta herriz herri irakasten zuela eta Jerusalemeko bidea zaramala; **23** eta norbaitek erran baitzioen: «Jauna, gutiak othe dire salbatuko direnak?, ihardetsi izan zaroen hark: **24** «Lehia zaitzte sartzerat athe hertsitik; erraten darotzuet ezen: Hainitz ibilliko dire sarthu nahiz eta ezin sarthuko baidire. **25** Noiz ere, bada, sarthuko baiditeke familiako aita eta zarratu baiduke athea, hasiko zarate kanpotik kaudeztela athea jotzen, diozuelarik: Jauna, idek diezaguzu; eta errepustatzat erranen darotzue: Ez dakit nor zareten, ez nongoak zareten. **26** Orduan hasiko zarete erraten: Jan dugu eta edan dugu zurekien eta irakatsi izan duzu gure karriketan. **27** Eta erranen darotzue: Ez dakit nor zareten, ez nongoak zareten. Zohazte guziak ene ganik, gaixtakeriako langilleak. **28** Han izanen dire nigarrak eta hortz karraskatzeak, ikusiko dituzuenean Abraham, Isaak, Jakob eta profeta guziak Jainkoaren Erresuman eta zuek kanporat arthikiak. **29** Ethorriko dire orientetik eta okzidentetik, nortetik eta hegoatik jarriko direnak mahaiñean Jainkoaren



Erresuman. **30** Eta orai dire azken lehen izanen direnak eta dire lehen azken izanen direnak».

**31** Egun hartan berean ethorri zitzaizkon farisauetarik zenbait ziotso-tela: «Ilkhi zaite eta zohaz hemendik, zergatik Herodesek hillarazi nahi baitzaitu». **32** Ihardetsi izan zaroen: «Zohazte eta errozue azeri hari: Huna non ditudan deabruak khasatzen eta diotedan osasuna ematen eriei gaur eta bihar, eta etzi finatuko naiz. **33** Halarik ere ibilli behar dut gaur eta bihar eta etzi; alabaiñan ez du behar profeta batek hill Jerusalemek kanpoan.

**34** Jerusalem, Jerusalem, profetak hillaratzitzen ohi ditunana eta hiri igortzen zaizkanak harrikatzen ditunana! Zenbat aldiz nahi izatu ditiñat biribilkatu hire haurrak, xori batek biltzen dituen bezala bere umeak bere hegalean azpirat, eta ez dun nahi izatu! **35** Huna non zuen etxea utziko zaitzuen abandonatua. Erraten darotzuet, bada, ez nauzuela gehiago ikusiko gertha daiteken arteraiño erran dezazuen: Benedikatua dela Jaunaren ize-nean heldu dena».

#### XIV. KAP.

**1** Sabatho egun batez sarthu izan zen Jesus farisau prinzipal baten etxean othruntzatzerat eta hek zeletan zegozkon. **2** Zen, bada, haren aitzinean gizon bat hidropikoa. **3** Eta adrezaturik legeko dotorei eta farisaueri, erran zaroen Jesusek: «Zilhegi othe da sabatho egunean sendatzea?» **4** Baiñan hek ixillik egon ziren eta hark harturik eria, sendatu zuen eta igorri. **5** Ondoan erran zaroen: «Zein da zuetarik bere astoa edo idia erortzen zaiogenean putzu batetarat berehala atheratzen ez duena sabatho egunean ere?» **6** Eta ez zakiten zer ihardets gauza horren gaiñean.

**7** Ikusirik, bada, nola gonbidatuek hautatzen zituzten lehenbiziko plazak, ekharri zaroen parabola hau eta erran: **8** «Gonbidatua izanen zarenean estaietarat, ez zaitzela jar lehenbiziko plazan, gertha ez dadin zu baiño ohoratuago bat halaber gonbidatua, **9** eta ethorririk zu eta hura gonbidatu zaituztena, erran ez diezazun: Emozu huni lekhu hori; eta orduan jar ez zaitezen ahalkeriarekien azkeneko lekhan. **10** Baiñan gonbidatua izanen zarenean zohaz, jar zaite azkeneko plazan, zu gonbidatu zaituena ethortzen denean erran diezazuntzat: Ene adiskidea, igan zaite gorago. Orduan dukezu ohore zurekien mahaiñean jarriak direnen aitzinean. **11** Ezen bere burua goratzen duken guzia beheratua izanen da; eta bere burua beheratzen duena goratua».

**12** Erraten zioen halaber gonbidatu zuenari: «Emanen duzunean bazkaitarat edo afaitarat, ez detzatzula gonbida ez zure adiskideak, ez zure anaiak, ez zure ahaideak, ez zure hauzoak aberats direnak, hek ere berriz zu gonbida ez zaitzatzat eta horla ordaiña bihur ez dakizun. **13** Baiñan ematen duzunean othruntzat bat, gonbida zatzitzu pobreak, hebainduak, mainguak eta itsuak. **14** Eta dohatsu izanen zare, zeren ez baidute zuri ordainez ematekorik; izanen duzu ezen zure golardoak justuen piztean».

**15** Horiek aditu zituenean mahaiñean zirenetarik batek erran izan zioen: «Dohatsua ogia janen duena Jainkoaren Erresuman». **16** Baiñan Jesusek erran zioen: Gizon batek eman zuen afari handi bat eta gonbidatu izan zituen hainitz jende. **17** Eta igorri izan zuen bere zerbitzaria afaitako mugan erraterat gonbidatuak zirenei zetozela, zeren orduko guziak prest baitziren. **18** Baiñan elkhar aditu balute bezala, hasi ziren esenkusatzten. Lehenbizikoak erran zioen: Borda bat erosi dut eta, bada eta ez bada, goan behar dut haren ikusterat; othoi esenkusa nazazu. **19** Bigarrenak erran izan zioen: Bortz idi ustarrak erosi ditut eta hekien frogatzerat noha; othoi esenkusa nazazu. **20** Hirugarrenak berriz erran zioen: Ezkondu naiz, eta hala ezin ethor naiteke. **21** Bihurtu zen zerbitzaria eta horiek guziak kondatu ziozkan nausiari; orduan hasarraturik aita familia-koa, erran zioen bere zerbitzariari: Zohaz berehala hiriko plazetarat eta karriketarat, eta pobreak, hebainduak, itsuak eta mainguak erakharatzitzu hunat. **22** Ondoan erran zioen zerbitzariak: Jauna, egin da zuk manatu duzun bezala eta bada oraiño jarlekhu. **23** Erran zioen nausiak zerbitzariari: Zohaz bideetarat eta berro ondotarar eta bortxaraz zatzu jendeak sartzerat bethe dadin ene etxea. **24** Erraten darotzuet, bada, deithuak ziren gizon hetarik batek ere ez duela dastatuko ene afaritik».

**25** Jende tropela handi batzu baitzioazen Jesusekien, hekien alderat itzulirik erran izan zaroen: **26** «Baldin nihor badathor ene ganat eta gai-xesten ez baditu bere alta eta ama, bere ematea, bere haurrak, bere abrideak eta ondoan oraiño bere presuna propioa ere, ezin izan daiteke ene dizipulu. **27** Eta bere gurutzea garraiatzen ez duena eta niri jarraikitzen ez zaitana, ezin izan daiteke ene dizipulu. **28** Zein da ezen zuetarik, baldin dorre bat bastitu nahi badu, jartzen ez dena aitzineatik kontu egiten hartan despendatu beharko dituezez, hea izanen othe duen akhabatzekorik, **29** beldurrez, zimendua etxatu duken ondoan eta ezin akhabatu dukenean, ikusten duten guziak has ez ditezen hartaz trufatzen, **30** diotelarik: Gizon hori hasi izan da bastitzen eta ezin akhabatu baidu? **31** Edo zein da erregea, gerla ematerat dohanean bertze errege bati, jartzen ez dena pensa-



tzen hea hamar milla gizonen ilkhi ahal dakikeikoen, haren ganat hogoi millekien heldu den etsai bati? **32** Bertzela hura oraiño urrundik dagoela, igortzen diotza enbaxadoreak eta galdetzen dio bakea. **33** Hala, beraz, zuetarik nork ere ez baidaroe ukho egiten dituen guziei, haiña ezin izan daiteke ene dizipulu. **34** Gauza on bat da gatza; baldin ordean gatza geza-tzen bada, zerekien sasoatuko dute hura? **35** Ez lurretako, ez ongarritako da gai, kanporat arthikitzeo baizen. Beharriak dituenak aditzeko, adi dezala».

## XV. KAP.

**1** Heldu zitzaizkon, bada, Jesusi publikanoak eta bekhatorosak adit-zerat. **2** Eta bazarasaten farisauek eta eskribauek ziotsetela: «Bai eta hunek hartzen baiditu bekhatorosak eta jaten ere baidu hekiekien». **3** Horren gainean Jesusek ekharri izan zaroen parabola bau: **4** «Zein da zue-tarik gizona, ehun ardi lituela, baldinetaria hetarik bat galtzen badu, utz ez letzakena laur hogoi eta hemeretziak desertuan, eta ez lihoakena galdu den haren ondoan, aurkhitu duken artean? **5** Eta aurkhitu dukenean, ematen du bere sorbalden gainean alegerarik, **6** eta etxerat denean, biltzen ditu bere adiskideak eta hauzoak erraten daroelarik: Bozkaria zaitetzte enekien, zeren eta aurkhitu izan baidut ene ardi galdu nuena. **7** Erraten darotzuet, bada, hala hala bozkario gehiago izanen dela zeruan penitentzia egiten duen bekhatoros baten ariaz, ezen ez laur hogoi eta hemeretzi justu penitziaren beharrik ez dutenentzat.

**8** Edo ezberen, zein da emastekia hamar dragma dituzkena, baldinetaria hetarik bat galtzen badu, lanpa irazakitzen ez duena, etxea garbitzen ez duena eta artha handirekien bilhatzen ez duena, aurkhi dezaken artean? **9** Eta aurkhitu dukenean, biltzen ditu bere adiskideak eta hauzoak, erraten daroelarik: Boz zaitetzte enekien, zeren aurkhitu izan baidut galdu nuen dragma. **10** Hala erraten darotzuet aleganzia bat dela Jainkoaren aingeruen artean bekhatoros bakhar batek ere penitentzia egiten duenean».

**11** Erran izan zaroen oraiño: «Gizon batek zituen bi seme, **12** eta erran zioen hetarik gazteenak aitari: Aita, indazu zure ontasunetik heldu zaitan partea. Eta aitak partitu zaroen bere ontasuna. **13** Egun gutiren barnean guziak bildurik, seme gasteena goan zen atze herri urrun batetarat eta han iriondu izan zuen bere ontasuna deboxkerian. **14** Guziak urma-riatu izan zituen ondoan, gerthatu izan zen gosete handi bat herri hartan

eta hasi zen peitu izaten. **15** Goan zen, bada, eta jarri zen hiri hartako bur-jesetarik baten zerbitzuan, zeñak igorri izan baitzuen bere bordarat urdeen bazkatzerat. **16** Han nahi zuken ase urdeek jaten zutenetarik, baiñan nihork ez zioen ematen. **17** Sarthurik, bada, bere baithan erran izan zuen: Zenbat sehi dire ene aitaren etxean ogia frankiaz dutenak, eta ni hemen gosez hiltzen hari bainaiz. **18** Banoha; goanen naiz ene aita ganat eta erranen diot: Aita, bekhatu egin dut zeruaren eta zure kontra; **19** gaur-gero ez dut merezi deithua izatea zure semea; trata nazazu zure muthille-tarik bat bezala. **20** Eta abiatu rik ethorri izan zen bere aita ganat. Oraiño urrun zela, bada, ikusi zuen bere aitak eta urrikalmenduz ukitua goan zen agudoki haren ganat, besarkatu zuen eta musu eman zioen. **21** Erran zioen semeak: Aita, bekhatu egin dut zeruaren eta zure kontra; gaurgero ez dut merezi zure semea deithua izatea. **22** Orduan aitak erran zaroen bere zer-bitzariet: Berehala ekharazue hunen leheneko aldagarria eta jauntz diozo-zue; emozue errestun bat errian, eta zapatak oiñetan. **23** Ekharazue xahal gizena eta hill zazue; eta jan zagun eta egigun bonbazia, **24** zeren ene seme hau hill baitzen eta pitzberritu baida, galdu zen eta aurkhitu da. Eta jarri ziren bonbazia egiten.

**25** Zen, bada, haren seme zaharrena landan, eta heldu zela eta etxe-rat hurbiltzen zela, aditu zituen kanta eta dantza. **26** Eta deithurik zer-bitzarietarik bat, galdegin zioen hea zer ziren hek. **27** Zerbitzariak ihardetsi izan zioen: Kure anaia ethorri da eta zure aitak hillarazi du xahal gizena, zeren hura salborik ikusten duen. **28** Gaitzitu zitzaion hori zaharrenari eta ez zuen nahi sarthu. Ilkhirik, bada, bere alta hasi zitzaioen othoitzez. **29** Baiñan hark ihardetsi izan zioen aitari eta erran: Hanbat urthe huntan zai-tut zerbitzatzan eta egundaiño ez zaitut desobeditu manatu izan darota-zun gauzetan; bizkitartean egundaiño ez daiño ez darotazu eman bitaña bat ene adiskideekien jateko. **30** Baiñan zure seme hau, bere ontasuna emaste galduekien iretsi duena, ethorri izan den bezain lauster, hillarazi duzu hunentzat xahal gizena. **31** Orduan aitak erran zioen: Ene semea, zu bethi enekien zare eta diren guziak zure dire; **32** baiñan banket egin behar zen eta alegeratu behar zen, zeren zure anaia hau hill baitzen eta biztu izan baida; galdu baitzen eta aurkhitu izan baida».

## XVI. KAP.

**1** Jesusek erraten zaroen halaber bere dizipuluei: «Gizon bat zen abe-ratsa, zeñek baitzuen despentzer bat eta hau akusatua izan zen haren



aitzinean haren ontasunen funditzaille bat bezala. **2** Deithu zuen, bada, eta erran zioen: Zer aditzen dut nik hau zutaz? Eman diezadazu kontu ene ontasun erabilli ditutzunez, ezen gaugoro ezin gehiago erabilliko ditutzu. **3** Horren gainean despensariak erran izan zuen bere baithan: Zer egiñen dut nik, ene nausiak khentzen darotanaz geroz ene despentzargoa? Haintzurreen ezin hari naiteke; ahalke naiz eske ibiltzerat. **4** Badakit zer eginen dudan khentzen nautenean despentzargotik, zenbaitek errezibi nazatententzat bere etxerarat. **5** Erakharririk, bada, batbanaka haren nausiarri zor ziotenak, erran zioen lehenbizikoari: Zenbat diozu zor ene nausiarri? **6** Ihardetsi izan zioen hark: Ehun barrill olio. Hark berriz erran zioen: Har zazu zure obligantza; jar zaite hor berehala eta egizu bertze bat berrogoi eta hamarrekoa. **7** Gero bertze bati erran izan zioen: Eta zuk zenbat duzu zor? Hark ihardetsi zioen: Ehun neurri ogi. Har zazu, diotsa huni, zure billeta eta egizu bat laur hogoiekoa. **8** Eta laudatu izan zuen nausiak despentsari desleial hura, zeren habilki egin izan zuen; ezen mundu huntako haurrak habillago dire bere egitekoen erabiltzan, ezen ez argiko haurrak. **9** Nik ere darotzuet erraten: Egitzizue adiskideak aberastasun gaixtoez, faltazerat heldu zaretenean errezibi zatzaientzat egoitza eternaletan. **10** Gauza xumeenetan leial dena handiagoetan ere orobat diteke eta xumeenetan desleial dena, handiagoetan ere desleial izanen da. **11** Baldinetariak, beraz, aberastasun gaixtoetan leial izan ez bazarete, egiazkoak nork fidatuko darozkitzue? **12** Eta baldin bertzeren gauzan leial izan ez bazarete, zuen ditena nork emanen darotzue? **13** Sehi garabek ezin zerbitza detzake bi nausi; edo ezen bat gaitzetsiko duke eta bertzea onetsiko, edo bata-riekin du idukiko eta bertzea du meziprezatuko. Ezin zerbitza detzaketzue Jainkoa eta dirua».

**14** Aditzen zituzten, bada, horiek farisauek ere, zeinäk baitziren xoil abariziosak eta trufatzen ziren hartaz. **15** Eta erran izan zaroen: «Zuek zarete gizonen aitzinean saildutat iragan nahi duzuenak; ordean Jainkoak ezagutzen ditu zuen bihotzak, ezen gizonei handi zaiena lastima bat da Jainkoaren aitzinean. **16** Legea eta profetak ziren Joanes arteraño; hartaz geroz Jainkoaren Erresuma predikatzen da eta batbederak hari dio bortxa egiten. **17** Errexago da, bada, zerua eta lurra iragan daitezen, ezen ez legetik puntu xoil bat eror dadin. **18** Bere emastea uzten duken guziak eta bertze batekien ezkontzen denak, adulterioa egiten du. Eta bere senharraz utzia den batekien ezkontzen denak halaber adulterioa egiten du.

**19** Gizon bat zen aberatsa eskarlatez eta tela fiñez bestitzen zena eta egun guziez othrunza magnifikoak egiten zituena. **20** Eta zen halaber

pobre bat Lazaro zeritzana, haren athean zatzana zauriz guzia bethea. **21** Desiratzen zuen asetzea aberatsaren mahaiñetik erortzen ziren papurrez, eta nihor ez zioen ematen; aitzitik potxoak ere heldu zitzaizkon bere zaurien limikatzerat. **22** Ethorri zen, bada, hiltzerat pobre hura eta eraman zuten aingeruek Abrahamen galtzarrerat; hiltzen, bada, aberatsa ere eta ehortzia izan zen ifernuan. **23** Altxaturik, bada, goiti begiak tormentetan zegoela, ikusi izan zuen Abraham urrunetik eta Lazaro haren galtzarrean. **24** Eta oihuz hasirik, erran zioen: Aita Abraham, nauzun urrikari eta igor diezadazu Lazaro erriaren mokoa bustirik urean eta freska diezadan mihia, zeren hagitz sofritzen baidut su eta khar hautan. **25** Baiñan Abrahamek erran izan zioen: Haurra, orhoit zaite ontasunik asko izan duzula zure bizian eta Lazarok berriz ez duela izan gaitxik baizen; orai ordaiñez hau deskantsuan da eta zu tormentetan. **26** Guziarekien ere leze handi bat da gure eta zuen artean halako molde, non hemendik nahi luketenek iragan zuen ganat edo hortik ethorri hunat ezin bailaikikete. **27** Aita, ihardetsi zioen aberatsak, othoitz egiten darotzut, beraz, igor dezazun ene aitarren etxerat; **28** baditut ezen bortz anaia eta abisa detzan, hek berak ere ethor ez daitezen tormentetako lekhu huntarat. **29** Abrahamek berriz erran zioen: Badituzte Moise eta profetak; entzun betzate bek. **30** Ez, diotsa hark, alta Abraham; baiñan baldin hilletarik norbait goaten bazaie, egiñen dute penitentzia. **31** Erran izan zioen, bada, Abrahamek: Baldiñetaria Moise eta profetak aditzen ez badituzte, ez eta norbait hilletarik bitz baledi ere ez dute sinhetsiko».

## XVII. KAP.

**1** Jesusek erran zaroen egun batez bere dizipuluei: «Inposible da ez dathozen eskandalak; baiñan zorigaitz haiñarentzat, zeinñez ethortzen baidire. **2** Hobe lizate harentzat eman lekioen errota barri bat lephotik eta arthik lezaten itsasoan behera, ezen ez eskandalisa dezan xume hautarik bat. **3** Emozue goardia; baldin ofentsatzen bazaitu zure anaiak, errepreni zazu; eta baldin urrikitzen bazaio, barkha diozazu. **4** Eta egunean zazpitan ofentsatzen bazaitu ere eta zazpitan egunean heldu bazaitu eta erraten badarotzu: Damu dut egin dudana, barkha diozazu».

**5** Orduan Apostoluek erran zioten Jaunari: «Berre diezaguzu fedea». **6** Erran zaroen bada Jaunak: «Baldin bazindute fedea mustarda bihia bezanbatekoa, erran ziñozokete mora ondo huni: Athera adi erroetarik eta birlanda adi itsasoan; eta obedi zintzakete. **7** Zein da zuetarik, duenean



sehi bat laboratzen edo abre bazkatzen hari dena, hura landatik dathor-  
kenean erran liezokena: Zohaz berehala; eman zaite mahaiñean, **8** aitzitik  
erran ez liozokena: Prepara diezadazu afaria; gerrika zazu zure arropa eta  
zerbitza nazazu jan eta edan dukedan artean, ondoan zuk janen duzu eta  
edanen? **9** Esker izan behar othe dio sehi hari, zeren egin izan duen mana-  
tu klona? **10** Ez dut uste. Hala zuek ere egin dituzketzueanean manatu izan  
zaizkitzuen guziak, errazueke: Zerbitzari inutil batzu gare; egin behar gin-  
duena egin dugu».

**11** Egun batez Jesus ziohala Jerusalem eta iragaten zela Samaria-  
ren eta Galilearen erditik, **12** eta sartzerat ziohala herriska batean, bathu  
zitzaizkon hamar lepratsu, zeñiak urrundik zeudezela, **13** jarri baitzitzaiz-  
kon oihugoraz erraten: «Jesus, gure nausia, urrikal gakizkitzu». **14** Eta  
zituenean ikusi, erran zaroen: «Zohazte, erakuts diotzatzue zeben buruak  
aphezei». Eta ziohazen denboran, sendatuak ediren ziren. **15** Hetarik bat,  
ikusi zuenean garbitu zela, bihurtu izan zen oihugoraz Jainkoa laudatzen  
zuela. **16** Eta arthiki zen ahuspez Jesusen oiñetarat eskerrak bihurtzen zio-  
tzala; eta haina zen samaritanoa. **17** Orduan Jesusek erran izan zuen:  
«Hamar ez dire sendatu direnak? Non dire bada bertze bederatziak? **18** Ez  
da ediren bihurtu denik eta Jainkoari gloria bihurtu dioenik, kanpotar hau  
baizen». **19** Gero erran izan zioen: «Altxa zaite; zohaz; zure fedeak salba-  
tu zaitu».

**20** Egun batez galdegin izan baitzioten farisauek noiz ethorriko othe  
zen Jainkoaren Erresuma, ihardetsi zaroen eta erran: «Ez da Jainkoaren  
Erresuma ethorriko ostendarekien; **21** eta ez dute erranen: Huna non den  
edo horra non den; jadanik ezen Jainkoaren Erresuma zuen erdian da». **22**  
Ondoan erran zaroen bere dizipuluei: «Ethorriko da denbora desiratuko  
duzuen Gizonaren Semearen egunetarik bat ikustea eta ez baiduzue iku-  
siko. **23** Orduan erranen darotzuekete: Huna non den edo horra non den;  
baiñan ez zohaztela harat eta ez zarraiztela hei. **24** Ezen nola xismistak,  
distiatzen duenean zeruaren azpiko baster batetarik, hedatzen baidu bere  
klaritatea behere huntaraiño, hala agertuko da Gizonaren Semea bere  
egunean. **25** Lehenago, ordean, mengoa da hainitz dezan sofri eta izan  
dadin arbuaiatua nazio huntaz. **26** Noeren denboran gerthatu izan zena  
gerthatuko da Gizonaren Semearen denboran ere. **27** Jaten zuten eta eda-  
ten; hari ziren ezkontzen, eta ezkontzaz ematen Noe arkan sar ziteken  
eguneraiño; orduan ethorri zitzairen uholdea eta suntsiarazi zituen guziak.  
**28** Hala nola oraiño Loten denboran ere gerthatu izan baitzen; hari ziren  
jaten eta edaten, erosten eta saltzen; hari ziren landatzen eta etxe egiten;

**29** ordean Lot Sodomatik ilkhi izan zen egunean, suzko eta sufrezko uri  
bat erori zen zerutik eta suntsiarazi zituen guziak. **30** Horla gerthatuko da,  
bada, Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. **31** Ordu hartan etxe  
gaiñean ditekene eta bere mubleak etxean dituen, ez bedi jauts hekien  
eramaterat; eta landan ditekene ez bedi bihur gibelat. **32** Orhoit zaitezte  
Loten emasteaz. **33** Nor ere hariko baida bere bizia goardatzerat, eta hark  
galduko du; eta nork ere galduko baiduke, eta hark du salbatuko. **34** Erra-  
ten darotzuet: gau hartan izanen dire bi gizon ohe batetan; bata izanen da  
hartua eta bertzea utzia. **35** Bi emasteki hariko dire elkharrekien ehotzen;  
bata izanen da hartua eta bertzea utzia; bi presuna izanen dire landa bate-  
tan; bata izanen da hartua eta bertzea utzia». **36** «Non, Jauna, hori?», erran  
izan zioten hek. **37** Ihardetsi karoen: «Non ere izanen baida gorphutza, eta  
harat bilduko dire arranoak».

## XVIII. KAP.

**1** Irakatsi karoen halaber parabola batez bethi behar dela egin  
othoitz, eta ez unhatu egitetik, **2** ziotsotelarik: «Jui bat zen hiri batean,  
zeñiek ez baitzuen Jainkoaren beldurrik, ez gizonez antsiarik. **3** Alargun  
bat zen berriz hiri hartan maiz zebilkona erraten zioelarik: Egin diezada-  
zu justizia ene partidaren kontra. **4** Eta egon zen denbora handiaz egin  
nahi gabe. Ordean ondoan erran kuen bere baithan: Jainkoaz ez naizen  
arren beldur, ez gizonez antsia, **5** hala ere, zeren bethi darraitan alhargun  
hori, egiñen diot justizia, beldurrez azkenean ere ethor ez dakidan zenbait  
afruntu egiterat». **6** Dio bada Jaunak: «Adi zazue zer dioen jui gaixto  
hark; **7** Jainkoak ez daroe, bada, justizia egiñen bere hautatuei egunaz eta  
gauaz oihuz dagozkolarik; eta luzatzen hariko da hekien alderat? **8** Nik  
darotzuet erraten egiñen daroela lauster justizia. Ordean Gizonaren  
Semea ethorriko denean, uste duzue aurkhituko duen federik lurraren  
gaiñean?».

**9** Erran zaroen berriz parabola hau bere buruaz fida ziren batzuei,  
Sainduak izan balire bezala, eta bertzeak mesprezatzen zituztenei. **10** «Bi  
gizon igan ziren tenplurat han othoitz egiterat: bat farisaua eta bertzea  
publikanoa. **11** Farisaua xutik zegoela hari zen bere baithan othoitz hunen  
egiten: Ene Jainkoa, eskerrak darozkitzut, zeren ez naizen bertze gizonak  
bezalakoa, zeinak baidire ohoiñak, injustuak, adulteroak, eta publikano  
hori bezalakoa ere. **12** Barurtzen naiz astean bietan, ematen ditut ditudan  
guzien hamarrenak. **13** Publikanoa berriz urrundik zegoela ez zen atrebi-



tzen ere begiak zerurat altxatzerat, baiñan bere bulharrak jotzen zituen ziotsalarik: Ene Jainkoa, nauzun urrikari ni bekhatorosa. **14** Erraten darotzuet hau justifikatua bihurtu etxerat eta ez bertzea, zergatik bere burua goratzen duen guzia beheratua izanen baida, eta bere burua beheratzen duena goratua».

**15** Ekhartzen ere ziotzaten, bada, haur xumeak uki zetzantzat eta hori ikusirik dizipuluek arbuatzen zituzten. **16** Jesusek, bada, haur hek erakharririk erran izan zuen: «Utzatzue haurrak ethortzerat ene ganat eta ez detzatzuela debeka, horlakoena da ezen Jainkoaren Erresuma. **17** Egiaz darotzuet erraten: Nork ere ez baidu errezipituko Jainkoaren Erresuma haur batek bezala, ez da han sarthuko». **18** Orduan herriko prinzipaletarik batek galde hau egin izan zioen: «Nausi ona, zer eginik ardiets dezaket bizitze eternala?» **19** Jesusek ihardetsi izan zioen, bada: «Zergatik deitzen nauzu ona? Ez da Jainkoa bera bakharra baizen onik.

**20** Manamenduak badakizkitzu? Ez duzu hillen, ez duzu adulteriorik egiñen, ez duzu ebatsiko, ez duzu faltso testimoniorik erranen; ohora zatzitzu zure aita eta ama». **21** Hark ihardetsi zioen: «Horiek guziak begiratu izan ditut gastetasunetik». **22** Hori aditurik Jesusek, erran zioen berriz: «Oraiño gauza bat duzu eskas: ditutzun guziak sal zatzitzu eta emotzute pobreei eta izanen duzu thresor bat zeruan; eta gero zato, jarraik zakizkit niri». **23** Horiek aditurik tristatu zen guzia, zeren hagitzen baitzen aberatsa. **24** Ikusi zuenean, bada, Jesusek hura hala tristatua, erran izan zuen: «Ala gaitz baida diru haiñitz dutenak sar ditezen Jainkoaren Erresuman! **25** Errexago da ezen kamelu bat iragan dadin orhatzaren zilhohetik, ezen ez aberats bat sar dadin Jainkoaren Erresuman». **26** Aditzen zutenek erran izan zioten: «Eta beraz, nor salba ahal daiteke? **27** Ihardetsi karoen: «Gizonentzat inposible direnak posible dire Jainkoarentzat». **28** Erran zioen, bada, Piarresek: «Huna non utzi izan ditugun guziak guk eta jarraiki gaizkitzu». **29** Ihardetsi zaroen Jesusek: «Erraten darotzuet egiaz: ez da nihor utzi dukenik bere etxea, edo burasoak, edo bere abrideak, edo bere ematea, edo bere haurrak Jainkoaren Erresuma gatik, **30** zeñiek ez baiduke errezipituko haiñitz gehiago denbora huntan eta ethorkisuneko mendean bizitze eternala».

**31** Hartu izan zituen, bada, Jesusek hamabiak eta erran karoen: «Huna non goazen Jerusalemerat, eta profetek Gizonaren Semeaz eskribatu izan dituzten guziak konplituko dire. **32** Libratua izanen zaie ezen jentillei, eskarniatuko dute, azotatuko dute, thu egiñen diote bisaiarat, **33**

eta azotatu duketen ondoan, hillaraziko dute eta hirugarren egunen bizituko da». **34** Baiñan hek ez zuten deusere konprenitu horietan guzietan; gauza estali bat zen ezen hekientzat solhas hori eta ez zuten konprenitzen zer erraten zaroen.

**35** Gerthatu izan zen, bada, Jerikotik hura hurbill zela, aurkhi zedin itsu bat bide basterrean jarria zegoena, amoina eskez; **36** eta aditurik iragaten zen jendetzearen habarrotsa, galdegin izan zuen zer zen hura. **37** Ihardetsi izan zioten, bada, Jesus Nazarethekoa iragaten zela. **38** Denbora berean jarri zen oihuz erraten zuela: «Jesus, Dabiden semea, nauzun urrikari». **39** Eta aitzinean zihoazenak mehatxuz zegozkon zegoela ixillik. Hark ordean are oihua gorago egiten zuen: «Dabiden Semea, nauzun urrikari». **40** Orduan Jesus gelditu zen eta manatu zuen erakhar ziozatala eta hurbildu izan zenean galdegin zioen, **41** eta erran: «Zer nahi duzu egin diezadazudan?». Itsuak ihardetsi izan zioen: «Jauna, ikus dezadan». **42** Jesusek erran zioen: «Ikusazu; zure fedea salbatu zaitu». **43** Eta berehala ikusi izan zuen eta jarraiki zitzaioen Jainkoari gloria bihurtzen zioela. Populu guziak ere hori ikusi zuenean, laudatu izan zuen Jainkoa.

## XIX. KAP.

**1** Jesus sarthurik Jerikon, hiritik iragaten hari zen. **2** Eta zen han gizon bat Zakeo erraten ziotena, publikanoen buruzagia eta xoil aberatsa, **3** Jesus ikusi nahiz zebillana hea nor othe zen; eta ezin zezaken jendetzea zela kausa, zergatik hainitz baitzen xume. **4** Aitzineat goanik, bada, lausterez igan zen sikomoro ondo baten gainerat hura ikustea gatik, zeren handik behar baitzuen iragan. **5** Ethorri zenean Jesus harat, behatu zuen goiti, eta ikusirik hura, erran izan zioen: «Zakeo, lauster egizu, jauts zaite zeren gaur zure etxean behar baidut ostatatu». **6** Zakeo jautsi zen berehala, eta errezipitu izan zuen bozkariorekien. **7** Mundu guzia hori ikusirik hasi zen erasten, erraten zutelarik ezen gizon bekhatoros baten ganat goan zela ostatatzerat. **8** Xutik zegoela, bada, Zakeok erraten dio Jaunari: «Huna, ene ontasunen erdia, Jauna, ematen daroet pobreei; baldin nihori bidegaberi egin badioket deuseretan, bihurtzen diot halakorik laur». **9** Jesusek erran zioen: «Salbamenduko egun bat da egungo eguna etxe huntentzat, zeren hau ere Abrahamen umea baida; **10** ezen Gizonaren Semea ethorri izan da galdua zenaren bilhatzerat eta salbatzerat».





**11** Haukien aditzen zeudezela, erran zaroen gehiago parabola hau ere, Jerusalemeko hurbillean baitzen eta uste baitzuten Jainkoaren Erresuma berehala agertuko zela. **12** Erran zaroen, bada: «Gizon bat zen ethorki handitakoa ziohana atze herri urrun batetarat erresuma baten jabe egiterat, gero bihurtzekotan. **13** Eta erakharririk bere zerbitzarietarik hamar, eman zarozten hamar marku diru eta erran zaroen: Baliarazi zatzue nathorren artean. **14** Bere herrikoek ordean higin baitzuten, igorri zituzten deputatuak haren ondotik erraterat: Ez dugu nahi hori gure erregetzat. **15** Bizkitartean bere erresumaz jabe egin ondoan, bihurtu zen eta erakharri zituen bere zerbitzariak, zeinei eman izan baitzaroen dirua, jakiteko nork zer irabazi zioen. **16** Ethorri zen, bada, lehenbizikoa ziotsalarik: Jauna, zure markuak irabazi ditu hamar marku. **17** Eta hark erran zioen: Ungi da, zerbitzari ona; zeren izan zaren leial gauza aphurrean, izanen duzu bothere hamar hiriren gaiñean. **18** Ethorri zen bigarrena erraten zue-larik: Jauna, zure markuak irabazi ditu bortz marku. **19** Huni erran zioen: Zu ere izan zaite bortz hiriren gaiñean manatzaille. **20** Bertze bat berriz ethorri zen ziotsalarik: Orizu, Jauna, zure markua, zeña iduki baidut mokanes batetan gordea; **21** Ezen zure beldur izatu naiz, zergatik gizon zorrotz bat baitzare; galdetzen duzu eman ez duzuna eta biltzen erein ez duzuna. **22** Nausiak ihardetsi izan zioen: Kure ahotik hartzen zaitut, sehi gaixtoa. Baziñakien gizon zorrotz bat naizela, galdetzen dudala eman ez dudana eta biltzen erein ez dudana; **23** zergatik, beraz, ez duzu eman ene dirua irabazian, ethortzen nintzenezan erretira nezantzat intresekien? **24** Eta erran zaroen han zirenei: Khen diozue markua eta eman hamar markuak dituenari. **25** Ihardetsi izan zioten: Jauna, baditu eta hamar marku. **26** Nik bada, diotsa, darotzuet erraten, duen guziari emanen zaiola eta izanen duela gaindiro; ez duenari ordean idekiko zaiola duena ere. **27** Ene etsaiez denaz bezanbatean, zeñek ez baitzuten nahi izan nendin hekien errege, erakharatzizue hunat eta hill zatzizue ene biztan».

**28** Horiek erran eta abiatu zen aitzinean Jerusalemeko alderat. **29** Eta hurbildu izan zenean Bethfajerat eta Bethanariat, Olibetako deitzen zen mendirat, igorri izan zituen dizipuluetarik bia, **30** erraten zaroelarik: «Zohazte hor aitzinean den herriska hortarat; han sartzean aurkhituko duzue astokume bat estekatua, zeñen gaiñean nihor ez baida igan egundaiño; lexa zazue eta ekhar diezadazue. **31** Eta nihork galdegiten badarotzue hea zergatik lexatzen duzuen, ihardetsiko diozue: Zeren Jaunak horren beharra baidu». **32** Goan ziren, bada, igorri izan zituenak eta aurkhitu zuten astokumea hark erran bezala. **33** Lexatzen hari zirela astoku-

mearen, erran izan zaroen haren jabeak: «Zergatik lexatzen duzue astokume hori?» **34** Hek ihardetsi izan zaroen: «Zeren Jaunak hunen beharra baidu». **35** Ekharri zioten, bada, Jesusi eta bere tresnak ezarririk astokumearen gaiñean, iganarazi zuten Jesus haren gaiñerat. **36** Hala ziohala, hedatzen zituzten hek bere tresnak bide gaiñetan. **37** Hurbildu zenean ja Olibetako mendiaren ondorat, hasi zen haren dizipulutze guzia bozkarioz Jainkoa laudatzen ikusi izan zituzten mirakuillu guzien gaiñean. **38** Ziotsalarik: «Benedikatua dela errege bezala Jaunaren izenean heldu zaikuna. Bakea dela zeruan eta gloria lekhu gorenetan».

**39** Horren gaiñean jendetzearen artean ziren farisauetarik zenbaitek erran izan zioten: «Nausia, ixillaraz zatzitzu kure dizipuluak». **40** Ihardetsi zaroen hark: «Nik darotzuet erraten, hauk ixiltzen balire ere, harriek berek oihu egin lezaketela».

**41** Jerusalemerat hurbildu zenean, ikusirik hiria, nigar egin zuen haren gaiñean ziotsalarik: **42** «Oxala zorionezko egun huntan bederen ezagutu bahitu bakea hiri emateko gai ziren gauzak; baiñan orai estaliak ditun hire begietarik hauk guziak. **43** Ethorriko zaizkin ezen egun dohakabeak, inguratuko baihaute etsaiek trenxarez, zarratuko baihaute eta herstuko alde guzietarik. **44** Arrasatuko zaituzte hi eta hire habitantak, eta ez darone utziko harria harriaren gaiñean, zeren ez dunan ezagutu Jainkoak bisitatu hauen denbora».

**45** Eta tenpluan sarthu zenean, hasi zen khasatzen handik han saltzen eta erosten hari zirenak, **46** erraten zaroelarik ezen: «Eskribatua da ene etxea othoitzezko etxe bat dela eta zuek hartaz egin duzue ohoin banku bat». **47** Eta egun guzietatik irakasten hari zen tenpluan. Bizkitartean aphezen prinzeak, eskribauak eta populuaren buruzagiak hura galarazi nahiz zebiltzan. **48** Ez zuten ordean aurkhitzen biderik haren kontra deusik egiteko, populu guzia ezen xarmatua zegoen hura mintzatzen adiztean.

## XX. KAP.

**1** Egun hetarik batez tenpluan populuari irakasten hari zela eta Ebanjelioa predikatzen, bildu izan ziren aphezen prinzeak eta eskribauak kargudunekien batean, **2** eta mintzatu zitzaizkon manera huntan: «Erran diezaguzu: zer autoritatez egiten ditutzu horiek edo nork eman darotzu zuri autoritate hori?» **3** Ihardetsi zaroen, bada, Jesusek eta erran: «Nik ere



zuei galde bat egiñen darotzuet. Ihardets diezadazue: **4** Joanesen bathaioa zerutikakoa zen ala gizonetikakoa?» **5** Baiñan hek bere baitan arrosoiñatzen zuten eta zioten: «Erraten badugu zerutikakoa zela, erranen daroku: zergatik bada ez duzue hura sinhetsi? **6** Erraten badugu berriz gizonetikakoa zela, populu guziak harrikatuko gaitu, segur dadukate ezen Joanes profeta zela». **7** Ihardetsi zioten, bada, ez zakitela nondikakoa zen. **8** Eta Jesusek erran izan zaroen: «Nik ere ez darotzuet erranen zer autoritatez horiek ditudan egiten».

**9** Hasi zen, bada, erraten populuari parabola hau: «Gizon batek zuen landatu mahasti bat eta hura mahastizain batzuei alokatu, goan zen bera atze herritarat, zeñetan egon baitzen denbora luzez. **10** Sasoiñean igorri izan zaroen mahastizainei bere sehi bat, eman ziozatat mahastiko fruituetarik; baiñan hek zehaturik igorri zuten. **11** Igorri izan zaroen oraiño bertze sehi bat; baiñan hek hura ere zehaturik eta gaizki trataturik, igorri zuten hutsik. **12** Hirugarren bat ere oraiño igorri zaroen, baiñan kolpatu zuten eta egotzi kanporat. **13** Erran izan zuen, bada, mahastiaren jabeak: Zer egiñen dut? Igorriko daroet ene seme maitea; agian hau ikusten dutenean, errespetu izanean dute hunentzat. **14** Baiñan mahastizainek hura ikusi zutenean, bere baitan egin zuten eta erran zaroen elkharri: Hau da primua; hil zagun, ontasuna gure izan dadin. **15** Eta hura arthikirik mahastiaz kanporat, hill izan zuten. Zer egiñen othe daroe, beraz, hei mahastiaren jabeak? **16** Ethorriko da, galaraziko ditu mahastizain hek, eta emanen daroe mahastia bertze batzuei». Hori aditu zutenek erran zioten: «Jainkoari nahi ez dakioela!». **17** Baiñan Jesusek hei behaturik erran izan zaroen: «Zer da, bada, eskribatua den hau: Bastitzaileek arbuiatu izan duten harria da kantoiñeko horma bethetzat egin dena; **18** harri haren gaiñerat eroriko den guzia zathitua izanen da eta nori ere eroriko baitzaio gaiñerat, eta hura xehatuko du?». **19** Aphezen prinze eta eskribauak aiher ziren orduan bere eskuak haren gaiñean ezartzerat; ordean populua ziren beldur, ezagutu zuten ezen hekientzat erran izan zuela konparazione hura.

**20** Hala ephaitzan zegozkon hurbiletik eta igorri izan ziotzaten presuna gerizatu batzu, alegia hek justuak, hura zenbait hitzetan hea atzeman ahal zezaketen, kargudunen eskuetan edo gobernadorearenetan emateko. **21** Hauk egin izan zioten galde hau: «Nausia, badakigu ez duzula erraten eta irakasten justu diren «gauzarik baizen; ez duzula presunetarat behatzen, baina egiaren arauera irakasten duzula Jainkoaren bidea. **22** Zilhegi zaiku tributua pagatzea Kaesari ala ez?» **23** Jesusek, bada, ikusten baitzuen

hekien fiñezia, erran izan zaroen: «Zergatik tentatzen nauzue? **24** Erakuts diezadazue diru peza bat. Noren figura ekhartzen du eta izena?». Ihardetsi izan zioten bek: «Kaesarena». **25** Orduan hark erran zaroen: «Bihur diotzotzue, beraz, Kaesaren direnak Kaesari, eta Jainkoaren direnak Jainkoari». **26** Ezin atzeman zuten hark erran zuenaren gaiñean populuari erratekorik, eta miretsiak haren erreputaz, ixildu izan ziren.

**27** Ethorri izan zitzaizkon gero saduzearretarik zenbait, zeñiek ez baidadukate erresurrektionerik badela, eta egin izan zioten galde bau: **28** «Nausia», diotsate, «Moisek utzi izan daroku eskribuz, baldinetaria norbaiten anaia ezkondua zitekena heldu bada hiltzerat haurrik gabe, har dezala anaia haren emastea eta egin diozala leiñu bere anaia zenari. **29** Ziren, bada, zazpi anaia eta lehenbizikoa ezkondu zen emaste batekien eta hiltzen haurrik gabe. **30** Bigarrena ezkondu zen emaste berarekien eta hiltzen hura ere haurrik gabe. **31** Hirugarrena ere ezkondu zen harekien eta orobat zazpiak ere eta guziak hill izan ziren haurrik izan gabe. **32** Hek guzien ondoan hiltzen emaste hura ere. **33** Erresurrekzioneko denboran, bada, hetarik zeñen emaste izanen da haiña hura? Ezen zazpiak ezkonduak izan dire harekien». **34** Jesusek ihardetsi zaroen: «Mundu huntako umeak ezkontzen dire eta ematen ezkontzaz; **35** baiñan bertze mundu hartako eta erresurrekzioneko gai edirenen direnez bezanbatean, ez da izanen ezkontzarik hekientzat, **36** ezen gehiago ezin hilen dire, aingeruen pare baiditezke eta Jainkoaren ume, erresurrekzioneko ume diren pontutik. **37** Hillak biztuko direla, bada, Moisek berak ere erakutsi izan du berro ondoan deithu izan duenean Jauna Abrahamen Jainkoa, Isaak-en Jainkoa eta Jakob-en Jainkoa. **38** Bada Jainkoa ez da hillen Jainkoa, baiñan bai biziena, guziak bizi baitzaizko hari».

**39** Harturik, bada, hitza eskribauetarik zenbaitek erran izan zioen: «Nausia, ungi erran duzu». **40** Eta orduz geroztik ez ziren gehiago atrebizten deuseren gaiñean galderik hari egiterat. **41** Baiñan berak erran izan zaroen: «Nola erraten dute Kristo Dabiden Semea dela, **42** halaz eta Dabidek beraz erraten duenaz geroz salmoen liburuan: «Erran izan dio Jaunak ene Jaunari: Jar zaitte ene eskuineko aldean, **43** ezar detzakedan artean zure etsaiak zure oiñetako alkhizat? **44** Dabidek beraz deithzen du bere Jauna; eta nola izan daiteke haren semea?».

**45** Ondoan populu guziak aditzen zuela, erran izan zaroen bere dizipuluei: **46** «Begira zaitzete eskribauetarik, zeñiek lakhet baidute arropa luzeekien ibiltzea eta plaza publikoetan agurrak errezibitzea, sinagogetan



lehenbiziko kadirak eta banketetan lehenbiziko plazak izatea; **47** zeñiek iresten baidituzte alhargunen etxeak othoitz luzeak egiten dituztelako itxuran; hek kondenaZIONE garratzago bat errezibituko bide dute».

## XXI. KAP.

**1** Beha zegokoten, bada, Jesus egun batez bere ofrendak tenpluko thresorean ematen zituzten aberatsei **2** eta ikusi izan zuen alhargun pobretto bat ere bi moneda pezatxo ematen zituena. **3** Eta erran zuen: «Egiaz darotzuet erraten alhargun pobre hunek gehiago eman izan duela bertze guziek baiño, **4** ezen horiek guziek frankiaz dutenetik eman izan diote Jainkoari; ordean hunek bere pobreziatik doi-doia bizitzeko zuen guzia eman izan du».

**5** Eta zenbaitek erraten baitzioten tenpluaz, barri ederrez egiña zela eta emaitza ederrez aberatstua, ihardetsi izan zaroen: **6** «Ethorriko da denbora bat ikusten dituzuen horietarik guzietarik ez baida geldituko harria harriaren gaiñean, non ez den desegiñen».

**7** Galdegin izan zioten, bada, eta erran: «Nausia, noiz hori gerthatuko da eta zer seiñale izanen da horiek konplitzen hasiko direnekoa?» **8** Erran zaroen Jesusek: «Begirautzue enganatuak izan ez zaitezten; ethorriko dire ezen hainitz ene izenean erranen dutenak «ni naizela», eta «denbora hurbill da»; ez zohaztela, bada, hekien ondolik. **9** Adituko duzue-nean, bada, mintzatzen gerlaz eta alboratamenduz, ez zaitez tala espanti; horiek lehenik arribatu beharrak dire, ordean akhabantza ez da oraiño bain laster izanen». **10** Orduan zioten: «Altxatuko da populua populua-aren kontra eta erresuma erresumaren kontra. **11** Izanen dire alde guzietan lur ikharatze handiak, izurritzeak eta goseteak; eta agertuko dire zerutik gauza ikharagarri batzu eta seiñale handi batzu».

**12** Baiñan horiek guziak baiño lehenago emanen darozkitzue eskuak gaiñean eta persekutatuko zaituzte sinagogetarat eramaten zaituztela erre-geen eta gobernadoreen aitziañerat ene izena dela kausa. **13** Eta hori gert- hatuko zaitzue lekhukotzat zaikidatentzat **14** Har zazue, bada, ungi zuen gogoan aitzinetik ez pensatzea nola beharko dukezuen ihardetsi; **15** nik emanen darotzuet ezen minzo bat eta zuhurtzia bat, zeinei ezin buru egi- nen baidiote eta ez kontrestatuko zuen etsai guziek ere. **16** Tradituak izan- en ere zarete zeuben burasoez, zeuben abrideez, zeuben ahaidez, zeuben adiskideez; zuetarik haiñitz hillaraziko ere dituzte. **17** Eta mundu guziak

gaitzetsiak izanen zarete ene izenaren ariaz. **18** Eta hala ere zuen buruko ille izpi bat ez da galduko. **19** Zuen pasientziak zuen arimen jabe izanen zarete.

**20** Ikusiko duzue-nean, bada, Jerusalem armada batek inguratzen duela, jakin zazue hurbill ditekela haren desolazionea. **21** Orduan Judean direnek ihes egin bezate mendietarat eta herriaren erdian direnak biohaz urrun eta ingurutako herritan direnak ez daitezela han sar; **22** zeren men- dekuzko egunak baiditezke orduan, konplituak izan daitezentzat eskriba- tuak izan ohi diren guziak. **23** Zorigaitz ordean izorra edo unhide gertha- tuko ditezkenentzat egun hetan, ezen herstura handian izanen da herri guzia eta kolera da eroriko populu hunen gaiñerat. **24** Iraganen dituzte ezpataren ahotik eta eramanen dituzte esklabo nazione guzietarat eta Jerusalem ostikatua izanen da jentillez, konpli daitezken artean nazioeneen denborak.

**25** Orduan izanen dire seiñaleak iguzkian, ilhargian eta izarretan, eta lurraren populu guziak izanen dire hertsturan, itsasoaren eta uhiñen orro- ak emanen duten altaramenduan. **26** Hartaraiño bai, non ihartuko ere bai- dire gizonak izialduraz eta mundu guziari ethorri beharko zaizkon gaitzen iguripenez, ezen zeruko birtuteak iharrosiko dire. **27** Orduan dute ikusi- ko Gizonaren Semea ethortzen hedoi baten gaiñean bothere handi bate- kien eta majestate handi batean. **28** Gauza horiek hasten direnean bada heltzen, idek zatzitzue begiak eta altxa buruak, zergatik hurbill baiditeke zuen erresketamendua».

**29** Ekharri ere zaroen konparazione hauxe: «Ikusazue fiko ondoa eta bai arbola guziak; **30** ja fruitua kanporatzen hasten denean, ezagutzen duzue uda hurbill dela. **31** Hala zuek ere ikusten dituzketzue-nean gauza horiek gerthatzen, jakizue hurbill ditekela Jainkoaren Erresuma. **32** Erra- ten darotzuet egiaz ez dela iraganen jenderazione hau, non ez diren guziak konplitzen. **33** Zerua eta lurra iraganen dire; ene hitzak ordean ez dire iraganen».

**34** Goardia idukazue, bada, zeuben gaiñean, pisa ez ditezen zuen bihotzak jan eta edan sobraz eta bizitze huntako griñez eta uste gabean ethor ez dakizuen egun hura. **35** Ezen sare batek bezala ditu atzemanen lurraren gaiñean ditezken guziak. **36** Zaudete, beraz, atzarriak denbora guzietatik othoitz egiten duzuela, merezi dezazuentzat gerthatuko diren gaitz horiek guziez itzurzea eta Gizonaren Semearen aitziañean agertzea».



37 Hari zen, bada, egunaz irakasten tenpluan; gauez ordean ilkhitzen zen Olibetako zaritzan mendian egoterat. 38 Eta populu guzia goiz goiztik heldu zitzaion tenpluan hura aditzerat.

## XXII. KAP.

1 Hurbil zen, bada, lemami gabeko ogien besta, zeñi erraten baidio- te Bazko. 2 Eta zebiltzan aphezen prinzeak eta eskribauak nola Jesus hilla- raz othe zezaketen; beldur ziren ordean populuaren.

3 Sarthu izen zen, bada, Satana Judasen baithan, zeñiak baitzuen izengoitia Iskariotes eta zeñ baitzen hamabietarik bat. 4 Goan zen eta mintzatu zen aphezen printzeekien eta kargudunekien, nola zioketen libratuko hura. 5 Hek atsegin hartu zuten eta akordatu ziren diru suma batez hari ematekotzat. 6 Hark ere agindu zaroen eta attizaren bilha zebil- lan jendeek habarrotsik egin gabe hura hei libratzeko.

7 Ethorri zen, bada, lemami gabeko ogien eguna, zeñetan behar bai- tzen Bazkoa imolatu. 8 Jesusek igorri izan zituen Piarres eta Joanes erra- ten karoelarik: «Zohazte, prepara diezaguzue Bazkoa jan dezagun». 9 Erran izan zioten hek: «Non nahi duzu prepara dezagun?». 10 Eta hark ihardetsi zaroen: «Orizue; hirian sarthu eta bathuko zaitzue gizon bat pegar bat ur daramala; jarraik zakizkote hari sartzen ditekete etxerat; 11 eta erranen diozue etxe haren jabeari: Nausiak gastiatzen darotzu: non da neure dizipuluekien Bazko janen dudan lekhoa? 12 Eta hark erakutsiko darotzue sala handi bat mublatua; hanxe prepara diezaguzue behar dena». 13 Goan ziren, bada, eta aurkhitu zuten hark erran bezala eta preparatu zuten Bazkoko behar zena. 14 Eta ethorri zenean muga, jarri zen mahaiñean eta jarri ziren harekien hamabi Apostoluak. 15 Erran zaroen ere: «Desira handi bat nuen Bazko hau jateko zuekien, sofri dezakedan baiño lehen; 16 erraten darotzuet ezen gaur gehiago ez dudala Bazkorik janen, konpli dadiken artean Jainkoaren Erresuman».

17 Eta harturik kalixa, eskerrak errendatu izan zituen eta erran zaro- en: «Har zazue eta parti zazue zuen artean. 18 Erraten darotzuet ezen, ez dudala edanen mahats arnorik Jainkoaren Erresuma ethor daiteken arte- raiño». 19 Gero harturik ogia eskerrak errendatu zituen, hautsi zuen eta eman zaroen erraten zuelarik: «Hau da ene gorphutza zuentzat ematen dena; hau egizueke ene orhoitzapenetan». 20 Hala hala hartu zuen kalixa

ere afaldu ondoan, erraten zuelarik: «Hau da kalixa, ene odolaren testa- ment berria, zuentzat isuria izaterat dohanarena.

21 Bizkitartean horra non ematen duen ni trahitzen nauenak enekien eskua plateauan. 22 Alabaiñan Gizonaren Semea badoha, exleittua izan den bezala; baiñan zorigaitz gizon haiñarentzat, zeñietaz izanen baida trahi- tua». 23 Eta hek hasi ziren elkharri galdegiten zein othe zen hetarik hori egiñen zukena.

24 Altxatu ere zen liskar bat hekien artean hetarik zein othe zen han- diena. 25 Erran zaroen, bada, Jesusek: «Nazionetako erregeek manutzen dute nausi bezala eta hekien gaiñean autoritate dutenek ungi egilleen izena hartzen dute. 26 Zuen artean ordean ez da hala izanen; aitzitik zue- tan den handiena egin bedi mendrenea bezala eta aitzindari dena zerbi- tzatzen hari dena bezala; 27 ezen zein da handiago? Mahaiñean jarria dagoena ala zerbitzatzen hari dena? Mahaiñean jarria dagoena ez othe? Eta ni bizkitartean naiz zuen artean zerbitzatzen hari dena bezala. 28 Zuek zarete, bada, enekien iraun duzuenak ene atsekabeetan. 29 Halaber nik ere preparatzen darotzuet Erresuma, Aitak niri preparatu izan daro- tan bezala, 30 jan eta edan dezazuentzat ene mahaiñean ene Erresuman eta jar zaiteztentzat thronu gaiñean Israelgo hamabi leinuak jujeatzeko».

31 Ondoan Jaunak erran izan zuen: «Simon, Simon! Satanak galdetu izan zaitu baheatzekotzat ogia baheaz bezala; 32 ordean nik othoitz egin dut zuretzat falta ez dadin zure fedea. Zuk ere konbertituko zarenean, noizbeit borthitz zatitzu zure anaiak». 33 Piarresek ihardetsi izan zioen: «Jauna, prest naiz zurekien goaterat bai presondegirat eta bai heriotzerat ere». 34 Baiñan Jesusek erran zioen: «Erraten darotzut, Piafes; ez du gaur jonen oillarrak, non ez duzun hirur aldiz ukhatuko ezagutzen nauzula». Gero berriz erran zaroen: 35 «Igorri izan zaituzdanean zakhurik gabe, moltsarik gabe, oiñetakorik gabe, eskastu zaitzueke deusik?». 36 «Deusik ere», ihardetsi zioten hek. Erran zaroen, bada, Jesusek: «Ordean orai zakhu bat duenak har beza hura, bai halaber moltsa ere; eta ez duenak sal beza bere arroba eta eros ezpata bat; 37 erraten darotzuet ezen, oraiño konplitua behar dela izan ene baitan eskribatua izan den hau ere: Gaixta- giñen nonbrean kondatua izan da, ezen nitazko gauzak akhabatzerat dohaz». 38 Ihardetsi izan zioten hek: «Jauna, huna hemen bi ezpata». Jesu- sek erran.zaroen: «Asko da».

39 Gero ilkhirik abiatu zen, ohi bezala, Olibetako mendirat eta jarrai- ki zitzaizkon dizipuluak ere. 40 Heldu zirenean lekhu hartarat, erran zaro-



en: «Egizue othoitz, sar ez zaiteztentzat tentazionean». **41** Eta urrundirik hetarik harri arthiki bat dohakoraiñokoan, jarri zen belhauniko othoitz egiten, **42** erraten zuela: «Aita, baldin nahi baduzu, aldara zazu kalix hau ene ganik; halarikan ere ez bedi egin ene nahia, baiñan bai zurea». **43** Orduan agertu izan zitzaion aingeru bat zerutik borthizten zuena eta hagonian jarririk othoitzez zirauen geroago eta gehiago. **44** Eta ethorri zitzaion izerdi bat odol zortak zarizkola lurreraiño. **45** Altxaturik bere othoitz egin zuenean, ethorri izan zen bere dizipuluetarat eta aurkhitu zituen tristez lohakhartuak. **46** Eta erran zaroen: «Zergatik zaudete lo? Altxa zaitezte eta egizue othoitz sar ez zaiteztentzat tentazionean».

**47** Oraino mintzo zela, huna jende tropela bat; eta hamabietarik bat, Judas erraten ziotena, zuten aitzindari, zeñia hurbildu baitzitzaion Jesusi musu ematerat. **48** Jesusek erran zioen: «Judas, musuaz traditzen duzu Gizonaren Semea?». **49** Ikusirik, bada, haren aldean zirenek zer arribatzerat ziohan, erran zioten: «Jauna, jonen othe ditugu ezpataz?». **50** Eta jo zuen hetarik batek aphezen prinzearen muthilla eta ebaki zioen eskuñeko beharria. **51** Baiñan Jesusek hitza harturik erran zaroen: «Zaudete geldirik». Eta ukiturik haren beharria sendatu zuen. **52** Erran zaroen, bada, Jesusek haren ganat ethorri ziren aphez prinzipalei, tenpluko kargudunei eta populuko zaharrei: «Ohoïn baten ganat bezala ethorri izan zarete ezpatekien eta makhillekien. **53** Egun guziez zuekien nintzelarik tenpluan, ez darotazue eskua eman gaiñean; baiñan hau da zuen orena eta ilhun-been botherea».

**54** Harturik denbora berean, eraman zuten aphez handiaren etxerat; eta Piarres jarraiki zitzaion urrundik. **55** Biztu zutenean, bada, sua sotoan, jarri ziren haren ingurutan eta Piarres ere hekien artean. **56** Hura ikusi zuenean neskato batek jarria suaren aitzinean eta ungi behatu zioenean, erran zuen: «Hau ere harekien zen». **57** Baiñan hark ukhatu zuen Jesusez, erraten zuelarik: «Emastekia, ez diñat ezagutzen ere». **58** Aphur baten buruan bertze norbaitek ikusirik, erran izan zioen: «Zu ere hetarik zare». Piarresek berriz erran zioen: «Gizona, ez nauk hetarik». **59** Handik oren baten buruan edo, bertze batek berriz seguraturiki erran zuen: «Egiatzki hau ere harekien zen; ezen Galilearra ere da». **60** «Gizona», diotsa Piarresek, «ez zakiat zer erraten duan». Eta orduan berean oraino hura mintzo zela, jo zuen oillarrak. **61** Eta itzulirik behatu izan zioen Jaunak Piarresi. Orduan orhoitu zen Piarres Jaunaren hitzaz, nola erran izan zioen: Oillarrak jonen duen baiño lehen, hiruretan ukhatuko duzu nitaz. **62** Eta kanporat ilkhirik, jarri zen nigar miñetan.

**63** Bizkitartean Jesus zadukaten gizonak trufatzen ziren hartaz zehatzen zutelarik. **64** Begiak estali ziotzaten eta bisaian kolpeak ematen ziotzatelara erraten zioten: «Pentsa zak nork jo hauen». **65** Eta bertze hainitz injurio eta blasfemio erraten zioten.

**66** Argitu zenean, bildu ziren populuko zaharrak, aphezen prinzeak eta eskribauak, eta erakharririk Jesus bere batzarrerat erran izan zioten: «Baldin zu bazare Kristo, erraguzu». **67** Ihardetsi zaroen: «Erraten badarotzuet, ez nauzue sinhetsiko; **68** nik berriz zuei zenbait galde egiten badarotzuet, ez darotazue ihardetsiko, hain guti nauzue utziko goaterat. **69** Hemendik harat, bada, Gizonaren Semea jarria izanen da Jainko guziz botheretsuaren eskuineko aldean». **70** Orduan guziek erran zioten: «Zu zare, beraz, Jainkoaren Semea?». Ihardetsi izan zaroen: «Egia diozue ni naizela. **71** Horren gaiñean erran zuten hek: «Zertako behar dugu gehiagoko lekukorik, geronek aditu diogunaz geroz bere aho propiotik erraten?».

### XXIII. KAP.

**1** Han bilduak ziren guziak altxaturik eraman zuten Pilatusen ganat. **2** Eta hasi ziren haren akusatzen erraten zutela ezen: «Gizon hau aurkhitu dugu gure nazioea gaixtatzen duela, eta debekatzen tributua Kaesari pagatzetik, eta dioela bera dela Kristo erregea». **3** Pilatussek, bada, galdegin zioen eta erran: «Zu zare juduen erregea?». Jesusek ihardetsi izan zioen: «Zuk diozu». **4** Erran zaroen bada Pilatussek aphezen prinzeei eta populuari: «Ez dut nik aurkhitzen gizon hunen baitan kondenatzeko sujetik batere». **5** Baiñan hek lehiatzen zitzaizkon erraten ziotelarik: «Alboratatzen du populua, irakasten hari dela Judea guzian, hasi Galileatik eta huneraiño». **6** Pilatussek aditurik aiphatzen Galilea, galdegin izan zuen hea Galilearra zen Jesus. **7** Eta jakin zuenean Herodesen iurisdikzionarioa zela, igorri izan zuen Herodesen ganat, zeñia halaber baitzen Jerusalem egun hetan.

**8** Herodesek atsegin handi bat hartu zuen Jesusen ikusteaz, ezen aspalditik hura ikusi nahia zen, zeren hainitz gauza aditu baitzituen hartaz erraten eta esperantza baitzuen ikusiko zioela zenbait mirakuillu egiten. **9** Galdegin ziotzan, bada, hainitz gauza; baiñan Jesusek ez zioen deusera ihardetsi. **10** Bizkitartean aphezen prinzeak eta eskribauak han zeudezen muthiriki hura akusatzen zutela. **11** Baiñan Herodesek bere gortheko jendeekien batean mesprezatu izan zuen eta trufaturik hartaz, bestiarazi zuen



arroba xuri batez eta igorri Pilatusen ganat. **12** Eta egun hartan berean adiskidetu ziren Herodes eta Pilatus, ezen aitziañago etsai ziren.

**13** Pilatusek, bada, erakharririk aphezen prinzeak, kargudunak eta populua, **14** erran izan zaroen: «Presentatu darotazue gizon hau populua- ren nahastzaille bat bezala, eta huna nik zuen aitziañean interrogatu ondo- an, ez dut aurkhitzen gizon hunen baitan hobenik batere zuek akusatzen duzuenetarik; **15** ez eta Herodesek ere, ezen igorri izan zaituztet haren ganat eta heriotzea merezi duelako deusik ez zaio egin izan. **16** Gastigatu eta, beraz, utziko duket».

**17** Behar zaroen ezen utzi besta egun hartan presonier bat. **18** Jarri ziren, bada, oihuz betbetan jendetze guzia ziotsatarik: «Khen diezaguzu hori, eta utz diezaguzu Barrabas». **19** Hau zen presondegian ezarria hirian altxarazi izan zuen sedizione batengatik eta egin izan zuen heriotze baten- gatik. **20** Berriz ere mintzatu zitzaien Pilatus, nahiz libratu Jesus, **21** baiñan hek heia goraz jarri ziren erraten zutela: «Gurutzefika zazu, gurutzefika zazu hori». **22** Hark berriz erran zaroen hirugarren aldian: «Zer gaixki egin du, bada, hunek? Nik ez dut deusere aurkhitzen hunen baitan herio- tzea merezi duenik; korrejitu dut, beraz, eta utziko gero». **23** Baiñan hek lehiatzen zitzaizkon oihu goraz galdetzen ziotela gurutzefika zedin Jesus; eta geroago eta oihua gorago zaramaten.

**24** Orduan Pilatusek ordenatu izan zuen egin zedilla hek galdetzen zutena. **25** Libratu izan zaroen, bada, heriotzea gatik eta alboratamendua gatik presondegian emana izan zena, zeina galdetzen baitzuten, eta eman zaroen Jesus, nahi zutena hartaz egin zezatela. **26** Hura zaramatela, hartu zuten Simon zaitzan bat Zirenakoa landetarik heldu zena, eta eman zio- ten gurutzea sorbalden gaiñerat Jesusen gibeletik ekhartzeko.

**27** Eta zarraion ondolik jendetze handi bat populuz eta emastekiz, auhenez eta nigarrez zagozkonak. **28** Itzulirik, bada, hetarat erran izan zaroen Jesus: «Jerusalemeko neskatxak, ez zazuela egin nigarririk ene gaiñean; aitzitik zebonen gaiñean egizue nigar eta zeben umeen gaiñean. **29** Ezen horra non heldu den denbora, zein etan erranen baidute: Doha- tsuak emaste agorrek eta haurrik ekharri ez duten sabelak eta hazi ez duten bulharrak. **30** Orduan dire hasiko erraten mendiei: Eror zaitezte gure gaiñerat; eta larrainei: Estal gaitzatzue; **31** ezen baldinetariak egur hezeari hau egiten badiote, zer ez zaio egin iharrari?».

**32** Bazaramatzaten, bada, bertze bi gizon gaixtagin harekien batean hillarazterat. **33** Eta ethorri izan zirenean Kalbara erraten zioten lekhurat, gurutzefikatu zuten han Jesus bi ohoin hekiekien, bata eskuin etetik eta ber- tzea ezkerretik zituela. **34** Eta Jesus: «Aita, barkha diozo- zute, ez dakite ezen zer hari diren». Gero partitu izan zituzten haren bes- timendak eta eman zortherat.

**35** Populua han zegoen beha; eta trufaz zegozkon kargudunak popu- luarekien batean ziotsatarik: «Bertzeak ditu salbatu; bere burua ere salba beza orai, baldin hori bada Kristo Jainkoaren berezia». **36** Soldaduak ere trufaz zegozkon hurbillerat ethorriarik, eta presentatzen zioten minagrea, **37** erraten ziotelarik: «Baldin zu bazare Juduen erregea, salba zazu zeure burua». **38** Zen, bada, eskribatua haren buruko gainaldean grekez, latinez eta erdaraz: Hau da Juduen Erregea.

**39** Gurutzefikatuak ziren ohoiñetarik bat berriz blasfemioz zegoen haren kontra erraten zuelarik: «Baldin zu bazare Kristo, salba zazu zeure burua, eta salba gaitzatu gu ere». **40** Baiñan bertzeak ihardesten zioelarik, erreportxu egiten zioen eta erraten: «Ez zare Jainkoaren beldur, zu ere suplizio berean baitzaude kondenatua? **41** Oraino guri justuki egin daro- kute, merezitu izan duguna baidugu pairatzen; horrek ordean deusere ez du egin gaixkirik». **42** Gero Jesusi erraten zioen: «Jauna, orhoit zaite nitaz zure erresuman sarthu zaitezkenean». **43** Ihardetsi zioen Jesus: «Erraten darotzut egiaz: gaur enekien izanen zare parabisuan».

**44** Zen, bada, egunaren seigarren orena bezala eta ilhunbe handi batzu egin izan ziren lur guziaren gaiñean bederatzigarren orenerainoko- an. **45** Iguzkia goibeldu izan zen eta tenpluko bela zathitu erditik. **46** Eta oihu handi bat eginik Jesus: «Aita, zure eskuetat ematen dut ene izpiritua». Eta hori erratearekien hill izan zen.

**47** Ikusirik, bada, zenteneroak zer iragan izan zen, Jainkoari gloria errendatu zioen ziotsalarik: «Egiazki gizon hau justua zen». **48** Ikuskari horri beha egon ziren jendetze guziak eta zer arribatu izan zen konside- ratzen zutenak, bere bulharrei joka hari zirela ziohazen handik. **49** Jesusen ezagun guziak berriz zeudezen urrundik, bai eta Galileatik jarraiki zitzaiz- kon emastekiak ere, beha zeudezela zer iragaten zen.

**50** Eta huna gizon bat Josef zeritzana, karguduna, gizon prestua eta justua, **51** juduen deseinuan ez eginkarian parterik ez zuena, Judeako hiri Arimathea zeritzanekoa eta zeia baitzegoen halaber Jainkoaren Erresu-



maren begira. **52** Ethorri zen hau Pilatusen ganat eta eskatu zioen Jesusen gorphutza. **53** Erautsirik estali zuen mihise batez eta eman thonba batean, zein baitzen arroka zilhatu egina, eta zein etan ez baitzen oraiño nihor eman izatu.

**54** Egun hura zen sabatoaren bezpera eta sabato eguna hasterat ziohan. **55** Jesusekien Galileatik ethorriak ziren emastekiak goan baitziren ondotik, ikusi zuten thonba eta nola zen Jesusen gorphutza han emana. **56** Eta bihurturik preparatu izan zituzten urrin onak eta ungentuak; eta sabato egunean egon ziren geldirik legearen arauera.

## XXIV. KAP.

**1** Astearen lehenbiziko egunean, bada, goiz goizetik goan ziren emasteki hek berekien zakharzketela tonbarat preparatu izan zituzten urrin onak. **2** Eta aurkhitu izan zuten harria thonbatik aldaratua. **3** Sarthu ziren barnat eta ez zuten han aurkhitu Jesus Jaunaren gorphutza. **4** Hortaz harrituak zeudezela, betbetan bi gizon agertu ziren hekien aldean arropa distiant batzuekien, **5** eta nola izitu baitziren eta begiak beheititu baitzituzten, erran izan zaroten: «Zergatik bilhatzen duzue hillen artean bizia dena? **6** Ez da hemen, baiñan biztu da. Orhoit zaitezte nola mintzatu izan zaitzuen oraiño Galilean zenean, **7** erraten baitzarotzuen Gizonaren Semeak libratua behar zuela izan gizon bekhatorosen eskuetarar, izan behar zuela gurutzefikatua eta phiztu behar zuela hirugarren egunean». **8** Orhoitu ziren berehala haren erranez.

**9** Eta thonbatik bihurturik, kondatu zarozten hauk guziak hameka Apostoluei eta bertze guziei. **10** Ziren, bada, Maria Magdalena, Joana eta Maria Jakoberena eta hekien bertze lagunak, gauza hauk Apostoluei erraten ziotzatenak. **11** Baiñan hei eldarnio bat bezala iduritzen zitzaizten erran horiek eta ez zituzten sinhetsi. **12** Piarres, bada, altxaturik goan zen lausterrez thonbarat eta beheititurik, behatu ondoan ez zituen ikusi mihiseak baizen beregain ezarriak, eta bihurtu izan zen bere baitan miretsia gerthatu izan zenaz.

**13** Egun berean hetarik bia ziohazen herri batetarat, zeina baitzen Jerusalemetik hirur hogoi estadioren distantzian Emauz zeritzana. **14** Mintzo ziren elkharren artean iragan izan ziren guziez. **15** Eta elkharren solhasez eta arrozoinamenduz zeudezela, Jesus bera juntatu zen hekiekien bide beraz ziohala. **16** Hekien begiak ordean zarratuak bezala

ziren halako maneraz, non ez baitzuten ezagutzen. **17** Eta erran izan zaroen: «Zer solhas darabiltzatzue hor elkharren artean bidean goatean, eta zer duzue, horren triste baitzarete?». **18** Hitzza harturik hetarik batek Kleofas zeritzanak erran zioen: «Zu zare bakharra Jerusalem hain arrotz zarena, non ez baidakizkitzu han egun hautan arribatu diren gauzak?». **19** Erran zaroen hark: «Zer gauza?». Hek berriz ihardetsi izan zioten: «Jesus Nazarethakoaren sujetean iragan direnak, zein baitzen profeta bat obretan eta hitzetan botheretsua Jainkoaren eta populu guziaren aitzinean. **20** Nola libratu izan duten aphezen prinzeek eta gure kargudunek heriotzerat kondenatua izateko, eta nola gurutzefikatu izan duten. **21** Guk, bada, esparantza ginduen hura izanen zela Israel erresketatuko zuena; eta horiek guziekien ere, ja egun hirugarren eguna doha gauza horiek iragan direla. **22** Egia da, guretarikako emasteki batzuk espantatu ere gaituzte, ezen izan dire argitu baiño lehen thonbarat **23** eta, ez baidute han aurkhitu haren gorphutza, ethorri zaizkigu erraterat ikusi ere izan dituztela aingeru batzu, zeinek erran baidaroe bizi dela. **24** Gure artekoetarik zenbait goan izan dire thonbarat eta aurkhitu dituzte gauzak emasteek erran bezala, bainan bera ez dute aurkhitu».

**25** Jesusek orduan erran izan zaroen: «O adimendu gabeak eta profetek erran izan dituzten gauza guzien sinhesterat bihotz herabe zaretenak! **26** Halabeharra ez zen Kristok sofri zetzan horiek eta horla sar zedin bere glorian?». **27** Eta hasi Moise ganik eta profeta guzietarik, explikatuz zarozten Eskritura guzietan hartaz erranak izan zirenak. **28** Hurbill izan zirenean ziohazen herritik, egin zuen iduri hura urrunago goaki.

**29** Baiñan gelditu zuten bortxaz bezala erraten ziotelarik: «Zaude gurekien, zergatik berandua baida eta ja eguna beheratua». Eta sarthu izan zen hekiekien. **30** Hekiekien mahaiñean zegoela, hartu izan zuen ogia, benedikatu zuen eta hautsirik eman zaroen. **31** Denbora berean ideki ziren hekien begiak eta ezagutu izan zuten; bainan hura goan zitzaizen begietarik. **32** Orduan erran izan zioten elkharri: «Gure bihotza ez zen guzia irazakia gure barnean, hura bidean mintzo zitzaikunean eta Eskriturak explikatzen zarozkigunean?». **33** Altxaturik, bada, orduan berean bihurtu ziren Jerusalemearat; eta aurkhitu zituzten hameka Apostoluak eta hekiekien zadukateak elkharaganat bilduak, **34** zeinek baitzioten: «Jauna phiztu da egiarki eta agertu ere zaio Simoni». **35** Hek ere bere aldetik kondatu izan zuten zer bidean gerthatu zitzaizen eta nola zuten ezagutu ogiaren haustean.



**36** Horla mintzo zirela presententatu zen Jesus hekien erdian eta erran zaroen: «Bakea dela zuekien; ni naiz; ez zaitezela izi». **37** Baiñan hek guziak altaratuak eta ikharatuak imajinatzen ziren izpiritu bat zutela ikusten, **38** eta erran zaroen Jesusek: «Zergatik altaratzen zarete, eta zergatik heldu zaizkitzue horrenbat gogoeta bihotzatarat? **39** Ikusatitzue ene eskuak eta ene oinak, ni eta bera naizela. Uki nazazue eta mira. Izpiritu batek ez du ez haragirik ez hezurrik, eta ikusten duzue nik badudala». **40** Eta hori erran ondoan, erakutsi zarozten bere eskuak eta oiñak. **41** Oraino ordean hek ez baitzuten sinhesten eta miretsiak baizeudezen bozkarioaren fuertsaz, erran zaroen: «Baduzue hemen deusere jatekorik?» **42** Eta hek ekharri izan zioten arrain ere puska bat eta ezti orraze batetarik. **43** Jan zuen hekien aitziñean, eta harturik gelditu izan zen gaiñerakoa, eman zaroen hei, **44** eta erran zaroen: «Hauk dire nik ohi erraten nauzkizuenak oraino zuekien nintzengan, konplitu beharrak zirela Moiseren legean, profetetan eta salmoetan nitaz eskribatuak izan diren guziak».

**45** Orduan ernatu zaroen izpiritua Eskrituren aditzeko, **46** eta erran izan zaroen: «Hunela da eskribatua eta hunela behartzen Kristok sofri zezan eta hirugarren egunean phitz zedin hillen artetik, **47** eta predikatu izan zedin haren izenean penitentzia eta bekhatuen barkhamendua nazio- ne guzien artean, hasirik Jerusalemetik. **48** Zuek, bada, zarete lekhuko gauza horietaz. **49** Eta ni igortzerat nohatzue ene Aitak agindua zuen gaiñerat. Bizkitartean zaudete zuek hirian, izan zaitezketen artean bezti- tuak goratikako indarraz».

**50** Eraman zituen gero kanporat Bethaniarat eta eskuak altxaturik benedikatu izan zituen. **51** Eta hei benediziona ematearekien batean, goan zen hekien ganik eta igan zen zerurat. **52** Hek berriz hura adoratu eta bihurtu ziren Jerusalemrat bozkario handirekien; **53** eta bethi ziren tenpluan, Jainkoa laudatzen eta benedikatzten zutelarik. Amen.

## J. KRISTOREN EBANJELIO SAINDUA JONDONI JAUNIREN ARAUERA

### I. KAP.

**1** Haste hastean zen Berboa eta Berboa zen Jainkoa baitan eta Jainko zen Berboa. **2** Hura zen haste hastean Jainkoa baitan. **3** Gauza guziak hartaz izan dire egiñak eta egin izan denik deusere hura gabe ez da egin izatu. **4** Haren baitan zen bizitzea eta bizitzea zen gizonen argia. **5** Argiak du ilhunbeetan argitzen eta ilhunbeek ez dute hura hartu izan. **6** Izan zen gizon bat Jainkoaz igorria, Joanes zeritzana. **7** Ethorri izan zen hura lekhukotzat, argiari lekhukotasuna bihurtzeko, guziek hartaz sinhets zezatentzat. **8** Ez zen hura argia, baiñan zen argiari lekhukotasuna errendatzerat ethorria. **9** Zen argi egiazkoa, zeiñak argitzen baidu mundu huntarat heldu den gizon guzia. **10** Munduan zen eta mundua hartaz egiña izan da eta munduak ez du ezagutu. **11** Bereatarat ethorri izan da eta bereek ez dute hura errezibitu izan. **12** Baiñan errezibitu izan duten guziei eman izan daroe botherea Jainkoaren haur izateko, haiñei zeiñek sinhesten baidute haren izenean; **13** zeiñak ez baidire sorthu odoletik, ez haragiaren nahikundetik, ez eta gizonaren nahitik, baiñan bai Jainkoa ganik. **14** Eta Berboa haragi egin izan da eta egon da gure artean graziaz eta egiaz bethea; eta ikusi ere izan dugu haren gloria, Aitaren Seme bakhotoxaren gloria den bezalakoa. **15** Joanesek lekhukotasuna errendatzen du hartaz eta du oihu egiten diotsalarik: «Hau zen nik erraten nuena: Ene ondoan ethorriko dena ni baiño lehen da, zeren ni baiño aitzinagokoa baida». **16** Eta horren bethetasunetik dugu errezibitu guk guziek eta grazia graziarentzat. **17** Ezen legea Moisez emana izan da; ordean grazia eta egia Jesus Kristoz izan da ekharria. **18** Jainkoa egundaiño nihor ez du ikusi izan; Seme bakhotoxak, Aitaren galtzarrean denak, berak daroku ezagutarazi.

**19** Eta hau da Joanesen lekhukotasuna, juduek Jerusalemetik aphezak eta lebitak igorri izan ziotzatenekoa, galde hunen egiterat: «Nor zare zu?» **20** Aithortu zuen ezen eta ez zuen ukhatu, eta erran zuen haltoki: «Ez naiz ni Kristo». **21** Galdegin izan zioten: «Zer, bada? Elias zare?». Eta hark erran zaroen: «Ez naiz hura». Hek berriz: «Profeta zare?». Eta hark ihar-





detsi zaroen: «Ez». **22** Erran izan zioten, bada: «Nor zare?, errepusta eman diozotegun igorri izan gaituztenei. Zer diozu zure buruaz?». **23** «Ni naiz», diotsote, «boza desertuan oihuz dagoenarena: xuxen zazue jaunaren bidea, Isaiaz profetak erran izan duen bezala».

**24** Eta igorri izan zitzaizkoenak ziren farisauetarik. **25** Galdegin zioten berriz ere eta erran: «Zergatik, bada, hari zare bathaiatzen z, baldin ez bazare ez Kristo ez Eliaz eta ez profeta?». **26** Ihardetsi izan zaroen Joanesek eta erran: «Ni hari naiz bathatzen urezko bathaioz; zuen erdian da ordean batzuek ezagutzen ez duzuen. **27** Hura da ene ondoan ethorriko dena, ni baiño lehen dena, zeñaren zapata lokharria lextazeko ere ez bainaz ni digne». **28** Hauk ziren iragan Bethanian, Jordanaz bertze aldean, non hari baitzen Joanes bathaiatzen.

**29** Biharamunean ikusi izan zuen Joanesek Jesus haren ganat heldu zela eta erran izan zuen: «Horra Jainkoaren bildotsa; horra munduaren bekhaturia khentzen duena. **30** Hortaz erran izan dut: Ene ondoan heldu da gizon bat ni baiño lehen dena, zeren ni baiño aitziañagokoa baida. **31** Nik ez nakien hori zen, baiñan Israelen hori ezagut dezatentzat ethorri izan naiz ni, urezko bathaio bat ematerat». **32** Eta lekhukotasuna errendatu izan zuen Joanesek, erraten zuelarik: «Ikusi izan dut Izpiritua jausten uso kolomba bat bezala zerutik eta horren gainean gelditu izan da. **33** Nik ez nakien hori zela, baiñan ni igorri izan nauenak urezko bathaioa ematerat, berak erran izan darot: Noren ere gainerat ikusiko baidukezu Izpiritua jausten eta haren gainean egoten, eta hura diteke Izpiritu Sainduaren bathaioa ematen duena. **34** Neronek ikusi dut hori eta lekhukotasuna errendatu dut hori dela Jainkoaren Semea».

**35** Ondoko egunean berriz han baitzegoen oraiño Joanes bere bi dizipuluekien, **36** ikusirik Jesus iragaten, erran izan zuen. «Horra Jainkoaren bildotsa». **37** Eta bi dizipuluak hura aditurik horla mintzatzen, jarraiki zitzaizkon Jesusi. **38** Itzuli izan zen, bada, Jesus eta ikusirik hek zarraitzala, erran zaroen: «Zeren bilha zabiltzate?». Ihardetsi izan zioten hek: «Rabi (zeñiak erran nahi baidu Nausia), non egoten zare?». **39** «Zatozte», diotsote hark, «eta ikusazue». Goan ziren eta ikusi zuten non egoten zen eta haren baitan gelditu ziren egun hartan. Orduan egunaren hamargarren orena bezala ziteken. **40** Zen bada Andres, Simon Piarresen anaia, hetarik bat zeñek aditu baitzuten Joanesek zioena eta zeñak jarraiki baitzitzaizkon Jesusi. **41** Aurkhitu izan zuen hunek berehala Simon bere anaia eta erran zioen: «Aurkhitu dugu Mesiaz», zeñek erran nahi baidu Kristo. **42**

Eta erakharri izan zuen Jesusen ganat. Behaturik bada hari Jesusek, erran zioen: «Zu zare Simon Jonaren semea; zu izanen zare deithua Zefas», zeñek erran nahi baidu Harria.

**43** Biharamunean Jesusek goan gogo baitzuen Galilearat, aurkhitu izan zuen Filipe eta erran zioen: «Jarraik zakizkit». **44** Zen bada Filipe Bethsaidakoa, Andresen eta Piarresen herrikoa. **45** Filipek aurkhitu izan zuen Nathanael eta erran zioen: «Moisek legean eta profetek bere eskribuetan hanbat aipatu izan dutena aurkhitu dugu, Jesus Nazarethekoa, Josefen semea». **46** Eta erran zioen Nathanaelek: «Nazarethekorik ian ahal daiteke deusere onik?». Filipek erran zioen: «Zato eta ikusazu». **47** Ikusi baitzuen Jesusek Nathanael haren ganat heldu zela, erran zuen hartaz: «Horra egiazko israelita bat, zeñaren baitan ez baida enganiorik». **48** Erran izan zioen Nathanaelek: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek ihardetsi zioen eta erran: «Filipek deithu izan baiño lehen ikusi izan zaitut fiko ondoaren azpian». **49** Ihardetsi zioen Nathanaelek eta erran: «Nausia, zu zare Jainkoaren Semea, zu zare Israelgo erregea». **50** Erran zioen Jesusek: «Zeren erran darotzudan, Ikusi zaitut fiko ondoaren azpian, duzu sinhesten? Hori baiño handiagorik ikusiko bide duzu». **51** Eta erran zuen gehiagorik: «Egiaz egiaz darotzuet erraten: ikusiko duzue zerka idekirik eta Jainkoaren aingeruak igaten eta jausten Gizonaren Semearen gainerat».

## II. KAP.

**1** Handik hirur egunen buruan egin izan ziren estai batzu Kana Galileakoan; eta han zen Jesusen ama. **2** Gonbidatua izan zen, bada, Jesus ere bere dizipuluekien. **3** Eta eskastu baitzitzaien arnoa, erran izan zioen Jesusi bere amak: «Arnorik ez dute». **4** Ihardetsi zioen Jesusek: «Ematea, zer dohatzu zuri eta bai niri ere? Ez da oraino ethorri ene orena». **5** Erran zaroen, bada, haren amak zerbitzatzen hari zirenei: «Zer ere erranen baidarotzue, eta hura egizue». **6** Ziren, bada, han sei khuba harrizkoak ifiniak juduen garbikarientzat, zadukatenak bakhotxak bia edo hirur neurri handi. **7** Erran zaroen Jesusek: «Bethe zatzue khubak urez». Eta bethe zituzten gaineraiño. **8** Orduan erran zaroen Jesusek: «Erauts zazue orai eta eramazue estaietako nausiari». Eta eraman zioten. **9** Hunek, bada, dastatu izan zuenean ura arnorat ganbiatua, eta ez baitzeakien nondik zen (ordean bazekiten ura erautsi izan zuten sehiek), deitu izan zuen esposa, **10** eta erran zioen: «Mundu guziak lehenik arno ona ematen du eta, jendeak ungizko edanak direnean, orduan ematen dute hain ona ez dena;



baiñan zuk goardatu duzu arno ona orai arteraiño». **11** Mirakuilluen haste hori egin izan zuen Jesusek Kana Galileakoan eta hortik zuen ezagutara zi bere gloria eta haren dizipuluek sinhetsi zuten haren baitan.

**12** Ondoan goan zen bere amarekien, anaiekien eta dizipuluekien Kafarnaumat eta egun gutiz egon ziren han. **13** Ezen hurbill baitzen juduen Bazkoa, goan zen Jesus Jerusalemerat. **14** Eta aurkhitu baitzituen tenpluan jendeak idien, xikhiroen eta uso kolonben saltzen hari zirenak eta diru ganbiatzaileak jarriak, **15** egin izan zuen azote bat bezala kordelez eta kasatu zituen guziak tenplutik, xikhiroekien eta idiekien; arthiki zuen lurrerat ganbiatzaileen dirua eta irauli zituen hekien mahaiñak. **16** Eta uso kolonba saltzaileei erran izan zaroen: «Khen zatzue horiek hemendik eta ez dezazuela egin ene Aitaren etxeaz merkaduriako etxe bat». **17** Orhoitu izan orduan haren dizipuluak eskribatua dela: «Zure etxearen zeloak jaten nau». **18** Hitza harturik, bada, juduek erran zioten: «Zer mirakuillu erakusten darokuzu horlako gauzen egiteko?». **19** Ihardetsi zaroen Jesusek eta erran: «Desegin zazue tenplu hau eta hirur egunik barnean nik dut berestaturako». **20** Erran zioten bada juduek: «Berrogoi eta sei urthez izan da bastitua tenplu hau eta zuk duzu altxatuko hirur egunik barnean?». **21** Hura ordean mintzo zen bere gorphutzaren tenpluaz. **22** Biztu izan zenean bada hilletarik, orhoitu ziren haren dizipuluak hori zela hark erraten zaroena eta sinhetsi zuten Eskritura, bai eta Jesusek erran zaroena. **23** Jerusalemenean, bada, Bazko bestaren denboran, hainitzek sinhetsi izan zuten haren izenean, ikusirik hark egiten zituen mirakuilluak. **24** Jesus bera ordean ez zitzaien fidatzen hei, guziak ezagutzen baitzituen, **25** eta ez baitzuen mengoarik nihork lekhukotasunik errenda ziozan gizonez; bazeakien ezen berak gizonaren baitan zer zen.

### III. KAP.

**1** Farisauetarik bat Nikodeme zeritzana, juduen artean gizon behatua, **2** ethorri izan zen Jesusen ganat gauaz eta erran zioen: «Nausia, badakigu Jainkoaz igorria zarela irakasterat; ezen nihork ezin egin detzake zuk egiten dituzun mirakuillu horiek, baldinetariak Jainkoa harekien ez bada». **3** Ihardetsi izan zioen Jesusek eta erran: «Egiaz egiaz darotzut erraten, nihork ezin ikus dezakela Jainkoaren Erresuma, baldin berriro berriz sortzen ez bada». **4** Erran zioen Nikodemek: «Nola sor daiteke gizon bat ja zahar dena? Ala sar ahal othe daiteke berriz ere bere amaren sabelean, bigarren aldi batez sortzeko?». **5** Jesusek ihardetsi zioen: «Egiaz egiaz

darotzut erraten, gizon baldinetariak berriro sortzen ez bada urez eta Izpiritu Sainduaz, ezin sar daitekela Jainkoaren Erresuman. **6** Haragitik sorthu dena haragi da eta Izpiritutik sorthu dena Izpiritu da. **7** Ez dezazula mirets, zeren erran darotzudan berriz ere sorthu beharrak zaretela. **8** Izpirituak nahi duen tokirat darauntsa eta aditzen duzu haren hotsa; ordean ez dakizu nondik heldu den, ez norat dohan; gauza bera da Izpirituz sorthu ditekenez guziak». **9** Erran izan zioen Nikodemek: «Nola egin ahal ditezke horiek?». **10** Ihardetsi zioen Jesusek: «Nausitzat zare Israelen eta hori ez dakizu? **11** Egiaz egiaz darotzut erraten, dakigunaz gu mintzo garela eta ikusi dugunaz errendatzen dugula lekhukotasuna eta hala ere gure lekhukotasuna ez duzue errezibitzen. **12** Baldinetariak lurreko lengoaiaz mintzo natzaitzueanean ez banauzue sinhesten, nola sinhetsiko nauzue zeruko lengoaiaz mintzatuko natzaitzueanean? **13** Halaber nihor ez da igan izan zerurat, zerutik jautsi izan dena baizen, erran nahi da Gizonaren Semea, zeña baida zeruan. **14** Eta nola ere Moisek altxatu izan baitzuen sugea desertuan, hala da mengoa izan dadin altxatua Gizonaren Semea, **15** haren baitan sinhesten duenik batere gal ez dadintzat, aitzitik izan dezantzat bizitze eternala. **16** Halako maneraz ezen Jainkoak maitatu izan du mundua, non eman izan baidu bere seme bakhotxa, haren baitan sinhesten duena gal ez dadintzat; aitzitik izan dezantzat hainak bizitze eternala. **17** Ez du ezen igorri izan Jainkoak bere Semea mundurat mundua juia dezantzat; aitzitik bai mundua hartaz salbatua izan dadintzat. **18** Haren baitan sinhesten duena ez da kondenatua, ordean sinhesten ez duena ja kondenatua da, zeren ez baidu sinhesten Jainkoaren Seme bakhotxaren izenean. **19** Eta kondenezioarean sujeta da, argia ethorri izan baida mundurat eta gizonek maitatu izan baidituzte gehiago ilhunbeak ezen ez argia; zeren gaixtoak baitziren hekien obrak. **20** Ezen gaixki egiten duen guziak gaitsesten du argia eta ez da ethortzen argirat, beldurrez ezen haren obrak ager daitezzen; **21** baiñan egiaren arauera hari dena ethortzen da argirat, ager daitezentzat haren obrak, zergatik Jainkoaren arauera egiñak baidire».

**22** Horien ondoan Jesus eta bere dizipuluak ethorri ziren Judearat; egon zen han hekiekien zenbait denboraz eta hari zen bathatzen. **23** Hari zen, bada, Joanes ere bathaiatzen Enonen, Salingo ondoan, zeren ur hainitz baitzen han, eta heldu ziren harat jende hainitz bathaiatuak izaterat, **24** ezen ez zen oraiño orduan Joanes emana izan presondegian. **25** Iharduki zuten, bada, Joanesen dizipuluetarik zenbaitek juduekien bathaioaren gainetik. **26** Eta ethorriarik Joanes ganat erran zioten: «Nausia, Jordango bertze aldean zurekien zena, zeinari zure lekhukotasuna bihurtu bai-



diozu, huna non hari den bathaiatzen eta guziak haren ganat dohaz». 27 Ihardetsi zaroen Joanesek eta erran: «Nihork ezin har dezake beretzat, zerutik emana izan zaioena baizen. 28 Zebonek lekhukotasuna errendatzen darotazue, erran dudala: ez naiz ni Kristo, bainan igorria izan naizela haren aitzinerat. 29 Esposa da bainan zeñaren baida Esposa; ordean esposaren adiskidea, haren aditzen dagoena, bozkarioz bethea da, zeren aditzen duen esposaren boza; eta horra zerk egiten duen ene bozkarioa ezin gehiagokoa. 30 Hark behar du handitu, nik berriz xumetu. 31 Goratik ethorri izan dena guzien gaineko da; lurretik heldu dena lurrekoa da eta lurreko bezala mintzo da; zerutik ethorri dena guzien gaineko da. 32 Eta zer ere ikusi eta aditu baidu, eta hartaz lekhukotasuna errendatzen du; ordean nihork ez du errezibitzen haren lekhukotasuna. 33 Haren lekhukotasuna errezibitu duenak seiñalatu duke Jainkoa egiatia dela. 34 Ezen Jainkoak igorri izan duenak Jainkoaren hitz berak erraten ditu; zeren ez baidio hari neurritz ematen Jainkoak bere Izpiritua. 35 Aitak maite du Semea eta eman diotza gauza guziak eskuetarat. 36 Semea baitan sinhesten duenak badu bizitzea eternala; baiñan Semea sinhesten ez duenak ez du ikusiko bizitzea, aitzitik Jainkoaren kolera haren gainean dago».

#### IV. KAP.

1 Ezagutu izan zuenean, bada, Jesusek aditu zutela farisauek dizipulu gehiago egiten zuela eta bathaiatzen zuela ezen ez Joanesek, 2 Jesus hari ez zen arren bathaiatzen, baiñan bai haren dizipuluak, 3 utzi izan zuen Judea eta goan zen berriz ere Galilearat. 4 Iragan behar zuen bada Samariatik, 5 eta arribatu zen Samariako hiri Sikar zeritzan batetarat, Jakobek bere seme Josefi eman izan zioen putzuren hurbillerat. 6 Zen, bada, han Jakobek ithurria eta Jesus bidean unhatua baitzen, jarri zen berehala ithurri haren gainean. Orena zen egunaren seigarrena bezala. 7 Ethorri izan zen emasteki bat Samariakoa ur erausterat eta Jesusek erran izan zioen: «Indazu edaterat». 8 (Ezen haren dizipuluak goanak ziren hirirat jateko erosterat). 9 Ordean emaste samaritano hark erran zioen: «Nola zuk judutarra zarelarik niri galdetzen darotazu edaterat, ni bainaiz emaste samaritarra?». Ezen ez dute erkidetasunik judutarrek samaritanoekien. 10 Jesusek ihardetsi izan zioen eta erran: «Baldin ezagutzen bazindu Jainkoaren dohaiña eta nor den zuri erraten darotzuna, Indazu edaterat, zeronek galdetuko bide ziñoen hari eta emanen baitzarotzun ur bizi batetarik». 11 Erran zioen emasteki hark: «Jauna, ez duzu eta zertan erauts eta putzua

behera da; nondik zindukeen beraz ur bizi hura? 12 Ala zu handiago zare gure aita Jakob baiño, zeinak eman izan baidaroku putzu hau eta berak edan izan baidu huntarik, eta bai haren umeek eta haren abreek ere?». 13 Ihardetsi zioen Jesusek eta erran: «Ur huntarik edan duen guzia egarrituko da berriz ere; ordean nik emanen diodan uretik edanen duena sekulan ez da egarrituko. 14 Baiñan nik emanen diodan ura eginen da haren baitan bizitze eternaleraino jauziz dohan urezko ithurri bat». 15 Erran zioen emaste hark: «Jauna, indazu ur hartarik, gehiago egarri ez nadin eta ethor ez nadin hunat erausterat». 16 Erran zioen Jesusek: «Zohaz, deit zazu zure senharra eta zato hunat». 17 Ihardetsi izan zioen emaste hark eta erran: «Nik ez dut senharrik». Erran zioen Jesusek: «Ungi erran duzu ez duzula senharrik, 18 ezen bortz senhar izatu ditutzu eta orai duzuna ez da zure senharra; hori egia erran duzu». 19 Erran zioen emaste hark: «Jauna, ikusten dut profeta zarena. 20 Gure aitek adoratu izan dute mendi huntan eta zuek diozue Jerusalem dela lekhua, zeinetan behar baida adoratu». 21 Erran zioen Jesusek: «Emastea, sinhets nazazu heldu dela ordua eta orena, non ez baiduzue gehiago adoratuko Aita ez mendi huntan eta ez Jerusalem. 22 Zuek adoratzen duzue ezagutzen ez duzuen; guk adoratzen dugu ezagutzen duguna, ezen salbamendua juduetarik heldu da. 23 Baiñan heldu da ordua eta ethorri ere da, zeñetan egiazko adoratzailleek adoratuko baidute Aita Izpirituz eta egiaz; ezen ene Aitak halako adoratzailleak bilhatzen ditu. 24 Jainkoa Izpiritu da eta hura adoratzen dutenek Izpirituz eta egiaz behar dute adoratu». 25 Ihardetsi izan zioen emaste hark: «Badakit Mesias, erran nahi da Kristo, ethortzeko dagoela. Dathorrenean, bada, hark irakatsiko darozkigu gauza guziak». 26 Erran zioen Jesusek: «Ni neroni naiz, zurekien mintzo naizena». 27 Momentu hartan ethorri ziren haren dizipuluak eta miretsi zuten zeren emasteki batekien minzo zen. Halarik ere nihork ez zioen erran: Zer galdetzen diozu edo zertaz mintzo zare horrekien? 28 Utzi zuen, bada, han emaste hark bere pegarra; goan zen hirirat eta erran zaroen hango jendeei: 29 «Zatozte eta ikusazue gizon bat, zeñak erran baidarozkit egundaino egin izan ditudan guziak; hura ez othe da Kristo?». 30 Ilkhi ziren, bada, hiritik eta abiatu ziren haren ganat. 31 Bizkitartean othoitzez zegozkon dizipuluak ziotsotelarik: «Nausia, jan zazu». 32 Ordean hark erran zaroen: «Nik janari bat badut jateko, zuek ez dakizuen». 33 Ziotsoten bada dizipuluek elkharri: «Nihork ekharri othe dio jaterat?». 34 Erran zaroen Jesusek: «Ene jatekoa da egitea ni igorri izan nauenaren borondatea eta akhabatzea haren obra. 35 Zebonek ez duzue erraten ez direla laur ilhabete baizen uztarat? Nik darotzuet bada erraten: Altxa zatzue zuen begiak eta ikusatzizue baste-



rrak ja aski direla xurituak uztaren biltzeko. **36** Uzta biltzen duenak errezibitzen du saria eta biltzen ditu fruituak bizitze eternalekotzat, ereiten duena bozkaria dadintzat, bai eta biltzen duena ere. **37** Huntan ezen egiazkoa gerthatzen da ohiko erran hau: Batak du ereiten eta bertzeak du biltzen. **38** Nik igorri izan zaituztet biltzerat zebek landu ez duzuen; bertzek landu dute eta zuek sarthu zarete hekien lan egiñetan».

**39** Hiri hartako samaritanoetarik hainitzek sinhetsi izan zuten haren baitan emasteki haren erranaren ariaz, zeinak segurutzen baitzituen erran izan ziotzala egundaino egin izan zituen guziak. **40** Ethorri izan zirenean, bada, haren ganat samaritanoak, jarri zitzaizkon othoitzez egon zedilla zenbait denboraz hekien hirian; eta egon zen han bi egunez. **41** Eta hainitz gehiagok sinhetsi zuten are, zeren bera aditu zuten mintzatzan. **42** Erraten ere zioten emaste hari: «Gaurgora ez bide dugu zure errana gatik sinhesten; geronek ezen aditu dugu eta badakigu hau dela egiazki munduaren salbatzailea».

**43** Bi egunen buruan ilkhi zen handik eta goan zen Galilearat, **44** ezen Jesusek berak deklaratu izan du profeta bat ez ohi dela bere herrian ohoratua. **45** Ethorri zenean bada Galilearat, egin zioten begitarte galilearrek, ikusi izan baitzituzten hark bestako denboran Jerusalemen egin zituen guziak; hek ere ezen harat goanak ziren bestakotzat.

**46** Goan zen, bada, bigarren aldian Kana Galileakorat, zeinñetan ganbiatu izan baitzuen ura arnorat, eta zen han jaun bat, zeinaren semea baitzen eri Kafarnaumen. **47** Hunek aditu zuenean ethorri zela Jesus Judeatik Galilearat, goan zitzaion eta othoiztu zuen ethor zekioela bere semea sendatzerat, ezen hiltzen hari zen. **48** Erran zioen bada Jesusek: «Non ez ditutzuen ikusten mirakuilluak eta gauza ohiz kanpokoak, ez dezakezue sinhetsi». **49** Erran zioen jaun hark: «Jauna, zato, othoi, ene semea hill baiño lehen». **50** Erran zioen Jesusek: «Zohaz, zure semea bizi da». Sinhetsi zuen gizonak Jesusek erran zioena eta goan zen. **51** Bidean ziohala bathu zitzaizkon bere zerbitzari zenbait eta erran zioten haren semea sendo zela. **52** Galdegin zaroen, bada, zer orenez ungitu izan zen eta hek erran zioten: «Atzo zazpigarrenean orenean utzi izan baidu sukharrak». **53** Ezagutu zuen aitak oren hura bera zela, zeinñetan erran izan baitzioen Jesusek, Zure semea bizi da, eta sinhetsi izan zuen eta bai haren etxe guziak ere. **54** Hori da bigarren mirakuillua, Jesusek egin izan zuena ethorri zenean Judeatik Galilearat.

## V. KAP.

**1** Horien ondoan juduen bezta bat ethorri baitzen, goan zen Jesus Jerusalemert. **2** Da, bada, Jerusalemen ardiak garbilekhu bat, hebraikoz Bethsaida daritzana, borts aldamiotakoa. **3** Hetan zetzan eriz nonbre handi bat, itsu, maingu, hebaindu zirenak, ura noiz higituko zen begira zeudezenak. **4** Ezen Jaunaren aingerua jausten zen denbora batzutan piszina hartarat eta ura higitzen zen; eta piszinarat lehenbizi jausten zena ura higitu ondoan, sendatzen zen zernahi eritasun zukeen. **5** Zen, bada, gizon bat han hogoi eta hemezortzi urthe hartan errasunak zadukana. **6** Hau ikusi izan zuenean Jesusek etzana, baitzeakien ja aspaldidanik zela eri, erraten dio: «Nahi duzu sendatu?». **7** Ihardetsi zioen eriak: «Jauna, nihor ez dut ura higi ditekenean piszinarat arthik nazakenik, ezen ni harat nohaken bizkitartean, bertze norbait jausten da ni baiño lehen». **8** Erraten dio Jesusek: «Altxa zaitte, eramazu zure ohea eta ibill zaitte». **9** Eta berehala sendatu izan zen gizon hura; eta harturik bere ohea abiatu zen.

Zen, bada, egun hartan sabatoa. **10** Ziotsoten, bada, judutarrek sendatu izan zen hari: «Sabatho eguna da egun; ez zaitzu zilhegi zure ohea eramatea». **11** Ihardetsi zaroen hark: «Sendatu nauenak berak erran darot: Eramazu zure ohea eta ibill zaitte». **12** Galdegin zioten, bada: «Zein da gizon hura, zeinñek erran izan baidarotzu: Eramazu zure ohea eta ibill zaitte?». **13** Ordean sendatua izan zenak ez zakien nor zen, ezen Jesus aldaratu izan zen lekhu hartan zen jendetze artetik. **14** Gero ondoan aurkhitu izan zuen Jesusek gizon hura tenpluan eta erran zioen: «Horra non zaren sendatua; bada gehiago bekhaturik ez dezazula egin, gaixtoagokorik zerbait gertha ez dakizun». **15** Goan zen gizon hura eta kondatu zaroen juduei Jesus zela hura sendatu izan zuena. **16** Eta horren ariaz zuten persekutatzan Jesus juduek, zeren gauza horiek egiten zituen sabatho egunean. **17** Jesusek ordean erraten zaroen: «Ene Aita bethi hari da eta bai ni ere». **18** Horren gatik, bada, ziren juduak gehiago aihur hura hillarazi nahiz, zeren ez xoilki hausten baitzuen sabatho eguna, baiñan oraiño erraten ere baitzuen bere Aita zuela Jainkoa, bere burua Jainkoaren pare egiñik.

Horren gainean ihardetsi izan zaroen Jesusek eta erran: **19** «Egiaz egiaz darotzuet erraten: ezin dagike Semeak deusere bere ganik; ez du egiten Aitari egiten ikusten dioena baizen; ezen Aitak egiten duen guzia du halaber egiten Semeak ere. **20** Zergatik Aitak maite baidu Semea eta erakusten baidiotza berak egiten dituen guziak; eta erakutsi diotza hauk



baño obra handiagoak ere oraiño, zuek mirets dezazuentzat. **21** Ezen nola Aitak bizten baiditu hillak eta ematen baidaroe bizitzea, hala Semeak ere bizia ematen daroe nahi dituenen. **22** Aitak ez du juleatzen nihor, baina juleatzeko bothere guzia eman izan dio Semeari, **23** guziek ohora dezazentzat Semea, Aita ohoratzen duten bezala; Semea ohoratzen ez duenak ez du ohoratzen Aita, zeñiek igorri izan baidu hura. **24** Zin ziñez darozuet erraten, ene hitza entzuten duenak eta ni igorri izan nauena sinhesten duenak, baduela bizitzea eternala; eta haiña ez da erortzen kondena-zionean, aitzitik iragana diteke heriotzetik bizitzerat. **25** Egiaz egiaz darozuet erraten, heldu dela denbora eta ja ethorri ere dela, zeñietan hillek entzunen baidute Jainkoaren Semearen boza, eta entzunen duketenak biziko dire; **26** ezen nola Aitak bere baitan baidu bizitzea, hala eman izan dio Semeari ere bere baitan izan dezan bizitzea. **27** Eta eman izan dio botherea juleatzeko, zeren den Gizonaren Semea. **28** Ez dezazuela mirets hori, zergatik heldu bada denbora, zeñietan thonbetan diren guziek entzunen baidute Jainkoaren Semearen boza. **29** Eta goanen dire ungi egin izan dutenak bizitzeko erresurrekzionerat, ordean gaixki egin izan dutenak kondena-zioneako erresurrekzionerat. **30** Nik ezin dagiket neure bait-harik deusere; nola aditzen baidut, eta hala juleatzen dut eta ene juleamendua justua da; zeren ez baidut bilhatzen ene nahia, baiñan bai ni igorri izan nauenarena. **31** Baldiñetarik nik errendatzen badut lekhukotasuna neure buruaz, ene lekhukotasuna ez da leiala. **32** Bertze bat bada lekhukotasuna errendatzen duena nitaz; eta badakit leiala dela hark nitaz ematen duen lekhukotasuna. **33** Zuek igorri izan duzue Joanesen ganat eta hark lekhukotasuna errendatu izan dio egari. **34** Nik ordean ez dut gizonetarik errezibitzen lekhukotasuna; baiñan hauk erraten ditut zuek salbatuak izan zaitezentzat. **35** Hura zen lanpa irazaki bat eta argi egiten zuena; zuek, bada, nahi izan duzue ordu batetaraño alegeratu haren argian. **36** Nik ordean badut lekhukotasun bat handiagoa Joanesena baiño, ezen Aitak egiterat eman darozkidan obrek, nik egiten ere ditudan obra hek berek dute lekhukotasuna errendatzen nitaz, Aitak igorri izan nauela ni. **37** Eta ni igorri izan nauen Aitak berak lekhukotasuna errendatu izan du nitaz. Haren boza egundaiño ez duzue aditu, ez eta deusere ikusi haren iduria dakharkenik. **38** Eta haren hitza ez duzue goardatzen zebe baitan, zeren eta hark igorri izan duena ez baiduzue sinhesten. **39** Irakurtzen dituzte arthoski Eskriturak, zeren uste baiduzue hekien bidez izanen duzuela bizitzea eternala. Eta bizkitartean hek dire lekhukotasuna errendatzen dutenak nitaz. **40** Ordean zuek ez duzue nahi ethorri ene ganat, bizitzea duzuentzat. **41** Gloriarik nik ez dut nahi gizonetarik. **42** Baiñan zuek eza-

gutzen zaituztet, ezen Jainkoaren amudiorik ez duzuela zuen baitan. **43** Ni ethorri izan naiz ene Aitaren izenean eta ez nauzue errezibitzen; baldiñetarik bertze bat ethor badadi bere izenean berean, hura errezibituko dukeue. **44** Nola sinhets ahal dezakeue zuek, zeñiek lakhet baiduzue bata bertzea ganik gloria errezibitzea, eta ez baiduzue bilhatzen Jainkoa bera ganik heldu den gloria? **45** Ez dezazuela uste izan, ezen nik zaituztedala akusatuko zuek Aitaren aitzinean; baduzue akusatzen zaituzten bat, Moise, zeina baitan baiduzue zuek esperantza. **46** Ezen baldinetarik sinhesten bazindute Moise, sinhets nintzakeue agian ni ere, nitaz ezen hark eskribatu izan baidu. **47** Baldin ordean haren liburuentzat ez baduzue sinheterik, nola izanen duzue ene erranentzat?».

## VI. KAP.

**1** Horien ondoan goan zen Jesus Galileako itsasoaz bertze alderat Tiberiako parterat. **2** Eta bazarraikon jende oste handi bat, zeren ikusten baitzituzten eri zirenen gaiñean egiten zituen mirakuilluak. **3** Igan zen, bada, Jesus mendi batetarat eta jarri zen han bere dizipuluekien. **4** Eta hurbill zen Bazko, juduen bezta egun handia. **5** Goititu zituenean, bada, begiak Jesusek eta ikusi izan zuenean jendetze handi bat heldu zela haren ganat, erran zioen Filiperi: «Nondik erosiko ditugu ogiak hauei guziei jaterat emateko?». **6** Hori ordean erraten zuen hura tentatzea gatik, bazakien ezen berak zer egiterat ziohan. **7** Ihardetsi izan zioen Filipek: «Berrehun denarioren ogia ez liteke aski bakhotxari den gutiena ere emateko». **8** Erran izan zioen bere dizipuletarik batek, Andres Simon Piarresen anaiak: **9** «Bada hemen muthilko bat, zeñiek baiditu bortz ogi garagarrezko eta bi arrain; ordean horiek zer dire hunenbertze mundurentzat?». **10** Erran zaroen bada Jesusek: «Jarraraz zatzue jende horiek». Zen sorho handi bat lekhu hartan eta jarri ziren bortz milla gizon edo. **11** Hartu zituen Jesusek ogiak eta bihurtu ondoan eskerrak, partitu zarozten jarriak zirenei; halaber arrainetarik ere eman zaroen nahi zuten bezanbat. **12** Sasiatu izan zirenean, erran zaroen bere dizipuluei: «Bil zatzue sobratu diren puskak, gal ez daitezen». **13** Bildu izan zituzten, bada, eta bethe zituzten hamabi saski bortz ogi garagarrezko zathiz, jan zituztenei sobratu zitzaiztenetarik. **14** Eta gizon hek ikusi ondoan Jesusek egin izan zuen mirakuillua, erraten zuten: «Hau diteke segurki mundurat ethortzeko zegoen profeta». **15** Jesusek, bada, ezagutu izan zuen ethorriko zirela haren altzatzerat hura errege egiteko eta goan zen ihesi berriz ere mendi-



rat bera baxharrik. **16** Arratsa ethorri zenean, goan izan ziren haren dizipuluak itsaso basterrerat; **17** eta barku batetarat iganik, iragan ziren itsasoaz bertze alderat Kafarnaumeko parterat; eta ja ilhundu ere zen eta Jesus hekien ganat ez baitzen ethorri. **18** Bizkitartean haize handia baitzen, hasi zen itsasoa handitzen. **19** Eta arrauketan egin ondoan hogoi eta bortz edo hogoi eta hamar estadio bezala, ikusi zuten Jesus uraren gainean zebilala eta hekien barkurat hurbiltzen zela; eta izitu ziren. **20** Hark bada erraten daroe: «Ni naiz, ez zaitetzela izi». **21** Nahi izatu zuten, bada, hartu barkurat eta berehala barkua arribatu zen hek ziohazen leihorreat.

**22** Biharamunean itsasoaren bertze aldean gelditu zen jendetzeak ikusi zuen ez zela han eta ez zela sarthu izan Jesus bere dizipuluekien barku hartan, aitzitik haren dizipuluak berak goan zirela; izatu bertze barkurik, bat hura baizen. **23** Baiñan bertze barku batzu ethorri izan baitziren Tiberiadatik lekhu haren alderat, zeinetan ogia janarazi baitzaroen Jaunak eskerrak bihurtu ondoan, **24** ikusirik jende hek Jesus ez zela han, ez eta haren dizipuluak ere, igan ziren barku hetarat eta ethorri ziren Kafarnamerat Jesusen bilha. **25** Eta aurkhitu zutenean itsasoaz bertze aldean, erran izan zioten: «Nausia, noiz ethorri zare hunat?».

**26** Ihardetsi zaroen Jesusek: «Ziñ ziñez darotzuet erraten: Ene bilha zabiltzate, ez zeren ikusi ditutuzen mirakuilluak, baiñan bai zeren jan duzuen ogietarik eta ase izan zareten. **27** Zakizkote ez galtzen den ogiari, baiñan bizitze eternaleraño irauten duen ogiari, zeña emanen baidarotzue Gizonaren Semeak, hura ezen seiñalatu izan du Jainko Aitak».

**28** Erran zioten bada hek: «Zer egiñen dugu Jainkoaren obrak egiteko?». **29** Ihardetsi izan zaroen Jesusek eta erran: «Hauxe da Jainkoaren obra, .sinhets dezazuen hark igorri izan duena baitan». **30** Erran zioten berriz hek: «Zer mirakuillu egiten duzu, bada, ikus dezaguntzat eta sinhets zaitzaguntzat? Zer obra egiten duzu? **31** Gure aitek jan izan dute Mana desertuan, eskribatua den bezala: Zerutikako ogia eman izan daroe jaterat». **32** Erran zaroen bada Jesusek: «Ziñ ziñez darotzuet erraten: ez darotzue Moisek eman izan zerutikako ogia, baiñan ene Aitak ematen darotzue zerutikako ogi egiazkoa. **33** Ezen Jainkoaren ogia da zerutik jautsi dena eta munduari bizitzea ematen dioena».

**34** Erran zioten berriz hek: «Jauna, iguzu bethiere ogi hura». **35** Erran zaroen bada Jesusek: «Ni naiz bizitzearen ogia; ene ganat heldu dena ez da gosetuko eta ene baitan sinhesten duena ez da egarrituko behinere. **36** Baiñan erran darotzuet ja: ikusi nauzue eta ez nauzue sinhesten. **37** Aitak

niri ematen darotan guzia ene ganat ethorriko da eta ene ganat dathorke-na ez dut nik kanporat arthikiko; **38** Zeren jautsi izan bainaiz zerutik ez neure nahia egiteko, baiñan bai ni igorri izan nauenarena. **39** Ni igorri izan nauen Aitaren borondatea hauxe da, bada: hark eman izan darotan guzitik deusere gal ez dezadan, aitzitik pitzberri dezadan hura azkeneko egunean. **40** Hau da ezen ni igorri izan nauen Aitaren nahia: Semea ikusten duen guziak eta haren baitan duenak sinhesten, izan dezan bizitze eternala, eta nik pitzberrituko dut haina azkeneko egunean».

**41** Bazarasaten bada juduek hartaz, zeren erran zuen: «Ni naiz ogi bizia, zeruti jautsi izan naizena», **42** eta zioten: «Ez da hori Jesus Josefen semea, zeinaren alta eta ama ezagutzen baiditugu? Nolatan dio, beraz, horrek zerutik jautsia dela?» **43** Ihardetsi zaroen Jesusek eta erran: «Ez dezazuela eras horla elkharren artean. **44** Nihor ezin dathorke ene ganat, baldin ni igorri izan nauen Aitak ez badu erakhartzen; eta nik dut hura phiztuko azkeneko egunean. **45** Eskribatua da profetetan: Izanen dire guziak Jainkoaren ikhasdiarrak. Nork ere, beraz, aditu izan baidu Aitagani eta ikhasi, heldu da hura ene ganat. **46** Ez Aita ikusi duelakoan nihork, hainak baizen zeina heldu baida Jainkoa ganik; ezen hura da Aita ikusi izan duena. **47** Egiaz egiaz darotzuet erraten: Ene baitan sinhesten duenak badu bizitze eternala

**48** Ni naiz bizitzearen ogia. **49** Zuen aitek jan izan dute Mana desertuan eta hill izan dire. **50** Hau da ogia zerutik jautsia, huntarik jaten duena hill ez dadintzat. **51** Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsi izan naizena. **52** Baldin norbaitek jaten badu ogi huntarik, biziko da hura eternitatean; eta nik emanen dudana ogia ene haragia da, munduaren bizitzearentzat emanen dudana».

**53** Zihardukaten bada juduek elkharren artean, erraten zutelarik ezen: «Nola eman ahal diezakegu hunek bere haragia jaterat?». **54** Erran izan zaroen bada Jesusek: «Egiaz egiaz darotzuet erraten: baldiñetariak ez baduzue jaten Gizonaren Semearen haragia eta edaten haren odola, ez duzue izanen bizitzea zebe baitan. **55** Ene haragia jaten duenak eta ene odola edaten duenak badu bizitze eternala eta nik dut pitzberrituko azkeneko egunean. **56** Ene haragia ezen egiazki da janharria eta ene odola egiazki da edaria. **57** Ene haragia jaten duena eta ene odola edaten duena ene baitan egoten da eta ni nago haren baitan. **58** Nola ni igorri bainau Aita bizi denak eta ni bizi bainaiz Aitarentzat, hala ni jaten nauena ere biziko da enetzat. **59** Hau da ogia zerutik jautsi izan dena; ez zuen aitek bezala,



zeiñek jan izan baitzuten Mana eta hill baitziren; ogi hau jaten duena bizi-ko da eternitatean». **60** Hauk dire Jesusek erran izan zituenak sinagogan, irakasten hari zela Kafarnaumen.

**61** Haren dizipuluetarik, bada, hainitzek horiek aditurik erran izan zuten: «Dorphea da solhas hori, eta nork adi ere dezake?». **62** Baiñan Jesusek bere baitan baitzeakien bazarasatela hortaz haren dizipuluek, erran izan zaroen: «Horrek eskandalisatzen zaituzte? **63** Ikusten bazindute, bada, Gizonaren Semea igaten lehen zen lekhurat? **64** Izpiritua da biziara-zitzen duena, haragia ez da deusetako. Nik zuei erraten darozkitzuedan hitzak Izpiritu eta bizitze dire. **65** Ordean badire zuetarik batzu sinhesten ez dutenak». Bazeakien ezen haste hastetik Jesusek nor ziren sinhesten ez zutenak, eta bai zein zen hura trahituko zuena ere. **66** Eta ziotsan: «Hargatik erran izan darotzuet nihor ezin dathorkela eneganat, baldinetariak eman ez bazaio ene Aitaz».

**67** Ordudanik haren dizipuluetarik hainitz goan ziren gibelat eta ez zabiltzan harekien gehiago. **68** Erran zaroen bada Jesusek hamabiei: «Ez duzue nahi goan zuek ere?». **69** Ihardetsi izan zioen Simon Piarresek: «Jauna, norenganat ginohazke? Bizitze eternalaren hitzak ditutzu eta **70** guk sinhetsi izan dugu eta bai ezagutu ere zu zarela Kristo Jainkoaren Semea». **71** Ihardetsi zaroen Jesusek: «Ez zaituztek nik hamabi hautatu zuek? Eta bizkitartean zuetarik bat deabru da». **72** Mintzo zen Judas Iskariote Simonenaz, zeren hau baitzen hura trahituko zuena, hamabietarik bat zen arren.

## VII. KAP.

**1** Ondoan, bada, abiatu zen Jesus Galilean ibiltzen, ez baitzuen nahi goan Judearat, zeren juduak hura hillarazi nahiz baitzebiltzan. **2** Baiñan hurbill baitzen juduen besta Tabernakleena, **3** erran izan zioten bere anaiek: «Abia zaite hemendik eta zohaz Judearat, zure dizipuluek ikus dezaten gatik ere zuk egiten ditutzun obrak. **4** Nihork ezen ez du deusik gordeka egiten, bera agertu nahiz dabillanek; horlako gauzak egiten ditutzunaz geroz, ager zakizko zeroni munduari». **5** Haren anaiek ere ezen ez zuten sinhesten haren baitan. **6** Erran zaroen bada Jesusek: «Ene denbora ez da oraiño ethorri; baiñan zuentzat bethi da muga. **7** Munduak ezin zaituzkete zuek higin, baiñan ni gaitsesten nau, zeren haren kontra lekhu-kotasuna bihurtzen baidut, haren obrak gaitxoak direla. **8** Zohazte zuek

besta huntarat; ni ez noha besta huntarat, zeren ene denbora ez baida oraiño bethe». **9** Horiek horla erranik, gelditu zen bera Galilean. **10** Goan zirenean bada haren anaiak, goan zen orduan bera ere bestarat ez ageriki, baiñan gordeka bezala. **11** Juduak, bada, haren bilha zebiltzan besta hartan eta zioten: «Non othe da hura?» **12** Eta erasia handi bat zen populuaeren artean hartaz. Batzuk zioten ezen: «Gizon prestu bat da». Bertzeek berriz zioten: «Ez, aitzitik populua enganatzen du». **13** Hala ere ordean nihor ez zen ageriki mintzo hartaz juduen beldurrez. **14** Besta ja erdi iragan zenean, igan zen Jesus tenplurat eta hari zen irakasten.

**15** Miretsiak zeudezen Juduak ziotsatelarik: «Nola du gizon hunek jakintasun hau estudiatu gabe? **16** Ihardetsi izan zaroen Jesusek eta erran: «Ene jakintza ez da enea, baiñan bai ni igorri nauenarena. **17** Haren borondatea egin nahi dutenek ezagutuko dute, hea dotrina hau Jainkoaganik den ala ni neure baitarik mintzo naizen. **18** Bere baitarik mintzo dena bere gloria propialaren bilha dabilla; baiñan nork ere bilhatzen baidu hura igorri izan duenaren gloria, eta hura da egiatia eta injustiziarik haiñaren baitan ez da. **19** Ez darotzue Moisek eman zuei legea? Eta zuetarik batek ere ez baidu obretan ematen legea. **20** Zergatik zabiltzate ni hillarazi nahiz?». Ihardetsi zioen populua: «Deabruaz poseditua zare zu; nor dabilla zu hillarazi nahiz?». **21** Ihardetsi izan zaroen Jesusek eta erran: «Gauza bat egin dut xoilki eta guziak zaudezte miretsiak. **22** Guziarekin ere, zeren Moisek ordenatu izan darotzuen zirkonzisiziona (patriarken ganik heldu den arren eta ez Moise ganik), zirkonzidatzen duzue gizona sabatho egunean ere. **23** Baldinetariak zirkonzisiziona errezibitzen badu gizonak sabatho egunean Moiseren legea hauts ez dadintzat, zergatik niri sumintzen zaizkidate, zeren gizon bat guzia sendatu izan dudan sabatho egunean? **24** Ez dezazuela juia kanpoko iduriaren arauera, baiñan jujea zazue justutasunaren arauera».

**25** Erraten zuten, bada, Jerusalem dar batzuk: «Hau ez da hillarazi nahiz dabiltzan hura? **26** Huna non mintzo den mundu guziaren aitzinean eta deus ez diote erraten. Ezagutu othe dute buruzagiek egiazki hau dela Kristo? **27** Baiñan hau badakigu nongoa den; Kristo ordean dathorke-nean, nihork ez du jakiñen nongoa den». **28** Oihuz zegoen, bada, Jesus tenpluan irakasten hari zela eta ziotsala: «Badakizue bai nor naizen eta bai nongoa naizen; ez naiz bada neure baitarik ethorri, baiñan egiatia da ni igorri izan nauena, zeina ez baiduzue zuek ezagutzen. **29** Nik ezagutzen dut hura, zeren harenganikakoa bainaiz eta hark igorri bainau». **30** Zabiltzan bada hura hartu nahiz; eta hala ere nihork ez zuen eskua ezarri haren



gaiñean, zergatik ez baitzen oraiño haren muga ethorri. **31** Bizkitartean han zirenatarik haiñitzek sinhetsi zuten haren baitan eta zioten: «Kristok ethortzen denean mirakuillu gehiago egiñen othe du, hunek egiten duen baiño?». **32** Farisauek aditu izan zituzten populuak hartaz zaduzkan solhas horiek eta aphezen prinzeek eta farisauek igorri zituzten arkerak haren hartzerat. **33** Erran zaroen bada Jesusek: «Oraiño denbora guti batetakotz zuekien naiz eta banoha gero ni igorri izan nauena ganat. **34** Ibilliko zarete ene bilha eta ez nauzue aurkhituko; eta ni naiteken lekhurat zuek ezin zathozkete». **35** Horren gaiñean juduek erran zuten elkharren artean: «Norat goanen othe da hau, ez baidugu aurkhituko? Ala goanen othe da mundu guzian barraiatuak diren jentilletarat eta predikatuko othe daroe jentillei? **36** Zer erran nahi du solhas hunek: Ibilliko zarete ene bilha eta ez nauzue aurkhituko eta ni naiteken lekhurat zuek ezin zathozkete?».

**37** Bestaren azkeneko egun handian, bada, zegoen Jesus oihuz zio-tsalarik: «Baldin nihor egarri bada, bethor ene ganat eta edan beza. **38** Nork ere ene baitan sinhesten baidu, Eskriturak dioen bezala haren sabeletik ilkhiko dire ur bizizko ibaiak». **39** Eta hori erraten zuen haren baitan sinhetsiko zutenek errehibituko zuten Izpirtuaz; ez zen ezen oraiño Izpirtua emana izatu, zeren Jesus ez baitzen oraiño glorifikatu.

**40** Han ziren jendeatarik, bada, hainitzek solhas horiek aditu eta erran zuten: «Hau egiazki profeta da». **41** Bertzeek erraten zuten: «Hau Kristo da». Bertze batzuk berriz erraten zuten: «Naski Galileatik ethorriko baida Kristo? **42** Ez du erraten Eskriturak Dabiden leiñutik eta Bethelengo herritik, Dabid zegoenetik, ethorriko dela Kristo?». **43** Eta hala eskatima zen populuaren artean haren ariaz. **44** Eta hetarik zenbaitek nahi zuketen hartu; ordean nihork ez zuen ezarri eskurik haren gaiñean.

**45** Bihurtu ziren, bada, arkerak aphezen prinzeen eta farisauen ganat eta hek erran zaroen: «Zergatik ez duzue ekharri hura?». **46** Ihardetsi izan zaroen arkerek: «Egundaiño gizonik ez da hala mintzatu, nola gizon hori». **47** Erran zaroen bada farisauek: «Naski zuek ere irabaziak zarete? **48** Ala buruzagietarik nihork sinhetsi du haren baitan edo farisauetarik batek ere? **49** Baiñan jende xehe horiek, legea zer den ez dakiten horiek, mada-rikatu batzu dire». **50** Erran zaroen Nikodemek, haren ganat gauaz ethorri izan zen hark, zen baitzen hetarikako bat: **51** «Ala gure legeak jujeatzen du gizon bat, non ez duen bera lehenago entzuten eta non ez duen jakiten hark zer egin duen?». **52** Ihardetsi izan zioten hek eta erran: «Naski zu

ere galilearra zare? Mira zatzitzu ungi Eskriturak eta jakin ezazu zalileatik ez dela ilkhi profetarik». **53** Eta bihurtu ziren zein bere etxetarat.

## VIII. KAP.

**1** Jesus berriz goan zen Olibetako mendirat **2** eta argiaren begiko bihurtu zen tenplurat; eta populu guzia ethorri baitzen haren ganat, jarri zen hei irakasten. **3** Ekharri izan zioten, bada, eskribauek eta farisauek emaste bat adulterioan atzemaia izan zena eta ezarri zuten populuaren erdian, **4** eta erran zioten: «Nausia, emaste hau orai doi doia atzeman dute adulterioan. **5** Legean Moisek ordenatu izan daroku hunelakoak harrika detzagula; zuk, bada, zer diozu?». **6** Hori erraten zuten hura zundatu nahiz zerbaitez akusatzea gatik. Jesus ordean beheiti makhurturik, hasi zen erriaz lurrean eskribatzen. **7** Nola bada muthirituak baitzegozkon galdez, xuxendu izan zen eta erran zaroen: «Zuetarik bekhatu gabe denak arthik bioza lehenik harria». **8** Eta berriz ere makhurturik eman zen eskribatzen lurrean. **9** Hori aditu zutenean, bada, goan ziren bata bertzearen ondoan zaharrenatarik hasirik eta gelditu zen Jesus bera bakharrik eta emaste hura lekhuaeren erdian xutik zegoela. **10** Orduan Jesus goititu zen eta erran zioen: «Emastea, non dire zure akusatzailleak? Nihork ez zaitu kondenatu?». **11** Erran zioen emaste hark: «Nihork, Jauna, ez nau kondenatu». Jesusek ihardetsi zioen: «Nik ere bada ez zaitut kondenatuko. Zohaz eta ez dezazula gehiago egin bekhaturik».

**12** Bertze aldi batez mintzatu zitzairen Jesus eta erran zaroen: «Ni naiz munduaren argia; niri darraitana ez dabilla ilhunbean; aitzitik izanen du bizitzearen argia». **13** Erran zioten bada farisauek: «Zuk zeronek lekhukotasuna errendatzen duzu zure buruaz; zure lekhukotasuna ez da sinhestekoa». **14** Ihardetsi zaroen Jesusek eta erran: «Neronek lekhukotasuna errendatzen diodan arren neure buruari, egiazkoa da ene lekhukotasuna; zeren baidakit nondik ethorri naizen eta norat nohan; zuek ordean ez dakizue nondik ethorri naizen, ez norat nohan. **15** Zuek jujeatzen duzue haragiaren arauera, nik ez dut nihor jujeatzen. **16** Eta baldinetariak jujeatzen badut ere, ene jujeamendua leiala da, zeren ez bainaiz bakharra, baiñan ni eta ni igorri izan nauen Aita. **17** Eta zuen legean eskribatua da bi gizonen lekhukotasuna egiazkoa dela. **18** Ni naiz lekhukotasuna errendatzen dudana neure buruaz, eta lekhukotasuna bihurtzen du nitaz ni igorri izan nauen Aitak ere». **19** Erraten zioten bada hek: «Non da zure Aita?». Ihardetsi zaroen Jesusek: «Ez dakizue ez ni nor naizen, ez ene Aita





nor den; baziñakite ni nor naizen, agian jakin ziñezakete halaber ene Aita nor den». **20** Gauza horiek erran zarozten Jesusek thresora zen lekhuari irakasten hari zela; eta nihor ez zitzaion lothu, zeren ez baitzen oraiño ethorri haren muga.

**21** Erran zaroen, bada, bertze aldi batez Jesusek: «Ni banoha eta ibiliko zarete ene bilha eta zuen bekhatuan hillen zarete; ni nohan lekhatuak zuek ezin zathozkete». **22** Zioten bada juduek: «Bere burua hillen othe du berak, baidio: ni nohan lekhatuak zuek ezin zathozkete?». **23** Eta hark erraten zaroen: «Zuek behere huntakoak zarete, ni gorakoa naiz; zuek mundu huntakoak zarete, ni ez naiz mundu huntakoa. **24** Erran darotzuet, bada, zuen bekhatuan hillen zaretela, ezen baldinetariak sinhesten ez baduzue ni naizela, hillen zarete zuen bekhatuan». **25** Erraten zioten hek: «Nor zare zu?». Jesusek ihardetsi zaroen: «Guziez lehenagokoa, ni zuei mintzo natzaitzuen. **26** Hainitz gauza dut zuetaz errateko eta zuen baitan kondentatzeko; baiñan ni igorri izan nauena egiatia da eta nik haren ganik aditu izan ditudan berak erraten ditut munduan». **27** Eta ez zuten konzebitu Jainkoa ziotsala zuela bere Aita. **28** Erran zaroen bada Jesusek: «Goititu dukezuen Gizonaren Semea, orduan duzue ezagutuko nor naizen eta neure buruz deusere ez dudala egiten; baiñan nola ere irakatsi baidarot Aitak, eta hala mintzo naizela. **29** Ni igorri izan nauena enekien da eta ez nau utzi bakharrik, zergatik nik bethi hark plazer duena egiten baidut». **30** Solhas horren ariaz hainitzek sinhetsi zuten haren baitan.

**31** Erraten zaroen, bada, Jesusek haren baitan sinhetsi izan zuten juduei: «Baldinetariak egoten bazarete ene hitzean, egiazki ene dizipuluak izanen zarete, **32** eta ezagutuko duzue egia ete egiak egiñen zaituzte libro». **33** Ihardetsi zioten hek: «Abrahamen hazitik gare gu eta egundaiño ez gare nihoren esklabo izatu. Nolatan diozu zuk: libro izanen zarete?». **34** Ihardetsi izan zaroen Jesusek: «Egiaz egiaz darotzuet erraten, bekhatu egiten duen guzia bekhatuaren esklabo dela. **35** Bada gathiboa ez dago bethikotz etxean; ordean semea bethikotz dago etxean. **36** Baldinetariak beraz zuek Semeak libratzen bazaituzte, egiazki libro izanen zarete. **37** Badakit Abrahamen umeak zaretela; ordean ni hillarazi nahiz zabiltzate, zeren ene hitza ez baida errebitua zuen artean. **38** Nik ene Aitaren baitan ikusi dudana erraten dut eta zuek zuen aitaren baitan ikusi dituzuenak egiten ohi dituzue». **39** Ihardetsi zioten hek eta erran: «Gure aita Abraham da». Erran zaroen bada Jesusek: «Baldin Abrahamen umeak bazarete, egitzue Abrahamen obrak. **40** Orai ordean ni hillarazi beharrez zabiltzate, ni zeiniek baidarotzuet erraten egia, Jainkoaren ganik ikhasi izan dudana. Ez da hori

Abramamek egin izan duena. **41** Zuek egiten ohi dituzue zuen aitaren obrak». Erran zioten bada hek: «Gu ez gare obra gaixtotarik sorthurikako umeak; aita bat dugu eta hura Jainkoa», **42** Erran zaroen bada Jesusek: «Baldin Jainkoa balitz zuen aita, maite ninduzueke ni, zeren Jainkoa ganik sorthu bainaiz eta ethorri; ezen ez naiz neure buruz ethorri, baiñan hark igorri izan nau. **43** Zergatik ene hizkuntza ez duzue ezagutzen? Zeren ezin adi baidezakezue ene hitza. **44** Zuek deabruaren umeak zarete eta zuen aitaren gogara nahi duzue egin. Hura gizon hilltzaille izan da haste hastetik eta ez du iraun izan egian, zeren ez baida egia haren baitan; gezurra erraten duenean bere funtsetik mintzo da, zeren gezurtia baida eta gezur-raren aita. **45** Baiñan nik egia erraten baidarotzuet, ez nauzue sinhesten. **46** Zuetarik zeiniek emanen darot niri irau? Baldinetariak egia erraten badarotzuet, zergatik ez nauzue sinhexten? **47** Jainkoa ganik denak Jainkoaren hitzak aditzen ditu; hargatik zuek ez dituzue aditzen, zeren ez baitzarete Jainkoa ganik».

**48** Ihardetsi zioten, bada, juduek eta erran: «Ez dugu arrozoin errateko samaritano bat zarela zu eta deabruaz poseditua?». **49** Ihardetsi izan zaroen Jesusek: «Ez naiz ni deabruaz poseditua, bainan ohoratzen dut ene Aita; eta zuek nauzue ni desohoratzen. **50** Nik ordean ez dut bilhatzen neure gloria propioa; bilhatuko du bertze batez eta justizia egiñen darot. **51** Egiaz egiaz darotzuet erraten: Baldin nihork goardatzen badu ene hitza, ez du sekulan ikusiko heriotzea». **52** Erran zioten bada juduek: «Orai dugu ezagutzen deabruaz poseditua zarela. Abraham bill izan da, bai eta profetak ere hill izan dire eta diozu zuk: Nihork baldin begiratzen badu ene hitza, ez du sekulan dastatuko heriotzea. **53** Naski zu handiago baizare gure aita Abraham baiño, zeina hill izan baida? Profetak ere hill izan dire; norentzat pasarazi nahi duzu zeure burua?». **54** Ihardetsi zaroen Jesusek: «Baldin nik glorifikatzen badut neure burua, ene gloria ez da deus. Ene Aita da ni glorifikatzen nauena, zeina baidiozue zuek zuen Jainkoa dela. **55** Bizkitartean ez duzue ezagutzen hura. Nik ordean ezagutzen dut hura eta baldin erraten banu ez dudala ezagutzen, zuek bezalakoa ninteteke, gezurtia. Baiñan ezagutzen dut eta haren hitza begiratzen dut. **56** Abrahamen zuen aita lehiatu da ikusi nahiz ene eguna; ikusi izan du eta bozkariatu izan da». **57** Erran izan zioten bada juduek: «Berrogoi urthe oraino ez dituzte eta Abraham duzu ikusi?». **58** Erran zaroen Jesusek: «Egiaz darotzuet erraten, Abraham jaio baiño lehen ni banaiz». **59** Horren gainean hartu zituzten harriak hari arthikitzeke; Jesus ordean estali zen eta ilkhi zen tenplutik.



## IX. KAP.

1 Jesusek iragatean ikusi izan zuen gizon bat sortzetik itsu zena. 2 Eta galdegin zioten bere dizipuluek: «Nausia, zeinek egin othe du bekhatu, hunek ala hunen burasoek, hau hunela sortzeko itsu?». 3 Ihardetsi zaroen Jesusek: «Ez du hunek egin bekhatu, ez eta hunen burasoek; baiñan hori gerthatu da aitzitik ager daitezen gatik Jainkoaren obrak hunen baitan. 4 Mengoa da egin detzadan ni igorri izan nauenaren obrak, eguna deiño; heldu da hor gaua, zeinetan nihor ezin obran hari baiditeke. 5 Munduan naizeño, munduaren argia naiz». 6 Horiek erran ondoan, egin zuen thu lurrerat eta eginik basa bere thuarekien, gantzutu zituen basa hartaz itsua-ren begiak. 7 Eta erran zioen: «Zohaz, garbi zaite Siloeko mainhoan» (zeiñek erran nahi baidu Igorria). Goan zen, bada, garbitu zen eta ethorri izan zen ikusten zuela; 8 halako moldez, non hauzok eta lehenago eske bizi zela ikusten zutenek erraten baitzuten: «Ez da hau jarria zegoen hura eta eskez bizi zena?». Batzuk zioten: «Hura da». 9 Bertzek berriz: «Ez da hura, baiñan haren iduritako bat da». Hark ordean erraten zaroen: «Ni neroni naiz». 10 Erraten zioten bada hek: «Nola ideki zaizkitzu begiak?». 11 Hark ihardetsi zaroen: «Jesus erraten dioten gizon hark, eginik basa gantzutu darozkit hartaz begiak eta erran darot: Zohaz Siloeko mainho-rat eta garbi zaite. Eta goan izan naiz, garbitu naiz eta ikusten dut». 12 Erran izan zioten hek: «Non da hura?». Hark ihardetsi zaroen: «Ez dakit».

13 Eraman zuten gero farisauetarat itsu izatu zen hura. 14 Zen, bada, sabbatho eguna Jesusek basa egin izan zuena eta begia argitu izan ziotzana. 15 Berriz ere galdegin zioten farisauek nola ikusi izan zuen, eta hark erran zaroen: «Basa eman izan darot begien gaiñean, garbitu naiz eta ikusten dut». 16 Zioten bada farisauetarik zenbaitek: «Ez da gizon hori Jainkoa ganikakoa, halaz eta sabbatho begiratzen ez duenaz geroztik». Bertzek berriz zioten: «Nola egin ahal detzake gizon bekhatoros batek mirakuillu horiek?». Eta eskatima zen hekien artean. 17 Erran zioten, bada, berriz ere itsuari: «Zuk zer diozu begiak ideki darozkitzun hartaz?». Ihardetsi zuen hark: «Profeta bat baida». 18 Horri zagokala ez zuten sinhetsi nahi juduek itsua izatu zela eta bista izan zuela, erakharri zituzketen artean haren burasoak, 19 zeinei galdegin baitzaroen eta erran: «Hau da zuen semea itsu sorthu izan dela diozuen? Nola bada ikusten du orai?». 20 Ihardetsi zaro-en haren burasoek: «Badakigu hau dela gure semea eta itsu sorthu izan dela, 21 baiñan nola orai ikusten duen ez dakigu, edo nork ideki diotzan

begiak guk ez dakigu; galde diozozue berari; adinik aski badu; bera min-tza bedi beretzat». 22 Errepusta hori eman zuten haren burasoek, zergatik juduen beldur baitziren, ja ezen elkhar hartuak ziren juduak, baldin nihork aihortzen bazuen Jesus zela Kristo, khasatua izanen zela haiña sinagogatik. 23 Horren gatik erran zuten haren burasoek: Adinik aski badu, galdegiozue berari. 24 Erakharri zuten, bada, bigarren aldi batez itsu izatu zen gizon hura eta erran zioten: «Errenda diozozu Jainkoari gloria; guk badakigu gizon hura bekhatoros bat dela». 25 Hark ihardetsi zaroen: «Ez dakit nik bekhatorosa den; gauza bat dakit, itsu nintzelarik orai ikus-ten dudala». 26 Erran zioten hek oraiño: «Zer egin izan darotzu? Nola ideki darozkitzu begiak?». 27 Hark ihardetsi zaroen: «Erran darotzuet ja eta aditu duzue; zergatik berriz nahi duzue aditu? Ala zuek ere haren dizi-pulu egin nahi duzue?». 28 Orduan iroiztatu zuten eta erran zioten: «Hi izan hadillala haren dizipulu; gutaz denaz bezanbatean Moiseren dizipulu gaituk. 29 Guk bazeakiagu Moiseri mintzatu izan zaiola Jainkoa; hori ordean ez zeakiagu nondikakoa den». 30 Ihardetsi zaroen gizon hark eta erran: «Hori da bada harrigarri, zuek ez baidakizue hura nondikakoa den eta ideki baidarozkit hark niri begiak. 31 Badakigu ordean bekhatorosak ez dituela Jainkoak entzuten; baiñan nihork Jainkoa zerbitzatzen badu eta haren nahia egiten, hura duela entzuten Jainkoak. 32 Egundaiño ez ahal da aditu nihork ideki izan dituela itsu sorthu izan den baten begiak. 33 Bal-din hori ez balitz Jainkoa ganikakoa, ezin legike deusik». 34 Ihardetsi zio-ten hek eta erran: «Bekhatutan sorthua haiz guzia eta irakasten hari atzai-ku guri?». Eta khendu zuten kanporat.

35 Aditu zuen Jesusek khendu zutela kanporat eta aurkhitu izan zuen batez erran zioen: «Sinhesten duzu Jainkoaren Semea baitan?». 36 Iharde-tsi izan zioen hark eta erran: «Nor da, Jauna, sinhets dezadantz haren baitan?». 37 Erran zioen Jesusek: «Ikusi izan duzu eta zurekien mintzo dena bera da». 38 Hark berriz ihardetsi izan zioen: «Sinhesten dut, Jauna». Eta haren oiñetar bere burua arthikirik, adoratu izan zuen. 39 Orduan Jesusek erran izan zioen: «Justizia egiterat ethorri izan naiz ni mundu hun-tarat, ikusten ez dutenek ikus dezaten gatik eta ikusten dutenak itsu dai-tezen gatik». 40 Aditu izan zuten hori harekien ziren farisauetarik zenbai-tek eta erran izan zioten: «Naski gu ere itsuak baigare?». 41 Ihardetsi zaro-en Jesusek: «Itsuak baziñete, ez zindukete bekhaturik; orai ordean diozue ikusten duzuela eta hargatik beraz dagotzue bekhatua zuen baitan».



## X. KAP.

1 «Egiaz egiaz darotzuet erraten: Ardien arthaldean athetik sartzen ez dena, bainan bertze alde batetarik igaten dena, ohoiñ bat da eta arrapatzaile bat. 2 Ordean athetik sartzen dena ardien artzaiña da. 3 Huni athaltzaiñak idekitzen dio eta ardiek hunen boza aditzen dute; eta bere ardi propioak deitzen ditu, zein bere izenaz, eta ilkhi arazten. 4 Eta ilkhiarazi dituzkenean bere ardi propioak, goaten da hekien aitzinean, eta ardiak jarraitzen zaizko, zeren ezagutzen baidute haren boza. 5 Arrotz bati ordean ez zaizko jarraitzen, aitzitik ihesi dohaz haren ganik, zeren ez baidute ezagutzen arrotzen boza». 6 Parabola hori erran zaroen Jesusek; ordean hek ez zuten konprenitu zer erraten zaroen.

7 Erran zaroen, bada, berriz ere Jesusek: «Egiaz egiaz darotzuet erraten, ni naiz ardien athea. 8 Ethorri izan diren guziak ohoinak dire eta arrapatzaileak eta ardiek ez dituzte aditu. 9 Ni naiz athea. Nitarik norbait sartzen baldin bada, salbatuko da, sarthuko da, ilkhiko da eta bazkak edirenen ditu. 10 Ohoiña ez da ethortzen, lekhat ebasteko, hiltzeko eta galtzeko baizen; baiñan ni ethorri izan naiz bizia izan dezatengatik eta are frankia gehiagorekien izan dezatengatik.

11 Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du bere ardientzat. 12 Soldatakoak ordean eta ez denak artzain eta ardiak bereak ez dituenak ikusten duenean otsoa ethortzen, uzten ditu ardiak eta goaten da ihesi; eta otsoak eramaten ditu ardiak eta barraiatzen. 13 Eta soldatakoa ihesi goaten da, zeren den soldatakoa eta ez baidu antsiarik ardiez. 14 Ni naiz artzain ona eta ezagutzen ditut ene ardiak eta ene ardiek ezagutzen naute ni. 15 Aitak ni ezagutzen nauen bezala, nik ere ezagutzen dut Aita eta ene bizia ematen dut ene ardientzat. 16 Baditut oraiño bertze ardiak ere arthalde huntako ez direnak; hek ere erakharri behar ditut eta ene boza adituko dute; eta eginen da arthalde bat eta artzain bat. 17 Hartatik nau maite ene Aitak, zeren nik ematen baidut ene bizia berriz hartzekotan. 18 Nihork ez darot eramaten, baiñan neronek ematen dut neure baitarik; eta badut bothere haren emateko eta bothere berriz hura hartzeko. Manu hori errezibitu dut ene Aita ganik».

19 Eskatima bat berriz ere izatu zen juduen artean solhas horren ariaz. 20 Hetarik hainitzek erraten zuten ezen: «Deabruaz poseditua da eta erhotu da; zergatik hori aditzen duzue?». 21 Bertzek. zioten: «Hitz horiek ez dire deabruaz poseditua den batenak; ala deabruak idek detzake itsuen begiak?».

22 Jerusalemen orduan egiten zuten dedikazionearen besta eta zen negua. 23 Eta zebillan Jesus pasaietan tenpluan Salomonen aldamiotan. 24 Inguratu zuten, bada, juduek eta erran zioten: «Noiz artean dadukazu gure izpiritua balentzan? Baldin zu bazare Kristo, erraguzu garbiki». 25 Ihardetsi zaroen Jesusek: «Mintzo natzaitzue eta ez duzue sinhesten; nik ene Aitaren izenean egiten ditudan obrek lekhukotasuna ematen dute nitaz; 26 baiñan zuek ez duzue sinhesten, zeren ez baitzarete ene ardiatarik. 27 Ene ardiek ene boza aditzen dute eta nik ezagutzen ditut hek eta hek jarraitzen zaizkit niri. 28 Nik ematen daroet hei bizitze eternala eta ez dire galduko sekulan; nihork ez ditu arrapatuko ene eskutik. 29 Ene Aitak niri eman darotana guziez gaiñekoa da eta nihork ezin arrapa dezake ene Aitaren eskutik. 30 Ni eta Aita bat gare». 31 Horren gaiñean juduek hartu zituzten harriak hura harrikatzeko. 32 Erran zaroen Jesusek: «Hainitz obra on erakutsi izan darozkitzuet ene Aitaren berthutez eginak; obra hetarik zein gatik othe nauzue harrikatzen?». 33 Ihardetsi izan zioten juduek: «Ez zaitugu obra onen gatik harrikatzen, baiñan zure blasfemia gatik eta, zeren gizon zarelarik, zeure burua Jainko egiten baiduzu». 34 Erran zaroen berriz Jesusek: «Ez da eskribatua zuen legean: Erran dut, jainkoak zarete? 35 Baldinetariak haiñak jainko deitzen baditu, zeinei Jainkoa mintzo baitzitzaien, eta ezin desegin baditeke Eskritura, 36 ni, Aitak sanktifikatu nauena eta mundurat igorri nauena, diozue blasfemiatzen hari naizela, zeren erran izan dudun: Jainkoaren Semea naiz? 37 Baldin egiten ez baditut ene Aitaren obrak, ez nazazuela sinhets. 38 Baldin ordean egiten baditut, ni ez banauzue ere sinhetsi nahi, sinhets zatzue ene obrak, ezagut dezazuentzat eta sinhets dezazuentzat Aita ene baitan dela eta ni Aita baitan naizela». 39 Zebiltzan bada hura hartu nahiz, baiñan itzuri zen hekien eskuetarik.

40 Eta goan zen berriz ere Jordanaz bertze alderat, lehen Joanes bahaizatzen hari zen lekhu hartarat eta egon zen han. 41 Hainitz jende ethorri zitzaizkon harat, zeiniek erraten baitzuten: «Joanesek mirakuillurik batere ez du egin izan; 42 ordean Joanesek huntaz erran izan dituen guziak ziren egiak». Eta hainitzek sinhetsi izan zuten haren baitan.

## XI. KAP.

1 Zen bada gizon bat eri, Lazaro zaritzana, Bethaniakoa, Maria eta Martha bere aizpa zeudezen herrikoa. 2 Maria zen berriz Jaunaren gaiñerat isuri izan zuena ungentu urrin onezko bat eta bere illeez oiñak xuka-



tu izan ziotzana, zeñaren anaia baitzen Lazaro orduan eri zena. **3** Haren arrebek gastiatu zioten, bada, Jesusi ziotsatelarik: «Jauna, huna non den eri zuk maite duzuna». **4** Hori aditurik Jesusek erran izan zaroen: «Eritasun hori ez da hiltzekoa, baiñan da Jainkoaren gloriakotzat eta glorifikatua izan dadintzat Jainkoaren Semea horren ariaz». **5** Maite zituen ezen Jesusek Martha eta haren aizpa Maria eta Lazaro. **6** Aditu izan zuenean bada eri zela, egon zen hala ere bi egunez orduan zen lekhu. **7** Gero ondoan erran izan zaroen bere dizipuluei: «Bihur gaitezen berriz ere Judearat». **8** Erraten diote dizipuluek: «Nausia, oraiño doi doia zebiltzan juduak zu harrikatu nahiz eta berriz ere zohaz harat?». **9** Ihardetsi izan zaroen Jesusek: «Egunak ez ditu hamabi oren? Egunaz dabillana ez da trebekatzen, zeren ikusten baidu mundu huntako argia. **10** Baldin ordean gauaz ibiltzen bada, trebekatzen da, zeren ez baidu argirik». **11** Horla mintzatu zitzairen eta horren ondoan erran zaroen: «Lazaro, gure adiskidea, lo datza, baiñan banoha lotarik iratzar dezadan». **12** Erran izan zioten, bada, bere dizipuluek: «Jauna, baldin lo badatza, sendatuko da». **13** Ordean Jesus haren heriotzeaz mintzo zitzairen eta hek zuten uste lo egoteaz mintzo zela. **14** Orduan, bada, Jesusek erran zaroen klarki: «Lazaro hill da. **15** Eta atsegín dut zuen gatik eta zuek sinhets dezazuen gatik, zeren ez nintzen han; bainan gohazen haren ganat». **16** Horren gaiñean Thomas Didime zeritzanak erran zaroen bere lagun dizipuluei: «Gohazen gu ere, horrekien hill gaitezen».

**17** Ethorri zen Jesus eta aurkhitu zuen laur egun ja bazuela Lazaro thonban zela. **18** Zen, bada, Bethania Jerusalemeko aldean, handik hamabortz estadiotan bezala. **19** Eta juduetarik hainitz ethorriak ziren Martharen eta Mariaren ganat, hek bere anaiaren heriotzeaz konsolatzerat. **20** Martha, bada, aditurik Jesus heldu zela, goan zitzaion aitzinerat; Maria ordean etxean gelditu zen. **21** «Jauna», erran zioen Marthak Jesusi, «hemen izan baziñe, ene anaia ez zen hilla izanen. **22** Bainan orai ere badakit zer nahi galdetuko diozun Jainkoari, emanen darotzula Jainkoak zuri». **23** Erran zioen Jesusek: «Biztuko da zure anaia». **24** Ihardetsi zioen Marthak: «Badakit biztuko dela erresurrekziónean azken egunean». **25** Erran zioen berriz Jesusek hari: «Ni naiz erresurrekziónea eta bizitzea; ene baitan sinhesten duena, hilla baldin bada ere, biziko da. **26** Eta nor ere bizi baida eta sinhesten baidu ene baitan, ez da hillen sekulan. Sinhesten duzu hori?». **27** Ihardetsi izan zioen: «Bai, Jauna, sinhetsi izan dut zu zarela Kristo, Jainko biziaren Semea, mundu huntarat ethorri izan zarena».

**28** Eta horiek erran eta, goan zen eta deithu zuen ixillik Maria bere aizpa, erraten zioelarik: «Nausia hemen da eta zure galdea du». **29** Hura, aditu zuen bezain sarri, altxatu zen eta goan zen haren ganat. **30** Ez zen ezen ethorri oraiño Jesus herri barnerat, baiñan zen oraiño Martha bathu zitzaion lekhu hartan. **31** Orduan harekien etxean ziren juduak eta haren konsolatzen hari zirenak, ikusi zutenean Maria hain fitetz altxatu zela eta ilkhi, jarraiki zitzaizkon erraten zutelarik: «Thonbarat dohake han nigarrez egoterat». **32** Baiñan Maria ethorri zenean Jesus zen tokirat eta hura ikusi zuenean, arthiki zen haren oinetarat eta erran zioen: «Jauna, hemen izan baziñe, ez zen hilla izanen ene anaia». **33** Jesusek, bada, ikusi zuenean hura nigarrez zegoela eta harekien ethorri ziren juduak ere nigarrez zudezela, izan zuen barrenean latztura bat eta altaratu zuen bere burua. **34** Gero erran zuen: «Non eman duzue?». Ihardetsi zioten hek: «Jauna, zato eta ikusazu». **35** Orduan nigar egin zuen Jesusek. **36** Erran zuten bada juduek: «Horra nola zuen maite». **37** Ordean hetarik batzuk erran zuten: «Ezin debeka zezaken, bada, hunek hura hiltzetik, hunek zeñiek ideki izan baiditu itsu sorthu zen baten begiak?».

**38** Jesus, bada, berriz ere lazturik bere barrenean, ethorri izan zen thonbarat (toki bat zen arrokan barna zilhatua) eta zen harri bat haren gaiñean emana. **39** Erran zaroen Jesusek: «Khen zazue harria». Erran zioen Marthak, hilla zenaren arrebak: «Jauna, ja usaindua, laur egun badu ezen hor dela». **40** Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Ez darotzut nik erran, baldinetariak sinhesten baduzu ikusiko duzula Jainkoaren gloria?». **41** Khendu zuten, bada, harria eta Jesusek altxaturik goiti begiak, erran izan zuten: «Aita, eskerrak darozkitzut zeren entzun bainauzu. **42** Baneakien, bada, bethi entzuten nauzula, baiñan hemen inguratzen nauen populua gatik erran dut hori, sinhets dezatentzat zuk nauzula igorri». **43** Horiek erran ondoan, boz goraz oihu egin zuten: «Lazaro, zato kanporat». **44** Eta berehala ilkhi zen hilla zena, oinak eta eskuak estekatuak zituela lokharriz eta bisaia zuela estalia oihal batez. Erran, zaroen bada Jesusek: «Lexa zazue eta utzazue goaterat».

**45** Horri dagokala, Mariaren eta Martharen ganat ethorri ziren juduetarik eta Jesusek egin zuena ikusi zutenetik hainitzek sinhetsi zuten haren baitan. **46** Hetarik zenbait bertze berriz goan ziren farisaue-tarat eta erran zaroen zer egin izan zuen Jesusek. **47** Bildu zuten, bada, batzarra aphezen printzeek eta farisauek eta zioten: «Zer hari gare gu?, gizon hunek mirakuillu hainitz egiten baidu. **48** Baldinetariak horla utzten



badugu, guziek sinhetsiko dute horren baitan eta ethorriko dire erromarrak eta arrasatuko dute gure herria eta bai gure nazioea». **49** Hetaryik batek ordean, Kaifas zeritzanak, urthe hartako aphez handia baitzen, erran zaroen: «Zuek ez dakizue deusik **50** eta ez duzue pentsatzen hobe duzuela gizon bakhar bat hill dadin populuarentzat eta gal ez dadin nazione guzia». **51** Hori ordean ez zuen bere baitarik erran; baina nola aphez handi baitzen urthe hartako, profetisatu izan zuen Jesus hillen zela nazionearentzat, **52** eta ez xoilki nazione harentzat, baina halaber Jainkoaren ume barriatuak zirenak batetarat biltzekotzat. **53** Egun hartaz geroztik, bada, gogoan hartua zuten hura hillarazi behar zutela.

**54** Hargatik ez zebillan gehiago Jesus ageriki juduen artean, aitzitik goan ere zen desertuaren aldeko parterat, Efremeraten zioten hiri batetarat, eta egon zen han bere dizipuluekien. **55** Hurbill zen, bada, juduen Bazkoa eta goan ziren parte hartarik jende hainitz Jerusalem, Bazko aitzinean bere buruak santifikatzerat. **56** Eta zebiltzan Jesusen bilha eta elkharren artean erraten zuten tenpluan zeudezela: «Zer zaitzue, ez baida ethorri besta egun huntarat?». Eman zuten ezen aphezen prinzeek eta farisauek mezua, baldin nihork jakiten bazuen non ziteken, erakutsi zioten har zezatentzat.

## XII. KAP.

**1** Jesus, bada, Bazko baiño sei egun aitzinetik ethorri izan zen Bethaniarat, non hill izan baitzen Lazaro, hark biztu izan zuena. **2** Han eman zioten afaitarat; Martha zerbitzatzen hari zen eta Lazaro zen berriz mahaiñean harekien zirenetarik bat. **3** Mariak, bada, hartu zuen libera bat ungentu nardo egiazko balios batetarik, gantzutu zituen hartaz Jesusen oiñak eta xukhatu bere illeez; eta etxea bethe zen ungentu haren urrin onaz. **4** Orduan erran zuen haren dizipuluetarik batek, Judas Iskariotek, hura trahitu behar zuenak: **5** «Zergatik ungentu hori ez da saldu hirur ehun diru pezetan eta eman pobreei?». **6** Eta hori erran zuen ez pobrez antsia izanez, baiñan zeren ohoina baitzen eta moltsa hark atxekitzen baitzuen eta hartarat ematen zena hark baitzarabillan. **7** Erran zuen bada Jesus: «Utzazue ene ehorts eguna goarda dezan hori. **8** Pobreak ezen bethi baditutzue zebekien, ni ordean ez nauzue bethi izanen». **9** Jakin zuten, bada, juduetarik jendetze handi batek han zela eta ethorri ziren harat, ez Jesusen gatik xoilki, baiñan Lazaro ikustea gatik ere, zeina biztu izan baitzuen hilletarik. **10** Gogora zitzaien, bada, aphezen prinzeei Laza-

ro ere hillarazi behar zutela, **11** zergatik juduetarik hainitz baitziohazkoten haren gatik eta sinhesten baitzuten Jesusen baitan.

**12** Biharamunean are besta egunerat ethorri izan ziren jendetze handi batek aditu baitzuten heldu zela Jesus Jerusalem, **13** hartu zituzten palma adarrak eta goan zitzaizkon aitziañerat oihu egiten zutelarik: «Hosanna, benedika dadillala Israelgo Erregea, Jaunaren izenean heldu zaikuna». **14** Eta aurkhitu baitzuen Jesus astokume bat, jarri zen haren gainean, eskribatua izan den bezala: **15** «Ez duzula beldurrik, Siongo alaba; huna zure Errege non heldu zaitzun, asto ume baten gainean jarria». **16** Gauza hau ez zituzten ezagutu berehala haren dizipuluek; baiñan sarthu izan zenean Jesus bere glorian, orduan orroitu ziren horiek hartaz izan zirela eskribatuak eta arribatu ere zitzaizkola. **17** Hala lekhukotasuna errendatzen zioten Lazaro thonbatik deithu izan zuenean eta hilletarik biztu zuenean harekien gerthatu ziren jendeek. **18** Hargatik aitziañerat ethorri ere zitzaion hanbat jende, aditu baitzuten mirakuillu hura egin zuela; **19** halako maneraz, non farisauek erran baitzioten elkharri: «Ikusten duzue deuse ere ez dugula probetxurik. Horra, mundu guzia horren ondoan dabilla».

**20** Ziren, bada, jentill batzu besta egunean adoratzerat ethorri izan zirenetarik, **21** eta hek ethorri zitzaizkon Filiperi, zein baitzen Galilean den Bethsaidakoa, eta othoiztu zuten ziotsotelarik: «Jauna, Jesus nahi ginduke ikusi». **22** Filipe goan zitzaion erraterat Andresi; Andresek berriz eta Filippek erran zioten Jesusi. **23** Jesus, bada, ihardetsi izan zaroen eta erran: «Ethorri da ordua Gizonaren Semeak glorifikatua izan behar duena. **24** Egiaz egiaz darotzuet erraten: Baldin ogi bihia lurrerat eroririk hiltzen ez bada, bera bakharrik gelditzen da; baldin ordean hilltzen bada, fruitu hainitz ekhartzen du. **25** Bere bizia maite duenak galduko du eta bere bizia mundu huntan higin duenak, bizitze eternelkotz du hura konserbatzen. **26** Baldin norbaitek ni zerbitzatzen banau, jarraik bekik niri; eta ni non ere izanen bainaiz, eta han izanen da ene zerbitzaria ere. Baldin nihork ni zerbitzatzen banau, ohoratuko du haiña ene Aitak. **27** Oraintxe ene arima altaratua da; eta zer erranen dut? Aita, salba nazazu oren huntarik; ordean hortarakotz ethorri izan naiz oren huntarat. **28** Aita, glorifika zazu zure izena». Ethorri izan zen bada boz bat zerutik: «Ja glorifikatu dut eta berriz ere glorifikatuko dut». **29** Eta han zen jendetzeak eta habarrotsa aditu zuenak zioen igortziria egin zela. Bertzek berriz zioten: «Aingeru bat mintzatu zaioke». **30** Ihardetsi izan zuen Jesus eta erran: «Ez da ene gatik boz hori ethorri, baina bai zuen gatik. **31** Orain da munduaren jujeamendua; orain doha munduaren prinzea kanporat arthikia iza-



terat. **32** Eta ni goititua izanen naizenean, lurretik guziak thiratuko ditut ene ganat. **33** Hori erraten zuen bada adiarazitzeko zer heriotzez hill behar zuen. **34** Ihardetsi izan zioen populuak: «Guk aditu izan dugu legetik Kristok bethikotz egon behar duela, eta nolatan diozu zuk: Gizonaren Semeak goratua izan behar du? Nor da Gizonaren Seme hura?». **35** Erran zaroen bada Jesusek oraiño: «Oraino aphur bateko argia zuekien da. Ibill zaitezte argia duzueiño, illhunbeek atzeman ez zaitzarentzat. Illhunbean dabillanak ez daki norat dohan. **36** Argia duzueino sinhets zazue argian, argiaren umeak izan zaitezrentzat. Horiek erran zituen Jesusek eta gero goan zen eta gorde zitzaien.

**37** Ordean hanbat mirakuillu egin zuen arren hekien aitziñean, ez zuten sinhesten haren baitan, **38** Isaias profetaren erran hau konpli zedin-tzat: «Jauna, nork sinhetsi izan du guri erraten aditu darokutena? Eta Jaunaren besoa nori ezagutarazi zaio?». **39** Hargatik ezin sinhets zezaketen Isaiasek oraino erran izan duenaren arauera: **40** «Itsutu ditu horien begiak eta gogortu izan du horien bihotza, ikus ez dezaten begiz eta konpreni ez dezaten bihotzez eta konberti ez daitezen eta senda ez detzadan». **41** Horiek ditut erran Isaiasek, ikusi izan duenean haren gloria eta mintzatu izan denean hartaz. **42** Hala ere, bada, prinzipaletarik hainitzek ere sinhetsi izan zuten haren baitan; ordean farisauen gatik ez ziren deklaritzen, sinagogatik kanporat eman zetzaten beldurrez; **43** maiteago zuten ezen gizonen ganik heldu den gloria ezen ez Jainkoa ganik heldu dena.

**44** Jesusek, bada, altxatu zuen boza eta erran: «Ene baitan sinhesten duenak ez du ene baitan sinhesten, baina bai ni igorri izan nauena baitan. **45** Eta ni ikusten nauenak ikusten du ni igorri izan nauena. **46** Ni, zein bainaiz argia, mundurat ethorri izan naiz, ene baitan sinhesten duena illhunbeetan egon ez dadintzat. **47** Baldinetariak nihork aditzen baditu ene hitzak eta ez hek goardatzen, ez dut nik hura jujeatzen; ezen ez naiz ethorri mundua jujeatzea gatik, aitzitik bai mundua salbatzea gatik. **48** Ni arbuiatzen nauenak eta ene hitzak errezibitzen ez dituenak, baduke bere jujea; nik erran izan ditudan gauzek berek jujeatuko dukete azken egunean. **49** Zeren ni ez bainaiz neure baitarik mintzatu; baiñan ni igorri izan nauenak, Aitak berak, exlejitut izan darot zer erran behar dudan eta zertaz mintzatu behar dudan. **50** Eta badakit haren mezua bizitze eternala dela. Nik erraten ditudanak, beraz, ene Aitak niri erran darozkidan bezala erraten ditut.

### XIII. KAP.

**1** Bazko bestaren aitziñean, baitzeakien Jesusek ethorri zela haren orena iragateko mundu huntarik Aita ganat, nola maitatu baitzituen bereak, munduan zirenak, fiñeraiño maitatu izan ditu. **2** Eta afalondoan, deabruak ja isuri baitzuen Judas Iskariote Simonen semearen bihotzean xedea hura trahitzeko, **3** baitzeakien Jesusek gauza guziak eman ziotzala Aitak eskuetarat eta Jainkoa ganik ilkhi zela eta Jainkoa ganat ziohala, **4** altxatu zen mahaiñetik, utzi zituen bere bestimendak eta harturik lonyera bat, gerrikatu zen hartaz. **5** Gero emanik ura baziña batetarat, hasi zen dizipuluen oiñak garbitzen eta gerritik zuen lonieraz xukhatzen. **6** Ethorri zen bada Simon Piarresen ganat, baiñan Piarresek erran zioen: «Jauna, zuk niri oiñak garbi?». **7** Ihardetsi zioen Jesusek eta erran: «Nik zer egiten dudan zuk ez dakizu orai; jakinen duzu ordean gerorat». **8** Erraten dio Piarresek: «Sekulan ez darozkidatuz oiñak garbituko». Ihardetsi zioen Jesusek: «Baldinetariak garbitzen ez bazaitut, ez duzu izanen enekien parterik». **9** Orduan erran zioen Simon Piarresek: «Jauna, ez xoilki ene oiñak, baiñan eskuak ere eta burua». **10** Erraten dio Jesusek: «Ja garbitua denak ez du beharrik oiñak garbitzeko baizen, baina da guzia xahu; eta zuek xahu zarete, ordean ez guziak». **11** Bazeakien ezen nor zen hura trahituko zuena; hargatik erran zuen: Ez zarete guziak xahu.

**12** Garbitu zituen ondoan, bada, hekien oiñak eta hartu bere bestimendak, jarri zen berriz ere mahaiñean eta erran zaroen: «Othe dakizue zer egin darotzuedan? **13** Zuek deititzen nauzue ni Nausia eta Jauna, eta ungi erraten duzue, hala naiz ezen. **14** Baldinetariak, beraz, garbitu izan badarozkitzuet oiñak zuei nik, Jauna eta Nausia naizelarik, zuek ere halaber garbitu behar diotzatzue oiñak batak bertzeari. **15** Exenplua eman darotzuet ezen, nola ere nik zuei egin baidarotzuet, eta zuek ere hala egin dezazuen gatik. **16** Egiaz egiaz darotzuet erraten: Ez da zerbitzaria handiago bere nausia baiño, ez eta apostolua hura igorri izan duena baiño. **17** Baldin horiek badakizkitzue, dohatsu izanen zarete, baldin ordean egiten badituzue.

**18** Ez naiz mintzo zuek guziez; badakit nik zein ditudan merezi; baiñan konplitua behar du izan Eskriturako erran hunek: Enekien ogia jaten hari denak altxatuko du ene kontra bere oindagora. **19** Oraidanik darotzuet erraten, gauza egin diteken baiño lehen, egin ditekenean sinhets dezazuen ni naizela. **20** Egiaz egiaz darotzuet erraten: Nik igorri dukeda-



na errezibitzen duenak, ni nau errezibitzen; ni errezibitzen nauenak berriz, du errezibitzen ni igorri izan nauena».

**21** Horiek erran ondoan, altaratua izan zen Jesus bere barrenean eta deklaratu zen ageriki eta erran zuen: «Egiaz egiaz darotzuet erraten zue-tarik batek trahituko nauela». **22** Beha zegozkon bada elkharri dizipuluak, dudetan izanez zeinietaz mintzo othe zen. **23** Eta dizipuluetarik bat Jesusek maite zuena, baitzegoen etzana Jesusen bulharren alderat, **24** egin zioen huni kheinu Simon Piarresek eta erran: «Nortaz mintzo othe da?». **25** Hark, bada, Jesusen bulharren gaiñerat bere burua etzanik, erran zioen: «Jauna, nor othe da haiña hura?». **26** Ihardetsi zioen Jesusek: «Haiña da nik ogia bustirik emanen diokedana». Eta ogia bustirik eman zioen Judas Iskariote Simonen semeari. **27** Judasek hura jan zuenektotz, sarthu zen Satana haren baitan eta erran zioen Jesusek: «Egin gogo duzuna egizu fitetzenerat». **28** Ordean mahaiñean zirenetarik batek ere ez zuen konprenitu zertarat erran izan zioen hori. **29** Batzuk ezen uste zuten, nola Judasek baitzuen moltsa, erran izan zioela Jesusek eros zetzala besta egunekotzat behar zituztenak edo ezberen pobreei zerbait eman ziozatala. **30** Judas bada pozin hura hartu eta ilkhi zen berehala; eta gaua zen ere.

**31** Hura ilkhi zenean, erran zuen Jesusek: «Orainxe glorifikatu da Gizonaren Semea eta Jainkoa da glorifikatu haren baitan. **32** Badin Jainkoa glorifikatua bada haren baitan, halaber Jainkoak ere hura glorifikatuko du bere baitan, eta lauster du glorifikatuko. **33** Ene haur maiteak, oraiño aphur bateko zuekien naiz. Ene bilha ibilliko zarete, eta juduei erran izan diotedan bezala: Ni nohan lekhurat zuek ezin zathozkete, hala erraten darotzuet zuei ere orai presentean. **34** Manu berri bat ematen darotzuet, zein baida, elkhar malta dezazuen; nik zuek maitatu zaituztedan bezala, zuek ere malta dezazuen batak bertzea. **35** Hortan ezagutuko dute guziek ene dizipuluak zaretela, baldin amudio baduzue elkharren ganat».

**36** Erraten dio Simon Piarresek: «Jauna, norat zohaz othe?». Ihardetsi zioen Jesusek: «Ni nohan lekhurat ezin jarraik zaikizket orai; ordean jarraikiko zaizkit gero ondoan». **37** «Jauna», diotsa Piarresek, «zergatik ezin jarraik nakikezu orai? Ene bizia emanen dut zuretzat». **38** Ihardetsi zioen Jesusek: «Zuk emanen duzula zure bizia enetzat? Zin zinez darotzut erraten: ez du jonen oilharrak, non ez bainauzu arnegatuko hiruretan».

#### XIV. KAP.

**1** «Ez dadillala altara zuen bihotza; sinhesten duzue Jainkoa baitan, ene baitan ere sinhets zazue. **2** Ene Aitaren etxean hainitz egoitza dire. Bertzela erranen narotzueken banohala zuei lekhua preparatzerat. **3** Eta goan naitekenean eta lekhua preparatu darotzuekedanean, berriz ethorriko naiz eta hartuko zaituztet ene ganat, ni naiteken tokian zuek ere izan zaitetzentzat. **4** Eta ni norat nohan badakizue eta bidea badakizue».

**5** Erraten dio Thomasek: «Jauna, ez dakigu eta norat zohazen, eta bidea nondik jakin ahal dezakegu?». **6** Erraten dio Jesusek: «Ni naiz bidea eta egia eta bizitzea; nihor ez da ethortzen Aita ganat nitaz baizen. **7** Baldinetariak ezagutu baninduzue ni, ene Aita ere ezagutuko bide zinduten; ezagutuko duzue bada lauster, eta ja ikusi ere duzue». **8** Erraten dio Filipek: «Jauna, erakuts diezaguzu zure Aita eta hori aski dugu». **9** Ihardetsi zioen Jesusek: «Hanbat denbora du zuekien naizela eta ez nauzue ezagutu? Filipe, ni ikusten nauenak ikusten du ene Aita ere. Nola diozu zuk: erakuts diezaguzu zure Aita? **10** Ez duzue sinhesten ni Aita baitan naizela eta Aita ene baitan dela? Nik erraten darozkitzuedanak ez darozkitzuet ene baitarik erraten, alabaiñan ene Aitak, ene baitan dagoenak berak, egiten ditu ene obrak. **11** Ez duzue sinhesten ni Aita baitan naizela eta ene Aita ene baitan dela? Bederen egiten ditudan obren beren gatik ere sinhets zazue. **12** Egiaz egiaz darotzuet erraten: ene baitan sinhesten duenak, nik egiten ditudan obrak, hark ere ditu eginen eta are handiagoak ere ditu eginen, zeren ni Aita ganat bainoha. **13** Eta zer ere galdetuko baidiozue Aitari ene izenean, eta hura egiñen dut, glorifikatua izan dadintzat Aita Semearen baitan. **14** Baldinetariak zerbait galdetzen badarotazue ene izenean, hura eginen dut. **15** Baldin ni maite banauzue, ene manamenduak begiratzatzue; **16** eta nik othoiztuko dut Aita eta bertze konsolatzaile bat emanen darotzue, egon dadintzat zuekien bethierekotz: **17** Izpiritu egiazkoa, munduak ezin errezibi dezakena, zergatik ez baidu ikusten eta ez baidu ezagutzen. Zuek ordean ezagutuko duzue, zeren zuen baitan egonen baida eta zuekien izanen baida. **18** Ez zaituztet zurtz utziko; ethorriko naiz zuen ganat. **19** Oraiño aphur bat eta munduak ez nauzue ikusiko; zuek ordean ikusiko nauzue, zergatik bizia izanen bainaiz eta zuek ere biziak izanen baitzarete. **20** Egun hartan zuek ezagutuko duzue ni Aita baitan naizela, eta zuek ene baitan eta ni zuen baitan. **21** Ene manamenduak dakizkiena eta begirutzen dituena da ni maitatzen nauena. Berriz ni maitatzen nauena izanen da maitatua ene Aitaz eta nik ere maitatuko dut haiña eta agertuko diot ene burua».



22 Erran zioen Judasek, ez Iskariote hark: «Jauna, nondik heldu da, agertuko baidarokuzu guri zeure burua eta ez munduari?». 23 Ihardetsi zioen Jesusek eta erran: «Baldin nihork maitatzen banau ni, ene hitza begiratu du eta ene Aitak maitatu du haiña, eta haren ganat ethorriko gare eta haren baitan gure egoitza eginen dugu. 24 Ni maite ez naue-nak ene erranak ez ditu egiten; bada aditu izan duzuen hitza ez da enea, baiñan bai ni igorri izan nauen Aitarena. 25 Gauza hauk erran darozkitzuet oraiño zuekien nagoela. 26 Konsolatzaillea ordean, Aitak ene ize-nean igorriko duen Izpiritu Saindua, izanen da gauza guziak irakatsiko darozkitzueda; hark ohartaraziko zaituzte nik erran darozkitzuedan guziez. 27 Bakea darotzuet uzten, ene bakea darotzuet ematen; ez darotzuet munduak ematen ohi duen bezala nik ematen zuei. Ez bedi altara zuen bihotza, eta ez izi. 28 Aditu duzue nola erran darotzuedan: Banoha eta heldu naiz berriz zuenganat. Baldin ni maite baninduzue, atsegin zindukete, zeren nohan Aita ganat; zergatik Aita handiago baida ni baiño. 29 Bada orai darotzuet erraten gauza egin dadin baiño lehen, egin ditekenean sinhets dezazuentzat. 30 Gaurogo ez naiz hainitz mintzatu zuekien; heldu da ezen mundu huntako prinzea eta ez baidu ikuskizunik ene baitan. 31 Baiñan ezagut dezantzat munduak maite dudala nik ene Aita eta nola manatu izan baidarot Aitak, eta hala egiten dudala, altxa zaitzte, gohazen hemendik».

## XV. KAP.

1 «Ni naiz mahasti egiazkoa eta ene Aita da mahastizaina. 2 Ene baitan fruitu ekhartzen ez dueñ aihen guzia khenduko du eta fruitu ekhartzen duen guzia garbituko du, fruitu gehiago ekhar dezan gatik. 3 Ja zuek garbiak zarete nik erran darozkitzuedan hitzen gatik. 4 Egon zaitzte ene baitan eta ni naiz egonen zuen baitan. Aihenak ezin ekhar dezaken bezala fruiturik bere baitarik, non ez dagoen josia mahats ondoari, hala zuek ere ezin ekhar dezakezue, non ez zaudezten josiak niri. 5 Ni naiz mahats ondoa, zuek aihenak. Nor ere baidago ene baitan eta zeinen baitan bainago ni, hark ekhartzen du fruitu hainitz, zeren ni gabe deusere ezin baidikezue. 6 Baldin norbait ene baitan ez badago, arthikia izanen da kanporat xirmendua bezala eta ihartuko da eta bildurik emanen dute suan eta erreko da. 7 Baldinetariak egoten bazarete ene baitan eta ene hitzak zuen baitan badaudez, nahi duzuen guzia galdetuko duzue eta eginen zaitzue. 8 Huntan diteke glorifikatua ene Aita, fruitu hainitz ekhar dezazuen eta

egin zaitzeten ene dizipulu. 9 Ene Aitak ni maitatu izan nauen bezala, nik ere zaitzitet zuek maitatu. Egon zaitzte ene amudioan. 10 Baldin ene manamenduak begirutzen badituzte, egonen zarete ene amudioan, hala nola nik ere ene Aitaren manamenduak baiditut begiratu eta bainago haren amudioan. 11 Horiek erran izan darozkitzuet, ene atsegina izan dadintzat zuen baitan eta zuen atsegina izan dadin konplia.

12 Hauxe da ene manamendua: maita dezazuen elkhar, nik zuek maitatu zaitzitedan bezala. 13 Amudio handiagorik ez diteke bere bizia ematea baino bere adiskideentzat. 14 Zuek ene adiskideak zaitzekete, baldin egiten badituzte nik manatzen darozkitzuedanak. 15 Hemendik harat ez zaitzitet deithuko zerbitzariak; zeren zerbitzariak ez baidaki zer egiten duen haren nausiak. Baiñan deithu zaitzitet adiskideak, zeren ene Aita ganik aditu izan ditudan guziak irakatsi baidarozkitzuet kuei. 16 Ez nauzue zuek ni hautatu, bainan nik zaituzte tzuek hautatu eta ezarri, ibill zaitzeten gatik eta fruitu ekhar dezazuen gatik eta zuen fruituak iraun dezan gatik, zer ere galdetuko baidiozue ene Aitari ene izenean, eta hura eman diezazuentzat. 17 Nik zuei exlejitzen darotzuedana da, maita dezazuen elkhar.

18 Baldinetariak munduak gaitsesten bazaituzte, jakin zazue zuek baiño lehen ni gaitxetsi nauela. 19 Baldin munduko izan baziñete, munduak haren zitekena maitatuko zuen; zeren ordean munduko ez zareten, aitzitik nik zaitzitedan berezi mundutik, horren gatik zaituzte higin munduak. 20 Orhoit zaitzte nik erran izan darotzuedan hitzaz: Ez da zerbitzaria bere nausia baiño handiago. Baldin ni persekutatu izan banaute, zuek ere persekutatuko zaituzte; baldin ene erranak egin badituzte, zuek eginen dituzte. 21 Ordean horiek guziak egiñen darozkitzue ene ize-naren gatik; zeren ez baidute ezagutzen ni igorri izan nauena. 22 Baldin ethorri ez banintz ni eta mintzatu ez banintzaie, ez lukete duten bekhatua; orai ordean ezenkusarik ez dute bere hobenez. 23 Ni higin nauenak ene Aita ere higin du. 24 Baldin egin ez banitu horien artean obra batzu, nihork bertzek egin izan ez dituenak, ez lukete duten bekhatua; orai ordean ikusi izan dituzte eta naute higin, eta bai ene Aita ere. 25 Konpli dadintzat erran hau, horien legean eskribatua dena; Gaitxetsi naute nik merezi gaberik. 26 Dathorreanean ordean nik Aitaren galtzarretik igorriko darotzuedan konsolatzaillea, Izpiritu egiazkoa, zein heldu baida Aita ganik, hark lekhukotasuna errendatuko du nitaz, 27 eta zuek ere lekhukotasuna errendatuko duzue, zeren haste hastetik enekien baitzarete».





## XVI. KAP.

1 «Gauza horietaz natzaitzue mintzatu eskandalisa ez zaitezten gatik. 2 Sinagogetarik khenduko zaituzte; alabaiñan ethorri da ordua, zuek hilla-raziko zaituztenek usteko baidute endrezu egiten dioketela Jainkoari. 3 Eta horiek darozkitzue egiñen, zeren ez baidute ezagutzen ene Aita, ez eta ni ere. 4 Baiñan horietaz mintzatu natzaitzue, dathorkenean horien muga orhoit zaitezten gatik erran izan darozkitzuedala. 5 Horiek ordean hastetik ez darozkitzuet erran, zeren zuekien bainintzen. Orai banoha ni igorri izan nauena ganat eta zuetarik nihork ez darot galdegiten: norat zohaz? 6 Baiñan zeren horietaz mintzatu izan natzaitzuen, tristeziak bethe da zuen bihotza. 7 Hala ere erraten darotzuet nik egia: zuen probetxua da ni nohan; ezen baldin ni goaten ez banaiz, konsollatzailea ez da ethorriko zuen ganat; baldin ordean goaten banaiz, igorriko darotzuet nik. 8 Eta hura dathorkenean, bentzutuko duke mundua bekhatuaren gatik, justiziarren gatik eta jugamenduaren gatik. 9 Bekhatuaren gatik, zeren ez duten sinhetsi ene baitan. 10 Justiziarren gatik berriz, zeren ni ene Aita ganat bainoha, eta ez bainauzue ikusiko gehiago. 11 Eta jujeamenduaren gatik, zeren mundu huntako prinzea ja jujeatua baida. 12 Oraino hainitz gauza badut zuei errateko, baiñan ezin jasan detzaketzue orai. 13 Dathorkenean ordean Izpiritu egiazko hura, irakatsiko darozkitzue hark egia guziak; ez da ezen mintzatuko bere baitarik, bainan zer ere aditu baiduke, eta hura du erranen, eta ezagutaraziko darozkitzue ethortzeko direnak. 14 Hark nau ni glorifikatuko, zergatik ene denetik baidu errezibituko eta ezagutuko baidarotzue. 15 Ene Aitak duen guzia enea da; horren gatik erran dut ene denetik duela errezibituko eta ezagutaraziko darotzuela. 16 Denbora gutirik barnean ez nauzue gehiago ikusiko eta handik aphur baten buruan berriz ikusiko nauzue, zeren bainoha ene Aita ganat».

17 Zioten, bada, haren dizipuluetarik zenbaitek elkharren artean: «Zer erraten daroku hori: denbora gutirik barnean ez nauzue ikusiko eta denbora gutirik barnean berriz ikusiko nauzue eta ene Aita ganat bainoha? 18 Zioten, bada: «Zer erran nahi othe du denbora gutirik barnean dioen hortaz? Ez dugu konprenitzen zer erraten duen».

19 Ezagutu zuen Jesusek interrogatu nahi zuketela eta erran zaroen: «Elkharri galdez zagozkote, zeri darraioela erran othe dudan: denbora gutirik barnean ez nauzue ikusiko eta denbora gutirik barnean berriz nauzue ikusiko. 20 Egiaz egiaz darotzuet erraten: Nigar eta auhen egiñen

duzue zuek; mundua berriz alegeratuko da. Zuek bada tristatuko zarete; ordean zuen tristezia ganbiatuko da bozkariotarat. 21 Emaste batek erdi behar duenean sofritzen du, zeren ethorri baida haren muga; erdi denean ordean seme batez, ez da gehiago orhoitzen bere miñez bozkarioren fuer-tsaz, zeren jaio den gizon bat mundurat. 22 Zuek ere, bada, orai egiazki tristeziaren zarete; berriz ordean ikusiko zaituztet eta alegeratuko da zuen bihotza eta zuen bozkarioa nihork ez darotzue khenduko. 23 Orduan ez darotazue deusez galderik egiñen. Egiaz egiaz darotzuet erraten: Baldin zerbait eskatzen badiozue ene Aitari ene izenean, emanen darotzue. 24 Orai arteraiñokoan ez duzue eskatu deusere ene izenean. Galde zazue eta izanen duzue, zuen bozkarioa izan dadintzat konplia. 25 Gauza horiek erran darozkitzuet paraboletan; heldu da denbora gehiago paraboletan mintzatuko ez natzaitzuen; aitzitik mintzatuko natzaitzue klarki ene Aitari behatzen zaizkon gauzez. 26 Orduan duzue galdetuko ene izenean eta ez darotzuet erraten othoiztuko dudala nik ene Aita zuentzat, 27 ezen ene Aitak berak zaituzte zuek maite, zeren zuek ni maite nauzen eta sinhetsi duzuen Jainkoa ganik ilkhi naizela. 28 Ilkhi naiz Aita ganik eta ethorri izan naiz mundurat; uzten dut berriz mundua eta banoha Aita ganat».

29 Erraten diote bere dizipuluek: «Orai klarki mintzo zare eta hitz estalirik batere ez duzu erraten. 30 Orai ezagutzen dugu badakizkitzula gauza guziak eta ez duzula mengoa nihork interroga zaitzan; horren gatik dugu sinhesten Jainkoa ganik ilkhi zarella». 31 Ihardetsi izan zaroen Jesusek: «Orai duzue sinhesten? 32 Huna non heldu den denbora, eta ja ethorri ere da, barraiatuko baitzarete zein bere tokitarat eta neroni bakharrik utziko bainauzue; baiñan ez naiz bakharrik, zeren ene Aita enekien baida. 33 Gauza hauk erran darozkitzuet ene baitan izan dezazuentzat bakea. Munduan pena hainitz izanen duzue jasateko, bainan duzuen gogoa on; nik garaitu dut mundua».

## XVII. KAP.

1 Jesusek horiek erran eta altxaturik begiak zerurat erran zuen: «Alta, ethorri da ordua; glorifika zazu zure Semea, zure Semeak zu glorifika zaitzantzat, 2 hala nola eman baidiozu bothere gizon guzien gaiñean, zuk hari eman diotzatzun guziei hark eman diozatzentzat bizitze eternala. 3 Bizitze eternala ezen hau da: ezagut zaitzaten zu egiazko Jainko bakharra eta Jesus Kristo, zuk igorri izan duzuna. 4 Nik zu glorifikatu izan zaitut lurraren ginean; akhabatu dut obra, egiteko eman darotazuna. 5 Beraz



orai glorifika nazazu zuk ere ni, ene Aita, zure baitan gloria hartaz, zeïña izan baidut zure baitan mundua kreatu izan den baiño lehen.

**6** Ezagutarazi daroet zure izena zuk niri mundutik eman darozkidatzun gizonel. Zureak ziren eta niri darozkidatzu eman eta zure errana egin dute. **7** Orai dute ezagutzen niri eman darozkidatzun guziak zure ganik direla, **8** Zeren niri eman darozkidatzun hitzak eman baidaroztet nik hei. Errezibitu izan dituzte eta ezagutu dute egjazki zure ganik ilkhi naizela eta sinhetsi dute zuk igorri nauzula. **9** Nik hekientzat dut othoitz egiten. Ez dut othoitz egiten munduarentzat, baiñan bai zuk niri eman darozkidatzunentzat, zeren zureak baidire. **10** Eta ene diren guziak zure dire eta zureak dire ene; eta glorifikatua naiz hetan.

**11** Gaur gehiago ez naiz munduan; ordean hauk munduan dire eta ni zure ganat heldu naiz. Aita saindua, begira zatzitzu zure izenean niri eman izan darozkidatzunak, izan daitezentzat gauza bat eta bera, gu garen bezala. **12** Hekiekien nintzenean begiratzen nituen nik zure izenean. Niri eman izan darozkidatzunak begiratu izan ditut eta nihor hetarik ez da galdu izan, galdu beharzko umea baizen, Eskritura konpli zedintzat. **13** Orai bada zure ganat heldu naiz; eta gauza hauk ditut erraten munduan, izan dezatentzat ene bozkarioa konplia bere baitan. **14** Nik eman daroet zure hitza eta munduak ditu gaitzetsi, zeren ez diren munduko, hala nola ni ere ez bainaiz munduko. **15** Ez zaitut othoizten khien detzatzun mundutik, baiñan begira detzatzun gaitzetik. **16** Ez dire munduko, hala nola ni ere ez bainaiz munduko. **17** Sanktifikatu zatu; zure hitza egia bera da. **18** Nola ere zuk ni igorri bainauzu mundurat, nik ere hala igorri izan ditut horiek mundurat. **19** Horientzat naiz neroni sanktifikatzen, horiek berak ere izan daitezentzat sanktifikatuak egjan.

**20** Ez dut ordean horientzat xoilki othoitz egiten, baiñan oraiño hai-  
nentzat ere, zeïnek sinhetsiko baidute ene baitan, horien hitza aditurik. **21** Guziak bat izan daitezentzat, hala nola zu, Aita, ene baitan baitzare eta ni bainaiz zure baitan; hek ere izan daitezen bat gure baitan, sinhetsi dezantzat munduak zuk nauzula ni igorri. **22** Eta nik eman daroet hei parte zuk niri eman izan darotazun gloriatik, izan daitezentzat gauza bat eta bera, gu ere gauza bat eta bera garen bezala. **23** Ni haukien baitan naiz eta zu zare ene baitan, izan daitezentzat perfetki bat egiñak, eta ezagut dezantzat munduak zuk nauzula ni igorri, eta maitatu izan ditutzula hauk, neroni maitatu nauzun bezala. **24** Ene Aita, nahi dut ni non ere bainaiz, eta han izan daitezen enekien zuk niri eman izan darozkidatzunak, ikus dezaten-

tzat zuk niri eman darotazun gloria, zeren maitatu bainauzu munduaren kreazonea baiño lehendanik. **25** Aita justua, munduak zu ez zaitu ezagutu; ordean nik ezagutu zaitut eta hauk ezagutu dute zuk nauzula ni igorri. **26** Nik ere ezagutarazi daroet zure izena eta ezagutaraziko ere; zuk ni maitatu nauzun amudioa izan dadin haukien baitan eta ni ere izan nadin haukien baitan».

## XVIII. KAP.

**1** Horiek erran ondoan, ilkhi zen Jesus bere dizipuluekien eta goan zen Zedrongo ibaiaz bertze alderat, non baitzen baratze bat, zeinetan sarthu baitzen bera eta bere dizipuluak. **2** Bazeakien lekhu hura Judasek ere, zeïnek trahitzen baitzuen, zeren maiz izan baitzen harat Jesus bere dizipuluekien. **3** Judas, bada, harturik soldadu tropela bat eta aphez handien baitarik eta farisauen ganik jende batzu, ethorri izan zen harat lanternekien, zuziekien eta armekien. **4** Bizkitartean Jesusek, baitzeakizkien haren gaiñean gerthatu behar ziren guziak, hartu zuen aitzinerat eta erran zaroen: «Noren bilha zabiltzate?». **5** Ihardsi zioten hek: «Jesus Nazarethekoaren». Erraten daroe Jesusek: Ni naiz». Judas hura trahitzen zuena ere hekiekien zen. **6** Erran zaroenektz bada Jesusek, Ni naiz, abiatu ziren gibelerat eta erori lurrerat. **7** Berriz ere galdegin zaroen oraiño: «Noren bilha zabiltzate?». Eta hek erran zioten: «Jesus Nazarethekoaren». **8** Ihardsi zaroen Jesusek: «Erran darotzuet ni naizela. Baldinetariak, beraz, ene bilha bazabiltzate, utzatzue hauk goaterat». **9** Konplitua izan zedintzat erran izan zuen hitza: Niri eman izan darozkidatzunetarik batere ez dut galdu. **10** Simon Piarresek, bada, baitzuen ezpata bat, athera zuen, jo zuen hartaz aphez handiaren muthill bat eta ebaki zioen eskuinako beharria; eta zuen izena muthill hark Malkus. **11** Baiñan erran zioen Jesusek Piarresi: «Emazu zure ezpata magiñean; ala ez dut edanen ene Aitak eman darotan kalixa?» **12** Soldaduek, bada, eta hekien kapitainek eta juduek igorririko jendeek hartu izan zuten Jesus eta amarratu.

**13** Eraman zuten Anasen ganat lehenik; zen ezen Kaifasen aitagina-  
rraua, zein baitzen urthe hartako aphez handia. **14** Zen, bada, Kaifas konseillu eman zaroena juduei, on zela gizon bakhar bat hill zedin populua-  
rentzat. **15** Jarraiki zitzaion Jesusi Simon Piarres eta bai bertze dizipulu bat ere; eta dizipulu hura aphez handiaren ezaguna baitzen, sarthu izan zen Jesusekien aphez handiaren etxean. **16** Piarres ordean kanpoko aldean baitzegoen, ilkhi zen bertze dizipulu hura, aphez handiaren ezaguna, eta



athezain zegoen neskatoari erranik, sarrarazi izan zuen Piarres. **17** Erraten dio, bada, Piarresi neskato athezain zegoenak: «Ez zare zu ere gizon horren dizipuluetarik?». Ihardesten dio hark: «Ez naiz hetarik». **18** Zeudezen muthillak eta Jesus hartu izan zuten jendeak su bazterrean, zeren hotz hari baitzen, eta Piarres ere hekiekien zegoen berotzen.

**19** Aphez handiak, bada, galdegin zioen Jesusi bere dizipuluez eta bere doktrinaz. **20** Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Ni agerian mintzatu natzaio munduari; nik bethi irakatsi izan dut sinagogan eta tenpluan, zeññetarat judutar guziak biltzen ohi baidire, eta gerizean deusere ez dut erran. **21** Zergatik niri darotazu galdegiten? Galde egiozute ni aditu izan nautenei, hea zer erran dioketedan». **22** Horiek erratearekien batean, han ziren ofizialetarik batek eman zioen mazelako bat Jesusi erraten zioelarik: «Horla diozu ihardesten aphez handiari?». **23** Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Baldin gaizki mintzatu banaiz, erakuts zazu zer gaizki erran dudan; baldin ordean ungi banaiz mintzatu, zergatik nauzu zehatzen?». **24** Eta igorri zuten Anasek estekatua Kaifaz aphez handia ganat.

**25** Zegoen, bada, Simon Piarres xutik berotzen eta zenbaitek erran zioen: «Ez othe zare zu ere horren dizipuluetarik?». Ukhatu zuten hark eta erran: «Ez naiz hetarik». **26** Erraten dio aphez handiaren sehietarik batek, Piarresek beharria ebaki zioenaren ahaideak: «Ez zaitut nik zu ikusi baratzeak horrekien?». **27** Berriz ere ordean ukhatu izan zuen Piarresek; eta berehala oillarrak jo zuen.

**28** Eraman zuten, bada, Jesus Kaifas baitarik gobernadorea baitarat; goiza ere zen eta hek ez ziren sarthu palazioan, lohi zitezen beldurrez eta Bazkoa jan zezaketen gatik. **29** Ilkhi zitzairen Pilatus kanpoko alderat eta erran zaroen: «Zer akusu dakharkezue gizon hunen kontra?». **30** Ihardetsi zioten hek eta erran: «Baldiñetariak izan ez balitz hau gaixtagina, ez ginduen eki zure eskuetarat emanen». **31** Erran zaroen bada Pilatusk: «Har zazue zebonek eta zuen legearen arauera jujea zazue». Juduek ihardetsi zioten: «Guri ez zaiku zilhegi nihoren hillarazitzea». **32** Konpli zedintzat Jesusek erran izan zuena, aditzerat emateko zer heriotzez hil zen.

**33** Sarthu zen, bada, Pilatus berriz palazioan eta, erakharririk Jesus, erran izan zioen: «Zu zare Juduen erregea?». **34** Ihardetsi zioen Jesusek: «Zeure baitarik hori erraten othe duzu, ala bertzek erran othe darotzute nitaz?». **35** Erran zioen berriz Pilatusk: «Naski ni judutarra banaiz? Zure nazioneak eta aphezen prinzeek zaituzte eman ene eskuetarat; zer egin duzu?». **36** Ihardetsi izan zioen Jesusek: «Ene erresuma ez da mundu hun-

takoa; baldin mundu huntako balitz ene erresuma, ene jendeak guduka litezke ni ez uzteko juduen eskuetan erortzerat; ordean ene erresuma ez da hemengo». **37** Orduan erran izan zioen Pilatusk: «Beraz errege zare zu?». Ihardetsi zioen Jesusek: «Zeronek diozu errege naizela; ni hortakotz sorthu izan naiz eta ethorri mundurat, lekhukotasuna errendatzekotzat egiaren alde, egiaren alde ditekenez guziak entzuten du ene boza». **38** Erraten dio Pilatusk: «Zer da egia?». Eta hori erran eta, ilkhi zen bigarrean juduetarat eta erran zaroen: «Nie ez dut aurkhitzen hunen baitan kondenezioneko sujetik batere. **39** Baiñan ohikundea baida utz diezazuedan kriminel bat Bazkoko bestan, nahi duzue larga diezazuedan juduen erregea?». **40** Jarri ziren berriz guziak oihuz erraten zutelarik: «Ez, hori ez, aitzitik bai Barrabas». Zen bada Barrabas ohoin bat.

## XIX. KAP.

**1** Orduan, bada, hartu zuten Pilatusk Jesus eta azotarazi zuten. **2** Eta soldaduek eginik khoroa bat arantze bilhukatuz, eman zioten buruaren gaiñean eta eskarlatezko kapa batez estali zuten. **3** Gero hurbildurik haren ganat erraten zioten: «Agur, juduen Erregea». Eta ahutzekoz jotzen zuten. **4** Ilkhi izan zen, bada, berriz ere Pilatus kanporat eta erran zaroen juduei: «Huna non ekhartzen darotzuedan kanporat, ezagut dezazuentzat nik ez dudala aurkhitzen hunen baitan hobenik». **5** Ilkhi zen, bada, Jesus zakharkela arantzezko khoroaliat eta eskarlatezko bestimenda eta Pilatusk erraten daroe: «Huna gizona». **6** Ikusi izan zutenean aphezen prinzeek eta hekien jendeek, hasi ziren oihuz erraten: «Gurutzefika zazu hori, gurutzefika zazu hori». Erraten daroe Pilatusk: «Har zazue zebonek eta gurutzefika zazue; ezen nik ez dut aurkhitzen hunen baitan zertaz hau kondemna». **7** Ihardetsi zioten juduek: «Guk badugu legea eta legearen arauera hill behar du, zeren Jainkoaren Semea egiten baidu bere burua».

**8** Aditu zuenean bada Pilatusk hitz hori, are gehiago zen izitu; **9** eta sarthurik berriz bere palazioan, erran zioen Jesusi: «Nongoa zare zu?». Jesusek ordean erreputarik ez zioen eman. **10** Erraten dio bada Pilatusk: «Niri ez zaikit mintzatzen? Ez dakizu bothere badudala zu gurutzefikaratzitzeko eta bothere halaber zu libratzeko?». **11** Ihardetsi zioen Jesusek: «Ez zinduke botheririk ene kontra batere, baldin eman izan ez balitzaitzu gaiñetik; hargatik da, beraz, ni zuri libratu nauenaren falta handiagoa». **12** Handik harat Pilatus hura libratu nahiz zebillan; juduak ordean heiagoraz zegozkon ziotsetela: «Baldinetariak hori libratzen baduzu, ez zare Kaesa-



ren adiskidea; ezen bere burua errege egiten duen guzia Kaesaren kontra jartzzen da».

**13** Pilatusek, bada, aditu zituenean hitz horiek, eraman zuen kanporat Jesus eta jarri zen bere tribunalean, grekez Lithostrotos eta hebraikoz Gabatha erraten dioten lekhu. **14** Bazkoko sabathoaren bezpera zen eta seigarren orentsua; eta erraten daroe juduei: «Huna zuen Errege». **15** Hek berriz oihuz zeudezen: «Khen zazu hori, khen zazu, gurutzefika zazu!». Erraten daroe Pilatusek: «Kuen errege gurutzefikatuko dut?». Ihardetsi zioten aphezen printzeek: «Ez dugu erregerik, Kaesarez landan». **16** Orduan, bada, eman zaroen gurutzefikatua izateko. Hala hartu zuten Jesus eta eraman zuten.

**17** Eta bere gurutzeta zakharkela, ethorri zen Kalbaria erraten zioten lekhu hartarat, hebraikoz Golgotha deitzen denerat, **18** zeinetan gurutzefikatu baitzuten eta harekien batean bertze bia bi aldetarik, eta Jesus bien erdian. **19** Egiñarazi zuen ere Pilatusek eskribu bat eta emanarazi gurutzearen gainean; eta zen eskribatua: Jesus Nazarethekoa, juduen Erregea. **20** Eskribu hori, bada, irakurri zuten judu hainitzek, zeren hurbill baitzen hiritik Jesus gurutzefikatu zuten lekhu eta eskribatua baitzen hebraikoz, grekez eta latinez. **21** Ziotsaten bada Pilatusi aphezen prinzeek: «Ez dezazula eskriba: Juduen Erregea, baiñan berak erran duela: juduen Erregea naiz». **22** Ihardetsi zaroen Pilatusek: «Eskribatu dudana eskribatu duket».

**23** Soldaduek gurutzefikatu izan zutenean Jesus, hartu zituzten haren bestimendak eta egin zituzten laur parte, soldadu baxhotxarentzat parte bat. Hartu izan zuten halaber haren tunika ere eta, jostura gabekoa baitzen gainetik behera batean ehoa, **24** erran zioten elkhari: «Ez dezagula hauts hori, aitzitik emagun zortherat norentzat izanen den». Konplutua izan zedintzat Eskriturak erran izan duena: «Partitu izan dituzte ene bestimendak bere artean eta ene arropa eman izan dute zortherat». Horra zer egin zuten soldaduek.

**25** Zeudezen, bada, gurutzearen aldean Jesusen ama eta haren amaren aizpa Maria, Kleofasen emastea, eta Maria Magdalena. **26** Ikusi zutenean Jesusek bere ama eta haren aldean maite zuen dizipulua, erraten dio bere amari: «Emastea, horra zure semea». **27** Ondoan erraten dio dizipuluari: «Horra zure ama». Eta ordudanik hartu zuen dizipuluak bere ganat.

**28** Gero ondoan Jesusek baitzeakien guziak konplitu zirela, konplitu zedintzat Eskritura, erran izan zuen: «Egarri naiz». **29** Zen, bada, han jarro

bat binagrez bethea, eta soldaduek belogi bat betherik biñagrez eta emanik hisopa adar batean inguru, ekharri zioten ahorat. **30** Hartu zuenean bada Jesusek biñagrea, erran izan zuen: «Akhabo da». Eta burua beheraturik errendatu zuen izpiritua.

**31** Juduek, bada, zeren zen sabathoaren bezpera, egon ez zitentzat gurutzearen gorphutzak sabatho egunean, egun handi bat zen ezen sabatho egun hura, othoiztu zuten Pilatus hautsaraz zitzala hekien zangoak eta khenaraz zetzala handik. **32** Ethorri ziren, bada, soldaduak eta hautsi zituzten lehenbizikoaren zangoak eta bai harekien gurutzefikatua izan zen bertzearenak ere. **33** Gero ethorri zirenean Jesusen ganat eta ikusi zutenean ja hilla zela, ez zituzten hautsi haren zangoak, **34** baiñan soldaduetarik batek dardo batez ideki zioen sahetsa eta berehala ilkhi zen handik odola eta ura. **35** Ikusi duenak du errendatzen huntaz lekhukotasuna eta egiazkoa da haren lekhukotasuna; eta hark badaki egia erraten duela, zuek ere sinhets dezazuentzat. **36** Gauza horiek ezen egin izan dire Eskritura izan zedin gatik konplutua: Hezurrik ez diozue hautsiko hari. **37** Eta bertze lekhu batean berriz Eskriturak erraten du: Ikusiko dute zilhatu dutena.

**38** Horien ondoan, bada, eskatu zioen Pilatusi Josef Arimathiakoak, zein baitzen Jesusen dizipulu, ixillakoa ordean, juduen beldur baitzen, utz ziozala eramaterat Jesusen gorphutza; eta utzi zioen Pilatusek. Ethorri zen, bada, eta eraman zuen Jesusen gorphutza. **39** Ethorri zen halaber Nikodeme, Jesusen ganat gauaz lehenago ethorri ohi zena, zakharkela ehun liberen ingurua mirrazko eta aloezko baltsamu batetarik. **40** Hartu zuten, bada, Jesusen gorphutza eta trozatu zuten mihise oihal batzutan urrin onekien, juduek ohitza duten bezala ehorzteko. **41** Zen, bada, hura gurutzefikatua izan zen lekhuaren baratze bat eta baratze hartan thonba berri bat, zeinetan oraino nihor ez baitzen eman izan. **42** Han bada, juduen sabathoaren bezpera zeren zen eta hurbillean baitzen thonba hura, ezarri zuten Jesus.

## XX. KAP.

**1** Sabathoaren biharamunean Maria Magdalena ethorri zen goiz goizetik eta oraino argitu gabe thonbarat eta ikusi zuen harria sepulturatik khendua. **2** Goan zen, bada, lausterrez Simon Piarresen ganat eta bertze dizipulu Jesusek maite zuen haren ganat eta erran zaroen: «Eraman dute



Jauna sepulturatik, eta ez dakigu non eman duten». **3** Horren gainean ilkhi zen Piarres eta bai bertze dizipulu hura ere, eta goan ziren sepulturarat. **4** Zihoazen, bada, lausterrez biak elkarrekien; ordean bertze dizipulu hura lausterrago goan zen Piarres baiño eta lehenago arribatu zen thonbarat. **5** Eta beheraturik ikusi izan zituen mihiseak lurrean, baiñan ez zen sarthu. **6** Ethorri zen, bada, Simon Piarres haren ondotik eta sarthu zen sepulturarat eta ikusi zituen oihalak lurrean, **7** eta buruan eman izan zioten oiha-la ez mihiseekien ezarria, baiñan beregain apartean plegatua. **8** Orduan, bada, sarthu izan zen dizipulu lehenago sepulturarat arribatu zen hura ere, eta ikusi zuen eta sinhetsi; **9** ez zeakien ezen oraiño Eskriturak erakusten duena: mengoa zela hilletarik bitz zedin. **10** Bihurtu ziren gero dizipulu hek bere tokitarat.

**11** Maria ordean zegoen sepulturaren kanpoko aldean nigarrez; hala zegoela, bada, makhurtu zen sepulturarat behatzeko. **12** Eta ikusi zituen bi aingeru tresna xuritan, jarriak bata buru aldean eta bertzea oinetako aldean, Jesusen gorphutza emana izan zen tokian. **13** Erraten diote hek: «Emastekia, zeri egiten diozu nigar?». Ihardetsi zaroen: «Eraman baidute ene Jauna eta ez baidakit non eman duten». **14** Hori erran eta, itzuli izan zen eta ikusi zuen Jesus xutik; ordean ez zeakien Jesus zela. **15** Erraten dio Jesusek: «Emastekia, zeri egiten diozu nigar? Noren bilha zabilta?». Eta hark ustez ezen baratzezaina zen, erraten dio: «Jauna, baldin zuk eraman baduzu, erran diezadazu non eman duzun eta nik eramanen dut». **16** Erraten dio Jesusek: «Maria». Hark berriz itzulirik erraten dio: «Raboni», erran nahi da, Nausia. **17** Erraten dio Jesusek: «Ez nazazula uki, ezen oraino ez naiz igan ene Aita ganat; baiñan zohaz ene anaietarat eta errozute: Banoha igaterat ene Aita ganat eta zuen Aita ganat, ene Jainkoa eta zuen Jainkoa ganat». **18** Ethorri zen Maria Magdalena erraterat dizipuluei: «Ikusi dut Jauna eta hau erran darot».

**19** Egun hartan berean, zein baitzen astelehena, arratsean dizipuluak bilduak zeudezen etxeko atheak juduen beldurra gatik zarratuak zirela; ethorri zen Jesus eta eman zen hekien erdian eta erran zaroen: «Bakea dela zuekien». **20** Hori erran eta erakutsi zarozten eskuak eta sahetsa. Boztu ziren, bada, dizipuluak Jauna ikusteaz. **21** Erran zaroen berriz ere: «Bakea dela zuekien. Aitak ni igorri nauen bezala, nik ere igortzen zaituztet zuek». **22** Horiek erran ondoan hatsa arthiki zaroen eta erran zaroen: «Errezibi zazue Izpiritu Saindua. **23** Noren ere bekhatuak barkhatuko baidituzte, eta hei barkhatuko zaitze; eta norenak idukiko baidituzte, eta hekienak idukiak izanen dire».

**24** Ordean Thomas, hamabietarik bat, Didime zeritzana, ez zen hekiekien Jesus ethorri izan zenean. **25** Erran zioten bada bertze dizipuluek: «Ikusi dugu Jauna». Baiñan hark erran izan zaroen: «Baldinetariak ez badut ikusten haren eskuetan itzeen inprezua eta ez badut ematen erhia itzeen tokian eta ematen ene eskua haren sahetsean, ez dut sinhetsiko». **26** Handik zortzi egunen buruan, berriz ere dizipuluak etxean barna zeudezela eta Thomas hekiekien zela, ethorri zen Jesus atheak zarratuak zirelarik eta eman zen hekien erdian eta erran zaroen: «Bakea dela zuekien». **27** Ondoan erraten dio Thomasi: «Ekharazu hunat zure erhia eta ikusatitzu ene eskuak, eta ekharrazu zure eskua eta emazu ene sahetsean; eta ez zaitetzela izan sinhets gogor, bainan bai sinhetstiar». **28** Ihardetsi zioen Thomasek eta erran: «Ene Jauna eta ene Jainkoa». **29** Erran zioen Jesusek: «Zeren nauzun ikusi, Thomas, duzu sinhetsi; dohatsuak ditezke ikusi ez dutenak eta sinhetsi dutenak».

**30** Hainitz bertze mirakuillu ere egin izan ditu Jesusek bere dizipulu- luen aitzinean, zeñiak ez baidire eskribatuak liburu huntan. **31** Baiñan hauk eskribatuak izan dire, sinhets dezazuen gatik Jesus dela Kristo Jainkoaren Semea eta sinhetsirik izan dezazuentzat bizitzea haren izenean.

## XXI. KAP.

**1** Gero ondoan agertu zitzairen berriz Jesus dizipuluei Tiberiadako itsasoaren aldean eta huna nola zitzairen agertu: **2** Ziren elkarrekien Simon Piarres eta Thomas, Didime zeritzana, eta Nathanael, zein baitzen Kana Galileakoa, Zebedearen semeak, eta bertzerik bia haren dizipuluetarik. **3** Erraten daroe hei Simon Piarresek: «Banoha arrantzatzerat». Hek erraten diote: «Heldu gare gu ere zurekien». Partitu ziren eta igan ziren barku batetarat eta gau hartan ez zuten deusere hartu. **4** Goiza ethorri zenean, gerthatu zen Jesus ur basterrean; ez zuten ordean ezagutu dizipuluek Jesus zela. **5** Erran zaroen bada Jesusek: «Haurrak, ez duzue hor jatekorik?». Ihardetsi zioten hek: Ez eki». **6** Erraten daroe: «Etxa zazue sarea barkuaren eskuineko alderat eta aurkhituko duzue». Etxatu zuten, bada, eta gero ezin kailla «zezaketan arrain hainitz izanaren fuertsaz. **7** Erran zioen, bada, Jesusek maite zuen dizipulu hark Piarresi: «Jauna da». Simon Piarresek aditu zuenean Jauna zela, hartu zuen bere arroba, bulhuz gorria zen ezen, eta arthiki zuen bere burua urerat. **8** Bertze dizipuluak berriz ethorri ziren barkuan, trañan zakharketela sarea arraiñez bethea. Ez ziren ezen urrun leihoretik, baiñan berrehun besoren inguruan ahal zitezken. **9**



Jautsi zirenean, bada, leihorreat aurkhitu zituzten ikhatzak biztuak eta arraiñ bat hekien gaiñean ezarria eta ogi bat. **10** Erraten daroe Jesusek: «Ekharrazue orai hartu dituzuen arraiñetarik». **11** Igan zen Simon Piarres barkurat eta kaillatu zuen sarea leihorreat, ehun eta berrogoi eta hamahirur arrain handiz bethea. Eta hanbat zelarik ere, ez zen hautsi sarea. **12** Erraten daroe Jesusek: «Katozte, bazkal zaitetzte». Eta mahaiñean jarri zirenetarik batere ez zen benturatzzen hari galdegiterat: Nor zare zu?, baitzeakiten Jauna zela. **13** Hurbildu zen bada Jesus, hartu zuen ogia eta eman zaroen; eta arraiña ere orobat. **14** Hori zen hirurgarreneko aldia Jesus agertu zitzaiena bere dizipuluei hilletarik biztuz geroztik.

**15** Bazkaldu zirenean, bada, erraten dio Simon Piarresi Jesusek: «Simon Joanesen semea, maite nauzu hauk nauten baiño gehiago?». Ihardesten dio: «Bai, Jauna, zeronek dakizu maite zaitudala». Jesusek erraten dio: «Bazka zatztizu ene bildotsak». **16** Erraten dio berriz ere Jesusek: «Simon Joanesen semea, maite nauzu?». Piarresek ihardetsi zioen: «Bai, Jauna, zeronek dakizu maite zaitudala». Erraten dio Jesusek: «Bazka zatztizu ene bildotsak». **17** Erraten dio hirurgarrenean Jesusek: «Simon Joanesen semea, maite nauzu?». Doloratu zen Piarres, zeren erran izan zioen hirurgarrenean: Maite nauzu?, eta erran zioen: «Jauna, zuk badakizkitzu gauza guziak; badakizu maite zaitudala». Jesusek erran zioen: «Bazka zatztizu ene ardiak.

**18** Egiaz egiaz darotzut erraten: Gasteago ziñenean, zeroni gerrikatzen ohi ziñen eta ibiltzen zinen nahi zinduen lekhurat; zahartzen zarenan, ordean, hedatuko dituztu zure eskuak eta bertzek zaitu gerrikatuko eta eramanen zuk nahi ez duzun lekhurat». **19** Hori, bada, erran izan zuen Jesusek adiaratitzeko zer heriotzez glorifikatuko zuen Piarresek Jainkoa. Eta hori erran eta erraten dio: Jarraik zakizkit niri». **20** Itzuli baitzen Piarres, ikusi zuen Jesusek maite zuen dizipulu hura ondolik heldu zela, afaitean Jesusen bulharren gaiñean pausatu izan zen hura bera, eta erran zioena: Jauna, nor da zu salduko zaituena? **21** Hau, bada, ikusi zuenean Piarresek, erran zioen Jesusi: «Jauna, eta huntaz zer izanen da?». **22** Erraten dio Jesusek: «Horla nahi dut egon dadin, ni ethor naiteken artean; zer dohatzu zuri? Zu jarraik zakizkit niri». **23** Goan zen ospea anaien artean dizipulu hura ez zela hillen. Ordean ez zioen erran Jesusek: Ez da hillen; baiñan, Horla nahi dut egon dadin ni nathorren artean, zer dohatzu zuri?

**24** Dizipulu hura bera da hautaz lekhukotasuna errendatzen duena, eta hauk eskribatu izan dituena; eta badakigu egiazkoa dela haren lekhukotasuna.

**25** Badire ordean bertze hainitz gauza Jesusek egin izan dituenak, zeñak eskribatzen balire xehero, uste baidut munduak berak ezin jasan ahal letzakela hartarakotzat eskribatu behar litezken liburuak.



## APOSTOLUEN EGINKARIAK

### I. KAP.

**1** Ene lehenbiziko liburuan mintzatu naiz, o Theofile, Jesusek egin eta irakatsi dituen gauza guzietez **2** gure ganik altxatua izan den eguneraiñoan, bere manuak emanik Izpiritu Sainduaz berak hautatu izan zituen apostoluei, **3** zeinei erakutsi ere izan baidaroe bere burua bizirik bere pasionearen ondoan seiñale eta frogantza hainitzekien, berrogoi egunez agertzen zitzaielarik eta mintzo zitzaielarik Jainkoaren Erresumaz.

**4** Gero hekiekien jaten hari zela, manatu zaroen ez zitezela ilkhi Jerusalemetik, baiñan egon zitezela Aitaren agintzaren begira, «zeiña», ziotson, «aditu izan baiduzue ene ahotik; **5** ezen Joanesek eman izan du urezko bathaio bat, ordean zuek errezibituko duzue Izpiritu Sainduaren bathaioa egun gutirik barnean». **6** Han bilduak zirenek, bada, galdegin izan zioten eta erran: «Jauna, orai bere estaturako othe duzu Israelgo erresuma?». **7** Hark ordean erran zaroen: «Ez dagotzue zuei Aitak bere botherean dagozkan denboren eta momentuen ezagutzea. **8** Baiñan errezibituko duzue Izpiritu Sainduaren berthutea, zeña jautsiko baida zuen gainerat eta izanen zaizkidate lekhukotzat Jerusalem, Judea guzian eta Samarian eta lurraren azken bastererraiño».

**9** Gauza horiek erran ondoan, begira zeudezela, altxatu zen gorat eta hedoi batek estali zuen hekien begietarik. **10** Eta nola begira baitzegozkan zerurat igatean, huna non bi gizon agertu zitzaizten bere aldean arropa xuritan, **11** zeinek erran ere baitzaroen: «Galileako gizonak, zertan zaudete zerurat beha? Zuen ganik zerurat altxatua izan den Jesus hori, horlaxe ethorriko da, zerurat goaten ikusi izan duzuen manera berean».

**12** Orduan bihurtu ziren Jerusalemeko Olibetako daritzan menditik, zein baida Jerusalemeko aldean, sabatho egun bateko bidean. **13** Eta sarturik igan ziren sala gora batetarat, zeinetan baitzeudezen Piarres eta Joanes, Jakobe eta Andres, Filipe eta Thomas, Bartholome eta Matheo, Jakobe Alfearen semea, eta Simon Zelotiarra eta Juda Jakoberen anaia. **14** Hauk guziak zeudezen gogo batez othoitz segituetan emastekiekien batean, Maria Jesusen amarekien eta haren anaiekien.

**15** Egun hetarik batez altxatu zen Piarres anaien artean (baziren ezen bilduak elkharganat ehun eta hogoi presunen ingurua) eta erran zaroen: **16** «Ene anaiak, konplitu beharra zen Eskrituran Izpiritu Sainduak Dabiden ahoz aitzinerat erran izan duena Judasez, zein izan baida Jesus hartu izan dutenen aitzindaria, **17** zein baitzen gure arteko eta lan berean parte zuena. **18** Hark, bada, bere inikitatearen sariaz erosi ondoan landa bat, urkhatarik bere burua leher egin zuen sabelaren erditik, eta ilkhi zitzaizkon bere bertze guziak gorphutzetik. **19** Hori da gauza bat Jerusalem daudezen guziek jakin dutena, halako moldez non izendatua baida landa hura hekien lengoaian Hazeldama, erran nahi da, Odol landa. **20** Eskribatua da ezen Salmoetako liburuan: Egin bedi hekien egoitza desertu, eta ez dadin izan nihor han egonen denik; eta haren apezpikutasuna har beza bertze batek. **21** Behar dugu, beraz, Jesus Jauna gure artean ibilli izan den denbora guzian, **22** hasi Joanesen bathaiotik eta gure ganik goratua izatu den arteraiño, gure baltsako izan diren gizon hautarik bat hartu, gurekien haren erresurrekzionearen lekhuko izateko».

**23** Eta presentatu zituzten bia: Josef Barsabas zeritzana, izengoitia zuena Justua, eta Mathias. **24** Eta othoitzetan jarririk, erran zuten: «Zuk, Jauna, zeinik ezagutzen baidituzu guzien bihotzak, erakuts zazu zein hautatzen duzun hautarik bietarik bat, **25** sartzeko ministerio huntan eta apostolutasunean, zeinetarik erori izan baida Judas goatekotzat bere lekhurat». **26** Denbora berean eman zituzten zortherat eta erori zen zorthera Mathiasen gainerat, eta eman izan zen hameka Apostoluen baltsako.

### II. KAP.

**1** Konplitu zirenean Mendekosteko egunak, guziak bilduak zeudezela lekhu berean, **2** egin zen betbetan habarrots bat, haize biolent batena bezalakoa zerutik heldu zena, eta bethe zuen hek jarriak zeudezen etxe guzia. **3** Denbora berean agertu zitzaizten suzko mihi batzu bezala barriatuak, zeinik gelditu baitziren hetarik batbederaren gainean. **4** Denbora berean betheak izan ziren guziak Izpiritu Sainduaz eta hasi ziren mintzatzen hizkuntza diferentez, Izpiritu Sainduak mintzarazten zituen arauera.

**5** Baziren orduan Jerusalem geldituak zeruaren azpiko nazione guzietarik juduak, gizon Jainko beldurtiak eta erreligionetsuak. **6** Habarrots hori banatu zenean, bada, bildu zen jendetze handi bat eta harritu



ziren, zeren aditzen baitzituzten batbederak bere erdaran mintzatzen dizipuluak. **7** Espantituak zeudezen guziak eta miretsiak, erraten zutelarik: «Hor mintzo diren horiek guziak ez dire galilearrak? **8** Nola bada ditugu gutarik batbederak aditzen gu sorthu garen herritako erdarez mintzatzen? **9** Parthakoek, Mediakoek, Elamitarrek, Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponten eta Asian, **10** Frijian eta Panfilian, Ejiptoan eta Zirenesen hurbil Libian daudezenek, bai eta Erromatik ethorri direnek ere, **11** juduek hala nola Proselitek, Kretakoek eta Arabiakoek ditugu aditzen gure guzien lengoaietan mintzo direla Jainkoaren gauza miragarriez». **12** Baldituak zeudezen bada guziak eta miretsiak, ziotela elkharri erraten: «Zer erran nahi othe du hunek?». **13** Bertzeak berriz trufatzen ziren eta zioten: «Arno berriz aseak baidire hauk eta hordituak».

**14** Orduan Piarres, han baitzegoen hamekekien batean, mintzatu zitzaien haltoki erraten zaroelarik: «O gizon judutarrak eta zuek, Jerusalem zeudesten guziak, ikhasazue hau eta har zatzue ene hitzak beharri emez. **15** Ez dire ezen, uste duzuen bezala, gizon hauk hordiak, oraino egunaren hirugarren orena baizen ez denaz geroztik. **16** Bainan hori diteke Joel Profetaz errana izan dena: **17** Huna zer gerthatuko den azken egunetan, dio Jaunak: Isuriko dut ene Izpiritutik haragi guziaren gaiñerat eta profetisatuko dute zuen semeek eta zuen alabek; zuen jende gasteek biturteak ikusiko dituzte eta zuen zaharrek ametsak egiñen. **18** Eta segurki ene muthillen eta ene neskatxen gaiñerat egun hetan isuriko dut ene Izpiritutik, eta profetisatuko dute. **19** Eta erakutsiko ditut gauza miragarriak zeruan eta seinaleak lurrian, odola, sua eta khezko baforeak. **20** Iguzkia ganbiatuko da illhunbetarat eta ilhargia odoletarat, Jaunaren eguna, egun handi eta seiñalatu hura, dathorken baiño lehen. **21** Eta izanen da ordua, Jaunaren izena nork ere othoiztuko baidu, eta hura izanen baida salbatua.

**22** Gizon israeldarrak, adizatzue hitz hauk: Jesus Nazarethekoa, gizon Jainkoaz zuen artean aprobatua, zuen erdian Jainkoak hartaz egin izan dituen gauza handiez, espantagarriez eta mirakuilluez, zebonek ere dakizuen bezala, **23** libratua izan zaitzue Jainkoaren dispozizione berariazko batez eta haren probidentziaren ordenuz; eta hiliarazi izan duzue gurutzefikaturik gaixtaginen eskuz, **24** baiñan phiztu izan du Jainkoak eta libratu thonbako doloretarik, zeren eta imposible ere baitzen hura han geldi zedin, **25** Dabidek ezen hartaz erran izan du: «Begien aitzinean nakusan Jauna bethiere; zeren eskuinetarik baidagot, higitua izan ez nadin. **26** Harगतिक da alegeratu ene bihotza eta du kantatzen laudorioz ene mihiak; eta

oraiño ene haragia ere da pausatuko esparantzetan, **27** zergatik ez bainauzu abandonatuko sepulturan, eta ez baiduzu permetituko zure sailduak froga dezan ustelgunerik. **28** Erakutsi darotazu bizitzearen bidea eta betheko nauzu alegrantziaz zure arraiziariekien batean».

**29** Ene anaiak, zilhegi izan bekik ausarki zuei erratea Dabid Patriarkaz, hura hill izan dela eta ehortzia, eta haren sepultura egungo egunean oraiño ikusten dela gure artean. **30** Profeta beraz nola baitzen eta baitzeakien juramenturekien agindu zioela Jainkoak haren odoletik soraraziko zuela seme bat haren thronuan jarriko zena, **31** ethorkisunaz zuen jakintzan da mintzatu Kristoren pizteaz, erraten duelarik ez dela utzia izan sepulturan eta haren haragiak ez duela frogatu usteltzerik. **32** Jesus hori bizitu izan du Jainkoak eta gu guziak gare hortaz lekhuko. **33** Jainkoaren eskuaz, bada, alxtatua izan denean eta errezibitu duenean Izpiritu Saindua igortzeaz Aitak egin zioen agintza, isuri izan du Izpiritu hura, zeina ikusten baiduzue zebonek eta aditzen. **34** Ez da ezen Dabid igan izan zerurat; bizkitartean hark erran izan du: Erran dio Jaunak ene Jaunari: jar zaite ene eskuineko aldean, **35** ezar detzakedan artean zure etsaiak zure oiñetako alkhitat. **36** Segurki jakin beza, beraz, Israelgo etxe guziak Jaun eta Kristo egin izan duela ezen Jainkoak zuek gurutzefikatu izan duzuen Jesus hura».

**37** Horiek aditu zituztenean, bihotza zaurthu zitzaien urrikiz eta erran zioten Piarresi eta bertze gaiñerako apostoluei: «Zer eginen dugu, anaia gureak?». **38** Piarresek bada erran zaroen: «Egizue penitentzia eta bathaia bedi zuetarik batbedera Jesus Kristoren izenean, zuen bekhatuen barkhamendua ardiestekotzat, eta errezibituko duzue Izpiritu Sainduaren dohaina. **39** Zuei ezen egin zaitzue agintza eta zuen umeei eta bai urrun diren guziei, gure Jainko Jaunak deithuko dituenei». **40** Hainitz bertze froga ere ekharri ziotzaten eta exortatzen zituen, erraten zaroelarik: «Salba zaitzte arraza gaizkoatu hunen artetik». **41** Haren hitza ungi errezibitu zutenak bathaiatuak izan ziren, eta juntatu zitzaizten egun hartan hirur milla arimen ingurua.

**42** Ziren bada arduratsu Apostoluen irakaspenen aditzen, ogiaren haustean komunikatzen eta othoitz egiten. **43** Mundu guziari beldurra lothu zitzaioen; eta hainitz prodijio eta mirakuillu egiten zituzten Apostoluek Jerusalem, halako maneraz non mundu guzia izialduraz bethea baitzen. **44** Sinhesten zuten guziak elkharrekiek bizi ziren eta zituzten gauza guziak erkide. **45** Bere funtsak eta ontasanak saltzen zituzten eta





partitzen zarozten guziei, batbederak behar zuenaren arauera. **46** Egun oroz goaten ziren tenplurat, bihotzez eta izpirituz elkarrekien bat egiñak, eta ogia hausten zutela etxez etxe bere othruntzak hartzen zituzten alegrantzirekien eta bihotzeko sinplizitatearekien, **47** Jainkoa laudatzen zutelarik eta populu guziaz bere buruak onetsarazitzen zituztelarik; eta egun oroz Jaunak berretzen zuen bathasun hartan biziz salbatu behar zutenen nonbrea.

### III. KAP.

**1** Piarres bada eta Joanes zihoazen tenplurat, bederatzigarren orenean egiten zen othoitzerat, **2** eta gizon bat bere amaren sabeleandakian maingu zena ekhartzen zuten eta ematen egun oroz tenpluko atean, Athe Ederra deitzen zuten batean, amoina eskatzeko tenpluan sartzen zirenei. **3** Hark ikusi zituenean Piarres eta Joanes tenpluan sartzerat zihozazela, othoitz egin zaroen amoina eman ziozabela. **4** Begiak gelditurik bada haren gainean, Piarresek Joanesekien batean erran zioen: «Beha zazu gure ganat». **5** Eta hura jarri zitzaien beha, ustez zerbait izanen zuela hekien ganik. **6** Piarresek ordean erran zioen: «Zilharrik ez urrerik ez dut; baiñan dudana ematen darotzut. Jesus Kristo Nazarethekoaren izenean altxa zaite eta ibill zaite». **7** Eta harturik esku eskuinetik goititu zuen eta betbetan borthiztu ziren haren zangoak eta oiñak. **8** Eta jauzi bat eginik gelditu zen xutik eta hasi zen ibiltzen. Sarthu zen tenpluan hekiekien saltoka zebillala eta Jainkoa laudatzen zuela. **9** Populu guziak ikusi zuen nola zebillan eta nola laudatzen zuen Jainkoa, **10** eta ezagutzen baitzuten tenpluko Athe Ederrean amoina eske jarria zegoen hura bera zela, espantatu ziren eta balditu hari gerthatu zitzaioenaz.

**11** Nola batxeikoten bada Piarresi eta Joanesi, goan zen populu guziaz lausterrez hetarat Salomonen daritzan aldamiorat espantuz behea. **12** Iku-sirik hori Piarresek erran zioen populuari: «Gizon israeldarrak, zergatik miresten duzue gauza hori, edo zergatik zagozkigute guri beha, gere bert-hutez edo gere botherez gizon hau ibillarazi bagindu bezala? **13** Abrahamen Jainkoak, Isaak-en Jainkoak eta Jakoben Jainkoak, gure aiten Jainkoak, du glorifikatu bere seme Jesus, zeina zuek libratu izan baiduzue eta ukhatu Pilatusen aitzinean, hark jujeatu arren utzi behar zela libro. **14** Zuek ordean duzue saindua eta justua ukhatu eta duzue galdetu, eman zekizuela gizon hilltzaille bat. **15** Aitzitik bizitzearen authora duzue hillarazi, bainan Jainkoak phiztu izan du, eta gu lekhuko gare hortaz. **16** Eta

haren izenaren fedeaz eman diotza indarrak izen hark berak zuek ikusten eta ezagutzen duzuen gizon huni, eta haren baithango fedeak eman dio osasun oso hau zuen guzien begietan.

**17** Hala ere bada, ene anaiak, badakit ezen jakin gabeen egin duzuela egin duzuen zuek eta bai zuen kargudunek. **18** Ordean Jainkoak horla konplitu izan du profeta guzien ahoz aitzinetik erran zuena: Kristok pairatuko zuela heriotzea. **19** Egizue beraz penitentzia, eta konberti zaitezte, zuen bekhatuak urratuak izan daitezentzat **20** Jaunak bere presentziaz infredimenduko egunak sorraraziko dituen denborakotz eta igorriko duenektotz zuei predikatua izan zaitzuen, Jesus Kristo, **21** zeina alabaiñan iduki behar baidu zeruak, Jainkoak mendeen hastetik bere profeta sainduen ahoz erakutsi izan darozkigun gauza guzien erreparazioneko denboraraiño. **22** Alabaiñan Moisek erran izan du: Profeta bat altxaraziko darotzue zuen Jainko Jaunak zuen anaien artetik, ni neroni bezalako; duzue hura entzunen erranen darozkitzuen gauza guzietan. **23** Eta huna zer gerthatuko den: Profeta hura adituko ez duen guzia urratua izanen da popularen artetik. **24** Eta Samuelez geroztik ondoren-ondo mintzatu diren profeta guziek ere irakatsi izan dituzte egun hauk. **25** Zuek zarete profeten umeak eta Jainkoak gure aitekien egin izan duen alientziakoak, Abrahami erran zioenean: Kure hazian benedikatuak izanen dire lurreko nazione guziak. **26** Zuentzat lehenbizikorik altxarazi izan du Jainkoak bere Semea eta igorri zuen benedikatzeko, zuetarik batbedera konberti dadintzat bere gaixtakerietarik».

### IV. KAP.

**1** Mintzo zitzaiztela bada populuari, ethorri ziren aphezak, tenpluko goarden kapitaina eta saduzearrak, **2** gaitziturik zeren populuari irakasten zioten eta predikatzen zuten Jesusen presunan hilletarikako piztea. **3** Eta hartu zituzten eta eman preso biharamuneraño; ja ezen berandua zen. **4** Apostoluak mintzaten aditu zituztenetarik, bada, hainitzek sinhetsi zuten eta gizonen nonbrea bazen bortsz milletaraiño. **5** Biharamunean atxiki zuten Jerusalemen batzarra kargudunek, populuko zaharrek eta eskribauek, **6** Anas aphezen prinzearekien, Kaifas, Joanes, Alexandre eta aphezen leiñuko ziren guziekien; **7** eta ezarririk Apostoluak batzarraren erdian galdegin zaroen: «Zeren berthutez edo noren izenean egin duzue hori zuek?».



**8** Orduan Piarres Izpiritu Sainduaz bethea, jarri zitzaien erraten: «Populuaren prinzeak eta zaharrak, adi zazue: **9** Halaz eta egungo egunean gizon hebaindu bati egin diogun ungiak kontu galdetzen zaikunaz geroztik, nola sendatu izan den, **10** jakiteko duzue zuek guziak eta bai Israelgo populu guziak, Jesus Kristo Nazaretheko gure Jaunaren izenean, zeina zuek gurutzefikatu baiduzue eta zeina Jainkoak hilletarik biztu izan baidu, dagoela gizon hau zuen aitzinean sendatua. **11** Hau da harria, zuek bastizailleek arbuaiatu izan duzuen, kantoineko harriburua egin dena. **12** Eta ez da bertze nihoren baitan salbamendurik; ez zaie ezen eman gizonei zeruaren azpian bertze izenik, zeinien berthutez salbatu behar baidukegu».

**13** Ikusirik bada Piarresen konstantzia eta Joanesena, eta baitzekiten gizon batzu zirela letra gabeak eta arrunterak, miretsiak zeudezen; bazezkiten halaber gizon hek Jesusekien ibilliak zirela. **14** Eta ikusten baitzuten ere hekiekien han zegoela sendatua izan zen gizon hura, deusetan ezin kontresta zetzaketen. **15** Ilkhiarazi zituzten, bada, batzarretik kanporat eta jarri ziren elkharrekien konpartitzen, **16** erraten zutelarik: «Zer eginen diotegu gizon horiei? Alabainan ezen mirakuillu bat egin dute, Jerusalem dagozen guziek dakitena; gauza da ageria eta ezin ukha dezakegu. **17** Baiñan habarrots gehiago are egin ez dezan horrek populuaren artean, mehatxurekien debeka diozoguten nihori gehiago ez dakizkon mintza Jesusen izenean». **18** Eta erakharririk, debekatu zaroen niholeretan mintza ez zitezen, ez irakats zezaten Jesusen izenean. **19** Piarresek ordean eta Joanesek ihardetsi zaroen eta erran: «Juia zazue zebonek hea justu diteken Jainkoaren aitzinean zuek lehen obeditzea ezen ez Jainkoa. **20** Ezen gu ezin gaudezke mintzatu gabe ikusi eta aditu izan ditugun gauzez». **21** Baiñan igorri zituzten mehatxaturik, ez baitzuten aurkhitzen nola puni ahal zetzaketen populuaren gatik ere; zergatik guziek baitzioten Jainkoari gloria errendatzen gerthatu izan zenaz. **22** Ezen berrogoi urthe baino gehiago bazituen mirakuilluz sendatua izatu zen gizon hark.

**23** Utzi zituztenean, bada, ethorri izan ziren bere anaietarat eta kondatu zarozten aphezen prinzeek eta kargudunek erran ziotzaten guziak. **24** Eta hek aditu zituztenean, elkharrekien betan jarri zitzaizkon oihugoraz Jainkoari erraten: «Jauna, zu zare zerua eta lurra eta hetan diren guziak egin ditutzuna, **25** Izpiritu Sainduaz gure aita Dabid zure zerbitzariaren ahoz mintzo zarela erran izan duzuna: «Zerentzat alboratatu izan dire nazioneak, eta populuek dituzte burutan hartu gauza banoak? **26** Bildu izan dire lurreko erregeak, eta prinzeek elkhar hartu izan dute Jaunaren kontra eta haren Kristoren kontra; **27** alabainan ezen elkhar hartu zuten

hiri huntan zure haur saindu Jesus, zure gantzuduraz konsekratu izan duzunaren kontra, Herodesek eta Pontio Pilatusek jentillekien eta Israelgo populuekien batean, **28** konplitezkotzat zure puxantzak eta probidentziak egin behartzat ordenatu zutena». **29** Orai bada, Jauna, ikusatzitzu hekien mehatxuak, eta eman diozazute zure zerbitzari indarra, segurantzaz suerte guziekien predikatzeke zure hitza, **30** zure eskua hedatzen duzula sendatzeak, mirakuilluak eta prodijioak egiteko zure Seme saindu Jesusen izenean». **31** Hek othoitza akhabatzearekien, ikharatu izan zen hek bilduak ziren lekhua; bethe izan ziren guziak Izpiritu Sainduaz eta predikatzen zuten Jainkoaren hitza ausartziarekien.

**32** Sinhetsi izan zuten guziek ez zuten bihotz bat eta arima bat baidzen, eta hetarik batek ere ez zagokan zituen gauzatarik deusere bere zuela; aitzitik guziak zituzten erkide elkharren artean. **33** Apostoluek ere indar handirekien errendatzen zuten lekhukotasuna Jesus Kristo gure Jaunaren phizteaz eta grazia handia zen hekien guzien baitan. **34** Ezen nihor ez zen hekien artean pobre zenik; zeren landarik edo etxerik zuten guziek, hek saldurik, ekhartzen baitzuten hekien dirua, **35** eta ematen Apostoluen oiñetarat; gero partitzen zitzaien batbederari behar zuenaren eredura. **36** Josefek, bada, zeinari Apostoluek eman baitzioten izengoitia Barnabe, erran nahi da Konsolazionezko Umea, eta zein baitzen lebita, ethorkiz zipriarra, **37** baitzuen lur bat, saldu zuen hura eta ekharri zuen haren dirua eta eman Apostoluen oiñetarat.

## V. KAP.

**1** Denbora hartan Ananias zeritzan gizon batek Safira bere emastearekien batean saldu izan zuen lur bat **2** eta gelditu zuen balioaren dirutik parte bat, ematea jakintsun zelarik; eta ekharririk gaiñerako partea, eman zuen Apostoluen oiñetarat. **3** Erran zioen bada Piarresek: «Ananias, zergatik tentatu du Satanek zure bihotza, zu ekhartzeko Izpiritu Sainduari gezurra erraterat eta lurraren dirutik parte bat gelditzerat? **4** Zurea ez zen, saldu gabe nahi bazinduen gelditu? Eta saldu ondoan ere, diruaren nausi ez ziñen? Nola gogoak eman darotzu gauza hori? Ez diozute gizonei erran gezurra, baiñan bai Jainkoari». **5** Hitz horiek aditzearekien batean, Ananias erori zen eta hill zen; eta izialdura handi bat lothu zitzaien hori aditu zuten guziei. **6** Denbora berean gizon gaste batzuek altxaturik, khendu zuten handik eta eraman ehorzterat. **7** Handik hirur orenen buruan edo, sarthu zen haren ematea jakin gabe zer egin izan zen. **8**



Erran zioen bada Piarresek: «Erran diezadazu, emastea, hea hunenbertzetan saldu izan duzuen zuen lurra». Eta hark ihardetsi zioen: «Baiki, horrenbertzetan saldu dugu». **9** Piarresek orduan erran zioen: «Nolatan elkhar hartu duzue tentatzeko Jaunaren Izpiritu? Horra non diren athean zure senharra ehortzirik heldu direnak eta zu ere ehortziko zaituzte». **10** Ordu berean erori zen haren oinetan eta hill zen. Sarthu zirenean bada gizon gaste hek, aurkhitu zuten hilla, eraman zuten kanporat eta ehortzi zuten bere senharraren aldean. **11** Izialdura handi bat eman zuen gauza horrek Eliza guzian eta hortaz mintzatzen aditu zuten guzien artean.

**12** Apostoluek, bada, hainitz mirakuillu eta prodijio zituzten egiten populuaeren artean; eta fidel guziak Izpiritu beraz animatuak biltzen ziren Salomonen aldamiotan. **13** Bertzetarik ordean nihor ez zen hauzu hekiekien juntatzerat; bainan laudorio handi bat egiten zuen populuaek hetaz. **14** Eta berretuz zihonan Jauna baitan sinhesten zutenen nonbrea, nahiz gizonena eta nahiz emastekiena, **15** halako maneraz, non karriketarat ekhartzen baitzituzten eriak eta ematen ohetan eta kamastretan; Piarres iragaterat zathorreanean, haren itzalak bederen uki zezantzat hetarik zenbait eta senda zitezentzat bere erhasunetarik. **16** Heldu ziren tropelaka halaber hurbilleko hirietarik jende hainitz Jerusalemert, berekien zakharzketela eriak eta izpiritu lohiez tormentatuak zirenak, zeñiak sendatzen baitziren guziak.

→ → → **17** Altxaturik orduan aphezen prinzea eta harekien zadukaten guziak (zeñiak baitziren saduzearren sektakoak) bethe ziren irakiduraz. **18** Eta harrazi zituzten Apostoluak eta emanarazi presondegi publikoan. **19** Jaunaren aingeruak ordean gauaz idekirik presondegiko atheak, ilkhiaziti zituen eta erran zaroen: **20** «Zohazte eta predika diotzatzue populuari tenpluan ausarki bizitzearen hitz hauk guziak». **21** Hori aditurik, sarthu ziren goiz goizetik tenpluan eta jarri ziren predikatzen; bizkitartean ethorriarik aphezen prinzea eta harekien zadukatenak, bildu zuten batzarra eta bai Israelgo populuko zahar guziak, eta igorri zituzten presondegirat Apostoluak handik erakhartzekotzat. **22** Ethorri zirenean, bada, ofizialeak eta ideki zutenean presondegia eta ez hek han aurkhitu, bihurtu ziren abisu ematerat, **23** erraten zutelarik: «Presondegia alabaiñan aurkhitu dugu zarratua izan ahal ziteken bezain ungi, eta goardak atheetan daudezela; ordean ideki dugunean, nihor ez dugu aurkhitu barnean».

**24** Aditu zituztenean, bada, hitz horiek tenpluko goarden kapitaiñak eta aphezen prinzeek, pena handitan ziren gizon hekiekien ariaz, ez jakinez

zertarako othe zen gauza hori. **25** Hortan zeudezela, ethorri zitzairen norbait erraterat: «Preso emanarazi zinituzten gizon hek horra non diren tenpluan eta non hari diren populuari irakasten». **26** Orduan goan zen tenpluko goarden kapitaiña bere ofizialekien eta erakharri zituen bortxarrik gabe, beldur ziren ezen populuaez harrikatuak izateko. **27** Ekharri zituztenean, presentatu zituzten batzarrean eta aphezen prinzeak galdegin zaroen **28** eta erran: «Manu expresez debekatu dautzuegu ez dezazuen irakats izen hortan; eta horra non duzuen bethe Jerusalemert zuen irakaspenez; eta nahi duzue ere erakharri gure gaiñerat gizon haren odola». **29** Ihardetsi zaroten Piarresek eta Apostoluek eta erran: «Lehen obeditu behar zaio Jainkoari, ezen ez gizoni; **30** gure aiten Jainkoak biztu izan du Jesus, zuek hillarazi zindutena gurutze batean estekaturik. **31** Hura da buruzagia eta salbatzaillea, Jainkoak bere puxantzaz altxatu duena, Israeli emateko penitentiaren grazia eta bekhatuen barkhamendua. **32** Eta gu gare lekhuko gauza horietaz eta bai Izpiritu Saindua ere, zeñia eman izan baidaroe Jainkoak hura obeditzen duten guziei».

**33** Horiek aditu zituztenean, leher egiten hari ziren eta gogoan zara-billaten hek hillarazitzea. **34** Altxatu zen, bada, batzarrean farisau bat, Gamaliel deitzen zena, legeko doktora, populu guziaz ohoratua zena; eta aphur bateko Apostoluak kanporat ilkhiazirik, **35** erran zaroen han bilduak zirenei: «Israeldar gizonak, begirautzue gizon haukien sujetean zer egiterat zohazten. **36** Orai duela ezen zenbait urthe altxatu zen Theudas bat, zeñiek pasaratzitzen baitzuen bere burua zerbait gauza handirentzat eta zeinari jarraiki baitzitzaizkon laur ehun gizon edo; ordean hill zuten hura eta haren baitan sinhetsi izan zutenak barraiatuak izan ziren eta ezdeusetarat bilhakuak. **37** Haren ondoan altxatu izan zen berriz Judas galilearra arrolamenduko denboran eta mundu handi bat eraman zuen bere ganat; ordean hura ere suntsitu zen eta haren alde abiatu ziren guziak urmariatu izan ziren. **38** Huna, bada, zer konseillu darotzuedan ematen: Geldi zaitzte gizon horiek persegitzetik eta utzatzizue horiek; zeren eta, baldin gizonetarik bada deseigna hori edo obra hori, desegiñen baida; **39** baldin ordean Jainkoa ganik bada, ezin deseginen duzue. Beldur izateko ere duzue, aurkhi ez zaitzeten Jainkoaren beraren kontra zabiltzatela». Erori ziren bada haren sentimendurat.

**40** Eta erakharriarik Apostoluak, azotarazi zituzten ondoan, debekatu izan zaroen niholeretan ez zitezela mintza Jesusen izenean; eta igorri zituzten. **41** Baiñan hek ilkhi ziren batzarretik eta goan ziren alegerarik, zeren gai aurkhitu izan ziren Jesusen izen gatik iroien pairatzeko. **42** Eta



egun oroz ez ziren gelditzen tenpluan eta etxeetan irakastetik eta Jesus Kristo predikatzetik.

## VI. KAP.

**1** Denbora hartan, bada, berretuz baitzihan dizipuluen nonbrea, grekoak hasi ziren erantzuten hebrearren kontra, zeren mespresatzen zituzten hekien alhargunak egun oroz egiten ziren partilletan. **2** Horri dagokala, billarazirik dizipuluak hamabi Apostoluek erran zaroen: «Ez da justu guk utz dezagun Jainkoaren hitza mahainen kargua izateko. **3** Berez zatzitzue, beraz, anaiak, zuen artetik zazpi gizon erratekorik gabekoak, Izpiritu Sainduaz betheak eta zuhurtziaz betheak, zeinak karga baidetzakezue enplegu hortaz», **4** gu berriz jarraikiko gaizko othoitzari eta hitzaren predikatzeari». **5** Agradatu zitzaion propos hori han ziren guziet; eta hautatu zuten Esteben, gizon fedez bethea eta Izpiritu Sainduaz bethea; Filipe, Proxore, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, proselita Antiokekoa. **6** Horiek zituzten presentatu Apostoluen aitzinean eta hek othoitzatza eginik, pausatu zarozten eskuak. **7** Bizkitartean Jainkoaren hitza aitzina ziohan eta hagitz zen berretzen dizipuluen nonbrea Jerusalem; aphezatarik ere tropa handi bat jarri ziren fedeari obeditzen.

**8** Estebenek, bada, bethea baitzen graziaz eta indarrez, prodijio handi batzu egiten zituen eta mirakuillu handi batzu popularen artean. **9** Altxatu ziren bada zenbeit, Libratu izatuena eta Zirenakoena eta Alexandriarrena, Ziliziarrena eta Asiarrena erraten zioten sinagogatik, eta hasi ziren ihardukitzen Estebenekien. **10** Eta ezin buru egin ziozaketen hura mintzo zen zuhurtzari eta Izpirituari. **11** Orduan esku azpitik erakharri zituzten gizon batzu erraterat, aditu zutela blasfemiozko hitzak erraten Moiseren kontra eta bai Jainkoaren kontra. **12** Tarritatu zituzten manera hortan populua eta kargudunak eta eskribauak; eta elkhar harturik, altxatu zuten eta eraman batzarreat. **13** Denbora berean presentatu zituzten lekhuoko falsoak erraten zutenak: «Gizon hau ez da gelditzen lekhu sainduaren kontra eta legearen kontra erastetik. **14** Aditu diogu ezen erraten Jesus Nazaretheko hark desegiñen duela lekhu hau eta ganbiatuko dituela Moisek eman izan darozkigun ordenantzak». **15** Eta batzarrean jarriak ziren guziak begiak landaturik baitzegozkon beha, ikusi izan zuten haren bisaia aingeru baten bisaia bezalakatua.

## VII. KAP.

**1** Erran zuen bada aphez handiak hea horiek hala ziren. **2** Horren gainean erran zuen Estebenek: «Adi nazazue, ene anaiak eta ene aitak. Gloriako Jainkoa agertu zitzaion gure alta Abrahami Mesopotamian zen orduan, Karanen egon ziteken baiño lehen, **3** eta erran izan zioen: Ilkhi zaite zure herritik eta zure ahaideatarik eta zatho nik erakutsiko darotzudan herrirat. **4** Orduan ilkhi izan zen Kaldearren herritik eta ethorri zen Karanen egoterat; eta handik bere afta hill izan zitzaioenean, Jainkoak erakharri zuen orai zuek zaudezten herri huntarat. **5** Eta hala ere ez zuen egin hemen funs garaben jabe, ez eta ere pausu bat lurren ere; baiñan agindu zioen emanen zioela huntako jabetasuna, eta haren ondoan haren leinuari, Abrahamek oraino ez zuen arren semerik. **6** Erran zioen gero Jainkoak haren ondokoak egonen zirela lekhu arrotz batean, zeinetan esklabo idukiko baitzituzten eta gaixki tratatuko laur ehun urthez. **7** Eta hek gathibu atxikiko dituen nazioea jujeatuko dut nik, erran zuen Jainkoak; ondoan gero handik ilkiko dire eta zerbitzatuko haute ni lekhu huntan. **8** Eta eman izan zioen zirkonzisioneko alientzia eta horla Abrahamek izatu zuenean Isaak, zirkonzidatu zuen zortzigarren egunean; eta Isaak-ek izan zuen Jakob, eta Jakob-ek izan zituen hamabi patriarkak. **9** Eta patriarkek jelsia harturik, saldu izan zuten Josef Ejiptorat; Jainkoa ordean harekien zen. **10** Eta athera zuen bere atsekabe guzietarik; eman ere zioen zuhurtziarekien batean Faraon Ejiptoko erregeren fagorea, zeinak egin baitzuen Ejiptoko eta bere etxe guziko gobernadore.

**11** Gerthatu izan zen, bada, gosetez Ejipto guzia eta Kanaango herri guzia herstura handi batean, halako maneraz non ez baitzuten gure aitek aurkhitzen jatekorik. **12** Aditu zuenean, bada, Jakobek bazela ogi Ejiptotan, igorri izan zituen gure aitak lehenbiziko aldikotzat; **13** eta bigarrenekotz goan zirenean, ezagutu zuten Josef bere anaiek eta jakin zuen Faraonek haren ethorkia. **14** Orduan Josefek igorri zituen jendeak bere aita erakhartzeko eta haren familia guzia, zeinak baitziren hirur hogoi eta hamabortz arima. **15** Goan zen, bada, Jakob Ejiptorat eta han hill izan zen; eta bai gure aitak ere. **16** Handik eraman zituzten Sikemat eta ezarri Abrahamek Hemor Sikemen semearen umeen ganik dirutan erosi izan zuen sepulturan. **17** Bainan hurbiltzen baitzen denbora Jainkoak Abrahami egin zioen agintzarena, berretu izan zen populua eta hagitz emendatu Ejiptotan, **18** altxa zedin artean Ejiptoan bertze errege bat Josef ezagutzen ez zuena. **19** Errege hunek gure nazioaren kontra maleziaz eta artifizioz



baliaturik lazeriatu izan zituen gure aitak hartaraino, non hekien haurrak bizi ez zitezentzat berei baitziotzaten etxaratzitzen.

**20** Denbora hartan sorthu izan zen Moises, zein izan baida Jainkoaren gogarako. Izan zen hazia hirur ilhabetez bere aitaren etxean. **21** Gero etxatua izan zenean bada, eraman zuen Faraonen alabak eta altxatu zuen bere semea izan balu bezala. **22** Ikhasarazi ziotzaten Moiseri Ejiptiarren zientzia guziak, eta zen botheretsu hitzetan eta obretan. **23** Konplitu zituenean, bada, bere berrogoi urtheak, ethorri zitzaion gogorat bisitatu behar zituela bere anaiak, Israelgo umeak. **24** Eta ikusirik bat gaixki tratatzen zutena, aldetu zitzaion eta Ejiptoarra hillik bendekatu zuen gaixki tratatua izan zena. **25** Uste zuen, bada, bazeakitela haren anaiek Jainkoak haren eskuz emanen zituela libertatean; ordean hek ez zeakiten horlakorik. **26** Biharamunean zenbaitek zihardukatela, gerthatu izan zen han, eta eseiatu zen hekien baketzerat, erraten zaroelarik: Gizonak, berdin anaia «zarete; zergatik elkharrri gaixki egiten diozue? **27** Baiñan laguna gaixki zarabillanak arbuiatu izan zuen, ziotsalarik: Nork egin othe zaitu prinze eta juje zu gure gainean? **28** Ala hill nahi othe nauzu, atzo Ejiptoar hura hill izan zinduen bezala? **29** Hitz horri zagokala, goan zen Moises ihesi eta aldaratu zen Madiango herrirat, non izan baitzituen bi seme. **30** Handik berrogoi urtheren ondoan, agertu izan zitzaion Sinako mendiaeren desertuan aingeru bat sutan zegoen berro baten kharpean. **31** Moises bada hori ikusirik, harritu zen ikuskari hortaz; eta hurbiltzen hari zela hura ikusteko, mintzatu zitzaion Jauna hitz hautaz: **32** Ni naiz zure aiten Jainkoa, Abrahamen Jainkoa, Isaak-en Jainkoa eta Jakob-en Jainkoa. Ikharak harturik ordean Moises, ez zen benturatzen behatzerat. **33** Erran izan zioen bada Jaunak: Khen zatzitzu zure oiñetako zapatak, ezen zu zaren lekhua lur saindu bat da. **34** Ikusi dut, ikusi, ene populu Ejiptoan denaren lazeria eta entzun ditut hekien hatsbeherapenak eta jautsi izan naiz hekien enpatzerat. Zato bada orai, igor zaitzadan Ejiptorat.

**35** Moises hura, zeina ukhatu izan baitzuten erraten zutelarik: Nork ezarri othe zaitu zu prinze eta juje?, hura bera Jainkoak igorri zuen printzetat eta libratzailletzat, berroan agertu izan zitzaion aingeruaren eskuariekien. **36** Hark athera zituen handik, gauza ohiz kanpokoak eta mirakui-lluak egirik Ejiptoan, itsaso gorrian eta desertuan berrogoi urthez. **37** Moises hura bera da erran izan daroena Israelgo umei: Profeta bat surgiaraziko darotzue Jainkoak zuen anaien artetik, ni bezalakoa. Adi zazueke hura. **38** Hura da, populua bildua zenean desertuan, aingeruarekien zegoena, zein mintzo baitzitzaian Sinako mendian. Hura da gure aitekien

zena; bizitzeko hitzak errezibitu izan dituen guri emateko; **39** zeina ez baitzuten obeditu nahi izan gure aitek, aitzitik arbuiatu izan baitzuten eta bere oldez bihurtuko baitziren Ejiptorat, **40** Aaroni erraten ziotelarik: Egigutzu jainko batzu gure aitzinean dohazkenak; Moises hura ezen, Ejiptoko herritik gu athera izan gaituena, ez dakigu zer egin den. **41** Orduan egin izan zuten xahal bat eta ofrendatu zioten sakrifizioa idolari, ematen zutelarik bere atsegiña bere eskuzko obra hartan.

**42** Itzuli zitzaian halaber Jainkoa eta utzi izan zituen zeruko armada zerbitzaterat, eskribatua den bezala profeten liburuan: Ala ofrendatu darozkidatzue sakrifizioak eta hostiak berrogoi urthez desertuan, Israelgo etxea? **43** Aitzitik hartu izan duzu Molok-en tabernaklea eta zuen jainko Renfan-en izarra adoratzeko egin izan dituzten figura hek; eta nik zuek eramanen baitzaituztet Babiloniar harat.

**44** Testimonioko tabernaklea gure aitekien izan da desertuan, Jainkoak exlejitu zaroen bezala, Moiseri erranik egin zezala ikusi izan zuen moldearen arauera. **45** Halaber hura ere zuten, harturik gure aitek Josuekien batean, eraman nazioenen herrirat, zeñak ihesi abiarazi baitzituen Jainkoak gure aiten aitzinean; horrek iraun zuen Dabiden denboraraino, **46** zeñek ediren baitzuen grazia Jainkoaren aitzinean eta galdetu baitzioen egin ahal izatea egoitza bat Jakob-en Jainkoari. **47** Salomonek ordean bastitu izan zioen etxe bat. **48** Bainan Jaungoikoak ez du bere egoitza egiten gizonen eskuz eginikako etxetan, profetak dioen bezala: **49** Zerua da ene jarlekhua, lurra berriz ene oiñetako eskalera. Zer etxe bastituko othe darotazue, dio Jaunak, eta zeñ othe da lekhua ni egon ahal naitekena? **50** Ez ditu ene eskuak egin izan horiek guziak?

**51** Buru gogorak, bihotz eta beharri zirkozidatu gabetako jendeak: bethi zarete zuek lehiatzen Izpiritu Sainduaren kontra; zuen aitek nola egin baidute, eta zuek ere hala egiten duzue. **52** Zein da profeta zuen aitek persekutatu ez dutena? Hill izan dituzte profetisatzen zarotenak justuaren ethortzea, zeinaren trahitzaille eta hilltzaille izan baitzarete orai zuek. **53** Errezibitu duzue legea aingeruen ongundez, eta ez duzue begiratu izan».

**54** Horiek aditzean, leher egiten hari ziren bere baitan despitzat eta hortzeaz karraskatzen zaroen haren kontra. **55** Bainan nola baitzen Izpiritu Sainduaz bethea, begiak zerurat altxaturik ikusi izan zuen Jainkoaren gloria eta Jesus xutik zegoela Jainkoaren eskuineko aldean, eta erran izan zuen: «Horra non ditudan ikusten zeruak zabalduak eta Gizonaren Semea xutik dagoela Jainkoaren eskuineko aldean». **56** Orduan deiagoraz jarririk



tapatu zituzten beharriak, eta guziak batean oldartu zitzaizkon. **57** Eta trainaturik hiritik kanporat, harrikatu izan zuten; eta lekhukoek eman zituzten bere tresnak Saul deitzen zen gizon gaste baten oiñetan. **58** Hek Estebenen harrikatzen hari ziren denboran, hura othoitz egiten hari zen, eta zioen: «Jesus Jauna, errezibi zazu ene izpiritua». **59** Gero belhauriko jarririk, erran zuen oihu goraz: «Jauna, ez diozazutela iretxek bekhatu hau». Eta hori erran eta loharkhatu zen Jauna baitan. Saul ere konsent zen haren heriotzean.

### VIII. KAP.

**1** Altxatu izan zen denbora berean persekuzione handi bat Jerusalem zen Elizaren kontra eta guziak, Apostoluez bertzeak, barraiatu izan ziren Judeako eta Samariako lekhu diferentetarat. **2** Ehortzi zuten, bada, Esteban Jainkoaren beldurra zuten gizon zenbaitetik eta auhენტatu zuten handizki. **3** Saulek ordean desolatua zarabillan Eliza etxe etxe ibillirik, trainatzen zituela bortxaz gizonak eta emasteak eta preso emanaratzitzen. **4** Bainan barraiatu izan zirenek predikatzen zuten Jainkoaren hitza iragaten ziren lekhu guzietan.

**5** Filipe, bada, ethorri baitzen Samariako hirirat, hari zitzaien Jesus Kristoren predikatzen, **6** eta populuak goardia handi egiten zioten Filipek erraten ziotzaten gauzei eta guziek entzuten zuten gogo beroz, ikusirik hark egiten zituen mirakuilluak. **7** Ezen izpiritu lohiak ilkhitzen ziren hainitz presuna posedituak zirenen gorphutzetarik, oihu handi batzu eginik, **8** eta paralitiko eta maingu hainitz ere sendatu izan ziren.

**9** Eta hala alegantzia handi batean zen hiri guzia. Zen, bada, gizon bat Simon zeritzana hiri hartan, lehen majiziano zena eta Samariako jendea bereganatu zuena, bere burua pasarazirik zerbait gauza handirentzat. **10** Bazanaizkon guziak xiperrak eta handiak, erraten zutelarik: «Hauxe da Jainkoaren berthute handi hura». **11** Eta horla zetxeizkon, zeren aspaldidanik bere sorginkeriez izpiritua itzuli baitzaroen. **12** Ordean sinhetsi zutenean Filipek Jainkoaren erresumaz predikatu zaroena, bathatzen ziren Jesu Kristoren izenean gizonak eta emasteak. **13** Orduan Simonek berak ere sinhetsi izan zuen eta, bathaioa errezibitu zuen ondoan, Filiperi zetxeikon, eta ikusirik egiten ziren prodijio eta mirakuillu handiak, harritua eta espantitua zegoen.

**14** Aditu zutenean, bada, Jerusalem ziren Apostoluek Samariakoek errezibitu zutela Jainkoaren hitza, igorri zituzten hetarat Piarres eta Joanes, **15** zeñak ethorri izan zirenean, jarri baitziren hekientzat othoitzetan Izpiritu Saindua errezibi zezatentzat, **16** ezen oraiño ez zen jautsi hetarik garabetarat, bainan ziren xoilki bathaiatuak Jesus Jaunaren izenean. **17** Orduan pausatatu zarozten eskuak eta errezibitu zuten Izpiritu Saindua.

**18** Ikusi izan zuenean bada Simonek, Apostoluek eskua pausatzeaz ematen zutela Izpiritu Saindua, eskaiñi zaroen dirua, **19** erraten zaroelarik: «Indazue niri ere bothere hori, nori ere eskuak pausatuko baidiotzat, eta hark errezibi dezan Izpiritu Saindua». Piarresek ordean erran zioen: **20** «Hire dirua hirekien gal dadillala, zeren uste izan baiduk Jainkoaren dohaiña dirutan ardiets ahal ditekela; **21** ez dukek parterik ez ikuskizunik gauza huntan, hire bihotza ezen ez duk xuxena Jainkoaren aitzinean. **22** Egik, beraz, penitentzia hire gaixtakeria hortaz eta egiok Jainkoari othoitz, agian barkhatuko othe zaikan hire bihotzeko gogoramendu dohakabe hori. **23** Ikusten diat ezen behazunezko kharminen eta inikitatezko korapilloan haizela». **24** Ihardetsi zioen Simonek eta erran: «Egin diozozue zuek enetzat othoitz Jainkoari, gertha ez dakidan deus zuek erran duzue-netarik». **25** Hek, bada, lekhukotasuna bihurtu ondoan egiari eta predikatu ondoan Jaunaren hitza, bihurtu ziren Jerusalemerrat eta predikatu ere zuten Ebanjelioa samaritarren hainitz herrietan.

**26** Bizkitartean Jaunaren aingerua mintzatu zitzaion Filiperi eta erran zioen: «Altxa zaite eta zohaz hegoako parterat, Jerusalemetik Gazarat jausten den biderat, zeina baida desertutzat utzia». **27** Eta altxaturik abiatu zen; eta huna ethiopiar bat eunokoa, Kandaze ethioparren erreginarene ofiziale prinzipaletarik bat, haren thresor guzien gainean kargua zuena, zein ethorri baitzen Jerusalemerrat Jainkoa adoratzerat. **28** Eta ziohan bere karrosan jarririk, Isaias profetaren irakurtzen hari zela. **29** Erran zioen bada Izpirituak Filiperi: «Zohaz, hurbil zaite karrosa hortarat». **30** Filipek lauster egiñik, aditu zuen Isaias profetaren irakurtzen hari zela, eta erran zioen: «Uste duzu aditzen duzun irakurtzen duzuna?». **31** Hark ihardetsi zioen: «Nola adi ahal dezaket ere, baldin norbaitek ez badarot erakusten?». Eta othoiztu zuen Filipe igan zedillala eta jar zedillala haren aldean. **32** Eta Eskriturako lekhua irakurtzen zuena hauxe zen: «Ardi bat bezala heriotzerat eramana izan da; eta bildots bat otzten hari zaioenaren aitzinean mutu den bezala, hark ere ez du ideki bere ahoa. **33** Beheitimendu horren ariaz khendua izan da haren kontra emana izatu den jujeamendua.



Nork konda ahal dezake haren ethorkia?, zeren eta khendua izanen baida lurretik haren bizia».

**34** Erran zioen bada eunokoak Filiperi: «Othoitz egiten darotzut, nortaz erraten du hori profetak? Bere buruaz ala zenbait bertzez?». **35** Horren gainean Filipek hitza hartu zuen eta hasi zitzaion Eskriturako lekhu hortarik Jesusez mintzatzen. **36** Eta bidean zihoazela, ethorri ziren ura zen toki batetarat eta erran zioen eunokoak: «Horra ura; zerk gibela nazake bathaiatua izatetik?». **37** Erran zioen bada Filipek: «Hori egin dezakegu, baldin sinhesten baduzu zure bihotz guziaz». Hark ihardetsi izan zioen: «Sinhesten dut Jainkoaren Semea dela Jesukristo». **38** Denbora berean geldiarazi zuen bere karrosa eta jautsi ziren biak urerat eta Filipek bathaiatu zuen eunokoa. **39** Athera zirenean uretik, Jaunaren Izpirituak goratu zuen Filipe eta gehiago ikusi ez zuen eunokoak. Bainan goan zen bere bidez alegerarik. **40** Filipe berriz aurkhitu izan zen Azoten eta toki batetik bertzerat zebillala, predikatzen zaroen Ebanjelioa hiri guziei, Zesarearat ethor ziteken artean.

## IX. KAP.

**1** Bizkitartean Saul oraiño aiher baitzen eta bethea dixiduz eta hiltzeaz Jaunaren dizipuluen kontra, goan zitzaion aphez handiari, **2** eta eskatu ziotzan buthunak Damasko «sinagogentzat, baldin aurkhitzen bazuen nihor sinheste hartakorik, nahiz gizonik nahiz emastekirik, amarraturik eraman zetzantzat Jerusalemerat. **3** Bidean zihoala, gerthatu zen, noiz ere hurbildu baitzen Damaszerat, betbetan inguratua zerutikako argi batez. **4** Eta eroririk lurrerat aditu zuen boz bat erraten zioena: «Saul, Saul, zergatik persekutatzen nauzu?». **5** Hark ihardetsi zuen: «Nor zare, Jauna?». Eta erran zioen: «Ni naiz Jesus, zuk persekutatzen duzuna. Gaitx zaitzu akhulloaren kontra ostikoka haritzea». **6** Hark berriz suzia ikharaturik eta iziturik erran zioen: «Jauna, zer nahi duzu egin dezadan?». Jaunak ihardetsi zioen: «Altxa zaite eta sar zaite hirian eta han erranen zaitzu zer behar duzun egin». Harekien ziren gizonak baldituak zeudezen, boz bat alabaiñan aditzen zutelarik eta nihor ez ikusten. **8** Altxatu zen bada Saul lurretik eta, begiak idekirik ere, deusik ez zuen ikusten, baiñan eskutik harturik eraman zuten Damaszat. **9** Egon zen han hirur egunez deusik ikusi gabe, jan gabe eta edan gabe.

**10** Zen, bada, Damaszen dizipulu bat Ananias zeritzana. Erran zioen hari Jaunak agergune batean: «Anania». Eta hark ihardetsi zioen: «Hemen naiz, Jauna». **11** Jaunak berriz erran zioen: «Altxa zaite eta zohaz Xuxena daritzan karrikat, eta bilha zazu Judaren etxean Tharseko gizon bat, Saul deitzen dena; han dago ezen othoitzean». **12** (Denbora Saulek ikusi zuen izpirituz gizon bat Anania zeritzana sartzen zela eta eskuak haren gainean ematen zituela bista kobra zezantzat). **13** Ihardetsi zioen ordean Ananiak: «Jauna, aditu izan dut hainitzen ganik gizon hortaz, zenbat gaixki egin izan darozten zure sailduei Jerusalemen. **14** Eta hark ornen du botherea aphezen prinzeen ganik preso hartzeko zure izena deithoratuko duten guziak». **15** Erran zioen berriz Jaunak: «Zohazko, ezen gizon hura ene hautuko errement bat da ene izena eramateko jentillen eta erregeen eta bai Israelgo umeen aitzinerat. **16** Erakutsi diot ezen nik, zenbat beharko duen pairatu ene izenaren ariaz». **17** Goan zen, bada, Ananias eta sarthu zen etxe hartan eta eskuak gainean emanik, erran zioen: «Saul, ene anaia; Jesus Jaunak, zuri bidean heldu zinela agertu izan zaitzunak igorri nau, bista kobra dezazuntzat eta Izpiritu Sainduaz bethea izan zaitezentzat». **18** Eta betbetan erori ziren haren begietarik ezkata batzu bezala eta kobratu zuen bista; gero jaikirik bathaiatua izan zen. **19** Ondoan jan baitzuen, indarrak ethorri zitzaizkon eta egon zen zenbait egunez Damaszen ziren dizipuluekien.

**20** Berehala jarri zen predikatzen sinagogetan Jesus zela Jainkoaren Semea. **21** Baldituak zeudezen, bada, hura aditzen zuten guziak, eta zioten: «Hau ez da Jerusalemen izen hori deithoratzen zuten guziei gerla egiten zaroena, eta hunat ethorri ere dena hek amarraturik eramateko aphezen prinzeen ganat?». **22** Saul ordean geroago eta gehiago borthiztuaz ziohan eta konfunditzen zituen Damaszen zeudezen juduak, sustengatzen zaroelarik Jesus zela Kristo. **23** Denbora luzeren buruan, bada, juduek egin izan zuten elkharren artean batzarra hura hiltzeko. **24** Baiñan Saulen ezagutzerat ziren hekien aparailu gaixtoak, eta nola goardiak emanak baitzagozkaten bortaletan gau eta egun hura hill nahiz, **25** dizipuluek harturik, jautsi izan zuten gauaz morroillan behera saski batean emanik.

**26** Ethorri zenean bada Jerusalemerat, dizipuluekien juntatu nahiz zebillan; ordean guziak beldur zitzaizkon, ez baitzuten sinhesten dizipulu zela. **27** Hala ere, bada, Barnabek harturik eraman zuen Apostoluetarat eta kondatu zaroen nola bidean agertu izan zitzaion Jauna eta mintzatu zitzaion, eta zer kuraieriekien mintzatu ere izan zen Damaszen Jesusen izenean. **28** Geroztik bethi hekiekien zen sar-ilkhi guzietan Jerusalemen



eta deklaritzen zen ausarki Jaunaren izenaren alde. **29** Mintzitzen zitzairen halaber jentillei ere eta ihardukitzen zuen grekoekien; eta hauk berriz zebiltzan hura hill nahiz. **30** Hori ezaguturik anaiek eraman zuten Zesarerat eta handik igorri Tharserat.

**31** Bizkitartean Eliza bakean zen Judea guzian, Galilean eta Samarian; eta establitzen hari zen, Jaunaren beldurtasunean zebillala; bethea ere zen Izpiritu Sainduaren konsolazionez. **32** Gerthatu zen, bada, Piarres dizipulu guzien bisitatzen hari zela, ethor zedin Lidan zeudezen sailduenganat. **33** Aurkhitu izan zuten han gizon bat Enea zaitzana, zortzi urthe hartan ohatua, paralitiko izanez; **34** eta erran zioen Piarresek: «Enea, sendatzen zaitu Jesuskristo Jaunak; altxa zaita eta egizu zure ohea». Eta berehala altxatu zen. **35** Eta ikusi izan zuten horla sendatua Lidan eta Saronan egoten ziren jende guziek eta konbertitu izan ziren Jauna ganat.

**36** Jopen berriz bazen dizipuluen artean emaste bat Tabitha deitzen zena, erran nahi da Dorkas; aberats zen obra onetan eta amoiña hainitz zuen egiten. **37** Gerthatu zen bada denboratsu hartan, eriturik hill zedin; eta garbitu ondoan eman zuten sala batean. **38** Nola hurbill baitzen Lida Jopetik, dizipuluek aditurik Piarres han zela, igorri ziotzaten bi gizon othoizten zutela ethortzeaz ahalik lausterrena hetaraiño. **39** Jaikirik Piarres goan zen hekiekien. Arribatu zenean, eraman zuten salarat eta han jarri zitzaizkon alde batetik eta bertetik emaste alhargun guziak nigarrez, erakusten ziotzatarik Dorkasek egiten ohi zarozten arropak eta bestimendak. **40** Khendurik bada guziak kanporat, Piarres jarri zen belhauriko othoizt egiten; gero itzulirik gorphutzaren alderat, erran zuen: «Thabitha, altxa zaita». Berehala hark ideki zituen begiak eta ikusirik Piarres, eman zen jarririk. **41** Orduan Piarresek eskua emanik eraiki zuen; eta erakharririk sailduak eta alhargunak, presentatu zaroen bizia. **42** Gauza hori jakin zen Jope guzian; eta hainitzek sinhetsi zuten Jauna baitan. **43** Ondoan egon zen denbora luzez Jopen, Simon zeritzan zurratzaille baten baitan.

## X. KAP.

**1** Gizon bat zen, bada, Zesarean Kornelio zeritzana, Italiako erraten dioten tropelan ehun gizonetako kapitain zena; **2** gizon erreligionetsua eta Jainko beldurtia bere etxe guziarekien; amoina hainitz egiten ziotzan populuari eta bethi othoiztetan zegoen. **3** Hunek egun batez bederatzigarren oreneko inguruan ikusi izan zuen klarki bisione batean Jainkoaren

aingeru bat heldu zitzaioela eta erraten zioela: «Kornelio». **4** Hark berriz aingeruari behatu eta iziturik erran zioen: «Zer da, Jauna?». Aingeruak ihardetsi izan zioen: «Kure othoitzak eta zure amoinak igan dire Jainkoaren aitziañerat zutazko orhoitgarritzat. **5** Hala igorraztitzu orai berehala zenbait gizon Joperat eta erakharrazu Simon daritzan bat, izen goitia Piarres duena. **6** Hura da egoten Simon zurratzaille baten baitan, zeiañaren etxea baida itsasoaren aldean; erranen darotzu hark zer behar dukezun egin». **7** Goan zenean mintzo zitzaion aingerua, erakharri zituen bere bi zerbitzari eta soldadu bat, Jainkoaren beldurra zuena, bere manuko zituenetarik, **8** eta hei kondatu ondoan gauza guziak, igorri izan zituen Joperat.

**9** Biharamunean, bada, hek bidean zihoazela eta hirirat hurbiltzen zirela, igan zen Piarres etxe gaiteratik seigarren oreneko mugatsuan othoizt egiterat. **10** Eta gose baitzen, galdetu zuen jaterat; aphaintzen hari zitzaizkola etxeokak, ethorri zitzaion Izpirituzko goramendu bat. **11** Ikusi zuen zerua idekia eta dafailla handi bat bezala, laur basterretarik atxekia, jauten zela zerutik lurrerat, **12** zeinetan baitziren laur zangoetako aliamalia suerte guzietarik, lurtean herrestan dabiltzanetarik eta aireko hegastinetarik. **13** Denbora berean aditu zuen boz bat erraten zioena: «Altxa zaita, Piarres; hill zazu eta jan zazu». **14** Ihardetsi zuen ordean Piarresek: «Ez, hori ez, Jauna, ezen egundaiño ez dut jan gauza zilhegi ez denik, ez lohirik». **15** Bozak berriz erran zioen bigarrenean: «Jainkoak garbi errendatu duena ez dezazula zuk iduk profanotzat». **16** Hau bada egin zen hirur aldiz eta berehala dafailla eramana izan zen zerurat.

**17** Piarres bere baitan gogoetan zegoela, zer erran nahi othe zuen izan zuen ikuskari horrek, Kornelios igorriak izan ziren gizonak, Simonen etxearen galdez zebiltzala, ethorri izan ziren hango atherat. **18** Eta norbait deithurik, galdegin zuten hea Simon, izen goitia Piarres zuena, han egoten zen. **19** Piarres, bada, gogoetan baitzegoen bere bisioneaz, erran zioen Izpirituek: «Horra hirur gizon non diren zure galdez. **20** Altxa zaita, bada, jauts zaita eta zohaz hekiekien trikatu gabe, zeren nik igorri izan baiditut». **21** Denbora berean Pafes jautsi zen gizon hekien ganat eta erran zaroen; «Ni naiz zuek galdetzen duzuen; zer da kausa, zeinaren gatik baitzarete ethorri?». **22** Ihardetsi zuten hek: «Kornelio kapitaina, gizon justua, Jainko beldurtia eta judutarren nazione guziak lekhukotasuna errendatzen dioena, abisatua izan da aingeru saildu batez errakhar zaitzala bere etxerat eta adi detzala zuk erranen diotzatzunak». **23** Sarrarazirik bada barnerat, errezibitu zituen arrotzat; eta biharamunean jaiki eta





goan zen hekiekien, eta Jopen egoten ziren anaietarik zenbaitek konpaniatu zuten.

**24** Ondoko egunean sarthu zen Zesarean. Kornelio berriz zegoen hekieien begira, bildurik bere etxerat bere etxerat bere ahaideak eta adiskide bereziak. **25** Marres sarthu izan zenean, ethorri zitzaion aitzinerat Kornelio, eta bere burua haren oinetarat arthikirik, adoratu zuen. **26** Piarresek ordean eraiki zuen ziotsolarik: «Altxa zaite, ni neroni ere gizona naiz». **27** Eta harekien mintzo zela, sarthu zen eta aurkhitu zuen konpainia handi bat bildua. **28** Erran zaroen bada: «Badakizue lastima zaiola judutar bati atzerritar batekien baltsatzea edo haren ganat hurbiltzea, baiñan erakutsi izan darot niri Jainkoak ez dela gizonik iduki behar profanotzat edo lohitzat. **29** Hargatik ere naiz ethorri horlakotan trikatu gabe, gastiatu izan aitan puntutik. Erran diezadazue, bada, othoi, zertarat erakharri izan nauzen». **30** Orduan Korneliok erran zioen: «Orai duela laur egun othoitzean nindagoen neure etxean bederatzigarren oreneko mugan, eta ethorri zitzaion aitzinerat kolpe kolpez gizon bat, arropa xuri diztiant bat zuena, eta erran izan zarotan: **31** Kornelio, entzuna izan da zure othoitza eta zure amoiñak ez dire izan ahantziak Jainkoaren aitzinean. **32** Igorrazu beraz Joperat eta erakharrazu handik Simon izen goitiz Piafes daritzana; Simon zurratzailearen etxean egoten da itsasoaren aldean. **33** Berehala, bada, igorri izan ditut zure bilha eta fagore egin darotazu ethortzeaz. Huna, bada, non garen orai guziak zure aitzinean, aditzeko Jaunak guri errateko manatu darozkitzun guziak»

**34** Orduan Piarresek hitza harturik erran izan zuen: «Egiaz dut aurkhitzen, ez duela Jainkoak behatzen presunen diferentzietarat; **35** aitzitik, zer nahi nazionetan den haren beldurra duena eta justiziazko obrak egiten dituen, dela haren gogorako. **36** Jainkoak igorri izan daroe bere hitza adiarazitzerat Israelgo umei, erakusten daroelarik bakea Jesukristoz, zein baida guzien Jauna. **37** Badakizue banatua izan dela hitz hori Judea guzian, hasirik Galileatik, Joanesez predikatu izan duen bathaioaren ondoan: **38** Nola Jainkoak gantzutu izan duen Izpiritu Sainduaz eta indarrez Jesus Nazarethekoa, zeinak iragaten zen toki guzietan egin baiditu ungiak eta sendatu debruaz tormentatuak ziren guziak, zeren eta Jainkoa baitzen harekien. **39** Eta gu gare lekhuko Judean eta Jerusalemen egin izan dituen guziez. Bizkitartean hillarazi izan dute, zur batean urkhaturik. **40** Baiñan Jainkoak biztu izan du hirugarren egunean eta nahi izan du ager zekigun biztua. **41** Ez populu guzian, baiñan lekhukotzat Jainkoaz bereziak izan

garenei, zeñiek jan izan baidugu eta edan harekien, hilletarik biztu izan den ondoan.

**42** Eta manatu izan daroku predika diozagula populuari eta lekhukotasun egin, hura dela Jainkoak ifini izan duena bizien eta hillen juje. **43** Huni profeta guziek diote lekhukotasuna errendatzen, hunen baitan sinhetsiko duten guziek errezibituko dutela hunen izenaz bekhatuen barkhamendua».

**44** Oraino Piarres mintzo zela, jautsi izan zen Izpiritu Saindua aditzen zeudezen guzien gaiñerat. **45** Eta harritu ziren zirkonzisioneko fide-lak, Piarresekien ethorri izan zirenak, ikustez jentilletarat ere jautsi zela Izpiritu Sainduaren grazia; **46** aditzen zituzten ezen mintzatzen lengoia hainitez eta Jainkoaren handitasunak publikatzen. **47** Orduan erran zuen Piarresek: «Errefusa ahal dakikeiote bathaioko ura jende hauei, zeñiek errezibitu izan baidute Izpiritu Saindua guk bezain ungi?». **48** Eta bathaiarazi zituen Jesukristo Jaunaren izenean. Orduan othoiztu zuten egon zedin zenbait egunez hekiekien.

## XI. KAP.

**1** Aditu izan zuten, bada, Judean ziren Apostoluek eta anaiak jentillek ere errezibitu izan zutela Jainkoaren hitza, **2** eta ethorri izan zenean Piarres Jerusalemert, jarri ziren haren kontra ihardukitzen zirkonzisioneko zirenak, **3** erraten ziotela ezen: «Zergatik sarthu izan zare zirkonzidatuak izatu ez diren jendeetarat eta duzu jan hekiekien?».

**4** Baiñan Piarres hasi zitzaion ondoren ondo gauza nola iragan zen kondatzen, erraten zaroelarik: **5** «Nindagoen othoizetan Jopeko hirian, eta Izpirituz goratua izanik, ikusi izan nuen ikuskari bat, zeinetan ikusi bainuen jausten zerutik zerbait, ziduriena dafaila handi bat, laur basterretarik sustengatua heldu zela ene ganat. **6** Eta ungi behaturik konsideratu nuenean, ikusi nituen hartan lurreko aliamalia laur zangotakoetarik, basa bestietarik eta herrestan dabilzanetarik eta bai aireko hegastinetarik. **7** Aditu nuen bada boz bat erraten zarotana: Altxa zaite, Piarres, hill zazu eta jan zazu. **8** Ihardetsi nuen: Balinba ez, Jauna; ezen deusere profanorik edo lohirik egundaino ez da sarthu izan ene ahoan. **9** Mintzatu zitzaion boza bigarren aldian zerutik eta erran zarotan: Jainkoak garbi errendatu izan duena ez dezazula iduk zuk lohitzat. **10** Hori bada egin zen hirur aldiz, eta gero erretiratu izan ziren guziak zerurat. **11** Denbora berean



ethorri ziren ni nintzen etxeko atherat hirur gizon, Zesareatik ene ganat igorriak. **12** Erran zarotan Izpirituak nindohala hekiekien herabe izan gabe. Ethorri ziren bada enekien sei anaia hauk ere eta sarthu giñen gizon haren etxean. **13** Kondatu zarokun, bada, nola ikusi izan zuen bere etxean aingeru bat, zeñek erran baitzioen: Igorrazu Joperat eta erakharrazu Simon, izen goitiz Piarres daritzana. **14** Hark darozkitzu erranen hitzak, zeñetaz izanen baitzare salbatua zu eta zure etxe guzia. **15** Hasi nintzaie-neko bada mintzatzen, jautsi zen Izpiritu Saindua hekien gaiñerat, haste-tik gure gainerat ere jautsi ohi izan zen bezala. **16** Orhoitu nintzen orduan Jaunak erran zuen hitzaz: Joanesek bathaiatu izan du urean, zuek ordean bathaiatuak izanen zarete Izpiritu Sainduan. **17** Baldinetariak beraz grazia bera eman badaroe hei Jainkoak nola guri, Jesukristo Jauna baitan sinhetsi dugunei, ni nor nintzen Jainkoa debekatzeko bere obra egitetik?». **18** Horiek aditu eta ixildu ziren eta glorifikatu zuten Jainkoa, erraten zutelarik: «Beraz jentillei ere eman daroe Jainkoak penitenziaren dohaina bizitzerat heltzeko».

**19** Bizkitartean Estebenen denboran altxatu izan zen persekuzioenez geroz barriatuak izan zirenak iragan ziren Feniziaraiño, Zipreraiño eta Antiokiaraiño, nihori hitza predikatzen ez zaroela judu xoiliei baizen. **20** Hetarik zenbait, bada, Ziprekoak eta Zirenakoak, sarthurik Antiokian, mintzatu zitzaizten grekoei ere eta predikatu izan zaroen Jesus Jauna. **21** Eta zen Jaunaren eskua hekiekien halako moldez, non jende nonbre handi batek sinhetsi baitzuten eta konbertitu baitziren Jauna ganat.

**22** Ethorri zen, bada, Jerusalemen zen Elizaren beharrietarat gauza horien hotsa eta igorri izan zuten Barnabe Antiokiaraiño. **23** Arribatu zenean han eta ikusi izan zuenean Jainkoaren graziaren obra, bozkariatu zen eta exortatu zituen guziak egon zitezen Jaunarekien bihotz fermu eta tieso batekien. **24** Ezen gizon bat zen egiazko prestua eta Izpiritu Sainduaz eta fedez bethea; eta jendetze aralde handi bat eman zitzaion Jaunari. **25** Handik goan zen Barnabe Tharserat Saulen bilha eta aurkhiturik erakharri izan kuen Antiokiarat. **26** Urthe bethe batez egon izan ziren hango Elizarekien konbertsatzen eta jendetze handi bat instruitu zuten halako suertez, non Antiokian lehenbizikorik eman baitzaroen dizipuluei giristinoen izena.

**27** Denbora hartan, bada, ethorri izan ziren Jerusalemetik profeta batzu Antiokiarat, **28** eta jaikirik hetarik bat Agabe zeritzana, hasi zen deklaratzan Izpiritu Sainduaren inspirazionez gosete handi bat izaterat

zihola mundu herri guzian; eta hala arribatu ere zen gosete hura Klaudio enperadore zen denboran. **29** Dizipuluek, bada, nor bere zuenaren arauera deliberatu zuten batbederak igortzerat zerbait sokorri Judean egoten ziren anaiei; **30** eta egin ere zuten igorrikerik Jerusalemeko aphezai Barnaberen eta Saulen eskuz.

## XII. KAP.

**1** Denbora hartan berean jarri zen Herodes erregea persekutatzen Elizakoetarik zenbaiten. **2** Hillarazi zuen berehala ezpataz Jakobe Joanesen anaia. **3** Eta ikusirik atsegin egiten zaroela juduei, harrarazi zuen oraiño Piarres ere; ziren orduan altxagarri gabeko ogien egunak. **4** Harrazirik, bada, igorri izan zuen presondegirat eta eman zaroen goardatzerat laur soldaduetako laur bande, nahiz Bazko ondoan hillarazi populuairen aitzinean.

**5** Zen, bada, Piarres begiratu presondegian eta Eliza hari zitzaioen kontinualki othoitz egiten Jainkoari harentzat. **6** Noiz ere, bada, baitzegoen Herodes hura supliziorat igortzeko, gau hartan berean Piarres lo zegoela bi soldaduen artean bi gathez amarratua eta goardak athe aitzinean zeudezela presondegiaren begiratzen, **7** huna Jaunaren aingeru bat heldu da kolpe kolpez, argi diztiant batek bethetzen du toki hura, eta jorik Piarres sahetsean, iratzartzen du erraten dioelarik: «Jaiki zaite berehala». Eta denbora berean erortzen dire gatheak haren eskuetarik. **8** Erran zioen bada aingeruak: «Gerrika zaite eta jauntz zatzitzu zure zapatak». Eta egin zuen borla. Erran zioen gero berriz aingeruak: «Har zazu zure arroba eta jarraik zakizkit nir». **9** Ikhirik Piarres, bazarraikon jakin gabe aingeruak egiten zuena egiazki zela; aitzitik uste zuen zenbait iduripen zuela ikusten. **10** Iragan zutenean, bada, lehenbiziko goardia eta bai bigarrena, ethorri ziren burdiñazko atherat, hirirat daramanerat, zeina bere buruz ideki baitzitzaien; eta ilkhirik, goan ziren karrikaren bururaino eta berehala utzi zuen aingeruak.

**11** Orduan Piarresek bere baitan sarthurik, erran zuen: «Orai ezagutzen dut egiazki, igorri izan darotala Jaunak bere aingerua eta athera nauela Herodesen eskutik eta juduen populuairen ustekari guzietarik». **12** Eta gauzak konsideraturik, ethorri izan zen Maria, Joanes izen goitiz Mark zeritzanaren amaren etxerat, zeñetan baitziren hainitz presuna bilduak othoitzean zeudezenak.



13 Jo zuenean bada athea, ethorri zen behatzerat neskatxa bat Rhode zeritzana, 14 eta ezagutu izan zuenean Piarresen boza, bozkarioaren fuertszaz ez zuen ideki athea, baina lausterka barnerat sarthurik, goan zen berria ematerat Piarres zela athean. 15 Hek erraten zioten: «Naski erroto zare». Baiñan hark seguratu zioen hala zela. Hek berriz zioten: «Haren aingerua diteke». 16 Bizkitartean Piarres athe joka hari zen; ideki zutenean, bada, ikusi zuten eta balditu ziren. 17 Baiñan hark eskuaz kheñu eginik ixil zitezela, kondatu zaroen nola Jaunak athera izan zuen presondegitik. Eta erran zaroen: «Eramozue berria Jakoberi eta anaiei». Eta ilkhirik goan zen bertze lekhu batetarat. 18 Argitu zenean, bada, ez zen xumea soldaduen arteko altaramendua, hea zer egin othe zen Piarres. 19 Herodesek berriz bilha erabillirik ezin aurkhitu zuenean, informazioneak eginik goarden kontra, ordenatu zuen eraman zetzatela hiltzerat; eta goanik Judeatik Zesarearat egon zen han.

20 Zen, bada, tarritua Tiriarren eta Sidoniarren kontra. Baiñan hek elkhar harturik, ethorri ziren haren ganat eta irabazirik Blasto erregeren gelaria galdetu zuten bakea, zeren hekien herriak errege ganik baitzuen bere bizitzekoa. 21 Egun hartuan, bada, Herodes bere erregetasuneko arropaz bestiturik, jarri zen bere thronuan eta hasi zitzaien harangutzen. 22 Populua berriz jarri zen oihuz erraten: «Jainko baten mintzoa da hori eta ez gizonarena». 23 Momentu berean ordean jo zuen Jaunaren aingeru batek, zeren ez zioen gloria errendatu Jainkoari, eta hiltzen barrez jana. 24 Bizkitartean Jainkoaren hitza berretuz zihoan eta banatuz geroago eta gehiago. 25 Barnabe berriz eta Saul bihurtu ziren Jerusalemetik, bere mezua konpliturik eta berekien harturik Joanes, izen goitiz Mark erraten ziotena.

### XIII. KAP.

1 Baziren Antiokiako Elizan profetak eta dotorak, zeinetarik baitziren Barnabe eta Simon, Belka erraten ziotena, Luzius Zirenakoa, Manahan Herodes tetrarkaren haz-anaia, eta Saul. 2 Jaunaren zerbitzuan zirela bada eta barur egiten, erran izan zaroen Izpiritu Sainduak: «Aldara dietzadatzue niri Saul eta Barnabe nik hautatu ditudan obrakotzat». 3 Orduan barurturik eta othoitzak eginik, pausatu ziotzaten eskuak eta igorri zituzten.

4 Hek, bada, Izpiritu Sainduaz igorriak ziren bezala, goan ziren Seleuziarat eta handik enbargatu ziren goateko Ziprerat. 5 Eta ethorri

izan zirenean Salaminarat, predikatu zuten Jainkoaren hitza juduen sinagogetan eta berekien zuten Joanes ere lagun. 6 Eta trebesatu zutenean irla guzia Pafaraiño, aurkhitu izan zuten judu bat aztia eta profeta falsoa, Barjesu zeritzana; 7 zein baitzen Serjio Paulo gobernadorearekien, gizon zuher eta prudentarekien; hunek erakharririk Barnabe eta Saul, desira zuen aditzeko Jainkoaren hitza. 8 Kontra egiten zaroen ordean Elimas aziatik (hori erran nahi du ezen haren izenak), nahiz gibelatu gobernadore fedea besarkatsetik. 9 Baiñan Saulek, Paulo ere deitzen denak, Izpiritu Sainduaz bethea zen bezala, behaturik gizon hari, 10 erran izan zioen gizon hari: «O gizon, enganio eta tronperia suerte guziez bethea, deabru semea, justizia guziaren etsaia! Ez aiz bada geldituko Jaunaren bide xuxena iraultzetik? 11 Horra, bada, non duan Jaunaren eskua hire gainean, eta itsu izanen haiz, iguzkia ikusten ez duala denbora batetaraino». Eta betetan erori zitzaion begietarat lanbo ilhun bat, eta alde guzietarat bilha zebillan nork esku emanen zioen. 12 Orduan gobernadoreak gauza hori ikusirik, sinhetsi zuen eta miretsi Jaunaren doktrina.

13 Paulo eta bere lagunak partitu ziren Pafotik eta ethorri gero Perje Panfiliakorat. Joanes ordean hek utzirik bihurtu izan zen Jerusalemerat. 14 Hek berriz Perjetik partiturik ethorri ziren Antiokia Pisidiakorat eta sarturik sinagogan sabatho egunean jarri izan ziren. 15 Legearen eta profeten irakurtzearen ondoan, igorri zioten sinagogako buruzagiek erraterat: «Anaiak, baldin baduzue zenbait exorta egiteko populuari, mintza zaitetzte».

16 Altxatu zen, bada, Paulo eta eskuaz kheinu eginik ixil zeitezentzat, erran zaroen: «Israeldarrak eta zuek, Jainkoaren beldur zaretenak, adi zazue: 17 Israelgo populuaren Jainkoak hautatu izan ditu gure aitak eta populu hau altxatu izan du Ejiptoan zegoen orduan eta beso gora eta indarsu batez athera zituen handik. 18 Berrogoi urtheren ephean jasan izan ditu hekien hazdurak desertuan; 19 eta desegin zazpi nazione Kanaango herrian; zorthez partitu zarozten hekien lurak, 20 laur ehun eta berrogoi eta hamar urtheren buruan edo; eta ondoan eman zarozten jujeak Samuel profetarainokoa. 21 Ondoan galdegin zuten errege bat eta eman zaroen Jainkoak Saul, Zis-en semea, Benyaminen leiñukoa, zeñiek erreginatu baitzuen berrogoi urthez. 22 Hura khendurik, berriz eman zaroen erregetzat Dabid, zeinari lekhukotasuna errendatu baidio, erranik: Aurkhitu dut Dabid, Jeseren semea, neure gogarako gizona, zeinek eginen baiditu ene nahi guziak. 23 Hunen arrazatik du Jainkoak bere agintzaren arauera ilkhiarazi Israelentzat salbatzaille bat, zein bada Jesus; 24 zeña ethortzeko aitzinean, predikatu izan baidio Joanesek penitentziaren bat-



haioa Israelgo populuari. **25** Eta Joanesek akhabo hurren zuenean bere korsua, erraten zuen: Zuek uste duzuen a naizela ez naiz ni; baiñan horra non heldu den ene ondoan bat, zeinaren oiñetako zapatak lexatzeko ez bainaiz ni gai.

**26** Ene anaiak, Abrahamen arrazatikako umeak: zuei eta zuen artean Jainko beldurra dutenei izan zaitzue salbamenduko hitz hau igorria. **27** Ezen Jerusalemen egoten zirenek eta hango buruzagiek ez ezagaturik Jesus, kondemnatzean berean konplitu izan dituzte profeten erranak, sabatho egun guzietz irakurtzen direnak. **28** Eta aurkhitzen ez zuten arren haren baithan deusere heriotzea merezi zuenik, galdetu izan zioten Pilatusi hillaraz zezala. **29** Eta konplitu zituztenean hartaz eskribatuak ziren guziak, erautsia izan zen gurutzetik eta ezarria thonban. **30** Jainkoak ordean biztu izan zuen hiletarik hirugarren egunean eta agertu zitzairen hainitz egunez harekien Galileatik Jerusalemeko ethorri izan zirenei **31** zeinak orai arteraino lekhukotzat baliatzen baitzaizko populua alderat, **32** eta guk ere irakasten darotzuegu orai gure aitei egin izan zitzairen agintza. **33** Zeren Jainkoak konplitu izan baidu gure umeentzat bizturik Jesus, bigarren salmoan eskribatua ere den bezala: Ene Semea zare zu, nik egun zaitut jenderatu. **34** Eta erakustekotzat hiletarik biztu izan duela gehiago ez hiltzekotan, hunela erran izan du: Atxekiko darozkitzuet leialki Dabidi egin izan diotzadan agintza sainduak. **35** Hargatik ere du erraten bertze lekhu batean: Ez duzu utziko zure Saindua ustelgunerik frogatzerat. **36** Ezen Dabid bere denboran Jainkoaren nahirat zerbitzaturik hill izan da, ezarria izan da bere aiten thonban eta ikusi izan du usteltzea. **37** Ordean Jainkoak biztu izan duenak ez du frogatu usteltzerik.

**38** Jakin zazue beraz, ene anaiak, huntaz zaitzuela erakusten bekhatuen barkhamendua eta Moiseren legeaz justifikatuak ezin izan zaretzen guzietarik, **39** hunen baithan sinhesten duena justifikatua dela huntaz. **40** Begirautzue, beraz, gertha ez dakizuen profetetz errana izan dena: **41** Iku-sazue, izpiritu mesprezantak, eta barri zaitezte eta urmari zaitezte, zeren obra bat eginen baidut zuen egunetan, obra bat sinhetsiko ez duzuen, nihork kondaturik ere».

**42** Sinagogatik ilkhitzean othoitz egin zaroten, hurreneko sabathoan ere mintzatzeaz gauza beraz. **43** Eta batzarra urratu zenean, juduetarik hainitz eta Jainkoa zerbitzaten zuten arrotzetarik ere hainitz jarraiki zitzaizten Paulori eta Barnaberi, zeñek exortatzen baitzituzten zinki ego-

terat Jainkoaren grazian. **44** Ondoko sabathoan, bada, hurren hiri guzia bildu izan zen Jainkoaren hitza aditzerat.

**45** Ikusteaz ordean jendetze hura, juduak ielosiaz betherik jarri ziren blasfemiorekien kontrestatzen Jondoni Paulok erraten zituenak. **46** Orduan ausarki Paulok eta Barnabek erran izan zaroen: «Zuei behar zitzaizuen lehenik aipatu Jainkoaren hitza, baiñan zuek duzuenaz geroz arbuiatzen eta zebonek dituzuenaz geroztik jujeatzen zeben buruak indigno bizitzea eternala izateko, huna non goazen jentillen aldeetarat. **47** Hala manatu daroku ezen Jaunak hitz hautaz: Ezarri zaitut jentillen argi izateko, salbamendua eraman dezazuntzat lurraren basterretaraino».

**48** Aditurik hori jentillak bozkariatu ziren eta zuten glorifikatu Jainkoaren hitza; eta sinhetsi izan zuten bizitzea eternalakotzat predestinatua ziren guziek. **49** Bizkitartean banatzen zen Jainkoaren hitza herri hartan guzian. **50** Juduek ordean altzarazirik emazte debot eta kualitatezko batzu hiriko prinzipalekien batean, eragin zuten persekuzione bat Pauloren eta Barnaberen kontra eta kasatu zituzten bere herrietik. **51** Baiñan hek iharrosirik bere oiñetako herrautsa jende hekien kontra, goan ziren Ikonerat. **52** Eta dizipuluak betheak ziren bozkarioz eta Izpiritu Sainduaz.

#### XIV. KAP.

**1** Ikonen zirela, bada, ethorri ziren sartzerat elkharrekiek juduen sinagogan eta mintzatu ziren halako moldez, non sinhetsi baitzuten judu eta greko multzo handi batek. **2** Ordean sinhetsi nahi ez zuten juduek altzarazi zituzten jentillak eta tarritatu anaien kontra. **3** Egon ziren, bada, denbora handiz hiri hartan fidantziarekien konportatzen zirela Jaunaren izenean, zeñak lekhukotasuna egiten baitzioen bere graziaren hitzari, mirakuillu handiak obratzenez hekien eskuz. **4** Baiñan partitu izan ziren hiriko jendeak, batzu juduen alde, bertzeak berriz Apostoluen. Nola, bada, jentillak eta juduak bere buruzagi prinzipalekien oldartu baitzezten **5**, hek injuriatu nahiz eta harrikatu nahiz, **6** hori jakiñik Apostoluak goan ziren ihesi Listra eta Derbe zeritzaten Likaoniako hirietarat eta inguru hartako herrietarat, eta han hari ziren predikatzen. **7** Zegoen, bada, Listran gizon bat zangoetarik hebaindua, amaren sabeleandanik maingua eta egundaino oiñez ibilli ez zena.

**8** Gizon hark aditu zuen Paulo predikatzen eta Paulok hari behaturik eta ikusirik fedea bazuela sendatua izateko, **9** erran zioen oiñu goraz:



«Altxa zaite zure oinen gainean xutik». Eta hura jauzi eginik abiatu zen ibiltzen. **10** Populuak ikusirik Paulok zer egin zuen, altxatu zuen oihua gora Likaniako erdaraz ziotsala: «Jainko batzu dire hauk gizonen idurian gure ganat jautsi direnak». **11** Eta zuten deitzen Barnabe Jupiter, Paulo berriz Merkurio, zeren hark baitzuen hitza ere hartzen. **12** Jupiterren apheza ere, zeinek baitzuen tenplua hiritik hurbill, athe aitzinerat ethorri-rik zezenekien eta khoroezien, jarri zen popularekien batean hei ofrendatzerat.

**13** Baiñan hori aditu zutenean Barnabe eta Paulo Apostoluek, hautsi zituzten bere arropak eta goan ziren oihuz jendetzearen erdirat, **14** ziote-larik: «Gizonak, zer hari zarete? Gu ere hillkorrag gare eta zuen pareko gizonak, zuei predikatzerat ethorriak komberti zaitezela banokeria horie-tarik Jainko bizia ganat, zeinek egin izan baiditu zerua eta lurra eta itsasoa eta hetan diren guziak; **15** zeinek iragan mendeetan utzi izan baiditu nazio-ne guziak bere bideetan ibiltzerat; **16** eta halarikan ere ez da gelditu bere izateaz bethi gu jakintsun egitetik, bere ungi eginez zerutik emanez uriak eta fruitutako sasoin onak, frankoki ematen darokula atseginekien ere bizitzekoa». **17** Horiek erranik ere, doi doia gibelatu zuten populua hei ofrendatzetik. **18** Denbora hartan berean ethorri izan ziren judu batzu Antioketik eta Ikoniotik, zeinek populua irabazirik harrikatu izan baitzu-ten Paulo eta herrestatu hiriz kanporat, ustez hilla zen.

**19** Bildurik ordean dizipuluak haren ingururat altxatu zen eta sarthu hirian; eta biharamunean goan zen Barnabekien Derberat. **20** Eta pre-dikatu ondoan Ebanjelioa hiri hartan eta eskolatu ondoan hainitz, bihurtu ziren Listrarat eta Ikoniorat eta Antiokiarat, **21** indarztatzen zituztelarik dizipuluen gogoak eta zituztelarik exortatzen fedean egoterat fermuki, zeren eta atsekabe hainitzetarik behar baitgare sarthu Jainkoaren erresu-man.

**22** Gero ordenaturik Eliza bakhoitxetan aphezak eta eginik othoitzak eta barurak, gomendatu ziotzaten Jaunari, zeina baitan baitzuten sinhes-ten. **23** Ondoan Pisia iraganik ethorri ziren Panfiliarat, **24** ea predikatu ondoan Jainkoaren hitza Perjen, jautsi ziren Attaliarat, **25** eta handik enbargatu ziren goateko Antiokiarat, zeinetarik izan baitziren igorriak Jainkoaren graziari gomendaturik konplitu izan zuten obrakotzat.

**26** Ethorri zirenean, bada, eta bilharazi zutenean Eliza, kondatu zio-tzaten zenbat gauza handi egin izan zituen Jainkoak hekiekien eta nola

zabaldu zaroen Jainkoak jentillei fedearen athea. **27** Eta egon ziren den-bora luzez dizipuluekien.

## XV. KAP.

**1** Iudeatik ethorri batzuek, bada, irakasten zioten anaiei, ziotsotela-rik: «Baldin ez bazarete zirkonzidatzen Moisez exlejitua den arauera, ezin salba zaitezket». **2** Eta horren gainean debadio handi bat izan baitzuten Paulok eta Barnabek hekien kontra, deliberatu izan zuten goanen zirela Paulo eta Barnabe eta bertze zenbait bertzeetarik Jerusalemrat Aposto-luen eta aphezen ganat kestione horren xuritzerat. **3** Hek, bada, Elizak igorriarik iragan ziren Feniziatik eta Samariatik, kondatzen zutelarik nola konbertitu ziren jentillak; eta bozkario handi bat zioten ematen anaia guziei.

**4** Ethorri zirenean Jerusalemrat ungi errezibituak izan ziren Elizaz eta Apostoluez eta aphezez, zeinei kondatu izan baitzioten zenbat gauza handi egin izan zuen Jainkoak hekiekien. **5** Altxatu izan ziren ordean jende batzu farisauen sektakoak, fedea besarkatu zutenak, erraten zutela ezen zirkonzidatu behar zirela jentillak eta ordenatu behar zitzaie la Moiseren legea begiratzeaz. **6** Bildu ziren, bada, Apostoluak eta aphezak egiteko horren gainean deliberatzeko.

**7** Eta debadio handi baten ondoan altxatu zen Piarres eta erran zaro-en: «Ene anaiak, badakizue aspaldidanik Jainkoak gure artean hautatu izan nauela ene ahotik jentillek entzun zezatengatik Ebanjelioko hitza eta sin-hets zezatentzat. **8** Eta Jainkoak ezagutzen baiditu bihotzak, erakutsi izan du horren froga, hei emanik Izpiritu Saindua guri bezala. **9** Eta diferen-ziarik batere ez du egin izan hekien eta gure artean, fedez garbitu izan baiditu hekien bihotzak. **10** Orai beraz, zergatik tentatzen duzue Jainkoa ezarri beharrez dizipuluen lephoen gainean ustari bat, zeina ez gure aitek, eta ez guk ezin jasan baidugu? **11** Aitzitik Jesukristo Jaunaren graziaz dugu uste salbatuko garela eta bai hek ere». **12** Orduan ixildu zen batzar guzia eta jarri ziren Barnaberen eta Pauloren aditzen, zeinek kondatu bai-tzuten zenbat mirakuillu eta gauza ohiz kanpoko egin izan zuen Jainkoak hekien bidez jentillen artean.

**13** Eta ixildu zirenean, hartu zuen hitza Jakobek eta erran: «Ene anaiak, adi nazazue: **14** Simonek kondatu darotzue nola hasi izan den Jain-koa jentilletarik hautesten beretzat populu baten, **15** eta horrekien akort



heldu dire profeten erranak, eskribatua den bezala: **16** Gero ondoan bihurtuko naiz eta berriz bastituko dut Dabiden etxea eroria dena; erreparatuko ditut haren ererikoak eta altxatuko dut, **17** bilha dezaten gatik Jauna gaiñerako gizonak eta nazione guziek, zeïnen gaiñean deithoratua izan baida ene izena; dio Jaunak berak, zeinek baiditu egiten gauza hauk. **18** Bethidanik ezagutzen du Jaunak bere obra.

**19** Hargatik niri zait ez direla behar nekhatu jentilletarik Jainkoaganat itzultzen direnak, **20** baiñan eskribatu behar zaiela gibela daitezela idolez lizunduak direnetarik, fornikazionetik, gauza ithoetarik eta odoletik. **21** Moisez denaz bezanbatean, aspaldidanik baditu hiri bakhohitxetan hura predikatzen dutenak sinagogetan, zeinetan irakurtzen baidute sabatho egun guziez».

**22** Orduan abisuko izan ziren Apostoluak eta aphezak Eliza guziarekien, berezteko hetarik zenbait igortzekotzat Antiokiarat Paulorekien eta Barnaberekien. Hautatu izan zituzten beraz Juda, zeïñak baitzuen izen-goitia Barsabas, eta Silas anaien artean ziren prinzipaletarik.

**23** Eta huna zer eskribatu zuten hekiekien Apostoluek eta anaia aphezak: «Antiokian, Sirian eta Zilizian jentilletarik diren anaiei, agur: **24** Nola aditu izan baidugu gutarik ilkhi diren batzuk alborotatu izan zaituztela bere erasiez eta iharrosi izan dituztela zuen arimak gureganik mezurik batere izan gabe, **25** abisuko izan gare elkharrekien batzarra egin dugunak, hautatzeko gizon batzu eta igortzeko zuenganat Barnabe eta Paulo maiteekien, **26** bere biziak Jesukristo gure Jaunaren izenarentzat eman dituzten gizonen batean. **27** Igortzen darozkitzuegu, bada, Juda eta Silas, zeïnek erranen baidarozkitzue hitzez gauza berak. **28** Kaio ezen Izpiritu Sainduari eta bai guri ere, ez zuei ezartzea gehiago kargarik men-goazko hautaz landan: **29** begira zaitetzen idolei ofrendatuak izan diren gauzetarik, odoletik, gauza ithoetarik eta fornikazionetik, zeinetarik begiratzeaz ungi egingen baiduzue. Ungi daizuela».

**30** Hauk, bada, hunela igorriak izan zirenean, ethorri ziren Antiokiarat eta bilharazirik fidelak, eman zaroen buthuna, **31** zeina irakurri baitzuten bozkario eta konsolamendu handirekien. **32** Eta nola Juda eta Silas berak ere profetak baitziren, konsolatu izan zituzten eta borthiztu anaia hagitz solhas onez. **33** Egin ondoan bada han zenbait denbora, utzi zituzten anaia bakearekien goaterat igorri izan zituztenen ganat. **34** Hala ere apropos aurkhitu zuen Silasek han gelditzea, eta Juda bakharrik goan zen

Jerusalemrat. **35** Paulo eta Barnabe ere gelditu izan ziren Antiokian irakasten eta predikatzen bertze hainitzekien Jaunaren hitza.

**36** Zenbait egunen ondoan, bada, erran zioen Paulok Barnaberi: «Bihur gaitezen eta bisita detzatzigun anaia Jaunaren hitza predikatu izan dugun hiri guzietan, hea zertan diren». **37** Barnabek, bada, hartu nahi zuen berekien Joanes, izengoitiz Mark zeritzana. **38** Paulok ordean errepresentatu zioen ez zela konbeni berekien har zezaten Panfiliandanik hek utzi izan zituen presuna bat eta hekiekien lanerat goan ez zena. **39** Izan zen, bada, hekien artean targoa bat, zeinari zagozala partitu baitziren elkhar-ganik; eta Barnabe, harturik Mark berekien, enbargatu baitzen Xiprerat goateko. **40** Paulo berriz hautaturik Sila, goan izan zen anaiez gomendatua Jainkoaren graziari. **41** Iragan zituen Siria eta Zilizia borthizten zituela Elizak, eta ordenatzen zaroela goardatzeaz Apostoluek eta aphezexlejituak izan zitzaiztenak.

## XVI. KAP.

**1** Ethorri zen bada Paulo Derberat, gero berriz Listarat. Eta zen han dizipulu bat, Timotheo zeritzana, emaste judutar fidel baten semea, baiñan alta jentilla zuena. **2** Huni zioten lekhukotasun on bat errendatzen Listran eta Ikonion ziren anaiek. **3** Paulok nahi baitzuen hura berekien eraman, harturik zirkozidatu zuen lekhu hetan ziren juduengatik; bazakiten ezen guziek haren alta jentilla zela. **4** Hirietarik iragatean irakasten zaroten goardatzen Jerusalem ziren Apostoluek eta aphezak egin izan zituzten ordenamenduak. **5** Eta horla Elizak borthizten ziren fedean egun oroz eta berretzen nonbrean.

**6** Iragan zutenean bada Frijia eta Galaziako probinzia, debekatuak izatu ziren Izpiritu Sainduaz Jainkoaren hitza predikatzetik Asian. **7** Ethorri zirenean bada Misiarat, goan gogo zuten Bithiniarat; ordean ez zituen utzi goaterat Jesusen Izpirituak. **8** Misia iraganik bada, jautsi izan ziren Troadarat. **9** Eta Paulok izan zuen bisione bat gauaz: gizon mazedoniar bat agertu zitzaioen othoitzez eta errekerimenduz erraten ziola: «Iragan zaitte Mazedoniarat eta hel zakizkigu». **10** Bisione hori izan zuenean, berehala preparatu giñen goaterat Mazedoniarat, segurtzat harturik Jainkoak ginituela deitzen hei predikatzerat.

**11** Enbargaturik bada Troaden, xuxen xuxena ethorri giñen Samoth-ziazarat, eta biharamunean Neapoliserat; **12** handik Filiporat, zein baida



Mazedoniako herriko lehenbiziko hiria eta kolonia bat, eta han egon giñen zenbait egunez konpartitzen. **13** Sabatho egunean, bada, ilkhi izan giñen hiriko portalez kanporat arriberaren hegirat, non iduritu baitzitzaikun egiten zutela othoitz; eta han jarririk mintzatu giñiaizten harat bilduak ziren emastei. **14** Eta Lidia zeritzan Thiatira hiriko emaste eskarlata saltzaille, Jainkoa zerbitzatzan zuen batek entzun ginituen, zeinaren bihotza ideki baitzuen Jaunak Paulok erraten zituen gauzen ungi aditze-ko. **15** Bathatua izan zenean bada bere familiarekien, othoitz egin zarokun erraten zuelarik: «Baldin jujeatu baduzue Jaunaren fidel naizela, sar zaitzte ene etxean eta egon zaitzete». Eta bortxatu ere ginituen.

**16** Gerthatu izan zen bada othoitzerat giñohazela, neskato bat pithonen Izpirituaz poseditua zena bat zekigun, zeinek irabazi handi bat ekhar-tzen baitzaroen bere nausiei bere astmuez. **17** Neskato hura jarraiki zitzai-kun Paulori eta guri oihuz erraten zuelarik: «Gizon hauk Jaungoikoaren zerbitzariak dire, zeinek erakusten baidarotzue salbamenduko bidea». **18** Eta hori egin zuen hainitz egunez; eta nola damu egiten baitzioen horrek Paulori, itzulirik erran zioen izpirituari: «Manatzen haut Jesukristoren ize-nean ilkhi hadin horren ganik». Eta ilkhi zen ordu berean.

**19** Baiñan ikusirik haren nausiek galdu zutela bere irabaziaren espe-rantza, hartu zituzten Paulo eta Silas, eta eraman zituzten gaztelurat kar-gudunetarat. **20** Eta presentaturik kargudunei, erran zioten: «Gizon hauk nahasten dute gure hiria, judu batzu dire ezen **21** predikatzen darokutenak bizitze molde bat hartzea, guri goardatzea zilhegi ez zaikuna, Romanoak garenaz geroztik». **22** Eta abiatu zen populua lausterrez hekien kontra, eta kargudunek hautsarazirik hekien arropak, ordenatu zuten azota zetzatela zigorrez.

**23** Kolpe hainitz eman ziotzaten ondoan, emanarazi zituzten pre-sondegian, manaturik jaulerari athoski goarda zetzala. **24** Hark ordena hori errezibitu eta eman zituen kaxotean eta zarratu zarozten oinak zep-hoetan. **25** Gau erditan, bada, Paulo eta Silas jarri ziren othoitz egiten eta Jainkoaren laudorioak kantatzen; eta aditzen zituzten han ziren presonie-rek. **26** Eta betbetan egin zen lur ikharatze handi bat halako moldez, non higitu izan baitziren presondegiko zimenduak; denbora berean ideki ziren athe guziak eta guzien estekailuak hautsi izan ziren.

**27** Iratzarririk, bada, jaulera eta ikusirik idekiak presondegiko atheak, athera zuen bere ezpata eta hill nahi zuen bere burua, ustez ezen itzuri ziren presonierak. **28** Baiñan Paulok erran zioen oihu goraz: «Ez diozazu-

la minik egin zure buruari, guziak ezen hemen gare». **29** Orduan galdetu-rik argia, sarthu izan zen barnat eta guzia ikharatua arthiki zen Pauloren eta Silasen oinetarat; **30** eta kanporat ilkhiazirik, erran zaroen: «Jaunak, zer egin behar dut salbatua izateko?». **31** Hek ihardetsi izan zioten: «Sihe-tsazu Jesukristo Jauna baitan eta salbatua izanen zare zu eta zure familia». **32** Eta irakatsi izan zioten Jaunaren hitza eta bai haren etxeko guziei ere. **33** Hark berriz gauaren oren hartan berean garbitu zarozten bere zauriak; eta berehala bathaiatuak izan ziren bera eta bere mainada guzia. **34** Gero eramanik bere etxerat, hedatu zaroen mahaiña; eta alegeratu izan zen bere familia guziarekien, zeren sinhetsi zuen Jainkoa baithan.

**35** Eguna ethorri zenean, igorri izan ziotzaten kargudunek xarxoak erraterat, utz zetzala gizon hek goaterat. **36** Jaulera ethorri zitzaioen bere-hala Paulori erraterat: «Gastiatu dute kargudunek utz zaitzagutela goate-rat; ilkhi zaitzete, beraz, orai berean eta zohazte bakean». **37** Paulok ordean erran zaroen: «Azotatu gaituzten ondoan publikoki jujeamendu formarik gabe gu erromarrak, eman gaituzte presondegian; eta orai ixillik gaituzte libratzen? Ez da hala izanen, bainan bethoz berak eta ilkhiaz beitgaitzate». **38** Adiarazi zaroen hori xarxoek kargudunei, zeinäk beldur-tu baitziren aditu zutenean erromarrak zirela. **39** Eta ethorririk, exkusak egin ziotzaten; eta presondegitik ilkhiazirik, errekeritu zituzten ziohaze-la hiritik. **40** Presondegitik bada ilkhi eta, sarthu ziren Lidia baithan, eta ikusi ondoan eta konsolatu ondoan anaiak, goan ziren.

## XVII. KAP.

**1** Iraganik bada Anfipolian eta Apollonian gaindi, ethorri ziren The-salonikarat, zeinetan judutarrek baitzuten sinagoga bat. **2** Paulo goan zen hetarat ohitza zuen bezala eta hirur sabatho egunez mintzatu zitzaien Eskritura sainduko gauzez, **3** deklaratzan eta konpreniaratzitzen zaroela-rik Kristok pairatu izan behar zuela eta hilletarik biztu behar izan zuela: eta «Kristo hura», ziotsoten, «Jesukristo da, zeina nik predikatzen baida-rotzuet». **4** Eta hetarik zenbaitek sinhetsi izan zuten eta atxeki zaroen Pau-lori eta Silasi Jainkoaren beldurra zuten nonbre handi batekien eta hainitz emasteki ohoraturekien.

**5** Ordean juduak zeloz irakiturik hartu zituzten berekien jende xeheetarik gizon gaixtagin batzu, eta hetaz bilduma bat eginik, alborotatu zuten hiri guzia eta barrendatu zuten Jasonen etxea, Paulo eta Silas era-



man nahiz popularen aitzinerat. **6** Eta ez baitzituzten hek aurkhitu, trainatu zituzten Jason eta anaietarik zenbait hiriko kargudunetarat, ziotsate-larik oihuz: «Hiria alboratzen duten jende hek, bertzetarik hunat ethorri-rikako batzu dire, **7** zeñiak Jasonek bere etxerat hartu baiditu eta hauk guziek Zesaren ordenantzen kontra egiten dute, diotelakotz badela bertze errege bat, zein bada Jesus». **8** Tarritatu zuten bada jende xehea eta bai hiriko kargudunak hori aditzen zutenak. **9** Baiñan eman baitzaroen Jasonek fiadorgoa eta bai bertzek ere, utzi izan zituzten goaterat.

**10** Anaiek ordean berehala gauaz partiarazi zituzten Paulo eta Silas Bertzetarat goateko; eta han zirenean arribatu, sarthu ziren judutarren sinagogas. **11** Judutar hek, bada, ziren nobleagoak Thesalonikakoak baiño, eta errezibitu zuten hitza posible zen lehia guziarekien, egun oroz estudiatzen zituztela Eskriturak, ikusteko hea gauzak hala othe ziren. **12** Behintzat hetarik hainitzek zuten sinhetsi, bai eta jentilletarik ere emaste ohoratu hainitzek eta asko gizonek ere.

**13** Jakin zutenean ordean Thesalonikako juduek Paulok predikatu zuela Jainkoaren hitza Beroean ere, ethorri ziren harat ere populua tarritatzerat eta alborotatzerat. **14** Orduan berehala Paulo ilkhiaz zuten anaiek itsasoko alderat eta gelditu ziren han Silas eta Timotheo. **15** Bizkitartean Paulo gidatzen zutenek eraman zuten Athenaraiño eta mezua harturik, Silasi eta Timotheori errateko ahalik lausterrena ziohazkola harat, abiatu ziren handik.

**16** Paulo hekien begira zegoen denboran hasi zen haren Izpiritua khexatzen haren barnean, ikusteaz hiri hura idolatriari bain emana. **17** Zihardukan, bada, sinagogetan judutarrekien eta Jainkoaren beldurra zutenekien, eta plazan berriz egun guziez han aurkhitzen zirenekien. **18** Ihardukitzen ziren halaber zenbait filosofo Epikuriano eta Estoiziano ere harekien eta zioten batzuek: «Zer erran nahi du erasle hunek?». Bertzeek berriz zioten: «Badiruri Jainko berri batzu predikatzen dituela», zeren Jesus predikatzen zuen eta erresurrekzioea. **19** Harturik, bada, eraman zuten Areopagorak, erraten ziotelarik: «Jakin othe dezakegu zer den zuk irakasten duzun dotrina berri hori? **20** Gauza berri batzu ezen ekhartzen darozkigutzu beharrietarat. Nahi dugu, bada, jakin zer erran nahi duten horiek». **21** Athenatar guziak ezen eta han ziren arrotzak ez zaramaten bere denbora deusetan ere bertzetan, zerbait gauza berri erraten edo aditzen baizen.

**22** Paulo, bada, izan zenean Areopagoaren erdian, erran zaroen: «Athenako gizonak, gauza guzietan zaizkidate iduritzen debotegi bezala; **23** iragatean ezen behatu baidaroet zuen jainkoen figurei; aurkhitu izan dut aldare bat ere, zeñetan baida eskribatua: Jainko ezagutu gabeari. Bada ezagutu gabe adoratzen duzuen hura darotzuet nik predikatzen. **24** Mundua eta munduan diren guziak egin izan dituen Jainkoa, zeruaren eta lurraren jaun den bezala, ez da hura eskuz eginikako tenpluetan egoten. **25** Eta baldin izaten badu ohorerik gizonen eskutik, ez du izaten nihoren beharra duelakotz, berak ematen daroenaz geroz guziei bizia, hats-hartzea eta gauza guziak. **26** Hark sorarazi izan du gizon xoill baten ganik gizonen arraza guzia eta eman izan daroe egoitzatatzat turraren hedamen guzia, erregelaturik hekien egoitzako denbora exlejituak eta zedarriak; **27** bilha dezatentzat Jainkoa agian hastamuka bezala aurkhituko dutelakoan, urrun ez den arren gu batbedera ganik. **28** Haren baithan dugu ezen bizitza, higitza eta izatea, eta zuen poetetarik zenbaitek erran izan dutena: Haren beraren arrazakoak ere gare. **29** Jainkoaren arrazako garenaz geroz, beraz, ez dugu uste izan behar Jainkotasuna urre, zilhar edo harrizko figura gizonen antzez eta asmuz moldaturikakoen iduritako ditekela. **30** Bada ignorantzia hortako denborak gaitzetsirik Jainkoak, orai adiarazten daroe gizoni, guziek eta lekhu guzietan egin dezaten penitentzia. **31** Zeren exlejitu izan baidu egun bat, zeñetan jujeatuko baidu mundua justutasunean hortakotz ordenatu izan duen gizonaz, eta hortaz eman izan daroe guziei lekhukotasun bat sinhesteko dena, hura hilletarik biztean».

**32** Aditu zutenean, bada, hilletarik bizte hori, batzu trufatu izan ziren, bertzeek berriz erran izan zuten: «Adituko zaitugu horren gaiñean bertze aldi batez». **33** Horla Paulo ilkhi zen hekien batzarretik. **34** Zenbait gizon, bada, juntatu zitzaizkon eta sinhetsi izan zuten; zeñen artean baitzen Denis Areopajita eta emaste bat, Damarias zeritzana, eta bertzerik ere bai hekiekien batean.

## XVIII. KAP.

**1** Ondoan gero Athenatik ilkhirik ethorri izan zen Korinthiarat. **2** Eta aurkhiturik judutar bat Akila zeritzana sortzez Pontekoa, berriroki Italiatik ethorria Priszilla haren emastearekien, zeren Klaudio enperadoreak ordenatu izan baitzaroen judutar guziei ilkhi zitezela Erromatik, goan zen hekien ganat. **3** Eta hekien ofizio berekoa baitzen, hekiekien zegoen eta hari zen lanean; zen, bada, hekien ofizioa kabana egitea.





4 Hargatik predikatzen zuen sinagogan sabatho egun guzietz; eta bere predikuetan Jesusen izenaz aiphamaena egiten zuela, entseiatzen zen judutarrak eta bai grekoak erakhartzerat sinhesterat. 5 Ethorri izan zirenean, bada, Mazedoniatik Silas eta Thimotheo, lehiatu zen Paulo bortixkiago predikatzen juduei, erakusten zaroela Jesus zela Kristo.

6 Ordean hek kontrariatzen baitzuten blasfemateraiñoakoan, bere arropak iharrosirik, erran zaroen: «Zuen buruen gain zuen odola; ni behintzat xahu naiteke oraidanik; banoha jentilletarat». 7 Eta abiaturik handik sarthu zen Tito Justua zeritzan baten etxean, zein baitzen Jainko beldurtia eta zeinaren etxea baitzatxekan sinagogari.

8 Krispo sinagogako buruzagiak, bada, sinhetsi izan zuen Jauna baitan bere familia guziarekien; hainitz Korinthiarrek ere Paulo aditu izan zutenek sinhetsi izan zuten eta bathaioa errezibitu. 9 Denbora hartan erran izan zioen Jaunak Paulori gauaz agergune batean: «Ez duzula beldurrik, aitzitik mintza zaite eta ez zaudezela ixillik; 10 ezen ni zurekien naiz eta nihor ez da jarriko zuri gaixkirik egiterat, zergatik populu handi bat baidut hiri huntan enea». 11 Egon zen, bada, han urthe bat eta sei ilhabetez, irakasten zaroela Jainkoaren hitza.

12 Baiñan Gallio Akaiako prokonsul zela, altxatu izan ziren gogo batez judutarrak Pauloren kontra eta eraman zuten haren tribunalerat, 13 erraten zutela ezen: «Legearen kontra den manera batez Jainkoa zerbitzaterat nahi ditu gizon hunek ekharri jendeak». 14 Paulo, bada, ahoa idekitzen hasten zela, erran zaroen Gallio juduei: «Baldinetariak zenbait injustizia edo gauza gaixto balitz hemen, o judutarrak, lege den bezala sustenga zintzaketet. 15 Baldin ordean kestione bada hitzez, izenez eta zuen legeaz, zebonei dagotzue ikustea; ez dut nik nahi izan horlako gauzetan juje». 16 Eta khendu zituen bere tribunaletik. 17 Harturik, bada, guziek Sosthenes sinagogako buruzagia, jazarri zioten tribunalaren aitzinean, eta Gallio hortaz antsiarik batere ez zuen izatu.

18 Pauloz denaz bezanbatean, oraiño hainitz egunez han egon ondoan, anaiei adiu erranik enbargatu zen Siriarat goateko, eta harekien batean Priszilla eta Akila ere; bere illeak aitzitik pikarazi zituen Zenkren, botu bat zuen egina ezen. 19 Eta ethorri izan zen Efeserat eta utzi zituen hek han. Bera sarthurik sinagogan jarri zen disputan juduekien. 20 Eta hek othoitzez zagozkolarik denbora gehiagoz egon zekioten, ez zuen nahi izan egon. 21 Aitzitik despeida harturik eta erranik: «Bertze aldi batez ethorriko natzaitzue, Jainkoak nahi badu», partitu izan zen Efesetik. 22 Eta Zesa-

rearat jautsirik, goan zen aitziaño eta salutatu zuen Eliza; gero berriz goan zen Antiokiarat.

23 Zenbait denboraz han egonik, abiatu zen handik eta trebesatu zuen arrimuz eta hiriz hiri Galaziako eta Frijiako herri guzia, dizipulu guziak borthizten zituela. 24 Denbora hartan judutar bat Apollo zeritzana ethorkiz Alexandriarra, gizon elokenta eta Eskrituretaren hagitza aditua, ethorri izan zen Efeserat. 25 Jakintsuna zen Jaunaren bidean eta, khar handirekien mintzo zela ederki, hagitza irakasten zuen Jesusi behatzen zaioena, ezagutzen ez zuen arren Joanesen bathaioa baizen. 26 Hura, bada, hasi zen ausarki mintzatzeko sinagogan eta aditu izan zutenean Priszillak eta Akillak, hartu zuten bere ganat eta ezagutarazi zioten hobekia goan Jaunaren bidea.

27 Nola ordean goan nahia baitzen Akaiarat, anaiek ere hartarat exortaturik eskribatu izan zaroen dizipuluei errezibi zezatela. Harat arribatu zenean, baliatu zitzaizen hainitz sinhetsi izan zutenei, 28 biziki hainitz ezen judutarrak zituen bentzutzen, publikoki zaroelarik erakusten Eskrituretari Kristo zela Jesus.

## XIX. KAP.

1 Gerthatu zen, bada, Apollo Korinthian zela, Paulo gain aldeetan ibillirik ethortzedin Efeserat, zeinetan aurkhiturik dizipulu batzu, 2 erran baitzaroen: «Errezibitu othe duzue Izpiritu Saindua fedea errezibitzean?». Hek ihardetsi izan zioten: «Aditu ere ez dugu Izpiritu Saindurik baden ere». 3 Hark berriz erran zaroen: «Zer bathaioz bathaiatuak izan zarete, bada?». Hek ihardetsi izan zioten: «Joanesen bathaioaz». 4 Horren gaiñean erran zaroen Paulok: «Joanesek bathaiatu izan du populua penitentiako bathaioaz, erraten zuela ezen sinhets zezatela haren ondoan heldu zena baithan, erran nahi da Jesus baitan».

5 Horiek aditurik, bathaiatuak izan ziren Jesus Jaunaren izenean. 6 Eta Paulok eskuak gaiñean pausatu izan zarozten ondoan, ethorri zen Izpiritu Saindua hekien gaiñerat halako moldez, non mintzo baitziren hainitz lengoaiez eta profetisatzen ere baitzuten. 7 Ziren bada guziz hamabi gizonen ingurua.

8 Sarthu izan zen gero sinagogan eta han mintzatu izan zen ausarki hirur ilhabetez, disputan hari zela eta izpirituen irabazten Jainkoaren Erresumari dagozkon gauzen sinhesterat. 9 Nola ordean batzu gogortzen



baitziren ez sinhesterat, gaixki mintzatzerainokoan Jaunaren bidez populu guziaren aitzinean, aldaratu zen hetarik eta apartarazirik bere dizipuluak handik, jarri zen irakasten egun guzietz Tiran zeritzan baten eskolan. **10** Iraun zuen horrek bi urthez, hain ungi bai, non Asian zeudezen guzietz entzun izan baitzuten Jaunaren hitza, nahiz judutarrek, nahiz jentillek.

**11** Eta mirakuillu ohiz kanpokoak ere zituen egiten Jainkoak Pauloren eskuz, **12** hartarainoan bai, non erien gainerat ekhartzen baitzituzten haren gorphutza ukitu zuketean mokanerak eta oihalak eta goaten baitzitzaizten errasunak eta ilkhitzen gorphutzetarik izpiritu gaixtoak.

**13** Benturatu ziren, bada, harat hunat zebiltzan exorzizta judutarretarik batzu, othoitz egiterat izpiritu gaixtoez hartuak zirenen gainean Jesus Jaunaren izenari, erraten zutelarik: «Konjuratzen zaituztegu Paulok predikatzen duen Jesusen partez». **14** Ziren, bada, hori egiten zutenak Eszeba judutar aphezetao prinzearen zazpi seme. **15** Ihardetsi zaroen ordean izpiritu gaixtoak eta erran: «Ezagutzen diat Jesus eta bazekiat nor den Paulo; zuek ordean nor zarete?». **16** Oldartu zitzaizen denbora berean izpiritu hagitz gaixto batez hartua zen gizona hetarik biei, eta biak garaiturik hain gaixki erabili zituen, non bulhuziak eta zaurthuak goan baitziren ihesi etxe hartarik. **17** Gauza hori, bada, ethorri izan zen Efesan zeudezen judutar eta jentill guzien ezagutzarat; guziak espantatuak izan ziren eta glorifikatua izan zen Jesus Jaunaren izena. **18** Eta sinhesten zutenetarik hainitz heldu ziren konfesatzerat eta erraterat bere eginkariak. **19** Halaber kuriositatezko gauzetarat emanak izan zirenetarik hainitzek ekharri zituzten bere liburuak eta erre zituzten guzien aitzinean; eta hekien balioa estimatu baitzuten, aurkhitu izan zen bezala berrogoi eta hamar milla dirupezena. **20** Hala Jainkoaren hitza hedatzen hari zen geroago eta gehiago eta indar hartzen podoroski. **21** Horiek egin ziren ondoan, deliberatu izan zuen Paulok Izpiritu Sainduaren inspirazione batez Mazedonian eta Akaian iraganik goaterat Jerusalemerat, erraten zuela ezen: «Han izatu ondoan, ikusi behar dut Erroma ere». **22** Igorririk, bada, Mazedoniarat bere lagun zituenetarik bia, Timotheo eta Eraste, gelditu zen bera zenbait denboraz oraino Asian.

**23** Gerthatu izan zen, bada, denbora hartan alborotamendu handi bat Jaunaren bidearen ariaz, **24** ezen Demetrius zeritzan zilhargin batek, zeinek Dianaren zilharrezko tenplutxoak egiten baitzituen eta ofizio hartakoei hainitz irabazarazten baitzaroen, **25** hek billarazirik eta horlako gauzetako ofiziale zirenak, erran izan zaroen: «Gizonak, badakizue ofizio

huntarik heldu zaikula gure irabazia, **26** eta ikusten duzue eta aditzen, ez xoilki Efesan baiñan oraino kuasi Asia guzian, Paulo hunek bere arrozoinamenduez urrundu darokula jendetze handi bat, erraten duela ezen gizonen eskuz egiten diren jainkoak ez direla jainkoak. **27** Ez xoiki, beraz, da hirriskutan gure ofizioa deskridatua izateko; bainan oraino Diana handiaren tenplua ere ezdeusentzat atxekiko dute, eta Asia guziak eta bai mundu guziak ohoratzen duenaren majestatea baratxe baratxe ezeztatua izanen da».

**28** Horiek aditurik koleraz betheak jarri ziren, oihuz eta deihadarrez erraten zutelarik: «Efesiarren Diana handia!». **29** Eta bethe izan zen hiri guzia konfusioez, eta guziak elkharreki en goan ziren lausterka theatretrat, berekien zaramatzatela Gaius eta Aristarke Mazedoniarak, Pauloren lagunak. **30** Paulok, bada, nahi baitzuen sarthu populuaren arterat, ez zuten utzi dizipuluek. **31** Eta are Asiako prinzipaletarik zenbaitek, haren adiskide zirenek, igorri izan zioten ere othoitzterat, ez zedin ager theatretrat. **32** Oihuz zeudezen, bada, batzu baterat eta bertzeak bertzerat; nahasia zen ezen batzar guzia eta gehienek ez zeakiten ere zertarat bildu ziren. **33** Jende artetik, bada, athera zen Alexandre, judutarrek bere aitzinean butatuz; eta eskuz kheinu eginik ixil zitezela, nahi izan zuen bere burua justifikatu populuaren aitzinean. **34** Bainan ezagutu zutenean judutarra zela, guziek elkharreki altxatu zuten boza eta egon ziren deihadarrez bi orenez edo: «Efesiarren Dianaren handia!».

**35** Ondoan eskribanoak jende xehea apazegaturik, erran izan zaroen: «Efesiarrek, nor da gizonen artean ez dakienik Efesiako hiriak ohoratzen duela Diana handia, Jupiterren alaba? **36** Beraz horren kontra nihor ezin dohakenaz geroz, soseguan egon behar duzue eta deusere ez egin arinki. **37** Ekharri dituzten gizon horiek ezen ez dire sakrilego batzu eta ez zuen jainkoesa blasfematzen dutenak. **38** Baldinetariak Demetriusek eta harekien diren ofizialeek badute zerbait errenkura egiteko norbaiten kontra, idukitzen dire gortheak eta badire prokonsulak; akusa bezate elkhari justizian. **39** Bainan baldin bertze zerbait gauzen gainean baduzue erratekorik, erregela ahal diteke batzar lejítimo batean, **40** ezen perillean ere gare egungo sedizioez akusatatuak izateko, deusere arrozoinik ezin eman dezakegunaz geroz alborotamendu hunen gainean». Horiek erran ondoan, erretirarazi zuen mundua.



## XX. KAP.

1 Alborotamendua gelditu izan zen ondoan, ekharririk Paulok dizipuluak eta exortaturik, adiu erran zaroen eta abiatu zen Mazedoniarat goateko. 2 Ibilli ondoan, bada, parte hetan eta exorta hainitz egin ondoan fidelei, ethorri zen Greziarat, 3 zeinetan egin ondoan hirur illhabethe, zelatetan baitzegozkon juduak noiz enbargatuko othe zen Siriarat goateko, hartu zuen xedea Mazedonian gaindi bihurtzeko. 4 Lagundu zuten bada Sopater, Pirrus Beroearraren semeak; Thesaloniarretarik berriz Aristarkek eta Sekondek; Gaius Derbeakoak eta Thimotheek, eta Asiarretarik Tikikek eta Trofimek. 5 Hauk aitzinerat goanik, iguriki ginituzten Troaden. 6 Gu berriz enbargatu giñen leلامي gabeko hirur egunen ondolan Filiposen eta ethorri izan ginaizten bortz egunen buruko Troaderat, non egon baitgiñen zazpi egunez.

7 Asteko lehenbiziko egunean bildu baigiñen ogiaren hausteko, Paulo, zeinek partitu behar baitzuen biharamunean, mintzatu zitzairen dizipuluei eta iraun zuen haren predikuak gau erdiraiño. 8 Ziren, bada, lanpa hainitz gu bilduak giñen gaiñeko salan. 9 Eta gizon gazte bat Eutike zeritzana, baitzegoen jarria leiho baten gainean lo Pauloren prediku luze hartan, loak garaiturik erori izan zen hirur garren soillarutik beherat eta eraman zuten hilla. 10 Baina jautsirik Paulo behererat, etzan zen haren gaiñerat eta hura besarkaturik erran zuen: «Ez zaitez tala altara, ezen bizi da». 11 Iganik gero, ogia hautsi ondoan eta jan zuen ondoan, mintzatu zitzairen argi hasteraiño oraiño, eta abiatu zen gero ondoan. 12 Ekharri zuten, bada, gizon gaztea bizia eta hagitz izan ziren konsolatuak.

13 Gutaz denaz bezanbatean, untzi batean enbargaturik goan giñen Asoneraiño, han hartzeko Paulo; horla zuen ezen ordenatu, leihorrez egin gogo baitzuen berak bidea. 14 Bathu ginituenean bada Asonen, hartu izan ginduen eta ethorri giñen Mitilenarat. 15 Handik arruta emanik, biharamunean ethorri giñen Xioren aurkarat; hurreneko egunean arribatu ginien Samosen eta ondoko egunean ethorri giñen Milelerat. 16 Deliberatu zuen ezen Paulok Efesaz haratago iragaterat, batere ez gelditzeagatik Asian; lehia baitzuen, baldin posible bazitzaion, Mendekoste egunekotz Jerusalem izateko. 17 Miletetik, bada, mezua igorririk Efeserat, erakharri izan zituen Eliza hartako aphezak.

18 Eta ethorri izan zitzaizkonean eta elkharganat zirenean, erran zaroen: «Badakizue Asian sarthu izan nintzen lehenbiziko egunaz geroztik nola konportatu izan naizen zuekien denbora guziaz, 19 Jauna zerbi-

tzatzen nuela humilltasun oso batekien eta nigar hainitzekien, zelatan zegozkidan judutarren partetik izan ditudan asalduen artean; 20 nola deusere ez darotzuedan estali zuen probetxuko gauzetarik, eta ez utzi irakatsi gabe publikoan eta etxeetan, 21 predikatzen niotela judutarrei eta bai jentillei Jainkoa baitarako penitentzia eta Jesukristo Jauna baitharako fedea. 22 Eta orai horra non nohan Izpirituz amarratua Jerusalem, han zer arribatu behar zaitan ez dakidalarik, 23 baizen Izpiritu Sainduak hiri guzietan ezagutarazitzen baidarot eta erraten gatheak eta persekuzioak daudezela enetzat Jerusalem. 24 Baina ez dut horien guzien beldurrik, eta ez zait ene bizia baliosago neroni naizen baino, baldin akhaba badezat ene kortsua eta bethe Jesus Jaunaganik errezibitu izan dudana kargua, Jainkoaren graziaren Ebanjelioa predikatzekoa.

25 Gainerakoan badakit oraidanik gehiago ikusiko ez duzuela ene bisaia zuek guziok, zeinen artean ibilli izan bainaiz Jainkoaren Erresuma predikatzen. 26 Hargatik, beraz, darotzuet deklaritzen egungo egunean garbi naizela guzien odolotik. 27 Ez naiz ezen herabe izatu, zuei erakusterrat Jainkoaren nahi guziak. 28 Goardia emozue, beraz, zeuben buruei eta arthalde guziari, zeinaren gainean Izpiritu Sainduak ifini baitzaituzte Aphezpiku, Jainkoaren Eliza bere odolaz konkestatu izan duena gobernatzeko. 29 Badakit ezen ni goan ondoan sarthuko direla zuen arterat otso arrapatzaileak, arthaldea guphidetsiko ez dutenak. 30 Eta zuen artetik beretik altxatuko direla doktrina gaixto bat predikatuko dutenak, bere ondoan eraman nahiz dizipuluak.

31 Hargatik beraz zeudete atzarriak, bethiere gogoan dadukazuela hirur urthez ez naizela gelditu gauz eta egunaz nigarrekien abertizetik zuetarik batbedera. 32 Eta orai gomendatzen zaizkotet Jainkoari eta haren hitzari datxakon graziari, bothere duenari guk hasi dugun edifizioa akhabatzeko eta bere Saindu guziekien bere primezan parte zuei emateko. 33 Nihoren zilharraz, ez urreez, ez arropez ez naiz gutiziatu. 34 Zebonek badakizue ezen, esku hauk fornitu izan darotedala neuretzat eta enekien zirenentzat behar nituen gauzak. 35 Horiek guziak egin izan ditut zuen begietan, zergatik horla traillaiz behar baidire flakoak menaiatu; eta orhoitu ere behar da Jesus Jaunak berak erran izan duenaz, gauza dohasuagoa dela hainitez ematea ezen ez hartzea».

36 Eta hauk erran ondoan, jarri zen belhauriko hekiekien guziekien batean othoitz egiten. 37 Guziak denbora berean hasi ziren nigarrez eta Paulori musuka, haren lephorat bere buruak arthikirik, 38 damu harturik



beregainki erran izan zaroen hitzaz: gehiago haren bisaia ez zutela ikusi-ko. Eta segitu zuten untzirat.

## XXI. KAP.

**1** Enbargatu ginenean, bada, hekienganik aski nekhez separaturik, eta belan jarri, ethorri ginen xuxen xuxena Kourat, biharamunean Rhoderat eta handik Patararat. **2** Han aurkhiturik untxi bat Feniziarat zihoana, igan giñen hartarat eta belan jarri. **3** Xiprako irlaren bistarat ginenean, bada, hura ezkererret utzirik eman ginduen arruta Siriarat eta ethorri ginen Tirerat, han behar zuen ezen untxiak deskarga egin. **4** Aurkhitu izan baigintuen han zenbait dizipulu, egon giñen han zazpi egunez; eta hek erraten zioten Paulori zerbait inspirazionez, ez ziohala Jerusalemerat. **5** Zazpi egun hekien buruan partitu giñen eta ethorri zitzaizkigun guziak bere emastekien eta haurrekien hiriaz kanporaiño; belhauriko jarririk, ur basterrean egin ginduen gure othoitza. **6** Eta elkharri adiu erranik, igan giñen gu untzirat, hek berriz bihurtu ziren bere etxetarat. **7** Gure itsasoko biyaia akhabatzeko, Tiretik jautsi giñen Ptolemaidarat, eta anaiak salutarurik egon giñen egun bat hekiekien.

**8** Biharamunean, bada, partiturik ethorri giñen Zesarearat; sarthu ginen Filipe ebanjelistaren etxean, zein baitzen zazpi diakretarik bat, eta egon ginen haren baithan. **9** Zituen hark laur alaba birjina profetisatzen zutenak. **10** Nola gelditu baiginen han zenbait egunez, ethorri izan zen Judeatik profeta bat Agabe zeritzana. **11** Hunek ikusterat ethorri zitzaikunean, hartu izan zuen Pauloren gerrikoa eta, hartaz amarratu ondoan bere oiñak eta eskuak, erran izan zuen: «Huna zer dioen Izpiritu Sainduak: gerriko hunen jabea hunela dute estekatuko Jerusalemen judutarrek eta libratuko jentillen eskuetarat».

**12** Hori aditu ginduenean, jarri ginaizkon othoitzez gu eta lekhu hartako jendeak, arren ez ziohala Jerusalemerat. **13** Orduan ihardetsi zuen Paulok eta erran: «Zeri hari zarete nigar horien egiten eta ene bihotza erdiratzen? Ezen preparatua naiz, ez xoilki amarratua izaterat, baiñan oraino hiltzerat ere Jerusalemen Jesus Jaunaren izena gatik». **14** Eta ikusi ginduenean ezin burutarat eman ginozokela, utzi ginduen erraten gindue- larik: «Egin bedi Jaunaren borondatea».

**15** Zenbait egun horien ondoan, bada, prestatu ginen abiatzerat eta goan ginen Jerusalemerat. **16** Ethorri ziren gurekien Kaesareako zenbait

dizipuluetarik ere, berekien zakharketela Mnason zeritzan bat, Xiprako irlakoa, dizipulu zaharra, zeina baitan behar baiginen ostatatatu. **17** Ethorri giñenean Jerusalemerat, gogo onez errezi bitu gintuzten anaiek. **18** Biharamunean goan zen Paulo Jakobe baitarat gurekien eta bildu izan ziren harat aphez guziak. **19** Besarkatu zituen ondoan, kondatu zarozten xeheren xehe Jainkoak haren eskuz jentillen artean egin izan zituenak.

**20** Hek berriz horiek aditu zituztenean, glorifikatu zuten Jainkoa eta erran zioten Paulori: «Ikusten duzu, anaia, zenbat milla diren judutarretarik sinhetsi dutenak; eta guziak zeloz betheak dire legearentzat. **21** Aditu dute ordean zutaz, Moise utz dezaten irakasten diozutela jentillen artean diren juduei, erraten duzula ezen ez dituztela zirkozidatu behar bere umeak eta ez dutela ohitza zaharren arauera behar ibilli. **22** Zer egin behar da beraz? Alabainan mundu guzia bilduko da, jakinen dute ezen ethorri zarela. **23** Egizu beraz guk erraten darotzuguna: Baditugu hemen laur gizon botu bat egin dutenak. **24** Hek zurekien harturik, purifika zaite hekiekien batean; paga zazu hekientzat behar dena buruak arrasa detzarentzat, eta jakinen dute guziek zutaz aditu dituztenak falsoak direla; aitzitik zeronek ere legea begiratzen duzula. **25** Jentilletarikako sinhetsi dute- nez denaz bezanbatean, eskribatu izan diotegu ordenatzen daroegula begira daitezen idolei ofrendatuak izan diren gauzetarik, odoletik, ithoak izan diren haragitarik eta fornikazionetik».

**26** Orduan Paulok hartu zituen gizon hek berekien eta, biharamunean purifikaturik, hekiekien sarthu zen tenpluan eta deklaratu zuen zenbat egunen buruan konplituko ziteken hekien purifikazionea eta noiz beharko zen ofrenda eman hetarik bat bederarentzat. **27** Zazpi egunak ja iragan hurren zirela, Asiako judutarrek ikusirik hura tenpluan, altzarazi zuten populu guzia eta eman zioten eskua gaiñean heiaigoraz zeudelarik: **28** «Israeldarrak, hel zakizkigute! Hau da gizon lekhu guzietan populuaren, legearen eta tenpluaren kontra predikatzen duena; eta are gehiago ere, jentillak tenplurat sarrarazi baiditu eta profanatu baidu lekhu saindi hau». **29** Ikusi baitzuten ezen Trofime Efesiako hirian harekien eta uste baitzuten tenpluan sararazi izan zuela Paulok.

**30** Alborotatu zen berehala hiri guzia eta bildu zen populutze handi bat; eta harturik Paulo, athera zuten tenplutik kanporat eta berehala zarratu zituzten atheak. **31** Hura hill nahiz zebiltzala, ethorri zitzaizkon berria ematerat kohorteko tribunari nahasia zela Jerusaleme guzia. **32** Eta denbora berean harturik soldaduak eta zenteneroak berekien, goan zen laus-



terka hekienganat; eta hek ikusi zituztenean tribuna eta soldaduak, gelditu ziren Paulo zehatzetik.

**33** Orduan hurbildurik, tribunak hartu zuen eta ordenatu amarra zezatela bi gathez; gero galdegin zuen, hea nor zen eta zer egin zuen. **34** Baiñan jendetze hartan batzu batzuek zeudezen oihuz eta bertzeak bertzeaz. Ikusirik, bada, deusere segurik ezin jakin zezakela, alborotamendua zela kausa, eramanarazi zuen gaztelurat. **35** Eta Paulo ethorri zenean eskalere-tarat, eraman behar izatu zuten soldaduek, populutzearen biolenziagatik.

**36** Jarraiki izan zitzaion populu mulzo handi bat oihuz: «Khen zazu mundutik gizon hori». **37** Gazteluan sartzerakoan Paulok erran zioen tribunari: «Hauzu othe ninteke zuri zerbait erraterat?». Ihardetsi zioen tribunak: «Badakizu grekoz mintzatzen?». **38** Ez zare zu Ejiptoar hura, iragan egun horietan sedizione bat phiztu duzuna eta laur milla gaixtagin deserraturat altxarazi ditutzuna?». **39** Ihardetsi izan zioen Paulok: «Ni segurik judutarra naiz, Tarse Ziliziako hiri aski ezagutukoa eta hango buryes jaioa. Othoitz egiten darotzut, bada: permeti diezadazu mintza nakioen populuari». **40** Permetitu baitzioen tribunak, Paulo eman zen xutik eskalere-tan eta eskuaz kheinaturik populuari ixill zedilla, eta ixiltasun handi bat egin baitzen, mintzatu zitzaian hebrear lengoaiatz, erraten zuelarik:

## XXII. KAP.

**1** «Gizon anaiak eta aitak: adizazue erraterat nohatzuen neure kondu-taz kontu errendatzekotzat». **2** Aditu zutenean, bada, hebrear lengoaiatz mintzo zitzaie-la, ixiltasun are gehiagorekien entzun zuten. **3** Eta hark erraten daroe: «Ni gizon judutarra, Tarse Ziliziakoan sorthua, bainan hiri huntan alxtatua Gamalielen oiñetan eta gure aiten legearen Izpirituz egiazkoan ikhasia, legearentzat kharrez bethea, egun zuek guziak ere zaretan bezala. **4** Persekutatatu izan ditut orai natxeikon bideari zatxeizkonak heriotzeraino, estekatzen nituela eta preso ematen gizonak eta emasteak, **5** aphezen prinzeak eta diren zahar guziek lekhukotasuna errendatzen daro-tedan bezala; hartaraiñokoan bai, non guthunak hekien ganik harturik Damazko anaien ganat goan bainintzen, jende hek preso ekhartzeko handik Jerusalemerat punituak izan zaitezentzat.

**6** Gerthatu zen ordean, bidean nindohala eta Damazerat hurbiltzen hari nintzela, egunaren erdian betbetan zerutik ingura nintzan klartasun handi batek. **7** Eta lurrerat eroririk, aditu izan nuen boz bat erraten zaro-

tana: «Saul, Saul, zergatik persegitzen nauzu?». **8** Nik berriz ihardetsi nioen: «Nor zare zu, Jauna?». Eta erran zarotan: «Ni naiz Jesus Nazarete-hekoa, zuk persegitzen duzuna». **9** Enekiñ zirenek, bada, argia ikusi zuten, ordean niri mintzo zitzaitanaren boza ez zuten aditu. **10** Eta erran nuen: «Zer egiñen dut, Jauna?». Jaunak berriz erran zarotan: «Altxa zaite eta zohaz Damazerat eta han erranen zaizkitzu egin behar ditutzun guziak».

**11** Ordean nola ez bainuen ikusten argi handi hartaz itsutua geldituri-k, ene lagunek eskutik erabilliz ethorri nintzen Damazerat. **12** Bada Ana-nias zeritzan gizon bat, legearen arauera bizi zena eta han ziren judutar guzien aprobazionea zuena, **13** ethorri zitzaitan, eta hurbildurik erran zarotan: «Saul, ene anaia, beha zazu». Eta ordu berean behatu nioen. **14** Gero erran zarotan: «Gure aiten Jainkoak hautetsi izan zaitu haren boron-datea ezagutzeko, Justua ikusteko eta bera mintzatzen aditzeko, **15** ezen lekhukotzat baliatuko zaizko gizon guzien alderat, ikusi eta aditu ditutzun gauzez. **16** Zeren begira zaude, beraz? Altxa zaite eta erreziñi zazu bat-haioa eta garbi zatu zure bekhatuak haren izena deithoraturik».

**17** Gerthatu zitzaitan gero Jerusalemerat bihurtu nintzenean, ten-plantuan othoitzean nindagoela, izpirituzko goramendu bat; **18** eta ikusi izan nuen Jauna, zeñiek erran baitzarotan: «Lauster egizu eta ilkhi zaite fite Jerusalemetik, zeren ez baidute erreziñituko nitaz errendatuko diozuten lekhukotasuna». **19** Ihardetsi nioen: «Jauna, berek dakite ni nintzela zure baitan sinhesten zutenak preso ematen nituena eta sinagogetan azotarazit-zen nituena; **20** eta Esteben zure marthiraren odola isurtzean ere, han nintzela, konsent nintzelarik, eta nik goardatzen nituela haren hiltzen hari zirenen arropak». **21** Eta erran zarotan Jaunak: «Zohaz, ezen igorriko zai-tut hemendik urrun jentilletarat».

**22** Aditzen zuten bada hitz hortaraiñokoan, bainan orduan jarri ziren hegiaroz erraten: «Khen zazu lurraren gainetik gizon hori, ezen ez da zil-hegi bizi dadin». **23** Oihuz eta deihadarrez baitzeudezen, bada, eta bere arrobak arthikitzen eta herrautsa airerat etxatzen hari baitziren, **24** tribu-nak eramanarazi zituen gaztelurat; eta ordenatu zuen azota zezatela eta estira eman ziozatala, jakiteko zer zen kausa hala oihuz baitzeudezen haren kontra.

**25** Ordean amarratu izan zutenean larruz, erran zioen Paulok han zegokon zenteneroari: «Zilhegi zaitzue gizon bat Erromako burjes dena eta kondenatua ez dena azotatzea?». **26** Hori aditurik, zenteneroa goan



zen tribuna ganat eta erran zioen: «Zer egiterat zohaz?, gizon hau ezen Erromako burjesa da». 27 Ethorri zen bada tribuna eta erran zioen Paulori: «Erran diezadazu: Erromako burjes zare?». Ihardetsi zioen Paulok: «Bai eki». 28 Erran zioen berriz tribunak: «Nik asko dirutan erosi dut burjesia hori». «Nik ordean», ihardetsi zioen Paulok, «sortzez dut». 29 Ordu berean utzi izan zuten estira eman behar ziotenek, eta tribuna beldurtu ere zen, jakin zuenean Erromako burjes zela, zeren amarrarazi izan zuen.

30 Biharamunean, bada, nahiz hobeki jakin zeren gatik akusatzen othe zuten judutarrek, lexarazi zuen bere gathetarik eta ordenatu zuen bil zitezen aphezak eta batzar guzia; eta erakharririk Paulo, presentatu zuen hekien aitziñean.

### XXIII. KAP.

1 Behaturik bada batzarrerat Paulok, erran zuen: «Ene anaiak, ni konzienzia on baten erregela guzien arauera ibilli izan naiz Jainkoaren aitzinean egun arterainokoan». 2 Horren gainean Ananias aphezen prinzeak manatu zituen bere aldean zituenak, jo zezatela mazelakoz. 3 Orduan Paulok erran izan zioen: «Zeroni jonen zaitu Jainkoak, pareta xurritua. Jarria zaude ni jujeatzeko legearen arauera, eta legearen kontra duzu manatzen jo nazatela?». 4 Han zirenek erran zioten: «Jainkoaren aphez handiari gaixkiak diotzatzu erraten?». 5 Ihardetsi zaroen bada Paulok: «Ene anaiak, ez neakien aphez handia zela, eskribatua da ezen: Kure populuaeren prinzeari gaixkirik ez diozu erranen».

6 Baitzeakien bada Paulok han zirenatarik parte bat saduzearretarik zela eta farisauetarik bertze bat, jarri zen oihuz batzarrean: «Ene anaiak, ni Farisaua naiz eta Farisauen umea; hillen esparantzaren eta erresurrekzionearen ariaz naiz kondenatua». Hitz horiek erran zituenekotz, farisauak eta saduzearrak jarri ziren debadioan eta hautsi zen biltzarra. 8 Saduzearrek ezen erraten dute ez dela ez erresurrekzionerik, ez aineuerurik, ez izpiriturik; farisauak ordean sinhesten dute bata, bai eta bertzea. 9 Horren gainean egin zen habarrots handi bat eta altxaturik farisauetarik zenbait, lehiatzen ziren ziotelarik: «Ez dugu aurkhitzen deusere gaixtorik gizon hunen baitan. Eta zer dakigu izpiritu bat edo aingeru bat mintzatu bazaio ere? 10 Eta debadioa berotuz baiziohan, tribunak beldurrez ezen Paulo zathika zezaten, manatu zituen soldaduak jauts zitezela eta khen zezatela hekien artetik eta eraman gaztelurat.

11 Ondoko gauetan agertu zitaion Jauna Paulori eta erran zioen: «Zaude fermu, ezen Jerusalem lekhukotasuna errendatu darotazu bezala, behar darotazu oraiño errendatu Erroman ere». 12 Eguna ethorri zenean, bildu izan ziren judutarretarik zenbait eta juramentu egin zuten madarizionerekien, ez zutela janen ez edanen, non ez zuten Paulo hiltzen.

13 Ziren bada berrogoi gizon baino gehiago konjurazione hori egin zutenak. 14 Eta goan ziren aphezen prinzeen eta kargudunen ganat eta erran zioten: «Juramentu eginak gare madarizonearen azpian, deusere ez jateko, non ez dugun Paulo hiltzen. 15 Adiaraz diozazue bada tribunari batzarraren partez, erakhar dezala Paulo zuen aitzinerat, hartaz zenbait hobeki jakin nahi bazindute bezala, eta gu prestatuak gaitezke hura hurbilduko den baiño lehen hiltzeko».

16 Ordean aditurik Pauloren arrebaren semeak konjurazione hori, goan zen gaztelurat eta abisatu zuen Paulo. 17 Paulok berriz erakharririk zenteneroetarik bat, erran zioen: «Gizon gaste hau eramazua tribuna ganat, zenbait du ezen hari errateko». 18 Hark bada harturik berekien gizon gaste hura, eraman zuen tribuna ganat, eta erran zioen: «Paulo presonierak othoiztu nau gizon gazte hau zure ganat ekhartzaz, zenbait duela zuri errateko». 19 Harturik bada tribunak eskutik, eraman zuen aparterat eta galdetu zioen: «Zer duzu niri errateko?». 20 Hark berriz erran zioen: «Judutarrak elkhar hartuak dire zu othoizteko, biharko egunean erakhar diozozuten Paulo batzarrerat, haren egitekoaz hobeki informatu nahi balute bezala. 21 Baiñan ez detzatzula sinhets, ezen zelatan dagozko hetarik berrogoi gizon baiño gehiago eta juramentu egiñak ere dire mada-rizonearen azpian, ez dutela janen ez edanen hura hil dezaketen artean; eta oraidanik prestatuak daude zuk hori agin diozozuten begira». 22 Tribunak bada igorri zuen gizon gaztea debekaturik nihori ez ziozala erran gauza horietaz jakintsun egin zuela.

23 Eta erakharririk bi zentenero, erran zaroen: «Idukatzue prest gauazko hirugarren orena danik berrehun soldadu, hirur hogoi eta hamar zamaldun eta berrehun lantzadun Zesarearaiño goateko. 24 Atxetkatzue halaber abreak prest, Paulo iganarazitzeke eta salborik eramateko Felix presidenta ganat». 25 Beldurtzen ezen arrapa zezaten judutarrek eta hill zezaten eta bera ondoan gaixtoki akusatua izan zedin, dirua hartu izan balu bezala. 26 Denbora berean eskribatu zuen buthun bat hitz hautan: «Klaudio Lisiak Felix gobernadore guziz exzelentari, agur. 27 Gizon hau juduek sesitua eta hiltzen zarabillatena, lauster eginik soldaduekien khen-



du izan daroet, ezaguturik Romarra dela. **28** Eta jakin nahiz zer krimaz akusatzen zuten, eramanarazi dut hekien batzarrerat; **29** baiñan ediren izan dut hekien legeko kestione batzuen gaiñean zela akusatua eta deuse-re ez zela hunen baita, heriotzea ez eta ere presondegia merezi zuenik. **30** Eta nola jakintsun izan bainaiz preparatuak zirela hau hill nahiz, igorri dut zureganat hunen akusatzaillei dohazela zure aitzinean bere arrozoinak erraterat».

**31** Soldaduek, bada, manua zuten bezala harturik berekien Paulo, eraman zuten gauaz Antipatridarat. **32** Eta biharamunean utzirik zamaldunak harekien goateko, bihurtu ziren gaztelurat. **33** Zamaldunek, ethorri zirenean Kaesarearat, errendatu zioten guthuna gobernadoreari eta presentatu zioten Paulo. **34** Gobernadoreak bada buthuna irakurri eta, galdegin zuen zein probinziatakoa zen Paulo, eta jakin zuenean Ziliziakoa zela, **35** erran zioen: «Adituko zaitut zure akusatzailleak ethorri ditezkenean». Eta ordena eman zuen goarda zezatela Herodesen pretorioan.

#### XXIV. KAP.

**1** Bortz egunen buruan bada ethorri izan zen Ananias, aphezen prin-zeza, zenbait kargudunekien eta Tertulio zeritzan orator batekien, zeñak agertu baitziren gobernadorearen aitzinean Pauloren kontra. **2** Paulo erakharri zutenean, hasi zen Tertulio haren akusatzen, erraten zuelarik: «Nola bake handi batean bizi baigare zure bidez eta desordenu hainitz gibela-tzen baiditu zure abisamenduak, **3** bethi eta lekhu guzietan dakharkegu horren ezagutza, Felix guziz exzelenta, eta hortaz esker suerte guziak darozkitzugu. **4** Luzeroki ordean iduk ez zaitzadan, adi zazu, othoi, zure ontasun ardurakoarekien laburki erraterat goazkitzuna. **5** Aurkhitu izan dugu gizon izurri hau, mundu guzian diren judutar guziei truble ematen daroena eta Nazarearren sekta zoratuaren autora dena, **6** zeñia tenplua profanaterat ere entseiatu izan baida; eta atzeman dugunean, nahi izatu dugu gure legearen arauera jujeatu. **7** Ethorririk, ordean, Lisias tribunak khendu izan daroku eskuetarik bortxa handirekien, **8** eta ordenatu izan du hunen akusatzailleak dathozela zure aitzinerat. Zeronek examinaturik bada, jakintsun egin ahal zaitezke guk akusatzen dugun gauza horietaz». **9** Judutarrek ere bere aldetik erran zioten horiek hala zirela.

**10** Baiñan ihardetsi izan zuen Paulok, kheinu eginik gobernadoreak mintza zedillala: «Nola baidakit duela hainitz urthe nazione hunen juje

zarela, fidanzia gehiagorekien jarriko naiz zure aitzinean neure buruaren xuritzeko. **11** Jakin ahal dezakezun gauza da ezen, ez duela hamabi egun baino gehiago ethorri izan naizela Jerusalematar Jainkoa adoraterat. **12** Eta ez naute aurkhitu ez ihardukitzen tenpluan nihorekien eta ez jendeen bildumaten sinagogetan **13** edo hirian; eta ezin frogatuko dute orai ni akusatzen nauten gauzetarik batere. **14** Hauxe bai aithortuko darotzut, horiek heresia deitzen duten sekta haren arauera zerbitzaten dudala ene Aita eta ene Jainkoa, sinhesten ditudalarik legean eta profetetan eskribatuak diren guziak; **15** esparantza dudalarik Jainkoa baitan, horiek bere ere idurikitzen duten bezala, biztuko direla egun batez gizon guziak, onak eta gaixtoak. **16** Horri dagokala naiz lehiatzen konzientzia bethi garbi izaterat Jainkoaren eta bai gizonen ere aitzinean. **17** Hainitz urtheren buruan, bada, ethorri izan naiz neure nazioneko jendeei amoinak egiterat, eta neure ofrendak eta botuak bihurtzerat Jainkoari. **18** Hortan hari naizela, aurkhitu izan naute tenpluan garbitua; ez ordean jendetzerekien, ez habarrotsekien. **19** Bainan Asiatikako judutar batzu dire, zeñak agertu behar baitzuketen zure aitzinean eta akusatzaile izan, baldin deusik bazuten ene kontra errateko. **20** Edo ezberen, hauk berek erran bezate hea aurkhitu duten gaixtakeriarik ene baitan, hemen naizenaz geroztik justizian, **21** non ez dena hitz bakhar bau, gora aski erran dudana horien artean berean: Hillen piztea daiteke kausa, zuek ni egun kondenatzen bainazue».

**22** Horren gaiñean Felixek baitzeakien hagitz ungi zer zen sekta hori, igorri zituen bertze aldi batetaraño, erraten zuelarik: «Lisias tribuna dat-horkenean adituko zaituztet». **23** Ordenatu zioen zentenero bati goarda zezala Paulo eta utz zeatela pausuan; eta ez zezatela debeka harenetarik nihor hari zerbitzu egitetik.

**24** Zenbait egunen buruan, bada, ethorririk Felix Drusilla bere emastearekien, zein baitzen judua, erakharri izan zuen Paulo eta aditu izan zuen mintzaten Jesukristo baithango fedez. **25** Nola ordean mintzo baitzen Paulo justutasunaz, garbitasunaz eta ethortzeko dagoen jujeamenduaz, ikharatu zen Felix eta erran zioen: «Aski da hori oraikotzat; zohaz; denbora dudanean erakharriko zaitut». **26** Esparantza ere bazuen halaber, Paulok zerbait diru emanen ziola; eta horri zagokala, maiz erakharririk mintzo zen harekien. **27** Bi urtheren buruan, bada, Felixek izan zuen ondoko Portius Festus; eta nahi baitzaroen atsegin egin juduei, utzi izan zuen Paulo preso.



## XXV. KAP.

1 Festus bada ethorri zenean probinziarat, goan zen hirur egunen buruan Zesareatik Jerusalemerat. 2 Eta goan zitaizkon aphezen prinzeak eta judutarretarik lehenbiziko zirenak Pauloren kontra mintzatzerat, eta othoitzen egin zioten, 3 graziaz ziotela galdetzen, ordena eman zezan Paulo erakhartzeko Jerusalemerat, zelatan eman baitzituzten bidean hura hiltzeko. 4 Festok ordean ihardetsi zaroen Paulo preso zela Zesarean eta bera harako zela lauster: 5 «Zuen artean autoritate dutenak, bada», diotsote, «bethoz harat enekien eta gizon hura kriminel baldin bada, akusa bezate». 6 Egon ondoan, bada, Jerusalemen zortzi edo hamar egun gehienerat, ethorri zen Zesarearat; eta biharamunean jarri zen tribunalean eta manatu zuen erakhar zezatela Paulo. 7 Erakharri izan zutenean, inguratu zuten Jerusalemetik ethorri izan ziren juduek, hainitz krima handiz akusatzen zutelarik, zeinez ezin eman baitzezaketen frogarik, 8 Paulok erreputatzat erraten zuelarik: «Ez dut ez juduen legearen kontra, ez tenpluaren kontra eta ez Zesaren kontra nik deusik egin».

9 Festok, bada, nahi baitzaroen atsegin egin judutarrei, erran izan zioen Paulori: «Nahi duzu goan Jerusalemerat eta han juleatua izan ene aitzinean?». 10 Erran zioen berriz Paulok: «Zesaren tribunalean nago, han behar dut izan juleatua. Judutarrei bidegaberik ez daroet egin, zeronek ungi dakizun bezala. 11 Ezen baldinetariak egin badaroet bidegaberik edo egin badut deusere heriotzea merezi duenik, ez dut errefusatzen hiltzea; baldin ordean deusere ez bada horiek ni akusatzen nautenatarik, nihork ezin eman nazake horien eskuetarat. Apel egiten dut Zesar ganat». 12 Orduan Festok deliberaturik batzarrarekien, ihardetsi zuen: «Zesar ganat apel egin duzu, goanen zare Zesar ganat».

13 Handik zenbait egunen buruan errege Agripa eta Berenize ethorri izan ziren Zesarearat Festoren salutatzerat. 14 Eta nola hainitz egunez han egon baitziren, Festok aipatu zioen erregeri Pauloren egitekoaz, erraten zioela ezen: «Gizon bat bada hemen, Felixek preso utzia; 15 zeinari dagokala Jerusalemen nintzenean ethorri baitzitzaizkidan aphezen prinzeak eta juduen kargudunak horren kondenazionea galdetzen zaroteldala. 16 Ordean ihardetsi nareon, ez dela Romarren kostuma gizon bat kondenatzekoa, non ez dituen lehenago akusatua denak bere akusatzailleak aitzinean izaten eta non ez zaioen ematen libertatea bere burua garbitzeko akusatzen duten krimetarik. 17 Hunat ethorri zirenean, bada, luza-menik batere gabe, biharamunean jarririk tribunalean, ordena eman nuen

gizon hori erakhar zezatela. 18 Akusatzailleak haren aitzinerat zirenean, ez zuten kargatu nik uste nuen krimetarik batez ere. 19 Baiñan kestione batzu zituzten haren kontra bere superstizionearen gainean, eta Jesus hill ohi zen baten gainean, zeia sustengatzen baitzuen Paulok bizi zela. 20 Ez bainakien, bada, nik zer jujea horlako kestione baten gainean, galdegin nioen hea nahi zuen goan Jerusalemerat, han juleatua izaterat gauza horietaz. 21 Bainan Paulok apel egin izan baidu horren egitekoa erresalba dadintzat Augustoren ezagutzakotz, ordenatu izan dut goarda dezatela Zesar ganat igor dezakedan artean». 22 Agripak orduan erran zioen Festori: «Neroni ere gizon hori aditu nahia nintzen». «Bihar adituko duzu», diotso hark.

23 Biharamunean, bada, ethorri baitziren Agripa eta Berenize ostendade handirekien eta sarthu audientziako lekhuan tribunekien eta hiriko prinzipalekien, erakharri izan zen Paulo Festoren ordenaz. 24 Eta erran zuen Festok: «Errege Agripa eta hemen gurekien zaretan guziak. Ikusten duzue gizon hori, zeinaren kontra juduen populu guzia ethorri izan baitzait Jerusalemen errekerimenduz eta oihuz, ez zela behar utzi hori gehiago bizirik. 25 Nik berriz dut aurkhitu, heriotzea merezi duen deusik ez duela egin hunek; bainan nola apel egin baidu Augustoren ganat, deliberratu dut haren ganat igortzerat. 26 Ordean ez dut deusere gerthurik huntuaz eskribatzeko enperadoreari; eta horren gatik erakharri dut zuen aitzinerat eta beregainki zure aitzinerat, errege Agripa, interrogatu ondoan izan dezadantzat zer eskriba. 27 Arrozoin gabeko gauza iduritzen zait ezen, igortzea presonier bat markatu gabe zertaz den akusatua».

## XXVI. KAP.

1 Agripak orduan erran zioen Paulori: «Permititzen zaitzu mintzatea zure buruaren alde». Horren gainean Paulo, eskua hedaturik, hasi zen bere manaiuz arrozoin emateko erraten: 2 «Errege Agripa, dohatsu dagokat neure burua, zeren egun zure aitzinean behar naizen defendatu judutarrek iratxekitzen dauzkidaten gauzen gainean. 3 Beregainki, zeren jakintsun baitzare guziez, juduen artean diren kostumez eta bai kestioneez; hargatik zaitut errekeritzen, arren, adi nazazun pasientki.

4 Alabaiñan judutar guziek badakite ene bizitzea, gastedasunetik ene nazionearen erdian, Jerusalemen, eraman izan dudana. 5 Badakite ezen aspaldidanik, baldin nahi badute egia erran, bizi izan naizela farisau, gure





erreljioneko sekta seguren haren arauera. **6** Eta egun naiz obligatua jujeen aitzinean agertzerat, zeren dudan esparantza gure aitei Jainkoaz egin izan zaien agintzan; **7** zeinetarat gure hamabi leinuek, gau eta egun Jainkoa zerbitzatzen dutela, esparantza baidute helduko direla. Esparantza horren ariaz, errege, naute juduek akusatzen. **8** Zer bada? Ezin sinhetsizko gauza batentzat dadukazue zuen artean Jainkoak hillak bizten dituela? **9** Nik ere alabaiñan uste izan nuen obligatua nintzela Jesus Nazarethekoaren izenaren kontra hainitz gauza egiterat; **10** eta egin izan ere dut Jerusalem, eta sainduetarik hainitz presondegian eman izan ditut, aphezen prinzeen ganik bothere errezibiturik eta hek hillarazitzen zituztenean konsent nintzen. **11** Asko aldiz ere sinagoga guzietan puniaratzitzen nituela, bortxatzen nituen blasfematzerat; eta geroago eta gehiago asperturik hekien kontra, persegitzen nituen atze herritaraiño.

**12** Egun batez, bada, nindohala Damaszerat aphezen prinzeen bothere eta mezurekien, **13** egunaren erdian bidean ikusi izan nuen, errege, zerutik heldu zen argi bat distiantagoa iguzkiarena baiño, zeïnek inguratu baininduen, eta bai enekien zirenak ere. **14** Eta guziak erori baigïnen lurre-rat, aditu izan nuen boz bat erraten zarotala hebrear lengoaiatz: «Saul, Saul, zergatik persekututzen nauzu? Dorphe zaitzu akhuilloaren kontra ostikoka haritzea». **15** Orduan erran nioen: «Nor zare, Jauna?». Jaunak berriz erran zarotan: «Ni naiz Jesus, zuk persekututzen duzuna. **16** Baiñan altxa zaite eta zaude xutik; agertu natzaitzu ezen, zu egiteko ministre eta lekhuko ikusi dituzun gauzez eta berriz ere agerturik erakutsiko darozkitzudanez; **17** atheratzen zaitudalarik populu horren eskuetarik eta bai jentilletarik, zeinen ganat orai baitzaitut igortzen, **18** hei begia idekitzerat, itzul daitezentzat ilhunbetarik argirat eta Satanen botheretik Jainkoa ganat eta errezibi dezatentzat bekhatuen barkhamendua eta sainduen zortha ene baitan izanen duten fedezaz.

**19** Errege Agripa, ez naiz sinhets gogor izan zeruko bisionarentzat. **20** Aitzitik Damaszekoei lehenik eta gero Jerusalem eta Judea guzian zirenei eta jentillei ere bai, predikatu izan daroet egin zezatela penitentzia, eta itzul daitela Jainkoaganat, penitentziatzko obra behar bezalakoak eginenez. **21** Horren gatik judutarrak izan dire entseiatu, tenpluan nintzela harturik, ene hiltzerat. **22** Baiñan Jainkoak lagundurik iraun dut egungo eguneraiño, lekhukotasuna bihurtzen daroedalarik xiperrei eta handiei, eta deusere erraten ez dudala bertzerik, profetek eta Moisek ethortzeko zirela aitzinetik erran dutenik baizen. **23** Hala nola heriotzea pairatuko zuela

Kristok, hilletarik biztuetako lehena izanen zela eta populu huni eta jentillei irakatsiko zaroela argia».

**24** Gauza horien erraten hari zela bere burua garbitzeko, Festok oihu goraz erran zioen: «Zoratu zare, Paulo; zure jakintasun handik errotu hurren zaitu». **25** Paulok ihardetsi zioen: «Ez naiz zoratu, Festus guziz Exzelenta; aitzitik egiazko eta adimendu onezko hitzak ditut erraten; **26** jakintsun da ezen hautaz errege eta libroki mintzo naiz horren aitzïnean; uste baidut ezen batere horietarik ez dela horrek ez dakienik, ezen deusere horietarik ez da egin estalgunean. **27** Errege Agripa, sinhesten duzu profetetan? Badakit sinhesten ditutzula». **28** Agripak bada erran zioen Paulori: «Hurren ekhartzen nauzu giristino egiterat». **29** Paulok berriz erran zioen hari: «Desiratzen nuke Jainkoa baitan, bai hurrentsu eta bai zinez, ez xoilki zu, baiñan oraiño ni aditzen nauten guziak ere egundantik izan zintezten ni naizen bezalako, gathe hautaz landan».

**30** Orduan altxatu ziren errege eta gobernadorea, Berenize eta hekiekien jarriak zirenak, **31** eta aparterat goanik, mintzatu ziren elkharrekiek eta erran zuten: «Deusere ez heriotzea eta ez presondegia merezi duenik ez du egin gizon hunek». **32** Agripak berriz erran zioen Festori: «Utz ahal ziteken goaterat gizon hau libro, baldin apel egin ez balu Kaesar ganat».

## XXVII. KAP.

**1** Ordena eman zenean, bada, goanen zela itsasoz Paulo Italiarat eta emanen zela bertze presonierekien batean Julio zeritzan zentenero Augusto bandako baten eskuetan, **2** igan giñen Adrumetako untzi batetarat eta aingura altxatu ginduen Asiako leihorren arraso gure arruta haste-ko, gurekien ginduelarik Aristarke Mazedoniarra, Thesalonikakoa.

**3** Biharamunean bada arribatu ginen Sidonen eta Juliok honeski tratatzen baitzuen Paulo, permetitu zioen bere adiskidetarat goan zedin eta bere buruaz artha izan zezan. **4** Handik aingura altxaturik, goan giñen Xiprako irlaren arraso, zeren haizeak kontra baigintuen. **5** Eta Zilizziako eta Panfiliako itsasoa iraganik, ethorri giñen Listrarat, zein baida Liziako hiri bat. **6** Han aurkhiturik zenteneroak untzi bat Alexandriakoa Italiarat ziohana, eman gintuen hartan. **7** Nola hainitz egunez nekhez baiginohazten eta doi doia ere irabazi baiginduen Gnida gainerat haizeak debekatzenez, ethorri ginen Kretako irlaren arraso Salmongo alderat. **8** Eta doi



doia kosta arraso goanez, ethorri ginen Portu Onetako daritzan lekhu batetarat, zeinaren aldean baitzen Thalasko hiria.

**9** Denbora handia iragan ondoan, bada, ja hirrisku baitzen itsasoan ibiltzea, zeren orduko iragana ere baitzen barureko denbora, konsolatzen zituen Paulok, **10** erraten zaroelarik: «Gizonak, ikusten dut itsasoan ibiltzea nekhetso izaterat dohakula eta perill handitako, ez xoiki kargarentzat eta untxiarentzat, baiñan oraiño gure bizientzat ere». **11** Zenteneroak ordean sinhestenago zituen pillotua eta maistrua ezen ez Paulok erraten zituenak. **12** Hala, ez baitzen ere portua propi negua han iragateko, gehienak abisuko izan ziren partitzeko handik, agian nolazbait irabaz ahal zezaketelakoan Fenizerat, negua han iragateko; hura da portu bat Kretakoa, ouesterat eta nordouesterat dagoena.

**13** Altxatu baitzen bada hegoa guti bat, ustez ezen gogo zutena ardie-tsiko zuten, egin zuten bela Asondik eta abiatu ziren Kretaren aldetsutik. **14** Ordean handik lauster altxatu zen athetik haize erremulia bat, nord-este daritzana. **15** Eta nola untzia eramana baitzen ezin atxikiz haizearen kontra, baginohazen haizeek ginaramatzaten bezala. **16** Etxatuak izan giñen Kauda daritzan irla batetarat, zeinñetan nekhez gure batelaren jabe izan ahal baiginen. **17** Hura kobratu ginuenean, laguntza guziez baliatu ziren eta untzia beheretik altesatu zuten, beldurrez Banku Harzetarat etxatuak izan behar ginuden; eta berga nausia beheraturik, jarri zitzaizkon segi itsasoari. **18** Tenpesta handi batez etxatuak baigiñen, bada, biharamu-nean arthiki zuten untziko karga itsasorat. **19** Hirur garren egunean berriz arthiki zituzten bere eskuz untziko aparailuak. **20** Ez iguzkia, ez izarrik ez baitzen ageri hainitz egun hautan eta tenpesta hainitz baitzen handia, ez ginuden gehiago esparantzarik batere salbatzeko.

**21** Eta nola denbora ere baitzuen nihork ez zuela jan, eman zen Paulo hekien erdian eta erran zaroen: «Alabaiñan, gizonak, sinhetsi behar ninduzuen ni eta ez partitu Kretatik, esparñatuko baiginuten nekhe hauk eta kalte hau. **22** Orai ere konseillatzen zaituztet bihotz on izaterat, zeren zuetarik nihor ez baida galduko, untzia baizen. **23** Agertu izan zait ezen gaur gauaz aingeru bat Jainkoarena, zeinena bainaiz ni ere eta zeinñ zerbiztatzen baidut, **24** eta erran darot: Ez duzula beldurrik, Paulo; Kaesari presentatu beharra zare, eta horra, eman darozkitzu Jainkoak untzian zurekien diren guziak. **25** Hargatik beraz kuraie egizue, fida naiz ezen Jainkoak baitan, nola erran izan baitzait, eta hala izanen dela. **26** Baiñan irla halako batetarat jo beharrak gare».

**27** Ethorri zenean bada hamalaurgarren gaua, harat hunat ginabil-tzala Adriako itsasoan, gau erditan iduritu zitzaien marinelei zenbait leihorretarik hurbill zirela. **28** Eta zunda harturik, aurkhitu zituzten hogoi brazak; eta haratxeago berriz aurkhitu zituzten hamabortz brazak. **29** Orduan beldurrez lekhu gaitzetan jo ginezan, etxatu zituzten popatik laur aingurak, eguna ethor zedin desira handian zaudezelarik. **30** Bizkitartean mariñelak untxitik ihesi goan nahiz baitzebiltzan, batela itsasorat erriaturik, alegia hek aingurak branka aldetik urrunago hedatu nahi, **31** erran zaroen Paulok zenteneroari eta soldaduei: «Baldin hauk untzian egoten ez badire, zuek ezin salba zaitezket». **32** Orduan pikatu zituzten soldaduek batelaren amarrak eta utzi zuten erortzerat. **33** Argitzen hasten zela, Paulok othoiztu zituen guziak jan zezatela zerbait, erraten zaroelarik: «Hamalaurgarren eguna da» egun, deuseren jan gabe eta hartu gabe zeudeztela zer ethor begira. **34** Hargatik beraz othoitz egiten darotzuet jateko zerbait har dezazuen zuten bizia salbatzea gatik ere, ezen zuetarik baten ere buruko ille bat ez da galduko».

**35** Hori erran ondoan, hartu zuten ogia, eskerrak Jainkoari errendatu ziotzan guzien aitzinñean eta hautsirik hasi zen jaten. **36** Orduan guziek kuraie harturik, jan zuten hek ere. **37** Giñen bada untzian guziz berrehun eta hirur hogoi eta hamasei arima. **38** Jan zutenean aski arindu zuten untzia, bihia arthikirik itsasorat.

**39** Eguna ethorri zenean, bada, ez zuten ezagutu leihorra; baiñan ohartu zitzaizkon senoa bati, zeinñek baitzuen kostatxo bat, eta gogo zuten untziari han jo arazitzeko, ahal bazezaten. **40** Eta aingurak altxaturik, jarri zitzaizkon segi itsasoari; denbora berean largatu zituzten lemen amarrak eta, artimoiña hizaturik haizeaz baliatzeko, abiatu ziren kostarat. **41** Baiñan nola jo baiginduen itsasoak bi aldetarik ematen zioen leihor punta batean, enkaillarazi zuten han untzia. Branka bada gelditu zen han finkatua, higitzan ez zela; popa ordean hausten zioten itsaso kolpeek. **42** Soldaduen xedea izan zen bada presonieren hiltzekoa, beldurrez ezen zenbait igeri salbaturik ziohan ihesi.

**43** Zenteneroak ordean konserbatu nahi baitzuen Paulo, debekatu izan zituen hori egitetik eta ordenatu izan zuten, igeri ahal zioazkenak eman zitezela urerat lehenik eta salba zitezela leihorretatik irabazirik. **44** Bertzeak berriz eman ziren batzu taula gaiñetan eta bertze batzu untzitikako pusken gainean; eta manera hortan gertatu zen guziek irabaz zezaten leihorretatik.



## XXVIII. KAP.

1 Salbatu izan giñen orduan, ezagutu ginduen irla hura Malta deitzen zela, eta barbaroek humanitate hainitz egin zarokuten, 2 ezen sua bizturik heldu zitzaikun uriagatik eta egiten zuen hotzagatik, hartu ginituzten giñen guziak bere etxetarat.

3 Bildu baitzuen bada Paulok zenbait besatra xirmendu eta surat eman, bipera bat beroak ilkhi arazirik lothu zitzaion eskutik. 4 Ikusi izan zutenean barbaroek bestia dilindan haren eskutik, erran zaroen elkharri: «Segurki gizon hiltzaille zenbait daiteke gizon bau; itsasotik eskapatu denean ere Jainkoaren bendekuak ez baidu utzi nahi bizitzerat». 5 Bizkitartean hark iharrosirik bestia surat, gaitxik batere ez zuen izatu. 6 Bainan hek uste zuten hauntzerat ziohala eta berehala eroriko zela hillgogorra. Hori iguriki ondoan denbora luzez, ikusi zutenean gaitxik batere ez zitzaioela heldu, sentimenduz ganbiaturik erran zuten Jainkoa zela hura.

7 Lekhu hartan, bada, ziren lur batzu irlako prinzipal Publius zeri-tzan batenak, zeñiek gu errezibiturik bere etxerat, hirur egunez hagitz ungi tratatu baigintuen. 8 Aurkhitu izan zen, bada, Publioren aita ohatua zatzala hel gaitzekien eta sabeldasunarekien: goan zitzaion Paulo ikusterrat, eta othoitzak eginik eta eskuak haren gaiñean pausaturik, sendatu izan zuen. 9 Mirakuillu horren ondoan irla hartako eri ziren guziak heldu ziren haren ganat eta sendatzen ziren. 10 Ohore handiz ohoratu ere ginituzten eta enbargatzerakoan behar ginduen guzia untzirat ekharri zarokuten.

11 Hirur ilhabeteren buruan, bada, egin ginduen bela Alexandriako untzi batean, zeinek hiberniatu izan baitzuen irla hartan eta entseinatatz baitzuen Kastoren eta Polux-en figura. 12 Eta arribaturik Sirakusarat, egon giñen han hirur egunez. 13 Handik leihorraren arraso giñohazela, ethorri giñen Rhijerat eta, egun baten buruan sarthurik hegoa, bigarren egunean arribatu ginen Puzolerat. 14 Han aurkhiturik gure anaietarik, othoiztu ginituzten egoteaz zazpi bat egunez hekiekien, eta ondoan abiatu giñen Romarat. 15 Hango gure anaiek jakin zutenean, ilkhi zitzaizkigun biderat Apiaren merkaturaiño eta Hirur Ostalerietaraiño; eta ikusi izan zituenean Paulok, Jainkoari eskerrak errendatu ziotzan eta hartu zuen animo. 16 Ethorri ginenean bada Romarat, permititu izan zitzaion Paulori beregin egotea hura goardatuko zuen soldadu batekien.

17 Hirur egunen buruan erakharri izan zituen juduetarik prinzipale-nak eta bildu izan zirenean erran zaroen: «Ene anaiek, deusere egin ez dudalarik populuaren kontra eta ez gure aiten hazduren kontra, preso hartua izan naiz Jerusalem eta libratua Romarren eskuetarat; 18 zeñiek examinatu izan nauten ondoan, nahi izan bainaute utzi libro, zeren ez baitzen ene baithan hobenik heriotzea merezi zuenik. 19 Bainan judutarrak oposaturik, ezinbertzez apel egin izan dut Kaesarganat, ez ene nazioneko jendeak deusetan akusatzeko xederik izanez. 20 Horri dagokala deithu izan zaituztet zuek ikusi nahiz eta zuekien mintzatu nahiz; Israelek esparantza duenaren ariaz naiz gathe huntaz estekatua».

21 Hek berriz ihardetsi izan zioten: «Guk buthunik ez dugu izatu juduetarik zure ariaz eta gure anaietarik hunat ethorri denek batek ere ez daroku batere aiphatu zutaz gaixkirik. 22 Baiñan nahi ginduke zeronen ganik aditu zer diren zure sentimenduak, ezen sekta hortaz denaz bezan-batean, jakintsun gare lekhu guzietan kontra egiten zaiola».

23 Exleitu ondoan bada eguna, ethorri izan zitzaizkon hainitz bere ostaturat, eta predikatu zaroen Jainkoaren erresumaz frogak ekhartzen zaroztelarik, eta Jesusi behatzen zaizkon gauzak Moiseren legeaz eta profetez frogatzen ziotzatala goizetik arratseraiño. 24 Zenbaitek sinhetsi izan zituzten hark erraten zituena; bertzeek ordean ez zituzten sinhetsi. 25 Eta elkharren artean ez akort izanez baitzioazen, Paulok erran zaroen hitz batez: «Ala arrozoin handirekien mintzatu izan baitzaie Izpiritu Saindua Isaiaz profetaren ahoz gure aitei, 26 erran izan duenean: Zohazko populu horri eta errozute: Entzutez entzunen duzue eta ez duzue adituko; ikustez ikusiko duzue eta ez zaizkote ohartuko. 27 Gizendua da ezen populu hunen bihotza; beharriak gor dituzte eta begiak zarratu dituzte, beldurrez ezen begiez ikus dezaten, beharriez entzun dezaten eta bihotzez konpreni dezaten, eta beldurrez konberti daitezen eta senda detzadan. 28 Jakin zazue, bada, jentillei igortzen zaiela Jainkoaganikako salbamendu hau eta hek adituko dutela».

29 Horiek erran zituenean, ilkhi ziren juduak bere artean hagitz zihardukatela. 30 Paulo berriz egon zen bi urthebethez berak alokaturikako etxe batean, zeinetan errezibitzen baitzituen ikusterat goaten zitzaizkon guziak, 31 predikatzen zuelarik Jainkoaren Erresuma eta irakasten zituela Jesukristo Jaunaz diren guziak libertate guzirekien eta nihoren debekurik gabe.



## JONDONI PAULO APOSTOLUAREN GUTHUNA ROMARREI

### I. KAP.

**1** Paulok, Jesukristoren zerbitzariak, Apostoluzat dohatua eta berezia izan denak predikatzekotzat Jainkoaren Ebanjelioa, **2** zeina baitzuen lehenago agindu bere profetez Eskritura Sainduetan **3** bere Semearen ariaz, zein sorthu baitzaio Dabiden arrazatik haragiaren arauera, **4** zein predestinatua izan baida Jainkoaren Seme izateko botheretsuki saindutasunezko Izpirituaeren arauera, Jesukristo gure Jauna hilletarik bizteaz, **5** zeina ganik baidugu errezibitu grazia eta apostolutasuna, obedi dakioentzat fedeari haren izenaren ariaz nazione guzien artean, **6** zeinetarik baitzarete zuek ere, Jesukristorenak izateko deithuak zaretenak, **7** Roman zareten guziei, Jainkoaren maiteei, saindu izaterat deithuei. Grazia dela zuekien eta bakea Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren partez.

**8** Lehenik bada eskerrak diotzat bihurtzen ene Jainkoari Jesukristoz zuen guzien gatik, zeren zuen fedez mintzo diren mundu guzian. **9** Lekuko dut ezen Jainkoa, zeina zerbitzatzan baidut gogoz eta arimaz bere Semearen Ebanjelioan, bethi naizela zuetaz orhoit, **10** bethiere neure orazionetan errekeritzen dudalarik, noizbait bederen ediren dezadan atiza on bat Jainkoaren borondatearekien batean ethortzeko zuen ganat. **11** Desira handi dut ezen zuen ikusteko, zerbait grazia izpiritual zuei partitzea gatik zuen borthitztekotzat; **12** erran nahi dut, zuekien naitekenean elkhar konsola dezaguntzat zuek eta nik oro banaz dugun fedez. **13** Hala ez dut nahi ignora dezazuen, ene anaiak, maiz xedea hartu dudala zuen ganat ethortzeko, zerbait fruitu egin nahiz zuen artean ere, bertze nazioeen artean bezala; ordean debekatua izatu naiz oraidainokoan. **14** Zordun naiz grekoen eta barbaroen alderat, zuhurren eta sinpleen alderat.

**15** Hala ene baithan dagoen guziaz prest naiz zuei ere, Roman zaretenei, Ebanjelioa predikatzerat; **16** ez naiz ezen ahalke Ebanjelioaz, zeren hura baida medio botheretsua, Jainkoak hautatu izan duena, sinhesten duen guziaren salbamenduko, juduen lehenik eta gero jentillaren; **17** har-

tan da ezen agertzen Jainkoaren justizia fedezko egia batetarik bertze batetarat, eskribatua den bezala: «Justua fedez bizi da».

**18** Halaber Jainkoaren kolera agertzen da zerutik gizon hekien gaixtakeria guziaren eta injustizia guziaren gainerat, zeinek Jainkoaren egia gathibo baidadukate injustuki, **19** halaz eta Jainkoaz ezagut ahal daitekena agerian dutenaz geroztik, zeren Jainkoak berak baidaroe ezagutarazi; **20** ezen Jainkoaren perfekzione ezin ikus daitezkenak, haren bothere eterna-le eta haren Jainkotasuna, ageri dire munduaren kreazionetik haren kreaturek ematen darokuten ezagutzaz; eta hala haiña hek esenkusa gabe dire. **21** Zeren ezagutu dutelarik Jainkoa, ez baidute Jainko bezala glorifikatu eta ez baidiotzate eskerrak bihurtu; aitzitik errebelatu izan dire bere arrozoinamendu banoetan eta hekien bihotz zoratua ilhunbeztatua izan da. **22** Bere ustez zuhur zirenak erho gerthatu dire, **23** eta mudantzarik ezin duken Jainkoaren gloria ganbiatu izan dute gizon mudakor baten idurirat, hegastiñenerat, laur zangotako bestienerat eta sugeenerat.

**24** Hargatikan Jainkoak abandonatu izan ditu bere bihotzetako gutizietarat, lohiekieriarat; halako moldez, non bere gorphutz propioak hidoiztatzan baidituzte berek, **25** haiñek, Jainkoaren egia gezurretarat ganbiatu izan dutenek; kreatu adoratu eta zerbitzatu izan dutenek eta ez kreatzaillea, zeina benedikatua baida mende guzietan. Amen. **26** Horren gatik Jainkoak abandonatu izan ditu pasione ahalkagarrietarat, ezen hekien emasteek ganbiatu izan dute naturaren arauerako usantza naturaren kontrako den batetarat. **27** Halaber gizonak ere, utzirik emasteaz naturaren arauera zerbitzatzea, izan dituzte pasione beroak batzuk bertzeren ganat, gizonak gizonen infamiak egiten dituztela, eta bere errebelamenduaren saria, merezitu duten bezalakoa, bere baitan errezibitzen dutela.

**28** Eta nola ez baidute nahi izan entseiatu Jainkoaren ezagutzerat, hala hek ere abandonatu izan ditu Jainkoak sensu erreprobatu batetarat; halako moldez, non egin baidituzte gizonari ez dagozkon akzioeak **29** eta izan baidire betheak injustizia suerte guziez: maleziaz, lohikeriaz, abariziaz, gaixtakeriaz, inbidiaz, gizon hiltzeaz, debadioz, enganioz, aiherkunder; erreportari, **30** gaizki erraille, Jainkoaren etsai, iroi emaille, superbio, goratiar, gauza gaixtoen asmatzaille, burasoen desobeditzaille, **31** zortuak, bihurriak, amudio gabeak, fede gabeak, urrikalmendu gabeak; **32** zeinek ezagutu arren Jainkoaren justizia, ez baidute konprenitu heriotzea merezi dutela horlako gauzak egiten dituztenek; eta ez xoilki egiten dituztenek, baina oraiño horlako egilleak aprobaten dituztenek ere.



## II. KAP.

**1** Hargatik zare ezin esenkusatuzkoa, o gizona, nor ere baitzare bertzeak jujeatzen ditutzuna. Ezen bertze bat jujeatzen duzun pontutik, zeure burua duzu kondentzen, halaz eta kondentzen ditutzun gauza berak ditutzunaz geroz egiten. **2** Badakigu ezen egiaren arauera dela horlako gauzak egiten dituztenen kontra Jainkoak ematen duen jujeamendua. **3** Uste duzu bada, o gizona, horlako gauzak egiten dituztenen kondentzen hari zarena eta zeronek egiten ditutzuna, itzuriko zaizkola Jainkoaren jujeamenduari? **4** Ala mesprezatzen ditutzu haren ontasunaren, haren pasientziaren eta haren igurikitze luzearen aberastasanak? Ez dakizu Jainkoaren mantsotasunak penitentziarat deitzen zaituela?

**5** Ordean zure gogortasunaz eta zure bihotzeko urriki gabetasunaz kolerazko thresor baten biltzen hari zare zeure buruaren gaiñerat kole-razko egunekotzat eta agertuko denekotzat Jainkoaren jujeamendu justua, **6** zeinek errendatuko baidio batbederari bere obren arauera: **7** obra on egiten iranez gloriaren, ohorearen eta imortalitatearen bilha dabilzane, bizitze eternala; **8** ordean debadioko izpiritua dutenei eta egiari errendatzen ez zaiztenei, aitzitik inikitatean lakhet dutenei, kolera eta gaitzerizkoa. **9** Atsekabea eta herstura dagoke gaixkia egiten duen gizon guziarentzat: juduentzat lehenik, gero jentillarentzat; **10** ordean gloria, ohorea eta bakea ungi egiten duen guziarentzat: juduentzat lehenik, gero jentillarentzat.

**11** Ez da ezen presunen berezkorik Jainkoa baithan. **12** Hala legea izan gabe bekhatu egin duten guziak galduko dire legea gabe; eta legearen azpian direla bekhatu egin duten guziak legeaz izanen dire jujeatuak. **13** Ez dire ezen legea entzuten dutenak justutzat iragaten Jainkoaren aitZiñean, baiñan legea goardatzen dutenak izanen dire justifikatuak. **14** Noiz eta ere bada jentillek, legea ez dutenek, naturalki egiten baidituzte legeak mantzen dituen gauzak, hek legea izan gabe bere buruentzat berak ditezke lege; **15** erakusten baidute legeak egiteko exlejitzen duena eskribatua dela hekien bihotzetan, lekhukotasuna bihurtzen daroen bezala bere kontzientziak, akusatzen edo defendatzen hari zaizten erreflexione diferentez, **16** gizonen bihotzetan gordea den guzia Jainkoak, nik predikatzen dudana Ebanjelioaren arauera, Jesukristoz jujeatuko duen egunekotz.

**17** Bainan zu, judutarraren izena dakharkezuna, legearen gainean deskantsatzen zarena eta Jainkoarena zarela glorifikatzen zarena, **18** haren borondatea ezagutzen duzuna eta legeaz instruitu izanik, hoberen dena zer den dakizuna, **19** fida zare itsuen gidari zarela eta ilhunbetan direnen argizagi, **20** ignoranten eskolatzaille, haurren nausi, zeren duzun legean jakintasanaren eta egiaren moldea.

**21** Zuk, bada, bertzeak eskolatzen ditutzun horrek, zeure buruari ez baidiozu irakasten? Predikatzen duzun horrek ez dela ebatsi behar, ebas-ten baiduzu? **22** Adulteriorik ez dela egin behar diozun horrek, adulterio egiten baiduzu? Idoloz lastima duzun horrek, sakrilejioak egiten baidituztu? **23** Legean burupe duzun horrek, legea hautsiz Jainkoa desohoratzen baiduzu? **24** Jainkoaren izena ezen, Eskriturak dioen bezala, «blasfematua da zuen gatik jentillen artean».

**25** Zirkonzisioea alabaiñan probetxuzko da, baldin legea konplitzen baduzu; baldin ordean legearen hautszaille bazare, zure zirkonzisioearekien ere zirkonzidatua ez baziñe bezala egiten zare. **26** Baldinetariak, beraz, zirkonzidatua ez denak begiratzen baditu legearen ordenantza sainduak, zirkonzisioea izan gabe ere ez da kontsideratua izanen zirkonzidatua balitz bezala? **27** Eta naturalki zirkonzidatua ez delarik legea konplitzen duenak, ez zaitu jujeatuko zu, legearen letra errebitu duzularik eta zirkonzidatua zarelarik legearen hautszaille zaren hori? **28** Ezen judutar leiala ez da kanpotik judutar dena, eta egiatzko zirkonzisioea ez da haragian agertzen dena; **29** baiñan judutar leiala da barnenean halako dena; eta egiatzko zirkonzisioea bihotzekoa da, Izpituaren arauerakoa, ez letraren arauerakoa; eta judu hainak bere laudarioa ez du gizonen ganik, baiñan bai Jainkoa ganik.

## III. KAP.

**1** Zer du, bada, judutarrak bertzeren gainetik eta zer da zirkonzisioearen probetxua? **2** Hainitz, manera guziez; beregainki zeren hei fidatu izan baitzaizte Jainkoaren hitzak. **3** Zer da gero, hetarik zenbaitek ez badute sinhetsi? ala hekien sinhets gogortasanak ezeztatuko du Jainkoak eman duen hitza? Ez horlakorik. **4** Jainkoa ezen egiatia da eta «gizon guzia gezurri», eskribatua den bezala: «ezagutua zarentzat fidel zarela zure hitzetan eta duzuntzat garaia zutaz egiten diren jujeamenduetan». **5** Baldin, beraz, gure inikitateak gehiago badu ageratzitzen Jainkoaren justutasuna,



zer erranen dugu? Ala injustua da Jainkoa gu punitzen gaituenean? **6** Gizonen gisarat mintzo naiz. Ez horlakorik. Bertzela nola Jainkoak jujea lezake mundua?

**7** Ordean baldin gure infidelitatearen ariaz Jainkoaren fidel izana gehiago agertzen bada haren gloriatan, zergatik oraiño naiz ni jujeatua bekhatoros bezala? **8** Eta zergatik ez dugu eginen gaixkia handik ungia ethor dadintzat, zenbaitek gaistoki akusatzen gaituzten bezala erraten dugula? Zeiñak justuki kondenatuak izanen baidire. **9** Zer bada? Abantail zerbait dugu hekien gaiñetik? Batere, erakutsi dugu ezen judutarrak eta jentillak, guziak bekhatuaren azpian direla, **10** eskribatua den bezala: «Ez da justu denik nihor; **11** ez da zuhurtziarik duenik; ez da Jainkoaren bilha dabillanik; **12** guziak errebelatuak dabilta, guziak orobat inutil egin dire; ez da ungia egiten duenik, ez eta bakhar bat ere; **13** thonba ideki bat da hekien estarrria; bere mihiez enganatzeko baliatzen dire; suge aspiden pozoina bere ezpaiñen azpian dute; **14** hekien bihotza madarizionez eta khiratsez bethea da; **15** agudo dire hekien oiñak odol isurtzerat; **16** hekien urrats guziak dabilta bertzeen xehatzerat eta dohakabe egiterat; **17** bakearen bidea ez dute ezagutzen; **18** ez dute Jainkoaren beldurra begien aitzinean».

**19** Badakigu, bada, legeak erraten duen guzia legearen azpian direnei daroela erraten, nihork erratekorik izan ez dezantzat eta mundu guzia Jainkoari sumetitua izan dadintzat; **20** zeren eta «legearen obretarik ez baida justifikatua izanen gizon garabik haren aitzinean»; legeak ezen bekhatuaren ezagutza du eman.

**21** Baiñan orai legea gabe agertu izan zaiku Jainkoa ganik heldu den justizia, zeinetaz lekhukotasuna eman baidute legeak eta profetek. **22** Eta justizia hori Jesukristoren fedez heldu da haren baithan sinhesten duten guzientzat eta guzien gainerat; ez da ezen berezkorik batere. **23** Guziek ezen egin dute bekhatu eta dute Jainkoaren gloriaren beharra. **24** Dohainik ere dire justifikatuak haren graziaz, Jesukristo baitan duten erospenez; **25** zeina proposatu izan baidu Jainkoak aphazegagarritzat haren odolean izanen ginduen fedez, erakustea gatik bere justizia bekhatu iraganen barkhamenduan; **26** zeinetaz pasientzia izan baidu Jainkoak, erakustea gatik, diot, bere justizia denbora huntan; ezagutua izan dadintzat bera justu eta Jesukristo baitan fedea duenaren justifikatzaile.

**27** Non da, beraz, zure burupea? Ezeztatu da. Zein lege? Obrenez? Ez, aitzitik bai fedearen legeaz. **28** Ezagutu behar dugu ezen, gizona

fedez dela justifikatua legearen obrak gabe. **29** Ala judutarren Jainko da xoiki Jainkoa? Ala ez da bain ungi jentillena ere? Segurki jentillena ere da. **30** Alabainan ezen ez da Jainko bakhar bat baizen, zeieñek justifikatzen baiditu fedearen berthutez zirkonzisioneakoak eta fedez zirkonzisioneako ez direnak ere. **31** Ezeztatzen othe dugu beraz legea fedez? Ez horlakorik; aitzitik legea dugu borthititzen.

#### IV. KAP.

**1** Zer, beraz? Erranen dugu abantail izan duela Abraham gure aitak haragiaren arauera? **2** Baldinetariak ezen Abraham bere obretarik izan bada justifikatua, badu zertaz glorifika, ordean ez Jainkoa baitan. **3** Zer dio ordean Eskriturak? «Sinhetsi zuen Abrahamek Jainkoa eta hori iratxekei zitzaion justiziatzat». **4** Obra egiten duenari, ordean, saria ez zaio kondatzen grazia bat bezala, bainan bai zor bat bezala. **5** Aitzitik obrarik egiten ez duenari eta gaixtagiña justifikatzen duena baitan sinhesten duenari bere fedea zaio kondatzen justiziatzat, Jainkoak graziaz formatu izan duen xedearen arauera.

**6** Hala dio Dabidek ere, dohatsu dela gizona, Jainkoak obrarik gabe justutzat dohainik dagokana: **7** «Dohatsu hainak, zeinen inikitateak baidire barkhatuak eta zeinen bekhatuak baidire estaliak; **8** dohatsu gizona, zeinari ez baidio kontutan ekharri Jainkoak bekhatuak». **9** Dohatsutasun hori, bada, zirkonzidatuak direnetan xoilki edireten da ala bai zirkonzidatuak ez direnetan ere? Erran dugu ezen orainxean fedea zitzaioela kondatu Abrahami justiziatzat. **10** Noiz ordean zitzaion kondatu? Zirkonzidatu izan zen ondoan ala zirkonzidatu izan baiño lehen? Ez behintzat zirkonzidatu izan zen ondoan, baiñan bai zirkonzidatu izan zen baiño lehenago.

**11** Eta zirkonzisionearen seiñalea errezibitu ere zuen oraino zirkonzidatu ez zela, ja fedez izatu zuen justiziaren zigillua bezala, izan dadintzat, hala zirkonzidatuak izan gabe sinhesten duten guzien alta eta konda dakientzat hei ere bere fedea justiziatzat, **12** hala zirkonzidatuen aita, zeieñek ez xoilki baidute errezibitu zirkonzisioea, bainan zeieñak oraiño baidarraizte gure aita Abrahamek zirkonzidatu ez zela izatu zuen fedearen urratsei. **13** Ez zaio ezen legearen ariaz agindu izan Abrahami edo haren haziari izanen zuela primezatat mundu guzia, baiñan bai fedetik heldu den justiziaren ariaz.



**14** Baldinetariak ezen legeko direnentzat bada primeza, fedea ez da deusetako, antzutua ditekera Jainkoaren agintza. **15** Legeak ezen kolera dakharre, legerik ez denean ez denaz geroztik lege hausterik ere. **16** Hala fedeko direnentzat da primeza, graziaz dentzat agintza seguratu Abrahamen ume guzientzat; ez xoilki legea errezibitu izan dutenentzat, baina oraiño Abraham gure guzien aita denaren fedeari darraizkoenentzat, **17** (eskribatua den bezala: «Hainitz nazioneren aita egin zaitut»), eta baida ere Jainkoaren aitzinean, zeina sinhetsi izan baidu hillak bizten dituen bezala eta ez diren gauzak direnak gisa deitzen dituen bezala; **18** esparantza izanik esperantza guziaren kontra sinhetsi izan baidu, izanen zela nazione hainitzen aita, erran izan zitzaioenaren arauera: «Horlako izanen da zure arraza».

**19** Ez zen ere flakatu haren fedea eta ez zuen konideratu hilla bezala zela haren gorputza, orduko baitzituen ehun urthe hurren, eta Sarana ere gai haurrik ekhartzeko. **20** Ez zen kordokatu ere fede eskasaz Jainkoaren agintzan; aitzitik borthiztu zen fedean, Jainkoari gloria bihurtzen zioelarik, **21** osoki seguraturik agindu dituen guziak egiteko ere gai dela. **22** Hargatik «kondatu ere zaio hori ere justiziatzat». **23** Ez da ordean harentzat xoilki izan eskribatua, «kondatua izan zaiola» hori justiziatzat, **24** baiñan bai guretzat ere, zeinei orobat kondatuko baitzaiku, sinhesten dugunei hiletarik biztu den Jesukristo gure Jauna baitan, **25** zeina heriotzerat libratua izan baida gure bekhatuen gatik eta hiletarik biztu izan baida gure justifikatzea gatik.

## V. KAP.

**1** Justifikatuak garen bezala beraz fedean, dugun bakea Jainkoarekien Jesukristo gure Jaunaz, **2** zeñak sararazi izan baigaitu graziazko estatu hortan, zeinetan baigaudez eta gloriatzen ere baigara Jainkoaren umeen gloriaren esparantz. **3** Eta ez hori xoilki, baina oraiño gloriatzen gare atsekabeetan ere, jakinik atsekabeak dakharkela pasientzia, **4** pasientziak berriz frogantza eta frogantzak esparantza. **5** Bada esparantzak ez du enganatzen, zeren Jainkoaren amudioa isuria izan baida gure bihotzatarat Izpiritu Sainduaz, zeina eman baitzaiku. **6** Zergatik ezen Jesukristo oraiño erbalduak «ginenean, bill izan da gaixtaginentzat denbora exlejituan. **7** Miraz nihor hiltzen bide baida gizon prestu batentzat ere; agian bada, hala ere, norbaitek baluke kuraie hiltzeko gizon prestu batentzat.

**8** Jainkoak ordean du seinalatzen bere amudioa gure alderat; zeren oraiño bekhatos ginelarik, **9** Jesukristo hill izan baida guretzat denbora markatua; hainitez hobeki, beraz, orai justifikatuak baigara haren odolaz, gaitu salbatuko Jainkoaren koleratik. **10** Ezen baldinetariak Jainkoaren etsai giñenean baketuak izan baigara harekien haren Semearen heriotzeaz, hainitez areago orai baketuak izan ondoan izanen gare salbatuak Seme haren beraren biziaz. **11** Ez xoilki hori; burupe ere dugu Jainkoa baitan Jesukristo gure Jaunaren ariaz, zeinaz orai izan baigara baketuak.

**12** Nola ezen gizon xoil batez bekhatua sarthu izan baida mundu huntan eta bekhatuaz heriotzea, hala gizon guzietarat iragan da heriotzea, guziek egin baidute bekhatu haren baitan. **13** Legeraiño ere ezen bekhatua munduan zen; baiñan legea ez baitzen oraiño, bekhatua ez zen iratxekitzen. **14** Bizkitartean erreginatua izan du heriotzeak Adamen ganik Moiseren ganaiño haiñen gaiñean ere, zeinen bekhatua ez baida izan lege hauste bat Adamena bezalakoa, zein baida ethorri beharra zenaren figura.

**15** Baina dohaina ez bide da bekhatua bezala; ezen baldin bakhar baten bekhatuaz hainitz hill badire, frankia gehiagorekien ere isuri izan da Jainkoaren urrikalmendua eta dohaina hainitzen gaiñerat gizon bakhar baten graziaz, zein baida Jesukristo. **16** Eta ez da bekhatua baten gatik den bezala, dohaina ere hala; ezen bekhatu bakhar baten gatik izan gare Jainkoaren jujeamenduaz kondenatuak; graziaz ordean hainitz bekhatutarik gare justifikatuak. **17** Baldinetariak ezen bakhar baten bekhatuaz heriotzeak erreginatua izan badu, hainitez areago graziaren dohainen eta justiziaren frankia errezibitzen dutenek dute erreginatuko bizitzean Jesukristo beraz. **18** Nola, beraz, bakhar baten bekhatuaz erori izan baidire gizon guziak kondenazionean, hala bakhar baten justutasunaz errezibitzen dute gizon guziek bizitzearen justifikazionea. **19** Ezen nola gizon bakhar baten desobedientziak hainitz egin baidire bekhatos, hala bakhar baten obedientziak dire hainitz justu eginen.

**20** Legea ordean ethorri da halako moldez, non berretuago baida bekhatua; baiñan non ere berretu izan baida bekhatua, han gandi egin izan du graziak; **21** bekhatuak erreginatua izan duen bezala heriotzea emateko, halaber graziak ere erregina dezantzat justiziaz bizitzea eternala emateko Jesukristo gure Jaunaz.



## VI. KAP.

1 Zer erranen dugu, beraz? Egonen gare bekhatuan, graziak gaindi egin dezantzat? 2 Jainkoak begira gaitzala; ezen bekhatuari hill izan gaizkonak, nola biziko gare oraino hartan? 3 Ez dakizue Jesukristo baithan bathaiatuak izan garen guziak haren heriotzean izan garela bathaiatuak? 4 Ehortziak izan gare ezen harekien batean bathaioaz, hillak izatekotan bekhatuari; Jesukristo biztu izan den bezala hiletarik bere Aitaren gloriáz, hala gu ere ibill gaitezentzat bizitze berri batean.

5 Baldinetariak ezen xertatuak izan bagare haren heriotzearen idurirat, halaber izanen gare xertatuak haren phiztearen ere idurirat, 6 dakigularik gure gizon zaharra harekien batean gurutzefikatua izan dela, ezeztatua izan dadintzat bekhatuaren gorputza eta hemendik harat bekhatuaren gathibu izan ez gaitezentzat, 7 ezen billa dena libratua da bekhatutik.

8 Baldinetariak bada hillak bagare Jesukristorekien, sinhesten dugu halaber garela biziko Jesukristorekien. 9 Baidakigu Jesukristo, hiletarik biztu dena, ez dela gehiago hillen; heriotzea gehiago ez zaiola nausituko. 10 Ezen bill izan denaz bezanbatean, behingoan xoilki hill izan da bekhatuarentzat; bizi denaz bezanbatean ordean, Jainkoarentzat bizi da.

11 Hala zuek ere kontu egizue hillak zaretela behintzat bekhatuarentzat, ordean bizi zaretela Jainkoarentzat Jesukristo gure Jauna baitan. 12 Ez dezan, beraz, erregina bekhatuak zuen gorputz hilkorrean, haren gutiziei obedi diozozueken bezala. 13 Ez diotzatzuela abandona zuen gorputzeko mienbroak bekhatuari, inikitatezko arma batzu izateko; aitzitik eman zakizkote Jainkoari, hillak zinetenetik biztuak bezala; eta enplega zatzizue zuen gorputzeko menbroak Jainkoarentzat, justiziazko arma batzu bezala. 14 Ezen bekhatua ez zaitzue gehiago nausitu behar, ez zaretenez geroz legearen azpian, baiñan bai graziaren azpian.

15 Zer bada? Bekhatu egiten hariko gare, zeren ez garen legearen azpian, bainan garen graziaren azpian? Jainkoak begira gaitzala. 16 Ez dakizue norbaiten sehi egiten zaretenean hura obeditzeko, hainaren gathibu zaretela, zeña baiduzue obeditzen, dela bekhatuaren heriotzekotzat, dela obedientziaren justiziakotzat? 17 Ordean eskerrak diotzat Jainkoari, zeren bekhatuaren esklabo izan zaretelarik, sumetitu baitzaizkote bihotzez moldetzat eman izan zaitzuen doktrinari. 18 Bekhatutik bada libratuak izan eta, egin izan zarete justiziaren gathibu.

19 Gizonen gisara mintzo naiz zuen haragiaren flakitatea gatik. Nola zerbitzarazi izan baidituzue zuen gorputzeko menbroak lohitasunean eta gaixtokerian bekhatu egiteko, hala orai zerbitzaraz zatzue justiziarentzat saildu izateko; 20 ezen bekhatuaren gathibu ziñetenean, justiziaren uztarria arthikia zinduten. 21 Zer abantail, beraz, ediren duzue orai ahalkere zareten gauza hetan? Ezen hekien saillida heriotzerat doha. 22 Orai ordean bekhatutik libratuak izanik egin izan baitzarete Jainkoaren gathibu, hortan edireten duzuen abantaila doha zuen sanktifikazionerat eta horra saillida bizitze eternalerat. 23 Bekhatuaren saria ezen heriotzea da. Baiñan Jainkoa ganik errezibitzen dugun grazia da bizitze eternala Jesukristo gure Jauna baithan.

## VII. KAP.

1 Ala ez dakizue, ene anaiak (ezen legean jakintsun direnei mintzo natzaie) legea gizonaren gainean nausi dela bizi deiñokoan? 2 Ezen emaste ezkondu bat amarratuko da ezkontzako legeaz bere senarraren alderat, hura bizi deiño; ordean senarra bill eta, libro da senarraren legetik. 3 Baldinetariak, beraz, senarra bizi duela ezkontzen bada bertze gizon batekien, adultertat atxekiko da; ordean bere senarra hill zaiokenean, libro da senarraren legetik eta ezkon daiteke bertze batekien adulter izan gabe.

4 Hala, ene anaiak, zuek ere hillak zarete legearen alderat Jesukristoren gorputzaz, bertze batenak izateko, zeina biztu izan baida hiletarik fruitua Jainkoari ekhar diotzoguntzat. 5 Ezen haragiaren arauera bizi giñenean, bekhatuak jaidurek, legearen ariaz heldu zirenek, indar zuten gure gorputzeko menbroetan eta ekhararazten zarozten heriotzeko fruituak.

6 Orai ordean libro gare heriotzeko legetik, zeñek gathibu baitgiñaduzan; halako moldez, non zerbitzatzen baidugu Jainkoa Izpirituzko berritasunean eta ez letraren zahartasunean. 7 Zer erranen dugu, beraz? Legea bekhatu da? Ez horlakorik, baiñan bekhatua ez dut ezagutu legeaz baizen; ezen gutizia ez nuen jakiñen zer zen, legeak erran izan ez balu: «ez zare gutiziatuko». 8 Ordean okasione harturik bekhatuak manamenduaz tarritatzeko, sorarazi izan ditu ene baitan gutizia suerte guziak; legea gabe ezen, billa bezala zen bekhatua.

9 Ni berriz bizi nintzen nozbait legea gabe; baiñan manamendua ethorri eta, biztu da bekhatua 10 eta ni bill izan naiz. Eta gerthatu zait manamendua, niri bizia emateko zena, izan dadin niri heriotzea emateko.





**11** Ezen bekhatuak okasione harturik manamendutik, enganatu izan nau eta bill nau manamenduaz beraz. **12** Hala legea alabaiñan saindua da eta manamendua ere saindua da, justua eta ona.

**13** Zer beraz? On den gauza hilkari bilhakatu zait? Batere horlakorik; baiñan bekhatuak, denarentzat agertzeko, heriotzea darot eman berenez on den gauza batez; halako moldez, non manamenduaz berretzen baida gaindiz bekhatua. **14** Badakigu ezen legea izpirituala dela; ordean ni haragikoa naiz bekhatuari saldua. **15** Ezin konpreni ere dezaket egiten dudana, halaz eta ez dudana geroz egiten nahi dudana ungia eta aitzitik egiten dudana geroz nahi ez dudana gaixkia. **16** Baldinetariak, beraz, nahi ez dudana egiten badut, ona dela legea aithorra ematen diot. **17** Hala ez naiz ni gaurgoro hura egiten dudana, baiñan da ene baitan egoten den bekhatua.

**18** Badakit ezen ez dela deusere onik ene baithan, erran nahi da, ene haragian; ezen ungi egin nahia aurkhitzen dut ene baithan, ordean ungia konpliki egitea ez dut aurkhitzen. **19** Ezen ez dut egiten nahi dudana ungia; eta aitzitik nahi ez dudana gaixkia dut egiten. **20** Baldinetariak, beraz, egiten badut nahi ez dudana, ja ez dut nik hura egiten, baina ene baithan egoten den bekhatuak egiten du. **21** Ungia egin nahi dudanean, beraz, edireten dut beraz ene baitan lege bat traba egiten duena, zeren gaixkia baidatxeit.

**22** Lakheta dut ezen Jainkoaren legean barneko gizonaren arauera; **23** ordean bertze lege bat dakusat ene gorphutzeko menbroetan, ene izpirituko legeari kontra egiten dioena eta ene gorphutzeko menbroetan den bekhatuzko legearen azpian gathibu errendatzen nauena. **24** Gizon dohakabea ni! Nork libratuko othe nau heriotzeko gorphutz huntarik? **25** Jainkoaren graziak Jesukristo gure Jaunaz. Hala bada neroni naiteke sumetitia Jainkoaren legeari Izpirituaren arauera eta bekhatuaren legeari haragiaren arauera.

### VIII. KAP.

**1** Ez da, beraz, orai kondenezione garabik Jesukristo baithan bizi direnentzat eta haragiaren arauera ez dabilzantzat; **2** zeren Jesukristo baithan den bizitzeko Izpirituaren legeak athera bainau bekhatuzko eta heriotzeko legetik; **3** ezen legeak ezin zaikena, zeren zen haragiaz flakatura, Jainkoak, bere Semea igorrik bekhatuaren iduria zakharen haragia batean, bekhatutik du kondenuatu izan bekhatua haragian, **4** legearen jus-

tizia konpli dadintzat gure baithan, haragiaren arauera ez gabiltzanen baithan, aitzitik Izpirituaren arauera gabiltzanen baithan. **5** Ezen haragiaren arauerako direnek haragiaren arauerako diren gauzetan dute gustu hartzen; ordean Izpirituaren arauerako direnek Izpirituaren diren gauzetan dute lakhet. **6** Alabaiñan haragiaren prudentzia heriotze bat da, eta aitzitik Izpirituaren prudentzia bizitzea eta bakea da. **7** Zeren haragiaren zuhurtzia Jainkoaren etsai baida, ezen ez da sumetitia Jainkoaren legeari eta ezin ere daiteke.

**8** Haragiaren arauera dabilzanak, beraz, ezin agrada dadizkeio Jainkoari. **9** Zuek ordean ez zarete bizi haragiaren arauera, baina bai Izpirituaren arauera, baldin behintzat Jainkoaren Izpiritua zuen baithan egoten bada; baldinetariak, bada, edozeinek Jesukristoren Izpiritua ez badu, haiña ez da harena. **10** Baldin zuen baithan bada Jesukristo, gorphutza hilla den arren bekhatuaren ariaz, Izpiritua ordean bizi da justiziaren ariaz.

**11** Baldinetariak, bada, Jesukristo hiletarik biztu duenaren Izpiritua zuen baithan egoten bada, Jesukristo hiletarik biztu duenak emanen daroe bizi zuen gorphutz hilkorreire bere Izpiritua gatik, zeñia egoten baida zuen baithan. **12** Beraz, ene anaiak, zordun gare ez haragiaren ganat, haragiaren arauera bizitzeko.

**13** Baldinetariak ezen haragiaren arauera bizi bazarete, hillen zarete; ordean Izpirituaz haragiaren obrak hillumatzen badituzte, biziko zarete, **14** ezen Jainkoaren Izpirituaz erabilliak diren guziak Jainkoaren ume ditezke. **15** Hala hala ez duzue gathibusuneko Izpiritua errezibitu, berriz ere beldurrean izateko; aitzitik errezibitu duzue umeen adoptioneko Izpiritua, zeinez oihu egiten baidugu: Aita, Aita. **16** Izpiritu hark berak errendatzen dio lekhukotasuna gure Izpirituari Jainkoaren unie gara.

**17** Baldinetariak beraz unie bagare, halaber herederok gare; diot, herederok Jainkoaren eta Jesukristoren herederokide, baldin ordean harekien pairatzen badugu, harekien glorifikatuak izateko. **18** Uste dut ezen ez direla konparatzeko denbora huntako sofrikariak ethorkizuneko gloria gure baithan agertuko denarekien. **19** Halaber kreaturek gehienik igurikitzen dutena diteke Jainkoaren umeen gloria hura ager dadin, **20** zeren banitatearen azpian baidaudez ez bere nahiz, baina bai hartarat behehitu dituen gatik, esparantzaz **21** hek berak ere atherako direla korrupzionaren gathibusunetik Jainkoaren umeen gloriaren libertaterat.



**22** Badakigu ezen kreatura guziak hatsbeherapenez eta erditzeko miñetan bezala daudezela oraidainokoa. **23** Eta ez xoiki hek, baiñan gu geroni ere, Izpirituaren primeziak ditugunek, gere baithan hatsbeherapenez gaudez Jainkoaren umeen adopzioareen begira eta bai gure gorhutzen librantzaren begira. **24** Esparantzaz ezen salbatuak gare; ordean esparantza duguna ikusten dugunean, ez da hura esparantza; ezen ikusten den gauzaz nola diteke esparantza?

**25** Baldin ordean ikusten ez dugunaz badugu esparantza, pasientziarekien igurikitzen dugu. **26** Hala hala Izpirituak ere laguntzen du gure flakitate; ezen ez dakigu zer galdetu behar diogun Jainkoari gure othoizetan, behar den bezala othoitz egiteko; bainan Izpirituak berak du egiten othoitz guretzat ezin erranikako hatsbeherapenekien. **27** Bada bihotzak miratzen dituenak badaki zer desiratzen duen Izpirituak, zeren Jainkoaren arauera direnak galdetzen baiditu sainduentzat.

**28** Badakigu halaber gauza guziak onetarat hari zaitzela Jainkoa maite dutenei, bere xedearen arauera saindu izateko deithu izan dituenei. **29** Ezen aspaldidanik ezagutu dituenak ditu halaber predestinatu bere Semearen imajinareen iduriko izateko, hura izan dadintzat lehen jaioa hainitz anaien artean. **30** Predestinatu izan dituenak bada halaber ditu deithu, eta deithu izan dituenak halaber ditu justifikatu, justifikatu dituenak berriz ditu halaber glorifikatu.

**31** Zer erranen dugu, beraz, horren ondoan? Baldin Jainkoa gure alde bada, nor izanen da gure kontra? **32** Bere Seme propioa guphidetsi izan ez duenak, aitzitik gure guzientzat hura heriotzerat libratu izan duenak, nola ez darozkiguke eman gauza guziak harekien batean? **33** Nork ekharriko du akusazionerik Jainkoaren hautetsien kontra? Jainkoa bera da hek justifikatzen dituenak. **34** Nor da hek kondenatuko dituenak? Jesukristo da hill izan dena eta are biztu ere izan dena, Jainkoaren eskuiñean dena, guretzat othoitz egiten ere duena. **35** Nork, beraz, aldaratuko gaitu Jesukristoren amudiotik? Atsekabeak, ala hersturak, ala goseak, ala bulhuz izateak, ala hirriskuak, ala persekuzioneak, ala ezpatak? **36** Eskribatua den bezala: «Kure gatik hilka garabiltzate egunoroz, hill beharrikako ardi batzuei bezala behatzen darokute».

**37** Ordean horien guzien artean garai gelditzen gare maitatu gaituenaren ariaz. **38** Segur naiz ezen ez heriotzeak, ez biziak, ez aingeruek, ez prinzipalitateek, ez bothereek, ez presenteko gauzek, ez ethorkisunekoek, ez bortxak, **39** ez goren denak, ez beheren denak, ez bertze kreatura batek

ere, ezin separatuko gaituela Jainkoaren amudiotik, Jesukristo gure Jauna baithan fundatua denetik.

## IX. KAP.

**1** Egia erraten dut Jesukristoren aitzñean; ez dut gezurrik erraten eta lekhukotasuna errendatzen darot ene konszientziak Izpiritu Sainduaren aitzñean, **2** tristezia handi bat dudala eta damu kontinual bat neure bihotzean. **3** Desiratzen nuken ezen neroni anathema ere izatea eta separatua Jesukristo ganik ene anaien gatik eta haragiaren arauera ahaide ditudanen gatik, **4** zeinak baidire israeldarrak, zeñenak baidire haurtzazko adopzio-nea, gloria, allientzia, legea, Jainkoaren zerbitzua eta agintzak, **5** zeinen aitak baitziren patriarkak eta zeñetarik heldu ere baida haragiaren arauera Jesukristo, gauza guzien gaiñeko Jainko dena eta mende guzietan benedikatua. Amen.

**6** Ezin erran ere diteke, bada, Jainkoaren hitza efektu gabe gelditu dela; ez dire ezen Israel ganik heldu diren guziak israelitik hargatik, **7** eta ez Abrahamen hazitik diren guziak hargatik haren umeak; baiñan «Isaak ganik izanen duzun leiñua izanen da deithua zurea». **8** Erran nahi da, ez dire haragiaren arauerako umeak Jainkoaren ume direnak, baiñan agintzako umeak dire Abrahamen leiñuko idukitzen direnak. **9** Huna ezen agintzak zer dioen: «Ethorriko naiz denboratsu huntan eta Sarak izanen duke seme bat».

**10** Eta hori ez da xoilki hari behatzen zitzaioena, baiñan halaber Rebekari ere, zeñek bi haur izatu baitzituen aldi batez Isaak gure alta ganik; **11** ezen sorthu ziren baiño lehen eta deusere onik edo gaixtorik egin zuketen baiño lehen, Jainkoaren ordenamendua fermu legoentzat haren hautuaren arauera, erran zitzaioen **12** ez obren ariaz, baiñan deitzen duenaren ariaz: «Lehena gasteenaren azpiko izanen da», **13** eskribatua den bezala: «Onetsi dut Jakob, Esau berriz gaitxetsi». **14** Zer erranen dugu, beraz? Ala injustiziarik dela Jainkoa baithan? Ez horlakorik. **15** Moiseri ezen erraten dio: «Urrikalduko zait urrikaldu gogo zaitana eta miserikordia eginen diot miserikordia egin gogo diodanari».

**16** Beraz ez dago nahi duenaren baithan, ez lauster egiten duenaren baithan, baiñan bai miserikordia egiten duen Jainkoaren baithan. **17** Hala erraten ere dio Faraoni Eskrituran: «Hortakotz berekotz altxatu izan zai-



tut, zure baithan agerarazitez kotzat neure botherea; bana dadintzat ene izena mundu guzian».

**18** Beraz nahi duena du urrikari eta nahi duena gogortzen du. **19** Erranen darotazu eki: Zergatik, bada, oraino errenkuratzen da? Ezen, nor doha haren nahiaren kontra? **20** O gizona!, zer zare zu Jainkoari ihardesteko? Ala lurrezko baxera batek erraten dio egin duenari: Zergatik egin nauzu hunela? **21** Ala ez du botherea lurrezko baxera egilleak orre beretik egiteko baxera bat ohorezko gauzetakotz eta bertze bat berriz gauzarik baxoenetakotz?

**22** Eta baldin Jainkoak erakutsi nahiz bere kolera eta ezagutarazi nahiz bere botherea, jasan baditu pasientzia handirekien kolerazko baxera batzu galtzeko propi direnak, **23** agertzea gatik bere gloriaren aberatasunak miseriakordiazko baxeren gainean, zeinak preparatu izan baiditu gloriakotzat, **24** gure gainean, zeinak deithu izan baigaitu ez xoilki judutarretarik, baina halaber jentilletarik ere... **25** Osee baithan dioen bezala: «Deithuko dut ene populu ez zena ene populu eta ene maite ez zena ene maitea eta miseriakordia ardietsi ez zuena miseriakordia ardietsi duena». **26** Eta gerthatuko da, erran izan zaien lekhuana «Ez zarete zuek ene populu», izanen baidire deithuak Jainko biziaren umeak. **27** Isaias berriz oihuz dago Israelentzat: «Baldin balitz ere Israelgo umeen nonbrea itsasoko harearen pare, ondarrak dire salbatuko; **28** ezen laburki konplutuko du erran duena eta gutituko bere populu bere justiziaren ariaz; baiki Jaunak eginen du lurraren gainean ebakitza handi bat». **29** Eta aitzinetik Isaiasek erran zuen bezala: «Baldinetariak armadetako Jaunak ez balarozkigu konserbatu gure hazi ondarrak, Sodoma eta Gomorra bezalakatu beharrak izanen giñen».

**30** Zer erranen dugu, beraz, baizen jentillek, zeinak ez baitzabiltzan justiziaren bilha, atzeman izan dutela justizia eta are fedetik den justizia, **31** Israel berriz, justiziaren legeari zarraikoena, ez dela heldu izatu justiziaren legerat? **32** Zergatik? Zeren ez baitzarraizkon fedez, baina bai obrez bezala; behaztopatu dire ezen trebekuko harriaren kontra, **33** eskribatua den bezala: «Huna non ematen dudan Sionen behaztopaguneko eta trebekuko barri bat, eta nork ere sinhestiko baidu haren baitan, eta hain ez da geldituko musuthuts».

## X. KAP.

**1** Alabaiñan, ene anaiak, desirutzen nuke ene bihotz guziaz hekien salbamendua, eta galdetzen ere diot Jainkoari lehiarekien. **2** Lekhukotasuna errendatzen daroet ezen badutela Jainkoarentzat zelo; hekien zeloa ordean ez da zientziaren arauerakoa, **3** zeren ez ezagutuz Jainkoa ganik heldu den justizia eta berea ifinitzerat lehiatuz, ez baitzaizko sumetitu Jainkoa ganik heldu den justiziari; **4** ezen legearen akhabantza Jesukristo da, haren baitan sinhestiko duten guziak justifikatuak izan daitezentzat.

**5** Moisek ezen eskribuz eman du, legeak manutzen duen justizia predikatzen duenak bizia izanen duela hartaz. **6** Ordean fedetik den justiziaz huna nola mintzo den: «Ez dezazula erran zure bihotzean: Nor iganen da zerurat?», erran nahi da, Jesukristo erakhartzeko, **7** edo «Nor jautsiko da leze behererat?», erran nahi da, Jesukristo hilletarik bizteko. **8** Baiñan zer dio Eskriturak? «Hurbillean duzu hitza, zure ahoan da eta zure bihotzean». Eta hori da fedearen hitz hura, zeina guk predikatzen baidarotzuegu. **9** Zeren eta baldin konfesatzen baduzu ahoz Jesukristo Jauna eta sinhesten baduzu bihotzez Jainkoak biztu izan duela hilletarik, salbatua izanen baitzare. **10** Ezen bihotzez sinhesti behar da justifikatua izateko, eta ahoz aithorra eman salbamendua ardiesteko. **11** Hargatik erraten du Eskriturak: «Nork ere sinhesten baidu haren baitan, eta hura ez da musuthuts geldituko».

**12** Ez da ezen hortan berezkorik judutarraren eta jentillaren artean, ezen Jaun bat eta bera da guziena, hura behartzen duten guzientzat aberats dena, **13** ezen Jaunaren izena deithoratuko duten guziak salbatuak izanen dire. **14** Nola ordean deithoratuko dute, baldin ez badute sinhesten haren baitan? Eta nola dute sinhestiko haren baitan, baldin ez badute aditzen hartaz mintzatzen? Nola berriz adituko dute, nihork ez badaroe predikatzen? **15** Eta nola predikatuko zaie, baldin predikariak igortzen ez bazaizte? Eskribatua den bezala: «Ala ederrak baidire bakea predikatzen dutenen oiñak, egiazko ontasunen berria ekhartzen dutenenak!». **16** Baina ez diote guziek obeditzen Ebanjelioari eta horrek erranarazi dio Isaiasi: «Jauna, nork sinhesti du guri predikatzen aditu darokuna?». **17** Fedea, beraz, aditzetik heldu da eta aditzea Jesukristoren hitza predikatua izatetik. **18** Baiñan diot: Ala ez dute aditu? Alabaiñan bada, «hekien boza banatu izan da mundu guzian eta hekien hitzak goan izan dire lurraren azken bazterretaraino».



**19** Berriz ere diot: Ala Israelek ez du ezagutu? Huna zer dioen Moisek lehenbizikoetarik: «Jeloskor errendatu zaituztet nik populu ez den populu batez; nazione adimendu gabeko batez sumiñaraziko zaituztet». **20** Isaiasek berriz erraten du ausarki: «Aurkhitu naute bilhatzen ez nindute-nek; agertu natzaie ene galderik ez zutenei». **21** Israelen sujetea aitititik erraten du: «Egun guzian hedatu izan diotzat ene eskuak populu sinhets-gogor bati eta ene hitzei kontra egiten zaroen bati».

## XI. KAP.

**1** Diot bada: Ala arbuiatu izan du Jainkoak bere populua? Ez horlarik, ezen neroni ere israeldarra naiz, Abrahamen hazitikakoa, Benyaminen leiñutikakoa. **2** Ez du arbuiatu izan Jainkoak bere populua, zeina baidu aitzindanik ezagutu. Ala ez dakizue Eskrituran Eliasez kondatzen dena, nola errekeritzen duen Jainkoa Israelen kontra?: **3** «Jauna, zure profetak hill dituzte, zure aldareak urratu dituzte, bakharra gelditu naiz eta bizia niri eraman nahiz dabilta».

**4** Ordean zer errepusta egin zioen Jainkoak? «Erresalbatu ditut neurtzat zazpi milla gizon, Baalen aitzinean belhaurikatu ez direnik». **5** Hala denbora huntan ere ondar batzu salbatuak izan dire graziazko hautu batez. **6** Baldin graziaz badire, ez dire beraz obren ariaz; bertzela grazia ordudanik ez da grazia.

**7** Zer da, beraz? Israelek bilhatzen zuena ez baitu ardietsi; hautatuak izan direnek ordean ardietsi bai dute, eta bertzeak itsutuak izan baidire, **8** eskribatua den bezala: «Eman daroe Jainkoak lokhumazko izpiritu bat; eman diotzate orai arteraiñokoan begiak ez ikusteko eta beharriak ez aditzeko». **9** Dabidek ere erraten du: «Izan bekie bere mahaiña arte bat bezala, zeinetan hartuak izanen baidire, eta barri bat bezala, zeinak behazto-paraziko baiditu; eta izan bezate merezi dutena; **10** illhun beitez hekien begiak ikus ez dezaketen bezala eta idukazu hekien bizkarra bethi makhurtua». **11** Diot beraz: Ala erori dire ez altxatzekotzat? Ez balinba, baiñan hekien eskasetik heldu zaie jentillei salbamendua, lehia daitezentzat hauiei jarraikitzerat.

**12** Baldin hekien erorikoa izan bada munduaren aberatstasuna eta hekien gutimendua jentillen aberatstasuna, zenbatenaz da gehiago izanen hekien bethegunea? **13** Zuei diotzuet ezen jentillei: Jentillen apostolua iza-

nen naizeino, ohoratuko dut ene kargua, **14** nolazbaitere lehian sararazitzeke ene anaiak eta hetarik zenbait salbarazitzeke.

**15** Baldinetariak ezen hekien galtzea munduaren errekonziliazioea izan bada, zer izanen da hekien kobratzea, hilletarik bizte bat baizen? **16** Baldinetariak orretik dena saindua bada, bai eta orrea ere; eta baldin erroa saindua bada, bai eta adarrak ere sainduak dire. **17** Baldin adarretarik zenbait hautsi izan badire eta zu basa oliba ziñelarik han xertatua izan bazare eta parte izan baduzu oliba ondoaren erroan eta fuiñean, **18** ez zaitezela handiets adarren kontra. Baldin handiesten bazare ere, ez duzu zuk erroa jasaten, bainan erroak zu jasaten zaitu.

**19** Erranen duzu naski: Adar hek hautsi izan dire, ni han xertatua izan nadintzat. **20** Hala da; bere sinhets gogortasuna gatik izan dire hek hautsiak; eta zu fedez zaude tieso; baiñan begirautzu superbiatzetik, zaude beldurtasunean. **21** Ezen baldin Jainkoak adar naturalak guphida izan ez baditu, beldur izateko duzu zu ere ez zaitzan izan guphida.

**22** Kontsidera zazu, beraz, Jainkoaren ontasuna eta garratztasuna; haren garratztasuna erori izan direnen alderat eta haren ontasuna zure alderat, baldin irauten baduzu ordean haren ontasunak eman zaituen estatuan; bertzela zu ere ebakia izanen zare. **23** Aitititik hek ere bere sinhets gogortasunean egoten ez badire, xertatuak izanen dire; botheretsu da ezen Jainkoa berriz ere hek xertatzeko.

**24** Ezen baldinetariak zu naturalki basa oliba zenetik ebakia izan bazare eta naturaren kontra oliba onean xertatua, zenbatenaz areago adar naturalak izanen dire bere olibaondo propioan xerthatuak?

**25** Ez dut nahi ezen, ene anaiak, ez dezazuen jakin misterioa hau, zebeñ begietan zuhur izan ez zaitezten: Israel partez erori izan dela itsutasunean, nazioeen ospea sar daiteken artean Elizan, **26** eta hala salbatua izan dadintzat Israel guzia, eskribatua den bezala: «Siøndik ethorriko da Salbatzaillea, Jakoben ganik gaixtagintasuna khenduko duena, **27** eta hori da hekiekien egiñen dudan allientzia, khendu dituzkedanean hekien behatuak». **28** Egia da, Ebanjelioaren ariaz etsai dire zuen gatik; ordean hau-tuaren ariaz maite dire bere aiten gatik. **29** Urriki gabe dire ezen Jainkoaren dohaiñak eta Jainkoaren deia.

**30** Nola bada nozbait zuek ere ez baitzinduten sinhesten Jainkoa baitan, gero ordean miserikordia ardietsi baiduzue hekien sinhets gogortasuna gatik, **31** hala hek ere orai ez dute sinhetsi Jainkoak miserikordia egin



nahi izan darotzuela, hek ere bere aldian miserikordia ardiets dezaten gatik. **32** Utzi izan ditu ezen Jainkoak guziak sinhets gogortasunean, guziei miserikordia egitea gatik.

**33** O Jainkoaren zuhurtziaren eta zientziaren aberatstasunen ondo barrena! Ala haren juiamenduak baidire ezin konprenituzkoak eta haren bideak ezin ezagutuzkoak! **34** Nork ezagutu ahal du ezen Jaunaren gogo? Edo nor izan da haren kontseilluko? **35** Nork eman izan dio hari lehenik ordainez burupe izateko? **36** Alabaiñan haren ganik eta hartaz eta haren baitan dire guziak. Hari eman dakioela gloria mendetako mende guzietan. Amen.

## XII. KAP.

**1** Errekeritzen zaituztet, beraz, ene anaiak, Jainkoaren miserikordiaz, arren ofrenda diotzotzuen zuen gorphutzak hostia bizi bat, saindu bat eta Jainkoaren gogorako bat bezala, zein baida zor diozuen zerbitzu arrozoinetzkoa. **2** Eta ez zaitezela molda mende hunen gaiñean; aitzitik erreforma zaitezte sentimendu berri batzu harturik, ezagut dezazuentzat zer den Jainkoaren nahia, zer den ona, zer den barren gogara eta zer den perfeta.

**3** Hala niri eman izan zaitan graziaren berthutez exhortatzen zaituztet zuek guziak, ez zaitezten altxa behar baino gehiago zebe buruez dituztuen sendimenduetan; aitzitik izan detzatzuen sentimendu modestak eta batbederari Jainkoak partitu duken fedearen neurriaren arauerakoak. **4** Ezen hala nola gorphutz batean hainitz membro baiditugu, membro guziek ordean ez baidute lan bera, **5** hala hainitz garelarik, gorphutz bat gare Jesukristo baitan eta guziak gare bata bertzearen membro. **6** Nola bada dohain diferentak baiditugu eman izan zaikun graziaren arauera, profeziako dohaina errezibitu duena balia bedi fedearen erregelaren arauera; **7** ministeriorat deithua dena betxeiko ministerioari; irakasteko dohaina duena aplika bedi irakasten; **8** exhortatzeko dohaina duena, hari bedi exhortatzen; amoina egiten duenak egin beza sinplizitatearekien; bertzeen gobernua duenak, izan beza hetaz artha; miserikordiazko obrak egiten dituenak, egin betza alegeraki.

**9** Zuen maitatzea izan bedi alegiarik gabe. Duzuen higin gaixkia eta zatxeizkote ungiari. **10** Maita zazue elkhar anaiatasuneko amudio batez; aitzin zazue batak bertzea elkhar ohoratzen. **11** Ez zaretan nagi zuen eginbideetan; konserba zaitezte Izpirituko lehiaduran; zerbitza zazue Jauna. **12**

**Boz** zaitezte esparantzaz; izan zaitezte pairakor atsekabeetan, iraunkor othoitzean. **13** Amultsu sainduak sainduak beharkizunak deskantsatzeko arrotzei begitarte egille. **14** Benedika zatzue zuen persekutatzaillak; benedikoa zatzue eta begirautzue madarizionerik hei arthikitzetik.

**15** Boz zaitezte bozkarioan direnekien; egizue nigar nigarrez daudenekien. **16** Sar zaitezte batzu bertzeen sendimenduetan; ez zaitezte altxa zebe baitan handigozko gogoetez; aitzitik apha zaitezte presuna beheratuen alderat, ez zaretan zuhur zebe begi propioetan. **17** Ez diozazuela bihur nihori gaixkia gaixkiarentzat; egizue ungi dena, ez xoilki Jainkoaren aitzinean, baiñan halaber gizon guzien aitzinean ere. **18** Egin ahal badadi eta zuen baitan dagoen guziaz, duzen bakea gizon guziekien. **19** Ez zaitezte bendeke zebonek, ene maiteak, bainan utzazue kolera iragaterat, eskribatua da ezen: «Niri dagot bendekea eta nik dut eginen», diotza Jaunak.

**20** Aitzitik baldin gose bada zure etsaia, emozu jaterat; egarri bada, emozu edaterat; ezen hori eginez ikhatz biziak diotzatzu bilduko buruaren gaiñerat. **21** Begirautzu garaitua izan ez zaitezten gaixkiaz; aitzitik lehia zaite garaitzerat gaixkia ungiatz.

## XIII. KAP.

**1** Mundu guzia izan bedi goragoko bothereei behehitua, ez da ezen botherarik Jainkoa ganik heldu ez denik; diren guziak alabainan Jainkoaz ifiniak dire. **2** Hala bothereei kontra egiten daroena, Jainkoaren ordenamenduaren kontra lehiatzen da, eta horla lehiatzen direnek kondenzio-nea erakhartzen dute bere buruaren gaiñerat. **3** Ezen ez da printzeez beldur izateko ungi egiten denean, baiñan bai gaixki egiten denean. Nahi duzu, bada, ez beldur izan bothereez? Egizu ungi eta laudatuko ere zaituzte, **4** ezen Jainkoaren ministre da zure onetako.

Baldin ordean gaixki egiten baduzu, zaren beldur orduan; zeren ez baidu behar gabe ezpata ekhartzen, Jainkoaren ministre denaz geroz, gaixki egiten duena punitzeko. **5** Arren beraz, behar duzue izan sumetituak, ez xoilki gaztiguaren beldurrez, baiñan halaber kontzientzia gatik ere. **6** Hargatik pagatzen ere diotzatzue tributuak; zeren Jainkoaren ministre diren hortan berean ere, haren zerbitzatzen hari direnak.



7 Bihur diozazue, beraz, batbederari zor zaioen: tributua zaioenari tributua; thaila zaioenari thaila; beldurra zaioenari beldurra; ohorea zaioenari ohorea. 8 Ez zaitetzela geldi zordun nihoren ganat, lekhat elkhar maitatzeaz baizen, ezen lagun proximoa maite duenak legea konplitu duke. 9 Hala da, ezen «Ez duzu egiñen adulteriorik; ez duzu egiñen heriotzerik; ez duzu ebatsiko; ez duzu erranen falso testimoniorik; ez zare gutziatuko bertzerenaz» eta diren bertze manamendu guziak hitz huntan zarratuak aurkhitzen dire: «Maitatuko duzu zure lagun proximoa zeure burua bezala».

10 Lagun proximoa ganako amudioak ez du egiten deusere, nihori bidegabe egin diozokenik; eta hala legearen bethetasuna amudioa da.

11 Eta badakigu ordu ere dela hortakotz, ezen muga da ja iratzar gaitzen gure lokhumatik, zeren gure salbamendua hurbillago baidugu fedea errebitu ginduenean baino. 12 Gaua iragan da eta eguna hurbildu; utzatzigun, beraz, illhunbetako obrak eta jauntzatzigun argitako armak. 13 Ibili gaitzen honestoki, egunaz nihor dabillan bezala, ez jankorretan eta hordikerietan; ez atsegin lizunetan eta lohikerietan; ez ihardukizetan eta inbidietan; 14 bainan besti zaitetze Jesukristo Jaunaz eta ez duzuela haragiaz gurarik haren gutiziei behatzen zaizten gauzetan.

#### XIV. KAP.

1 Fedean flako dena, bada, har zazue amultsuki harekien ihardukitzen hari gabe. 2 Ezen batak uste du jan dezakela gauza guzietarik; flako denak berriz ez du jaten beharrik baizen. 3 Jaten duenak ez beza mezpreza jaten ez duena; eta jaten ez duenak ez beza kondena guzietarik jaten duena, Jainkoak hartu duenaz geroz bere zerbitzurat.

4 Nor zare zu bertzeren zerbitzaria horla kondenatzeko? Ala egon dadin xutik, ala eror dadin, haren nausiari dagoka ikustea. Egonen da ordean xutik, zeren Jainkoa aski botheretsu baida hura sustengatzeko. 5 Hala batak egiten du diferentzia egunaren eta egunaren artean; bertzeak egun guziak berdin dagozka. Batbederak egin beza gogoak ematen dioen bezala. 6 Eguna berezten duenak Jaunaren gatik egiten du; jaten duenak Jaunaren gatik jaten du, Jainkoari eskerrak ematen diotzanaz geroz. Hala-ber jaten ez duenak ere Jaunaren gatik ez du jaten eta eskerrak ematen diotza Jainkoari.

7 Ezen gutarik nihor ez da bizi beretzat, ez nihor hiltzen beretzat. 8 Edo dela bizi garen, Jaunarentzat bizi gare; nahiz hill gaitezen, Jaunarentzat hiltzen gare. Beraz nahiz garen bizi, nahiz garen hiltzen, Jaunarenak gare. 9 Hortakotz ezen hill izan da eta biztu da Jesukristo: hala hillen nola bizien gaiñean nausitasuna izateko.

10 Zuk, bada, zergatik kondenatzen duzu zure anaia? Edo zuk zergatik meziprezatzen duzu zurea? Guziok ezen agertuko gare Jesukristoren tribunalaren aitzinean. 11 Eskribatua da ezen: «Bizi naiz ni, dio Jaunak: ene aitzinean khurtuko dire belhaun guziak eta hariko dire mihi guziak Jainkoari laudorio ematen». 12 Hala gutarik batbederak beretzat kontu ematen dio Jainkoari.

13 Ez dezagula, beraz, gehiago jujea elkhar batak bertzea; aitzitik gogoa zaitetze ez diozuela eman behar zebeñ anaiari trebekagarririk edo eskandalarik. 14 Badakit eta fida naiz Jesukristo gure Jauna baitan deusere ez dela berenez lohi denik; gauza bat lohitzat dagokanean nihork, harentzat bai lohi da.

15 Baldinetariak ezen zu zerbaitetarik jaten ikustek pena badio zure anaiari, ja ez zabilta karitatearen arauera. Ez dezazula zure jatea gatik galaraz gizon bat, zeiñarentzat hill izan baida Jesukristo. 16 Begirautzue, beraz, gaixki mintzaraztetik guk egiten dugun ungiar. 17 Ez da ezen Jainkoaren erresuma egiten duena jatea eta edatea, baiñan justizia, bakea eta Izpiritu Saindua baitango alegrantzia. 18 Hala molde hortan Jesukristo zerbitzatzen duena agradatzen zaio Jainkoari eta laudatua da gizonez.

19 Jarraik gakizten, beraz, bakea ekhar ahal dezaketen gauzei eta begira detzagun gere artean edifika gaitzaketen gauzak. 20 Ez dezazula jateko baten gatik desegin Jaunaren obra. Egiaz jateko guziak xahuak dire; ordean gaizki egiten du gizon batek hetarik jateaz, bertzeak hortaz eskandalisatzen dituenen. 21 Hobe da haragirik ez jatea eta arnorik ez edatea eta deusik ez egitea zure anaia eroraraz ahal dezakenik edo eskandalisa dezakenik, ezberen gaitzen dezakenik, zeren den flako. 22 Zuk behar den sinhestea duzu? Idukazu zure bihotzean Jainkoaren aitzinean. Dohatsu diteke egin nahi duen gauzan bere kontzientziak kondenatzen ez duena. 23 Bainan duda egiten duenak, hea jan ahal dezaken, baldin jaten badu kondenatua da, zeren ez baida hari duen sinhestearen arauera; bada sinhestearen arauera egiten ez den guzia bekhatu da.



## XV. KAP.

1 Behar ditugu, beraz, guk borthitzago garenek jasan flako direnen herbaltasunak eta ez gere kontentamendu propioak bilhatu. 2 Zuetarik batbedera entseia bedi bere lagun proximoa kontentatzerat on diren gauzetan eta hura edifika dezaketan. 3 Alabaiñan Jesukristo ere ez da bere burua kontentatzerat haritu; aitzitik eskribatua den bezala: «Zu iroiztatu zaituztenen iroiak ene gainerat erori dire». 4 Ezen eskribatuak diren guziak gure eskolatzeko dire eskribatuak, pasientziaz eta eskrituratarik dugun konsolazioneaz har dezaguntzat esparantza handi bat.

5 Pasientziatako eta konsolazionetako Jainkoak, bada, dizuela grazia sentimendu berak izateko elkharrentzat Jesukristo baitan, 6 gogo batez eta aho batez ohora dezazuentzat Jainkoa, zein baida Jesukristo gure Jaunaren Aita. 7 Hargatik, bada, jasan zazue elkhar Jesukristok zuek jasan zaituzten bezala Jainkoaren ohoretan.

8 Erraten darotzuet ezen Jesukristo Ebanjelioaren ministre eta iratszaille izan dela zirkonzionekoen alderat, Jainkoaren hitza egitan athera zedintzat hekien aitei egin ziotzoten agintzen konpliteaz, 9 jentillek berriz Jainkoa ohora lezantentzat bere urrikalmendua gatik, eskribatua den bezala: «Horrengatik, Jauna, darotzut laudorio emanen jentillen artean eta dut kantatuko zure izenaren ohoretan». 10 Errana ere da berriz: «Jentillak, boz zaitezte haren populuarekien batean». 11 Eta oraino berriz: «Jentillak, lauda zazue guziek Jauna; eta, populuak, zuek ohora zatzue guziek haren handitasunak». 12 Isaiak ere erraten du: «Ilkhiko da Jeseren zainetik urthame bat, zeña altxatuko baida jentillen gainean erreginatzerat eta jentillek haren baithan emanen dute bere esparantza». 13 Esparantzetako Jainkoak, bada, bethe zaitzabela bozkarioz eta bakez zuen fedearen bidez, esparantza berretuaz dohantzat zuen baitan Izpiritu Sainduaren berthutearekien batean.

14 Neroni ere behintzat seguratu naiz zuetaz, ene anaiak, betheak zaretela karitatez eta bai jakintasun guziez, eta hala eskola ahal dezakezuela elkhar batzuk bertzeak. 15 Hala ere eskribatu darotzuet bau, ene anaiak, eta benturaz ausarkixe, nahiz zuek orhoitarazi ja dakizkitzuen gauzez, Jainkoak egin izan darotan graziaren arauera. 16 Jesukristoren ministre izateko jentillen artean, Jainkoaren Ebanjelioaren saindutasuna ezagutarazitzen dudalarik, jentillen ofrenda ungi errezebitua izan dadintzat eta Izpiritu Sainduak saindu bilhaka dezantzat.

17 Badut, beraz, zertaz gloria Jesukristo baitan Jainkoari behatzen zaizkon gauzen gainean. 18 Ez ninteke ezen atrebi erraterat zer ez duen egin nitaz Jesukristok jentillak erakhartzeko obedientziarat hitzaz eta obrez, 19 mirakuilluen eta prodijioen berthutez eta Izpiritu Sainduaren botherez; halako maneraz, non garraiatu izan baidut Jesukristoren Ebanjelioa baster guzietarat Jerusalemetik Illiriarainokoan.

20 Ordean predikatu izan dut Ebanjelio hori, ez Jesukristoren izena ezagutua zen tokietan, bertzeren zimenduaren gainean ez bastitzea gatik, bainan eskribatua denaren arauera: 21 «Hartaz deusik erran ez zitzaienak izanen dire argituak eta hartaz mintzatzen aditu ez zutenek izanen dute ezagutza».

22 Horri dagokala izatu ere naiz asko aldiz trabatua zuen ganat goatetik eta naiz gibelatua orai arterainokoan. 23 Orai ordean, ez baidut gehiago herri hautan norat goan eta desira baidut zuen ikusterat goateko ja haintz urthez geroztik, 24 Espainiarat goateko abiatzen gaizenean, esparantza dut iragatean ikusiko zaituztedala eta harat zuek gidatuko nauzuela, zuekien izateko atseginaz apher bat gozatu ondoan.

25 Orai bada banoha Jerusalemerrat sainduei zenbait amodia eramaterat. 26 Plazer izan dute ezen Mazedoniakoek eta Akaiakoek biltzea zerbait Jerusalemeko sainduen artean diren pobreentzat. 27 Atseginiekien hortarat ekharriak izan dire, eta zor ere daroe. Ezen baldin hekien ontasun izpiritualetan parzuner egin izan badire jentillak, hauek ere behar daroe hei bere ontasun tenporaletarik parte egin.

28 Hori, bada, egin dukedanean eta amodia hori partitu dioketedanean, iraganen naiz zuen baitharik Espainiarat goatean. 29 Eta badakit ikusterat heldu natzaitzuenean, Jesukristoren Ebanjelioko benedizioneen frankiarekien ethorriko naizela. 30 Errekeritzen zaituztet, beraz, ene anaiak, Jesukristo gure Jaunaz eta Izpiritu Sainduaren karitateaz, lagun nazazuen enetzat Jainkoari othoitz eginez, 31 arren, begira nazan fedearen etsai Judean direnetarik eta Jerusalemeko sainduei errendatzerat nohakoiten zerbitzua agrada dakien, 32 nathorrentzat gero zuen ganat bozkarioekien, baldin Jainkoaren nahia hala bada, eta deskantsa nadintzat zuekien. 33 Bakearen Jainkoa dela, bada, zuekien guziekien. Amen.



## XVI. KAP.

1 Gomendatzen darotzuet, bada, gure arreba Febe, Zenkreako Eliza zerbitzatzen duena, 2 arren, dezazuen errezi bi Jainkoaren ariaz sailduen dagoten bezala; dezazuen eta lagun zuen beharra ahal duken egiteko guzietan; ezen berak ere hainitzi zerbitzu egin izan daroe eta bai nerone-ri ere.

3 Saluta zatzue Priska eta Akila, Jesukristoren zerbitzuan enekien tra- baillatu izan direnak, 4 eta niri bizia salbatzeko bere buruak hurriskuan eman izan dituztenak; zein ez bainaiz ni bakharra eskerrak daroztedana, bainan orobat baidiotzate jentilletako Eliza guziek ere. 5 Saluta zazue halaber hekien etxean den Eliza. Saluta zazue Epenete, ene maitea, zein baida Asiak Jesukristori ekharri dioen lehenbiziko fruitua.

6 Goraintzi errozue Mariari, zuentzat hainitz trailla denari. 7 Goraintzi Andronizari eta Juniari, ene ahaideei eta presondegiko lagunei, zeinak konideragarriak baidire Apostoluen artean eta zeinik ni baino lehen baitziren Jesukristorenak.

8 Agur errozue Anpliat, Jauna baithan hainitz maitatzen duanari. 9 Orobat Urbano Jesukristoren zerbitzuan enekien trailla denari, eta Estaxin ene maiteari.

10 Saluta zazue Apelles prestua Jesukristoren zerbitzaria. 11 Saluta zatzue Aristobularen etxeko direnak. Saluta zatzue Herodion ene kusina. Saluta zatzue Narziseren etxeko direnak eta Jauna zerbitzatzen dutenak. 12 Goraintzi Trifene eta Trifosa, Jaunaren zerbitzuan trailla den hari direnei. Saluta zazue Persida ene maitea eta Jaunaren zerbitzuan hainitz trailla dena. 13 Saluta zazue Rufus, Jaunaren berezia, eta haren ama, enea ere dena. 14 Goraintzi Asinkrito, Flegon, Hermas, Patrobe, Hermes eta gure anaiak hekiekien direnei. 15 Saluta zatzue Filologo eta Julia, Neree eta haren arreba, bai halaber Olinpiada eta hekiekien diren saildu guziak. 16 Saluta zazue elkar batak bertzea musu saildu batez. Salutatzen zai- tuzte halaber zuek ere Jesukristoren Eliza guziek.

17 Othoitz egiten darotzuet ordean, ene anaiak, goardia emateaz zuek ikhasi duzuen dotrinaren kontra eskatimak eta eskandalak sorrarazi- tzen dituztenei, eta hetarik hastantzeaz, 18 halakoek ezen ez dute Jesu- kristo gure Jauna zerbitzatzen; aitzitik bere sabelaren gathibu dire eta hitz ederrez eta balakuz enganatzen dituzte izpiritu simpleak. 19 Zuen obe- dientzia ezagutua da mundu guzian eta hortaz atsegin dut zuen gatik.

Ordean nahi nuke izan zaitezten zuhur onekotz eta simple gaixkikotz. 20 Bakearen Jainkoak, bada, leher dezala lauster Satana zuen oiñen azpian. Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien.

21 Goraintzi darotzue Thimotheo ene lagunak, bai eta halaber Luzius eta Jason eta Sosipatre ene ahaideek. 22 Salutatzen zaituzte Jaunaren izenean Tertius, zeinek eskribatu baidut buhun hau. 23 Saluta- tzen zaituzte Kajusek, ene ostatazailleak, eta bai Eliza guziak; goraintzi Erastus hiriko thresoreroak eta bai Kuartus gure anaiak ere. 24 Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien guziekien. Amen.

25 Zuek borthizteko bothere duenari, bada, nik predikatzen duan Ebanjelioan eta Jesukristok predikatu duen dotrinan, iraganeko mende- tan estalia egon ondoan 26 orai profeten eskribuez, Jainko eternalak exle- jituia zagokan bezala, agertua eta nazione guzietan, fedeari obedi diozaten- tzat, ezagutua izan den misterioaren rebelazionearen arauera, 27 Jainkoari, bada, bera bakharra zuhur denari, ohore eta gloria Jesukristoz mende- tako mende guzietan. Amen.





## J. PAULO APOST. LEHENBIZIKO GUTHUNA KORINTHIARREI

### I. KAP.

**1** Paulok, Jainkoaren nahiaz Jesukristoren Apostolu izaterat deit-huak, eta Sosthenes haren anaiak, **2** Jainkoaren Eliza Korinthan denari, Jesukristok santifikatu eta saildu izateko deithu dituen fidelei, eta Jesu-kristoren izena diren eta garen lekhu guzietan deithoratzen duten guziei, **3** Jainko gure Aitak eta Jesukristo gure Jaunak dizuela bakea eta grazia.

**4** Eskerrak ematen diotzat bethi ene Jainkoari zuentzat, Jesukristoz egin izan darotzuen graziaz, **5** zeren hartaz aberastuak izan baitzarete ontasun suerte guzietan, hitzaren eta jakintzaren dohain guzietan, **6** eta hortaz egiaztatua izan baida zuen presunetan Jesukristoz irakatsi izan dena, **7** halako maneraz, non ez baiduzue eskas dohain garabik, Jesukristo gure Jauna ager daiteken begira zaudetelarik. **8** Eta Jainkoak borthiztuko ere zaituzte azkeneraiño, hobetik gabe aurkhi zaiteztentzat Jesukristo gure Jauna ethorriko den egunean. **9** Fidel da Jainkoa, zeñiez deithuak izan baitzarete Jesukristo haren Seme gure Jaunaren partzunezkat.

**10** Errekeritzen zaituztet bada, ene anaiak, Jesukristo gure Jaunaren izenean, molde berean mintza zaitezten guziak eta ez den zuen artean eskatimarik, aitzitik zaretan bat egiñak gogoz eta sentimenduz. **11** Adiara-zi darotate ezen Kloe baitakoek zuetaz, ene anaiak, debadioak direla zuen artean; **12** erran nahi dut, zuetarik batbederak diotsala: «Ni behintzat Paulorena naiz» eta «ni Apollorena», «ni berriz Zefasena» eta «ni Jesukristorena». **13** Parthitua othe da Jesukristo? ala Paulo izan da gurutzefikatua zuentzat? ala Pauloren izenean izan othe zarete bathaiatuak? **14** Eskerrak diotzat Jainkoari, zeren ez baidut bathaiatu zuetarik nihor, Krispo eta Kaius baizen, **15** nihork erran ez dezantzat ene izenean bathaiatuak zaretela. **16** Bathaiatu izan dut, bada, Estefanesen familia ere; gainerakoan ez dakusat bertzerik nihor bathaiatu othe dudan.

**17** Zeren ez bainau igorri izan Jesukristok bathaiatzen haritzerat, baiñan bai Ebanjelioaren predikatzerat; eta hala ere ez hitzezko zuhur-

tzian, ez desegitea gatik Jesukristoren gurutzia. **18** Ezen gurutziaz erraten dena, galtzen direnei behintzat erhokeria zaie; salbatzen direnentzat ordean, erran nahi da guretzat, berthutea eta indarra. **19** Hargatik ere da eskribatua: «Suntsituko dut zuhurren zuhurtzia eta arbuaiatuko jakintsu-nen jakintasuna». **20** Non da zuhurra? Non da legeko dotora? Non da mundu huntako gauzak jakin beharrez zebillana? Ez du erho eragin Jainkoak mundu huntako zuhurtzia? **21** Ezen munduak bere zuhurtziaz ez baidu ezagutu Jainkoa zuhurtzia dibinoaren obretan; Jainkoaren plazera izan da predikazionearen erhokeriaz salbatzea sinhesten dutenak.

**22** Alabaiñan judutarrak daudez mirakuillu galdez, eta jentillak berriz dabilta zuhurtziaren bilha. **23** Guk ordean dugu predikatzen Jesukristo gurutzefikatua, judutarrei alabainan eskandala, jentillei berriz erhokeria zaioena, **24** ordean deithuak direnei, hala judutarrei nola jentillei, Kristo, Jainkoaren indarra eta Jainkoaren zuhurtzia dena. **25** Zeren Jainkoa bait-han erho diruriena zuhurrago baida gizon guzien zuhurtzia baiño, eta Jainkoa baitan herbal diruriena borthitzago gizon guzien indarra baiño. **26** Ikusazue ezen, ene anaiak, zein diren zuetarik deithuak izan direnak; guti dire haragiaren arauera zuhur direnetarik, guti botheretsu direnik, guti nobletarik. **27** Aitzitik munduaren arauera gutien zuhur direnak ditu Jainkoak hautatu zuhurren konfunditzea gatik; eta munduaren arauera herbal direnak ditu berezi borthitzen direnen konfunditzeko. **28** Munduaren arauera baxoen eta mezprezagarrien direnak, ezdeus ere direnak, ditu hautatu zerbeit direnen desegitea gatik. **29** Handiets ez dadin gizon garabik haren aitzinean. **30** Bide hortaz, bada, zarete Jesukristo baitan, zeñ izan baida Jainkoaz ifinia, gure zuhurtzia, gure justizia, gure saindutasuna eta gure erresketamendua izateko, **31** eskribatua den bezala: «Glorifikatzen den guzia, Jainkoa baitan dadin glorifika».

### II. KAP.

**1** Ni ere ethorri izan naizenean zuen ganat, ene anaiak, Jesukristoren Ebanjelioa kuei irakasterat, ez naiz ethorri izan mintzo ederraren edo zuhurtziaren gorapenean. **2** Ez diot ezen eman ene gogoari deusere nakie-la zuen artean, baizen Jesukristo, eta hura ere gurutzefikatua. **3** Eta zuen baitan izatu naizeño, beheratasunean, izialduran eta ikhara handitan izatu naiz. **4** Eta ez naiz baliatu izan kuei mintzatzean eta predikatzean zuhurtzia humanoaren solhas gogogarriz, bainan bai Izpiritu Sainduaren bert-



hutearen erakustez, 5 zuen fedea izan ez dadintzat gizonen zuhurtziaren gaiñean ifinia, baiñan bai Jainkoaren berthutearen gaiñean.

6 Hala ere bada predikatzen dugu bai zuhurtzia perfeten artean; zuhurtzia ordean ez mundu huntakoa eta ez mundu huntako prinzeena, zeñak suntsitzen baidire, 7 baiñan predikatzen dugu misterio bat bezala Jainkoaren zuhurtzia, zeina baida gordea, eta zeña mende guziez aitzine-tik preparatu izan baidu Jainkoak gure gloriako, 8 zeña mundu huntako prinzeetarik batek ere ez baidu ezagutu izan; baldinetariak ezen ezagutu izan balute, ez zuketen gloriako Jauna gurutzefikatuko. 9 Baiñan eskribatua den bezala: «Begiak ikusi izan ez duena, beharriak aditu izan ez duena, gizonari gogorat ethorri izan ez zaioena da Jainkoak hura maite dutenentzat preparatu izan duena».

10 Guri ordean agertu daroku hori Jainkoak bere Izpirituaz; Izpirituak ezen penetratzen ditu gauza guziak, bai Jainkoaren sekretu gordeenak ere. 11 Ezen gizonetarik zeñek daki gizonaren baitan dena, baizen gizonaren Izpirituak, haren baithan denak? Hala Jainkoa baitan dena nihork ez daki Jainkoaren Izpirituak baizen. 12 Bada guk ez dugu mundu huntako Izpiritua errezipitu izan, baiñan bai Jainkoa ganikako Izpiritua, ezagut detzaguntzat Jainkoak egin izan darozkigun emaitzak. 13 Eta hek ditugu irakasten ez gizonen zuhurtziak irakasten duken hizkuntzaz, baiñan Izpirituak irakasten duenaz, gizon izpiritualei gauza izpiritualak antolatzen diotzotegula. 14 Ordean gizon animalak ez ditu konprenitzen Jainkoaren Izpiritutik diren gauzak, erhokeria zaizko ezen, eta ezin konpreni ere detzake, zeren izpiritualki examinatzen baidire. 15 Gizon izpiritualak aitzitik jujeatzen du gauza guziez, eta bera nihork ez du jujeatzen. 16 Ezen nork ezagutzen du Jaunaren gogoa hari konseillu emateko? Guk ordean Jesukristoren Izpiritua dukegu.

### III. KAP.

1 Ni ere, ene anaiak, ezin mintzatu natzaitzue gizon izpiritual batzuei bezala, bainan bai gizon haragikor batzuei bezala, Jesukristo baitan oraiño haur diren batzuei bezala. 2 Eznez hazi izan zaituztet, ez jakiz, ez baitziñeten gai oraiño; eta oraiko orenean ere ez zarete gai, zeren haragikor baitzarete oraiño. 3 Ezen targoak eta jelosiak direnaz geroz zuen artean, ez zarete bada haragikoiak eta ez zabiltzate gizonaren arauera? 4 Batak

erraten duenean: «Ni behintzat Paulorena naiz»; bertzeak berriz» Ni Apollorena», ez zarete bada haragikoiak? Zer da bada Apollo eta zer da Paulo?

5 Haiñaren zerbitzariak, zeñaren baithan baiduzue sinhetsi, eta batbedera Jaunak partitu dioken dohaiñaren arauera. 6 Nik landadu duket, Apolluk ihinzatu; ordean Jainkoa da berretzea eman duena. 7 Hala landatzen duena ez da deus, ez eta ihinzatzen hari dena ere; baiñan berregunea ematen duen Jainkoa da guzia. 8 Landatzen hari dena, bada, eta ihinzatzen hari dena bat dire eta batbederak errezipituko du bere saria bere lanaren arauera. 9 Ezen Jainkoarekien lanean hari garenak gare; zuek berriz zarete Jainkoaren landa eta Jainkoaren edifizioa.

10 Jainkoak eman izan darotan graziaren arauera nausi zuhur batek bezala ezarri izan dut nik zimendua; bertze bat haren gaiñean bastitzen hari da; baiñan batbederak begira beza nola bastitzen duen zimendu horren gaiñean. 11 Bertze zimendurik ezen nihork ezin ezar dezake, ja ezarria denaz bertzerik, zeña baida Jesukristo. 12 Baldinetariak nihork zimendu horren gaiñean bastitzeko ematen badu urre, zilhar, barri preziatu, zur, belhar, lasto, batbederaren obra 13 ageri izanen da; Jaunaren egunak ezen emanen du agerian. Zeren suak agerazaziko baidu eta batbederaren obra nolakoa den suak frogatuko baidu. 14 Haren gaiñean bastitu duken zenbaiten obrak irauten badu, saria .errezipituko du. 15 Bertze baten obra erretzen bada, kaltea izanen du; bera bada hala ere salbatuko da; ordean su artetik bezala.

16 Ez dakizue Jainkoaren tenplua zaretela eta Jainkoaren Izpiritua zuen baitan egoten dela? 17 Bada nihork Jainkoaren tenplua profanatzen badu, suntsituko du Jainkoak haiña; Jainkoaren tenplua ezen saindua da eta zuek zarete tenplu hura.

18 Nihork ez beza bere burua engana; baldinetariak zuen arteko norbeiti iduritzen bazaio zuhurra dela munduaren arauera, egin bedi erho, zuhur izateko.

19 Mundu huntako zuhurtzia ezen erhokeria da Jainkoaren aitzinean, eskribatua den bezala: «Atzemanen ditut zuhurrak bere finezian berean». 20 Eta bertze lekhu batean: «Jaunak ezagutzen bide ditu zuhurren gogoe-tak zein diren banoak». 21 Hala nihork ez beza eman bere gloria gizonetan. 22 Guziak ezen zuenak dire. Nahiz Paulo nahiz Apollo, nahiz Zefaz nahiz mundua, nahiz bizitza nahiz heriotzea, nahiz presentekoak nahiz



ethorkizunekoak, guziak dire zuentzat. **23** Zuek berriz zarete Jesukristoren eta Jesukristo da Jainkoarena.

#### IV. KAP.

**1** Beha bekigu guri Jesukristoren ministroei bezala eta Jainkoaren misterioen dispensariari bezala. **2** Orai hemen dispensarietarik galdetzen dena da bakhoitxa leial aurkhi dadin. **3** Nik behintzat antsia guti dut juia nazazuen zuek edo zeinahi gizonek, baiñan ez dut neronek ere neure burua jujeatzen. **4** Ezen neure konzientziak deusere erantzuten ez daraman arren, ez naiteke hargatik justifikatua. Baiñan ni jujeatzen nauena Jainkoa diteke. **5** Hala ez dezazuela jujea denbora gabe Jauna dathorren artean, zeñiek argitarat eman baiditu ilhunbean daudezen gauzak eta ageraziko bihotzetako sekretu gordeak; eta orduan batbederak izanen duke Jainkoa ganik dagokon laudorioa.

**6** Gauza hauk bada, ene anaiak, proposatu izan ditut neure izenean eta Apollorenean zuen gatik; gure baithan ikhas dezazuentzat ez altxatzen bata bertzearen kontra edozeñen ariaz nik eskribatu darotzuedanaz gehiago. **7** Nork zaitu ezen berezkatzen? Zer duzu berdin errezibitu izan ez duzunik? Baldinetariak bada errezibitu izan baduzu, zeri handitzen zaizko errezibitu izan ez bazindu bezala? **8** Ja aseak zarete, ja aberastuak zarete; gu gabe erregiñatzen duzue eta oxala erregiñatzen bazindute guk ere zuekien batean erregiña dezaguntzat. **9** Uste dut ezen Jainkoak gu Apostoluetarik azkenekoak mustratzat eman gaituela, heriotzerat destinaturikako jende batzu bezala; halaz eta ikuskari egin gaiztenaz geroz munduari eta aingeruei eta gizonei. **10** Gu erhoak gare Jesukristoren amorea gatik; zuek ordean zuhiarrak zarete Jesukristo baithan; gu flakoak gare, zuek ordean indartsuak; zuek ohoratuak zarete, gu ordean mesprezatuak. **11** Oraiko oreneraiñokoan gosearekien eta egarriarekien dihardukagu, bulhuziak gare, zehatzen gaituzte eta ez dugu ere egoitza soseguzkorik. **12** Lanean eta traillaian hari gare gere esku propioez; madarikatzen gaituzte eta guk hek benedikatzen ditugu; persekutatuak garabiltzate eta pairatzen dugu; **13** ahakarrez bethetzen gaituzte eta othoitzetan gaudez; orai arteraiñokoan munduko lizunkeriak bezala gaduzkate eta guzietarik arthikitzen diren fits ondarrak bezala.

**14** Ez ditut zuek ahalkarazitzea gatik hauk eskribatzen; aitzitik ene haur maiteei bezala ematen darozkitzuedan abisuak ditezke. **15** Ezen

hamar milla nausi bazintuzte ere Jesukristo baithan, ez duzue ordean aita hainitzik, Jesukristo baithan nik Ebanjelioaz jenderatu zaituztedanaz geroz. **16** Othoitz egiten darotzuet, beraz, zaretan ene imitatzaile, ni ere Jesukristoren naizen bezala. **17** Hargatik igorri darotzuet Timotheo, ene haur maitea eta Jauna baithan leial dena, segur orhoitaraz zaitzarentzat zer maneraz bizi naizen Jesukristo baithan, Eliza guzietan irakasten dudanaren arauera.

**18** Hauntuak ornen dire zenbait, zuen ganat ethorri behar ez banintz bezala. **19** Ethorriko naiz ordean, eta lauster, Jaunak nahi badu, eta ikusiko dut zer diren hauntu hekien ez hitzak, baiñan eginkariak. **20** Ez dago ezen Jainkoaren erresuma hitzetan, baiñan bai eginetan. **21** Zein nahi duzue? ala ethor nakizuen zigorra eskuan, ala karitatearekien eta eztitasunezko izpirituarekien?

#### V. KAP.

**1** Segurtzat erraten da badirela zuen artean lohikeriak, eta halako lohikeriak, non jentillen artean ere ez baida ikusten halakorik; hartarainoan bai, non zenbeit baida bere aitaren ematea dadukanik. **2** Eta hala ere hantuak zarete orgilleriaz, damu eta dolore izan behar bidean zuen artetik khentzekotzat akzione hori egin duena. **3** Nik behintzat gorputzez hor ez naizen arren, izpirituz ordean hor bainaiz, ja hor banintz bezala eman dut jujeamendu hau akzione hori egin duenaren kontra: **4** Jesukristo gure Jaunaren izenean bildurik zuek eta ene izpiritua Jesukristo gure Jaunaren botherez, **5** izan dadin haiña hura Satani libratua suntsiarazteko haren haragia, arima salbatua izan dadin gatik Jesukristo gure Jaunaren egunean.

**6** Ez dagotzue ungi glorifikatzea. Ez dakizue lebami guti batek gaiztatzen duela orhe guzia? **7** Khen zazue lebami zaharra izan zaiteztentzat orhe berri bat, lebami gabeko ogi garbiak zaretan bezala; ezen gure Bazkoa Jesukristo da, imolatua izan dena. **8** Hargatik, bada, egigun gure banketa ez lebami zaharrarekien eta ez maleziaren eta gaixtakeriaren altxagarriarekien, bainan bai sinserotasunaren eta egiaren ogi lebami gabekokien.

**9** Eskribatu izan darotzuet guthun batean ez zaitez tela balsa presuna lohiekien. **10** Ez dut ordean hori erran mundu huntan diren lohien ariaz edo abariziosen edo bertzeren ontasunen arrapatzaileen edo idolatreen



ariaz; bertzela ilkhi behar izanen zinduketan mundu huntarik. **11** Bainan nik eskribatu darotzuedana da, baldinetariak gure anaia daritzenetarik zenbeit lohi bada edo abarizios edo idolatre edo gaixki erraille edo hordi edo arrapari, halakoekien ez dezazuela jan ere. **12** Zertako dut ezen nik kanpoan direnez jujeatzea? Barneko direnez ez duzue zuek jujeatzen? **13** Kanpoan direnak Jainkoak jujeatuko ditu. Zuek khen zazue gaitxto hura zuen artetik.

## VI. KAP.

**1** Hauzu da zuetarik zenbeit, egiteko duenean bertze baten kontra, hauzitan haritzerat gaixtaginen aitzinean, eta ez sailduen aitzinean? **2** Ala ez dakizue sailduen jujeatuko dutela mundu hau? Eta baldin zuetaz jujeatua izan beharra bada mundua, ez zarete gai gauzarik xumeenez jujeatze-ko? **3** Ez dakizue aingeruak ere jujeatuko ditugula? Zenbatez areago munduko egitekoak?

**4** Baldinetariak, beraz, munduko egitekoen gainean hauzi baduzue, har zatzue jujetzat Elizan diren presumarik mendreenak. **5** Zuen ahalkerietan hau erraten dut. Ez da, bada, zuen artean nihor aski zuhur eta gai denik bere anaien artean juje izateko? **6** Baiñan anaia anaiaren kontra hari dadin hauzitan, eta are infidelen aitzinean? **7** Ja bekhatu bat da zuentzat hauziak izatea elkharen artean. Zergatik ez duzue lehenago pairatzen egiten zaitzuen bidegabea? Zergatik ez duzue lehenago sofritzen enganatuak izatea? **8** Aitzitik zebonek egiten diozue bidegabe eta tronperia, eta are anaiei. **9** Ala ez dakizue injustizia egiten dutenak ez direla Jainkoaren Erresumaren jabe izanen? Ez zaitezela engana: ez lohiak, ez idolakoiak, ez adulteroak, **10** ez gurikeriari, eta ez Sodomako bekhatuari emanak direnak, ez ohoiñak, ez abariziosak, ez hordiak, ez gaixki errailleak, ez arrapatzaileak, ez dire izanen Jainkoaren Erresumaren jabe. **11** Eta horlakoak izatu ohi zarete ere batzu; baiñan garbituak izan zarete, santifikatuak izan zarete, justifikatuak izan zarete Jesukristo gure Jaunaren izenean eta gure Jainkoaren Izpirituaz.

**12** Guziak zilhegi zaizkit, ordean ez dire guziak beharki; guziak zilhegi zaizkit, baiñan ni ez naiz deusen ere menea jarriko. **13** Jatekoak sabelarentzat, eta sabela jatekoentzat; baiñan Jainkoak bai hauk eta bai hek desegiñen ditu; gorphutza ordean ez da lohikeriarentzat, bainan da Jau-

narentzat eta Jauna gorphutzarentzat. **14** Bada Jainkoak Jauna biztu izan duen bezala, gu ere biztuko gaitu bere bothereaz.

**15** Ez dakizue zuen gorphutzak Jesukristoren menbroak direla? Idekirik bada Jesukristori bere mienbroak, emasteki galdu baten mienbro egiñen ditut? Balinba ez. **16** Ala ez dakizue emasteki galdu bati datxeikona gorphutz bat egiten dela harekien? Ezen errana da: «Biak haragi bat izanen dire». **17** Ordean Jainkoari datxeikona izpiritu bat eta bera da harekien. **18** Egiozue ihes lohikeriari. Zein nahi bertze bekhatu gizonak egin dezan, gorphutzetik kanpoan daiteke; lohikeria egiten duenak ordean bere gorphutzaren kontra egiten du bekhatu. **19** Ala ez dakizue zuen gorphutza Izpiritu Sainduaren tenplua dela, zeña zuen baithan egoten bada, zeña baiduzue Jainkoa ganik, eta ez zaretela zebeak? **20** Erosiak zarete ezen prezio handi batean. Glorifika zazue, beraz, Jainkoa eta erabillazue zuen gorphutzean.

## VII. KAP.

**1** Zuek eskribatu izan darozkidatzuen gauzez denaz bezanbatean, on da gizonarentzat emasterik ez ukitzea. **2** Bainan lohikeriaren beldurrez senhar bakhaitza bizi bedi bere emastearekien, eta emaste bakhaitza bere senharrarekien. **3** Senharrak emasteari bihur bihoza zor dioena; hala hala berriz emasteak ere senharrari. **4** Emasteak bere gorphutza ez du bere eskuko, baiñan bai senharrareneko; orobat berriz senharrak ere ez du bere gorphutza bere eskuko, bainan bai emasteareneko. **5** Ez diozazuela ukha elkhari zor diozuen, non ez den akort eta akort eta denbora bate-takotz othoitzean egoteko; ondoan berriz bizi zaitezte ohi nola, beldurrez Satanek tenta ez zaitzaten, zuen inkontinentziaz atiza harturik.

**6** Hau ordean erraten darotzuet barkhamenduz bezala, ez manuz. **7** Nahi nuke ezen zuek guziak izan zintezten ni neroni bezala: baiñan batbederak bere donua duke Jainkoa ganik heldu zaioena: batek hunela, bertzeak berriz hala. **8** Diotsotet, bada, ezkonduak ez direnei eta alhargunei on dela hekientzat bere estatuan egon daitezen, ni ere nagoen bezala. **9** Ezin badaudez kontinentzian, ezkon beitez; hobeago da ezen ezkontzea ezen ez erretzea. **10** Ezkonduak direnei berriz ordenatzen diotedana, ez nik baiñan Jaunak, da, emastea ez dadin bere senharra ganik aldera. **11** Baldinetariak aldaratzen bada, dagoela ezkondu gabe, edo bake dadillala bere senharrarekien; eta senharrak ere ez dezala utz bere emastea.



12 Ezen bertzei nik diotet erraten, ez Jaunak: Baldinetariak gure anaiatarik zenbeit ezkondua bada emaste pagano batekien eta hunek gogo badu harekien egoteko, ez dezala utz emaztea. 13 Eta baldin emazte girstino zenbeit ezkondua bada girstino ez den gizon batekien eta hunek gogo badu harekien egoteko, ez dezala utz senharra. 14 Santifikatua da ezen senhar fedea ez duena emaste fedea duenaz, eta santifikatua da emaste fedegabea senhar fedea duenaz; bertzela zuen haurrak lohiak litezke, orai ordean saildu dire. 15 Baldinetariak fedea ez duena partitzen bada, dohala, ezen gure anaia edo arreba ez dire bahituak horlako ordutan; aitzitik bakezko estatu batetarat deithu izan gaitu Jainkoak. 16 Zer dakizu ezen, emastea, ez othe duzun salbatuko zure senharra; edo zuk, senharra, zer dakizu ez othe duzun zure emastea salbatuko?

17 Baina batbederak egin beza Jainkoa ganik izan duen dohainaren arauera eta Jainkoaz deithua izan den arauera: eta hori da nik Eliza guzietan irakasten dudana. 18 Zirkonzidatua zen gizon bat deithua izan denean, ez beza khen zirkonzisionearen seiñalea; zirkonzidatua izan gabe deithua izan bada bertze bat, ez bezate zirkonzidaraz. 19 Zirkonzidatua izatea ez da deusetako eta zirkonzidatua ez izatea ez da deusetako; baina guzia Jainkoaren manamenduen begiratzean dago. 20 Batbedera zer ere estatutan izan baida deithua, eta bego hartan. 21 Esklabo ziñen deithua izan zarenean? Ez darotzula horrek penarik, baiñan baldin are libertatea ardiets ahal badezazu, hanbat hobe; balia zaitte. 22 Ezen esklabo dela Jaunaz deithua dena, Jaunaren libertateko egiten da; orobat libro dela deithua dena, Jesukristoren esklabo egiten da. 23 Garastia erosiak zarete; ez zaitzela egin gizonen esklabo. 24 Batbedera zer ere estatutan izan baida deithua, ene anaiak, eta bego hartan Jainkoaren aitzinean.

25 Birjinez denaz bezanbatean Jaunaren manurik ez dut; baiñan huna nik ematen daroedan konseillua, Jaunaren zerbitzari fidel naizen bezala berak egin izan darotan miserikordiaz. 26 Uste dut, bada, on dela hori bizitze huntako beharkizun nekharrien gatik ere; diot, on dela gizonarentzat ez ezkontzea. 27 Amarratua zare emaste batekien? Ez zabiltzala libratu nahiz. Emazte gabe zare? Ez zabiltzala emastekietan. 28 Baldinetariak emastea hartu baduzu, ez duzu hortan bekhatu egin. Eta baldin ezkontzen bada neskaxa bat, ez du hortan bekhatu egin; ordean haragiaren nekheak izanen dituzte haina bek. Nik behintzat guphida zaitzuet horren gainean.

29 Hauze da bada, ene anaiak, nik zuei errateko dudana: denbora labur da, eta hala emasteak dituztenak ere, izan beitez ez balute bezala; 30 eta nigarrez daudezenak, nigar egiten ez balute bezala; alegera direnak, alegera ez balire bezala; erosten hari direnak, deusen jabe ez balire bezala; 31 mundu huntako gauzez baliatzen direnak, baliatzen ez balire bezala; iragaitzean doha ezen mundu hunen figura. 32 Nik nahi nukena da ordean zuek grina gabe izan zaitezten. Emasterik ez duenak bere artha guzia Jaunaren gauzetako du eta Jainkoaren gogarako izateko. 33 Emastea duenak ordean bere arthak munduko gauzetako ditu eta gauzak bere emastearen gogara egiteko; eta hala partitua da. 34 Halaber ezkondua ez den emastekiak eta birjinak gogoa Jaunaren gauzetan du, sailda izateko gorphutzez eta izpirituz; aitzitik ezkondua denak gogoa munduko gauzetan du eta senharraren gogara egin nahian. 35 Bada hau zuen probetxutan erraten darotzuet, ez sarea zuei etxatu nahiz, baina bai xoilki zuek erakharri nahiz zuentzat hoberen denerat eta zuen othoitzak Jainkoari trabarik gabe egiteko estatuan eman ahal zaitzaketerat.

36 Baldin nihori desohore bazaio haren alabak adiñak iragatea ezkontu gabe eta hala behar bada, egin beza nahi duena; ez du bekhatu egin ezkontzen bada. 37 Ezen nihork mengoarik izan gabe eta nahi duena egin ahal dezakela, deliberatzen badu zinki bere bihotzean eta jujeatzen badu bere baithan bere alaba birjina iduki behar duela, ungi egiten du. 38 Orobat bere alaba ezkontzen duenak ere ungi egiten du eta ezkontzen ez duenak are hobeki egiten du.

39 Emastea amarratua da ezkontzaren legeaz haren senharra bizi deiño; baina hiltzen bada haren senharra, libro da; ezkon bedi nahi duenarekien, solamente egin bedi Jaunaren arauera. 40 Dohatsuago ordean izanen da alhargun egoten bada, nik konseillatzen diodan bezala; uste dut, bada, nik ere Jainkoaren Izpiritua dudala.

## VIII. KAP.

1 Idolei sakrifikatzen zaitzen gauzez denaz bezanbatean, badakigu eki gutarik nihork ez duela ignoratzen horren gainean jakiteko dena. Ordean jakiteak hauntzen du nihor; xaritateak du berriz edifikatzen. 2 Baldinetariak, bada, edozeinek uste badu zerbeit badakiela, ez du oraiño ezagutzen nola behar duen jakin ere. 3 Baiñan norbeitte maite badu Jainkoa, haina ezagutua da Jainkoaz. 4 Idolei sakrifikatua diren gauzetarik



jateaz denaz bezanbatean, badakigu deusere ez dela idola munduan, eta ez dela bertze jainkorik Jainko bakhar bat baizen. **5** Ezen diren arren jainko deitzen direnak nahiz zeruan eta nahiz lurrean (balire bezala hainitz jainko eta hainitz jaun), **6** guretzat ordean ez da Jainko bakhar bat baizen; hura da Aita, zeïña ganik baidire gauza guziak eta zeïñarentzat baigare gu ere. Eta ez da Jaun bakhar bat baizen; hura da Jesukristo, zeïñez baidire gauza guziak eta hartaz gare gu ere.

**7** Ordean guziek ez dakite hori; badire ezen zenbeit, zeïnek uste dutelarik oraiño bere konszientzian idola zerbeit dela, jaten baidute idolei ofrendatuak izan diren jakitatik; eta hekien konszientzia flakoa izanez, hidoiztatzen da hortaz. **8** Jateak ez gaitu Jainkoaren gogarako egiten, ezen jaten badugu ez gare izanikago izanen, eta jaten ez badugu ez gare deusetan gutituko. **9** Begirautzue ordean zuen libertate horrek eskandalisa ez detzan flakoak.

**10** Baldiñetariak hetarik zenbeitik ikusten badu jakintasun gehiago duen bat idolategian mahaiñean jarria, bere konszientziak, zeren duen flakoa, ez du bada ekharriko idolakitarik jaterat? **11** Eta zure jakintasunak galaraziko baidu anaia flako hura, zeïña gatik Jesukristo hil izan baida? **12** Bada horla bekhatu egiteaz zuen anaien kontra eta hekien konszientzia flakoa zaurtzeaz, Jesukristoren kontra egiten duzue bekhatu. **13** Hargatik beraz, baldinetariak nik jaten dudanak eskandalisatzen badu ene anaia, ez dut janen haragirik sekulerenean, ene anaia ez eskandalisatzea gatik.

## IX. KAP.

**1** Ez naiz ni libro? Ez naiz Apostolu? Ez dut Jesukristo gure Jauna ikusi? Ene obra ez zarete zuek Jauna baithan? **2** Eta bertzeentzat Apostolu ez banaiz ere, bederen zuentzat banaiz, ezen ene apostolutasunaren zigillua zuek zarete Jauna baithan. **3** Hori da ene errepusta, deusetan behartzen nautenei egiten daroedana: **4** Ala ez dugu zuzen, jateko eta edateko? **5** Ala ez dugu. zuzen gure arrebatarik bat gurekien erabiltzeko, bertze Apostoluek, Jaunaren anaiek, eta Zefasek bezaiñ ungi? **6** Ala Barnabe eta ni gare bakharrak hori egiteko boillerea ez dugunak? **7** Nork gerla egiten du bere despendioz behinere? Nork landatzen du mahasti bat eta ez du jaten hango fruitutarik? Nork bazkatzen du arthalde bat eta ez du jaten haren esnetik?

**8** Naski gizonaren araez hauk erraten baiditut? ala legeak ere ez ditu gauza berak erraten? **9** Eskribatua da ezen Moiseren legean: «Ez diozu ahoa estekatuko bihitzen hari den idiari». Naski idiez baidu grïña Jainkoak? **10** Ala guretzat othe du hobeki hori erraten? Alabaiñan guretzat eskribatua da hori, halaz eta laborantzan hari dena esparantzarekien hari denaz geroztik lurreko fruituetan parte izateko; eta ogi jotzen hari dena ere bai, hartan parte izateko.

**11** Zuen baithan gauza izpiritualak erein ditugun ondoan, bain da gauza handia zuen ontasun tenporaletarik guk zerbeit biltzen badugu? **12** Baldin bertzeak baliatzen badire zuzen hortaz zuen alderat, zergatik gu aitzitik ez gare baliatuko? Bizkitartean ez gare baliatu bothere hortaz; aitzitik guziak jasaten ditugu Jesukristoren Ebanjelioari trabarik batere ez ematea gatik. **13** Ez dakizue tenpluaren zerbitzuan hari direnak tenpluko diren gauzatarik bizi direla? Eta aldarea zerbitzatzan dutenek parte badutela aldareko ofrendetan? **14** Orobat ordenatu izan daroe Jaunak ere Ebanjelioa predikatzen dutenei: bizi daitezen Ebanjeliotik.

**15** Halarik ere ni ez naiz baliatu izan zuzen horietaz; eta ez darozkitzuetet hauk eskribatzen, horla egin dezazuen gatik ene alderat; nahiago nuke ezen hill, ezen ez nihork eraman diezadan gloria hori. **16** Ezen baldin predikatzen badut Ebanjelioa, ez dut zeren gloriatu; egin beharrez egiten baidut; zorigaitz legoke ezen enetzat Ebanjelioa predikatzen ez banu. **17** Baldinetariak ezen gogo onez egiten badut, saria izanen dut; baldin ordean gogoaren bortxa egiten badut, fidatu izan zaitana ematea xoilki dut egiten. **18** Zertan dut, beraz, saria izateko burupea? Ebanjelioa predikatzean eta nihori deusik gosta gabe predikatzean, abusa ez dezadantzat Ebanjelioaren predikatzean dudan bothereaz.

**19** Ezen libro nintzelarik, guzien alderat guzien zerbitzari egin naiz, jende gehiago irabaztea gatik. **20** Egin izan natzaie judutarrei judutar bezala, judutarrak irabaztea gatik; **21** legearen azpiko direnei, legearen azpian izan banintz bezala, legearen azpian gehiago ez nintzen arren, legearen azpian zirenak irabaztea gatik; lege gabe zirenei, lege gabe izan banintz bezala, Jainkoaren legea dudana (Jesukristoren legea dudana geroz), lege gabe zirenak irabaztea gatik. **22** Egin izan naiz flakoekien flako, flakoak irabaztea gatik; guziei guzietako izan natzaie, guziak salbatzea gatik. **23** Horiek guziak ordean egiten ditut Ebanjelioa gatik, hartan parte izatea gatik.



**24** Ez dakizue karrera batean lausterka hari direnak, guziak dohaze-la lausterka, ordean batek duela eramaten golardoa? Egizue bain lauster, non golardoa atzeman baidezakezue. **25** Bada borrokan garaitzerat lehia-tzen dena guzietarik debekatzen da; eta hek alabaiñan hori egiten dute khoroa ustelkor bat atzematea gatik; guk ordean ustel ez daiteken bat dugu igurikitzen. **26** Nik behintzat lauster egiten dut, ez nola ez dakidala; gudukatzen naiz, ez aireari jazartzen banio bezala, **27** bainan gastigatzen dut ene gorphutza eta gathibutasunean ezartzen, beldurrez ezen, bertzeei predikatu ondoan, neroni erreprobatua ediren ez nadin.

## X. KAP.

**1** Nahi dut, bada, dakizuen, ene anaiak, gure aitak izan direla guziak hedoiaren azpian eta guziek Itsaso Gorria iragan izan dutela, **2** guziak Moiseren gidaren azpian bathaiatuak izan direla hedoiean eta itsasoan, **3** guziek jan izan dutela jaki izpiritual beretik, **4** eta guziek edan izan dutela edari izpiritual beretik; edan zuten ezen hei zarraikoten barri izpiritualaren uretik; eta barri hura zen Jesukristo. **5** Bainan nonbre handi hartarik gutiak ziren Jainkoaren gogarako zirenak; halaber suntsituak izan ere ziren desertuan.

**6** Bada gauza horiek figura batzu izan dire guri behatzen zaizkigun gauzenak, gutizia ez gaitezentzat gauza gaixtoez, hek gutiziatu izan ziren bezala. **7** Hala ez zaitezela egin idolakoi, hetarik zenbeit egin izan ziren bezala; zeinez eskribatua baida: «Jarri zen populua jaten eta edaten, jaiki ziren gero dostetarat». **8** Ez dezagula egin lohikeriarik, hetarik zenbeit egin izan zuten bezala eta bill izan baitziren egun batez hogoi eta hirur milla. **9** Ez dezagula tenta Jesukristo, hetarik zenbeit egin izan zuten bezala, eta sugez hillak izan baitziren.

**10** Ez dezazuela eras, hetarik zenbaitek erasi izan zuten bezala, eta suntsiarazi baitzituen Aingeru Exterminatzaileak. **11** Horiek guziak, bada, figuretan gerthatzen zitzaizten hei eta dire eskribatuak gure erakutspenetan, zeñak aurkhitzen baigare denboren akhabantzian. **12** Hala bada uste duenak tieso dagoela, begira duela eror ez dadin. **13** Tentazionerik orainokoa ez duzue izatu, gizonkarakorik baizen; bada fidel da Jainkoa eta ez du permitituko izan zaitezten tentatuak zuen indarrez gorago; aitzitik atheraraeiko ere darotzue tentazionetik probetxu, iraun ahal dezakezuentzat.

**14** Hargatik bada, ene maiteak, egiozue ihes idolatriari. **15** Jende prudentei bezala mintzo natzaitzue; jujea zazue zebonek erraten dudana. **16** Benedizioezko kalixa guk benedikutzen duguna, ez da Jesukristoren odolaren partunezkoa? Eta guk hausten dugun ogia, ez da Jaunaren gorphutza partunezkoa? **17** Hala hainitz garelarik, ogi bat eta gorphutz bat gare, ogi berean partzuner garen guziak. **18** Ikusazue Israel haragiaren arauerakoa, hea biktimak jaten dituzten guziak ez diren partzuner aldarekoetan. **19** Zer diot, beraz? Idolei sakrifikatua izan zaiena zerbeit dela edo idola zerbeit dela? **20** Aitzitik, jentillek ofrendatzen dituztenak deabrueri diotzate ofrendatzen eta ez Jainkoari; eta ez dut nahi deabruerien partzunezkorik duzuen. Ezin dezakezueke Jaunaren kalixetik eta deabruaren kalixetik. **21** Ezin dukezue parterik Jaunaren mahaiñean eta deabruen mahaiñean. **22** Ala jelsia eman nahi diogu Jaunari? Naski borthitazgo baitgare hura baiño? Guziak zilhegi zaizkit, ordean guziak ez dire konbeni.

**23** Guziak zilhegi zaizkit, ordean guziek ez dute edifikatzen. **24** Nihork ez beza bilha beretzat on zaioen, baiñan bai bertzeentzat on dena. **25** Karnazerian saltzen diren guzietarik jan zazue deusez ere galdegina gabe, konszientzia gatik. **26** Jaunarena da lurra eta bai lurra dagokan guzia. **27** Baldinetarik infideletarik zenbeit egin gonbidatzen bazaituzte eta nahi baduzue goan, aitzinean ematen zaitzuen guzietarik jan zazue, deusez ere galdegina gabe konszientzia gatik. **28** Baldin ordean nihork erraten badarotzue: «Hau idolei ofrendatua izatua da»; ez dezazuela jan abisatu izan zaituztena gatik eta konszientziagatik. **29** Konszientzia diot ordean, ez zuena, baiñan bertzearena gatik. Zergatik ezen ene libertatea kondenaraziko dut bertzeren konszientziak? **30** Baldinetariak nik jaten badut eskerrak bihurtzen ditudalarik, zergatik behar dut nitaz gaixki mintzarazi gauza baten gatik, zeñetaz eskerrak baiditut bihurtzen?

**31** Nahiz, beraz, jan dezazuen nahiz edan dezazuen edo zernahi gauza bertze egin dezazuen, guziak Jainkoaren gloriako egitiztue. **32** Ez diozozuela eman eskandalisatzeko biderik, ez juduei, ez jentillei, ez eta Jainkoaren Elizari, **33** ni ere gauza guzietan guzien gogarako izaterat entseiatzen naizen bezala, ez bilhatuz neuretzat on zaitana, bainan bai hainitzen probetxuko dena, hek salba daitezentzat.



## XI. KAP.

1 Zareten ene imitatzaille, ni ere Jesukristoren imitatzaille naizen bezala. 2 Laudatzen zaituztet bada, ene anaiak, zeren gauza guzietan nitaz orhoit zareten eta atxikitzen ditutzuen nik emanikako erregelamenduak, utzi darozkitzuedan bezalatsu. 3 Nahi dut, bada, jakin dezazuen gizon guziek dutela Jesukristo buruzagi, emasteak duela berriz gizona buruzagi eta Jesukristok duela Jainkoa buruzagi. 4 Gizon burua estalirik othoitz egiten edo profetatzen duen guziak desohoratzen du bere burua. 5 Berriz emaste burua estalia izan gabe othoitz egiten edo profetatzen duen guziak desohoratzen du bere burua, ezen murriztua balitz bezala da. 6 Ezen baldin estaltzen ez bada emastekia, motz bekio illea. Baldin ordean itsusi bada emasteki batentzat illeak moixtuak edo murriztuak izatea, estal beza bere burua.

7 Gizonak alabaiñan ez du estali behar bere burua, zeren Jainkoaren imajina eta gloria baida; emastea ordean gizonaren gloria da. 8 Ezen gizona ez da emastea ganik atheratua, baiñan bai emastea gizona ganik. 9 Halaber ez da kreatua izan gizona emastea gatik, baiñan bai emastea gizona gatik. 10 Hargatik behar du emasteak ekharri aingeruen gatik ere bere buruaren gaiñean seiñalea, gizonaren botherearen azpiko dela. 11 Guziarekien ere ez gizona da emastea gabe, ez eta emastea gizona gabe gure Jauna baithan. 12 Ezen emastea gizonetik atheratua izan ohi den bezala, halaber gizona emastea ganik sortzen da eta guziak Jainkoa ganik heldu dire.

13 Jujea zazue zebonek: ungi dagoka emaste bati burua estalia izan gabe Jainkoari othoitz egitea? 14 Naturalezak berak ere ez darotzue irakasten gizon batentzat desohore dela ille luzeak erabiltzea, 15 emaste batentzat berriz ohore dela ille luzeak ekhartzea? Zeren eta illeak estalkitatzat bezala eman izan baitzaizko. 16 Baldinetariak, bada, zenbaitek lakhet badu ihardukitzeaz, guk ez dugu horlako kostumarik, ez eta Jainkoaren Elizak ere.

17 Huna oraiño nik exleitzen darotzuedana, ez baidut laudatzen zuen onetan elkhar ganat bildu behar bidean, bill zaitezten zuen kaltetan. 18 Lehenbizikorik, bada, Elizarat biltzen zaretenean, aditu dut erraten eskatimak direla zuen artean eta parte sinhesten ere dut. 19 Ezen halabeharra da heresiak ere izan daitezen, ager dadintzat zuen artean zein diren pres-tu frogatuak.

20 Zuek elkharganat biltzen zareten maneran, bada, ez da ordu onean Jaunaren afaria jatea; 21 batbedera ezen jartzen da bere afaritako duenaren jaten, bertzeen begira egon gabe; eta horla batzuk ez dute deusere jateko, bertzeek sobera jaten duten denboran. 22 Ez ditutzue zuen etxeak han jateko eta edateko? ala mezprezatzen duzue Jainkoaren Eliza eta nahi ditutzue ahalkarazi deusik ez dutenak? Zer erranen darotzuet? Laudatzen zaituztedala? Ez segur, hortan ez zaituztet laudatzen.

23 Ezen nik Jauna ganik ikhasia dut zuei halaber irakatsi darotzuedana: Jesus Jaunak libratua izan behar zuen gau berean hartu zuela ogia; 24 eta eskerrak bihurturik hautsi zuela eta erran zuela: «Har zazue eta jan zazue; hau ene gorputza da, zuentzat libratua izanen dena. Egizueke hau ene orhoitzapenetan». 25 Orobat hartu izan zuen kalixa ere afaldu zen ondoan, erraten zuelarik: «Kalix hau testament berria da ene odolaz. Egizueke hau edaten duzuen guzian ene orhoitzapenetan. 26 Ezen ogi hau janen duzuen guzian eta kalix hau edanen duzuen guzian Jaunaren heriotzea duzue irakatsiko dathorren artean». 27 Bada nork ere janen baidu ogi hau eta edanen baidu Jaunaren kalixa indignekei, hobendun izanen da Jaunaren gorputzaz, eta odolaz.

28 Froga beza beraz gizonak bere burua eta horla jan beza ogi hartarik eta edan kalix hartarik, 29 ezen indignekei jaten duenak eta edaten duenak bere jujeamendua jaten eta edaten du, ez baidu berezten Jaunaren gorputza. 30 Horregatik dire zuen artean baintz eri eta hagoatu, dauntza ere hillak hainitz. 31 Bada gere buruak jujea bagintza, duda gabe ez gintezke izan Jainkoaz jujeatuak. 32 Horla jujeatuak garenean ordean, Jaunak gaitu gatzigtatzen mundu hunekien kondenatuak izan ez gaitezentzat. 33 Bada, ene anaiak, othruntza hetarat biltzen zaretenean, zaudete batzu bertzeen begira. 34 Baldin nihor gose bada jan beza bere etxean, zebeu kondenazionetan bill ez zaitezentzat. Gainerako diren gauzak nathorrenean erregelatuko ditut.

## XII. KAP.

1 Dohain izpiritualeraz denaz bezanbatean bada, ene anaiak, ez dut nahi zaudezten behar dena jakin gabe. 2 Orhoitzen zarete eki pagano ziñetenean idola mutuen ondoan ziñabiltzatela, nola baitziñarabilzasten, eta hala. 3 Deklaratzen darotzuet, bada, nihork ere Jainkoaren Izpirituz





mintzo denek ez dioela erraten anathema Jesusi; eta nihork ezin derrake-la, «Jesus da Jauna», non ez den inspiratua Izpiritu Sainduaz.

**4** Graziak bada diferentak dire, ordean Izpiritu bera da. **5** Ministe-riok diferentak dire, ordean Jaun bera da. **6** Obrak diferentak dire, ordean Jainko bera da guziak guzien baithan obratzen dituena. **7** Batbe-derari ordean ematen zaizko Izpiritu Sainduaren dohain ageri direnak Eli-zaren probetxutan. **8** Batari alabaiñan ematen dio Izpiritu Sainduak zuhurtziarekien mintzatzeko dohaiña; bertzeari berriz ematen dio Izpiri-tu berak jakintzarekien mintzatzekoa; **9** bertze bati Izpiritu berak ematen dio fedea; bertze bati Izpiritu berak ematen dio erien sendatzeko grazia; **10** bertze bati mirakuilluen egiteko botherea; bertzeari profeziako dohaiña; bertzeari Izpirituen ezagutza; bertzeari lengoaia diferentez min-tzatzeko dohaiña; bertzeari lengoaia hekien interpretatzekoa. **11** Horiek guziak, bada, egiten ditu Izpiritu batek eta berak, partitzen daroztelarik dohain horiek batbederari plazer duen bezala.

**12** Ezen gorphutz bakhar batek mienbro hainitz duen bezala, ordean gorphutzeko menbro guziak hainitz direlarik, hala ere gorphutz bakhar diren bezala, gauza bera da Jesukristoz ere. **13** Alabaiñan Izpiritu beraz guziak bathaiatuak gare, gorphutz bat eta bera izateko, ala judutarrak, ala jentillak, ala esklaboak, ala libroak; eta guziak Izpiritu batez eta beraz eda-ranak gare.

**14** Halaber gorphutza ez da mienbro bakhar bat, bainan bai hainitz menbro. **15** Baldin erran baleza oiñak: Nola ez bainaiz ni eskua, ez naiz gorphutzeko, ez othe liteke hargatik gorphutzeko? **16** Eta baldin erran baleza beharriak: Nola ez bainaiz ni begia, ez naiz gorphutzeko. Ez othe liteke hargatik gorphutzeko? **17** Baldinetariak gorphutz guzia begi balitz, non liteke aditzea? Baldin guzia aditze balitz, non liteke usna? **18** Baiñan ezarri izan ditu Jainkoak mienbroak gorphutzean eta mienbro bakhotxa nahi izan duen bezala. **19** Eta baldin guziak mienbro bat eta bera balire, non liteke gorphutza? **20** Alabaiñan ordean hainitz mienbro dire eta ez da gorphutz bat baizen. **21** Ezin erran diozoke ere, bada, begiak eskuari: «Ez dut zure laguntzaren beharrik». Ez hain guti buruak oinei: «Ez naiz zuen behar». **22** Aitzitik gorphutzeko mienbro flakoen diruritenak dire beharretsiak. **23** Eta are gorphutzeko mienbro mezprezagarren direla uste dugunei diotegu ohorerik gehiena egiten; eta gutien honest direnak ditugu estaltzen artha eta honestasun gehiagorekien. **24** Honestak direnek ezen ez dute horlako beharrik, bainan Jainkoak moldatu izan du gorphu-

tza halako maneraz, non ohoragarri ez zenari ohore gehiago errendarazi-tzen baidio, **25** izan ez dadintzat eskatimarik gorphutzean, aitzitik mienbro guziak batak bertzeaz artha izan dezatentzat. **26** Halaber baldin deu-sik pairatzen badu mienbro batek, bertze guziek ere sofritzen dute; eta ohoratua baldin bada mienbro bat, bertze guziak bozten dire harekien batean.

**27** Bada zuek zarete Jesukristoren gorphutza eta batzu bertzeen mienbroak. **28** Hargatik ezarri izan ditu Jainkoak Elizan lehenbizikorik Apostoluak; bigarreanean profetak; hirugarrenean doktorak; gero mira-kuilluen egiteko berthutea dutenak; ondoan erien sendatzeko grazia dute-nak, bere anaien laguntzeko dohaina dutenak; gobernatzeko dohaina dutenak; lengoaia diferentez mintzatzeko dohaina dutenak; hekien interi-pretatzeko dohaina dutenak. **29** Naski guziak baidire Apostolu? ala guziak profeta? ala guziak dotor? **30** Naski guziek dituzte egiten mirakuilluak? ala guziek dute erien sendatzeko grazia? ala guziak dire mintzo hainitz len-goia diferentez? ala guziek dute dohaina hekien interpretatzeko?

**31** Dohain horien artean lehiarik gehiena izan zazue hoberenentzat; ordean are bide exelentago bat erakusterat nohatzue.

### XIII. KAP.

**1** Baldinetariak gizonak eta aingeruek dakizkiten lengoaia guziez mintza banendi ere, karitatea ordean ez badut, soiñu egiten duen kobre bat edo habarrots egiten duen zinbala bat naiteke. **2** Baldin profeziako dohaiña banu, baneakizki ere misterio guziak eta jakiteko diren guziak; baldin banu ere izan ahal daiteken fede guzia, mendiak bere lekhitik alda-ratzeraiñokoan, karitatea ordean ez badut, deusik ez naiz. **3** Baldin parti banetza ene ontasun guziak pobreen hazteko eta eman baneza ere gorp-hutza erretzerat, karitatea ordean ez badut, horiek guziak deusere ez litzazkit balia.

**4** Karitatea pairakor da, amultsu da, karitatea ez da bekhaitzia, ez du deusere egiten behargaberik, ez da hauntzen; **5** ez da handi nahia, ez dabi-lla bere intres propioen bilha, ez da hasarratzen, ez da itzalgaitzkatzen; **6** ez du atseginik injustiziaz, atsegin du ordean egiaren arauera denaz; **7** guziak jasaten ditu, guziak sinhesten ditu, guziez du esparantza, guziak pairatzen ditu.



**8** Karitatea ez da behiñere ahitzen; profeziak eskastuko dire, lengoaiak geldituko dire, jakintasuna suntsituko da: **9** Ezen orai partez dugu ezagutzen eta partez dugu profetisatzen. **10** Ordean estatu perfetean izanen garenean, urmariatuko da partez baizen ez dena. **11** Haurra nintzenean, mintzo nintzen haur bezala, jujeatzen nuen haur bezala, arrozoinatzen nuen haur bezala; ordean gizon egin naizenean, utzi izan ditut haurreko maiñak. **12** Orai miraiñ batean bezala ikusten dugu eta enigmaz azpian; baiñan orduan ikusiko dugu karaz kara. Orai partez dut ezagutzen; baiñan orduan ezagutuko dut neroni ezagutua naizen bezala. **13** Orai bada daude hirur gauza hauk: fedea, esparantza, karitatea; hautarik handiena ordean da karitatea.

#### XIV. KAP.

**1** Zarraizkote karitateari, bilha zatzue dohain izpiritualak, gehienik ordean profeten dohaiña. **2** Ezen lengoia arrotzez mintzo dena ez zaie gizoni mintzo, baiñan bai Jainkoari, nihork aditzen ez duenaz geroztik eta Izpirituz mintzo denaz geroztik gauza gordeez. **3** Baiñan profetisatzen duena gizoni mintzo zaie hek edifikatzekotz, exortatzekotz eta konsolatzekotz. **4** Lengoia arrotzez mintzo denak bere burua edifikatzen du; ordean profetatzen duenak Eliza du edifikatzen. **5** Nahi nuke bada guziek zinduketengoiaren dohaiña, baiñan gehiago are profetatzekoa; ezen gehiagokoa da profetatzen duena ezen ez lengoia arrotzez mintzo dena, non ez duen interpretatzen berak erraten duena Eliza edifikatua izan dadintzat.

**6** Orai bada, ene anaiak, heldu banintzatzue lengoia atzez mintzo natzaitzuela, zer probetxutako ninduzueke, non ez natzaitzuen mintzatzenean edo errebelazionez edo jakintzaz edo profeziatzaz, edo dotrinaz instruitzen zaituztedalarik? **7** Alabaiñan gauza arima gabe direnek ere eta soiñu ematen dutenek, ala xirolak ala harpak, baldin tonu diferentak ematen ez badituzte, nola jakinen da zer jotzen da xirolaz edo harpaz? **8** Eta baldin soiñu deusik seinalatzen ez duen bat jotzen badu klaroinak, nor prepartuko da gudurat? **9** Hala zuek ere baldinetariak bertze lengoia batez mintzatzenean ez bazarete klarki explikatzen, nola adituko dute zer erraten duzuen? Airetan mintzo zarete ezen. **10** Hanbat lengoia suerte ohi da munduan eta ez da ere populurik bere lengoia ez duenik. **11** Baldinetariak beraz ez badakit hitzek zer erran nahi duten, barbaro izanen natzaio mintzo natzaioenari, eta niri mintzo zaitana barbaro izanen zait

niri. **12** Hala zuek ere dohain izpiritualen gutizios baitzarete, lehia zaitezte hainitz izaterat Elizaren edifikatzeko.

**13** Eta aria hortaz lengoia arrotz batez mintzo denak galde beza interpretatzeko dohaina. **14** Ezen baldin lengoia arrotz batean egiten badut ene othoitza, ene gogoak egiten du othoitz, ordean ene Izpiritua eta adimendua fruitu gabe da. **15** Zer egiñen dut beraz? Eginen dut othoitz gogoz, baiñan eginen dut ene othoitza adi daiteken bezala; kantatuko dut ahoz, baiñan kantatuko dut ene kantua adi daiteken bezala. **16** Bertzela baldinetariak gogoz hari bazare Jainkoaren benedikatzenean, bere lengoia baizen ez dakitenen arteko gizon batee nola ihardetsiko du, Amen, zure benedizionearen gaiñean, zer erraten duzun ez dakienaz geroz? **17** Zuk bada ungi egiten duzu eskerrak errendatzeaz, bainan bertzea ez da edifikatua. **18** Eskerrak ematen diotzat ene Jainkoari, zeren bainaitzaitzue guziei zebe lengoia. **19** Baiñan nahiago dut Elizan bortz hitz neuronek aditzen ditudanak erran, bertzeak ere instruitzeko, ezen ez hamar milla lengoia atze batean.

**20** Ene anaiak, ez zaitezela izan haur adimenduzko gauzetan, baiñan izan zaitezte haur maleziakoean; adimenduz ordean zareten gizon egiñak. **21** Eskribatua da legean: «Mintzatzeko natzaio populu huni bertze lengoia batzuz eta bertze akzentu batzutan eta hala ere ez naute adituko», dio Jaunak. **22** Hala lengoaien dohaiña seiñaletzat baliatzeko da ez sinhesten dutenei, baiñan sinhesten ez dutenei; profeten dohaiña berriz ez da sinhesten ez dutenentzat, baiñan bai sinhesten dutenentzat. **23** Baldinetariak bada Eliza guzia bildua denean guziak mintzo balire lengoia diferentez eta sar balitez ignorantak edo infidelak, ez lezakete erran zortu zaretela? **24** Baldin ordean guziek profetatzen badute eta sar badadi infidel bat edo ignorant bat, guziek bentzutzen dute, guziek jujeatzen dute; **25** bihotzean gordea zuena agertzen da, eta hala ahuzpe jarririk adoratzeko du Jainkoa, eta erranen du egiatzki dela Jainkoa zuen artean.

**26** Zer da beraz zuek egin behar duzuen, ene anaiak, baldin bilduak zaretenean bata inspiratua bada Jainkoaz kantiko bat moldatzeko, bertzea instruitzeko, bertze bat Jainkoaren sekretuak agertzeko, bertze bat lengoia arrotzez mintzatzeko, bertze bat berriz interpretatzeko? Guziak egin beitez edifikazionetan. **27** Nihor baldin bada lengoia arrotz batean mintzo denik, ez beitez mintza aldian bia edo gehienerat hirur baiño gehiago eta hek ere mintza beitez aldizka eta interpreta beza norbeitek hek erran duketena. **28** Baldin ordean ez bada interpretatzaillerik, bego ixillik Elizan



mintzatu gogo zuena, eta bere buruari mintza bekio eta Jainkoari. **29** Profetak berriz bia edo hirur mintza beitez aldian, eta bertzeek jujea bezate hekien erranez. **30** Baldin jarririk daudezenetarik bertze zenbeiti zerbeit errebelazione heldu bazaio, ixil bedi lehen mintzo zena. **31** Profeta deza-kezue ezen guziek nork bere aldian, guziek dezatentzat ikhas eta guziak izan daitezentzat exortatuak. **32** Hala hala profeten izpirituak profeten azpiko ditezke. **33** Jainkoa ezen bakezko Jainko bat da, ez eskatimazkoa, eta hori da sailduen Eliza guzietan nik irakasten dudana.

**34** Emastekiak elizetan beudez ixillik, zeren ez baitzaie zilhegi mintzatzea, baiñan sumetituak egon behar baidute legeak erraten ere duen bezala. **35** Baldin zerbeit ikhasi nahi badute, galdegin biozate etxean bere senharrari, itsusi da ezen emaste batentzat Elizan mintzatzea. **36** Ala zue-tarik ilkhi othe da Jainkoaren hitza, ala zuen ganat xoilki heldu izan othe da? **37** Baldinetariak zenbeitek uste badu profeta dela edo bertze dohain izpirituak duela, ezagut beza nik eskribatzen darozkitzuedanak Jaunaren mezuak direla. **38** Baldin zenbeitek ezagutzen ez baditu, bera ere ez da ezagutua izanen. **39** Hala, ene anaiak, lehia zaitezte izaterat profeten dohaiña, eta ez dezazuela debeka lengoia arrotzez mintzatzetik. **40** Ordean guziak egin beitez bidezki eta ordenurekien.

## XV. KAP.

**1** Orhoitarazi behar zaituztet bada orai, ene anaiak, predikatu izan darotzuetedan Ebanjelioaz, zeña errezibitu baiduzue eta zeñetan zinez baitzaudezte, **2** zeñetaz salbatzen ere baitzarete; ikus dezazuentzat hea orhoit zaretan zer moldez predikatu izan darotzuetedan, baldin alferretan ez baduzue izan sinhetsi. **3** Irakatsi izan darotzuet ezen lehenbizikorik neronek ikhasi izan dudana, Jesukristo hill izan dela gure bekhatuen gatik Eskrituren arauera; **4** izan dela ehortzia eta biztu izan dela hirur garren egunean, Eskrituren arauera halaber; **5** agertu izan zaiuela Zefasi eta ondoan hameka Apostoluei; **6** gero ondoan berriz agertu izan zaiela bortz ehun anai bano gehiagori aldi batez, zeinetarik hainitz baidire oraiño biziak eta zenbeit hillak; **7** geroztik agertu izan zaiuela Jakoberi, ondoan berriz Apostolu guziei; **8** guzietako azkenenik bada agertu izan zaitala niri ere, zeña ez bainaiz haur arthiki bat baizen. **9** Ni naiz ezen Apostoluetarik mendreana eta Apostolu izena merezi ere ez dudana, zeren persekutatu izan baidut Jainkoaren Eliza. **10** Jainkoaren graziaz naiz ordean nainena eta haren grazia ene baithan ez da agor izatu; aitzitik hek guziak

baiño gehiago traillaatu izan naiz; ez bada ni, baiñan Jainkoaren grazia enekien. **11** Ezen nahiz nik eta nahiz hek hori dugu predikatzen eta hori duzue ere sinhetsi.

**12** Predikatzen zaitzuenaz geroztik, beraz, Jesukristo biztu izan dela hilletarik, nola diote zuen artean zenbeitek ez dela hilen bizterik? **13** Ezen baldinetariak hillen bizterik ez bada, Jesukristo ere ez da biztu izan. **14** Baldinetariak berriz Jesukristo ez bada biztu izan, alferrik beraz dugu predikatzen eta alferrik halaber duzue sinhesten. **15** Lekhuko falso ere gare edireten Jainkoaren alderat, zeren Jainkoaren kontra errendatu baidugu lek-hukotasun bau: biztu izan duela Jesukristo, zeña ez baiduke biztu, baldin hillak bizten ez badire. **16** Ezen baldin hillak bizten ez badire, Jesukristo ere ez diteke biztu izan. **17** Eta baldin Jesukristo ez bada biztu izan, alfer diteke zuen sinhestea; oraiño ezen zuen bekhatuetan zauntzate. **18** Beraz Jesukristo baithan hill izan direnak ere galduak ditezke. **19** Baldinetariak Jesukristo baithan dugun esparantza ez bada bizitze huntako baizen, gizon guzietarik dohakabeenak gu gaitezke.

**20** Bai ordean, Jesukristo biztu izan da hilletarik eta eta da hillen pri-mezia. **21** Alabainan bada gizon batez ethorri izan da heriotzea eta halaber gizon batez heldu da biztea ere. **22** Eta nola guziak Adamen baithan hiltzen baidire, hala hala guziak dire biztuko Jesukristo baithan. **23** Ordean nor bere herrunkan: Jesukristo lehenbizikorik, gero Jesukristoren direnak, haren ethortzea sinhetsi dutenak. **24** Ondoan diteke akhabantza, noiz eta ere emanen baidioke bere erresuma bere Jainkoari eta bere Aitari, eta ezeztatu baiduke nausitasunik den guzia, bothere den guzia, autoritate den guzia. **25** Behar du ezen Jesukristok erregiñatu, Aitak ezarri diotzoken artean bere etsai guziak bere oiñen azpian. **26** Eta azken desegiñen den etsaia izanen da heriotzea, guziak ezen ezarri diotza oiñen azpian. Erraten duenean bada: **27** «Gauza guziak ezarri zaizko bere azpiko», duda gabe da aditua hainaz landan, zeñiek ezarri izan baidiotza gauza guziak bere azpiko. **28** Ezarri zaizkoenean bada gauza guziak bere azpiko, orduan Semea bera ere jarriko da gauza guziak haren azpiko ezarri dituenaren azpiko, izan dadin Jainkoa guzietan guzia.

**29** Bertzela zer egiñen dute hillentzat bathaiatzen direnek, baldin guziz hillak bizten ez badire? Zergatik bathaiatzen ere dire hillentzat? **30** Eta gu ere zergatik perilletan ematen gare oren guziez? **31** Egun guziez hiltzen hari naiz; bai, ene anaiak, zuen ganik Jesukristo gure Jauna baithan heldu zaitan gloriáz zaituztet segurutzen. **32** Gizon bezala mintza nadin,



zer probetxu dut zeren bestien kontra gudukatu naizen Efesan, baldin hillak bizten ez badire? «Jan zagun eta edan zagun; berdin bihar hillen gare». **33** Ez zaitezela engana: gaizkoatzen dituzte hazkuntza onak ere solhas gaixtoek. **34** Atzar zaitezte, justuak, eta begira zaitezte bekhatu egitetik; badire ezen zenbait Jainkoa ezagutzen ez dutenik; zuen ahalkerietan mintzo natzaitzue.

**35** Ordean erranen duke norbaitek: «Nola biztuko dire hillak? Nola-ko gorphutzetan ethorriko dire?». **36** Zoroa!, zuk ereiten dukezuna ez da bizten, baldin lehenago ez bada hiltzen. **37** Eta ereiten duzuna ez da ethorri behar duen gorphutz bera, baiñan bihi hutsa, hala nola ogi bihia edo bertze zerbeit bihi. **38** Jainkoak ordean ematen dio nahi duen bezalako gorphutza, eta hazi bakhoitxari dagokon gorphutza.

**39** Haragi guzia ez da haragi bera; bainan bertze da alabaiñan gizonena, bertze berriz bestiena, bertze hegastiñena, bertze are arraiñena. **40** Badire halaber gorphutz zerutiarrak eta gorphutz lurtiarrak; bainan bertzelakoa da zerutiarren distiadura eta bertzelakoa lurtiarrena. **41** Bertze da iguzkiaren klartasuna, bertze berriz ilhargiarena; eta bertze oraino izarrena; izarren artean ere bata distiantagoa da bertzea baiño. **42** Gauza bera izanen diteke hillen biztean ere; gorphutza hazi bat bezala ematen da orai lurrean ustelgunean eta biztuko da ezin usteldukotzat. **43** Ematen da lurrean guzia hidoiztua, eta biztuko da guzia glorios. Ematen da lurrean guziak etheldua, eta biztuko da indarrez bethea. **44** Gorphutz animal bat da lurrean ematen dena, gorphutz espiritual bat izanen da biztuko dena. Baldin bada gorphutz animal bat, bada halaber gorphutz izpiritual bat ere, eskribatua den bezala: **45** «Adam lehenbiziko gizona kreatu izan da arima bizi batekien, eta Adam bigarrena bethea izan da Izpiritui bitzaille batez». **46** Ordean ez da lehenik ethorri izan izpiritual dena, bainan bai animal dena; ondoan ethorri da izpiritual dena. **47** Lehenbiziko gizona lurtiarra da, lurretik heldu dena; bigarren gizona zerutiarra da, zerutik heldu dena. **48** Nolakoa baitzen lurretikakoa, halakoak dire halaber lurretikako gizonak, eta nolakoa baida zerutikakoa, halakoak dire halaber zerutikako gizonak. **49** Nola bada ekharri izan baidugu lurretikako gizonaren imajina, ekhar dezagun hala hala zerutikakoarena.

**50** Hau bada erraten darotzuet, ene anaiak, zeren haragia eta odola ezin izan baiditezke Jainkoaren Erresumaren jabe, ez eta ustelgunea ezin ustelduaren jabe. **51** Huna misterio bat erraterat noatzena: guziak behindik behin biztuko gare, ordean guziak ez gare mudatuko. **52** Instant batez,

begi kolpe batez, azkeneko klaroiña soiñuan —joren du ezen klaroiñak— eta hillak biztuko dire ezin ustelduko direntzat, eta gu orduan gare mudatuko. **53** Ezen gorphutz ustelkor hunek behar du izan bestitua ezin ustelduko den bezala, eta gorphutz hilkor hunek behar du izan bestitua ezin hillen den bezala.

**54** Noiz eta ere bada gorphutz hilkor hau izanen baida bestitua ezin hillen den bezala, orduan konplituko da Eskriturako hitz hau: «Suntsitua izan da herioa biktoriaz. **55** O herioa, non da hire garaikoa? O herioa, non da hire eztena?». **56** Herioaren eztena bada bekhatua da: eta bekhatuaren indarra berriz legea. **57** Baiñan eskerrak dituela Jainkoak, zeñiek eman baidaroku biktoria Jesukristo gure Jaunaz.

**58** Hala, ene anaia maiteak, zaudezte tieso eta higitu ere gabe, bethi hari zaretela eta geroago are eta gehiago Jaunaren lanean, dakizularik zuen lana ez dela galdua Jaunaren aitzinean.

## XVI. KAP.

**1** Sainduentzat biltzen ohi direnez bezanbatean, egizue zuek ere Galaziako Elizetxe izan diotedan molde berean. **2** Asteko lehenbiziko egunean zuetarik batbederak eman beza apart bere baitan gorderik plazer duena, ni nathorkenean biltzen hasi gabe. **3** Hor naitekenean, gut-hunez zuek nor ere markatu baidarozkidatzueke, eta hek igorri ditut eramaterat zuen liberalitateak Jerusalem. **4** Baldinetariak ungi bada nero-ni ere nohan, enekien ethorriko dire.

**5** Ethorriko naiz bada zuetarat Mazedonia iragan dukedanean, ezen Mazedonian iraganen naiz. **6** Eta zuen baithan egonen naiz agian, edo dut negua iraganen ere, zuek gida nazazuentzat norat ere goanen bainaiz, eta harat. **7** Ez zaituztet ezen oraingotik iragategi xoilki nahi ikusi, baiñan esparantza dut zenbeit denboraz egonen naizela zuen baithan, baldin Jaunak permetitzen badu. **8** Egonen naiz bada Efesan Pentekoste arteraiño. **9** Ikusten dut ezen athe handi bat dagokidala idekia eta haintzek kontra egiñen darotedala.

**10** Baldinetariak Timotheo ethortzen bazaitzue, duzuen artha beldurrik gabe izan dadin zuen artean, Jaunaren lanean ezen hari da ni bezala. **11** Ez beza beraz nihork hura mezpreza; aitzitik gida zazue bakean, ethor dadin ene ganat; haren begira nago ezen, eta gure anaien. **12** Ene anaia Apoloz denaz bezanbatean, erranen darotzuet othoitztu dudala haintz



zuen ganat goiteaz gure anaietarik zenbaitekien; baiñan guziarekien ere ez zaio ungi orai goatea; ethorriko zaitzue astia duenean.

**13** Zaudete atzarriak; zaudete tieso fedean; duzuen animo eta har zazue indar. **14** Egiten duzuen guzia egizue amudiorekien. **15** Othoi behintzat, ene anaiak. Ezagutzen duzue Estefanesen familia, Fortunatena eta Akaikorena; badakizue hek direla Akaiako primeziak eta sainduen zerbitzurat bere buruak emanak dituztela. **16** Othoitz egiten darotzuet, bada, ekhartzeaz errespetu halako presunei eta bai gu laguntzen gaituzten eta gu bezala traillaitzen diren guziei. **17** Boztua naiz Estefanas, Fortunato eta Akaiko neurekien izateaz, zeren zuen aldetik eskas zena hek bethe izan baidute. **18** Deskantsatu izan dute ezen bai ene izpiritua eta bai zuena; eza-gutzatzue bada horlako direnak.

**19** Goraintzi darotzue Asiako elizek, goraintzi darotzue hainitz Jauna baithan Akillak eta Priszillak, zeinen baithan bainago, bai eta hekien etxe-ko elizak. **20** Goraintzi darotzue gure anaia guziek. Saluta zazue elkhar musu saindu batez.

**21** Huna nik Paulok zer dudan neure eskuz eskribatzen zuen goraintzizat. **22** Baldinetariak nihor bada Jesukristo gure Jauna maite ez duenik, izan dadillala anathema. Maran, atha. **23** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien. **24** Ene amudioa zuek guzietarat hedatzen da Jesukristo baithan. Amen.

## JOND. PAULO APOST. BIGARREN GUTHUNA KORINTHIARREI

### I. KAP.

**1** Paulok Jainkoaren borondatez Jesukristoren Apostolu denak eta Timotheo haren anaiak Jainkoaren eliza Korinthan denari eta Akaiaren diren saindu guziei: **2** grazia eta bakea dizuela Jainko gure Aitak eta Jesukristo gure Jaunak. **3** Benedikatua dela Jainkoa Jesukristo gure Jaunaren Aita, urrikalmenduen Aita eta konsolazione guzien Jainkoa, **4** zeiniek baigaitu konsolatzen gure atsekabe guzietan, guk ere konsola detzaguntzat bertzeak bere gaitz guzietan Jainkoak geroni konsolatzen gaituen konsolazione beraz. **5** Ezen zenbatenaz parte gehiago baidugu Jesukristoren sofrikarietan, hanbatenaz dugu halaber Jesukristoz heldu zaizkigun konsolazioneetan. **6** Ala izan gaitezen bada aflijituak, zuen instrukzioea gatik eta zuen salbamendua gatik gare; ala izan gaitezen animatuak, oraiño zuen instrukzioea gatik eta zuen salbamendua gatik gare, zein konplizen baida guk pairatzen ditugun gaitz beren pairantzan. **7** Hala zuetaz dugun esperantza ziñezkoa da, baidakigu sofrikarietan parte duzuen bezala konsolamenduan ere parte izanen duzuela. **8** Nahi dugu ezen jakin dezazuen, ene anaiak, zer izatu dugun sofritzeko Asian; bain herstura handitan izan gare ezen, eta gure indarrez goragoko penetan, non unhatuak ere baiginen bizitzeaz. **9** Baiñan geronek gere baithan aditu bezala dugu gure heriotzeko sententzia, gere baithan fida ez gaitzentzat, baiñan bai Jainkoa baithan, zeinek bizten baiditu hillak, **10** zeiniek libratu baigaitu bain perill handitarik eta atheratzen ere baigaitu, zeinaren baithan baidugu esperantza oraiño ere atherako gaituela, **11** zuek ere guretzat egiñen dituzuen othoitzen laguntzarekien batean, hainitz presunen ariaz errezibitu izan dugun graziaz hainitzek eskerrak errenda detzatentzat guretzat.

**12** Ezen gure burupea egiten duena da gure konszientziak errendatzen darokun lekhukotasuna: mundu huntan konportatu izan gara bihotz simple eta xahu batekien Jainkoaren aitzin, ez haragiaren zuhurtziaren arauera, baiñan Jainkoaren graziaren arauera, beregainki zuen alderat. **13** Ez derautzuegu ezen eskribatzen irakurtzean berean egiak dire-



la ezagutzen dituzuen gauzarik baizen. Esperantza dut bada fineraño hala ezagutuko dituzuela, **14** ezagutu ere gaituzuen bezala parte zuen gloria garela, hala nola zuek ere izanen baitzarete gurea Jesukristo gure Jaunaren egunean.

**15** Eta fidantzia hortan ene lehenbiziko xede izatu da zuen ikusterat ethortzea, bigarren grazia bat izan zinezatentzat. **16** Zuen baitharik ezen nahi nuen iragan Mazedoniarat goatean; Mazedoniatik gero berriz ethorri zuen ganat eta zuek gida nintzazuen Judearat. **17** Xede hori nuenaz geroz orduan, arintasunez utzi othe dut konplitu gabe? Edo xede bat hartzen dudanean, haragiaren arauera hartzen othe dut, *bai* eta *ez* ene baithan aurkhitzen balire bezala? **18** Aitzitik lekhuko hartzen dut Jainkoa, bere hitzetan fidel dena, zuen artean giñenean erran darozkitzuegun gauzetan ez dela *bai* eta *ezik*; **19** ezen Jesukristo Jainkoaren Semea baithan, zeña predikatu izan baidarotzuegu nik eta Silbanok eta Thimotheok, ez da *bai* eta *ezik*; aitzitik ez da *bai* baizen haren baithan. **20** Jainkoaren agintza diren guziak ezen *bai* bat dire Jesukristoren presunan, eta hargatik ere erraten diogu Jainkoari hartaz Amen, glorifikatua izan dadintzat gutaz; eta horrek egiten du gure ministerioaren gloria.

**21** Jainkoa bera da, bada, Jesukristo baithan gu borthizten gaituena zuekien batean, eta bere gantzuduraz gantzutu gaituena; **22** bere zigilluaz markatu ere gaituena, eta bahitzat Izpiritu Saindua gure bihotzetan eman darokuna. **23** Bada nik Jainkoa hartzen dut lekhuko ene arimaren perillean, zuen guphidaz ez naizela bihurtu Korintharat; ez bada nausitzen garelakotz zuen fedean; aitzitik lagundu nahi baidugu zuen bozkarioa, finki zaudeztenaz geroz fedean.

## II. KAP.

**1** Egin izan dut bada neure baithan, ez nuela berriz ethorri behar zuen ikusterat zuek doloratzekotan. **2** Baldinetariak ezen nik tristaraz bazintzatet zuek, nor diteke ni alegera nintzakenik, neronek tristarazi nintuzkenez lekhora? **3** Eta hori bera eskribatu izan darotzuet ere, izan ez nezantzat zuen ganat nenthorkenean tristezia tristeziaren gaiñerat bozkario eman behar laroketedanen ganik; fida naiz ezen zuez guziez ene bozkarioa zuen guziona daitekela. **4** Egiaz ezen afflikzione handi batean eta bihotzeko herstura handi batean eskribatu narotzuen orduan eta nigar

haintzekien; ez zuek tristaraztea gatik, baina zuei ezagutazitea gatik zuentzat zuen gaiñetik dudan karitatea.

**5** Baldin norbeitek tristarazi banau, ez nau ni bakharrik tristarazi, baiñan nolazbait bederen, hura gaindiz karga ez dezadan, zuek guziekien. **6** Asko du haiñak orai den estatuan haintz presunen ganik izan duen zentzagune hori. **7** Eta are aitzitik barkhatu behar diozue orai, eta konsolatu behar duzue haiña, hondatua ez dadin tristezia handiegi batean. **8** Hargatik zaituztet othoitzten hari bethiere emateaz zuen karitatearen seiñale zenbeit. **9** Horren gatik eskribatzen ere darotzuet zuek frogatzea gatik eta ezagutzea gatik hea gauza guzietan obedient zaren. **10** Bada zuek zerbeit barkhatzen diozuenari, nik ere barkhatzen dioket: ezen neronek ere barkhatu diokedanari, baldin zerbeit barkhatu izan badut, zuen amorea gatik egin dioket Jesukristoren presunan, **11** Satanez atzemanak izan ez gaitzentzat; badakizkigu ezen haren xedeak.

**12** Ethorri nintzenean bada Troadarat Jesukristoren Ebanjelioa predikatzerat, eta athea ere idekia izan baitzitzaitan Jaunaren izenean, **13** ez nuen izan sosegurik ene izpirituan, zeren ez bainuen han aurkhitu Tito, ene anaia; baina hei adiu erranik, abiatu nintzen Mazedoniarat. **14** Eskerrek diotzat bada Jainkoari, zeinek bethiere garai egiten baigaitu Jesukristo baithan eta banatzen ere baitu gutaz lekhu guzietan bere izenaren ezagutzaren urriña. **15** Ezen Jesukristoren urrin ona gare Jainkoaren aitzinean, nahiz salbatzen direnentzat eta nahiz galtzen direnentzat. **16** Batzuen alderat bada herio urrina heriotzekotzat, bertzeen alderat berriz bizitzeko urriña, biziarrizten dituena. Eta non aurkhi presunak hortakotz gai direnak? **17** Ez gare ezen haintz bezala, zeñiek desohoratzen baidute Jainkoaren hitza; aitzitik garbiki mintzo gare eta Jainkoaren mezuz bezala, Jainkoaren aitzinean eta Jesukristoren presunan.

## III. KAP.

**1** Hasiko othe gare berriz ere gere buruen goratzen? Ala naski batzuk bezala gomendiozko buthunen beharra baidugu zuen ganat edo zuetarik bertzeen ganat? **2** Gure gomendiozko buthuna zebonek zarete gure bihotzetan eskribatua, zeña ezagutzen eta irakurtzen baidute gizon guziek. **3** Ageri baida Jesukristoren buthuna zaretela gure ministerioz eskribatua ez tintaz, baiñan Jainko biziaren Izpirituaz; ez harrizko plamentan, baiñan zuen bihotzetan, haragizko plama batzutan bezala. **4** Hortaz



bada fida gare Jainkoaren aitzinean Jesukristoz; 5 ez gure baitharik gai garelakoan konzebitzeko zerbeit gere baitharik bezala; baiñan gure gaitasuna Jainkoa ganik heldu da, 6 zeinek gai egin baigaitu alientzia berriko ministre izateko ez letraren, baiñan aitzitik Izpituaren; letrak ezen hiltzen du, Izpituak ordean bizia du ematen. 7 Baldinetariak harriaren gainean eskribatua zena, heriotzeko langintza bat zelarik, bain bethea izan bada gloriaz, non Israelgo umeek ezin beha baitziozaketen Moiseren bisaiari, haren begitarteko gloria zela kausa, berehala iragan beharra zen arren, 8 zenbatenez Izpituaren obrantza ez da gloriosagoa izanen? 9 Ezen baldin kondenezionaren langintza bethea izan bada gloriaz, gehiago are izanen bide da justiziarena. 10 Eta alde hartarik distiatu izan duena ez da ere glorioso izatu gloria exzelentago baten aldean. 11 Baldinetariak ezen iragaten ohi dena gloriaz bethea bada, are gehiago bide da bethiere iraun behar duena gloriaz bethea.

12 Horlako esperantza beraz dugunaz geroz, libertate handirekien mintzo gare. 13 Eta ez gare Moise bezala, zeinik belo bat ematen baitzuen bisaiaren gainean, Israelgo umeek ikus ez zezatentzat haren bisaiaren distadura iragankorra. 14 Ordean tapatuak bezala egon dire hekien Izpituak; egungo egunerainokoan ere ezen, Testament Zaharra irakurtzen dutenean, belo hura bera hekien bihotzen gainean dago, altxatua izan gabe, zeren Jesukristoz baizen ez baida khentzen. 15 Eta orai arterainokoan Moises irakurtzen zaienean, estalki bat bihotzaren gainean dute. 16 Ordean populu hura itzuliko denean Jauna ganat, khenduko zaie estalkia. 17 Jauna bada Izpitu da, eta non ere baida Izpituia, han diteke libertatea. 18 Gu guziak ordean, bisaia ageri dugula Jaunaren gloria kontenplazten dugunak, mudatuak gare imajina bererat, iragaten garelarik klaritateik klaritaterat Jaunaren Izpituaz bezala.

#### IV. KAP.

1 Hargatik bada, ministerio hori baidugu egin izan zaikun miserikordiaren arauera, ez gare etheltzen. 2 Aitzitik arthiki ditugu gordetzen diren gauzak eta ahalkeria dakharketanak, ibilli gabe finezian eta Jainkoaren hitza bertzelakutzen; aitzitik egiaren agertzeaz estimarazten ditugularik gere buruak gizon guziez, hekien konszientziaren jujeamenduan Jainkoaren aitzinean. 3 Eta baldin hala ere estalia bada gure Ebanjelioa, galtzen direnentzat da estalia, 4 zeinen artean mundu huntako Jainkoak itsutu baiditu infidelen izpituak halako moldez, non ez baidu hekien gainean argi-

tzen Ebanjelioaren argiak, zeina baida Jesukristo Jainkoaren imajina denaren gloria. 5 Ez ditugu ezen gere buruak predikatzen, baiñan Jesukristo gure Jauna dugu predikatzen; eta gere buruak zuen zerbitzari dauzkagu Jesusen amorea gatik. 6 Zeren illhunbetarik argia ilkhi dadillala manatu izan duen Jainkoak berak argi egin baidu gure bihotzetan distadura gehiagorekien, ezagutarazitzeko Jainkoaren gloria Jesukristo baithan agertzen den araez.

7 Ordean thresor hori lurrezko jarro batzuetan dakharkegu; ezagutzerat emateko gure baithan diteken botherearen handitasuna Jainkoa ganik dela eta ez gure ganik. 8 Guzietan atsekabeak ditugu, baiñan ez gare unhatzen; griña handitan gare, ordean ez gare ilkhipiderik gabe. 9 Persekutatuak gare, baiñan ez gare abandonatuak; arthikiak gare, baiñan ez gare osoki galduak, 10 bethiere dakharkegularik Jesusen mortifikazionea gure gorputzean, Jesusen bizitza ere ager dadintzat gure gorputzetan. 11 Bethi ezen gu bizi gareino heriotzerat gare libratuak Jesusen gatik, Jesusen bizitza halaber ager dadintzat gure haragi hilkorrean. 12 Beraz heriotza hari da gure baithan eta bizitza zuen baithan. 13 Baiñan fedezko Izpitu bera baidugu, eskribatua den bezala: «Sinhetsi dut eta hargatik naiz mintzatu», guk ere sinhesten dugu eta hargatik mintzo ere gare. 14 Baidakigu Jesus biztu izan duenak gu ere halaber biztuko gaituela Jesusekien eta ageraziko gaituela zuekien batean bere aitzinean. 15 Guziak ezen zuentzat dire, grazia frankiaz ethorririk, gloria gehiago bihur dakioentzat halaber Jainkoari, hainitzek eskerrak errendatzeaz.

16 Hargatik ez gare gogo urritzen; aitzitik gure gizon kanpokoak desegiten den arren, hala ere gizon barrenekoa erreberritzen hari da egunetik egunerat. 17 Ezen orai ditugun lazeria iraupen gutitakoek eta ariñek gloria soberano eta neurri gabeko baten pisu eternala dute egiten gure baithan. 18 Hala ez ditugu konsideratzen gauza ikusten direnak, baiñan bai ikusten ez direnak; ikusten direnak ezen denborako dire, ikusten ez direnak ordean eternalak dire.

#### V. KAP.

1 Badakigu ezen, baldin lurreko gure egoitza huntako etxe hau desegiten bazaiku, izanen dugula Jainkoa ganik bertze egoitza bat zeruetan, etxe bat gizonen eskuz egiña ez dena eta eternitatean iraunen duena. 2 Hortakotz gaudez ere hatsbeherapenez, gure egoitza zeruko den hartaz



bestituak izan nahian, **3** baldinetariak behintzat bestituak edireten bagare eta ez bilhuziak. **4** Ezen egoitza huntan gareño hats-beherapenez gaudez kargaren azpian, zeren ez baidugu desiratzen bulhuziak izatea, aitzitik bai gainetik bestituak izatea, hilkor duguna iretsia izan daiteken bezala bizitzeaz. **5** Eta hortarat bererat moldatu izan gaituena Jainkoa da, zeiniek herresatzat eman ere izan baidaroku bere Izpiritua. **6** Fida gare bada behiere, eta dakigularik gorphutz huntan gaudezeiño Jauna ganik urrunduak gabiltzala **7** —fedez gabiltza ezen, eta ez ikustez—, **8** fida gare, diot, eta nahiago ginduke gorphutz huntarik ilkhi eta goan Jaunarekien egoterat. **9** Hargatik lehiazten ere gare hari agradatzerat, nahiz izan gaitezen haren ganik urrunduak, nahiz izan gaitezen haren ganat helduak. **10** Guziok ezen agertu beharrak gare Jesukristoren tribunalaren aitzinean, batbederak errezihi dezantzat bere gorphutzaz bestitua zenean egin duken ungiari edo gaizkiari zor zaiोजना.

**11** Baidakigu bada zer den Jaunaren beldurtasuna, bertzeak ere ditugu hartarat erakhartzen; eta Jainkoak ezagutzen gaitu garen bezalakotzat. Uste dut bada zuen konszientzietan zuek ere ezagutzen gaitutzuela nola-koak garen. **12** Ez gabiltza berriz ere gere burua zuetaz prezarazi beharrez, bainan bai zuei okasione eman nahiz gure ariaz gloriatzeko, izan dezazuentzat zer ihardets bere gloria itxurapenetan ematen dutenei, eta ez bihotzean diren gauzetan. **13** Ezen, ala utz dezagun gure Izpiritua mugarriz haratago goaterat, Jainkoa gatik diteke; ala gaudezen baratxe, zuen gatik daiteke. **14** Ezen Jesukristoren amudioak hertxatzen gaitu; konsideratzen baidugu, baldinetariak bakhar bat bill izan bada zuen gatik, beraz guziak hillak direla, **15** eta guzientzat hill izan dela Jesukristo, bizi direnak ere gaur gehiago ez daitezentzat bizi beretzat, baiñan bai hekientzat hill eta biztu izan denarentzat.

**16** Hargatik guk hemendik harat ez dugu nihor ezagutzen haragiaren arauera. Eta baldinetariak ezagutu izan badugu Jesukristo haragiaren arauera, ordean orai ez dugu horla ezagutzen. **17** Baldinetariak bada norbeit Jesukristo baithan bada, kreatura berri bat haina egin da; zahar ohi zena iragan da; huna gauza guziak berri eginak. **18** Eta hauk guziak Jainkoa ganik dire, zeiniek baketu baigaitu berekien Jesukristoz eta eman baidaroku guri baketzeko kargua. **19** Zeren Jainkoa Jesukristo baithan baitzen mundua berekien baketzen hari zenean, kondatzen ez zaroztela bere bekhatuak; eta berak ibeni izan du gure baithan errekonziliacionearen hitza. **20** Beraz Jesukristoren enbaxadore gare, eta Jainkoak gutaz exhortatzen bazintuzte bezala da. Jesukristoren partez zaituztegu errekeritzen: bake

zaitzte Jainkoarekien. **21** Bekhatua ezagutzen ez zuena gure gatik tratatu izan du ezen, bekhatua bera izan balitz bezala, egin gintezentzat gu haren baithan justu Jainkoaren arauerako justiziaz.

## VI. KAP.

**1** Jainkoaren langille baigare, bada, exhortatzen zaituztegu arren ez dezazuen alferretan errezihi Jainkoaren grazia; **2** dio ezen berak: «Ordu onean entzun zaitut eta salbamenduko egunean lagundu zaitut». Huna orai denbora gogarakoa; huna orai salbamenduko egunak. **3** Hala ez bide diogu ematen nihori eskandalisatzeko lekhurik, desohoratu izan ez dadintzat gure ministerioa. **4** Aitzitik gauza guzietan agertzen gare Jainkoaren ministro batzuk izan behar duten bezalako, pairakortasun handi batez atsekabeetan, beharkizunetan, hersturetan, **5** zaurietan, presondagietan, albotaramenduetan, traillaletan, Beillatzetan, baruretan, **6** garbitasunez, jakintzaz, pairakortasunez, mantsotasunez, Izpiritu Sainduaren berthutez, karitate garbi batez, **7** egiaren hitzaz, Jainkoa ganikako botherez, justiziaren armez, eskuin eta ezker; **8** bai ohorearen eta bai desohorearen artean; bai fama gaixtoaren eta bai onaren artean; enganatzaille batzu bagiñe bezala, egiatiak garen arren; ezagutu gabe batzu bagiñe bezala, ungi ezagutuak garen arren; **9** hiltzen hari bagiñe bezala eta hala ere bizi; kolpeka darabiltzatenak bezala, ordean ez hiltzeraiño koan; **10** triste bezala, ordean bethi alegera; pobre bezala, ordean hainitz aberasten dugu; deusik gabe garenak bezala eta hala ere guzien jabe.

**11** Gure ahoa zuentzat idekia da, o Korinthiarak; gure bihotza zabaldua dagotzue. **12** Ez zarete hertsiki gure baithan, baiñan zuek duzue bihotza hertsiki enetzat. **13** Bada ordaiña bihur diezadazuentzat, neure haurrei bezala erraten darotzuet: zabal zazue zuek ere bihotza enetzat. **14** Ez zaitzeltela balsa infidelekien; ezen zer balsagune izan ahal diteke justiziaren eta inikitatearen artean? Edo zer parzunezko, argiaren eta ilunbearen artean? **15** Zer erkidetasun Jesukristoren artean eta Belialen artean? Edo zer akordu fidelaren eta infidelaren artean? **16** Zer aria duke Jainkoaren tenpluak idolekien? Zuek ezen Jainko biziaren tenplua zarete, Jainkoak berak erraten duen bezala: «Egonen naiz hekien baithan eta ibilliko naiz hekien artean; izanen naiz hekien Jainkoa eta hek izanen dire ene populua».





17 Hargatik beraz «ilkhi zaitzte jende hekien artetik eta aldara zaitzte hekien ganik, dio Jaunak; eta ez dezazuela ukhi lohi denik, 18 Eta nik hartuko zaituztet; izanen natzaitzue Aitatzat, eta zuek izanen zaizkidate niri seme eta alaba, dio Jaun guziz botheretsuak».

## VII. KAP.

1 Horlako agintzak ditugunaz geroz, ene maiteak, xahu gaitezen haragiaren eta Izpirituaren lohigune guzietarik, akhabatzen dugularik gure santifikazionearen obra Jainkoaren beldurtasunean. 2 Har gaitzatzue zuen bihotzean; nihori ez diogu egin bidegaberik; nihor ez dugu gaizkoatu; nihor ez du atzeman. 3 Ez dut hau erraten zuek kondenatzeko; erran darotzuet ezen ja bihotzean zakharzketadala, zuekien hiltzeko eta bai bizitzeko. 4 Libertate handirekien mintzo natzaitzue; burupe handi dut zue-taz gloriatzeko; konsolazionez bethea naiz; bozkarioz gaindi egiña naiz ene sofrikari guzien artean.

5 Ezen Mazedoniarat ethorri eta ere, ez dugu izatu sosegu garabik haragiaren arauera; aitzitik sofritzeko den guzia sofritu dugu: kanpotik guduak, barnetik izialdurak. 6 Baiñan humillak eta afljituak konsolatzen dituen Jainkoak, konsolatu izan gaitu Titen ethortzeaz. 7 Eta ez xoilki haren ethortzeaz, baiñan oraiño berak zuen ganik errezibitu izan duen konsolazioneaz, kondatu izan darokunean zuen desira ene ikustekoa, zuen nigarrak, zuen lehia enetzat; hala, non gehiago boztu izan bainaiz. 8 Ezen baldin tristatu bazaituztet ere ene buthunaz, ez nago urrikitan orai, lehen urrikitu izan bazait ere, ikusirik aphur batekotz tristatu zinitutzela buthun hark.

9 Orai atsegin dut, ez zeren tristatu zareten, baiñan zeren tristatu izan zareten penitentzia egiterainokoa; zuen tristezia Jainkoaren arauera-koa izatu da, eta hala kalterik ez zaitzue heldu gure aldetik. 10 Ezen Jainkoaren arauerako den tristeziak penitentzia iraupeneko bat du eragiten salbamendukotzat; mundu huntako tristeziak ordean heriotzea dakharke. 11 Horra ezen Jainkoaren arauera tristatze horrek nola ekharri zaituzten atzarriago izaterat; baiñan are zuen buruen justifikatzerat, suminduak izaterat, beldur izaterat, lehian jartzerat; baiñan zelo handi bat izaterat, baiñan arimaren punitzerat. Manera guziez erakutsi izan duzue xahu zaretela zuek egiteko hortan. 12 Hala beraz, baldin eskribatu izan badarotzuet, ez darotzuet egin injuria egin izan duena gatik, ez eta injuria jasan izan

duena gatik; aitzitik bai zuei ezagutarazitzea gatik zuetaz dugun artha Jainkoaren aitzinean.

13 Horrek gaitu ere konsolatu; ordean errezibitu dugun konsolazionean gehiago are boztu gare Titek izatu duen atseginaz, zeren deskansatua izan baida haren izpiritua zuetaz guziez. 14 Eta zeren baldin zerbeitez gloriatu izan banaiz zuen ariaz hari mintzatzean, ez baidut izatu ahalkatzeko sujetik; aitzitik bethiere egiaz mintzatu gaizkitzuen bezala, Titeri zuetaz errendatu izan diogun lekhukotasuna ere egiaren arauerakoa gertatu izan baida. 15 Eta haren amudioa zuentzat berretzen ere da, orhoitzen denean zuen guzien obedientziaz, eta nola errezibitu izan duzuen beldurrekien eta ikhararekien. 16 Atsegin dut bada, zeren gauza guzietan izan ahal bainaiteke fida zuetaz.

## VIII. KAP.

1 Jakinarazi behar darotzuet bada, ene anaiak, Jainkoak Mazedonia-ko elizei egin daroen grazia; 2 Nola hekien bozkarioa hanbatenaz izatu den handiagoa, zenbatenaz izan baidire aflikziona handiagoez frogatuak; eta nola bere pobrezia ezin gehiagokoa, frankiak izatu diren bihotz onez amoiña handiak egiterat. 3 Ezen lekhukotasun hau eman behar daroet: bere baitharik ekharriak izatu direla ematerat ahal zutenaren arauera, eta ahalaz gehiago ere; 4 errekerimendu hainitzekien othoiztzen gintuztelarik hekien amoiñak errezibitzeaz eta hek sainduei eramateko mezuan parte hartzeaz. 5 Eta hortan ez dute xoilki egin hekien ganik igurikitzen ginduena, baiñan eman diotzate bere buruak lehenik Jaunari eta gero eman darozkigute guri Jainkoaren nahirat.

6 Horri dagokala othoiztu dugu Tite, arren hasi izan duen bezala akhaba dezan zuen baithan ere karitatezko obra hori; 7 ordean nola guzietan frankiak baitzarete, fedean, hitzetan, jakintasunean, artha suerte guzietan eta are gehiago guretzat duzuen amudioan, izan zaitzentzat halaber frankiak karitatezko obra huntan ere. 8 Ez dut zuei manatzeko hau erraten, baiñan xoilki bertzen lehiaren exenpluaz zuek ere erakartzeko zuen karitatezko gogo onaren frogak ematerat. 9 Badakizue ezen nolakoa izatu den Jesukristo gure Jaunaren miserikordia; nola aberats zelarik, zuen gatik pobre egin izatu den, haren pobreziaz zuek aberats zintzentzat.



10 Eta hau da nik ematen darotzuedan konseillua, eta zuen probetutako ere baida; zeren ez xoilki zuek lehenik hasi izan baitzarete karitate horren egiten, baina are xedea hartu ere baitzinduten hartakotz izandani. 11 Orain bada egiteaz ere akhaba zazue, nahia eta gogo prest izan duzuen bezala, izan dezazuen halaber akhabatzea ere zuen ahale arauer. 12 Baldinetariak ezen nihork gogo handi badu emateko, errezibitzen dio Jainkoak; eta ez dio galdetzen duenaren arauer baizen, eta ez ez duenaren arauer. 13 Hala ez da ene gogo bertzeak izan daitezen guphide-tsiak eta zuek izan zaitezten kargatuak; aitzitik bai gauzak izan daitezen igoal, 14 presenteko denboran zuen frankia hel dakioen hekien pobrezia-ri, hekien frankia ere hel dakioentzat egun batez zuen gabeari, eta horla guziak egin daitezen igoal, eskribatua den bezala: 15 «Hainitz zuenak ez zuen izan bertzeek baiño gehiago eta guti zuenak ez zuen izan gutiago».

16 Eskerrak diotzat bada Jainkoari, zeren eman baidu ardura bera zuentzat Titeren bihotzean, 17 zeren ez xoilki ungi hartu izan baidu nik egin izan diodan othoitza, baina bere baitharik oraino arduratsua gozanez, goan baida zuen ganat bere borondate onez. 18 Igorri izan dugu harekien batean gure anaia bat ere, zeinak laudorio hainitz ardietsi baidu Ebanjelioaz Eliza guzietan. 19 Eta ez xoilki hori; baiñan zeina hautatua izan ere baida Elizez gure biyaietako laguntzat karitatezko obra hortakotz, zeina egiten baida gure eskuz Jaunaren gloriako eta hartu izan dugun xedearen arauer; 20 ez nahiz nihork erratekorik duen guretzat, gure eskuz egiten diren amoiña handi horien ariaz. 21 Ardura dugu ezen ungi egiteko ez xoilki Jainkoaren aitzinean, baiñan halaber gizonen aitzinean ere.

22 Igorri izan dugu, bada, hekiekien halaber gure anaia bat, zeina ezagutu izan baidugu hainitz gauzatan zeloz bethea eta huntan are gehi-ago; fidantzia handi bat dugu ungi hartuko duzuela. 23 Eta orobat Tite ere, zeina ene laguna baida eta zuentzat haritu naizenetan nauena, eta bai halaber bertze gure anaiak ere, Elizetako Apostoluak, Jesukristoren gloria. 24 Ager diozue beraz Elizen aitzinean zuen karitatea eta erakuts zer-gatik glorifikatzen garen zuen ariaz.

## IX. KAP.

1 Ezen sainduentzat destinatua den laguntza hortaz sobrantzia zait zuei gehiago eskribatzea; 2 baidakit hortakotz duzuen gogo ona, zeinen ariaz glorifikatzen ere bainaiz zuetaz Mazedoniaren aitzinean, erraten

daroodala Akaiko probintzia izandani hortarat preparatua dela eta zuen exenpluak eman izan diote ere hainitz lehia bera. 3 Igorri izan ditut bada gure anaiak zuen ganat, gertha ez dadintzat alferrik glorifikatu naizen zue-taz puntu horren gainean, eta erran dudan bezala preparatuak aurkhi zaitezten gatik; 4 beldurrez, enekien ethorriko diren Mazedoniarrek aurkhi-tzen bazinituzte preparatu gabeak, ahalkierarik izan ez dezagun —ez erra-teko zebonek zinduketela— egiteko hortan. 5 Uste izan dut beraz othoi-tu behar nituela anaiak aitzinerat goateaz zuen ganat eta artha izateaz, agindua duzuen liberalitatea izan dadin preparatua gu ethor orduko; ordean izan dadin emaitza bat amudioz egiña, ez abarizari idekia.

6 Erraten darotzuet bada bau: guti ereiten duenak guti bilduko ere du eta frankoki ereiten duenak frankoki bilduko ere du. 7 Batbederak eman beza bere baithan emateko exlejitu dukena ez tristeziarekien edo bortxaz bezala; ezen alegeraki ematen duena du maite Jainkoak. 8 Jainkoa bada guziz botheretsu da graziak «guziak zuen gainerat gaindiz isurtzeko; gauza guzietan bethiere duzuelarik bizitzeko aski den guzia, duzuentzat frankoki zertaz egin obra on suerte guziak, 9 eskribatua den bezala: «Barraiatu izan du, eman izan daroe pobreei; haren justutasunak irauten du mende guzietako mendeetan».

10 Ereilleari ematen dioenak bada ereitekoa emanen darotzue hala-ber jateko behar duzuen ogia, erakharriko dio hainitz zuen ereintzari eta berretuko ditu hainitz zuen justutasunaren fruituak; 11 manera guziez aberasturik, egin detzatzuentzat bihotz onez amoiña handiak; eta horri dagokala diotzagu eskerrak ematen Jainkoari. 12 Ezen karitatezko eginbi-de hortako ongundeak ez xoilki ditu bethetzen sainduen beharrak, baiñan oraino esker franko errendarazitzen diotza Jainkoari; 13 zeren ongunde hortaz errezibitzen duten sokorria frogaturik, glorifikatzen baidute Jain-koa Jesukristoren Ebanjelioarentzat erakusten duzuen obedientzia, eta hei eta bai bertze guziei zuen ontasunetarik parte egiteko duzuen karita-teaz. 14 Eta Jainkoari othoitza egiten baidiote zuentzat, amudioz betheak baidire zuentzat Jainkoak zuen baithan ibeni izan dituen grazia exzelen-ten gatik. 15 Jainkoak eskerrak dituela bere dohain erran ahal daiteken guziaz goragokoaz.



## X. KAP.

1 Nik neronek bada, Paulok, zaituztet othoizten Jesukristoren manutasunaz eta modestiaz; nik, present naizenean alabainan bain xume agertzen naizenak zuen artean, eta absent naizenean bain ausart zuen alderat. 2 Diot bada: othoitz egiten darotzuet, present izanen naitekenean ez nadin behar fidantzia hartaz, zeña uste baidute dudala zenbeiten alderat, zeñei iduritzen baitzaie haragiaren arauera gabiltzala. 3 Bada haragian bizi garelarik, ez gare haragiaren arauera gudukatzen. 4 Ezen gure gerlako armak ez dire haragizkoak, baiñan bai Jainkoa baithan botheretsu direnak, kontra jartzen zaien guzia desegiteko; hala desegiten ere ditugu gizonen izpirituen afinuak, 5 eta bai Jainkoaren jakintzaren kontra goratasunekien altxatzen den guzia; eta arma horiez ditugu izpiritu guziak Jesukristoren obedientziaren azpian ezartzen gathibutasunean, 6 gure eskuko baidugu desobedient guzien punitzea, konplitu dukezuenean zuek behar den obedientzia.

7 Jujea zazue bederen gauzez iduri duten arauera. Baldinetariak edozein fida bada bere baithan Jesukristorena dela, pensa beza halaber bere baithan, hura Jesukristorena den bezala, gu ere Jesukristorenak garela. 8 Ezen gehixiago gloriatzen banintz ere dugun bothereaz, zeña Jaunak eman izan baidaroku zuen edifikazionekotzat eta ez zuen destruzionekotzat, ez ninteke ahalke. 9 Ordean iduri ez duentzat izitu nahi zaituztegula buthunez, 10 (haren buthunak ezen, diotsate, pisuak dire eta borthitzak; ordean bera ikusten denean, gauza gutia da hura eta bere mintzoan meziprezagarri ere dena), 11 har bezate gogoan haiña bek, nolakoak baigare buthunez mintzo garenean urrundik hitzez, halakoak garela bada present garenean obraz.

12 Ez gare ezen hauzu gere buruak berdin ematerat edo konparatzerat berze bere buruak laudatzen dituzten batzuekien; aitzitik gere buruak neurtzen ditugu gere baithan garenaren gainean eta konparatzen gere buruekien. 13 Ez eki; ez gare neurritz gorago gloriatuko, baiñan bai Jainkoak neurthu izan gaituen erregelaren eta neurriaren arauera, zeña baida zuetaraiño heltzeko neurria. 14 Ezen ez gare behar baiño gehiago hedatzen, zuetaraiño heldu izan ez bagiñe bezala, zuetaraiño heldu izan garenaz geroz Jesukristoren Ebanjelioa predikatzen dugula. 15 Ez gare beraz sobraniaz gloriatzen eta bertzeren lanez, baiñan esperantza dugu zuen fedea bethi eta geroago eta gehiago berretuz goanen dela eta gure sailla hainitz urrunago ere hedatuko dugula, 16 Ebanjelioa predikatzen diotegu-

la zuetaz haratago diren nazioneei, bertzeren saillan ja landua denaz gloriatu gabe. 17 Gloriatzen dena, bada, gloria bedi Jauna baithan. 18 Ez da ezen bere burua prezatzen duena egiazki prezagarri dena, baiñan bai Jainkoak prezatzen duena.

## XI. KAP.

1 Nahi nuke paira bazinezate aphur bat ene ergelkeria! Bainan aitzitik paira nazazue ere. 2 Jeloskor naiz naiz ezen zuentzat Jainkozko jelosia batez, zeren fedaztatu baitzaituztet espos bati, zeina baida Jesukristo, birjina garbi bat bezala zuek hari presentatzeko. 3 Beldur naiz ordean sugeak Eba enganatu izan zuen bezala bere fineziaz, hala zuen izpirituak ere gaixta ez daitezen eta hastan Jesukristoren arauerako sinpletasunetik. 4 Ezen baldinetariak heldu zaitzuen batek predika baliezazue guk predikatu ez darotzuegun bertze Kristo bat, edo errezibi baziñezate errezibitu izan duzuenaz bertze izpiritu bat edo besarkatu duzuen Ebanjelioaz bertze bat, arrozoin zindukete haiña pairatzeko. 5 Uste dut ordean deusere gutiagoko ez dudala egin Apostolu handienek baiño. 6 Ezen baldin ungi mintzatzzen ikhasia ez banaiz ere, ordean ez naiz hala jakintasunean; aitzitik gauza guzietan aski ezagutuak gare zuetaz.

7 Ala naski bekhatu egin duket neure burua beheratu izan dudanean zuek altxatzea gatik, zeren dohainik predikatu izan darotzuedan Jainkoaren Ebanjelioa? 8 Bertze Elizak bulhuzi izan ditut, hetarik bizitzekoa hartu baidut zuek zerbitzatzeko estatuan izatea gatik. 9 Eta zuen artean ere beharrean nintzenean, ez natzaio nihori karga izatu, ezen eskas nue-naz probeditu izan naute Mazedoniatik ethorri ziren anaiek; eta gauza guzietan begiratu izan naiz eta begiratuko ere naiz zuen karga izatetik. 10 Lekhuko hartzen dut Jesukristoren egia, zeña ene baithan baida, gloria hori ez darotedala khenduko Akhaia guzian. 11 Eta zergatik? Zuek ez maite izanez? Jainkoak daki hori. 12 Hori egiten dut, bada, eta eginen ere dut ez uztea gatik atzekiarik atzekia bilha dabilzane, gure berdin agertu nahiz gloriatzen diren gauzetan. 13 Ezen halakoak Apostolu falsoak dire, eta langille enganiosak, Jesukristoren Apostoluen iduria hartzen dutenak. 14 Eta ez da mirestekoto, Satanek berak ere hartzen ohi duenaz geroz argizko aingeruaren idurikundea. 15 Ez da, beraz, gauza handia haren zerbitzariet hartzen badute justiziaren ministroen iduria; hekien azken fina ordean izanen da hekien obren arauerakoa.



**16** Berriz ere diot: nihork ez beza uste izan erhoa naizela, edo ezberen paira nazazue erho bat bezala, ni ere aphur bat handiets nadin. **17** Erraterat nohana, ez dut Jainkoaren arauera erraten, bainan erhokeriaz bezala gloriatzeko hartzen dudan burupe huntan. **18** Hainitzak gloriatzen direnaz geroz haragiaren arauera, handietsiko naiz bada ni ere aria hortaz; **19** ezen zebonek zuhurrak baitzarete, pairatzen ditutzue gogotik zuhur ez direnak. **20** Pairatzen duzue ezen gathibutasunean ezar zaitzazten, irets zaitzazten, zuen ontasuna har diezazueten, nausi dakizkitzueten, mazelakoz jo zaitzazten. **21** Ene ahalkerietan hori erraten dut, alde hortarik gu flakoegi izan bagiñe bezala.

Zer nahi gauzaz hetarik nihor atrebi dadin bere burua bantatzerat (erhoki mintzo naiz), ni ere atrebi naiteke bantatzerat. **22** Hebrearrak dire? Bai eta ni ere. Israeldarrak dire? Bai eta ni ere. Abrahamen ume dire? Bai eta ni ere. **23** Jesukristoren zerbitzariak dire? (gizon guti zuhur bat bezala mintzo naiz). Bai eta ni gehiago; jasan baidut nekhe gehiago eta preson-degi gehiago; izan bainaiz zehatua zilhegi den baiño gehiago; ikusi baidut neure burua asko aldiz hiltzat utzia. **24** Judutaren ganik bortz aldi diferentez errezibitu izan ditut azote kolpeak, aldian berrogoi bat guti. **25** Hirur aldiz izatu naiz zigorrez zehatua, behin izatu naiz harrikatua, hirurretan galdu izan naiz itsasoan, gau bat eta egun bat egin izan ditut itsasoaren ondoan. **26** Izan naiz maiz biyaietan, arribera gaiñean perilletan, ohoiñen ganik perilletan, ene nazionekoen ganik perilletan, paganoen perilletan, hirien erdian perilletan, bakhar lekhuetan perilletan, itsasoan perilletan, anai falsoen artean perilletan; **27** lazerian eta miserian, beillatze hainitzetan, gosean eta egarrian, barurtzen hainitzetan, hotzean eta bulhuz izaten.

**28** Kanpotikako diren horietaz landan, egunoroz barrendatua nadukaten egiteko dia: Eliza guziez dudan artha eta griña. **29** Nor da flako, non ez banaiz «ni ere harekien flakutzen? Nor da eskandalisatua, non ez bainaiz erretzen hari? **30** Gloriatu behar bada ere, gloriatuko naiz ene humiliatzeko diren gauzez. **31** Jainkoak, zein baida Jesukristo gure Jaunaren Aita, sekulakotz benedikatua dena, badaki ez dudala gezurrik erraten. **32** Damasén errege Aretasentzat herri hartan manatzen zuenak, goardiak ezarriak zituen Damasko hirian ni preso hartzeko. **33** Baiñan leiho batetarik saski batean erautsi izan ninduten murrailan behera eta hala eskapatu nintzen haren eskuetarik.

## XII. KAP.

**1** Baldin gloriatu behar bada (segur ez baida behar ere), ethorriko naiz Jaunaren bisionetarat eta errebelazionetarat. **2** Badakusat gizon bat Jesukristo baithan orai duela hamalaur urthe hirurgarren zeruraino eramana izan zena (bere gorphutzarekien othe ala gorphutza gabe, ez dakit hori; Jainkoak badaki). **3** Eta badakit gizon hura (bere gorphutzarekien ala gorphutza gabe, ez dakit hori, Jainkoak daki) **4** eramana izan zela paradisurat eta aditu izan zituela gauza misterios batzu, zeññetaz mintzatzea ez baitzaio zilhegi gizon bati. **5** Halako gizon batez bai gloriatuko naiz; neure buruaz ordean ez naiz gloriatuko, neure flakitatez baizen. **6** Hala ere, bada, nahi banu gloriatu, egin ninteke erho izan gabe, ezen egia erran nezake. Baiñan gelditzen naiz, nihork estima ez nazantzat ene baithan ikusten duenaz edo nitaz aditzen duenaz gehiagokotzat.

**7** Bada errebelazione handi horiek eman ez diezatedan gorapenik, eman izan zait ene haragiaren akhuilloa, Satanen aingeru bat bezala niri mazelakoka haritzeko. **8** Horren gatik hirur aldiz Jauna othoiztu izan dut, arien khen zezan hura ene ganik. **9** Eta ihardetsi izan darot: «Asko duzu ene grazia, ezen ene botherea gehiago agertzen da flakitatean». Gogotik beraz gloriatuko naiz ene flakitateetan, egon dadintzat ene baithan Jesukristoren botherea. **10** Hargatik zait lakhet neure flakitateetan, iroieta, beharkizunetan, presekuzioneetan, Jesukristo gatik jasaten ditudan hertsuretan; noiz ere bainaiz ezen flako, orduan naiteke botheretsu.

**11** Gizon guti zuhur bat bezala mintzatu naiteke; zuek hortarat behartu nauzue. Ezen zuek behar nindukezuen laudatu, deusetan izan ez naizenaz geroz Apostolu handienak direnez gutiago, deusere ez naizen arien. **12** Bai, ene apostolutasunaren seiñaleak eman izan darozkitzuet pairakortasun guzizko batez, mirakuilluez, prodijioez eta jainkozko botherearen seiñaleez. **13** Zer da ezen bertze Elizek baiño gutiago izatu duzenik, baizen ni ez natzaitzuen karga izatu? Bidegabe hori barkha diezadazue. **14** Huna, hirur garren aldian heldu natzaitzue eta ez natzaitzue karga izanen, ez nabilla ezen zuenen ondoan, aitzitik bai zuen ondoan; ez dute ezen haurrek hari behar biltzen bere burasoentzat, baiñan bai burasoek haurrentzat. **15** Bada nik hagitz gogotik emanen dut dudan guzia, eta oraino neure burua ere gaiñetik, zuen arimen gatik; nik zuek hain maite zaituztedalarik, zuek ni guti maitatzen banauzue ere.

**16** Bainan dela hala; ez natzaitzue karga izatu; ordean fina bainaiz, fineziaz naski atzeman zaituzketet. **17** Ala zuen ganat igorri izan dituda-



netarik zenbeitez azikatu izan othe zaituztet? **18** Othoiztu izan dut Tite zuen ganat goateaz, eta igorri izan dut harekien gure anaietarik bat. Titek azikatu othe zaituzte? Ez gare Izpiritu berean ibilli eta urrats beretan?

**19** Ez othe duzue aspalditik uste gure buruen esenkusatzen hari gara-la zuen alderat? Jainkoaren aitzinean mintzo gaizkitzue Jesukristo baithan eta horiek guziak, ene maite maiteak, zuen edifikazionea gatik. **20** Beldur naiz ezen zuen ganat nathorkenean ez zaitzatedan aurkhi nahi nuken bezalakoak, eta zuek ere ni ez nazazuen aurkhi nahi zinduketen bezalakoak. Beldur naiz badaitezken zuen artean debadioak, jelosiak, aierkunduak, ihardukitzeak, gaixki errateak, baratalgoak, orgilleriak, altaramenduak; **21** eta berriz nathorreanean, humilia ez nazan Jainkoak zuen baithan, eta nigar egin beharko dudan lehen egiñikako bekhatuez eta erabilli dituzten lohikeriez, fornikazionez eta itsuskeriez penitentzia egin izan ez duten hainitzen gatik.

### XIII. KAP.

**1** Huna hirur garren aldia zuen ganat heldu naizena. «Bi edo hirur lekhukoek erranen duketenaren gainean jujeatuko dire gauza guziak». **2** Ja erran darotzuet, eta orai ere erraten darotzuet zuen artean banintz bezala, oraiño hor ez naizen arren, lehen bekhatu egin izan dutenei eta bertze guziei, berriz ethortzen banaiz, ez diotedala barkhatuko. **3** Ala frogatu nahiz zabilzate Jesukristo ene baithan mintzo denaren botherea, zeina ez baida bada flako agertu, baiñan aitzitik bai aski botheretsu zuen artean? **4** Ezen gurutzefikatua izan bada ere haragiaren flakitatearen arauera, ordean bizi da Jainkoaren berthutez; gu ere, bada, flako gare hura bezala, ordean biziko gare harekien batean Jainkozko berthutez zuen alderat.

**5** Examina zaitzte hea fedean zareten. Froga zatzue zebonek zeben buruak. Ala ez duzue ezagutzen zebonek Jesukristo zuen baithan dela? Baldin naski erreprobatuak ez bazarete. **6** Esperantza dut ordean ezagutuko duzuela gu ez gara arbuiatzekoak. **7** Othoizten dugu bada Jainkoa, ez dezazuen egin deusere gaixkirik, ez gu aprobatzekoak gara agertzea gatik, baiñan bai zuek ungi dena egin dezazuen gatik, gu arbuiagarriak agertuko bagare ere. **8** Ezen deusik ezin dagikegu egiaren kontra, aitzitik bai egiaren alde. **9** Eta atsegin ere dugu, zeren gu garen flako, zuek berriz zareten sendo. Oraiño galdetzen ere duguna da zuen perfekziona. **10** Hau darotzuet eskribatzen zuekien ez naizelarik, hor naitekenean zorrotzkiegi

balia ez nadin Jaunak edifikatzeko eta ez desegiteko eman izan darotan bothereaz.

**11** Gaiñerakoan, ene anaiak, zareten alegera, zareten perfet, konsola zaitzte, duzuen gogo bat eta bera, bizi zaitzte bakean; eta bakearen eta amudioaren Jainkoa zuekien izanen da. **12** Saluta zazue elkhar musu saindu batez. Salututzen zaituzte saindu guziek. **13** Jesukristo gure Jaunaren grazia, Jainkoaren amudioa eta Izpiritu Sainduaren emaitza dela zuekien guziekien. Amen.



## JONDONI PAULO APOSTOLUAREN GUTHUNA GALATIARREI

### I. KAP.

**1** Paulok, Apostolu naizenak ez gizonen ganik ez eta gizon batez, baiñan Jesukristoz eta hura hilletarik biztu izan duen Jainko Aitaz, **2** eta enekien diren anaia guziek Galaziako Elizei: **3** grazia eta bakea dizuela Jainko Aitak eta Jesukristo gure Jaunak, **4** zeïnek eman izan baidu bere burua gure bekhatuen gatik eta gu atheratzea gatik mundu gaixkoatu huntarik gure Jainko eta Aitaren borondatearen arauera, **5** zeïñari bekio eman gloria mende guzietako mendeetan. Amen.

**6** Miretsia nago nola, utzirik Jesukristoren graziarat deithu izan zaituztena, bain lauster aldaratzen zareten bertze Ebanjelio baterarat; **7** ez bada izanez bertzerik, baiñan baidire jende batzuek altaratzen zaituztenak eta Jesukristoren Ebanjelioa irauli nahi dutenak. **8** Baiñan geronek predikatzen bagiñatzuegu ere edo zerutikako aingeru batek predikatzen balarotzue ere guk predikatu izan darotzuegun Ebanjelioaz bertze bat, biz anathema. **9** Erran dugun bezala berriz ere diot: Baldin nihork predikatzen badarotzue zuek errezibitu izan duzuen Ebanjelioaz bertze bat, anathema izan dadillala. **10** Ezen orai gizonak nahi dut alde dakizkidan ala Jainkoa? Ala gizonen gogara egin nahiz othe nabilla? Baldinetariak oraiño gizonen gogarako izaterat hari banintz, ez ninteke Jesukristoren zerbitzari.

**11** Deklaratzen darotzuet bada, ene anaiak, nik predikatu izan darotzuedan Ebanjelioa ez dela gizonen ganik heldu. **12** Ez dut ezen gizon garaben ganik errezibitu ez ikhasi, baiñan bai Jesukristoren errebelazioenez. **13** Aditu duzue eki nola konportatu izan naizen lehenago judutalgoan; nola furiarekien persekutatzen nuen eta gudukatzen Jainkoaren Eliza; **14** nola ixitzen nituen Judutalgoan ene adineko eta nazioneko ziren bertze hainitz, zelo gehiago bainuen hek baiño ene aiten erakuspenentzat.

**15** Baiñan plazer izan darotanean Jainkoak (zeïnek berezi izan bainau neure amaren sabelean danik eta deithu izan bainau bere graziaz) **16** eza-gutarazi bere Semea predika niozatentzat jentillei, ordu beretik egin izan

dut, egon gabe haragiaren eta odolaren ganik konseillu hartzen. **17** Eta ez nintzen ere goan Jerusalemertat ni baiño lehen Apostolu zirenetarat; aitzitik goan nintzen Arabiarat eta gero berriz bihurtu nintzen Damaserat. **18** Ondoan hirur urtheren buruan goan nintzen Jerusalemertat Piarresen ikusterat, eta egotu nintzen hamabortz egunez harekien. **19** Bertze Apostoluetarik ordean batere ez nuen ikusi, Jakobe Jaunaren anaia baizen. **20** Eskribatzen darotzuedan gauzetan Jainkoa da lekhuko ez darotzuedala gezurrik erraten. **21** Handik goan nintzen Siriarat eta Ziliziarat. **22** Judeako Elizek, bada, Jesukristori zarraiztenek, ez ninduten ezagutzen ikustez. **23** Xoilki zuten erraten aditu: «Lehenago gu persekutatzen ginituen hura, nozbeit gudukatzen ohi zuen fedearen predikatzen hari da orai». **24** Eta Jainkoari zioten gloria ematen ene baithan egin izan zuenaz.

### II. KAP.

**1** Gero hamalaur urtheren buruan goan nintzen berriz ere Jerusalemertat Barnaberekien, harturik Tite ere enekien. **2** Goan nintzen bada errebelazioe baten ariaz; eta jentillei predikatzen diotedan Ebanjelioa komunikatu nioten han zirenei, beregainki ordean zerbeit zirela ziduriteinei, beldurrez ezen alferrik nindabillan edo ibilli izan nintzen. **3** Baiñan Tite enekien baitzen eta jentilla ere . baitzen, ez zuten hertxatu zirkonzidatua izaterat. **4** Eta anaia falso batzu ixilka ethorriak sarthua gatik gure arterat Jesukristo baithan dugun libertatea zelatatzerat, gathibutasunean gu ezarri nahiz, **5** momentu bateko ere ez giñoten egin amorrik eta ez giñaizten behehititu, Ebanjelioaren egia bethi bat eta bera izan dadin amorea gatik zuen artean. **6** Zerbeit zirela iduri zutenek, bada, (nolakoak izatu ditezken noizbeit ez dohat niri deusik, Jainkoak ez dio behatzen presunen kualitateari), zerbeit zirela iduri zutenek, diot, niri ez darotet deusere irakatsi. **7** Aitzitik ikusi zutenean niri eman zitzaidala mezua zirkonzidatuak ez direnei Ebanjelioa predikatzekoa, hala nola Piarresi zirkonzidatuak direnei predikatzekoa, **8** (ezen Piarresen baithan haritu dena, hura zirkonzidatuak direnen Apostulu egiteko, haritu da ene baithan ere ni jentillen Apostolu egiteko), **9** ezagutu zutenean bada niri eman izan zaitan grazia, Jakobek, Zefasek, eta Joaneseke, zeïñak agertzen baitziren harroiñak bezala, esku emanik hartu ginituzten parzuner ni eta Barnabe, gu izateko jentillentzat eta hek zirkonzidatuak direnentzat. **10** Xoilki gomendatu zarokuten orhoit gintezen pobreez. Eta artha handi ere dut horren egiteko.



**11** Ethorri zenean bada Zefas Anthiokiarat, bekhokirat lehiatu nintzaioen, zeren falta baitzuen; **12** ezen Jakoberen ganik heldu ziren zenbeit ethor zitezken aitzinetik, jaten zuen jentillekien; ordean hek ethorri geroztik, aldaratzen zen eta hastantzen jentillen ganik, beldur baitzitzaien zirkonzisioneko zirenei. **13** Eta bertze gaiñerako judutarrak ere jarri ziren hura bezala itxura bera egiten, halako moldez non erakharri baitzuten Barnabe bera ere hek bezala alegia egiterat. **14** Ikusi nuenean bada ez zebiltzala xuxen Ebanjelioaren egiazen arauera, erran nioen Zefasi guzien aitzinean: «Baldinetariak zu judutarra zarelarik jentillen antzura bizi bazare eta ez judutarren antzura, nolatan hertxatzen ditutzu jentillak judualgorat?».

**15** Gu sortzez judutar gare eta ez jentilletarikako bekhatorosak. **16** Baidakigu ordean ez dela gizona justifikatzen legearen obrez, baiñan bai Jesukristo baithango fedez, sinhetsi ere dugu Jesukristo baithan justifikatuak izatea gatik Jesukristo baithango fedez eta ez legearen obrez; zeren eta gizon garabik ez baida justifikatua izanen legearen obrez. **17** Baldiñetariak Jesukristo baithan justifikatuak izan nahiz gabiltzala aurkhitzen bagare geroni ere behkatoros, beraz Jesukristo bekhatuaren ministre liteke? Ez horlakorik. **18** Baldiñetariak ezen desegin dudana berriz egiten badut, neure burua prebarikatzaille errendatzen dut. **19** Ezen ni legeaz beraz hill natzaio legeari, Jainkoarentzat baizen ez gehiago bizitzeko. Jesukristorekien batean gurutzefikatua izan naiz. **20** Bizi naiz, bada, ez gaur gehiago ni, baiñan Jesukristo bizi da ene baithan. Eta orai hunela haragian bizi naizena ere, Jainkoaren Semearen fedez bizi naiz, zeinek maitatu izan bainau eta eman izan baidu bere burua ene gatik. **21** Ez dut arbuiazen Jainkoaren grazia. Baldinetariak ezen legetik heldu bada justizia, beraz alferrik hill izan da Jesukristo.

### III. KAP.

**1** O galatar zoratuak! Nork xarmatu izan zaituzte egari ez obeditzeko, eman zaitzuen ondoan begien aitzinean Jesukristo zuen erdian gurutzeari josia? **2** Hau xoilki nahi dut jakin zuen ganik: legearen obrez errebitu duzue Izpiritu Saindua ala fedea entzuteaz? **3** Hain erroak zarete, non Izpirituaz hasi ondoan orai haragiaz akhabatzen baiduzue? **4** Alferrik bada hanbat pairatu duzueke? Baldin behintzat alferrik egin baduzue. **5** Izpiritu Saindua eman darotzuenak eta mirakuilluak zuen artean egiten dituenak, legearen obrez ditu egiten ala predikatzen aditu duzuen fedez?

**6** Eskribatua den bezala: «Abrahamek sinhetsi izan du Jainkoaren hitzean eta kondatu izan zaio hori justiziatzat». **7** Ezagutzazue, beraz, fedearen ume direnak direla Abrahamen umeak. **8** Ikusirik bada Jainkoak fedez zituela justifikatuko nazioneak, erran izan dio aitzinetik Abrahami eskriturak dioena: «Benedikatuak izanen dire zure baithan nazione guziak». **9** Beraz fedetik direnak izanen dire benedikatuak Abraham fide-larekien.

**10** Ezen legearen obrei datxaiztenak madarizonearen azpian ditezke, eskribatua denaz geroz: «Madarikatua diteke legearen liburuan eskribatuak diren guziak egiterat zinki ez dagoen guzia». **11** Bada legeaz nihor ez dela justifikatua Jainkoaren aitzinean, gauza da ageria; zeren justua fedez bizi baida. **12** Legea ordean ez deitxaiko fedeari; aitzitik hark dio: «Horiek egiten dituena biziko da horietan». **13** Jesukristok erosi izan gaitu legearen madarizonetik, bera gure gatik madarizone egin izanik, eskribatua denaren arauera: «Madarikatua da zurean urkhatua den guzia». **14** Abrahami eman zitzaioen benediziona jentilletarat hel zedintzat Jesukristo baithan eta agindurikako Izpiritu errezi bi dezaguntzat fedez.

**15** Ene anaiak, (gizonkara mintzo naiz): alabaiñan gizon baten testameta molde onean egiña denean, nihor ez dezake hauts ez ganbia. **16** Abrahami egin zaizko agintzak «eta haren haziari». Ez da erraten: «eta haren hazitikakoei», hainitz balire bezala; baiñan batean balego bezala, «eta zure haziari», erran nahi da Kristori. **17** Huna bada zer diodan: Jainkoak berak egin eta indarztatua izan duen testameta laur ehun eta hogoi eta hamar urtheren ondoan eman izan den legeak ez ahal du hausten haren agintza ezeztatua gertha daiteken bezala. **18** Ezen baldin heredalgoa legetik heldu bazaiku, ez zaiku beraz agintzatik heldu. Ordean Abrahami agintzaz eman izan baidio Jainkoak.

**19** Zertako da beraz legea? Hobenen gatik da ifinia, ethor ziteken artean sorthu behar zuen hura, zeina gatik egiña baitzen agintza: eta lege hura aingeruez izan ere da emana bitarteko baten eskuz. **20** Bada arartekoa ez da batena; Jainkoa ordean ez da bat baizen. **21** Legea beraz Jainkoaren agintzen kontrakoa othe da? Ez horlakorik. Baldinetariak ezen legea eman izan balitz bizia eman ahal zezaken bezala, egiazki legetik ethor liteke justizia. **22** Baiñan guziak ditu zarratu Eskriturak bekhatuaren azpian, Jainkoak agindua Jesukristoren fedez eman zekiotentzat haren baithan sinhesten dutenei. **23** Ordean fedea ethor ziteken baiño lehen, legearen azpian giñaudezen zarratuak eta begiratuak, agerthu behar zuen fede



haren goithan. **24** Hala legeak nausi batek bezala gaitu gidatu Jesukristo ganat, fedeaz justifikatuak izan gaitzentzat. **25** Ordean ethorri geroztik fedea, ez gare gehiago nausi baten erakuspenen azpian, **26** guziok ezen Jainkoaren haurrak zarete Jesukristo baithango fedeaz. **27** Ezen Jesukristo baithan bathaiatuak izan zareten guziok Jesukristoz bestituak zarete. **28** Ez da gaur gehiago judutarrik ez grekorik; ez da gathiburik ez libro denik; ez da gizonik ez emasterik. Guziok gauza bat eta bera zarete Jesukristo baithan. **29** Baldiñetariak bada Jesukristorenak bazarete, beraz Abrahamen umeak zarete eta agintzaren arauetz primuak.

#### IV. KAP.

**1** Diot bada herederoa haur deino ez dela deusetan berezia zerbitzaria ganik, guzien jaun eta jabe den arren. **2** Aitzitik hartaz eta haren egitekoen artha dutenen botherearen azpian da haren aitaz exleitua den denboraraino. **3** Halaber gu ere haurrak giñenean gathibu bezala bizi giñen munduari erakutsi izan zaizkon lehenbiziko erakuspenen azpian. **4** Ordean konplitu izan direnean denborak, igorri izan du Jainkoak bere Semea emazte baten ganik sorthua, legearen azpiko egiña, **5** legearen azpian zirenak erresketatzekotzat eta gu adopzionario ume egitekotzat. **6** Zeren zareten bada umeak, igorri izan du Jainkoak zuen bihotzatarat bere Semearen Izpiritua, zeiniek oiñu egiten baidu: Aita, Aita. **7** Beraz gaur gehiago zuetarik nihor ez da sehi, baiñan bai ume. Baldinetariak ume bada, halaber heredero ere da Jainkoaren graziaz. **8** Egia da: lehenago ez baitzinduten ezagutzen Jainkoa, zerbitzatzan zintuzten jainko batzu berez jainko ez direnak. **9** Orai ordean ezagutzen baiduzue Jainkoa, eta are aitzitik, ezagutuak baitzarete Jainkoaz, nolatan itzultzen zarete berriz ikaskari herbal eta pobre hetarat, zeinien azpiko nahi baiduzue jarri berriz ere gathibu batzu bezala? **10** Egunen begiratzen hari zarete eta ilhabetheen eta urtheen. **11** Beldur naiz zuetaz ez othe naizen alferrik travaillatu zuen artean.

**12** Izan zaitzete ene alderako ni zuen alderako naizen bezala: othoitz egiten darotzuet, ene anaiak. Deusetan ez nauzue egundaino ofensatu. **13** Badakizue bada lehenago Ebanjelioa predikatu darotzuedanean, haragiaren lazerien eta persekuzioenen artean egin izan darotzuedala, **14** eta ez nauzuela mezprezatu izan, ez arbiatu ene haragian sofritzen nituen humiliacione horien gatik ere; aitzitik hartu izan nauzue Jainkoaren aingeru bat bezala, Jesukristo bera bezala. **15** Non da bada orduko zuen

dohatsutasuna? Ezen lehkukotasun hau errenda diezakezuet, posible izan balitz zuen begiak irazirik emanen zinarozkitedala. **16** Ala etsai egin natzaitzue, zeren egia erran darotzuedan? **17** Borthizki datxeizkitzue, ez ordean zuen onetan; aitzitik hastandu nahi zaituzte gure ganik, hei borthizki zatxaizkoten amorea gatik. **18** Baiñan zuek duzuen lehia onekotz, bethiere ungi egiteko, eta ez xoilki ni zuen artean present nauzuenean. **19** Ene haurtxoak, zeinez berriz ere erditzeko miñetan bainoiz, formatua izan daiteken artean Jesukristo zuen baithan. **20** Nahi nuke bada oraintxe zuekien izan eta mudatu ene hizkuntza, zeren khexu bainoiz zuentzat.

**21** Erran diezadazue legearen azpiko izan nahi duzuenek: legea ez duzue irakurri? **22** Eskribatua da ezen Abrahamek bi seme izan dituela, bata neskatoa ganik eta bertzea libroa zena ganik. **23** Ordean neskatoa ganikakoa haragiaren arauera sorthua zen; libroa ganikakoa berriz agintzaren berthutez sorthua. **24** Hauk allegoriaz erranak dire, ezen horiek bi testamentak ditezke: bata Sinaiko mendikoa, esklaboak egiten dituen, eta hura diteke Agar; **25** ezen Sina mendi bat da Arabiakoa, Jerusalem orai-koari ihardesten dioena, zein gathibu baida bere umeekien. **26** Ordean gaineko den Jerusalem hura libroa da eta hura da gure ama. **27** Eskribatua da ezen: «Boz zaitte, agorra, haurrik egiten ez duzuna; ilkhi zaitte bozkariozko deihagoretan, erditzeko minik ez duzuna, zeren haur gehiago baidu utzia zenak ezen ez senharra duenak». **28** Gu bada, ene anaiak, Isak bezala agintzako haurrak gare. **29** Eta nola orduan haragiaren arauerako sorthu zenak persekutatzan baitzuen Izpirituaren arauerako zena, gauza bera gerthutzen da orai ere. **30** Ordean zer dio Eskriturak? «Khen zatzu neskatoa eta bere semea; ez da ezen neskatoaren semea primu izanen libro denaren semearekien». **31** Bada, ene anaiak, gu ez gare neskatoaren semeak, baiñan bai libro denarenak. Eta Jesukristok ardietsia dugu libertate hori.

#### V. KAP.

**1** Zaudete hortan, eta ez zaitzela berriz jar gathibutasuneko uzta-riaren azpian. **2** Huna nik Paulok diotzuedana: baldiñetariak zirkonzidatzan bazarete, Jesukristo deusentzat ez baitzaitzue baliatuko. **3** Deklaratzan diot bada berriz ere bere burua zirkonzidarazitzen duen gizon guziari, obligatua ditekela lege guziaren konpliterat. **4** Gabetu zarete Jesukristoz legeaz justifikatu izan nahi zareten guziak. Graziatik erori zarete. **5** Guk behintzat fedearan berthutez dugu esperantza errezibituko dugula





Izpiritu Saindua ganik justizia. **6** Ezen Jesukristo baithan balio duena ez da zirkonzidatua izatea, ez eta zirkonzidatua ez izatea ere, baiñan bai karitatez obratzen duen fedea.

**7** Ungi ziñbiltzaten. Nork geldiarazi zaituzte eta debekatu egari obeditzetik? **8** Gogoramendu hori ez da zuek deithu zaituztena ganik heldu. **9** Altxagarri guti batek mintzen ohi du orbe guzia. **10** Ni fida naiz zuetaz Jaunarekien batean ez duzuela izanen bertzelako sentimendurik, baiñan zuek altaritzen zaituztenak ekharriko du horren pena, nor ere baida hura. **11** Bada nik, ene anaiak, baldinetariak oraiño zirkonzisioea predikatzen badut, zeri dagokola bada horrenbertze persekuzione dut jasaten? Beraz akhabo da gurutzearen eskandala? **12** Oxala ebakiak ere balire zuek altaritzen zaituztenak.

**13** Zuek ezen libertaterat deithuak zarete, ene anaiak; xoilki begirautzue libertate hori balia ez dakizuen estakurutzat haragiaren arauera bizitzeko; aitzitik lagun zazue elkhar Izpirituzko karitatez. **14** Ezen lege guzia zarratua da hitz bakhar hautan: «Maitatuko duzu zure lagun proximoa zure burua bezala». **15** Baldiñetariak elkhar ausikitzen eta jaten hari bazarete, begirautzue batzu bertzeez destruituak gertha ez zaitezten. **16** Erraten darotzuet bada: ibil zaitezte Izpituaren arauera, eta ez dituzue egiñen haragiaren nahikarak. **17** Haragia ezen gutiziatzen da Izpituaren kontra; Izpituua berriz lehiatzen da haragiaren kontra; eta hala bata bertzeari kontra egiten diote halako moldez, non ez baidituzue egiten nahi zintuzketen gauzak.

**18** Baldinetariak Izpituak bazarabiltzate, ez zarete legearen azpian. **19** Ageriak ditezke bada haragiaren obrak, zeñak baidire fornikazioea, lohikeria, ahalke galtzea, banagunea, **20** idolatria, pozoaztatzea, etsaikoak, ihardukitzeak, jelsiak, aiherkundeak, liskarrak, targoak, heresiak, **21** inbidia, gizon hiltzeak, hordikeriak, deboxkeriak eta bertze hunelakoak, zeñetaz erraten baidarotzuet, jadan erran ere darotzuedan bezala, horlako gauzak egiten dituztenek Jainkoaren Erresuma ardietsiko ez dutela. **22** Aitzitik Izpituaren fruituak ditezke karitatea, bozkarioa, bakea, pairakortasuna, ezütasuna, prestutasuna, iraunkorgunea, **23** mansotasuna, fedea, modestia, kontinenzia, kastitatea. Horlako direnen kontra ez da legerik. **24** Bada Jesukristoren direnek gurutzefikatu dukete bere haragia bere bizioekien eta bere gutziyekien. **25** Baldin Izpitu bizi bagare, Izpitu ibill ere gaitzen. **26** Ez gaitzen izan banagloriaren gutizia, elkhar tarritatzen dugula, elkharri bekhaizten gaizkola.

## VI. KAP.

**1** Ene anaiak, baldinetariak norbeit erori izan bada ustegabez zenbeit faltetan, zuek izpiritual zaretenek emotzue abisu onak emetasunezko Izpitu batean, begiraturik batbederak bere buruari, beldurrez ezen zu ere tentatua izan ez zaitezten. **2** Jasan zatzue batzuk bertzeen kargak, eta horla konplituko duzue Jesukristoren legea. **3** Ezen baldin nihork uste badu zerbeit dela deusik ez delarik, bere burua enganatzen du. **4** Batbederak examina betza bere obrak eta horla ez da gloriatuko bere baithan denaren ariaz baizen, eta ez bertzeak direnaren ariaz, **5** ezen batbederak bere karga jasanen duke. **6** Fedearen gauzen ikhasten hari denak, bada, lagun beza bere ontasunetarik molde guziez irakhasten hari zaiouena. **7** Ez zaitezela engana, ez da zeren Jainkoaz trufatu. **8** Ezen zer ere ereiñ balduke gizonak, eta hura du bilduko; hala bere haragian duenak ereiten bilduko du haragitik ustelgunea; Izpituaren ereiten duenak berriz Izpitudetik bilduko du bizitze eternala. **9** Ez gaitzela beraz unha ungi egiteaz, ezen bilduko dugu fruitua bere denboran, unhatzen ez bagare. **10** Hala denboran dugiño egitegun ungi guziei, beregaingi ordean fedeko egokiei.

**11** Ikusazue zer buthun eskribatu darozkitzuedan neure esku propioz. **12** Ezen nork ere haragiaren arauera munduaren gogarako nahi baidute izan, eta hek hertxatzen zaituzte zirkonzisioea errebitzerat; eta hori xoilki Jesukristoren gurutzeari datxeikon persekuzioea ez pairatzea gatik. **13** Non hala ez den, zirkonzisioea hartzen dutenek berek ere legea ez dute begiratzen. Baiñan zuek zirkonzisioea har dezazuen nahi dute, zuen haragiaren ariaz burupe izatea gatik. **14** Nitaz denaz bezanbatean, Jainkoak begira nazala handiestetik deusez ere bertzez, baizen Jesukristo gure Jaunaren gurutzear, zeinetaz mundua gurutzefikatua baida enetzat eta ni bainaiz munduarentzat. **15** Ezen Jesukristo baithan zirkonzidatua izateak ez du deusik egiten, ez bain guti zirkonzidatua ez izateak; baiñan kreatura berri bat izateak egiten du guzia. **16** Eta zein ere erregela huni jarraikiko baitzaizko, eta hekientzat diteke bakea eta miserikordia, bai eta Jainkoaren Israelentzat ere. **17** Gaiñerakoan ez nihork niri damurik egin; ezen nik Jesus Jaunaren inprezuak ene gorphutzean dakhartzket. **18** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela, ene anaiak, zuen Izpituarekien. Amen.



## JOND. PAULO APOSTOL. GUTHUNA EFESIARREI

### I. KAP.

**1** Paulo Jainkoaren nahiz Jesukristoren Apostolu denak, Jesukristo Jauna baithan Efesan diren fidel guziei eta sainduei: **2** grazia dizuela eta bakea Jainko gure Aitak eta Jesukristo Jaunak.

**3** Benedikatua dela Jainkoa Jesukristo gure Jaunaren Aita dena, zeiniek isuri izan baiditu gure gaiñerat zeruetarik benedizione izpiritual suerte guziak Jesukristo baithan. **4** Hala nola berezi izan baigaitu haren baithan munduaren krazioneaz aitzinietik, izan gintezentzat saindu eta tatxa gabeko haren begietan karitatearen bidez, **5** eta zeiniek predestinatu izan baigaitu gu bere ume orde egiteko Jesukristoz, bere nahiak eman dioen arauera, **6** laudarioa eta gloria geldi dakioen amorea gatik haren graziari, zeinetaz bere gogarako egin izan baigaitu bere Seme maitea baithan, **7** zeinaren baithan aurkhitzen baidugu erresketamendua haren odolaz eta eta bekhatuen barkhamendua haren graziaren aberatstasunen arauera, **8** zeinietarik gaindi eragin baidu gure baithan zuhurtzia eta prudentzia suerte guzietakotzat, **9** agertzea gatik guri bere borondatearen misterioa, bere plazer onaren araez, zeinietan deliberatu baitzuen bere baithan **10** denbora exlejituak bethe zitezkenean berestaturako zituela guziak Jesukristo baithan, nahiz zeruan direnak, nahiz lurrean direnak, guziak haren beraren baithan, **11** zeinaren baithan halaber gu ere baigare deithuak heredalgorat, predestinatuak izanik gauza guziak bere nahiaren eta xedearen arauera egiten ohi dituenaren ordenuz, **12** haren gloriaren laudoriotako izan gaitezen amorea gatik gu lehendanik Jesukristo baithan esperantza izan dugunak. **13** Eta haren baithan zebonek ere entzun duzuen ondoan egiazko hitza, zuen salbamenduko Ebanjelioa, eta sinhetsi izan duzuen ondoan, izan zarete zigillatuak agindurikako Izpiritu Sainduaz, **14** zein baida gure primezaren bahia, Jesukristok bere gloriaren laudoriotan konkstatuakoko populuaren librantza perfeterainokoa.

**15** Horri dagokala neroni ere aditurik Jesus Jauna baitan duzuen fedea eta Saindu guzien alderat duzuen amudioa, **16** ez naiz gelditzen Jain-

koari eskerrak zuentzat bihurtzetik, zuetaz orhoitzen naizelarik neure othoitzetan, **17** Jainko Jesukristo gure Jaunaren Aita gloriosoak eman diezazuenzat zuhurtziazko eta argizko izpiritua haren ezagutzeko, **18** argi detzan, arren, zuen bihotzeko begiak; jakin dezazuenzat zer esperantza duzuen izateko hartaz deithuak zaretenek, nolakoak diren hark sainduei destinatu daroen primezaren aberastasanak eta gloria, **19** eta nolakoa den haren botherearen handitasun soberanoa sinhesten dugunen gainean, bere botherearen eta indarraren eragintzaren arauera darabillana, **20** zeina erakutsi izan baidu Jesukristoren presunan, hura hilletarik biztean eta jarrazitzean zeruetan bere eskuineko aldean, **21** prinzipalitate guziez, bothere guziez, berthute eta dominazione guziez gorago; eta ez xoilki mende huntan, baiñan oraiño ethorkizunekoan ere aipha ahal ditezken izen guziez gorago. **22** Eman izan ere diotza gauza guziak bere oiñen azpian eta eman izan dio bera buruzagitzat Eliza guziari, **23** zeina baida haren gorphutza eta guzia guzietan konplitzen duenaren konpligune osoa.

### II. KAP.

**1** Hark eman darotzue bizia zuei ere, hillak ziñetelarik zeben hobenez eta zeben bekhatuez, **2** zeinietan noizbeit ibilli izan baitzarete mundu hunen ohitzaren arauera, airetako bothereen prinze haren, orai ere sinhets gogortasunezko umeen gainean hari den izpiritu haren, nahikaretarat. **3** Guziok ere bada nozbeit desordenu beretan bizi izan gare gure haragiaren gutzien arauera, haragiaren nahikarak eta gogoak galdetzen zarokuna egiten ginduela; eta giñen gure sortzez koleraren ume, bertzeak bezala. **4** Ordean urrikalmendutan aberats den Jainkoak maitatu izan gaituen amudio sobraniazkoaren ariaz, **5** gure bekhatuez hillak giñauzean orduan bizia eman daroku Jesukristo baithan, zeinaren graziatz baitzarete salbatuak. **6** Biztu ere gaitu Jesukristorekien eta jarrazi zeruan haren presunan, **7** erakusteagatik ethorkizuneko mendeetan bere graziaren aberatstasun gaindizkoak, Jesukristo baithan guretzat izatu duen ontasunaz. **8** Graziatz zarete ezen salbatuak fedearen bidez, eta hori ez da zuen ganik heldu, Jainkoaren dohain bat da ezen. **9** Eta ez obretarik ere, nihork buruperik ez duentzat. **10** Haren obra gare ezen, Jesukristo baithan kreatuak obra onetan, zeinäk aphaindu izan baiditu Jainkoak, hetan ibill gaitezentzat.

**11** Hargatik bada zaretan orhoit, nola lehenago jentillak baitzineten ethorkiz, eta zirkonzidatu gabeak erraten baitzarotzuen, haragiaren gizo-



nen eskuz eginikako zirkonzisione baten ariaz zirkonzidatuak daritzate- nek. **12** Denbora hartan Kristo gabe baitzineten, Israelen baltsatik aldara- tuak, agintzazko alientzietarik atze, mundu huntan esperantzarik eta Jain- korik gabe bizi ziñetenak. **13** Baiñan Jesukristo baithan baitzarete, noizbait Jainkoa ganik urrun zinetenak hurbildu izan zarete Jesukristoren odolaz. **14** Hura da ezen gure bakea, biak bat egin izan dituen; bien arteko pare- ta eta zerraillua, hekien arteko etsaigoa, bere haragian hautsi izan duena; **15** manamendu diazko legea bere ordenantzez khendu izan duena, bi populuez egitea gatik bere baithan gizon berri bakhar bat, bakea egiñik; **16** eta biak gorphutz batean errekonziliatzea gatik Jainkoarekien bere gurutzeaz, hekien etsaigoa deseginik bere baithan. **17** Ethorrorik bada ira- katsi izan darotzue bakea zuei, Jainkoa ganik urrun zinetenei, eta bakea hurbill zirenei ere. **18** Zeren eta hartaz baidugu batzuk eta bertzek hurbil- tzea Aita ganat Izpiritu berean.

**19** Beraz gaur gehiago ez zarete arrotzak eta atzeak, bainan zarete sainduen herritarrak eta Jainkoaren egokideak, **20** bastituak baitzarete Apostoluen eta profeten zimenduaren gaiñean, zeinetan Jesukristo bera baida kantoineko barri prinzipala, **21** zeinaren gaiñean pausatua izanik edi- fizio guziaz altxatzen baida Jaunarentzat tenplu saindu bat egiteraiñokoan. **22** Eta zuek ere, jentillak, sartzen zarete edifizio hartan Jainkoaren egoitza izateko Izpiritu Sainduaz.

### III. KAP.

**1** Aria hortaz naiz ni, Paulo, Jesukristoren presonier zuek jentillak gatik, **2** baldiñetariak behintzat aditu izan baduzue mintzatzen zuen ariaz eman izan zaitan Jainkoaren graziaren ministerioaz. **3** Errebelazione batez erakutsi izan baitzait misterioa, hitz gutitan eskribatzetik heldu naizen bezala. **4** Eta irakurtzean ezagut ahal dezakezue ere nolako jakintasuna dudan Jesukristoren misterioan, **5** zeña bertze denboretan ez baida eza- gutua izatu gizonen umeez, orai Izpiritu Sainduaz Apostoluei eta profetei erakutsi izan zaien bezala: **6** jentillak primukide direla eta gorphutz bere- ko juduekien eta parzuner Jainkoaren agintzetan Jesukristo baithan Eban- jelioaz, **7** zeñen ministre egin izatu bainaiz Jainkoaren graziaren dohaiñez, zeña eman izan baitzait haren botherearen operazionez.

**8** Baiki niri saindu guzien arteko mendreenari eman izan zait grazia hori, jentillen artean irakasteko Jesukristoren aberatstasun ezin konpreni-

tuzkoak, **9** eta guziei agian erakusteko, zer maneraz dispensatua izatu den misterio hori, hanbat mende danik gordea zena gauza guziak egin dituen Jainkoa baithan, **10** zeruetako prinzipalitateek eta bothereek ezagut deza- tentzat Elizaz Jainkoaren zuhurtzia, bere manaiuaren ordenu diferentetan bain miragarri dena, **11** Jesukristo gure Jaunaz konplitu izan duen xede eternalaren arauera, **12** zeinetan baidugu haren baithan dugun fedez burupe eta fidantzia Jainkoa ganat hurbiltzekoa. **13** Hargatik zaituztet othoizten ez dakizuen gogoia hill nik zuen ariaz pairatzen ditudan lazerien gatik, horrek egiten baidu zuen gloria.

**14** Horri dagokala jartzen naiz belhauriko Jesukristo gure Jaunaren Aitaren aitzinean, **15** zeña ganik baidu izena aitatasunaren omena duen guziak, bai zeruan eta bai lurrian, **16** eman diezazuentzat bere gloriaren aberatstasunen arauera bere Izpirituan indarrezko berregune bat gizon barrenkoarentzat. **17** egon dadintzat fedez Jesukristo zuen bihotzetan, eta zuek karitatean erroak eginik eta finkaturik, **18** konpreni dezakezuen- tzat saindu guziekien, zerikakoa den misterio hunen zabaltasuna, luzeta- suna, goratasuna eta barrentasuna, **19** eta ezagut dezazuentzat halaber Jesukristoren amudioa, ezagutza guziaz goragokoa, betheak izan zaitezten amorea gatik osoki Jainkoaz.

**20** Guziak egin ahal detzakeneri, bada, guk galdetzen edo pensatzen dugun baiño frankokiago, are gure baithan obratzen duen bothereaz, **21** eman dakioela gloria Elizan Jesukristoz ondoren-ondo adin guzietan eta mende guzietan. Amen.

### IV. KAP.

**1** Othoitz egiten darotzuet, bada, nik Jauna gatik gathetan naizenak, arren ibil zaitezten zuen deiari eta bokazioneari dagokon bekala, **2** gauza guzietan erakusten duzuela, humiltasun, emetasun eta pazientzia handi bat, elkhar jasaten duzuela karitaterekien, **3** ardura duzuelarik zuen izpiri- tuak bat eginak idukitzeko bakearen lokharriz, **4** zaretan gorphutz bat eta izpiritu bat, esperantza bererat deithuak zaretan bezala, **5** eta jaun bat bai- zen, fede bat baizen eta bathaio bat baizen ez den bezala, **6** Jainko bat bai- zen, eta hura guzien Aita, guzien gaiñetik dena guzien artean eta gu guzien baithan dena.

**7** Gutarik betbederari, bada, eman izan zaiku grazia Jesukristoren emaitzaren neurriaren arauera. **8** Hargatik da errana: «Iganik goiti, gathi-



bu eraman izan du gathibudia eta egin darozte emaitzak gizonei». **9** Eta zergatik da errana igan izan dela, baizen zeren jautsi izan baitzen lehenago lurraren toki beheenetar? **10** Jautsi izan den hura bera da igan ere izan dena zeru guziez gorago, gauza guziak konplitea gatik. **11** Eta hark berak egin izan ditu batzu Apostolu, bertzeak profeta, bertzeak ebanjelista, bertzeak berriz artzain eta irakatzaille, **12** sainduak osoki gai errendatzea gatik ministerioko lanen egitekotzat eta Jesukristoren gorphutzaren edifizioa moldatzekotzat, **13** hel gaitezen artean guziok bat egiterat sinheste berean, eta Jainkoaren Semearen ezagutzan izaterat gizon perfet baten estatuan eta ardiesterat Jesukristoren adin konplituaren neurria; **14** gaur gehiago ibill ez gaitezen kordokan haur batzu bezala, eta erabill ez gaitzaten harat hunat dotrinetako haize guzietarat enganaturik gizonek bere maleziaz eta nihor enganioan arthikitzeke duten antzez; **15** aitzitik egia dugularik predikatzen karitatez, handi gaitезentzat gauza guzietan Jesukristo baithan, zeña baida gure burua eta gure buruzagia; **16** zeña ganik gorphutz guziak bere zathitan ungi moldatua eta ungi josia denak hek elkhar iretzeikitzeke eta entretenitzeko behar diren josgune guziez, menbro bakhoitxari dagokon neurriaren arauerako eragintza baten bertutez hartzen baidu bere berretkaria, edifizioa akhaba dadintzat karitateaz. **17** Erraten darotzuet, bada, eta abisatzen zaituztet Jaunaren izenean, ez zaitезten gehiago ibill jentillak bezala, zeñak baidarraizko bere gogoren banitateari, **18** zeñek ilhunbez goibeldua baidute izpiritua, zeñak urrunduak baidire osoki Jainkoaren bizitzetik, bere jakingabetasuna eta bihotzeko itsumendua dela kausa, **19** zeñak etsi etsia eman baitzaizko lohikeriari eta jarri baidire akzione lizun guzien egiterat lehiakarrean bezala. **20** Zuek ordean ez zarete borla irakatsiak izatu Jesukristoren eskolan, **21** baldin behintzat entzun izan baduzue hortaz erran izan zaitzuen eta baldin, egia Jesusen baithan den bezala, haren ganik ikhasi baduzue **22** eraunsten zuen lehenagoko bizitzean ohi ziñarabillaten gizon zaharra, bere nahikarako enganioei jarraikiz korrupitzen ohi dena.

**23** Erreberri zaitезte, bada, gogoz eta izpirituz **24** eta jauntz zazue gizon berria, zeñ kreatua izan baida Jainkoaren arauera egiazko justizian eta egiazko saindutasunean. **25** Hala utzirik gezurra, mintza zaitезte guziak egiaz zuen lagun proximoarekien, zeren elkharren menbroak baigare. **26** Hasarratzen zaretenean begirautzue bekhatu egitetik. Iguzkia ez dadillala etzin zuen hasarraduraren gaiñean. **27** Ez demozuela deabruari sarpiderik. **28** Ebasten ohi zuenak ez beza gehiago ebats; aitzitik travailla bedi bere eskuz zerbeit lan onetan, izan dezantzat beharrean denari ema-

teko ere. **29** Hitz gaixtorik batere ez bedi ilkhi zuen ahotik, aitzitik ilkhitzen diren guziak izan beitez onak fedearen borthitzteko, entzuten dituztenei inspira diozatenzat jainkotiartasuna. **30** Eta begira duzuela tristatzetik Izpiritu Saindua, zinetaz baitzarete seinalatuak zigillu batez bezala erresketamenduko egunekotzat. **31** Khen zuen artetik zumindura guziak, kolera eta aiherkunde guziak, liskar eta gaixki errate guziak, finean malezia guziak; **32** aitzitik izan zaitезte elkhar ganat amultsu eta urrikalmendutsu, elkharri barkhatzen diozularik Jainkoak zuei ere Jesukristo baithan barkhatu darotzuen bezala.

## V. KAP.

**1** Zareten bada Jainkoaren imitatzaile haur maite batzu bezala. **2** Eta ibill zaitезte amudioan eta karitatean, Jesukristok ere gu maitatu izan gaituen bezala eta bere burua gure gatik eman izan duen bezala, ofrenda bat bezala eta Jainkoaren gogarako den urrin onezko biktima bat bezala. **3** Zithalkeriari ordean, ez eta lohikeriari batere edo abariziarik ez bedi aipha ere zuen artean, sainduen artean aiphatu behar ez den bezala. **4** Ez bain guti dadin adi hitz lizunik, erhorik edo eskarniozkorik, zeñak ez baidagozkitzue ungi, aitzitik bai eskerren errendatzekorik. **5** Jakin zazue ezen bau: lohirik batere, ez zithalik, ez abariziosik, zeñen bizioa idolatria bat bezala baida, ez dela izanen Jesukristoren eta Jainkoaren Erresumaren primu. **6** Nihork ez zaitзtela engana hitz ergelez; gauza horien gatik ezen erortzen ohi da Jainkoaren kolera presuna sinhets gaitzen gaiñerat.

**7** Ez zaitезtela beraz jar hekien baltsako. **8** Noizbeit ezen ilhunbeak ziñeten, orai ordean argi zarete Jauna baithan. Ibil zaitезte argiren unie batzu bezala. **9** Argiaren fruitua bada dago ontasun, justizia, eta egia suerte guzietan. **10** Lehia zaitезte ezagutzerat zer den Jainkoari agradatzen zaioena. **11** Eta ez zaitезtela balsa ilhunbetako obra fruitu gabeetan, aitzitik kondena zatzitzue; **12** ezen jende hek ixillik egiten dituzten gauzak erratea ere itsusi liteke. **13** Kondenatzeko diren guziak bada argiak ditu agerraratitzen, ezen agertzen den guzia argi diteke. **14** Hargatik da errana: «Jaiki zaite lo zauntzana, ilkhi zaite hillen artetik eta argituko zaitu Jesukristok». **15** Duzuen beraz artha, ene anaiak, ibiltzeko goita handirekien; ez zoroak bezala, **16** baiñan bai presuna zuhurrak bezala denbora erosten duzuela, zeren egun gaitzak baidire.



17 Hargatik bada ez zaitezela izan ergel, aitzitik jakin zazue ezagutzen zer den Jainkoaren nahia. 18 Begirautzue arno sopra edatetik, zeinetarik heldu ohi baida lohikeria; aitzitik bethe zaitezte Izpiritu Sainduaz, 19 mintzo zaretelarik zebeu artean salmuz, himnoz eta kantu izpiritualez, kantu horiek eta salmu horiek heltzen diotzatzuela Jaunari zuen bihotzetan; 20 eskerrak ematen diotzatzuela bethiere eta gauza guziez Jesukristo gure Jaunaren izenean Jainko Aitari; 21 elkharri behehitzen zaiztela Jesukristoren beldurtasunean.

22 Emasteak izan beitez bere senharrei sumetituak Jaunari bezala, 23 zeren eta senharra emastearen buruzagi baida, Jesukristo Elizaren buruzagi den bezala. Halaber haren gorphutzaren ere salbatzaille da. 24 Nola bada Eliza baida Jesukristoren manuko, hala izan beitez emasteak ere gauza guzietan bere senharren manuko.

25 Senharrak, maita zatzue zebeu emasteak Jesukristok Eliza maitatu duen bezala, bere burua eman izan baidu haren gatik, 26 hura santifikatzea gatik garbiturik urezko bathaioan bizitzearen hitzaz, 27 eta hura ageraratitzea gatik bere aitzinean gloriáz bethea, narraiorik ez zimurduririk, ez bertze horlakorik ez duken bezala; aitzitik saindu eta errankizunik gabe diteken bezala. 28 Hala senharrek ere maitatu behar dituzte bere emasteak bere gorphutz propialak bezala. Bere emastea maitatzen duenak, bere burua maitatzen duke. 29 Nihork ezen ez du gaitzesten bere haragia, aitzitik hazten du eta mainatzen Jesukristok ere Eliza egiten duen bezala. 30 Zeren haren gorphutzeko mienbroak baigare, haren haragitikakoak eta haren hezurretarikakoak.

31 Horri dagokala utziko ditu gizonak bere aita eta ama, eta atxekiko dio bere emasteari eta izanen dire biak haragi bat eta bera. 32 Sakramendu hori handia da, diot Jesukristo baithan eta Eliza baithan. 33 Horlatan beraz zuetarik batbederak maita beza bere emastea bere burua bezala; emasteak berriz ekhar bioza beldurtasun eta errespetu bere senharrari.

## VI. KAP.

1 Haurrak, obedi zatzue zuen burasoak Jauna gatik, justu da ezen hori. 2 «Ohora zatzitzu zure aita eta zure ama», hori da manamenduetarik lehena Jainkoak saria agindu diokena, 3 ungi hel dakizuntzat eta bizitze luzetako izan zaitezentzat turraren gaiñean. 4 Eta zuek, aitak, begirautzue zuminarazitetik zuen haurrak; aitzitik duzuen ardura hek ungi altzatze-

ko, korrejitzen ditutzuelarik eta instruitzen Jaunaren arauera. 5 Sehiak, obedi zatzitzue haragiaren arauéz nausi ditutzuenak beldurtasunekien eta ikhararekien, zuen bihotzeko sinplizitatean, Jesukristo bera bezala. 6 Ez beha dagozkitzuenen xoilki ditutzuelarik zerbitzatzun, gizonen gogara egin nahi bazindute bezala, baiñan bai Jainkoaren nahia bihotz egiten duzuelarik Jesukristoren zerbitzari bezala, 7 gogo onez zerbitzatzun ditutzuelarik, Jauna bera eta ez gizonak zerbitzatzun bazinituzte bezala, 8 dakizuelarik batbederak zer ere ungi egin baiduke, eta haren saria duela izanen Jauna ganik, ala den esklaboa ala den libroa. 9 Eta zuek, nausiak, gauza bera egiozue hei, utzirik mehatxuak, dakizuelarik hekien eta zuen nausia dela zeruan eta ez dela haren baithan presunen berezgunerik.

10 Gaiñerakoan, ene anaiak, borthitz zaitezte Jauna baithan eta haren berthute guziz botheretsuan. 11 Jauntz zazue Jainkoaren armadura, atxik ahal dezazuentzat deabruaren arteen kontra. 12 Ezen ez dugu borrokatzeko haragiaren eta odolaren kontra, baiñan bai prinzipalitateen eta bothereen kontra; mundu huntako, erran nahi da, mende ilhunbetsu huntako nausien kontra, airetan dabilzan izpiritu gaixtoen kontra. 13 Hargatik beraz har zazue Jainkoaren armadura, egun gaitxean atxik ahal dezazuentzat tieso guziez probedituak zaudeztelarik. 14 Zaudezte beraz zinki, zuen gerrian gerrikotzat duzuela egia eta jakatzat jauzten duzuela justizia, 15 oiñetakoak jauntzirik prest egotea gatik bakearen Ebanjelioa predikatzerat goateko.

16 Guzien gainetik harturik fedearen brokela, izpiritu gaixtoaren tragaza suztatu guziak iraungi ahal detzaketzuentzat. 17 Har zazue salbamenduko kasketa ere eta izpirituzko ezpata, zein baida Jainkoaren hitza, 18 othoitz eta errekerimendu suerte guziez zagozkotelarik Jainkoari denbora guzietan Izpirituz, atzartasun eta iraupen guzizko batekien egiten duzuela othoitz saindu guzientzat 19 eta enetzat ere, Jainkoak ahoa idekirik eman diezadantzat Ebanjelioaren misterioa librokiko predikatzeko hitza, 20 zeñentzat mandatarikoan hari bainaiz gatheetan ere, hartaz mintza nadintzat ausartziarekien.

21 Dakizkitzuentzat ere bada ene egitekoak eta zer hari naizen, Tixiko gure anaia maiteak eta Jaunaren zerbitzari fidelak guziez jakintsun egiten zaituzte. 22 Eta hortakotz berekotzat igorri ere dut zuen ganat, jakin dezazuentzat zer iragaten den alde huntan eta konsola detzantzat zuen bihotzak. 23 Bakea eta karitatea fedeariekien demotela gure anaiei Jainko Aitak eta Jesukristo Jaunak. 24 Grazia dela Jesukristo gure Jauna muda ez daiteken amudiz maitatzen duten guziekien. Amen.



## J. PAULO APOST. GUTHUNA FILIPEARREI

### I. KAP.

**1** Paulok eta Timotheok Jesukristoren zerbitzariak Jesukristo bait-hango saildu Filipen diren guziei aphezpikuekien batean eta diakreekien: **2** grazia dela zuekien eta bakea Jainko gure Aita ganik eta Jesukristo gure Jauna ganik. **3** Eskerrak diotzat ematen ene Jainkoari zuetaz orhoitzen naizen guzian, **4** bethiere ene orazione guzietan zuentzat guzientzat bozkarioekien othoitz egiten dudalarik, **5** Jesukristoren Ebanjelioan lehenbiko egunetik oraidarainokoan hartzen duzuen parteaz. **6** Eta hortaz fida ere naiz obra on hori zuen baithan hasi izan duena ez dela geldituko akhabatzetik Jesukristoren eguneraino, **7** arrozoin den bezala sentimendu hori izan dezadan zuetaz guziez, zeren bihotzean baitzaituztet ene bozkarioan, guziek parte hartzen duzuen gatik ene gatheetan, ene defendatzean eta Ebanjelioaren konfirmatzean parte hartu izan duzuenaren araez. **8** Ezen Jainkoa dut lekhuko zein amultsuki maite zaituztedan Jesukristoren erraetan. **9** Eta nik egiten diodan othoitz da zuen karitatea geroago eta gehiago berretuaz dohan jakintasun eta ezagutza guzietan, **10** jakin deza-zuentzat ezagutzen hoberen ditekera, izan zaiteztentzat garbi eta ibill zaitzentzat Jesukristoren eguneraino trebekurik eta behaztoparik gabe; **11** izan zaiteztentzat justiziaren fruituz betheak Jesukristoz Jainkoaren gloriako eta laudoriotako.

**12** Nahi dut bada jakin dezazuen, ene anaiak, ni hunela izatea are Ebanjelioaren aitzinamendukotzat gerthatu izan dela, **13** halako manieraz, non ene gatheak famos egin baidire enperadorearen gorthe guzian, eta Romako bertze habitant guzien artean Jesukristoren gloriako. **14** Eta gure Jauna baithan gure anaia direnetarik hainitz, ene gatheen ariaz fidosen errendaturik, hauzu izan baidire ausarkiago eta beldurkunderik gabe irakasterat Jainkoaren hitza. **15** Batzuk bada inbidiaz eta lehiaz predikatzen dute Jesukristo, bertzeek ordean xede onez. **16** Batzuk egiten dute karitatez, jakinik ezen Ebanjelioaren defendatzeko ifinia izan naizela; **17** bertzeek berriz

lehiaz dute predikatzen Jesukristo eta ez xede garbiz, ustez ezen ene gatheak dorpheago bihurtuko dituztela.

**18** Baiñan zer antsia da? Nolanahi ere Jesukristo predika dezaten, ala okasionez, ala egiazko zelo batez, nik atsegin dut hortaz eta bai izanen ere. **19** Badakit ezen hori ene salbamenduko baliatuko zaitala zuen othoitzez eta Jesukristoren Izpirituaren sargunez, **20** idurikitzen eta esperantza dudana bezala deusetan ez naizela ahalkatua izanen; aitzitik fida naiz hagitz bethiere bezala orai ere glorifikatua izan dela Jesukristo ene gorphutzean, nahiz ene biziaren nahiz ene heriotzeaz. **21** Ene bizia ezen Jesukristo da eta hiltzea enetzat irabazia da. **22** Baldin haragian bizitzeaz zerbeit probetxuheldu bazait ere, ene traballutik ez dakit zer hauta. **23** Hersturan naiz alabaiñan bi aldetarik, nahi bainuke ilkhi hemendik eta Jesukristorekien izan, hobeago ere bainuke hainitzez; **24** egon nadin ordean haragian mengoa da zuentzat.

**25** Eta hau gerthuki badakit: egonen naizela oraino eta egonen ere denbora luzez zuek guziekien zuen aitzinamendutan eta zuen fedearen bozkariotan, **26** berriz zuen ganat nathorkenean izan dezazuentzat nitaz geroago eta gehiago glorifikatzeko lekhu Jesukristo baithan. **27** Duzuen xoilki artha Jesukristoren Ebanjelioari dagokon bezala ibiltzeko; edo ethorrik zuen ikusterat edo zuen ganik urrun izanik, adi dezadantzat Izpiritu bereborean egiñak zaudeztela eta gogo berez elkharrekien traballatzen zaretela Ebanjelioaren fedearantzat, **28** deusetan izitu gabe zuen kontra deklaratzaren direnen esaiuen gatik, zein baida hekientzat galtzeko suiet bat, zuentzat berriz salbatzekoa; eta hori Jainkoa ganik heldu da. **29** Ezen hark egin darotzuen grazia, bat da, ez xoilki sinhesten baiduzue Jesukristo baithan, baiñan oraino pairatzen ere baiduzue haren gatik; **30** gudu berean aurkhitzen zarete ezen, zeinetan ikusi izan bainazue ni eta aditzen baiduzue naizela orai ere.

### II. KAP.

**1** Baldin bada, beraz, konsolazionerik batere Jesukristo baithan, baldin bada karitatezko soleiumendurik, baldin bada Izpirituzko batasunik, baldin bada gure artean amudiorik eta urrikalmendurik batere, **2** konplizazue ene bozkarioa guziak elkharrekien bat egiñak egonez, guziek karitate bera, gogo bera, sentimendu berak izanez, **3** deusere egiten ez duzeularik lehiazko izpirituaz, ez banagloriaz; aitzitik humilltasunez, batbederak



bera baiño gehiagokotzat bertzeak idukitzen ditutzuela, **4** batbederak behatzen diotela ez bere intres propioei, bainan bertzeenei.

**5** Sar zaitezte hortarakotz Jesukristok izan dituen sentimendu bere-tan, **6** zeñiek Jainkoaren iduria eta izatea duelarik, ez baidu uste izan arrap-tze bat ditekela harentzat Jainkoaren berdin izatea, **7** zeñiek bizkitartean ezdeusetaratu izan baidu bere burua, esklaboaren iduria harturik, gizonen iduriko egiñik eta gizonen kondizione bereko agerturik. **8** Beheratu izan du bere burua, obedient egiñik hiltzeraiñokoan; ordean gurutze baten gaiñean hiltzeraiñokoan. **9** Hargatik altxatu izan ere du Jainkoak eta eman izan dio izen bat, izen guzien gaiñeko dena, **10** Jesusen izenean belhauri-ka ditezentzat zeruan, lurtean eta ifernuetan diren guziak, **11** eta mihi guziek aithor dezatentzat Jesukristo Jauna dela Jainko Aitaren glorian.

**12** Hala, ene maiteak, bethiere obedient izatu zareten bezala, duzuen artha ez xoilki ni present nauzuenean, baiñan are gehiago ni urrun nauzuenean, beldurtasunekien eta ikhararekien zuen salbamendua egiten haritzeko. **13** Jainkoa da ezen zuen baithan eragiten duena nahia eta bai egitea bere nahiaren araeuz. **14** Gauza guziak egitzue bada erasiarik eta herabetasunik gabe, **15** izan zaiteztentzat errankizunik gabetako eta garbi, Jainkoaren ume ezin erreprenituzkoak, nazione gaixto eta bihurri baten erdian, zeñien artean argitzen ohi baiduzue argizagiek munduan bezala; **16** bizitzearen hitza konserbatzen duzuelarik Jesukristoren egunean, ene gloria izan dadintzat ez naizela alferrik ibilli lausterka, ez alferrik travaillatu. **17** Bainan ene odola isuri behar nukela ere zuen fedearen bitimaren eta sakrifizioaren gaiñerat, atsegin dut eta bozten naiz zuek guziekien. **18** Halaber zuek ere boz zaitezte eta alegera zaitezte enekien batean.

**19** Esperantza dut bada Jesus Jauna baithan Timotheo lauster igorri-ko darotzuedala, ni ere deskansa nadintzat zuen berriak jakinik. **20** Ez baidut nihor enekien bain gogo berdiñetako denik, ez bain bihotz garbiz zuentzat intresatzen denik; **21** guziak ezen bere intres propioei darraizte eta ez Jesukristorenei. **22** Hura ordean ja frogaturik ezagutzen duzue, enekien Ebanjelioaren predikazionean zerbitzatzen hari izan denaz geroz, seme batek bere aita zerbitzatzen duen bezala. **23** Hura bada esperantza dut igorriko darotzuedala neure egitekoei drezu eman dioketedan bezain sarri. **24** Fida naiz bada Jauna baithan neroni ere ethorriko natzaitzuela lauster ikusterat.

**25** Bizkitartean mengoa iduritu zait zela igor diezazuedan Epafrodite ene anaia, ene travailluetan eta ene guduetan lagun izan dudana, zuen

apostolu ere dena, eta ene beharkizunetan zerbitzatu izan nauena. **26** Zeren zuen guzien ikusteko desira baitzuen, eta damu baitzuen zeren aditu zinduten eri zela. **27** Ezen egiazki eri izatu da eta hill hurrena; ordean Jainkoak urrikari izatu du, eta ez hura xoilki, baiñan ni ere, tristezia tristezia-riaren gaiñean izan ez nezantzat. **28** Hargatik bada lausterrago darotzuet igorri, hura ikusteaz berriz boz zaitezten gatik eta neure burua griñatik kanpoan ematea gatik. **29** Errezibi zazue beraz Jauna baithan ahal den bozkario guziarekien eta horlako presunak ohora zatitzue; **30** ezen Jesukristoren obra gatik izatu da bill hurrena, bere bizia emanik zuen aldetik eskas nuen zerbitzua zuen orde niri bihurtzeko.

### III. KAP.

**1** Gaiñerakoan, ene anaiak, boz zaitezte Jauna baithan. Gauza berak zuei eskribatzea ez zait niri nekhe eta zuentzat nezesario ere da. **2** Begirautzue ozarretarik, begirautzue langille gaixtoetarik, begirautzue zirkonzisione falsotik; **3** gu garen ezen zirkonzisione, gu Izpirituz Jainkoa zerbitzatzen dugunak, gure gloria Jesukristo baithan ematen dugunak eta haragian fidantziarik ez dugunak; **4** nik badudan arren zertaz haragian ere burupe har. Baldinetariak zenbait bertzek uste badu baduela zertaz har burupe haragiaren partetik, nik ere gehiago duket. **5** Zirkonzidatua izan bainaiz zortzi garren egunean, Israelen kastatik bainaiz, Benjaminen leiñutikakoa, hebrearra hebrearretarik ethorria, legeari behatzen zaizten gauzetan farisaua; **6** zeloz bethea izan naizena Jainkoaren Eliza persekutatzeraiñokoan, legearen arauerako justizian errankizunik gabe bizitzea eraman dudana.

**7** Ordean irabazi bat bezala ohi naduzkan gauza horiek orai Jesukristoren ariaz kaltetzat daduzkat. **8** Eta are gauza guziak daduzkat kalte batentzat Jesukristo ene Jaunaren ezagutza exelentaren ariaz, zeinaren amorea gatik guziei ukho egin baidaroet eta behatzen baidaroet ongarrari bezala, Jesukristo irabaz dezadantzat, **9** eta aurkhi nadintzat haren baithan ez legetik nuen justiziarekien, baiñan Jesukristo baithango fedetik heldu denarekien, Jainkoa ganik fedeaz heldu den justizia harekien; **10** ezagutzea gatik Jesukristo, haren phiztearen berthutea eta haren sofrikarietan dudan partea, haren heriotzearen antzura egin izanik, **11** agian helduko naizelakoan hillen artetikako phizte dohatsurat; **12** ez bada ja heldu naizelakotz hartaraiño edo ja perfet naitekelakotz, bainan banarraio nolazbeit atzemanen dudalakoan, eta Jesukristo, hark ni hartu izan nauen bezala.



13 Ez, ene anaiak, ez dut uste oraiño ardietsi dukedala, bainan gauza bat da: gibeletik ditudanak ahantzirik eta aitzinean ditudanen ardiesterat lehiaturik, 14 lauster egiten baidut harxederat, atzematea gatik zeruko dohatsutasuna, zeinetarat Jainkoak deithu izan baigaitu Jesukristoz.

15 Perfet garen guziak beraz gaudezen sentimendu hortan; eta baldin zerbeitetan bertzela uste baduzue, Jainkoak argituko zaituzte horren gainean ere. 16 Bizkitartean ja ardietsi izan ditugun ezagutzez denaz bezanbatean, gaudezen sentimendu beretan eta erregela berean. 17 Ene anaiak, zaretan ene imitatzaille eta beha diozozue gure baithan ikusi izan duzuen moldearen arauera dabiltzanei. 18 Badire ezen hainitz bertzela dabiltzanak, zeinetaz maiz erran izan baidarotzuet, eta orai ere nigarra begian dudala erraten, Jesukristoren gurutzearen etsaiak direla, 19 zeinen akhabantza izanen baida damnazionea; zeinen Jainkoa baida sabela; zeinek bere gloria ibentzen baidute bere ahalkeria propioan; zeinen gogo guzia baidatza lurreko gauzetan. 20 Gure gogo ordean eta konbertsazio-nea zeruan da eta handik igurikitzen ere dugu Salbatzaillea, Jesukristo gure Jauna, 21 zeinek ganbiatuko baidu gure gorphutz ezdeusa molde berri batetarat, bere gorphutz gloriosoaren iduriko egiterainokoa, gauza guziak ere bere manuko egin ahal detzaken eragintza haren indarraz.

#### IV. KAP.

1 Hala beraz, ene anaiak maiteak, ene deliren harxedeia, ene bozkarioa eta ene khoroa zaretanak, zaudezte borla zinki Jauna baithan, ene maiteak. 2 Othoizten dut Ebodia eta errekeritzen dut Sintixe, arren izan daitezzen gogo beretako Jauna baithan. 3 Othoisten zaitut, ene lagun fidela; lagun zatiztu emasteki bek, zeinak trailla izan baidire enekien Ebanjelioaren zerbitzuan Klementekien eta ene bertze lagunekien batean, zeñen izenak bizitzeko liburuan baiditezke.

4 Boz zaitezte bethi Jauna baithan; berriz ere diot, boz zaitezte. 5 Zuen modestia izan bedi ezagutua gizon guziez. Jauna hurbill da. 6 Ez duzuela deusen grinarik, aitzitik othoiztetan eta orazionetan jartzen zaretan guzian esker onekien batean ager beitez zuen galdeak Jainkoaren aitzinean. 7 Eta Jainkoaren bake, gogoeta guziak ixitzen dituenak, begira detzala zuen bihotzak eta zuen Izpirituak Jesukristo baithan.

8 Gainerakoan, ene anaiak, zer ere baidire egiakide, zer ere honest, zer ere justu, zer ere saildu, zer ere maitagarri, zer ere baidire fama ona

ekhartzen dutenak, berthute diren guziak, erakuspenetako laudagarri diren guziak, hek beitez zuek gogoan darabilketzuenak. 9 Nola ere irakatsi baitzaitzue eta ikhasi baiduzue, nola ere aditu baiduzue nitaz erraten eta ikusi ere baiduzue ene baithan, eta hala egizue, eta bakearen Jainkoa zuekien izanen diteke. 10 Atsegin handi bat izan dut bada Jauna baithan, zeren noizbeit bederen erreberitu diren enetzat ohi zinituzten sentimenduak; bethiere bada bihotzean zinituzten, ordean bertze gauzez ziñeten okupatuak.

11 Ez dut hau erraten deusen behar izanez, ezen ikhasi dut aurkhitzen naizen estatuaz kontent izaten. 12 Badakit behera izaten eta badakit frankian bizitzen ere; guzietan ikhasia naiz eta guzietarat egiña. Badakit ase izaten eta gosea pairatzen, frankian izaten eta gabea pairatzen. 13 Guziak ahal ditzaket indarztatzen nauena baithan. 14 Hala ere ungi egin duzue, ene behazunean parte hartu baiduzue.

15 Badakizue eki, Filipako zaretanak, Ebanjelioa predikatzen bastean Mazedoniatik partitu nintzenez, Eliza batek ere ez darotala egin parte bere ontasunetarik eta deusere ez dudala izatu, xoilki zuen ganik baizen. 16 Thesalonikarat igorri izan baidarotazue behar nuena behin eta bietan. 17 Ez bada eman diezadazuedan nahiz; aitzitik nik bilhatzen dudana da hortik zuei heldu zaitzuen fruitua, zeinek handituko baidu zuen obra onez Jainkoak atxekitzen duen kontua. 18 Orai hemen ditut igorri darozkidatzuen guziak, eta frankian naiz. Bethia naiz ontasunez, eman baidarozkit Epafroditek eskutat zuek igorri izan darozkidatzuedanak, urrin onezko emaitza bat bezala Jainkoaren gogarako eta ungi hartzeko den sakrifizio bat bezala.

19 Ene Jainkoak bada bethia detzala zuen desira guziak bere aberatasunen arauera eta dizuela bere gloria Jesukristoz. 20 Jainko gure Aitari dakioela eman gloria mendetako mende guzietan. Amen. 21 Saluta zatiztuzue saildu guziak Jesukristo baithan. 22 Enekien diren anaiak, goraintzi. Orobat saildu guziez; bereganki ordean Zesaren etxeok. 23 Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuen izpirituarekien. Amen.





## J. PAULO APOSTOLUAREN GUTHUNA KOLOSIARREI

### I. KAP.

**1** Paulo, Jainkoaren nahiz Jesukristoren Apostoluak, eta Timotheo bere anaiak **2** Kolosan diren sailduen eta fidelei, Jesukristo baithango gure anaiei: **3** grazia eta bakea dela zuekien Jainko gure Aita ganik eta Jesukristo gure Jauna ganik. Eskerrak diotzagu ematen Jainkoari, Jesukristo gure Jaunaren Aitari, eta bethi diogu zuentzat othoitz egiten, **4** aditurik Jesukristo baithan duzuen sinheztea eta saildu guzientzat duzuen karitatea, **5** zerueta zuentzat daudezen onen esperantzan, zeinen ezagutza ja izan baiduzue Ebanjelioko egiaren hitzaz, **6** zeina heldu izan baida zuetaraino mundu guzian predikatua den anzura berean, zinetan ekhartzen baidu fruitu eta berretzen baida, zuen baithan egin den bezala, Jainkoaren grazia aditu izan duzuen egunaz geroztik eta ezagutu egiaren arauera, **7** nola baiduzue ere ikhasi Epafra gure lagun maite eta zerbitzarikidea ganik, zein baida zuentzat Jesukristoren ministro fidel bat, **8** eta zeinek ezagutarazi baidaroku zuen karitate izpirituzkoa.

**9** Horren gatik gu ere jakintsun hortaz egin izan garen ordutik, ez gare gelditzen zuentzat othoitz egitetik eta Jainkoari galdetzetik, arren bethe zaitzaten bere nahiaren ezagutzaz eta eman diezazuen zuhurtzia guzia eta izpiritualeko jakintza guzia, **10** ibill zaitzeten amoreza gatik Jainkoari dagokon bezala, lehiatzen zaretelarik gauza guzietan haren gogarako izaterat, obra on suerte guzieren fruituak ekhartzen ditutzuela eta Jainkoaren ezagutzan aitzinatzen zaretela; **11** izan zaitzetzat indarrez betheak haren bothere gloriosoaren arauz, guziak pairatzen ditutzuelarik iraupenekien eta bozkarioyekien, **12** eskerrak ematen diotzotzuelarik Jainko Aitari, zeinek argi eginik gai egin baigaitu sailduen zorthean parzuner izateko, **13** zeinek athera izan baigaitu illhunbetako botherearen azpitik, eta eraman bere Seme maitearen erresumarat, **14** zeina baithan baidukegu erresketamendua haren odolaz, bai eta ere bekhatuen barkhamendua,

**15** zeina baida Jainko ezin ikus daitekenaren imajina, kreatura guziak baino lehen jaioa. **16** Ezen haren baithan egiñak izan dire gauza guziak

zerukoak eta lurkoak, ikusten direnak eta ikus ezin daitezkenak; ala thronuak, ala dominazioneak, ala prinzipalitateak, ala bothereak, guziak hartaz eta haren baithan izan dire kreatuak. **17** Bera guziak baino lehena-gokoa da eta guziek haren baithan dute izatea. **18** Hura da ere Elizaren gorphutzeko buruzagia, hura da hastapena eta hillen artetikako lehen jaioa, guzietan lehentasuna atxik dezantzat. **19** Aitaren atsegiña izan baida gauza guzieren bethetasuna haren baithan ematea **20** eta hartaz guziak bake-tzea berekien, hark gurutzean isuri izan duen odolaz bakearazirik nahiz lurrean direnak eta nahiz zeruan direnak.

**21** Zebonek ere noizbeit hastanduak ziñetenak Jainkoaganik eta haren etsaiak, gogoa obra gaixtoetarat emana izanez, **22** orai ordean bakearazi izan zaituzte heriotzeaz bere gorphutz haragizkoan, zuek egitea gatik saildu, garbi eta erratekorik gabeko bere aitzinean, **23** baldin behintzat fedean ungi fundatuak eta finkatuak egoten bazarete, behinere higitu gabe esparantza eman darotzuenetik aditu izan duzuen Ebanjeliok, zeina predikatua izan baitzaie zeruaren azpian diren kreatura guziei, eta zeinaren ministre egin izatu bainaiz ni Paulo,

**24** orai atsegin dudana zuen gatik pairatzen ditudan gaitzez eta neure haragian konplitzen ditudana Jesukristoren sofrikarien gainakoak haren gorphutza gatik, zeina baida Eliza, **25** zeinaren ministro egin izatu bainaiz Jainkoak zuen alderakotz eman izan darotan mezuaren arauera, Jainkoaren hitzari behatzen zaiena konpli dezadantzat, **26** predikatzen darotzuedalarik misterioa, mende guzietan eta adin guzietan estalia izatu dena eta orai erakutsia izan zaiena haren sailduen, **27** zeinei ezagutarazi nahi izan baidiote Jainkoak zer diren misterio horren gloriaren aberatstasunak jentillen baithan, zein baida Jesukristo zuentzat gloriaren esparantza. **28** Eta hura darotzuegu predikatzen, gizon guziak abisatzen ditugularik eta guziei irakasten diogutelarik zuhurtzia guzizkoan, gizon guziak egitea gatik perfet Jesukristo baithan. **29** Hortan traillaitzen naiz ere, gudan ari naizela ene baithan botheretsuki obrarazitzen duen berthutearen arauera.

### II. KAP.

**1** Nahi dut ezen jakin dezazuen zein griña eta ardura handia dudan zuentzat, Laodizean direnentzat, bai eta haragizko gorphutz huntan egundaino ikusi izan ez nauten guzientzat ere, **2** konsolatuak izan daite-



zen gatik hekien bihotzak eta, elkharreki bat egiñak izanik karitatez, izan daitezen gatik betheak jakintza perfet baten aberatstasun guzietz, eza-gutzeko Jainko Aitaren misterioa eta bai Jesukristorena, **3** zeñia baithan baidire zuhurtziaren eta jakintasunaren tresor guziak gordeak.

**4** Hau erraten dut bada nihork engana ez zaitzaten gatik solhas sot-hillez eta goratiarrez, **5** ezen gorphuttez urrun banaiz ere, izpirituz ordean zuekien naiz, atseginiekien ikusten dudalarik zuen artean den orde-nu ona eta zein ziñezkoa den zuek Jesukristo baithan duzuen sinhestea. **6** Hala beraz ibill zaitzte Jesukristo gure Jauna baithan hartaz irakatsi izan zaitzuenaren arauera, **7** erroak egiñik eta zimenduak harturik haren bait-han, borthizten zaretelarik irakatsi izan zaitzuen fedean, eta frankoki eta perfetki haren baithan eskerrak ematen ditutzuelarik.

**8** Begirautzue nihork atzeman ez zaitzaten filosofiaz eta arrozoina-mendu banoez eta enganiosez, gizonen asmuen arauerako munduko jakintzaren prinzipioen arauerakoez eta Jesukristoren arauera ez direnez; **9** ezen haren baithan datza jainkotasunaren bethetasun guzia korporalki **10** eta badituzue gauza guziak mukuru haren baithan, zeñia baida prinzi-palitate eta bothere guzien buruzagia, **11** zeñia baithan baitzarete zirkon-zidatuak ere, ez zirkonzisione eskuz eginikako batez, gorphutzeko hara-gitik ebakitzez, baiñan Jesukristoren zirkonzisioneaz. **12** Ehortziak izan baitzarete bathaioaz harekien, zeina baithan halaber biztu izan baitzarete sinhesteaz Jainkoak biztu izan duela hilletarik bere botherearen eginkariz. **13** Ezen zuek ere hillak ziñaudeztenean zeben bekhatuetan eta zuen hara-giaren zirkonzidatu gabea, bizarazi izan zaituzte Jesukristok berekien zuen bekhatu guziak barkhatuak.

**14** Urratu izan du gure kontra ginduen zedula eta borratu osoki gure kondenazionetako mezua, itzaturik hura bere gurutzeari. **15** Eta bulhuzi-rik prinzipalitateak eta bothereak ezarri izan ditu ikuskaritzat mundu guziaren aitzinean hetaz triumfaturik bere presunan. **16** Nihork beraz ez bezaitzate kondena jatearen edo edatearen ariaz, edo besta egunen, ilhar-gi berrien edo sabatho egunen ariaz, **17** zeinak ez baitziren ethorkizuneko gauzen itzala baizen; ordean hekien gorphutza Jesukristo da. **18** Nihork ez zaitzate aldara bide xuxenetik, humill delako eta aingeruak ohoratzen dituelako ostendadez, ezagutzen ez duen bidez dabillala, ergelki hantua bere prudentzia haragizkoz, **19** ez datzakola buruari; zeñia ganik gorphutz guziak, bere parte guziak juntatzen eta estekatzen diotzaten zaiñetarik,

errezibitzen baidu irautekoa, geroago eta gehiago handitzerañokoan Jain-koaren arauera.

**20** Baldiñetariak beraz hillak bazarete Jesukristorekien mundu hun-tako erakuspen arrunterei, zergatik zeben buruei lege egiterat uzten dio-zue, munduan bizi baziñete bezala? **21** «Begirautzue hori uki edo hortarik dasta; begirautzue hori erabil». **22** Eta dire hek guziak zerbitzatzue beraz ahitzen diren gauzak eta zeñetan baitzabiltzate gizonen maximen eta opi-nioeen arauera; **23** zeñiek alabainan baidute zerbeit zuhurtziaren iduri-kunde superstizione batean eta humiltasunezko sentimendu batzutan, gorphutza guphida ez izatean eta haragia sasiatzeaz ez antsia izatean.

### III. KAP.

**1** Beraz baldinetariak biztu izan bazarete Jesukristorekien, bilha zatzue zeruan diren gauzak, non baidago Jesukristo Jainkoaren eskuiñean jarria. **2** Zeruko gauzentzat duzuen gustua eta ez lurrekoentzat; **3** hillak zarete ezen eta zuen bizia gordea da Jesukristorekien Jainkoa baithan. **4** Noiz ere agertuko baida Jesukristo, zein baida zuen bizia, orduan zuek ere agertuko zarete harekien glorian.

**5** Hilduma zatzue beraz zuen baithan den gizon lurrezkoaren men-broak: lohikeria, atseginetarako lehia, gutizia gaixtoak eta abarizia, zein baida idolatria bat, **6** gauza horien gatik erortzen denaz geroz Jainkoaren kolera presuna sinhets gogorren gainerat, **7** zeinetan ibilliak baitzarete noizbeit zuek ere, desordenu hetan bizi ziñetenean.

**8** Orai bada utzatzue zuek ere horiek guziak: irakidura, zumindura, malezia, gaixki errateak, zuen ahotik ilkhitzen ohi ziren hitz lizunak. **9** Gezurrak ez derrozuela batak bertzeari; erauntz zazue gizon zaharra bere egitateekien, **10** eta jauntz zazue gizon berei hura, zeñia erreberritzen baida, ezagutua izateraiñokoan hura kreatu izan duenkren imajinaren arauerakotzat, **11** zeinetan ez baida ez jentillik ez judutarrik, ez zirkonzi-daturik ez zirkonzidatu gaberik, ez barbarorik ez Eszitharrik, ez esklabo-rik ez librorik, baiñan zeñetan Jesukristo baida guzia eta guzietan.

**12** Besti zaitzte beraz Jainkoaren hautatu sailduak eta maiteak beza-la urrikalmenduzko erraiez, emetasunez, humiltasunez, modestiaz, paira-kortasunez, **13** batak bertzea jasaten duzuelarik eta elkharri barkhatzen diozuelarik, nihork baldin badu errenkurarik bertzeen kontra. Nola ere Jaunak barkhatu izan baidarotzue zuei, eta hala egizue zuek ere.



**14** Horien guzien gaiñetik ordean duzuen karitatea, zein baida perfektionaren lokharria. **15** Nausi bedi zuen bihotzetan Jesukristoren bakea, zeinetarat deithuak ere baitzarete guziak gorphutz bakhar bat egiteko; eta zaretan hortaz eskertiar. **16** Jesukristoren hitza egon bedi zuen baithan bere bethetasun guzian, zuhurtzia guzizko batekien. Irakats diozozue eta gogoa on elkharri salmuez, himnoez eta kantiko izpiritualez, kantatzen ditutzuelarik bihotzez Jaunaren laudorioak edifikazionerekien. **17** Egiten dukezuen guzia, ala mintzatzeez ala egitez, guziak egitzue Jesukristo Jaunaren izenean, eskerrak ematen diotzotzuelarik hartaz beraz Jainko Aitari.

**18** Emasteak, zaretan obedient zuen senharren alderat, behar ere den bezala Jaunaren arauera. **19** Senharrak, maita zatzue zuen emasteak eta ez detzatzuela garraxki ekhar. **20** Umeak, obedi zatzue zuen burasoak gauza guzietan; hori Jaunaren gogara da ezen. **21** Aitak, ez detzatzuela damuzta zuen umeak, gogoa gal ez dakioten. **22** Sehiak, obedi zatzue gauza guzietan haragiaren arauera zuen nausi direnak, ez begia zuen gaiñean dutenean xoilki ditutzuela zerbitzaten, gizonen gogara egitea gatik bezala, bainan bihotzezko sinpletasunarekien eta Jainkoaren beldurtasunarekien. **23** Egiten dukezuen guzia egizue gogo onez, Jaunarentzat bezala eta ez gizonentzat bezala, **24** dakizuelarik Jauna ganik duzuela izanen saritzat zeruko heredalgoa. Jesukristo Jauna da zerbitzatu behar duzuen, **25** ezen gaixki egiten duenak errezibituko du gaixki egin dukenaren pena; eta ez da presunen berezгурik Jainkoa baithan.

#### IV. KAP.

**1** Nausiak, justu eta beharki dena errenda diozozue zuen sehiei, dakizuelarik ezen zuek ere baduzuela nausi bat zeruan. **2** Zarraizkote othoitzari, gauak ere daramatzuela othoitz egiten eta eskerren ematen. **3** Egizue othoitz guziek elkharrekien guretzat ere, Jainkoak idek diezaguntzat athea bere hitzarentzat, predikatzeko Jesukristoren misterioa, zeñña gatik ere bainaiz gatheetan, **4** ezagutaraz ere dezadantzat hura hartaz mintzatu behar dudana bezalako molde onez. **5** Zuhurki ibill zaitezte Elizaz kanpoan direnekien, denbora erosten duzuelarik. **6** Zuen hitzetan duzuen behiere grazia molde bat eta gatz bat sasoa detzakena, dakizuekentzat nola behar diozuen ihardetsi batbederari.

**7** Niri behatzen zaitan guzia jakiñen duzue Tikike gure anaia maitea ganik, zein baida Jaunaren zerbitzari fidel bat, Jauna enekien batean zerbitzaten duena. **8** Berariaz igorri darotzuet hura, jakin dezan gatik zertan zaretan zebonek ere eta konsola detzan gatik zuen bihotzak. **9** Igorri dut harekien batean halaber Onesimo ene anaia maitea eta fidela, zuen herriarat. Hemen iragaten den guzia jakinen duzue hekien ganik.

**10** Salutatzen zaituzte Aristarke enekien preso dagoenak, eta Mark Barnaberen kusiñak, zeinarentzat errezibitu baidituzue gomendiozko buthunak. Ethortzen baldin bada zuen ganat, errezibi zazueke ungi. **11** Jesus justua daritzanak ere agur darotzue. Hainak baidire zirkozisionekoak, horiek dire bakharrak Jainkoaren Erresuma ifintzen lagun ditudanak eta zerbeit konsolamendu ematen darotedanak. **12** Salutatzen zaituzte Epafra zuen herritarra. Jesukristoren zerbitzari bat da bethi zeloz bethea zuentzat bere orazionetan, izan zaiteztentzat konstantki perfetak eta konpliak Jainkoak zuen ganik nahi duen guzietan. **13** Lekhukotasun hau errenda diozoket ezen: grina handi bat duela zuentzat, eta bai Laodizean eta Hierapolisen direnentzat ere. **14** Salutatzen zaituzte Lukas mediku maiteak eta bai Demasek ere.

**15** Saluta zatzue Laodizean diren anaiak, eta Ninfas haren etxean den Elizarekien. **16** Buthun hau irakurri daitekenean zuen artean, duzuen artha irakur dadin Laodizeako Elizan ere, eta Laodizearentzat dena berriz irakur dezazuen zuek. **17** Errozue Arkiperi hitz hau niketz: konsidera zazu ungi Jauna ganik errezibitu duzun mezua, bethe detzatzuntzat hartako eginbide guziak. **18** Hauxe neure esku propioz eskribatzen dut nik Paulok, zuen salutzeko. Orhoit zaitezte ene gatheetz. Grazia dela zuekien. Amen.



## J. PAULO APOSTOL. LEHENBIZIKO GUTHUNA THESALONIARREI

### I. KAP.

**1** Paulok, Silbanok eta Timotheok Thesalonikako Elizari, Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean: **2** grazia dela zuekien eta bakea. Eskerrak ematen diotzagu Jainkoari bethiere zuen guzientzat, zuek behiñere ahanzi gabe gure othoitzetan, **3** orhoitzen garelarik gure Jainkoaren eta Aitaren aitzinean zuen fedearen obrez, zuen karitatearen traillauek eta zuek Jesukristo gure Jauna baithan duzuen esperantzaz eta fidantziak. **4** Badakigu ezen, ene anaia Jainkoaz maitatuak, nola izan zaretan bereziak. **5** Ebanjelioa predikatu izan darotzuegunean ez baidugu egin hitzekien xoilki, baiñan oraiño ere mirakuilluekien, Izpiritu Sainduaren laguntzarekien eta haren dohaiñen frankia oso batekien. Badakizue ere nolakotsu izatu garen zuen artean zuen salbamenduarentzat.

**6** Zuek ere halaber gure imitatzaille egin izan zarete eta Jaunaren imitatzaille, errezipitu izan baiduzue hitza tribulazione handien artean Izpiritu Sainduaren bozkarioarekien, **7** halako maneraz, non moldetzat baliatu izan baitzaizte Mazedonian eta Akaian diren fidel guziei. **8** Ezen ez xoilki zuen gatik izan da Jaunaren hitza banatua Mazedonian eta Akaian, baiñan are zuek Jainkoa baithan duzuen sinhetstea ezagutua da lekhu guzietan hain ungi, non ez baida mengoa hortaz deusik aipha dezagun, **9** halaz eta berek kondatzen darotzuetenaz geroz zer maneran sarthu izan garen zuen baithan eta nola itzuli izan zaretan Jainkoa ganat, idolak utzirik zerbitzatzekotzat Jainko bizia eta egiazkoa **10** eta igurikitzekotzat zeruetarik haren Seme Jesus, zeina biztu izan baidu hiletarik eta zeñiak athera izan baigaitu geroko koleraren miñetik.

### II. KAP.

**1** Badakizue ezen zebonek, ene anaia, gu zuen ganat ethortzea ez dela alfer izatu. **2** Aitzitik lehenago sofritu ginduen arren eta gaizki tratatuak izan giñen arren, dakizuen bezala, Filipen, izan ginduen kuraiea Jain-

koaren laguntzarekien batean zuei predikatzeko Jainkoaren Ebanjelioa hainitz nekhe eta griñen artean. **3** Guk ezen predikatu izan darotzuegun dotrina ez da enganiozkoa, ez lohikeriazkoa, eta ez dugu izan xederik zuen enganatzeko; **4** aitzitik nola Jainkoak hautetsi izan baigaitu bere Ebanjelioa guri fidatzeko, hala mintzo gare ez gizonen gogara egin nahiz, bainan bai egin nahiz Jainkoaren gogara, zeinek ikusten baidu gure bihotzen barrena.

**5** Ez dugu ezen egundaiño deusik erran zuen lausengatzeko, daki-zuen bezala, eta ez bilhatu abariziazko estakururik batere. Jainkoa da lekhu-huko. **6** Ez gare ibilli gloria bilha gizonen ganik, ez zuen ganik, ez bertzeren ganik. **7** Karga ahal zintzazkegutelarik Jesukristoren Apostolu bezala gure hazteaz, hala ere xume eta eme egotu gare zuen artean, unhide batek bere haurrak mainaz ekhartzen dituen bezala. **8** Hala maite baitzintzuegun amultsuki, nahiko giñarotzuen eman ez xoilki Jainkoaren Ebanjelioaren ezagutza, baiñan oraino gere bizia ere. Hain maite bazintzuegun ezen.

**9** Halaber orhoit bide zarete, ene anaia, gure traillauek eta nekeez: nola gau eta egun lanean hari giñela, zuetarik nihori ez karga izatea gatik, predikatu izan darotzuegun Jainkoaren Ebanjelioa. **10** Lekhuo zarete eta lekhuo da Jainkoa, zeñ sainduki, justuki eta iroi gabeki ibilli izan garen zuen artean sinhetsi duzuenen baithan. **11** Badakizue ezen zuetarik batbederaren alderat haritu izan naizela, aita bat bere umeen alderat bezala, **12** zuen exortatzen, konsolatzen, errekeritzen, arren ibill zintezten zuek bere erresumarat eta gloriarat deithu izan zaituzten Jainkoari dago-kon bezala.

**13** Hargatik diotzogu Jainkoari ematen bethiereko eskerrak, zeren aditu gaituzuegan predikatzen Jainkoaren hitza, errezipitu izan baiduzue hura ez gizonen hitza bezala, bainan egiazki, nola baida, Jainkoaren hitza bezala, zeñiek obratzen baidu zuen baithan, sinhetsi duzuenetan. **14** Zuek ezen, ene anaia, imitatzaille egin zarete Jainkoaren Elizen, zeñiek besarkatu izan baidute Judean Jesukristoren fedea; pairatu izan baiduzue zuek ere zuen herritarretarik hek pairatu izan dutena judutarretarik; **15** zeñiek hill izan ere baidituzte Jesus Jauna eta profetak, zeñiek persekutatu izan baigaituzte, zeñiak ez baidire Jainkoaren gogarako eta gizon guzien etsai ere baidire; **16** zeñiek debekatzen baigaituzte mintzatzetik jentillei bere salbamendua egin dezatentzat, bethi bere bekhaturen neurria



mukuratzen haritzeko; eroria da ezen bethikotzat Jainkoaren kolera hekien gaiñerat.

17 Gu berriz, ene anaiak, separatuak izan baigare zuen ganik denbora guti batetakotz ikustez eta bihotzez, hanbatenez gehiago lehiatu gare zuen ikusterat, hagitz desira handia baidugu hortakotz. 18 Nahi izatu dugu bada ethorri zuen ganat. Ni behintzat Paulo ethendua izan naiz behin eta bietan; ordean debekatu izan gaitu Satanek. 19 Eta gerthuki ere; zer da ezen gure esperantza, gure bozkarioa, gure gloriaren khoroa? Zuek ez zarete Jesukristo gure Jaunaren aitzinean haren ethorgunekotz? 20 Zuek zarete ezen gure gloria eta bozkarioa.

### III KAP.

1 Horri dagokala ezin gehiago iraunez, hobe iduritu zaiku egotea Athenesen bakharrik. 2 Eta igorri izan darotzuegu Timotheo gure anaia eta Jainkoaren zerbitzaria, Jesukristoren Ebanjelioan borthitz zaitzaten-tzat eta exorta zuen fedean zinki egoterat; 3 nihor higitua izan ez dadin-tzat persekuzione hautaz; zebonek badakizue ezen hortakotz garela mun-duan. 4 Zuen artean giñenean erraten ere giñarotzuen aitzinetik, izanen ginituela atsekabeak jasateko eta izatu ere ditugu, dakizuen bezala. 5 Horri dagokala, ezin gehiago igurikiz igorri izan dut zuen fedearen berri jakite-rat, beldurrez ezen tentatu izan zaituzketen tentatzaillak eta alfer ethor ez dadin gure travaillua.

6 Orai ordean Timotheo ethorri zaikunean zuen ganik eta kondatu izan darokunean zuen fedea eta karitatea, bethiere gutaz duzuen orhoi-tzapen amultsua eta gure ikusteko duzuen desira, guk ere zuen ikustekoa dugun bezala, 7 deskantsatuak edireten gare zuen baithan, gure atsekabe eta gaitz guzien artean, zuen fedearen ariaz; 8 ezen orai gare bizi, baldin zuek fermu bazaudete Jauna baithan.

9 Eta gerthuki, nola eskerrik aski eman ahal diozokegu Jainkoari zuen gatik, gure Jainkoaren aitzinean zuen ariaz sentitzen dugun bozka-rio guziarentzat? 10 Gauaz eta egunaz asko othoitz egiten ere diogu, ikus ahal zaitzateguntzat eta konpli ahal dezaguntzat zuen fedeak eskas duke-na. 11 Jainko gure Aitak bada eta Jesukristo gure Jaunak eraman gaitzala zuen ganat; 12 zuek berriz berret zaitzate Jaunak geroago eta gehiago elkharrontzat eta guzientzat duzuen karitatean, guk zuentzat dugun beza-latsu; 13 borthitz daitezentzat zuen bihotzak saindutasunean, iroyik ez

duzueken bezala, Jainko gure Aitaren aitzinean Jesukristo gure Jauna bere saindu guziekien dathorken egunean. Amen.

### IV. KAP.

1 Gaiñerakoan bada, ene anaiak, othoizten zaituztegu eta errekeri-tzen Jesus Jaunaz, gure ganik ikhasi duzuen bezala nola ibilli behar duzuen Jainkoaren gogarako izateko, hala ibill ere zaitetzen geroago eta gehiago aitzina zaitzeketen bezala. 2 Badakizue zer manamendu eman darotzuedan Jesus Jaunaren partez. 3 Hauxe da ezen Jainkoaren nahia: izan zaitetzen saindu; begira zaitetzen lohikeriatik, 4 jakin dezantzat zue-tarik batbederak bere gorphutzaz baliatzen sainduki eta honestki, 5 eta ez gutziaren mugidak segitzen dituela jentillek bezala, zeiniek Jainkoa ez bai-dute ezagutzen. 6 Ez beza nihork zeba ez engana bere anaia zernahi den egitekoetan, zeren eta Jauna gauza horien guzien bendekatzaille baida, ja erran darotzuegun bezala eta deklaratu haren partez. 7 Ez gaitu ezen Jain-koak deithu lohi izan gaitzarentzat, bainan bai saindu izateko. 8 Hala bada, mezu hauk arbuiatzen dituenak ez du gizon bat arbuiatzen, bainan bai Jainkoa, zeiniek eman izan ere baidu bere Izpiritua Saindua gure baithan.

9 Anaiatasuneko karitateaz denaz bezanbatean, ez dugu mengoarik zuei hortaz eskribatzeko, halaz eta zebonek Jainkoa ganik ikhasi duzue-naz geroz elkharren maitatzen; 10 ezen hori egiten ere baduzue Mazedo-nia guzian diren anaia guzien alderat; othoisten zaituztegu ordean, ene anaiak, geroago eta gehiago aitzinatzeaz amudio hortan, 11 eta ardura iza-teaz bakean egoteko; nor bere egitekoak egiteaz eta zuen eskuz trabai-llatzeaz, exlejitu izan darotzuegun bezala; 12 finean honeski ibiltzeaz Eli-zatik kanpoan direnen alderat eta bertzeren denik ez bilhatzeaz.

13 Ez dugu nahi behintzat, ene anaiak, ignora dezazuen lo dauntza-nez jakin behar duzuena, trista ez zaitzarentzat esperantzarik ez duten bertze gizonak bezala. 14 Baldinetariak ezen sinhesten badugu Jesus hil izan dela eta biztu dela, halaber Jainkoak erakharriko ditu Jesusekien haren baithan hill direnak ere. 15 Ezen hau erraten darotzuegu Jaunaren hitzean: gu, bizi garenak eta egon behar garenak Jauna dathorren artean, ez gaiztela aitzinduko ja hill direnei, 16 zeren eta ordena emanen den pon-tutik, arkanjeluaren boza eta Jainkoaren klaroiña adiaraziko den pontutik, Jauna bera jautsiko baida zerutik eta berehala biztuko ditezke lehenik Jesukristo baithan hill direnak. 17 Gero gu bizi garenak, hemen gelditzen



garenak, eramanak izanen gare hekiekien batean airetan hedoiien gaiñean, Jesukristoren aitzinerat goateko; eta hala bethierekotz Jaunarekien izanen gare. **18** Konsola zazue beraz elkhar ene erran horietaz.

## V. KAP.

**1** Denborez eta momentuez denaz bezanbatean, ene anaiak, ez da mengoarik eskriba diezazuegun, **2** zeren baidakizue aski zebonek Jaunaren eguna ethorriko dela gauaz heldu den ohoin bat bezala. **3** Noiz ere ezen erranen baidute: «Bakean gare eta segurean», eta orduan ethorriko zaiieke uste gabeko ondikoa, emaste izarra denari erditzeko miñak heldu zaizkon bezala; eta ez dire itzuriko. **4** Zuek ordean, ene anaiak, ez zarete illhunbetan, egun hark ohoin batek bezala ustegabeen atzeman zaitzaten-tzat. **5** Ezen zuek guziak argiaren umeak zarete eta egunaren umeak; ez gara gauarenak, ez illhunbeenak. **6** Ez gauntzala beraz lo bertzeak bezala, baiñan gauden atzarriak, eta garen sobre; **7** ezen lo dauntzanak gauaz dauntza lo, eta horditzen direnak gauaz dire hordi. **8** Gu ordean, egunaren ume garenak, garen sobre; eta jauntz dezagun burdin jakatzat fedea eta karitatea, eta kasketatzat salbamenduaren esperantza; **9** ezen ez gaitu Jainkoak gu ezarri bere koleraren terreratzat; aitzitik bai salbamendua ardiets dezaguntzat Jesukristo gure Jaunaz, **10** zeña hill izan baida guretzat, nahiz gaudezen iratzarriak, nahiz gaudezen lo, guziak betan bizi gaitzetzat harekien. **11** Hargatik bada dezazuen elkhar konsola eta edifika batak bertzea, egiten ere duzuen bezala.

**12** Othoitz egiten darotzuegu behintzat, ene anaiak, hagitx zuen artean trabaillatzen direnak, Jaunaren arauera gobernatzan zaituztenak eta irakasten darotzuetenak, **13** eta amudio gehiago hei erakustez egiten duten obra gatik. Duzuen bethiere bakea hekiekien. **14** Othoisten zaituztegu oraiño, ene anaiak; errepreni zatzue izpiritu nahasitako direnak, konsola zatzue gogo xumetako direnak, jasan zatzue flakoak, zareten pairakor guzien alderat. **15** Begirautzue nihork gaixkia gaizkiarentzat nihori errenda ez diozon; aitzitik zareten bethi prest ungi egiterat elkharri, eta bai mundu guziari ere. **16** Zareten bethi alegera. **17** Ez zaitzeltela geldi othoitz egitetik. **18** Gerthakari guzietan eman diotzatzue Jainkoari esker-rak; hori da ezen Jainkoak nahi duena guziek egin dezazuen Jesukristo baithan. **19** Izpiritua ez dezazuela iraungi; **20** Profeziak ez detzatzuela mespreza. **21** Gainerakoan gauza guziak examina katzue eta on denari zakizkote. **22** Gaixkiaren iduria duten guzietarik begira zaitzte.

**23** Bakearen Jainkoak berak, bada, zaitzatela santifika gauza guzietan, zuen Izpiritu guzia, zuen arima eta gorphutza begira ditezetzat erranki-zunik gabe Jesukristo gure Jauna dathorken egunekotz. **24** Fidel da zuek deithu zaituztena eta hark du egiñen hori zuen baithan. **25** Ene anaiak, egizue othoitz guretzat. **26** Saluta zatzue anaia guziak musu saindua emanik. **27** Jaunaz zaituztet errekeritzen irakuratzitzeaz buthun hau anaia saindu guziei. **28** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien. Amen.



## J. PAULO APOST. BIGARREN GUTHUNA THESALONIARREI

### I. KAP.

**1** Paulok, Silbanok eta Timotheok Thesalonikarren Eliza Jainko gure Aita baithan eta Jesukristo Jauna baithan denari: **2** Grazia dizuela eta bakea Jainko gure Aitak eta Jesukristo Jaunak.

**3** Bethiere behar diotzagu eman eskerrak Jainkoari zuentzat, ene anaiak, justu den bezala, zeren berretuaz dohan hagitz zuen fedea eta handituaz zuetarik batbederaren elkharganako karitatea **4** halako moldez, non geroni ere handiesten baigare Jainkoaren Elizetan zuen persekuzio-ne guzietan eta jasaten dituzuen atsekabeetan duzuen pairakortasunaren eta fedearen ariaz, **5** ager dadin gatik Jaunaren iujeamendu justua eta merezi dezazuen gatik Jainkoaren Erresuma, zeinarentzat pairatzen baiduzue, **6** baldin behintzat justu bada Jainkoaren aitzinean, afliji detzan ordainez zuek orai aflijitzen zaituztenak, **7** eta zuei, aflijituak zaretenei, eman diezazuen deskantsua gurekien batean, Jesus Jauna zerutik agertuko denean bere bothereko aingeruekien, **8** su eta kharren erdian bende-katzeko, Jainkoa ezagutzen ez dutenen eta Jesukristo gure Jaunaren Ebanjeliolari obeditzen ez diotenen gainean, **9** zeinek jasanen baidute heriotze bethiereko baten pena, ikusten dutenetik Jaunaren behagunea eta haren botherearen gloria, **10** dathorreanean glorifikatua izateko bere sainduetan eta miragarri sinhetsi izan duten guzien baithan; hala errezibitu izan baiduzue ere guk egun haren gainean errendatu izan darotzuegun lekhukotasuna.

**11** Horri dagokala ere gaudez bethi zuentzat othoitzez, arren gure Jainkoak egin zaitzaten bere deiaren arauerako, eta konpli detzan bere botherez zuen gainean eta zuen fedearen obraren gainean haren ontasunak dituen nahi guziak, **12** glorifikatua izan dadintzat Jesukristo gure Jaunaren izena zuen baithan eta glorifikatuak izan zaitezentzat zuek ere haren baithan gure Jainkoaren eta Jesukristo Jaunaren graziaren arauera.

### II. KAP.

**1** Errekeritzen zaituztegu bada, ene anaiak, Jesukristo gure Jaunaren ethor egunaz eta gure haren ganako bilguraz, **2** arren ez dakizuen arinki gogoa ganbia eta ez zaitezten izi ez omenez, ez erranez, ez buthunez gure ganik heldu direlakotz, berehala ethortzeko balitz bezala Jaunaren eguna. **3** Nihork ez zaitzabela engana zernahi moldez, zeren eta ez baida hala izanen, non ez den lehenik ethortzen alboratamendua eta agertzen bekhatuzko gizona sunsitu beharrezko unie hura, **4** etsai muthiri hura, zeïña altxatzen ere baida Jainko erraten den eta adoratzen den guziaren gainetik, Jainkoaren tenpluan jartzeraiñokoan eta bere burua jainko balitz bezala erakusteraiñokoan.

**5** Ez duzue gogoan oraiño zuekien nintzanean horiek erraten ohi narozkitzuela? **6** Eta oraiñokoan zerk dadukan badakizue eki, bere denboran agertzea gatik, **7** ezen ja moldatzen hari da inikitatezko misterioa. Xoilki orai dadukanak iduk beza hura, mundutik khen daiteken artean. **8** Eta orduan agertuko da gaixto hura, zeïña Jesus Jaunak desegiñen baidu bere ahoko hatsaz eta suntsiaraziko bere ethorgune gloriosoaz gaixto hura, **9** Satanaren indarrarekien ethorriko dena, eta bothere suerte guziekien, gezurrezko seiñalekien, mirakuillu falsoekien, **10** eta inikitateak asma ahal dezaken guziarekien, haiñen enganatzeko, zeïñak galtzen baidire, zeren ez duten errezibitu eta maitatu izan egia, salbatuak izateko. **11** Hargatik diote igorriko hainei Jainkoak enganiozko operazio hori, gezurra sinhetsiko duketen bezala, **12** kondenatuak izan daitezen gatik egia sinhetsi izan ez duten guziak, aitzitik inikitateari garaia eman izan diotenak.

**13** Guk ordean eskerrak eman behar diotzagu bethiere Jainkoari zuentzat, ene anaiak Jainkoaren maiteak, zeren lehenbizikoetarik hautetsi izan baitzaituzte salbatuak izateko Izpirituaren santifikazioez eta egieren sinhestez. **14** Xede hortaz deithu izan ere zaituzte, guk predikatu darotzuegun Ebanjelioaz, zuei ardiets arazitzea gatik Jesukristo gure Jaunaren gloria. **15** Hargatik beraz, ene anaiak, zaudete tieso eta zatxeitze, ala dela gure erranez ala dela gure buthunez, ikhasi dituztuen tradizioeei. **16** Jesukristo gure Jaunak berak, bada, eta Jainko Aita gu maitatu gaituenak eta bere graziaz konsolazioe eternal bat eta esperantza on bat eman darokunak **17** konsola detzala zuen bihotzak eta borthitz zaitzabela obra on suerte guzietan eta dotrina onean.



### III. KAP.

**1** Gaiñerakoan, ene anaiak, egizue othoitz guretzat, arren Jainkoaren hitza bana dadin eta izan dezan prezio, zuen artean ohi duen bezala. **2** Eta gu izan gaitezen libratuak jende bihurri eta gaixtotarik; ez da ezen fedea aurkhitzen presuna suerte guzietan. **3** Ordean fidel da Jainkoa eta bort-hixtuko zaituzte zuek eta begiratuko izpiritu gaixtoa ganik. **4** Fida ere gare zuetaz Jauna baithan, guk exlejitzen darozkitzuegunak egiten ditutzuela eta bai eginen ere. **5** Jaunak bada xuxen detzala zuen bihotzak Jainkoaren amudiorat eta Jesukristoren pairakortasunerat.

**6** Exlejitzen darotzuegu halaber, ene anaiak, Jesukristo gure Jaunaren izenean, aldara zaitezten anaia bide gaixtoz dabiltzanetarik, eta gure ganik errebitu izan dituzten erakuspenen arauera ez dabilzan guzietarik. **7** Zebonek badakizue ezen nola behar den egin gu imitatzeko; ez baigare behar ez bezalakoak izatu zuen artean. **8** Ez baidugu dohainik jan nihoren ogia, aitzitik travaillurekien eta nekherekien gau eta egun lanean hari izan baigare, zuetarik nihori karga ez izatea gatik. **9** Ez bada hortakotz bothere ez izanez, bainan gere buruak zuei exenplutzat ematea gatik, imita gaitzatzuentzat gu.

**10** Halaber zuekien giñenean deklaritzen ere ginarotzuen bau: Baldin edozeiñek lanean hari nahi ez badu, ez du behar jan ere. **11** Aditu dugu ezen badirela kuen artean jende nahasi batzu deusik hari ez direnak eta hei behatzen ez zaizten gauzetan sartzen direnak. **12** Horlako direnei bada exlejitzen diotegu eta othoitz egiten Jesukristo Jaunaz, soseguan travaillatzen direla jan dezaten bere ogia. **13** Zuek behintzat, ene anaiak, ez kaitzela geldi ungi egitetik. **14** Baldinetariak norbitek ez badio obeditzen guk gure buthunaz erraten dugunari, goardia emozue haiñari, eta ez dezazuela har haiña zuen baltsarat, ahalka dadin amorea gatik. **15** Guziarekien ere ez diozazuela beha etsai bati bezala, baiñan errepreni zazue zuen anaia bezala.

**16** Gaiñerakoan bakearen Jaunak berak dizuela lekhu guzietan bethereko bakea. Jauna dela zuek guziekien. **17** Salutatzan zaituztet nik Paulok ene esku propialaz; hortan ezagut daitezke ene buthun guziak; horla eskribatzen dut ezen. **18** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien. Amen.

## J. PAULO APOST. LEHENBIZIKO GUTHUNA TIMOTHEORI

### I. KAP.

**1** Paulo Jainko gure Salbatzailearen eta Jesukristo gure esperantza denaren manuz Jesukristoren Apostolu denak **2** Timotheo fedean bere seme maiteari grazia, miserikordia eta bakea Jainko Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren partez.

**3** Othoitz egiten darotzut, Mazedoniarat goaterakoan egin izan narotzun bezala, Efesan egoteaz eta zenbeiti adiarazitzeaz ez dezaten irakats dotrinarik gureaz bertzelakorik. **4** Ez datxeizten elhe zaharrei eta zedarririk gabeko hidalgoei, zeñiek sorarazitzen baidituzte aitzitikako ihardukitzeak, ezen ez baidute edifikatzen Jainkoaren arauera fedez egiteri dena. **5** Manamenduaren harxedeada bada karitatea da, bihotz xahu batetarik, konszientzia onetik eta alegia gabeko fedetik sortzen dena, **6** zeñietarik zenbeit aldaraturik itzuli izan baidire elhe banoetarat, **7** legeko doktor izan nahiz, aditzen aditzen ez dituztelarik erraten dituzten eta segurtzat ematen ere dituzten gauzak. **8** Badakigu bada ona dela legea, baldin nihor hartaz beharki baliatzen bada. **9** Jakinik behintzat legea ez dela ifinia izan prestu denaren gatik, baiñan bai gaixtaginen gatik eta desobedienten gatik, Jainkoaren beldur ez direnen gatik eta bekhatoren gatik, gizon galduen eta nothatuen gatik, aita-amen hiltzaileen gatik, gizon hiltzaileen gatik, **10** lohien gatik, gizakoi abominableen gatik, gizon arrapatzaileen gatik, gezurtien eta juramentu falso egilleen gatik eta dotrina garbiaren kontrako diren guzien gatik, **11** zein dotrina baida Jainko dohatsuaren gloriako Ebanjelioaren arauera, zeñaren predikatzeko mezua fidatua izan baitzait niri.

**12** Eskerrak ematen diotzat Jesukristo gure Jaunari, zeñiek indarra eman baidarot, zeren fidel iduki izan bainau bere zerbitzari egitean, **13** ni lehen blasfemari izan naizena eta haren persekutazaille eta injuriatzaile; bainan miserikordia ardietsi dut Jainkoa ganik, zeren jakin gabeen egin izan baidut hori, sinhesterik ez izanez. **14** Gaiztiz ethorri izan da ordean gure Jaunaren grazia fedeariekien eta Jesukristo baithan den karitateare-





kien. **15** Egia gerthua da eta bozkario handirekien errezibitzekoa Jesukristo ethorri izan dela mundu huntarat bekhatoreen salbatzerat, zeñietarik lehen bainaiz ni. **16** Ordean miserikordia egin izan zait, ene baithan lehenik erakutsi dezan gatik Jesukristok bere pairu guzia; hortarik exenplu har dezatentzat, bizitze eternala gatik haren baithan sinhetsiko dutenek. **17** Bada mendetako Erregeari, inmortalari, ezin ikus daitekenari, Jainko bakharrari, dakioela ohore eta gloria mendetako mendeetan, Amen.

**18** Nik hemen exlejitzen darotzudana, ene seme Timotheo, eta gomendatzen darotzudana da zutaz lehenago egin izan diren profezien arauera guduka zaitezten, soldadu on bat bezala hei zarraitzela, **19** konserbatzen duzularik fedea eta konszientzia ona, zeñiari ukho eginaz zenbeit tek galdu izan baidute fedea. **20** Nonbre hortako dire Himeneo eta Alexandre, zeñiak libratu izan baidiotzat Satani, ikhas dezaten gatik ez blasfematzen.

## II. KAP.

**1** Errekeritzen zaitut bada guzien gaiñetik, egin daitezen errekerimenduak, othoitzak, galdeak eta esker emateak gizon guzientzat, **2** erregeentzat eta dignitateetan altxatuak direnentzat, bizitze bakezko bat eta soseguzko bat eraman dezagun amore gatik, jainkotiartasun eta garbitasun suerte guzietan. **3** Hori ezen gauza on bat da eta Jainko gure Salbatzaillari agradatzen zaioena, **4** zeñiek nahi baidu gizon guziak salba ditezten eta ethor ditezten egiaren ezagutzerat. **5** Jainko bat da ezen bakharra, halaber ararteko bat bakharra, Jainkoaren eta gizonen artekoa, Jesukristo gizona; **6** zeñiek eman izan baidu bere burua guzien erresketamenduzentzat, lekhukotasuna errendaturik exlejitua izatu zen denboran. **7** Hortakotz izatu naiz ifinia —egia erraten dut eta ez gezurra— predikatzaillak eta apostolu eta jentillen irakhatszaillak fedean eta egian.

**8** Nahi dut bada gizonen othoitz egin dezaten lekhu guzietan, altxatu dituztelarik eskuak xahurik, hasarratzerik eta debadiorik gabe.

**9** Halaber bai emasteek ere jauntzkura honest batean, ahalkeriarekien eta modestiarekien aphaintzen direla eta ez ille frisatuekien, ez urrezko ez perlazko edergailluekien, ez soiñeko garastiosekien, **10** baiñan obra onez bere jainkotiartasuna erakutsi nahi duten emastekiei dagoten bezala. **11** Emastekiak beudez ixillik ikhasten sumizione oso batekien. **12** Irakastea ordean emastei ez daroet baliatzen, ez bere senharren gaiñean

nausitasunik hartzea, bainan egon daitezela ixillik. **13** Adam ezen lehenik izan zen moldatua, gero ondoan Eba. **14** Eta ez zen Adam enganatua izan zena, baiñan emastea erori zen desobedientzian enganatua izanik. **15** Hala ere ordean salbatuko da, haurrak egiten dituela, baldin irauten badu fedean, karitatean eta bizitze saindu eta modest batean.

## III. KAP.

**1** Egia gerthu bat da, baldin nihork desiratzen badu aphezpikutasuna, lan on bat eta saindu bat desiratzen duela. **2** Mengoa da bada aphezpikua izan dadin erratekorik gabekoa, behin baizen ezkondua izan ez dena, sobrea, prudenta, modesta, garbia, arrotzen errezibitzaillak, irakasteko gai dena, **3** ez arnoari emana, ez kolpe emaillea, baiñan maltsoa eta moderatua, ez hauzillaria, ez intresatua, **4** bainan bere familia ungi dakharkena, bere umeak obedientzian eta garbitasun oso batean atxikitzen dituenak. **5** Baldiñetariak ezen edozeñiek ez badaki bere maiñadaren gobernatzen, nola emanen dio hots Jainkoaren Elizari? **6** Ez du izan behar giristino apendizak, orgilleriaz hauntzeraturik **7** eror ez dadintzat deabruaren kondena bererat. Mengoa da halaber kanpokoak ere lekhukotasun bat errenda dezaten hartaz, desohoretan eror ez dadintzat eta deabruaren artetan.

**8** Diakreak ere izan behar dire orobat honestak eta garbiak, ez bi hitzetakoak, ez arno hainitz edaterat emanak, ez irabazte lizunei darraiztenak, **9** fedearen misterioa konszientzia garbi batekien konserbatzen dutenak. **10** Eta hauk ere lehenago frogatu behar dire; gero zerbitzu sakratuan errezibitu, baldin krimarik batere gabeak badire. **11** Emastekiak orobat izan beitez honestak eta garbiak, ez gaixki erraillak, bainan sobreak eta gauza guzietan leialak. **12** Diakreak izan beitez emaste bat baizen izan ez dutenak; bere haurrak eta bere familia ungi gobernatzen dituztenak. **13** Ezen ungi zerbitzatu duketenek ardietsiko dute herrunka hobeago bat eta fidantzia handi bat Jesukristoren fedean.

**14** Hauk eskribatzen darozkitut, esperantza dudalarik lauster zeure ganako naizela; **15** baldin ordean berauntzen badut ere, dakizun gatik nola behar duzun gobernatu Jainkoaren etxean, zeina baida Jainko biziaren Eliza, egiaren harroña eta habea. **16** Eta gerthuki handia ere da amudiozko misterio hura, haragian agertu dena, Izpirituz justifikatua izan dena,



ingeruez ikusia izan dena, jentillei predikatua, munduan sinhetsia, glorian errezibitua izan dena.

#### IV. KAP.

**1** Izpirituak bada klarki erraten du: azkeneko denboretan aldaratuko direla batzu fedetik, jarraiko baitzaizte enganiozko izpiritu bati eta deabruzko dotrina batzuei, **2** hipokrisiaz gezur erraile batzuk eta konszientia gaixkoatua dutenek irakhatsiei; **3** zeinek debekatuko baidute ezkontzea eta jatea, fidelek eta egia ezagutzen dutenek esker onekien har detzatentzat Jainkoak kreatu izan dituen biandetarik. **4** Ezen Jainkoak kreatu izan duen guzia ona da, eta deusere ez da arbiatu behar esker onekien jan ahal daitzkenetarik. **5** Santifikatua baiditeke Jainkoaren hitzaz eta othoitzaz.

**6** Gauza hauk irakhasten diotzatutela anaiei, Jesukristoren zerbitzari on bat izanen zare, fedearen hitzez hazia baitzare eta ikhasi izan duzun dotrina onarenez. **7** Elhe ergeletan ordean eta atso kontuetan ez zaitezela trika, baiñan egin zaite jainkotiartasunean. **8** Ezen gorphutzeko hariketak probetxu gutitako dire; jainkotiartasuna ordean guzietako da probetxos, beretzat baiditu oraiko bizitzearen eta ethorkizunekoaren agintzak.

**9** Egia gerthu bat da bau, eta gogo bethez hartzea merezi duena, **10** ezen horri dagokala pairatzen ditugu nekheak eta madarizioneak, zeren esperantza baidugu Jainko bizia baithan, zein baida gizon guzien Salbatzaillea, beregainki fidelena. **11** Gauza hauk detzatzun exleji eta irakhatsi... **12** Begirautzu nihork mezpreza ez zaitzan zure gastetasuna gatik, baina izan zaite fidelen exenplua zure hitzetan, zure bizitzeko moldean, karitatean, fedean, garbitasunean. **13** Ni nathorken bizkitartean zakizko irakurtzeari, exortatzeari eta irakasteari. **14** Ez dezazula gutiets zure baitan den grazia, zeina emana izan baitzaitzu profezia baten arauera, aphezen batzararak eskuak pausatu izan darozkitzunean. **15** Medita zatzu gauza hauk, zaude hautan, zure aitziañamendua guziek ezagut dezatentzat. **16** Gogoa emozu zeure buruari eta bertzeei irakasteari; zakizkote horiei, ezen hori egiñez salbatuko duzu zeure burua eta zu entzuten zaituztenak ere.

#### V. KAP.

**1** Adin handitako gizon bati ez diozazula dorpheki eranzun; aitzitik har zazu othoitzez zure aita balitz bezala; gasteak trata zatzu zure anaiak

bezala; **2** emastei adinetakoak zure ama bezala; gasteak zure arreba bezala garbitasun guzizko batekien.

**3** Emaste alhargunak ohora zatzitzu, egiazko alhargun direnak. **4** Baldin emaste alhargun batek baditu haurrak edo illobasoak, ikhas bezate lehenik bere familia gobernatzen eta bere burasoei ordaiñaren bihurtzen, ezen hori da gauza bat Jainkoari agradatzen zaioena. **5** Bada egiazki alhargundua eta gabetua denak izan beza esperantza Jainkoa baithan, eta iraun beza gau eta egun othoitzetan eta orazionetan, **6** ezen atseginiñetan bizi dena bizi delarik billa da. **7** Hau ere exleji diozozute, erratekorik gabe ibill daitezen gatik.

**8** Baldinetariak bada edozeiñek bereez eta bereziki bere etxekoez artha ez badu, fedez ukhatu duke eta infidel bat baiño areago da. **9** Alhargunen herrunkan ibenia izateko hautatua izanen dena ez bedi izan hirur hogoi urthe baiño gutiagotakoa, ez senhar bat baiño gehiago izan dukena, **10** bere obra onek lekhukotasun ematen diotena, hea bere umeak ungi altxatu izan dituen, hea atze herritarrak ostatatu izan dituen, hea sainduei oiñak garbitu darozten, hea aflijituak lagundu dituen, hea obra on guziei jarreikia izan den. **11** Alhargun gasteak ordean ez detzatzula iben nonbre hortan, ezen guriki bizi ondoan Jesukristoren zerbitzuan, ezkondu nahi dute, **12** bere kondenazionea dutelarik, zeren ezeztatzen baidute lehen eman izan duten fedea. **13** Bertze alde oraiño alferkeriari jarririk, kostumatzen dire etxez etxe ibiltzen; eta ez xoilki dire alferrak, baina oraiño hitzuntziak eta kuriosak, behar ez diren gauzez mintzo direnak. **14** Nahia-go dut bada gaste direnak ezkon daitezen, haurrak egin detzaten, familia-ko ama izan daitezen, eta ez diozaten eman gure erreljionearen etsaiei okasionerik batere gure kontra erasteko; **15** ja ezen batzu itzulirik gibelat jarraiki zaizko Satanari. **16** Baldin edozein fidelek badu alhargunik bere hurkorik, eman biozate behar dutena eta ez dadin Eliza hetaz izan kargatua, duentzat egiazki alhargun direnen haztekoa.

**17** Ungi gobernatzen duten aphezak izan beitez dobleki ohoratuak, guziz predikatzen eta irakasten hari direnak. **18** Erraten du ezen Eskriturak: «Ez diozu estekatuko ahoa bihikatzen hari den idiari; eta merezi du langilleak bere saria». **19** Aphez baten kontra akusazionerik ez dezazula errezibi, bia edo hirur presunen lekhukotasunaren gaiñean baizen. **20** Bekhatu egin dutenak errepreni zatzu guzien aitziañean, bertzeak ere beldur izan daitezen gatik. **21** Errekeritzen zaitut Jainkoaren aitziañean, Jesukristoren aitziañean eta aingeru berezien aitziañean, arren gauza hauk begira



detzatzun aitzekiarik gabe, eta deusere egin gabe alde batetarat edo bertzerat makhurtuz. **22** Eskuak nihori ez diotzatzula lasterregi pausa eta ez zaitzela baltsa bertzeen bekhatuetan. Zeure burua idukazu garbi. **23** Ez dezazula ura edan hemendik harat; baiñan mahats arno guti batez usa zazu zure estomaka gatik eta zure eritasun husuak gatik. **24** Gizon batzuen bekhatuak bain ageriak badire, non aitzintzen baitzaizko jujeamenduari, bertzeenak berriz ez dire agertzen ondoan baizen. **25** Badire orobat obra onak ere mundu guziaz ezagutuak direnak; eta oraino ezagutuak ez direnak ere ezin daudezke gordeak.

## VI. KAP.

**1** Sehatasuneko ustariaren azpian diren sehi guziek jakin bezate obligatuak direla ohore thailu guziak errendatzerat bere nausiei, Jaunaren izena eta dotrina blasfematua izan ez dadin gatik. **2** Ordean nausitzat fidelak dituztenek ez betzate hek mezpreza, zeren anaiak diren; aitzitik are hobeki betzate zerbitza, zeren diren fidelak eta maitatzekoagoak, grazia berean parte dutenak baidire. Horra zer behar diozuten irakatsi eta zertarat behar dituzun exhortatu.

**3** Baldin nihork bertzela irakasten badu eta ez baditu besarkatzen Jesukristo gure Jaunaren erakuspen sailduak eta jainkotiartasunaren arauerako den dotrina, **4** superbio bat da, deusik ez dakiena, izpiritu flakotakoa, hitzezko kestioneen eta debadioen ondoan dabillana, zeinetarik heldu baidire inbidiak, ihardukitzeak, gaixki errateak, itzalgaizkunde gaixtoak, **5** gizon izpiritu gaizkoatutakoen eta egiaz gabetuak direnen thema gaixtoak, zeinek behatzen baidiote jainkotiartasunari aberatstasunen irabazteko bide bati bezala. **6** Irabazi handia da bada jainkotiartasuna, duenaz nihor kontent denean. **7** Deusere ezen ez dugu ekharri izan mundu huntarat, eta duda gabe da deusere halaber ezin hemendik eramanen dugula. **8** Hala, baldin bizitzekoa eta bestitzekoa badugu, aski badugu. **9** Ezen aberastu nahi dutenak erortzen ohi dire tentazionean eta deabruaren artean eta hainitz desirkunde arlote eta kaltekorretan, zeinek hondatzen baidituzte gizonak ondikozko eta galmenduzko hosin batean. **10** Gaitz guzien erroa da ezen ontasunen gutizia, zeinaz posedituak izanik zenbeit errebelatu izan baidire fedetik eta nahaspillatu hainitz doloreetan.

**11** Zuk ordean, o Jainkoaren gizona, gauza horiei ihes egiozute, eta jarraik zakizte justiziarri, jainkotiartasunari, fedeari, karitateari, pasientzia-

ri, emetasunari. **12** Izan zaite borthitz eta animos fedearen gudu sailduan; atzemazu bizitze eternala, zeinetarat baitzare deithua, eta zeinaren ariaz errendatu ere izan baiduzu lekhukotasun glorioso bat hainitzen aitzinean. **13** Gomendatzen darotzut Jainkoaren aitzinean, zeinek guziei bizia ematen baidaroe, eta Jesukristoren aitzinean, zeinek bain lekhukotasun exelenta errendatu izan baitzuen Pontio Pilatusen azpian, **14** arren begira detzatzun ordenu hauk tatxarik eta erreportxurik gabeko molde batez, Jesukristo gure Jaunaren ethor eguneraino, **15** zeina bere denboran erakutsiko baidu guziz dohatsu eta xoillik botheretsu denak, Erregeen Erregeak eta Jaunen Jaunak, **16** zein baida bakharra inmortalitatearen jabe dena, eta nihor ezin hurbill daiteken argi batean egoten dena, zeina gizon garabek ez baidu ikusi eta ezin ikus ere baidezake, zeinari baidagoka gloria eta bethiereko nausitasuna. Amen.

**17** Mundu huntako aberatsei exleji diozozute ez daitezen gogoz handiets eta ez dezaten iben bere esperantza deus gerthurik ez duten aberatstasunetan, baiñan bai Jainko bizia baithan, zeinek ematen baidarozkigu gauza guziak frankiaz gure beharretan baliatzeko; **18** egin dezaten ungi eta egin daitezen aberats obra onetan; eman dezaten gogotik eta liberalki dutenetik; **19** bil dezaten beretzat thresor funts onezko bat ethorkizunekotzat, bizitze eternala irabaz dezatentzat.

**20** O Thimotheo, begira zazu fidatu izan zaitzun depositua, ihes egin diozularik hitzezko berritasun profanoei, eta izen falsotako jakintza batetarik heldu diren kontrariatzei, **21** zeinez ostendade eginez zenbeit erori izan baidire fedetik. Grazia dela zurekien. Amen.



## J. PAULO APOST. BIGARREN GUTHUNA TIMOTHEORI

### I. KAP.

**1** Paulok Jainkoaren nahiz Jesukristoren Apostolu denak Jesukristo baithan egin izan den bizitzezko agintzaren arauera, **2** Timotheo bere haur maiteari: grazia, miseriakordia eta bakea dizula Jainko Aitak eta Jesukristo gure Jaunak. **3** Eskerrak errendatzen diotzat Jainkoari, zeïña zerbitzatzen baidut ene arbasoak danik konszientzia xahu batekien, zeren gau eta egun pausurik gabe orhoitzen bainaiz zutaz ene orazionetan. **4** Desira bainuke zu ikusteko bozkarioz bethe nadintzat, orhoitzen naizelarik zure nigarrez, **5** eta gogoan dudalarik zure baithan den fede garbi hura, zeïña lehenik izan baidu zure amaso Loidek eta zure ama Eunizek, eta zeïña segur bainaiz duzula zuk ere.

**6** Hargatik zaitut abisatzen bitz dezazun Jainkoaren grazia ene eskuen pausatez errebitu izan duzuna. **7** Ezen Jainkoak ez daroku eman izan beldurkandezko Izpiritu bat, aitzitik bai indarrezko, karitatezko eta kuhurtziazko Izpiritu bat.

**8** Ez zaitzelaz beraz izan ahalke gure Jaunari lekhukotasuna errendatzeaz, ez eta ni haren gatik gatheetan ikusteaz; aitzitik paira zazu enekien Ebanjelioa gatik Jainkoak ematen darotzun indarraren arauera; **9** zeïnek salbatu izan baigaitu eta dohatu izan baigaitu bere deia sainduaz ez gure obren ariaz, baiñan bai bere gogoaren araez eta mende guziez aitzinetik Jesukristo baithan eman izan zaikun graziaren araez, **10** zeina ordean orai baitzaiku agertu Jesukristo gure Salbatzailearen ethortzeaz, zeïnek alabainan baidu desegin heriotzea eta erakutsi Ebanjelioaz bizitzea eta inmortalitatea. **11** Hargatik izan naiz ifinia jentillen predikari, apostolu eta nausi. **12** Eta hori da ere kausa pairatzen baiditut pairatzen ditudanak, baiñan ez naiz hortaz ahalke. Badakusat ezen nori natzaioen fidatu, eta segur naiz aski botheretsu dela ene deposituaren begiratzeko egun hartaraiño. **13** Moldetzat idukatzitu ene ganik aditu izan ditutzun erakuspen sainduak, Jesukristoren arauerako fedearen eta karitatearen gaiñean. **14** Begira zazu depositu preziatu hori gure baithan egoitza egiten duen Izpiritu sainduaz.

**15** Badakizu hastandu direla eneganik Asian diren guziak: Fijelle eta Hermojenes nonbre hortako ditezke. **16** Jaunak dagiola miseriakordia Onesiforen famillari, zeren haiñitz aldiz deskantsatu izan bainau eta ez baida ahalke izatu ene gatheetz. **17** Aitzitik Romarat ethorrik artha handirekien bilhatu izan nau eta aurkhitu izan nau. **18** Jaunak aurkhiaz diozala miseriakordia Jaunaren beraren aitzinean egun hartan. Eta zenbat endrezu egin izan darotan Efesan, nihork baino hobeki dakizu.

### II. KAP.

**1** Zu bada, ene haurra, borthitz zaitte Jesukristo baithan den graziaz **2** eta zer ere aditu izan baidituzte ene ganik hainitz lekhukoan aitzinean, eta hek gomenda diotzotzute zenbeit gizon fidelei, hek bertzei irakasteko gai izanen direnei. **3** Jasan zatzituzte nekhea-izerdiak Jesukristoren soldadu on batez bezala. **4** Nihor Jainkoaren milizian arrolatu geroztik, ez da enbarrasatzen munduko egitekoetan, hautetsi duenaren gogarako izateagatik. **5** Halaber borrokan abiatzen denak ez du khoroa eramaten, non ez den behar bezala gudukatu. **6** Lana egin duen laborariak behar du lehenik fruituez probetxatu. **7** Konpreni zazu ungi nik erraten dudana; ezen Jaunak emanen darotzu gauza guzietakotz entellegamendu.

**8** Orhoit zaitte Jesukristo Jauna Dabiden hazitikakoa biztu izan dela hilletarik, nik predikatzen dudana Ebanjelioaren arauera, zeïña gatik pairatzen hari bainaiz gatheetzatu izateraiñoan gaixtagin bat banintz bezala; ordean Jainkoaren hitza ez da estekatua. **10** Hargatik pairatzen dituzte guziak hautatuen amorez gatik, hek ere ardiets dezatentzat Jesukristo baithan den salbamendua zeruko gloriarekien. **11** Gauza da gerthua, baldin Jesukristorekien hill izan bagare, halaber biziko ere garela harekien. **12** Baldin harekien pairatzen badugu, erregiñatuko ere dugu harekien. Baldin hartaz ukhatzen badugu, hark ere ukhatuko du gutaz. **13** Gu desleial izana gatik, hargatik hura fidel eta leial dagoke, ezin ukha dezake ezen bere buruaz.

**14** Emotzute abisu hauk, lekhuko harturik Jainkoa. Begirautzu hitzez ihardukitzetik, ezen horrek deuseretako ez du balio, entzuten hari direnen izpirituak itzultzeko baizen. **15** Lehia zaitte izaterat Jainkoaren gogarako zerbitzari bat, ahalkierarik ez dukezuna eta egiaren hitza ungi darabilkezuna. **16** Solhas profano eta ergeletarik begira zaitte, hagitz dute ezen ekhartzen gaixtaginkeriarat **17** eta halako jendeen hitza xankre bat bezala baratxe-baratxe irabaziaz doha. Nonbre hartako ditezke Himeneo eta



Filete, **18** zein aldaratu izan baidire egiatik darasatelarik ja erresurrekzio-nea egin dela, eta itzuli izan baidute zenbeiten fedea. **19** Ordean Jainkoaren zimendua tieso dago, zigillutzat duelarik hitz hau: «Ezagutzen ditu Jaunak zein diren harenak». Eta bertze hau: «Aldara bedi gaixtakeriatik Jaunaren izena deithoratzten duen guzia». **20** Etxe handi batean alabaiñan badire ez xoilki urrezko eta zilharrezko baxerak, baiñan oraiño zurezkoak eta lurrezkoak ere; eta batzu ditezke enplegu ohorezkoetako eta bertzeak berriz zerbitzu likhitsetakotzat. **21** Nor ere bada xahu egonen baida hautarik, izanen da baxera ohorezko bat, santifikatua eta Jaunaren zerbitzuko propi dena, obra on thailu guzietakotz aphaindua.

**22** Gastetasuneko gutiziei ihes egitzute, eta jarraik zakizko justutasunari, fedeari, karitateari eta bakeari, bihotz garbiz Jauna deithoratzten dutenekien batean. **23** Kestione erhoak eta deusetako on ez direnak irazitku, baidakizu debadioak dakhazketela. **24** Jaunaren zerbitzariak ez du izan behar debadorik; aitzitik behar du izan manso guzien alderat, irakatsaille eta pairakor, **25** emeki erreprenitzen dituelarik egiani amor egiten ez diotenak, agian nozbeit Jainkoak urrikimenduzko Izpiritua emanen diotelakoan, egia ezagut dezatentzat, **26** eta desamarra ditezentzat deabruaren arteatarik, zeiniek gathibu baidaduzka bere nahirat.

### III. KAP.

**1** Hau bada jakizu, azkeneko egunetan ethorriko direla denbora perillor batzu; **2** izanen dire ezen gizon batzu bere buruen maitatzailleak, aberats izan nahiak, gora dakharketenak, superbioak, gaixki errailleak, burasoen desobedientak, ingratak, gaixtagiñak, **3** nihor maite ez dutenaK; bakearen etsaiak, kalomniatzaillak, lohikeriari emanak, bihurriak, mugida onik batere gabekoak, **4** traidoreak, temerarioak, orgilleriaz hantuak, Jainkoa baino bere atsegiña maiteago dutenak, **5** jainkotiartasunaren itxurapen bat bada dutenak, ordean haren egiazko Izpirituari ukho egiten diotenak.

Halakoei ihes egiozute. **6** Badire ezen hetarik etxe barrenetan sartzen direnak, zeiniek bere ondotik gathibu bezala baidarabiltzate emakume batzu bekhatuz kargatuak eta gutizia mota hainitzei darraiztenak, **7** zeiniek bethi hari baidire ikasten eta behinere ez baidire heltzen egiazen ezagutzerat. **8** Hala nola bada lanesek eta Manbresen kontra egin baitzioten Moiseri, hauk ere kontra egiten ohi diote egiani; gizon batzu dire izpiritua gaiz-

koatua dutenak, fedea sentimendu erreprobatuak dituztenak. **9** Baiñan hekien balentria ez da urrun hedatuko, ezen hekien erhokeria ezagutua izanen da mundu guziaz, bertze bi hekiena ezagutua izan zen bezala.

**10** Zuk ordean badakizu zerikakoa den ene doktrina, ene gobernu, ene xedea, ene sinhestea, ene iraunkortasuna, ene karitatea, ene pasientzia; **11** nolakoak izan diren ene persekuzioak eta sofrikariak, hala nola Antio-kian, Ikonian eta Listren bathu izan zaizkidanak; zein persekuzio handiak jasan izan ditudan eta nola guzietarik athera izan nauen Jaunak. **12** Eta sainduki Jesukristo baithan bizi nahi duten guziek persekuzioa pairatuko dute. **13** Gizon gaixtoak aitzitik eta enganariak gaixkian aitzinatuz goanen dire, berak errebelu dabilzala eta bertzeak errebelatzen dituztela.

**14** Zu ordean zaude tieso ikhasi izan dituzun gauzetan eta fidatu izan zaizkitzunenat, baidakizu noren ganik dituzun ikhasi, **15** Eta nola haurdanik izan zaren ikhasia letra sainduetan, zeiniek instrui baitzetzakete salbamendukotzat Jesukristo baithan den sinhesteaz. **16** Eskritura guzia baida Jainkoaz inspiratua, probetxos da irakasteko, erantzuteko, zentzazteko, justiziarat erakhartzeko, **17** perfet izan dadintzat Jainkoaren gizona, obra on guzietako gai eta prest delarik.

### IV. KAP.

**1** Errekeritzen zaitut Jainkoaren aitzinean eta Jesukristoren aitzinean, zeiniek jujeatuko baiditu biziak eta hillak; errekeritzen zaitut haren ethorguneaz eta erregintzaz: **2** predika zazu hitza, hertxa zazu ordu onean eta ordu gaixtoan, erantzun diozozute, errekeri zazu, mehatxa zazu, bethiere pairatzen ditutzularik eta irakasten diozutelarik. **3** Ethorriko da ezen denbora, zeinetan gizonen ezin jasanen baidute dotrina sana; aitzitik bilduko baidituzte multzuka bere desirakundeen arauerako nausi batzu, beharriak kilikatuko daroztenak. **4** Eta egia aditu nahi gabez itzuliko dire elhe berrietar.

**5** Baiñan zu zaude erne, jasan zatitzu hel dakizketzun nekhe guziak, egizu Ebanjelioaren predikatzaillak baten lana, bethi zatitzu zure endrezuaren eginbideak, izan zaite sobre; **6** ezen ni sakrifikatua izateko menea naiz eta ene heriotzearen denbora hurbil da. **7** Gudu onez gudukatu naiz, ene karrera akhabo dut, fedea begiratu izan dut. **8** Gaiñerakoan ene begira dagot justiziazko khoroa, zeina emanen baidarot egun hartan juje jus-



tuak; eta ez xoilki niri, baiñan halaber haren ethor eguna desiratzten dutenei ere.

Lauster egizu ene ganat ethortzeko, **9** ezen Demasek utzi nau mundu hau maite izanez eta goan da Thesalonikarat; **10** Kreszens Galziarat, Tite Dalmatiarat. **11** Lukas da enekien bakharrik. Mark har zazu eta erakhar zurekien, ezen laguntza on bateko duket Ebanjelioko endrezuan. **12** Tixiko berriz igorria dut Efeserat. **13** Troaden Karpo baithan utzia dudan kapa ekhar diezadazu zeurekien ethortzen zarenean, eta bai liburuak ere, guziz ordean paperak. **14** Alexandre kobre harotzak gaitx hainitz erakutsi izan darot; bihurtuko dioke Jaunak bere egiñen arauera. **15** Zu ere begira zaite haren ganik, hagitx ezen jarri da gure erranei kontra egiterat.

**16** Neure burua defendatzeko mintzatu izan naizen lehen aldian nihor ez zait lagundu, eta guziek utzi izan naute. Iratxek ez dakiela hori. **17** Jaunak ordean lagundu izan nau eta borthiztu, akhaba dezadantzat Ebanjelioaren predikatzeta eta adi dezatentzat nazione guziek; eta libratua izan naiz lehoinaren ahotik. **18** Libratu izan nau Jaunak eginkari gaixto guzietarik; eta goardatuko ere nau zeruko bere erresumakotzat. Hari eman dakioela gloria mendetako mendetan. Amen.

**19** Saluta zatzitzu Priska eta Akila, eta Onesiforen familia. **20** Erasto Korinthon gelditu da; Trofime berriz eria utzi dut Mileten. **21** Khexa zaite negua baiño lehen ethortzerat. Salututzen zaituzte Eubulok, Pudentek, Linek, Klaudiak eta anaia guziek. **22** Jesukristo Jauna dela zure Izpirituariekien. Grazia dela zuekien. Amen.

## J. PAULO APOSTO. GUTHUNA TITERI

### I. KAP.

**1** Paulo Jainkoaren zerbitzari eta Jesukristoren Apostolu denak Jainkoaren bereziei fedea predikatzeko eta jainkotiartasunaren arauerako den egia hei ezagut aratzitzeko, **2** bizitze eternalaren esperantzetako, zeïña agindu izan baidu Jainkoak, gezurrik erran ez dezakenak, eta dohatu mende guziez aitzitietik, **3** erakutsi ere baidu denbora markatuan bere hitza, niri fidaturik haren predikatzeko kargua gure Salbatzaille Jainkoaren ordenaren arauera, **4** Tite haur maiteari, biek erkide dugun fedearen arauera: Grazia eta bakea dizutela Jainko Aitak eta Jesukristo gure Salbatzailleak.

**5** Arrozoin hunen gatik utzi izan zaitut Kretan, han erregelatzeko direnak erregela detzatzun gatik eta ifini detzatzun gatik aphezak hirietan, exlejitu izan darotzudan bezala: **6** Baldin nihor erratekorik gabea bada, behin baizen ezkondua izan ez dena, haurrak fidelak dituen, ez deboxkeriaz akusatuak eta ez desobedientak. **7** Behar du izan ezen aphezpiku bertze errankizunik gabekoa, Jainkoaren etxeko gobernari den bezala: ez arroganta, ez koleratsua, ez arnoari emana, ez kolpekaria, ez irabazi likhits bati jarreikia; **8** aitzitik bai arrotzen ungi errezi bitzaillea, amultsua, sobrea, justua, saindua, moderatua; **9** zinki jarria idukitzerat fedearen egiak, berari irakatsi izan zaizkoen leialtasun berean, gai izan dadintzat exortatzeko dotrina garbiaren arauera, eta bentzutzeko hari kontra egiten diotenak.

**10** Badire ezen hainitz, guziz zirkonzisioneko direnen artekoetarik, obeditu nahi ez dutenak, elhe berri erraille eta mundu enganazaille direnak. **11** Ixillarazi behar dire jende bek, zeïnak familia osoak iraultzen baidituzte, behar ez direnak irakasten dituztela irabazi lizun baten guraz. **12** Erran ohi ere izan du horien herritar batek, horien profeta bezala denak: «Kretatarrak bethi gezurtiak, bestia gaixtoak eta sabel uzkurak».

**13** Lekhukotasun hori egia diteke. Arrozoin horren gatik eranzun diozozute borthizki, bere fedea garbi atxek dezatentzat, **14** trikatu gabe



juduen elhaberrietan eta egari gibelondo egiten dioten gizon batzuen exlejikarrietan. **15** Xahuentzat guziak dire xahu; lohi direnentzat ordean eta infidelentzat deusere ez da xahu; aitzitik likhistuak ditezke hekien izpiritu eta bai hekien konszientzia. **16** Ostendade egiten dute ezagutzen dutela Jainkoa, obrez ordean ukhatzen dute; higin batzu baidire, sinhets gogor batzu, eta obra on garabetako gai ez diren batzu.

## II. KAP.

**1** Zuk ordean irakats zatzitzu dotrina sainduari dagozkon gauzak. **2** Irakats diozazute gizon zaharrei nola behar duten izan sobre, honest, prudent eta egon garbi fedean, karitatean eta pasientzian. **3** Emaste zaharrei orobat, nola behar duten erakutsi bere presuna guzian modestia saindu bat; ez izan gaixki erraille, ez arnoari emanak; aitzitik nola behar dituzten eman erakuspen onak, **4** irakasten diotelarik emaste gastei xuhur izaten, bere senharrak eta bere haurrak maitatzen. **5** Prudent izaten, garbi, sobre, bere etxeaz arduratsu, prestu, bere senharren obedient, gaixki erran ez dadintzat Jainkoaren hitzaz. **6** Gasteak halaber exorta zatzitzu izan daitezzen sobre. **7** Gauza guzietan erakuts zazu zeure burua obra onetako exemplutzat, dotrinan, garbitasunean, zuhurtzian. **8** Zure hitzak izan beitez sainduak eta ezin erreprenituzkoak, gure kontra direnak ahalka daitezentzat ez izanez guretzat gaixki erratekorik batere. **9** Gomenda diozozute sehiei izan daitezzen bere nausiei sumetituak, gauza guzietan hekien gogara egiterat jarriak eta ez kontrariatzerat; **10** ez dezaten hekienetarik deusere aldara, aitzitik erakuts diozoten aurkhintza guzietan leialtasun perfet bat, Jainko gure Salbatzaillearen dotrinari guzietan ohore egin diozatenzat.

**11** Agertu izan zaie ezen Jainko gure Salbatzaillearen grazia gizon guziei **12** eta irakatsi izan daroku gaixakeriari eta munduko gutiziei ukho eginik, sobretasunekien, justutasunekien eta jainkotiartasunekien bizi behar dugula mundu huntan, **13** zorionezko esperantzaren eta Jesukristo Jainko handiaren eta gure salbatzaillearen ethor egun gloriosoaren begira gaudezelarik, **14** zeiniek eman izan baidu bere burua guretzat, gu erresketatzea gatik gaixakeria guzietarik, eta beretzat egitea gatik populu garbi bat, bere gogarakoa eta obra onei jarreikia. **15** Predika zatzitzu hauk, exorta zazu eta eranzun zazu autoritate guzizko batekien, ez duen nihork biderik zure mezipretatzeko.

## III. KAP.

**1** Abisa zatzitzu, izan daitezzen printzeen eta bothereen alderat sumetituak, obedi diozoten hekien manuei, izan daitezzen prest obra on guzietakotz, **2** ez dezaten erran gaixkirik nihortaz, ez daiten izan ihardukitzaille; aitzitik izan daitezzen modest, emetasun guzizko bat erakusten dutelarik gizon guzien alderat; **3** gu ere ezen lehenago sensu gabeko ginen, sinhets gogor, errebelatuak, pasione eta atsegin mota guzien gathibu, maleziaz eta inbidiaz betheak ginabiltzala, higingarri eta elkharren higitzaille.

**4** Ordean Jainko gure Salbatzaillearen ontasuna eta gizonen ganako amudioa agertu izan denean, **5** salbatu izan gaitu ez guk egin dituzkegun justiziazko obren gatik, baina bere urrikalmendua gatik, sortze berritako bathaioaz eta Izpiritu Sainduazko erreberritez, **6** zeina isuri izan baidu frankiarekien gure gainerat Jesukristo gure Salbatzailleaz, **7** haren graziez justifikatuak izanik, izan gaitezen bizitze eternalaren heredero, esperantza dugun arauera.

**8** Egia gerthu bat da eta hautaz nahi dut zinki mintza zaitezzen, obra onetako aitzindari izan daitezentzat Jainkoa baithan sinhesten dutenak. Hauk dire egjazki on diren gauzak eta gizonen probetxutako direnak. **9** Baina kestione erhoak, hidalgoak, ihardukitzeak eta legeazko debadioak iraitzatzitzu; banoak dire ezen eta deusetako on ez direnak. **10** Gizon heretiko bat behin eta bietan abisatu dukezun ondoan, utzazu, ihes egiozu, **11** gogoaturik halako dena iraulia dela eta bekhatuzko estatuan dagoena, bere konszientzia propialak kondenatzen duenaz geroz.

**12** Igorri darotzuketanean Artemas edo Tikike, khexa zaite eneganat ethortzerat Nikopoliserat, ezen han iragan gogo dut negua. **13** Zenas legeko dotora eta Apollo igoratzitzu aitzinerat eta duzun artha deusen eskasik ez duten. **14** Ikhas bezate halaber gure anaiek ere aitzindari izaten obra onetan, behar ordutako agor eta fruitu gabeko geldi ez daitezzen. **15** Salutatzen zaituzte enekien diren guziek; saluta zatzitzu fedezko batasunean gu maite gaituztenak. Jainkoaren grazia dela zuek guziekien. Amen.



## J. PAULO APOSTOL. GUTHUNA FILEMONI

### I. KAP.

**1** Paulo, Jesukristoren gatik preso denak, eta Timotheo haren anaiak, Filemon gure lagun maiteari, **2** Apia gure arreba maiteari, Arkipe gure soldadu kideari eta zure etxean den elizari: **3** Grazia eta bakea dizuela Jainko gure Aitak eta Jesukristo gure Jaunak.

**4** Eskerrak ematen diotzat ene Jainkoari, bethi naizelarik orhoitzen zutaz ene orazionetan, **5** aditzen baidut nolako fedea duzun Jesus Jauna baithan eta nolako karitatea saindu guzien alderat, **6** zure fedea egiten dituen emaitza handiak ezagutuak izan daitezentzat mundu guziaz, jakiten dituztenean zuen etxean Jesukristoren amorea gatik egiten diren obra on guziak. **7** Bozkario eta konsolamendu handia izan dut ezen zuen karitatearen ariaz, ene anaia, zeren zure laguntzaz izan baidute sainduak Izpiritua deskansuan.

**8** Horri dagokala, burupe oso bat dukedalarik Jesukristo baithan eginbide duzunaren zuri manatzeko, **9** karitatea gatik hala ere nahiago darotzut othoitz egin, naizen bezalakorik ere, Paulo ja zaharra, eta are orai Jesukristo gatik gathez estekatua. **10** Othoizten zaitut bada ene seme Onesimo gatheetan jenderatu izan dudarentzat, **11** zeinek bertze orduz deus ez baitzuen balio kuretzat, zeinek ordean orai hainitz balio baidu enetzat eta bai zuretzat ere. **12** Igortzen darotzut bada eta zuk othoi errezibi zazu ene bihotzekoa den bezala. **13** Ene oldez neurekien geldituko nuen, kure orde zerbitza netzantzat Ebanjelioa gatik dakharzkedan gatheetan.

**14** Zure konsentimendua gabe ordean deusere ez dut nahi egin izatu, eginen duzun bortxaz bezala egiña ez dadintzat, baiñan bai borondatezki. **15** Agian ezen huntakotz aldaratu diteke zure ganik aphur batentzat, gero bethierekotz errezibi ziñezantzat, **16** ez gaur gehiago esklabo bat bezala, baiñan esklabo baten orde anaia maite bat bezala, niri behintzat hala zaitana eta zuri areago hala izan behar zaitzuna, bai munduaren eta bai Jaunaren arauera. **17** Baldinetariak bada zure laguntzat banadukazu,

errezibi zazu neroni bezala. **18** Eta baldin bidegaberik egin badarotzu edo zerbeit zor baderautzu, konda zazu nik darotzudala zor. **19** Nik Paulok darotzut hau eskribatzen neure eskuz; nik bihurtuko darotzut, erran ez diezazudan zeure burua ere zor bide darotazula. **20** Othoi, ene anaia, dudan atsegin hori zure ganik Jaunaren izenean, eman diezadazu Izpiritua deskansuan.

**21** Hau eskribatzen darotzut fida izanez zure obedientziaz, baidakit erraten dudan baino gehiago ere eginen duzula. **22** Denbora berean prepara diezadazu, othoi, gela bat, ezen esperantza dut zuen orazioneen bidez bihurtuko natzaitzuela.

**23** Salutatzen zaituzte Epafras Jesukristo gatik enekien preso denak, **24** Mark, Aristarke, Demas eta Luk ene lagunek. **25** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zure izpituarekien. Amen.





## J. PAULO APOST. GUTHUNA HEBRAEARREI

### I. KAP.

**1** Hainitz orduz eta hainitz maneretan lehenago Jainkoa mintzatu baitzaie gure aitei profetez, **2** azkeneko egun hautan mintzatu zaiku guri bere Semeaz, zeina ifini izan baidu gauza guzien heredero eta zeinaz egin ere izan baidu mundua, **3** zeina haren gloriaren distadura eta haren sustantziaren imajina den bezala, gauza guziak bere hitzaren botherez dakharzkena, urratu dituen ondoan bekhatuak, jarri baida zeruen gorenean majestatearen eskuiñetik, **4** hanbatenez aingeruez gorago altxatua, zenbatenez hark errezibitu izan duen izena baida hekiena baiño exelentagoa.

**5** Aingeruetarik ezen zeini erran izan dioke Jainkoak egundaino: «Ene Semea zare zu, nik egun enjendratua zare zu?». Eta oraino: «Ni izanen naiz haren aita, eta hura izanen da ene Semea?». **6** Eta berriz ere sarrazten duenean munduan bere Seme lehen jaioa, erraten du: «Hea, adora bezate hori Jainkoaren aingeru guziek». **7** Aingeruez denaz bezanbatean erraten da: «Jainkoak izpirituez egiten ditu bere aingeruak eta su lamez bere ministroak». **8** Semeari ordean erraten dio: «Kure thronua, o Jaungoikoa, sekula sekulakotz da: zuzentasunezko eszeptro bat da, zure erregetasuneko eszeptroa. **9** Onetsi izan duzu justutasuna eta gaitxetsi gaitxakeria; hargatik gantzutu izan zaitu, o Jainkoa, zure Jainkoak bozkariozko olio batez, zure parzuner izanen diren guzien gainetik». **10** Eta oraino: «Zuk, Jauna, haste hastetik kreatu izan duzu lurra eta zure eskuen obrak dire zeruak. **11** Hek deseginen ditezke, zuk ordean iraunen duzu; hek guziak zahartuko dire bestimenda bat bezala, **12** ganbiatuko ditutzu aldagarri bat bezala eta ganbiatuko dire; zu ordean behiere berbera izanen zare eta zure urtheak ez dire akhabatuko». **13** Zeini othe aingeruetarik erran dioke egundaino: «Jar zaite ene eskuiñeko aldean, ezar detzakedan artean zure etsaiak zure oiñen azpian?». **14** Ez dire, guziak zerbitzatzeko eginak diren Izpiritu batzu, ongundetakotz igorriak salbamenduaren heredero izan behar dutenen onetan?

### II. KAP.

**1** Hargatik bada hobeki behar diotegu gogoia eman aditu izan ditugun gauzei, itzurtzerat utz ez detzaguntzat. **2** Baldinetariak ezen aingeruez erran izan den hitzak hanbat indar izan badu, eta haren kontra goate guziek eta hari egin zaizkon desobedientzia guziek saritzat izan badute behartzen gastigua, **3** nola gu itzuriko gaizko, baldin konturik ez badagigu bain lege salbagarri batez, zeina lehenik Jaunaz beraz irakatsia izanik, konfirmatua izan baitzaiku entzun izan dutenez, **4** Jainkoak berak laguntzen duelarik hekien lekhukotasuna mirakuilluez, prodijioez, bere bothearean eginkari diferentez eta Izpiritu Sainduaren dohainez, bere nahiaren arauera partitu dituenez?

**5** Ez du ezen aingeruen azpiko egin Jainkoak ethorkizuneko mundua, zeinetaz mintzo baigare. **6** Erran izan du bada zenbeit tokitan norbeitek: «Zer da gizona, hartaz orhoit baitzare, edo zer da gizonaren semea, hura bisititzen baiduzu? **7** Mendreago egin izan duzu aphur batekotzat aingeruak baiño; gloriaraz eta ohorez khoroatu duzu eta ifini izan duzu zure eskuetako obren gaineko. **8** «Gauza guziak eman diotzatu oinen azpirat». Guziak bada egin dituenaz geroz haren azpiko, deusere ez du utzi haren azpiko (ez denik) izan gaberik; oraino ordean ez dugu ikusten guziak haren azpiko direla. **9** Bainan ikusten dugu, aphur bateko aingeruez mendreago egin izan den Jesus hura, pairatu izan duen heriotzeagatik gloriaraz eta ohorez khoroatua; halako moldez, non Jainkoaren grazia bat izan baida gizon guzientzat hill zedin.

**10** Beharki ere zen Jainkoak, zeina gatik eta zeinaz baidire gauza guziak, eta zeinek hainitz ume nahi baitzituen eraman gloriaraz, hekien salbamenduaren authora eta buruzagia sofrikariez zezan altxa ohorearen gargaiterat; **11** ezen santifikatzen duena eta santifikatzen direnak batetarik dire guziak; arrozoin horren gatik ez da ahalke hek anaiak deitzeaz, diotsalarik: **12** «Ezagutaraziko diotet zure izena ene anaiei; kantatuko ditut zure laudorioak batzarraren erdian». **13** Gero berriz: «Ni fida izanen naiz haren baitan». Bertze toki batean berriz: «Huna ni eta ene haurrak, Jainkoak niri eman izan darozkidanak». **14** Nola bada haiña hek haragizko eta odolezko natura batetakoak baidire, berak ere orobat natura hura bera hartu izan du, heriotzeaz desegitea gatik heriotzearen nausitasuna zuena, erran nahi da deabrua, **15** eta libertatean ibentzea gatik herioaren beldurra bere bizi guzian gathibutasunean zaduzkanak. **16** Naski ezen ez ditu hartu izan aingeruak, bainan Abrahamen odola hartu izan du. **17** Eta horri



dagokala, beharrik izan da gauza guzietan bere anaien iduriko, izan zedin-tzat hekien alderat urrikalmendutsu eta Jainkoaren alderako Pontifo fidel bat, populuaren bekhatuen barkhamendua ardiestekotzat, **18** ezen pairatu izan baidu berak eta tentatua izan baida; gai da halaber tentatuak direnak ere laguntzeko.

### III. KAP.

**1** Bada, ene anaia sainduak, zeruko deian parte duzenak, konsidera zazue gure erreljioneko Apostolua eta Pontifoa Jesus, **2** kargu hortan ifini duenarentzat fidel dena, hala nola Moises ere leial izan baitzen haren etxe guzian; **3** hanbatenaz ezen gloria handiago baten merezient idukia izan da Moises baiño, zenbatenaz ohore handiago bat baidu merezi etxeak berak baiño etxea egin duenak. **4** Ez da ezen etxerik norbeitez egiña izan ez denik; guziak kreatu izan dituen ordean Jainkoa da. **5** Eta Moises gert-huki fidel izan da Jainkoaren etxe guzian zerbitzari bezala, errateko ziren guziez lekhukotasuna errendatzeko. **6** Jesukristo ordean Seme bezala da bere etxean, eta gu gare haren etxe hura, baldin fidantzia fermu bat eta igurikitzen dugun gloriaren esperantza zinezko bat idukitzen badugu azkeneraiño.

**7** Hargatik Izpiritu Sainduak erraten duen bezala: «Egun baldin haren boza aditzen baduzue, **8** ez detzatzuela gogor zuen bihotzak, tarritatu ohi ninduten bezala, desertuan tentatu ninduten egunean, **9** non tentatu izan baininduten zuen aitek, frogatu baininduten eta ikusi baitzituzten ene eginkariak **10** berrogoi urthez; zeri dagokala gaitxeriztu baidut nazione hori eta erran ere izan baidut: Bethi dabilta hauk bihotzez errebelatuak, eta ez dituzte ezagutzen ene bideak. **11** Hala juramentu egin dut ene koleran: sartzen badire bada ene errepausuan».

**12** Begirautzue beraz, ene anaiak, zuetarik zenbeiten baitan gertha ez dadin bihotz gaixkoatu eta sinheste gabeko bat, Jainko bizia ganik separa dezakena. **13** Exorta zazue elkhar egun oroz diraueiño Egungo Eguna daritzan denborak, gogor ez dadintzat zuetarik nihor, bekhatuak enganaturik. **14** Ezen Jesukristoren parzuner egin izan gare, baldin behintzat gure baithan ibeni izan duen izate berriaren hastapenari zinki atxekitzen badiogu azken fineraño, **15** erraten deiño: «Egun baldin haren boza aditzen baduzue, ez detzatzuela gogor zuen bihotzak, hala tarritatu ohi zuten orduan bezala». **16** Zenbaitek ezen aditzen zutelarik tarritatu izan zuten

Jainkoa bere kontrastez, ez ordean Ejiptotik Moisek ilkhi arazi zituen guziek. **17** Zein othe dire bada Jainkoak nekhez jasan ohi zituenak berrogoi urthez haiñak baizen, zeñek bekhatu egin baitzuten, zeñien gorphutzak etzanak gelditu baitziren desertuan? **18** Zeinei berriz egin zioten juramentu ez zirela sarthuko haren errepausuan, sinhets gogor izan zirenei baizen? **19** Eta ikusten ere dugu ezin sarthu izan zirela bere sinhets gogortasuna zela kausa.

### IV. KAP.

**1** Garen beraz beldur, Jainkoaren errepausuan sartzeko egin zaikun promesa utzirik, gertha ez dadin zuetarik zenbeit han sarthuko ez denik. **2** Ezen guri ere erran izan zaiku hei bezala; ordean aditu zuten hitza ez zaie baliatu, ez baitzen fedez baltsatua aditu zutenen baithan. **3** Sarthuko gare ezen errepausu hartan sinhetsi izan dugunak, erran duenaren araura: «Hala nola juramentu egin baidut ene koleran: sartzen badire bada ene errepausuan»; eta behintzat mintzo da Jainkoa munduaren krazioneko obrak akhabatu ondoko errepausuz. **4** Erraten du ezen Eskriturak nonbeit, zazpi garren egunaz mintzo dela: «Eta pausatu zen Jainkoa zazpi garren egunean bere obra guziak akhabaturik». **5** Eta hemen berriz dio: «Sartzen badire bada ene errepausuan».

**6** Beraz mengoa denaz geroz zenbeit sar daitezen hartan, eta hainak, zeinei lehenbizikorik adiarazi baitzitzaien, sarthu ez direnaz geroz bere sinhets gogortasuna gatik, **7** berriz ere seiñalatzen du egun gerthu bat, zein baida Gaur hori, Dabiden baithan erraten duelarik hanbat denboraren buruan, ja erraten duen bezala: «Gaur baldin haren boza aditzen baduzue, ez detzatzuela gogor zuen bihotzak». **8** Ezen baldiñetariak Josuek ifini balitu errepausu hartan, ez bide zen mintzatu Eskritura gero ondoan bertze egun batez. **9** Beraz sabatogo hura eta errepausu hura Jainkoaren populuarentzat gelditzen da erresalbatua, **10** ezen Jainkoaren errepausuan sarthu ditekera pausatzen da bera ere, bere lanetarik gelditurik, Jainkoa pausatu izan den bezala bereak akhabaturik. **11** Lehia gaitzen beraz sartzerat errepausu hartan, beldurrez ezen nihor eror ez dadin sinhets gogor hekiena bezalako desobedientzia batean.

**12** Bizia da ezen Jainkoaren hitza eta eragillea, eta den ezpata bi ahotakorik baiño zilhakorragoa; heltzen da arimaren eta izpirituaren plegutaraño, junturetaraiño eta fuinetaraiño, eta berezten ditu bihotzeko gogoe-



tak eta xedeak. **13** Ez da kreaturarik hari gorde dakiokenik, aitzitik gauza guziak dire has-hasa eta ageri haiñaren begien aitzinean, zeinez mintzo baigare.

**14** Dugunaz geroz bada aphez handitzat Jesus Jainkoaren Semea, zeruen gorenerat igan dena, gatxeizkon zinki hartu dugun sinhesteari. **15** Ezen guk dugun aphez handia ez da gure flakitatez urrikalmendu ezin dukena, aitzitik bai tentazione thailu guziak guk bezala frogatu izan ditue-na, bekhatuaz landan. **16** Goazen beraz fidantziarekien graziaren thronu-rat, miserikordia ardiets dezaguntzat eta haren graziaren laguntza ediren dezaguntzat gure behar ordutako.

### V. KAP.

**1** Ezen Pontifo den guzia, gizonetarik hartzen baida, gizonen gatik da ifinia Jainkoari behatzen zaizkon gauzetako; emaitzak eta sakrifizioak ofrenda detzantzat bekhatuentzat **2** eta izan ahal detzan gatik urrikari jakin gabez eta enganaturik bekhatu egiten dutenak, zeren bera ere ingur-  
ratua baida flakitatez. **3** Eta hargatik behar du populuaentzat bezala, beretzat ere halaber ofrendatu sakrifizioa bekhatuen urratzeko. **4** Ordean nihork ez du hartzen ohore hori beretzat, baiñan Jainkoaz behar du izan hartarat deithua Aaron bezala.

**5** Halaber Jesukristo ez da bere buruz sarthu pontife izateko glorian, baiñan haiñak eman dio, zeñiak erran izan baidio: «Ene Semea zare zu, nik egun jenderatu zaitut zu». **6** Bertze lekhu batean ere erraten dioen bezala: «Zu zare aphez eternala, Melkisedeken ordenaren arauerakoa». **7** Hala bere haragi hilkorrean bizi zen denboran, bere othoitzak eta erreke-  
rimenduak ofrendatu baitziotzan oihu handi batekien eta nigarrekien heriotzetik salba ahal zezakenari, entzuna izan zen bere Aitarentzat zuen errespetu humilla gatik. **8** Eta Jainkoaren Seme bazen ere, pairatu izan dituenetarik jakin du zer den obeditzea. **9** Eta akhabantzarat heldu izan denean, egin izan da hari obeditzen dioten guzientzat salbamendu eter-  
nalaren authora eta kausa, **10** deklaratu izan baida Jainkoaz Nzikisedeken ordenaren arauerako Pontifo.

**11** Hainitz gauza ginduke horren gainean errateko eta hitzez ezin explika ere ditezkenak, zeren herabe baitzarete aditzerat. **12** Ezen hanbat denboraren ondoan ja nausi izan behar zinduketelarik, oraiño berriz ira-  
katsi behar zaitzue zer diren Jainkoaren hitza explikatzen hasten direneko

lehenbiziko elementak, eta egin zarete presuna batzu bezala, zeinei esnea eman behar baitzaie eta ez jaki solidorik. **13** Bada oraiño esnean dagoena ez da gai justiziaren predikuen aditzeko, haurra baida oraiño. **14** Ordean perfetentzat da jaki solidoa, hainentzat zeñiek kostuma luze baten bidez izpiritua egiña baidute onaren eta gaitxaren berexterat.

### VI. KAP.

**1** Utzirik bada Jesukristo baithan sinhesten hasi berriei ematen ohi zaizten erakuspenak, gathozen gehien perfet direnatarat, berriz hasi gabe zimendutaz ezartzen obra hillez egin behar den penitentzia, Jainkoa bait-  
hango sinhestea, **2** bathaioen gainean irakasten ohi dena, eskuen pausa-  
tzea, hillen phiztea eta jujeamendu eternala. **3** Eta hori dugu ere egiñen, baldin behintzat zilhegitzen badu Jainkoak.

**4** Ezin daitekena da ezen behin argituak izan direnak, dastatu ere dutenak zeruko dohaiña, Izpiritu Sainduaren parzuner egin izan direnak, **5** hazi izan direnak Jainkoaren hitz sainduaz eta ethorriko den mendeko handitasunen esperantzaz, **6** eta hala ere erori izan direnak, berriz errebe-  
rri daitezen penitentziaz, halaz eta hekien baithan dagoen guziaz, berriz ere gurutzefikatzen dutela bere baithan Jainkoaren Semea eta desohorean ezartzen. **7** Ezen lur batek, maiz erortzen zaioen uriaz bustia izan eta, ekhartzen diotzatenean sasoiñezko belharrak hura lantzen dutenei, erre-  
zibitzen ohi du Jainkoaren benedizioea, **8** baiñan elhorriak eta laharrak dituenean ekhartzen, deusik balio ez duen lur bat diteke, sarri madarika-  
tua izan beharra eta azkenean ere erre beharra.

**9** Zuetaz ordean, ene maiteak, hobeagorik dugu uste eta salbamen-  
duari hurbiltzenago zaioenik, hunela mintzo garen arren. **10** Ez da ezen Jainkoa injustu, ahantzekatatzat zuen obra onak eta haren izenean sainduei egin izan diotzatzuen eta egiten ere diotzatzuen ongundeez erakutsi izan duzuen karitatea. **11** Desiratzen dugu bada zuetarik batbederak erakutsi dezan zelo bera azkeneraiño, zuen esperantza konplutua izan dadintzat, **12** eta izan ez zaitezten uzkur eta nagi, aitzitik bai hainen imitatzaile, zeñiak bere fedez eta pasientziaz egin izan baidire agintzen heredero.

**13** Abrahami ezen agintzean Jainkoak, ez baitzuen nihor bera baiño handiagorik, zeñietaz juramentu egin, egin zioen juramentu bere buruaz, **14** ziotsalarie: «Ez baldin bazaitut bada benedikaturik benedikatzan eta manera guziez berretzen». **15** Eta hala Abrahamek pasientziarekien iduri-



kirik, ardietsi zuen agindu izan zitzaioena. **16** Ezen gizonek berak baiño handiagoz dute juramentu egiten, eta bere diferentzia guzien akhabatzeko eman ahal dezaketen segurantzarik handiena juramentua dute. **17** Horri dagokala Jainkoak ere, nahiz gerthukigo a erakutsi agintzaren herederoei bere xedearen fermtasun ezin ganbiatuzkoa, juramentua artean ibeni izan du, **18** bi gauza ezin ganbiatuzkoen bidez, zeñietaz imposible baida engana gaitzan Jainkoak, izan dezaguntzat konsolazione indartsu bat, gure helpidea ibeni dugunek proposatu zaizkigun onen atzemateko esperantzaz, **19** zeña baidugu arimarentzat aingura seguratu eta fermu bat bezala eta beloaren barreneraño goaten den bat bezala, **20** non Jesus sartu izan baida gure aitzindari Melkisedeken ordenaren arauerako Pontife eternal eginik.

## VII. KAP.

**1** Ezen Melkisedek hura, Salemgo erregea, Jaungoikoaren apheza, Abrahami erregeak deseginik heldu zela bathu zitzaioena eta benedizioa eman zioena, **2** zeini gauza guzien hamarrena Abrahamek ere eman izan baitzioen, zeña bere izenaren errankidez deitzen baida lehenik «Justiziaren Errege», gero berriz Salemgo errege, erran nahi da «Bakezko Errege», **3** aita gabea, ama gabea, hidalgorik gabea, bizitzearen hastapenik ez akhabantzarik ez duena, eta horlatan Jainkoaren Semearen iduriko egin dena, bethikotzat dago aphez.

**4** Ikusazue bada zein handia zen hura, halaz eta Abraham patriarkak ere eman zioenaz geroz zituen hoberenetarik hamarrena. **5** Egiazki Leberen Semeetarik apheztasunean sartzen direnek manua badute legearen arauera hamarrenen hartzeko populuaren ganik, erran nahi da bere anaien ganik, hauk ere Abrahamen ganik ilkhiak diren arren hek bezala, **6** ordean hekien leiñu bereko kondatzen ez denak hamarrenak Abraham ganik ditu hartu eta agintzak bere zituen hura du benedikatu. **7** Dudarik batere gabe da, bada, gutiagoko denak errezibitzen duela benedizioa gehiagoko dena ganik. **8** Eta hemen alabaiñan hamarrenak errezibitzen dituztenak gizon batzu dire hiltzen direnak; han ordean bizi den presuna batez bezala da aiphatua. **9** Eta (hunela mintza nadin) Lebig, hamarrenak bertzeen ganik izaten dituenak, pagatu izan ditu berak Abrahamen presunan. **10** Oraino ezen Abraham bere arbasoa baithan zen, patriarka hari Melkisedek biderat ilkhi zitzaioenean.

**11** Baldinetariak bada Lebiren apheztasuna, zeinaren azpian populuak legea errezibitu izan baidu, gai izan balitz gizonak justu eta perfet errendatzeko, zer mengoa zen altxa zedin bertze aphez bat, Melkisedeken ordenaren arauerakoa erranen ziotena, eta ez Aaronen ordenaren arauerakoa? **12** Ganbiatu geroztik ezen apheztasuna, mengoa da ganbia dadin legea ere halaber. **13** Ezen gauza hauk zeñiez erraten baidire, eta haiña bertze leiñu batetakoa da, zeñietarik nihor egundaino aldarerat ez baida hurbildu izan, **14** gauza gerthua denaz geroz gure Jauna Judaren leiñutik ilkhi izan dela, zein leiñurentzat deusere ez baidu erran izan Moisek aphezgoaz.

**15** Eta are klargiago da hau ageri, zeren gerthatzen baida bertze aphez bat Melkisedeken iduritakoa, **16** zein ez baida ifinia ondokide baten legez, bainan bai bere bizitze ezin ethenduzkoaren botherez, **17** Eskriturak deklaritzen duen bezala hitz hautaz: «Zu baitzare aphez bethierekotz Melkisedeken ordenaren arauerakoa». **18** Antzutzen da ezen aitziañagoko legea, zeren den herbala eta probetxu gabetakoa, **19** zeren deusere ez baidu perfekzionerat eraman izan legeak, baiñan ethorri izan da haren orde esperantza hobeago bat, zeñietaz hurbiltzen baigare Jainkoa ganat.

**20** Eta hala ere ez baida juramentu gabekoa (bertzeak alabainan juramentu gabe aphez egin izan dire, **21** hau ordean juramenturekien, Jainkoak erran baidio: «Juramentu egin du Jaunak eta ez zaio urrikotuko, zu izanen zarela aphez bethierekotz Melkisedeken ordenaren arauerakoa»). **22** Hain da egia ezen alientzia hobeago baten ararteko jarri dela Jesus. **23** Bertze aphezez denaz bezanbatean alabaiñan hainitz izan dire, zeren eta herioaz debekatuak baitziren bethi irautetik. **24** Hunek ordean bethi behar baidu iraun, bethiereko apheztasuna du. **25** Handik da bethi gai salbatzeko haren arartekotasunez Jainkoa ganat hurbiltzen direnak, bethi bizi baida guretaz othoitze egiteko.

**26** Beharki zen ezen horlako Pontifo bat izan ginezan, saindua, inozenta, tatxa gabea, bekhatorosetarik aldaratua eta zeruez gorago altxatua; **27** zeñiek ez baidu beharrik egun oroz bertze Pontifoez bezala lehenik bere bekhatuentzat biktimak ofrendatzeko, gero populuarentzat; hori egin izan du ezen behingoan bere burua ofrendatzean; **28** legeak ezen aphezkat gizonak ditu ifinitzen, fiakitate hainitz dutenak; juramentu hitzak, ordean, zeña legeaz geroztikakoa baida, Semea bethierekotz saindu eta perfek dena du ifinitzen pontifotzat.



### VIII. KAP.

1 Erraten ditugun gauzen funtsa haxe diteke: Pontifo bat dugu, zeruetan jarria dagoena majestate soberanoaren thronuaren eskuinean, 2 Santuarioko ministre dena eta egiazko tabernakle hartako, zeina finkatu izan baidu Jainkoak, eta ez gizonak. 3 Ezen Pontifo den guzia emaitzak eta biktimak Jainkoari ofrendatzeko ifinitzen da; hargatik da mengoa hunek ere izan dezan zerbeit ofrenda ahal dezakenik. 4 Baldinetariak bada lurrean baleago, ez liteke ere aphez, zeren ja baidire bertzeak legearen arauerako emaitzak ofrendatzeko, 5 zeinen zerbitzua baida zeruko gauzen figura eta itzala bezala diren gauza batzutatokoz, Moiseri Jainkoak erran zioenaren arauera tabernaklea akhabatzerakoan: «Begirautzu», ziotson; «gauza guziak egitzizu mendian erakutsi izan zaitzun moldearen arauera». 6 Orai ordean gureak errezibitu izan du aphezgoa bat hanbatenaz exelentago, zenbatenaz baida alientzia hobego baten ararteko eta agintza hobego batzuen gainean ifinia denarena. 7 Ezen baldin lehenbiziko hark eskasik izan ez balu, ez zen bigarren bat haren orde emateko beharrik izanen. 8 Iroi ematen diotela ordean Jainkoak erraten diote: «Huna non heldu den denbora, dio Jaunak, zeinetan eginen baidut alientzia berri bat Israelgo etxearekien eta Judako etxearekien, 9 ez hekien aitekien egin izan dudan alientzia bezalakoa, eskutik hartu nituenean Ejiptotik hek atheratzeko; zeren ez baidire egotu ene alientzian, nik ere ez dut antsiarik izan hetaz, dio Jaunak. 10 Balitan huna zer alientzia egiñen dudan Israelgo etxearekien denbora hura dathorkenean, dio Jaunak: ibeniko ditut ene legeak hekien gogoan eta eskribatuko ditut hekien bihotzean eta izanen naiz hekien Jainkoa eta hek izanen dire ene populua; 11 eta ez dio irakatsi beharko batbederak bere hauzoari eta bere anaiari, erraten diolarik: Ezagut zazu Jauna; zergatik guziek ezagutuko binaute, xumenetik handienarainoko guziek, 12 ezen barkhatuko diotzatet bere gaixtakeriak eta hekien bekhatuez ez naiz gehiago orhoituko». 13 Mintzo denean bada alientzia berri batez, erakusten du antzutua dela lehenbizikoa; bada antzutzen eta zahartzen dena hurbil da akhabatua izatetik.

### IX. KAP.

1 Bazituen bada lehenbiziko alientzia hark ere Jainkoaren zerbitzuko lege eta ordenamendu batzuek eta mundu huntako santuario bat. 2 Lehenbizirik ezen egin zen tabernakle bat, zeinetan baitziren kandelerak, mahaiña eta proposizioneko ogiak, zein deitzen baida Lekhu Saindua. 3

Bigarren belaren ondoan zen berriz tabernaklea, Sainduen Saindua dartzana, 4 zeinetan baitzen urrezko inzensario bat eta alienziako arka alde guzietarik inguru urrez estalia, zeinaren barranean baitziren urrezko pegar bat manaz bethea, Aaronen zigorra loratu ohi zena, eta alienziako bi taulak. 5 Eta arkaren gainean ziren xerubiñak, gloriak distiatzen zutelarik propiziatorioa estaltzen zutenak; baiñan ez da mengoarik orai gauza horiez xehero mintzatzeko.

6 Gauza horiek horla arrimatuak zirelarik bada, lehenbiziko tabernaklean sartzen ziren aphezak denbora guzietan, aphezetasuneko ongundeak egin behar zituztenean. 7 Bigarrenordean Pontifoa sartzen zen bakharrik urthean behin, ez odola eraman gabetarik, zeina ofrendatzen baitzuen bere huts eginentzat eta populuarentzat. 8 Hortik erakusten darokularik Izpiritu Sainduak ez zela oraino idekia santuarioko bidea, lehenbiziko tabernakleak zirauetako. 9 Eta hori denbora hartako figura bat zen, zeinaren arauera ofrendatzen baitziren emaitzak eta biktimak, zerbitzu hori Jainkoari errendatzen ziotenen konszientzia garbitzeko gai ez zirenak, 10 zeudezenez geroz solamente janaritan eta edaritan, garbiketa molde diferentetan eta haragikarako zeremonia batzutan, zeinak baitziren ordenatuak lege hura ganbiatua izan ziteken denborarainokotzat.

11 Ordean Jesukristo ethorkizuneko ontasunen Pontifoa ethorririk mundurat, sarthu izan da behin santuarioan tabernakle handiago eta exelentago batetarik, zeina ez baida egiña izatu gizonen eskuz, erran nahi da, ez baida mundu huntako kreaturen herrunkakoa; 12 eta sarthu izan da ez akherren edo xahalen odolarekien, baina bere odol propioarekien erresketamendu eternal bat ardiesten darokularik. 13 Baldinetariak ezen akherren eta zezenen odolak eta ergi baten hautsarekien nahastaturikako uraren arthikitzeak santifikatzen baditu lohi zirenak, haragiaren arauera hek garbituz, 14 zenbatenaz are gehiago Jesukristoren odolak, zeinek Izpiritu Sainduak bere burua ofrendatu izan baidio Jainkoari tatxa gabeko biktima bat bezala, garbituko bide du gure konszientzia obra hilzikunetarik, zerbitza dezagun gatik Jainko bizia?

15 Horren gatik ere da Testament Berriaren ararteko, leheneko testamentaren azpian eginen ziren bekhatuen urratzeko, hark pairatu izan duen heriotzearen ariaz errezibi dezaten gatik deithuak direnek agindu izan zaien primeza eternala. 16 Ezen testamenta den tokian mengoa da hel dadin testamenta egillearen heriotzea, 17 zeren testamentak ez baidu indarrik heriotzeaz baizen, bertzenaz balio ez duenaz geroztik egin duena bizi



deño. **18** Hortik heldu da lehenbiziko testamenta ere ez baitzen bothere-tsu izatu odolarekien baizen. **19** Moisek ezen irakurri ondoan populu guziaren aitzinean legearen manamendu guziak, harturik xahalen eta akherren odoletik urarekien eta eskarlatarat tintaturikako lanarekien eta hisoparekien, arthiki izan zuen hartarik liburuaren beraren gaiñerat eta populu guziaren gaiñerat, **20** erraten zuelarik: «Hau da Jainkoa zuentzat egin duen testamenteko odola». **21** Halaber tabernaklearen gaiñerat eta han zerbitzatzen ziren gauza guzietarat ere arthiki zuen odola, **22** eta legearen arauera hurren gauza guziak odolarekien purifikatzen ohi dire, eta odol isurtze gabe ez da egiten bekhatuen barkhamendurik.

**23** Mengoa zen beraz gauza zerukoen figura xoil zirenak aliamalien odolaz izan zeitezen purifikatuak, zerukoak berak ordean hauk baino hobeagoko biktimez. **24** Ez da ezen Jesukristo sarthu izan gizonen eskuz eginikako santuario hartan, zeña ez baitzen egiazkoaren figura baizen, bainan sarthu izan da zeruan berean, guretzat orai agertzeko Jainkoaren aitzinean. **25** Eta ez da ere sarthu izan hainitzetan bere burua ofrendatzeko, aphez handia sartzen den bezala Santuarioan urthe guziez odol atze batekien. **26** Bertzela pairatu izan behar zuen hainitz aldiz munduaren kreationeaz geroztik; orai ordean mendeen akhabantzan behin agertu izan da bekhatua urratzeko, bere burua biktimatzat ofrendaturik. **27** Eta nola exlejitua baida gizonentzat behin hiltzea, gero ondoan jujeatuak izatea, **28** hala Jesukristo ere behin ofrendatua izan da hainitzen bekhatuak urratzeko; bertze aldi berriz agertuko da bekhatuaren deusik izan gabe, haren begira daudezenen salbamendukotz, hura igurikitzen dutenak salbatzeko.

## X. KAP.

**1** Ezen ethortzeko zeudezen onen itzala baitzuen xoilki legeak, eta ez gauzen iduria bera ere, urthe guziez bethi ofrendatzen dituzten biktima berez ezin sekulan justu eta perfet egin detzake aldarerat hurbiltzen direnak. **2** Bertzela geldituko ziren ofrendatzetik, zeren eta sakrifikatzen dutenek ez baitzuten bere konszientzia gehiago sentituko bekhatuz kargatua behin garbituak izan geroztik. **3** Bizkitartean sakrifizio hetan erreberitzen ohi da urthe guziez bekhatuen orhoitzapena, **4** imposible da ezen zezenen eta akherren odolak khen detzan bekhatuak. **5** Hargatik Jainkoaren Semeak munduan sartzean du erraten: «Biktimarik eta ofrendarik ez zinduen nahi, gorphutz bat ordean egin darotazu niri. **6** Holokaustak eta

sakrifizioak bekhatuentzat ez zaizkitzu agradatu. **7** Orduan erran dut: Huna ni heldu naiz, liburuaren buruan nitaz eskribatua den bezala, egin dezadan, o Jainkoa, zure borondatea».

**8** Aitziñago erran ondoan «Ez baiduzu nahi izatu biktimarik, ofrendarik eta holokaustarik bekhatuarentzat eta ez baitzaizkitzu agradatu gauza horiek», zeñak baidire bada legearen arauera ofrendatzen direnak, **9** errateaz berriz: «Huna ni heldu naiz egitea gatik, o Jainkoa, zure borondatea», khentzen ditu lehenbiziko sakrifizio hek bigarren bat ezartzeko. **10** Eta Jesukristoren borondate hura da gu santifikatu izan gaituena Jesukristoren gorphutzaren behingo ofrendaz.

**11** Eta alabaiñan aphez guziak presentatzen ohi dire egun oroz aldiarean bere ongundea bethetzeko, eta ofrendatzeko hainitz aldiz biktima berak, zeñek behinere ezin khen baidetzakete bekhatuak; **12** hau ordean, ofrendatu ondoan biktima bakhar bat bekhatuentzat, bethikotz dago jarria Jainkoaren eskuñean, **13** gaiñerako denaren begira, ezar daitezen artean haren etsaiak haren oiñen azpiko eskalertzat; **14** ofrendatze xoil batez ezen bethierekotz perfet egin izan ditu santifikatu dituenak.

**15** Eta hori deklaritzen daroku Izpiritu Sainduak berak ere, erran ondoan ezen: **16** «Hauxe diteke bada hekiekin eginen dudana alientzia, denbora hura dathorkenean, diotsa Jaunak; emanen ditut ene legeak hekin bihotzetan eta eskribatuko ditut hekien gogoetan. **17** Eta hekien bekhatuez eta gaixakeriez gehiago ez naiz orhoituko». **18** Bada bekhatuak barkhatuak direnean, ez da gehiar bekhatuen gatikako ofrenden beharrik.

**19** Dugunaz geroz beraz, ene anaiak, burupea fidantziarekin sartzeko santuarioan Jesukristoren odolaz **20** bide berri eta bizi hartaz gaindi, zeña trazatu izan baidaroku berak lehenbizikorik, bere haragiaren beloaren idokiduratik, **21** eta are dugunaz geroz aphez handi bat Jainkoaren etxea gobernatzeko duena, **22** hurbil gakizkon egiazko bihotz batekien eta fede konpli batekien, bihotzak xahutuak ditugularik konszientzia gaixto errendatzen duten gauzetarik, eta gorphutza garbitua ur garbi batez. **23** Gaudezen tieso esperantza izateko egin izan dugun aithorrean, batere handik aldaratu gabe, fidel baida guri agindu darokuna, **24** eta goardia emogun elkharri, batak bertzea zagitatzeko karitaterat eta obra onetarat, **25** hutsik egiten ez dugula gure batzarretarik, batzuk kostuma duten bezala, aitzitik elkhar konsolatzen dugularik, eta are hanbatenez gehiago, zenbatenez ikusten baiduzue hurbiltzen dela eguna.



**26** Ezen baldin gure nahirat bekhatu egiten badugu egiaren ezagutza errebitu ondoan, ez da gehiago gelditzen bekhatuentzat biktimarik, **27** baiñan bai jujeamenduaren begira egon behar ikharagarri bat eta suaren lehia, zeinek iretsiko baiditu Jainkoaren etsaiak. **28** Moiseren legea hautsi dukena hillarazitzen da urrikalmendurik batere gabe bi edo hirur lekhukoen erranaren gainean; **29** zenbatenez are uste duzue, bada, suplizio dorpheagoak dituela merezi Jainkoaren Semea ostikatu dukenak, alien-tziako odola, zeinetaz izan baida santifikatua, likitzat eta profanotzat iduki dukenak eta graziaren Izpirituari afruntu egin diokenak? **30** Badakigu ezen nor den erran izan duena: «Ene gain bendekatzea eta hartuko ere dut, bai, neure aldia». Bertze batean berriz: «Jujeatuko baidu Jaunak bere populua». **31** Lastimagarri da Jainko biziaren eskuetarat erortzea.

**32** Orhoit zaitezte bada aitzinagoko egun hetaz, zinetan argia erre-zibitu ondoan gudu handiak jasan izan baidituzue eta persekuzione handiak, **33** alde batetarik alabaiñan eskarnioez eta behazunez munduaren ikuskari egiñak; bertze batetarik berriz horlakuak izan direnen partale egiñak. **34** Ezen gatheetan zirenen urrikalmezuz zaurthuak izan zarete, eta zebeñ ontasunen galtzea bozkarioekien hartu duzue, baidakizue bertze ontasun batzu baidituzuela hobeak eta bethi iraunen dutenak. **35** Ez dezazuela beraz gal duzuen fidantzia, zeinek bain golaro handia izanen baidu. **36** Pairakortasunaren beharra duzue ezen, Jainkoaren nahia eginik eramane detzatzuentzat agindu zaizkitzuen ontasunak. **37** «Aphur aphur bat oraiño eta ethorri beharra dena ethorriko da, eta ez du beranduko; **38** justu ene dena bada fedez bizi da; baldin aldaratzen bada, ez da ene gogarako izanen». **39** Gu ordean ez bide gaudez aldaratzeko kuraiea galdurik, geroni ere galtzekotan; aitzitik tieso gaudez fedean gure arimen salbamenduarentzat.

## XI. KAP.

**1** Da bada fedea esperantza izan behar ditugun gauzen fundamena eta ikusten ez direnen sinhetsgarria. **2** Hartaz ezen gure aitzineko zaharrek ardietsi izan dute bere gomendioa. **3** Fedeaz dakusagu mundua Jainkoaren hitzaz egina izan dela eta ikusten diren guziak lehen ikusten ez zirenetarik egiñak direla. **4** Fedeaz ofrendatu izan diotza Abelek Jainkoari biktima exelentagoak Kainek baiño eta merezitu izan du Justua deithua izatea, Jainkoak berak lekhukotasuna errendaturik haren ofrendak agra-datu zaizkoela; eta bere fedea gatik mintzo da oraiño hillondoan ere. **5**

Fedeaz Henox alxtatua izan da mundutik, hill ez zedintzat, eta ez dute geroztik ikusi, zeren eramane baitzuen Jainkoak noratbeit; eta eramane izan baiño aitzinago lekhukotasuna errendatu zitzaion Jainkoaren gogarako zela. **6** Fedea gabe bada imposible da Jainkoaren gogarako izatea. Sinhetsi behar du ezen Jainkoa ganat hurbilduko denak, Jainkoa badela eta haren bilha dabiltzanak sariztatzen dituen delak.

**7** Fedeaz Noek zerutik abisu izanik oraino ikusten ez ziren gauzez eta beldurtasuna harturik, egin zuen arka bere familia salbatzeko, eta hura preparatzean kondenatu izan zuen mundua eta egin zen fedetik heldu den justiziaren heredero.

**8** Fedeaz Abraham deithua izan denak obeditu izan zuen, goanik prizeztat izan behar zuen lekhurat, eta ilkhi baitzen ere jakin gabe norat zioan. **9** Fedeaz egon zen agindu izan zitzaion lehorrean, atze herri batean bezala, etxoletan zegoela Isaak eta Jakob agintza beraren primu lagun zituenekien. **10** Hiri haren begira zegoen ezen, zeinek zimendu sendoak baiditu, zeinaren egillea eta fundatzailea baida Jainkoa bera. **11** Fedeaz Sarak ere, agorra zen arren, haur baten konzebitzeko indarra izan zuen, haurrik izateko adina kanpoan zelarik, zeren sinhetsi baitzuen fidelizat eta egiatizat hari hura agindu izan zioena. **12** Hargatik ilkhi izan da gizon bakhar baten ganik eta ja hill hurrena zena ganik jendetze bat, nonbrez zeruko izarrak eta itsas bazterretako harea ezin kondatuak bezanbatekoa.

**13** Fedean hill izan dire haiek guziak, errebitu gabetarik agindu zitzaizten onak, baiñan urrundik hei behatzen eta agur egiten ziotela, eta aithortzen zutelarik arrotz eta bideante zirela lurraren gainean. **14** Horla mintzo direnek ezen erakusten dute bere herriaren bilha dabilzala. **15** Behintzat nondik ilkhi baitziren, eta hura izan balute gogoan, bazuten denborarik aski harat bihurtzeko. **16** Baiñan hobeago baten gura zuten, erran nahi da zerukoarena; hargatik ez zaio itsusi Jainkoari deithua izatea hekien Jainkoa, zeren preparatu izan baidiote egoitza bat.

**17** Fedeaz ofrendatu izan zuen Abrahamek Isaak, Jainkoak frogatu izan nahi zuenean; ezen bere seme bakoitza ofrendatzen zuen agintzak izan zituen hark, **18** erran zitzaioenak: «Isaak ganik izanen duzu leinu bat zure izenekoa». **19** Sinhesten baitzuen hillez geroztik ere pitz ahal zezakela Jainkoak, eta hala piztu ere zitzaioen gerthatu beharra zenaren figura bat bezala.



**20** Fedeaz Isaak-ek ere eman zioten benedizioea Jakobi eta Esauri ethorkizunekotzat. **21** Fedeaz Jakob-ek hiltzerakoan eman zaroen bere benedizioea Josefen bi semeei, zeñi beregain eta makhurturik agur egin zioen haren manamendutako zigorrari. **22** Fedeaz Josef hiltzerakoan mintzatu zen Israelgo umeen ilkhitzeaz eta ordenatu zuen haren hezurak eraman zetzaketela handik.

**23** Fedeaz Moise sorthu eta gordea itxeki zuten hirur ilhabetez bere burasoez, zeren haur hagitx ederra ikusten baitzuten eta ez baitziren beldur erregeren mezuarentzat. **24** Fedeaz Moisek handitu zenean deklaratu izan zuen ez zela Faraonen alabaren semea, **25** nahiago baitzuen izan aflijitua Jainkoaren populuekien, ezen ez gozatu denbora batetaktz bekhatuaren atseginez, **26** gogoan harturik aberatstasun handiago bat zela Jesukristoren laidoa, ezen ez Ejiptoko thresorak, zeren golaroari behatzen baitzioen. **27** Fedeaz utzi zuen Ejiptoa, beldurrik izan gabe erregeren sumindurarentzat; egon zen ezen tieso eta fermu, ikusten ez dena ikusten balu bezala. **28** Fedeaz egin izan zuen Bazkoko zeremonia eta bildotsaren odol isurtzea, lehen jaiok hiltzen zituen aingeruak Israeldarrak uki ez zetzan gatik. **29** Fedeaz iragan izan zuten Itsaso Gorria, leihorrez ibilli balire bezala; Ejiptoarrak gauza bera egiterat entseiatu eta hondatu izan baitziren eta itho.

**30** Fedeaz Jerikoko morraillak erori izan ziren, zazpi egunez hekien inguru ibilli zitezken ondoan. **31** Fedeaz Rahab deboxatu emaste hura gelditu zen galdua izan gabe sinhetsgogorrekien batean, Josueren zelatariak bere etxerat harturik salbatu izan baitzituen.

**32** Eta zer erranen ere dut oraiño? Denbora falta litzaike mintzatu nahi banu Jedeonez, Barak-ez, Samsonez, Jeftez, Dabidez, Samuelez eta profetez, **33** zeinek fedeaz garaitu izan baidituzte erresumak, konplitu justiziaren eginbideak, ardietsi agindu zitzaiztenak, zarratu lehoiñen ahoak; **34** iraungitu izan dute suaren indarra; itzuri dire ezpataren ahotik, sendatu bere eritasunetarik, indarrez eta animoz betheak izan dire guduetan; ihesi igorri izan dituzte lehortarren armadak; **35** emasteak kobratu izan ditu ume hillak bizturik Jainkoak; batzu izan dire estiran tormentatuak, ez nahiz presenteko bizitzea erresketatu hobeago bat edireitea gatik erresurrekzioean; **36** bertzeek berriz pairatu izan dituzte eskarnioak eta azoteak, bai eta oraiño gatheak eta presondegiak ere; **37** izan dire harrikatuak, zerratuak, alde guzietarik frogatuak; izan dire hillak ezpataren ahoz; ibilli izan dire harat hunat ardi larruz eta ahuntz larruz bestiak, abandonatuak,

aflijituak, persekutatuak; **38** eta ez baitzuen ere merezi munduak hek izatea, ibilli izan dire errebelatuak mortuetan, mendietan, lezeetan eta lurra- ren azpitan.

**39** Eta hala ere hauk guziek, Eskriturak horlako lekhukotasuna errendatzen daroelarik bere fedea gatik, ez dute izatu agindua zuten golar- doa eta saria; **40** Jainkoak guretzat zadukan fagore berezi batez nahi izan baidu, gurekien baizen ez zezaten errezibi bere zorionaren konplidura.

## XII. KAP.

**1** Hargatik beraz, gu ere lekhukozko hedoitze bain handiaz barren- datuak bezala garenaz geroz, egoitzirik kargatzen gaituen guzia eta ingur- ratzen gaituen bekhatuen, gabiltzan pairakortasunaz, lauster egiten dugu- larik proposatu izan zaikun karrerean, **2** beha gagozkalarik Jesus gure fedearen authorari eta akhabatzailleari, zeinek bizitze ezti eta dohatsu bat eraman zezakenen orde, jasan izan baidu gurutzea ahalkeriaz kasu guti eginik, eta zeña orai jarria baidago Jainkoaren thronuaren eskuinietik. **3** Idukazue beraz gogoan horlako kontresta bekhatorosen ganik jasan izan duena bere presuna propioan, unha ez zaiteztentzat eta gogoa hill ez dakizuentzat. **4** Oraino ezen ez duzue pairatu odola isurtzeraiñoan, bekhatuaren kontra guduan hari zaretela.

**5** Eta ahantzi zaitzue eki exorta bau, zuei Jainkoaren umei bezala heltzen zaitzuen: «Ene haurra, ez dakizula gaitzi Jaunaren gastigua, eta ez zaitezela enkonio hartaz korrejitua zarenean. **6** Maite duena ezen gasti- gatzen ohi du Jaunak, eta zehatzen ohi ditu bere haurren nonbrean erre- zibitzen dituen guziak». **7** Jasan zazue konstanki korrekzioea. Bere hau- rrei bezala hari zaitzue Jainkoa. Zein da ezen haurra bere aitak korrejitzen ez duena? **8** Baldin gastigutik kanpoan bazarete, zeinetan bertze guziek parte izan baidute, beraz bastartak zarete eta ez umeak.

**9** Bertze alde gure gorputzen aitak alabaiñan korrejitzaile izan ditu- gu eta hala ere errespetatu ditugu; ez gaizko bada are sumetituago izan behar Izpirituen Aita denari, eta biziko baigare? **10** Hek alabainan egun gutitako den bizitze baten ariaz gastigatzen ginituzten nahi zuten bezala; Jainkoak ordean gastigatzen gaitu behar den bezanbat, gu haren saindu- tasunean parte izateko gai egiteagatik. **11** Gastigu guziak bada, egiten den orduan, iduri du ez dela atsegin egitekoa, aitzitik bai damu egitekoa; ondo- an ordean justiziazko fruitu sasoa bat ekhartzen diote horla nekhatuak





izan direnei. **12** Hargatik beraz goiti zatzue zuen esku hagaranduak eta zuen belhaun hebainduak. **13** Erabillatzue zuen oiñak bide xuxenetan, nihor mainguka dabillanik errebela ez dadintzat, aitzitik senda dadintzat.

**14** Zakizkote bakea izateari mundu guziarekien eta saindutasunean bizitzeari, zeina gabe nihork ez baidu ikusiko Jainkoa. **15** Begira duzuelarik nihork eskas egin ez diozan Jainkoaren grazinari, zenbeit erro khirats dunek «bere urthameak goiti buthaturik traba egin ez diozan hazi onari eta lizun ez dezan hainitzen arima. **16** Batere ez den lohi edo profano, Esau bezala, zeñiek othruntza batentzat saldu izan baitzuen bere lehen jaiotasuneko zuzena; **17** jakizue ezen, gero ondoan hala ere nahi baitzuen parte izan aitaren benediziotan herederu bezala, arbuaiatua izan zela, ezen ez zuen aurkhitu gauzaren ganbiaratzitzeko biderik, asko nigarrekien galdetu zuen arren.

**18** Kondera zazue bada ez zaretela hurbildu mendi uki diteken batetarat, erretzen duen su batetarat, haize buhunba batetarat, hedoi goibeldu batetarat, tenpesta eta xismista batzuetarat, **19** eta ez tronpeta baten soñurat, ez boz baten habarrotserat, zeña aditu izan zutenak errekerimenduz jarri baitziren, arren ez zakioten gehiago hei mintza, **20** ezin jasan zezaketen ezen erraten zitzaiena: «Baldin bestia batek ere ukitzen bazuen mendia, harrikatua izanen zela». **21** Eta bain ikharagarria bazen hek ikusten zutena, non Moisek erran izan baitzuen: «Izitua naiz eta ikharatua». **22** Baiñan hurbildu zarete Siongo mendirat, Jainko biziaren hirirat, Jerusalem zerukorat eta hainitz milla aingeruetako oste batetarat, **23** lehen jaioen batzarrerat eta Elizarat, zeñiak eskribatuak baidire zeruan; guzien juje den Jainkoa ganat, bere harxederat helduak diren justuen Izpirituatarat, **24** Jesus alienzia berriko arartekoa ganat, eta odol isuri hartarat, Abelena baiño hobeki mintzo denerat.

**25** Begiratzue ez entzun nahi izatetik mintzo zaitzuen; baldin ezen ezin itzuri badire punituak izan gabe lurrean mintzo zitzaiena entzun nahi izan ez dutenak, gutiago are itzuriko gare gu, baldin arbuaiatzen badugu zerutik mintzo zaikuna, **26** zeinaren bozak baitzuen higitu lurra orduan, zeinek ordean orai agintza berri bat baidaroku egiten diotsalarik: «Oraiño behin iharrosiko dut nik ez xoilki lurra, baiñan zerua ere». **27** Errateaz bada «oraino behin», deklaritzen du deseginen dituela gauza mudakor direnak, denbora batekotz eginak diren bezala, daudezentzat bethierekotz direnak. **28** Hargatik beraz, ja hasi baigare ganbiamendurik ezin duken erresuma haren jabe izaten, badugu grazia zeñietaz zerbitza baidezakegu

Jainkoa, lakhet kaioen bezala, beldurtasunekien eta errespeturekien, **29** ezen gure Jainkoa su bat da iresten duena.

### XIII. KAP.

**1** Konserba zazue bethi anaien alderako karitatea. **2** Ez dakizuela ahantz arrotzen ganako amudioa, hortaz ezen errezibitu izan dituzte zenbeitak aingeruak ostatuz jakin gabean. **3** Orhoit zaitzte gatheetan direnez, zebok hekiekien gatheetan baziñete bezala, eta bai aflijituak direnez, zebonek ere gorphutz hilkor batean baizaudete. **4** Beha bekio ezkontzari guzietan honestasunekien eta izan bedi espos ohea tatxa gabekoa, lohiak ezen eta adulteriarrak kondenatuko ditu Jainkoak. **5** Izan bedi zuen bizitzea abarizia gabekoa, kontenta zaitzte duzuenaz Jainkoak berak erran duenaz geroz: «Ez zaitzudet utziko, ez abandonatuko», **6** hala non fidoski erraten baidugu: «Jauna dut laguntzaille, ez naiz beldur izanen gizonen egin ahal diezaketedanez».

**7** Orhoit zaitzte zuen aitzindariez, zeñiek predikatu izan baidarotzue Jainkoaren hitza, eta konsideraturik zerikakoa izatu den hekien bizitzearen akhabantza, imita zazue hekien fedea. **8** Jesukristo atzo zena da egun ere, eta berbera izanen da mende guzietan. **9** Ez zaitzabela erabil harat hunat dotrina diferentek eta arrotzek; gauza hagitz on bat da ezen graziaz borthiztea bihotza, eta ez jakien berezgunez, zeinak ez baitzaitze deusentzat baliatu hetan ibilli izan direnei.

**10** Badugu aldare bat, zeinetarik jateko buruperik ez baidute tabernaklea zerbitzatzen dutenek. **11** Ezen aliamalia hainen gorphutzak, zeinen odola eramaten baidu aphez handiak santuariorat bekhatuen gatik, osteaz kanpoan erretzen ohi dire. **12** Horren gatik halaber Jesusek bere odolaz populua santifikatzeko, portalez kanpoan sofritu izan du. **13** Ilkhi gaitzen beraz haren ganat, goateko osteaz kanporat, haren gurutzearen laidoa garraiatzen dugula. **14** Ez dugu ezen hemen egoitza finkaturik, bainan ethortzeko denaren ondoan gabilitza. **15** Ofrenda diozogun beraz hartaz Jainkoari laudoriozko sakrifizio bat, erran nahi da haren izenari gloria bihurtzen dioketen ezipaiñen fruitua. **16** Orhoit zaitzte karitatea pratikatzearaz eta zuen ontasunetarik bertzeei parte egiteaz, horlako biktimez ezen irabazten da Jainkoa.

**17** Obedi zatzue zuen gobernatzeko ifiniak diren presunak, eta izan zaitzte hekien manuko; hek dire ezen zuen arimarentzat beillatzen dute-



nak hetaz kondu eman beharko duten bezala, hori egin dezatentzat bozkarioekien eta ez damu dutelarik, ezen ez liteke hori ungi zuentzat.

**18** Egizue othoitz guretzat, fida gare ezen konszientzia xuxenez gabiltzala, gauza guzietan sailduki nahi baiginduke ibilli. **19** Eta oraiño gehiago are zaituztet errekeritzen hori egiteaz, lausterrago bihur nakizuen amorea gatik.

**20** Bakezko Jainkoak bada, zeiniek athera izan baidu hillen artetik alientzia eternaleko odolaz ardien arzain handia egin izan dena, Jesukristo gure Jauna, **21** aphain zaitzateela obra on suerte guzietakotz, egin deza-zuentzat haren nahia, berak egiten duelarik zuen baithan berari lakhet zaiarena Jesukristoz, zeini baidagoko gloria mendetako mendetan. Amen.

**22** Othoitz egiten darotzuet bada, ene anaiak, onez har dezazuen zuen konsolatzeko erran darotzuedana, ezen hitz gutitan eskribatu darotzuet. **23** Jakizue gure anaia Timotheo libro dela; eta lauster badathor, ethorriko natzaitzue harekien ikusterat. **24** Saluta zatzue zuen gobernatzeko ifiniak diren guziak eta saildu guziak. Salutatzen zaituzte Italiako anaiek. **25** Grazia dela zuekien guziekien. Amen.

## J. JAKOBEREN GUTHUNA KATHOLIKOA

### I. KAP.

**1** Jakobe Jainkoaren eta Jesukristo gure Jaunaren zerbitzariak hama-bi leiñu barraiatuak direnei, agur.

**2** Bozkario guzizko batentzat idukazue, ene anaiak, atsekabe suerte hainitzetan erortzen zaretenean, **3** dakizuelarik zuen fedearen frogantzak ekhartzten duela pazientzia. **4** Pazienziak bada perfeta izan behar du bere obretan, zaretentzat perfetak eta konpliak deusetan eskasik ez duzuela.

**5** Eta baldinetariak zuetarik zenbeitek badu zuhurtziaren beharra, galde bioza Jainkoari, zeiniek ematen ohi baidiote guziei frankoki eta ez baitzaie bekhaizten, eta emanen zaio zuhurtzia. **6** Galde beza ordean federekien, dudetan batere jarri gabe, ezen dudetan jartzen dena itsasoko oiharen pare da, zeina higitzen eta harat hunat erabiltzen baidu haizeak. **7** Ez du beraz uste izan behar haina hark deusere errezibituko duela Jauna ganik. **8** Gogo partitua duen gizona ganbiakor da bere bide guzietan.

**9** Gloria bedi, bada, gure anaietarik kondizione beheretako dena bere goratasunaz; **10** aberats dena berriz bere beheratasunaz, zergatik belhar lorea bezala iraganen baida. **11** Ezen nola iguzki bero bat altxatzen denean idortzen da belharra, erortzen lorea eta suntsitzen haren edertasuna, hala ihartuko da aberatsa ere bere bidearen erdian.

**12** Dohatsu da gizona tentazioneak eta gaitzak pairatzen dituen, zergatik frogatua izatu daitekenean errezibituko baidu bizitzeko khoroa, zeina agindu izan baidiote Jainkoak hura maite dutenei. **13** Nihork, tentatua ditekenean, ez beza erran Jainkoak tentatzen duela, Jainkoa ezen ez da gai gaizki egiterat tentatzeko eta ez du ere nihor tentatzen. **14** Baiñan batbedera bere gutizia propialaz da tentatua eta gaizki egiterat erakharria eta thiratua. **15** Gero ondoan, gutizia konzebitu duenean, erditzen da bekhatuaz; bekhatuak berriz konplitu ditekenean, jenderatzen du heriotzea.

**16** Etzaitzeltela beraz engana, ene anaia maiteak. **17** Emaitza on den guzia eta dohain perfet den guzia goratik heldu da eta argien Aita ganik jausten da, zeina baitan ez baida mudantzarik, ez mudantzaren itzalik. **18**



Hark jenderatu izan gaitu ezen bere nahirat egjaren hitzaz, haren kreatu-  
ren hastapen bat bezala nolazbeit ere izan gaitzentzat.

**19** Hala ere, anaia maiteak, zuetarik batbedera izan bedi erne aditze-  
rat, uzkur ordean mintzaterat eta uzkur koleran ematerat. **20** Gizonaren  
kolerak ezen ez du eragiten Jainkoaren justizia. **21** Hargatik bada egotzirik  
bekhatuaren lohigunea eta sobrania guziak, errezihi zazue emetasunekien  
zuen baithan xerthatua den hitza, zuen arimak salba ahal detzakena. **22**  
Zareten ordean hitzaren begiratzaille eta ez xoilki aditzaille zebe buruak  
enganaturik. **23** Ezen hitzaren aditzaille baizen ez dena eta begiratzaille ez  
dena gizon baten pare da, zeñiek behatzen baidio mirail batean bere bisaia  
naturalari, **24** eta zeñia behatu ondoan, goaten baida eta berehala ahantz-  
ten baitzaio nolakoa zen. **25** Ordean ungi miratzen duena lege perfeta,  
zein baida libertatearena, eta hartan dagoena ez aditzaille ahantzkor bat  
bezala, bainan aitzitik aditua obretan ematen duen bat bezala, haiña doha-  
tsu izanen da bere eginetan.

**26** Baldinetariak bada zenbeitek uste badu erreligionetsu dela, bere  
mihia bridatzen ez duelarik, baiñan bere bihotza enganatzen duelarik,  
hainaren errelijionea banoa da eta ergela. **27** Errelijione garbia eta tatxa  
gabe dena Jainko gure Aitaren aitzinean, hauxe da: emaxurtxak eta alhar-  
gunak bisitatzea bere aflikzioanean eta bere burua xahu begiratzea mende  
huntako lohigunetik.

## II. KAP.

**1** Ene anaia, ez dezazuela presunen berezguneariekien baltsa Jesu-  
kristo gure Jaunaren gloriak duzuen sinhestea, **2** ezen baldin sartzen bada  
zuen batzarrean gizon bat urhezko erhastun bat duena eta tresna ederrez  
bestitua; sarzen bada berriz pobre bat xarki bestitua, **3** eta begiak gelditu-  
rik berreginki bestitua denaren gainean, erraten badiozue hari: Jar zaite zu  
hemen lekhurik hoberenean; pobreak berriz erran diozazuen: Zaide zu  
hor xutik edo jar zaite ene oiñetako alkhiaren behean, **4** ez da hori zebe  
baithan berezgunegitea bataren eta bertzearen artean eta pentsu gaixto-  
tako juje izatea?

**5** Adi zazue, ene anaia maiteak, ez ditu bada Jainkoak berezi izan  
mundu huntan pobreak zirenak fedez aberats izateko eta hura maite dute-  
nei agindu daroen erresumaren primu izateko? **6** Zuek aitzitik desohora-  
tzen duzue pobrea. Ez dire aberatsak bere puxantzaz zuek zapatzen zai-

tuztenak? Hek ez zaituzte eramaten jujeen tribunaletarat? **7** Hek ez dire  
izen saindu hura blasfematzen dutenak, zeinetarik athera baida zuena? **8**  
Baldinetariak bada lege erregezkoa konplitzen baduzue, eskribatua den  
bezala: «Maitatuko duzu zure lagun proximoa zeure burua bezala», ungi  
egiten duzue.

**9** Baldin ordean presunen berezgunerik baduzue, bekhatu egiten  
duzue eta legeaz kondenatuak zarete haren hautszaille bezala. **10** Nork ere  
bada lege guzia begiratu baldue, ordean hautsi baidue puntu bakhar  
batean, hobendun da guzia hautsi balu bezala, **11** ezen erran duenak: «Ez  
duzu adulteriorik eginen» erran baidu halaber: «Ez duzu heriotzerik egi-  
nen; baldinetarik heriotzerik egiten baduzu, adulteriorik ez eginik ere,  
legearen hautszaille zare». **12** Mintza zaitezte eta egizue libertatearen  
legeaz jujeatuak izaterat bazinohazte bezala, **13** miserikordia gabeko jujea-  
mendua dago ezen, miserikordiarik egin ez dukenarentzat; garaia darama  
ordean miserikordiak justiziaren gainean.

**14** Zer baliatuko zaio nihori, ene anaia, erratea fedea baduela, bal-  
din obrak ez baditu? Ala fedea salbatuko othe du? **15** Baldinetariak bada  
zuen anaia bat edo zuen arrebat bulhuziak badire eta peitu eguneko bizi-  
kaiaren, **16** eta erraten badiote zuetarik zenbeitek: Zohazte bakearekien,  
izanen duzue agian zertaz bero eta zertaz ase», eta ematen ez badiozue te  
gorphutzeko behar dutena, zer probetxu dukete? **17** Hala fedea ere bal-  
din obrak ez baditu, billa da berenez.

**18** Alabaiñan erran dezake edozeñiek: «Zuk fedea duzu eta nik obrak  
ditut; erakuts diezadazu fedea baduzula obrak gabe eta nik erakutsiko  
darotzut zuri ene obretarik ene fedea». **19** Sinhesten duzu Jainko bat dela  
bakharra? Ungi egiten duzu; deabruak ere sinhesten dute eta ikharan dau-  
dez. **20** Nahi duzu ordean jakin, o gizon ergela, obra gabeko fedea billa  
dela? **21** Abraham gure aita ez zen obretarik izan justifikatua, ofrendatu-  
rik Isaak bere semea aldare baten gainean? **22** Ikusten duzu nola hari zen  
haren fedea haren obretan, eta obrez izan zela haren fedea konsumitua?  
**23** Horla konplitu izan da ere Eskriturako erran bau: «Abrahamek sinhe-  
tsi zuen Jainkoa eta aria hortaz izan da justutzat kondatua eta Jainkoaren  
adiskide deithua». **24** Ikusten duzue, beraz, obretarik justifikatzen dela  
gizona eta ez fedetik xoilki? **25** Orobat Rahab emasteki galdu hura ere  
obretarik ez zen izan justifikatua, hartu baitzituen mandatariak eta igorri  
bertze bide batez? **26** Ezen arima gabe den gorphutz bat billa ohi den  
bezala, hala obra gabe den fedea ere billa diteke.



### III. KAP.

1 Ene anaiak, ez dadin izan zuen artean hainitx, irakatszaille egin nahi dutenik, baidakizue kargu horrek jujeamendu garratzago bat erakharriko darotzuela. 2 Hainitz gauzetan ezen huts egiten dugu guziek; baldin edozeiñek hutsik egiten ez badu bere hitzetan, haiña gizon perfeta diteke, eta bridatik bezala erabill ahal dezake ere gorphutz guzia. 3 Alabainan baldin zamariet bridak ahoetarar ematen badaroztegu gure manuko izan daitezen gatik, hekien gorphutz guzia badarabillagu harat eta hunat. 4 Ez duzue ikusten untziak ere, zeinahi handiak diren eta haize haintzez bulkhatuak diren, lema xume batez eragiten zaiela, gobernatzen duenak nahi duen alderat? 5 Hala mihia ere egiazki mienbro xume bat da, eta bizkitartean banta diteke gauza handiez. Ez duzue ikusten zein su gutik irazaki dezaken oihan handi bat? 6 Mihia ere su bat da, gaixtakeriazko mundu bat da. Gure mienbroetarik bat baizen ez delarik, likitsten du gorphutz guzia eta irazakitzen gure biziaren birunda guzia, bera irazakia izanez ifernuko suaz.

7 Gizonaren naturalezak hetz detzake eta hezi ere izan ditu bestia suerte guziak, hegaztiñak, sugeak eta itsasoko arraiñak. 8 Mihia ordean gizonetarik batek ere ezin zeba dezake; gaitx kexu bat da, pozoin hilgarri batez bethea da. 9 Hartaz dugu benedikatzten Jainko gure Aita, eta hartaz ditugu madarikatzten gizonak, zeinñak baidire egiñak Jainkoaren idurirat. 10 Aho beretik ilkhitzen da benediziona eta madarizona. Ez da horla egin behar, ene anaiak. 11 Ala ithurri batek arthikitzen othe du zilho beretik ur ezta eta ur miña? 12 Ala, ene anaiak, fikitze batek ekhar othe detzake mahatsak edo mahatsondo batek fikoak? Hala ur gazizko ithurri batek ere ezin arthik dezake ur ezta.

13 Nor othe da zuen artean zuhur eta jakintsun delakorik? Erakuts beza haiñak bere egitatea bizitze on baten jarraikitzen, emetasunez behetikako zuhurtzia batean. 14 Baldin ordean bekhaizgune khiratsdun bat eta debadiozko izpiritu bat baduzue zuen bihotzetan, ez zaitezteela handiets eta ez derrazuela gezurrik egiaeren kontra, 15 ez da ezen zuhurtzia hori goratik heldu dena, baiñan da lurrekoa, animaliakarakoa, debrukarakoa, 16 ezen non ere baida bekhaizgunea eta debadiozko izpiritu, eta han da nahasmendua eta egitate gaixto guzia. 17 Baiñan goratik heldu den zuhurtzia lehenbizikorik bada garbia da, gero bakezkoa, modesta, ethororra, ungiari darraioena, urrikalmenduz eta obra onen fruituz bethea; ez

du jujeatzen, ez da alegiatsua. 18 Justiziaren fruituak bada bakean ereinten dire bakezko obrak egiten dituztenentzat.

### IV. KAP.

1 Nondik heldu othe dire gerlak eta hauziak zuen artean? zuen pasionetarik ez dire heldu, zeinñak guduan hari baidire zuen haragian? 2 Gutiziaz betheak zarete eta ez duzue desiratzen duzuen; heriotzeak egiten dituzte eta bekhaizti zarete eta ezin ardiets dezakezue nahi zinduketena; hauzitan hari zarete eta elkharri gerla egiten, eta hala ere ez duzue deusik, zeren ez baiduzue galdetzen. 3 Galdetzen duzue eta ez duzue izaten, zergatik gaizki galdetzen baiduzue, zuen gutizien kontentatzekoa izateko.

4 Adulteriarrak, ez dakizue mundu hunen amudioa Jainkoaren etsakoa dela eta hala mundu hunen adiskide izan nahi duena Jainkoaren etsak egiten dela? 5 Ala uste duzue alferretan erraten duela Eskriturak: «Jelosiako amudio bat ekhartzen darotzue zuen baithan egoten den izpirituak?». 6 Halaber grazia handiago bat ere du ematen. Hargatik da errana: «Jainkoak kontra diote egiten superbioei eta humillei diote ematen grazia». 7 Zareten bada sumetituak Jainkoari, kontra egiozue berriz deabruari eta goanen da ihesi zuen ganik. 8 Hurbill zakizkote Jainkoari eta hurbilduko zaitzue. Xahu zatzue zuen eskuak, o bekhatorosak, eta garbi zatzue zuen bihotzak, o gogo doletakoak. 9 Aflijit zaitezte; egizue auhen eta nigar; zuen hirria itzul bedi nigarretarat eta zuen bozkarioa tristeziarat. 10 Humilia zaitezte Jaunaren begietan eta hark zaituzte altxatuko.

11 Ez derrazuela gaixkirik, ene anaiak, batzuk bertzeez. Bere anaiaren kontra mintzo dena eta bere anaia jujatzen duena, legearen kontra mintzo da eta legea jujatzen du. Baldin bada legea jujatzen baduzu, ez zare legearen begiratzaille, aitzitik legearen juje egiten zare. 12 Bada lege emaille bat eta juje bat da gal ahal dezakena eta salba ahal dezakena.

13 Zu ordean nor zare zure lagun proximoa jujeatzen baiduzu? Zuei nagotzue berriz orai erraten duzueni: «Gaur edo bihar goanen gare hunelako hirirat, egonen gare bada han urthe bat, hariko gare merkatalgoan eta irabazi handi bat eginen dugu». 14 Eta ez baidakizue zer gerthatuko den bihar. 15 Zer da ezen zuen bizia, baizen aphur batetakotz agertzen den eta gero suntsitzen den bafore bat? Erran behar zinduketean orduan: «Jainkoak nahi badu eta bizi bagare, eginen dugu hau edo hori». 16 Aitzitik ordean handiesten zarete zuen gogoeta presumituetan. Horla-



ko handieste guzia gaixtoa da. **17** Dakienak bada egin behar duen ungia eta egiten ez duenak bekhatu egiten du.

## V. KAP.

**1** Eia orai, aberatsak, egizue nigar eta marrubia heltzerat dohazkitzuen miserien gaiñean. **2** Zuen aberatstasunak usteldu ditezke eta zuen aldagarriak zedenez janak dire. **3** Zuen urrea eta zilharra herdoildua da eta hekien herdoildurak lekhukotasuna errendatuko du zuen kontra eta janen ditu zuen haragiak su batek bezala. Kolerazko thresor bat bildu duzueke azken egunetako. **4** Horra zuen landetako uztailla egin izan duten langilleei galarazi diezuen saria non dagoen oihuz zuen kontra; eta hekien oihua igan da armadetako Jainkoaren beharrietaraino. **5** Bizi izan zarete atseginpean lurraren gaiñean eta hazi izan ditutzue zuen bihotzak bonbazian hiltzeko egunerainokoan. **6** Kondenatu duzue eta hill duzue justua eta ez darotzue egin kontratarik.

**7** Izan zaitezte beraz pairakor, ene anaiak, Jaunaren ethor eguneraiño. Ikusten duzue laboraria lurraren fruitu preziatua biltzeko esperantzian badagoela pazientki begira lehenbiziko eta azkeneko uriak Jainkoak noiz igorriko diotzan. **8** Izan zaitezte beraz pairakor zuek ere eta atesa zatzitzue zuen bihotzak, zeren Jaunaren ethor eguna hurbill baida. **9** Ez zaitezteela errenkura elkharren kontra, kondenatuak izan ez zaiteztentzat. Horra jujea non dagoen athean. **10** Har zatzitzue, ene anaiak, pasientziazko exenplutzat atsekabeetan eta nekheetan profetak, zeñiak mintzatu baitzaizkitzue Jaunaren izenean. **11** Horra orai dohatsu dagozkagu pairatu izan dutenak. Aditu izan duzue nola pairatu izan dituen Jobek ere gaitzak eta ikusi duzue Jaunak eman zioten akhabantza, ezen Jauna miserikordios da eta urrikalmendutsu.

**12** Guzien gainetik ordean, ene anaiak, ez dagizuela juramenturik ez zeruaz, ez lurraraz, ez bertze zernahi gauzez; baiñan errazue sinpleki «Bai hala da» edo «ezta hala», kondenatuak izan ez zaiteztentzat.

**13** Tristatua da zuetarik norbeit? Egin beza othoitz. Gogoia alegera du? Kanta betza salmuak. **14** Eri da norbeit zuen artean? Erakhar betza Elizako aphezak eta hek egin betzate othoitzak haren gaiñean, gantzutzen dutelarik olioiz Jaunaren izenean. **15** Eta fedearen othoitzak salbatuko du eria, Jainkoa solejituko du eta, baldin bekhatutan bada, barkhatuko zaizko. **16** Konfesa diotzatzue, bada, batak bertzeari zuen bekhatuak eta egi-

zue othoitz elkharrentzat, salba zaitezten amorea gatik; hainitz dagike ezen justuaren othoitz iraunkorrak. **17** Elias gizon bat zen gu bezala, flakitatez bethea; halarik ere othoitz egin baitzuen uririk egin ez zedin gatik lurraren gainerat, etzen egin uririk hirur urthez eta sei ilhabetez. **18** Eta berriz othoitz egin baitzuen, zeruak eman zuen uria eta lurrak ekharri bere fruitua.

**19** Ene anaiak, baldinetariak zuetarik norbeit errebelatzen bada egia- ren bidetik eta norbeitek erakhartzen badu hartarat, **20** jakiteko du bekhatore bat konbertiaraziko duenak eta erakharriko bere errebelamendutik, salbatuko dukela haren arima heriotzetik eta estaliko bekhatuzko multzo handia.



## J. PETRI APOST. LEHENBIZIKO GUTHUNA

### I. KAP.

**1** Piarres Jesukristoren Apostoluak fidel lehortar eta barraiatuak direnei Ponteko, Galaziako, Kapadoziako, Asiako eta Bithiniako probintzietan, **2** hautatuak direnei Jainko Aitaren aitzinetikako jakiñaren arauera, santifikatuak izatekotzat Izpiritu Sainduaz, obeditzekotzat Jesukristori eta haren odolaz ihinzatuak izatekotzat, grazia eta bakea dakizuela eman frankiarekien.

**3** Benedikatua dela Jainko Jesukristo gure Jaunaren Aita, zeïnek bere miseriak handiaren arauz berriz ere sorarazi baigaitu esparantza bizi batekotzat Jesukristoren hiletarik phizteaz, **4** primeza hartakotzat, zeïñetan deus ezin desegiñ, ez ustel, ez zimur baidaiteske, zeïña begiratu baidago zeruetan zuentzat, **5** Jainkoaren berthuteak fediaz begiraten zaituztentzat denboren akhabantzan agertu beharra den salbamendukotz. **6** Horrek behar zaituzte bozkarioz behe, aphur bat orai aflijituak izan behar baduzue ere hainitz herstura suertez, **7** zuen fedea izanik horla frogatua eta hainitz preziatuagoa suaz frogatua den urrea baiño, ediren dadintzat laudorio, ohore eta gloria merezi dukena, Jesukristo ager ditekenean, **8** zeïña ikusi ez duzuelarik maitatzen baiduzue, eta zeïña baithan orai ere ikusten ez duzuelarik sinhesten baiduzue eta, zeren sinhesten duzen, izanen zarete betheak bozkario ezin erranezko eta guziz glorioso batez, **9** heltzen zaretelarik zuen sinhestearen harxederat, zein baida zuen arimen salbamendua.

**10** Salbamendu horren ezagutza bilhatu izan dute ardura handirekien zuentzat zagoen graziaz aitzindanik mintzatu ohi diren profetek; **11** eta lehia baitzuten jakin nahiz, noizko eta zer denboratsutako markatzen othe zioten Jesukristoren Izpirituak, ethorri behar zuenaz jakintsun egiten zituenak, izanen zitezkeela Jesukristoren pairaguneak eta hekien ondoko gloria, **12** erakutsi izan zitzaïen ez zarabiltzabela beretzat, bainan aitzitik zuentzat erabiltzen zituztela oraiko predikariek irakasten darozkitzueten gauzak, zeïnek zerutik igorri zaien Izpiritu Sainduaz predikatu bai darotzue Kristo, zeïñi beha nahi bailukete bethi egon aingeruek ere.

**13** Hargatik bada zuen arimako errainak gerrikaturik eta sobreki bizitzen zaretela, igurikazue esparantza perfet batekien Jesukristo agertuko denean emanen zaitzuen grazia, **14** begiraten zaretelarik haur obedient batzu bezala, lehenago zuen ignorantzian zeïnen nahikareï abandonatzen ziñaiztenean, ohi ziñeten bezalako izatetik.

**15** Aitzitik izan zaitezte saindu zuen bizitzeko manaiu guzian, zuek deithu izan zaituztena saindu den bezala, **16** eskribatua denaz geroz: «Izan zaitezte saindu, zeren ni saindu bainaiz». **17** Eta zuen aita bezala deithoratzten duzenaz geroz presunen berezgunerik gabe batbedera bere obren arauera jujeatzen ohi duena, bizi zaitezte beldurtasunekien lurraren gainean arrotz bezala zaudezen denboran, **18** dakizuelarik ez zaretela gal ditezken gauzez, urrez edo zilharrez, izan erresketatuak zuen aiten ganik hartua zinduten bizitzeko manera ergeletik, **19** baiñan bai Jesukristoren odol preziatuaz, bildots tatxa gabeko eta likhits gabekoarenaz bezala, **20** zeïña ja munduaren kreazioneaz aitzizietik baitzen exlejitua, eta zeïña ordean azken denboretan izan baida agertua zuen gatik, **21** zeïnek hartaz baiduzue sinhesten hura hiletarik biztu izan duen eta gloriar bethe izan duen Jainkoa baithan, zuen sinhestea eta esparantza izan dezazuentzat Jainkoa baithan.

**22** Zuen arimak xahu errendaturik karitatearen legeari obeditzen diozuela, zuen anaien ganako amudioan maita zazue elkhar, bihotzaren barrenetik heldu den amultsutasun batekien. **23** Bizitze berri bat harturik baitzaudezte ez ustel ditekenez hazi batetik, baiñan ezin gal ditekenez batetarik, Jainko biziaren eta eternitate guzian irauten duenaren hitzaz. **24** Ezen haragi den guzia belharra bezala diteke eta gizonaren gloria guzia belhar lorea bezala. Ihartu da bai belharra, erortzen da haren lorea. **25** Jaunaren hitza ordean badago eternitate guzikotz eta hitz hura da Ebanjelioaz zueï irakatsi izan zaitzuen.

### II. KAP.

**1** Utzirik beraz gaixtakeria guziak, tronperia, itxurapen, inbidia eta gaixki errate guziak, **2** orai sorthurikako haur batzuk bezala desira zazue zuhurtziaren esne garbia, hartaz haz zaitezten gatik salbamendukotzat, **3** baldin behintzat dastatu baduzue zein ezta den Jauna.

**4** Haren ganat hurbiltzen zaretelarik, zein baita barri bizia, gizonez bada arbuaiatua, Jainkoaz ordean hautetsia eta toki ohorezkoan ibenia, **5**



zuek ere barri bizi batzu bezala ezar zaitezte haren gainean, moldatzeagatik etxe izpiritual bat, aphezezko bilduma saindu bat, ofrenda diotzuentzat Jainkoari Jesukristoz bere gogarako sakrifizio izpiritualak. **6** Hargatik da Eskrituran errana: «Huna non dudan ezartzen Sionen kantoiñeko barri prinzipala, barri berezia, barri preziatua, eta haren baithan bere sinhestea ibeniko duena ez da ahalkatua izanen». **7** Harri hura beraz ohorezko zaitzue zuei, sinhesten duzuen; sinhesten ez dutenei ordean, bastitzaileek arbuiatu izan duten harria eta kantoiñeko horma bethe egin den hura **8** batzen zaie behaztopamenduko eta eskandalozko harriztat, trebekatzen baidire hitzaren kontra eta ez baidute sinhesten; hortako ere dire ezarriak. **9** Zuek ordean zarete leiñu berezia, aphez erregeen bilduma, nazione saindua, populu irabazia, ezagutaraz detzatzuentzat ilhunbetarik bere argi miragarrizkorat deithu izan zaituztenaren handitasunak, **10** noizbeit Jainkoaren populua ez ohi ziñetenak, orai ordean haren populu zaretenak; miserikordia ardietsi ez zindutenak, orai ordean ardietsi duzuenak.

**11** Maiteak, errekeritzen zaituztet arrotz eta bideante zareten bezala, arren begira zaitezten haragikarako desirkundetarik, zeñiek gudu ematen baidiote arimari, **12** ibilgune on bat dadukazuela jentillen artean, zuetaz gaixki egille batzuz bezala erasten duten orde, zuen baithan ikusiko dituzketen obra onen ariaz gloria eman diozatzentzat Jainkoari bere bisitako egunean.

**13** Zareten bada presuna suerte guzien manuko Jainkoa gatik: hala erregeren, guzien gaiñeko denaren bezala, **14** hala gobernadoreen, hartaz igorriak direnen bezala gaizki egilleen punitzeko eta prestuen alde izateko, **15** zeren borla baida Jainkoaren nahia: ungi eginez ixilaraz detzatzuen gizon ignorantak eta zoratuak, **16** libro zaretenak bezala, ez zuen libertatea gaixtakeriaren estakurutzat baliaratzitzeko, aitzitik bai Jainkoaren zerbitzari bezala ibiltzeko. **17** Guziak ohora zatzue; anaiak maita zatzue; zareten Jainkoaren beldur; errege errespetatuz. **18** Sehiak, zareten errespetu suerte guziarekien zuen nausien manuko, ez xoilki prestu eta manso direnen, baiñan halaber dorphe eta bihurri direnen ere, **19** ezen Jainkoari lakhet zaioena da, haren gogara egitea gatik jasan detzan nihork bere gaixak eta injustuki pairarazitzen diotzaten behazunak. **20** Ezen zertaz zindukete gloriatzeko, baldin zuen falten gatik jasaten badituzte tratamendu gaixtoak? Bainan ungi egiten duzuelarik pasientki pairatzen badituzte, hura da Jainkoaren gogara dena.

**21** Hortarat zarete ezen deithuak, halaz eta Jesukristok ere pairatu izan duenaz geroz gure gatik, exenplu uzten darotzuela, jarraik zakiztentzat haren urratsei; **22** zeñiek ez baidu egin bekhatuak eta zeñien ahotik ez baida ilkhi egundaiño enganiozko hitzik; **23** zeinek ahakarrez jazarri izan zaioenean, ez baidu hitz gaixtorik ihardetsi; zeinek gaixki egin izan diotenean, ez baidu egin dixidurik ere; aitzitik bere burua ezarri izan baidu injustuki jujeatzen zuenaren eskuetarat; **24** zeñiek gure bekhatuak berak garraiatu izan baiditu bere gorphutzean gurutzareen gaiñean, bekhatuari hillak izanik bizi gakizkoentzat justiziari; zeñiaren zauriez finean izan baitzarete sendatuak. **25** Ziñeten ezen ardi errebelatu batzu bezala, bainan itzuli izan zarete orai zuen arimen artzaiña ganat eta aphezpikua ganat.

### III. KAP.

**1** Halaber emasteak izan beitez bere senharren manuko, baldin bada hetarik zenbeit hitza sinhesten ez duenik, emasteen bizitzeko molde onaz irabaziak izan daitezentzat hitzaren laguntza gabe. **2** Konsideraturik Jainkoaren beldurtasunak zuei inspiratzen darotzuen konportamendu garbia, **3** zuen berregintza ez bedi izan kanpokoa, illeen izurduran, urrezko paramendutan edo tresna ederretan agertzen dena, **4** baiñan izan bedi bihotzeko gizon gordea, izpiritu eme eta sosegu baten garbitasun perfetean dagoena, zein baida Jainkoaren aitzinean balio handi batetakoa. **5** Horla ezen lehenago Jainkoa baithan esperantza zuten emasteak aphaintzen ohi ziren bere senharren manuko zaudezelarik. **6** Hala nola Sarak obeditzen baitzuen Abraham, bere jauna deitzen zuela; Sarak diot, zeinaren alabak izan baizaitzekete ungi eginez eta altaramendu garaben ez beldur izanez.

**7** Senharrak halaber bizi zaitezte zuen emasteekien zuhurki, baxera hautskorrako den bati bezala ohore ekhartzen diozuela, zeren diren emaste; konsideraturik zuen herederokide direla bizi ematen duen graziaren, zuen orazioneek trabarik aurkhi ez dezaten gatik. **8** Finean bada duzuen guziek izpiritu bat eta bera elkharentzat, urrikalmendu amultsu bat, anaiatasunezko amudio bat. Zareten barkhatiar, eme eta humill. **9** Ez dezazuela bihur gaixkia gaixkiarentzat, ez ahakarra ahakarrarentzat, aitzitik ihardetsazue benedizione emanez, zeren hortarat baitzarete deithuak, benedizionezko heredalgoa errezibi dezazuentzat.

**10** «Nork ere nahi baidu ezen bizitzeaz gozatu eta nahi baiditu bere egunak dohatsu ikusi, begira beza bere mihia gaixki erratetik eta bere



ezpaiñak enganiozko hitzetarik. **11** Aldara bedi gaixkitik eta egin beza ungia; bilha beza bakea eta jarraik bekio hari, **12** zeren Jaunaren begiak idekiak baidire justuen gainerat eta haren beharriak erne hekien othoitze-tarat; Jaunak ordean bekhurunde dorphea egiten diote gaixkiak egiten dituztenei».

**13** Eta nor da zuei kalterik egin diezazuekenik, ungi egiterat lehia bazarete? **14** Halarik ere, baldin zerbeit sofritzen baduzue justizia gatik, dohatsu zaitzekete; hekien beldurrez ordean ez zaitzela izi eta ez altara. **15** Baiñan Jesukristo Jaunaren saildutasunari eman diozozue gloria zuen bihotzetan. Eta zaretan bethi prest ihardesterat esparantza duzuenaz arrosain galdegiñen darotzueketen guziei, **16** ordean emetasunekien eta goardiarekien konszientzia xahu dadukazuelarik, zuetaz gaixki erasteaz ahalka daitezentzat zuek Jesukristo baithan daramazuen bizitze saildua itzalgaitzkatzen dutenak. **17** Hobe da ezen ungi egiten hari zaretelarik, Jainkoaren nahia hala bada, pairatzea, ezen ez gaixki egiten hari zaretelarik, **18** halaz eta Jesukristo bera ere behin gure bekhathuen gatik hill izan denaz geroz, justua injustuen gatik, gu Jainkoari ofrendatzea gatik; hilla izanik alabainan bere haragian, biztua izanik ordean Izpirituaz; **19** zeñetaz halaber goan baitzitzaien predikatzerat presondegian ziren izpirituei, **20** zeñiak sinhetsgogor izan baitziren noizbeit, Jainkoaren pasientziaren begira zaudezenezan Noeren denboran, arkaren preparatzen hari zirenean, zeñetan gutiak, erran nahi da zortzi arima, izan baitziren salbatu zirenak uraren erdian.

**21** Hala zuek ere orai figura hari ihardesten dioen bathaioak zaituzte salbatzen, ez haragia bere lohigunetarik garbitzen duenak, balitan konszientzia Jainkoaren alderat xahu egoterat behartzen duenak Jesukristoren phizteaz, **22** zein baida Jainkoaren eskuñean heriotzea hondatu duen ondoan, gu bizitze eternalaren herederu egin gintezen gatik iganik zerurat, eta bere azpiko eginik aingeruak, bothereak eta berthuteak.

#### IV. KAP.

**1** Bada Jesukristok pairatu izan duenaz geroz bere haragian, zuek ere arma zaitzete gogantze huntaz: nor ere hill baitzaio haragiari, eta haina gelditu dela bekhatu egitetik, **2** gaur gehiago haragian bizitzeko gelditzen zaioen denbora guzian bizitzea gatik ez gizonen gutzieren arauera, baiñan bai Jainkoaren nahiaren arauera. **3** Ezen aski izan behar zaie, iragan dute-

la denborarik jentilien pasioneak kontentatzen, ibilli izan ohi direnei lohi-kerietan, gutzia gaixtoetan, hordikerietan, jankorretan, deboxkerietan eta idolen adorazione sakrilegoetan, **4** orai miretsiak baidaudez nola ez zabil-tzaten hek bezala lohikeria eta desordenu beren ondoan eta blasfemioz baidaudez zuen kontra.

**5** Baiñan kontu errendatuko diote biziak eta hillak jujeatzerat prest presta dagoenari. **6** Horren gatik predikatu izan ere ohi zaie Ebanjelioa hillei; kondenatuak direlarik gizonen aitzinean haragiaren arauetz, bizi dai-tezen gatik Izpirituaren arauetz Jainkoaren aitzinean. **7** Gauza guzien akha-bantza bada hurbill da. Zabilzate beraz zuhurki eta zaretan atzarriak othoitz egiterat. **8** Gauza guzien gainetik ordean duzuen elkharganako karitate bethi dirauken bat, zeren karitateak estaltzen baidu bekhathuen multzo handia. **9** Zaretan elkharren ostatuz errezibitzaile erasiarik gabe. **10** Batbederak errezibitu duken dohaiñaren arauera zerbitzu errenda bio-zate bertzei, Jainkoaren grazia diferententz dispentsatzaile on bezala.

**11** Baldin norbeit mintzo bada, ageri izan bedi Jainkoa mintzo dela haren ahoz; baldin norbeit zerbait ministeriotan zerbitzatzan badu, zerbitza beza Jainkoak eman dioken berthuteaz bezala, gauza guzietan glorifikatua izan dadin gatik Jainkoa Jesukristoz, zeñi baidagoka gloria eta nausitasuna mendetako mendeetan. Amen.

**12** Ene maiteak, ez dezazuela estranio aurki Jainkoak aflixioenen suaz frogatzen zaituztenean, zerbeit gauza ohiz kanpoko heltzen balitzai-tzue bezala. **13** Aitzitik boz zaitzete, zeren zaretan parzuner Jesukristoren sofrikarietan, haren gloria agertuko denean bozkarioz betheak izan zai-teztentzat. **14** Baldin iroiak eta injurioak pairatzen baditutuzue Jesukristo-ren izena gatik, dohatsu zarete, zergatik ohore, gloria eta Jainkozko bert-hute den guzia eta haren Izpiritua bera ere errepausatzen baida zuen gaiñean. **15** Zuetarik bada nihork ez dezan paira gizon hiltzaille bezala edo ohoin edo gaixki erraille edo bertzeren onen gutzios bezala.

**16** Baldin ordean pairatzen badu giristiño bezala, ez dadillala ahalka; aitzitik glorifika beza Jainkoa aria hortaz. **17** Ezen huna non den ordua, zeñetan hasi behar baidu jujeamenduak Jainkoaren etxetik; bada baldin gure ganik hasten bada, zer izanen da haiñen akhabantza, zeñiek ez bai-dute sinhesten Jainkoaren Ebanjelioa? **18** Eta baldin justua nekhez bada salbatzen, non agertuko da gaixtagina eta bekhatorea? **19** Halatan bada Jainkoaren nahiaren arauera pairatzen dutenek, obra onetan hari direlarik, gomenda biotzote bere arimak bere kreatorre fidelari.





## V. KAP.

**1** Zuen artean diren aphezei, bada, othoitz hau diotet egiten nie, zein bainaiz hek bezala aphez eta are Jesukristoren sofrikarien lekhuko eta bai egun batez agertu behar duen gloria haren ere: **2** Bazka zazue Jainkoaren arthaldea kargutan eman zaitzuekena, hartaz artha hartzen duzuelarik ez gogoaren bortxa, baiñan gogo onez, Jainkoaren arauera; ez irabazi lizun baten guraz, balitan amudioz; **3** ez eta Jaunaren primezaren gaiñean nausi egiten zaretelarik, bainan artaldearen exenplu izaterat zuen gogo guziaz jartzen zaretelarik. **4** Eta agertuko denean artzaiñen printzea, errezeituko dukezue gloriatzko khoroa, iraganen ez dena.

**5** Halaber, gasteak, zareten zaharragoen manuko. Guziak bada lehia zaitzte elkharren alderat humill agertzera; zeren Jainkoa kontra jartzen baitzaie superbioei, eta aitzitik humillei baidiote ematen bere grazia. **6** Humilia zaitzte beraz Jainkoaren esku botheretsuaren azpian, altxa zaitzarentzat bere bisitaren denboran, **7** zuen grina guzia etxatzen duzuelarik haren ganat, zergatik artha baidaduka zuetaz. **8** Zareten sobre eta erne, zeren deabrua zuen etsaia lehoin marrubialari bat bezala ingurutan baidabiltzue zein irets othe dezaken bilha. **9** Egiozue kontra fedean tieso atkekiz zaudeztelarik, dakusazuelarik munduan ditutzuen anaiek gauza berak dituztela pairatzeko.

**10** Grazia guzien Jainkoak bada, zeñek deithu izan baigaitu bere gloria eternalerat Jesukristo baithan, aphur bat pairatu dukezuenean berak zaituzte perfet errendatuko, borthiztuko eta atesatuko. **11** Hari dagoko gloria eta nausitasuna mendetako mendeetan. Amen.

**12** Silbano gure anaia fidelarekin eskribatu darotzuet laburki neure ustez; deklaraten eta frogatzen darotzuedalarik Jainkoaren egiazko grazia dela, zuek zeñetan baitzaudezte, eta hura. **13** Salututzen zaituzte Babilonian den Elizak, eta zuek bezala hautatua denak, bai eta ene seme Mark-ek ere. **14** Saluta zazue elkhar musu saindu batez. Grazia dela zuekien guziekien, zeinak baitzarete Jesukristo baithan. Amen.

## J. PETRI APOST. BIGARREN GUTHUNA

### I. KAP.

**1** Simon Piarres, Jesukristoren zerbitzariak eta Apostoluak, guk bezala fedearen dohaiña ardietsi izan dutenei gure Jainko eta Salbatzaille Jesukristoren justiziarekien: **2** grazia eta bakea dakizuela eman frankiaz Jainkoaren eta Jesukristo gure Jaunaren ezagutzan, **3** nola haren bothere dibinoak eman izan baidarozkigu bizitzeari eta jainkotiartasunari dagozkon guziak, guri ezagutarazitzeaz bere gloria eta berthute propioaz deithu izan ohi gaituena, **4** zeñetaz eman izan ohi baidarozkigu agindurikako grazia handiak eta preziatuak, hetaz egin zaitzengatik natura dibinoaren partale, ihes egiten diozuelarik munduan erregiñatzen ohi duen gutziaren korruptzionari.

**5** Zuek ere bada zuen aldetik ardura eta lehia guzizko bat behar duzue ekharri, iratxakitzeko zuen fedeari berthutea, berthuteari jakintza, **6** jakintzari berriz tenperantzia, tenperantziari pasientzia, pasientziari jainkotiartasuna, **7** jainkotiartasunari anaien alderako amudioa, anaien alderako amudioari berriz karitatea. **8** Baldin ezen horiek zuen baithan edireten badire eta berretuz badohaz, ez zaituzte alfer utziko eta fruitu gabe Jesukristo gure Jaunaren ezagutza duzuenarekien. **9** Halaber horiek ez dituen aitsu da eta hastamuka dabilla, ahantzirik bere bekhatu zaharretarik nola izan den garbitua.

**10** Hargatik bada, ene anaiak, lehia zaitzte obra onez zuen deiha eta berezkoa gerthu errendatzerat, ezen horla hari zaretela ez duzue bekhatu egien nihoiz ere, **11** eta bide hortaz emanen darotzue Jainkoak frankoki Jesukristo gure Jaunaren eta Salbatzaillearen erresuma eternalako sarpidea. **12** Horri dagokala izanen dut ardura gauza horietaz bethiere zuek orhoitarazitzeko, jakintsun eta borthiztuak zareten arren egia hune-taz. **13** Uste dut ezen justu dela gorphutz huntako etxolan naizeino, atzarraz zaitzatedan ene abenikoez. **14** Segur bainaiz sarri utzi behar dudala ene gorphutzaren etxola, Jesukristo gure Jaunak ezagutarazi darotanaren arauera. **15** Artha idukiko dut ordean, ni hill ondoan ere izan dezazuen behar duena gauza hautaz orhoitzeko.



**16** Ez darotzuegu ezen elhe berriei eta asmu berreginei jarreikiz eza-gutarazi Jesukristo gure Jaunaren botherea eta ethorgunea, baiñan bai geronek ikusirik haren majestatea, **17** ezen errezibitu izan zuen Jainko Aita ganik ohore eta gloria, haren handitasunari zagokon gloriape baten erditik ethorri zitzaioen boz hau aditu izan zenean: «Hau da ene Seme maittea, zeinietan edireten baidut ene atsegin guzia. Hau adi zazue». **18** Eta boz hura zerutik heldu zela geronek aditu izan ginduen, harekien ginaudezela mendi sainduan.

**19** Baiñan baditugu profeten erranak ere zinki aski daudezenak, zeini ungi egiten baiduzue behatzeaz, lekhu ilhunbetsu batean argitzen duen zuzia bati bezala, eguna argitzen has daiteken artean zuen bihotzetan, **20** guzien gaintetik gogoan dadukazuelarik Eskriturako profeziarik batere ez dela, interpretazione berezi batez explikatzen denik. **21** Ez zaizkigu ezen gizonen borondatez ekharriak izatu profeziak lehenago, bainan Izpiritu Sainduaren mobimenduz mintzatu izan dire Jainkoaren gizon sainduak.

## II. KAP.

**1** Izatu dire bada profeta falsoak populuaren artean, zuen artean ere izanen diren bezala nausi gezurtiak, zeinek sararaziko baidituzte heresia galgarri batzu; eta ukhaturik erosi izan dituen Jauna, erakharriko baidute bere buruen gaiñerat galtzpen lauster bat. **2** Hainitz jarreikiko zaizte hekien deboxkeria lohiei, zeinak direla kausa blasfemiak egiñen baidire egiaren bidearen kontra, **3** eta bere abarizian, hitz ederrez enganatzen zaituztelarik, merkaduria bat egiñen dute zuen arimez. Haiñen kondenazio-nea ja aspaldidanik hor heldu da trikatu gaberik eta hekien galtzapena ez datza lo.

**4** Baldinetariak ezen Jainkoak ez baditu guphida izatu bekhatu egin duten aingeruak, aitzitik ifernuko gatheetz gaiñetik erautsirik arthiki badi-tu lezean behera, han tormentatuak izateko eta jujeamenduko eguneraiño aldaratuak izateko, **5** baldin lehenago mundua ez badu guphida izatu eta Noe justiziaren predikaria xoilki bera zortzigarren salbatu izan badu, uholdea gaixtaginen munduaren gaiñerat erakharri zuenean, **6** baldin Sodomako eta Gomorrako hiriak hautsetan ezarririk galtzpen oso bate-tarat kondenatu izan baditu, gaixtakerian biziko direnen exenpluztat hek ezartzeko, **7** eta Lot justua, higingarri hek bere bizitze infameaz lazeria-tzen eta persekutatzen zutena, libratu izan badu, **8** begiratzet ezen eta adi-

tzet ere justua zen, egunetik egunerat haren arima justua bere egitate gaix-toez afljitzten zuten jendeen artean zegoelarik, **9** baidaki Jaunak haren bel-durtasuna dakharketanak perilletik atheratzen; gaixtaginak berriz jujea-menduko egunekotz idukitzen punituak izateko, **10** gehienik ordean bere gutizia lohien kontentatzeko haragiaren mugidei darraiztenak, nausien autoritateaz trufatzen direnak, atrebitu eta bere buruez pagu direnak, eta dotrina xahuaz gaixki darasatela heresia berrien sortzerat herabe ez dire-nak, **11** aingeruak indarrez eta bai botherez handiago direlarik, elkharren kontra madarikazionezko jujeamendurik ematen ez duten orduan.

**12** Baiñan hauk arrozoin gabeko abre, bere izatez atzemanak eta gal-duak izateko egiñak diren batzu bezala blasfematzen hari dire ez dakiki-ten gauzen kontra; bere uherduran suntsitu beharrak ditezke, **13** eta erre-zibituko dute bere gaixtakeriaren saria; bere atsegiña ematen baidute egun guzia atseginpean eramatean; laidoa eta lizunkeria bera ere dire eta plaze-rez aseak abandonatzen zaitezte jan edan sobraniazkoei, zuekien egiten dituzten otruntza karitatezkoetan ere. **14** Begiak betheak dituzte adulte-rioz eta akhabantzarik ez duen gaixtakeria batez; azikatzen dituzte arima ariñak eta ergelak; gogo anzetsu bat dute abariziatkotz; madarizionezko ume batzu dire.

**15** Bide xuxena utzirik errebelatuak dabilta Balaam Bosor-en semea-ren bideari darraizkola, zeiniek maitatu izan baitzuen bere inikitatearen saria, **16** zein ordean zentzua izan baitzen bere olde zoratuaz, astaka abre mutu batek gizon gisa mintzaturik baratu baitzuen profeta haren zora-mendua. **17** Haiñak dire ithurri batzu urgabeak, hedoi batzu haize buhun-baz erabilliak, zeinientzat baidaudez ilhunbezko lanhoa beltzak. **18** Min-tzatze nausitxo eta fidoz batez ezen azikatzen dituzte haragiaren nahika-ra lohietarat, enganioan bizi ziren jendeetarik doi doa aldaratuak ditezken presunak, **19** libertatea hainegi agintzen diotela berak uhergunearen eskla-bo direlarik, halaz eta nortaz ere nihor baida garaitua, eta haren esklabo denaz geroz.

**20** Baldinetariak ezen, aldaratu ondoan munduko kutsagune gaixto-etarik ezaguturik Jesukristo gure Jauna eta gure salbatzaillea, berriz ere hetan koaitatzen badire, bere buruak uzten badiuzte garaitzerat, hekien azken izatea gaixtoagoa egiten da are lehena baiño. **21** Hobe zuketen ezen ez ezagutu izatea justiziaren bidea, ezen ez ezagutu ondoan gibelat bihur-tzea eta eman izan zaien lege saindua abandonatzea. **22** Baiñan hei gert-hatzen ohi zaie errefau egitiak erraten duena: «Ozarra bihurtu diteke



bere goragalerat eta ahardia, garbitua izan ondoan, berriz ere basan iraulzkatzerat».

### III. KAP.

**1** Huna, ene maiteak, bigarren buhuna eskribatzen darotzuedana, eta batean eta bertzean atzarrarazi hari nahiz ene abenikoez zuen izpiritu zuzentasunez betheak, **2** orhoit zaiteztentzat profeta sainduen erranez, zeñez ja mintzatu izan bainaiz, eta Jaunak eta Salbatzailleak apostolutzat eman darozkitzuenen mezuez, **3** guzien gainetik gogoan duzuelarik ethorriko direla azken denboretan trufari batzu enganioz betheak, bere gutizia propialen arauera dabilzkanak, **4** erranen dutenak: «Non da haren ethorriko zelako agintza? Gure aitak hillak dauntzanaz geroztik ezen, gauza guziek munduaren hastapenetik ohi ziren bezala dirae». **5** Berariaz eki daudez jakin gabe, zeruak egin izan zirela lehenbizitik Jainkoaren hitzaz eta bai lurra ere, zeñia uraren barnetik atheratua baidago uren erdian. **6** Eta hetaz berez izan zen bizkitartean galdua orduko mundua, urez hondatua izanik.

**7** Bada orai diren zeruak eta lurra hitz beraz daudez begiratuak suz erreak izateko jujeamenduko egunean eta gaixtaginen galtzapeneko egunean. **8** Gauza bat da bederen, ene maiteak, guziz jakin behar duzuen: egun bat Jaunaren begietan milla urthe bezala eta milla urthe egun bat bezala direla. **9** Eta hala ez du berantzen Jaunak bere agindua konplitzerat, zenbeitek uste duten bezala, baiñan pairatuki hari da zuen gatik, ez nahiz nihor gal dadin, aitzitik bai guziak dathozen penitentziarat. **10** Ethorriko da bada Jaunaren eguna betbetan ohoin bat bezala eta orduan zeruak iraganen ditezke habarrots handirekien, elementak urthuko dire suaren bizitasunez, lurra berriz eta hartan diren obra guziak erreko dire.

**11** Horiek guziak suntsitu beharrak direnaz geroz, nolakoak behar duzue izan eta nolakoa behar da izan zuen bizitzearen saindutasuna eta zuen jainkotiartasuna, **12** igurikitzen baiduzue eta lehiatuki desiratzen ere Jauna ethor daiteken denbora, zeinetan zeruak suntsituko baidire irazakiz eta elementak urthuko suaren berotasunez? **13** Haren agintzaren arauera ordean zeru berri batzuen eta lur berri baten ustean gaudez, zeñetan justiziak egiñen baidu bere egoitza.

**14** Horri dagokala, ene maiteak, gauza horien ustean lehia zaitezte bizitze garbi eta erratekorik gabeko batez aurkhi zaitzaten bakean, **15** eta

sinhetsazue gure Jaunaren pasientzia luzea zuen onetako dela, hala nola Paulo gure anaia maiteak ere eskribatu izan baidarotzue eman izan zaioen zuhurtziaren arauera; **16** egiten ere duen bezala bere buhun guzietan mintzo denean gauza borietaz, zeñetan baidire toki batzu aditzeko gaitz direnak, ignoranteek eta arinek makhur hartzen dituztenak, bertze Eskriturak ere bezala, bere galtzapenetan.

**17** Zuek bada, ene anaiak, aitzinetik hortaz jakintsun eginak zaretan bezala, begirautzue gizon zoratu hekien enganioak eramanik eror ez zaitzetzen orai zaudezten fermutasunetik. **18** Aitzitik zabiltzate berretuz Jesu-kristo gure Jaunaren eta Salbatzaillearen grazian eta ezagutzan. Hari gloria bai orai eta bai eternitateko eguneraiño. Amen.



## J. JAUNI APOST. LEHENBIZIKO GUTHUNA

### I. KAP.

**1** Haste hastetik zena, aditu izan duguna, gere begiz ikusi izan duguna, miratu izan duguna eta gure eskuek hazkatu izan dutena bizitzearen Berboaren ariaz **2** (ezen bizitzea agertu izan da eta ikusi dugu, lekhukotasuna hartaz errendatzen dugu eta irakasten darotzuegu bizitze eternal hura, Aita baithan zena eta guri agertu izan zaikuna), **3** ikusi izan duguna (diot) darotzuegu irakasten, kuez ere sar zaitezten gatik parzunerkoan gurekien, eta gure parzunerkoa izan dadin gatik Aitarekien eta haren Seme Jesukristorekien. **4** Eta hau darotzuegu eskribatzen boz zaitezten gatik eta zuen bozkarioa izan dadin gatik konplia.

**5** Hauxe da bada Jesukristo ganik ikhasi izan duguna eta zuei irakasten darotzueguna: Jainkoa argia bera dela eta ilhunbe garabik ez dela haren baithan. **6** Baldinetariak erraten badugu parzunerkoa dugula harekien eta ilhunbeetan bagabiltza, gezurra erraten dugu eta ez gare egian hari. **7** Baldin ordean argian bagabiltza bera argian den bezala, parzunerkoa dukegu elkharrekien eta Jesukristo haren Semearen odolak garbitzen gaitu bekhatu guzietarik.

**8** Baldin erraten badugu bekhatuik ez dugula, gere buruak engantzen ditugu eta egia ez da gure baithan. **9** Baldin aithortzen baditugu gure bekhatuak, hura leial da eta justu barkhatzeko guri gure bekhatuak eta garbitzeko gu gaixtakeria guzietarik. **10** Baldin erraten badugu ez dugula egin bekhatuik, hura dugu gezurti egiten eta haren hitza ez diteke gure baithan.

### II. KAP.

**1** Ene haurtxoak, hau eskribatzen darotzuetet bekhatuik egin ez dezazuen gatik; baldin ordean nihor heldu bada ere bekhatu egiterat, badugu abokat bat Aitaren aldean, Jesukristo, guzia justua dena. **2** Bera da eta biktima gure bekhatuen barkharazitzekoa, eta ez xoilki gureen, baiñan halaber mundu guziarenen.

**3** Eta huntan dakusagu hura ezagutzen dugula: baldin haren manamenduak begiratzen baditugu. **4** Nork ere erraten baidu hura ezagutzen duela eta haren manamenduak ez baiditu begiratzen, gezurti bat da eta egia ez da haren baithan. **5** Nork ere ordean begiratzen baiditu haren erranak, eta hark du egiazki amudio perfet bat Jainkoarentzat. Hortan ezagutzen dugu haren baithan garela. **6** Nork ere erraten baidu Jesukristo baithan dagoela, behar du hark ere ibilli Jesukristo ibilli izan den bezala.

**7** Ene maiteak, ez darotzuetet manamendu berri bat eskribatzen, baiñan bai hastetik izan duzuen manamendu zaharra; manamendu zahar hura da zuek aditu izan duzuen hitza. **8** Bertze alde nik eskribatzen darotzuetedana manamendu berri bat da, eta hori egia da Jesukristo baithan eta bai zuen baithan, zeren ilhunbeak iragan baidire eta egiazko argiak ja argitzen baidu. **9** Nork ere erraten baidu argian dela eta bere anaia gaitzesten badu, haiña ilhunbeetan da oraiñoakoan. **10** Bere anaia maite duena argian dago eta behaztopatzerik haren baithan ez da. **11** Baiñan bere anaia gaitzesten duena ilhunbeetan da, ilhunbean dabilla eta ez daki norat dohan, zeren ilhunbeek itsutu baidiotzate begiak.

**12** Eskribatzen darotzuetet zuei, ene haurtxoak, zeren barkhatzen baitzaizkitzue zuen bekhatuak Jesukristoren izena gatik. **13** Eskribatzen darotzuet zuei, aitak, zeren ezagutu baiduzue haste hastetik dena. Eskribatzen darotzuet zuei, gasteak, garaitu baiduzue izpiritu gaixtoa. **14** Eskribatzen darotzuet zuei, haurrak, zeren ezagutu baiduzue Aita. Eskribatzen darotzuet zuei, gasteak, zeren indartsu baitzarete, Jainkoaren hitza zuen baithan egoten baida eta garaitu baiduzue izpiritu gaixtoa.

**15** Ez dezazuela maita mundua, ez eta munduan diren gauzetarik deusere. Baldin nihork maitatzen badu mundua, ez da Aitaren amudioa haiña baithan, **16** ezen munduan diteken guzia edo da haragiaren gutizia, edo begietako gutizia, edo bizitzearen superbioa; eta hori ez da Aita ganik heldu dena, baiñan bai mundua ganik. **17** Mundua iragaten da eta bai haren gutizia ere; ordean Jainkoaren nahia egiten dukena sekulakotz dago.

**18** Ene haurtxoak, azkeneko orena diteke, eta aditu duzuen bezala Antekristok ethorri behar duela, orai danik ere badire hainitz Antekristo, eta hortik dakusagu azkeneko orenean garela. **19** Gure ganik ilkhi dire, baiñan ez ziren guretarik; ezen guretarik izan balire, gurekien egonen bide ziren; bainan agertu behar baitzuten ez direla guziak guretarik. **20** Zuez denaz bezanbatean, errezibitu duzue sainduaren zaporea eta ezagutzen ditutzue gauza guziak. **21** Ez darotzuet ere eskribatu egia ezagutzen



ez duten batzuei bezala, aitzitik bai hura ezagutzen dutenei bezala eta dakitenei bezala gezurrik batere ez dela heldu egiatik. **22** Nor da gezurtia, baizen Jesus dela Kristo ukhatzen duena? Huraxe da Antekrist bat, Afta eta Semea ukhatzen dituen. **23** Nork ere ukhatzen baidu Semea, eta haiñak ez du ezagutzen Afta ere; nork ere aithortzen baidu Semea, eta haiñak du Aita ere ezagutzen.

**24** Zuetaz denaz bezanbatean, hastetik ikhasi izan duzuen bego bet-hiere zuen baithan; baldinetariak zuen baithan badago bethiere hastape-netik ikhasi izan duzuen, zebonek ere egonen zarete Semea baithan eta Aita baithan. **25** Eta hori da ere agintza, berak egin izan darokuna, agindu izan darokunean bizitze eternala.

**26** Hau darotzuetet eskribatu zuek enganatzen zaituztenen ariaz. **27** Ordean zuek Jainkoaren Semea ganik errezebitu izan duzuen zaporea bego zuen baithan, eta ez duzueke mengoarik nihork irakhats zaitzaten; bainan nola zapore hark berak irakasten baidarozkitzue gauza guziak eta hura baida egia gezurrik batere gabekoa, zaudete hark irakatsi izan daro-tzuenean.

**28** Guziz orai, ene haurtxoak, zaudete zinki hartan, Jainkoaren Semea agertuko denean izan dezaguntzat fidantzia eta ahalkeriaz bethe ez gaitzan bere ethor egunean. **29** Baldin badakizue Jainkoa justua dela, jaki-zue justziaren arauera nor ere bizi baida, eta hura haren ganik sorthua dela.

### III. KAP.

**1** Ikusazue nolako amudioa erakutsi izan darokun Aitak, nahi baidu Jainkoaren ume deith gaitzen eta izan ere gaitzen. Hargatik munduak ez gaitu ezagutzen, zeren ez baidu ezagutzen hura ere. **2** Ene maiteak, orai danik Jainkoaren ume gare, ordean ez da oraiño ageri zer izanen garen; badakigu Jesukristo agertuko denean bere glorian, hura iduriko dugula, zeren ikusiko baidugu den bezala. **3** Eta nork ere baidu esperantza hori haren baithan, eta haiña santifikatzen da, hura bera ere saindu den bezala.

**4** Nork ere egiten baidu bekhatu, eta haiñak legearen kontra egiten du, ezen bekhatua legearen kontra dena da. **5** Eta badakizue hura agertu izan dela gure bekhatuen khentzeko, eta bekhatuik ez baida haren bait-han. **6** Nor ere haren baithan egoten baida, eta haiñak ez du bekhatuik egiten; eta nork ere bekhatu egiten baidu, eta haiñak ez duke hura ikusi,

ez ezagutu. **7** Ene haurtxoak, nihork ez zaitzatelengana. Justiziazko obrak egiten dituen da justua, hala nola Jesukristo baida justua. **8** Bekhatu egiten duena deabruaren ume da, zeren deabrua hastetik bekhatu egiten hari baida; eta aria hortaz ethorri izan da mundurat Jainkoaren Semea, deabruaren obren desegitea gatik. **9** Jainkoa ganik sorthu denak ez du egiten bekhatuik, zeren Jainkoaren hazia haren baithan baidago; eta ezin dagike ere bekhatuik, zeren Jainkoa ganik sorthua baida.

**10** Hortan dire ageri Jainkoaren umeak eta deabruaren umeak; nor ere ez baida justua, ez da Jainkoa ganik, ez eta halaber bere anaia maite ez duena ere. **11** Hau da ezen hastetik irakatsi izan zaitzuen eta aditu izan duzuen: dezazuen elkhar maita. **12** Izan ez zaitezten Kain bezala, zein baitzen izpiritu gaixtoaren ume eta zeinnek hill baitzuen bere anaia. Eta zergatik hill zuen? Zeren haren egitateak baitziren gaixtoak, anaiarenak aitzitik baitziren justuak. **13** Ez dezazuela mirets, ene anaiak, baldin munduak higin bazaituzte. **14** Guk huntan dakusagu iragan garela heriotzetik bizitzerat: maite baiditugu gure anaiak. Maitatzen ez duena heriotzean dago. **15** Nork ere gaitzesten baidu bere anaia, eta haiña gizon hillzaille bat da; eta badakizue gizon hiltzaillek batek ere ez duela bizitze eternala bere baithan egotiar.

**16** Huntan dugu ezagutzen Jainkoaren amudioa gure alderako: bere bizia eman izan baidu gure gatik, guk ere eman behar dugu bizia gure anaientzat. **17** Norbeitek duelarik mundu huntako ontasunetarik, ikusten badu bere anaia beharrean eta zarratzen badio bere bihotza, nola egon daiteke Jainkoaren amudioa haren baithan? **18** Ene haurtxoak, ez dezagula malta hitzez eta mihiz, bainan bai obrez eta egiaz. **19** Hortan ezagutzen dugu egiaren ume garela; eta ditugu Jainkoaren aitzinean gogoatuko hortaz gure bihotzak. **20** Baldinetariak ezen kondenatzen bagaitu gure bihotzak, gehiago bide da Jainkoa gure bihotza baiño, eta ezagutzen baiditu gauza guziak. **21** Ene maiteak, gere bihotzak ez bagaitu kondenatzen, fidantzia badugu Jainkoaren aitzinean, **22** eta zer nahi galde diozogun, errezebituko dugu haren ganik, zergatik haren manamenduak begiratzen baiditugu eta hari agradatzen zaioen egiten baidugu.

**23** Eta hau da haren manamendua: sinhets dezagun haren Seme Jesukristoren izenean, eta maita dezagun elkhar, manua eman darokun bezala. **24** Bada haren manamenduak begiratzen dituen haren baithan egoten da eta hura berriz haren baithan; eta hortan ezagutzen dugu berak eman darokun Izpirituaz gure baithan egoten dela.



#### IV. KAP.

1 Ene maiteak, ez detzatzuela sinhets izpiritu guziak; aitzitik froga zatzitzue izpirituak hea Jainkoa ganik diren, ezen hainitz profeta falso ethorri dire mundurat. 2 Huntanxe ezagutzen ditugu Jainkoa ganikako izpirituak: Jesukristo haragizko gorphutz batekien ethorri izan dela aithortzen duen izpiritu guzia Jainkoa ganik diteke. 3 Eta Jesukristo partitzen duen izpiritu guzia ez da Jainkoa ganik; eta hura diteke Antekristo, zeinhetaz aditu baiduzue erraten heldu dela; eta ja orai danik munduan ja.

4 Zuek Jainkoa ganik zarete, ene haurtxoak, eta garaitu duzue izpiritu hura, zergatik handiagoo baida zuen baithan dena, ezen ez munduan dena. 5 Hek mundukoak dire; hargatik dire mintzo munduaz eta ditu munduak hek entzuten. 6 Gu Jainkoa ganik gare. Jainkoa ezagutzen duenak entzuten gaitu gu; Jainkoa ganik ez denak ez gaitu aditzen. Hortan dugu ezagutzen egjaren Izpiritua eta enganiozko izpiritua.

7 Ene maiteak, dezagun elkhar malta, ezen amudioa eta karitatea Jainkoa ganik da; eta nork ere maitatzen baidu, eta haiña Jainkoa ganik sorthua da eta haiñak ezagutzen du Jainkoa. 8 Maitatzen ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, ezen Jainkoa amudio da. 9 Huntanxe erakutsi izan du Jainkoak bere amudioa gure alderat: bere Seme bakharra igorri izan baidu mundurat, bizi gaitezen gatik hartaz. 10 Eta huntan da haren amudioa ziñezkoa: ez baigare gu Jainkoa maitatu dugunak, baiñan berak lehenik maitatu baigaitu gu eta igorri baidu bere Semea barkhamenduzko biktima bat bezala gure bekhatuentzat.

11 Ene maiteak, baldin horla bagaitu Jainkoak gu maitatu, guk ere maitatu behar dugu elkhar. 12 Jainkoa nihork ez du ikusi egundaino. Baldin elkhar maitatzen badugu, Jainkoa gure baithan dago eta haren amudioa gure baithan perfeta da. 13 Huntan ezagutzen dugu haren baithan gaudezela eta hura gure baithan: eman baidaroku bere Izpiritutik. 14 Geure begiz ikusi dugu eta lekhukotasuna errendatzen dugu, Aitak igorri izan duela bere Semea munduaren salbatzaille izateko. 15 Nork ere bada aithortuko baidu Jesus dela Jainkoaren semea, Jainkoa haren baithan dagoke eta hura Jainkoa baithan. 16 Guk behintzat ezagutu dugu eta sinhetsi ere bai Jainkoak guretzat duen amudioa. Jainkoa amudio da eta hala amudioan dagoena Jainkoa baithan dago eta Jainkoa haiña haren baithan.

17 Huntan da Jainkoaren amudioa perfeta gure baithan: fidantzia baidugu jujeamenduko egunekotzat, zeren hura den bezalako baigare gu ere mundu huntan. 18 Iziapena ez da edireten karitatearekien; aitzitik karitate perfetak feratzen du iziapena, ezen beldurrak pena berekien dakharke eta beldur denak ez du karitate perfeta.

19 Guk bada malta dezagun Jainkoa, halaz eta Jainkoak lehenik maitatu gaituenaz geroz gu. 20 Baldin edozeiñek erraten badu: «Maite dut Jainkoa» eta hala ere bere anaia gaitzesten badu, gezurti bat da. Maitatzen ez duenak bere anaia, zein baidu ikusten, Jainkoa, zein ez baidu ikusten, nola maita ahal dezake? 21 Eta hau da manu bat Jainkoa ganik duguna: Jainkoa maitatzen duenak malta dezan halaber bere anaia ere.

#### V. KAP.

1 Nork ere sinhesten baidu ezen Jesus dela Kristo, eta haina Jainkoa ganik sorthua da; eta nork ere maite baidu jenderatu duena, maite du orobat haren ganik jenderatua izan dena ere. 2 Huntan dugu ezagutzen maite ditugu Jainkoaren umeak; maitatzen dugunean Jainkoa eta egiten ditugunean haren manuak. 3 Jainkoa maitatzea ezen haren manamenduak begiratzean datza, eta haren manamenduak ez dire gaitzak.

4 Zeren Jainkoa ganik sorthuak diren guziak munduaren garai baidire, eta munduaren garai errendatzen ohi duen biktoria hura gure fedea da. 5 Nor da munduari garaitzen zaiena, baizen haiña, zeiniek sinhesten baidu Jesus dela Jainkoaren Semea? 6 Jesukristo hura bera da ethorri izan dena urarekien eta odolarekien; ez urarekien xoilki, bainan urarekien eta odolarekien, eta Izpiritua da lekhukotasuna errendatzen duena Jesukristo dela egia. 7 Ezen hirur dire lekhukotasuna ematen dutenak zeruan: Aita, Berboa eta Izpiritu Saindua, eta hauk hirurak bat dire. 8 Eta hirur dire lekhukotasuna ematen dutenak lurrean: Izpiritua eta ura eta odola, eta hauk hirurak bat dire.

9 Baldinetariak gizonen lekhukotasuna errezibitzen badugu, Jainkoaren lekhukotasuna handiagoo da; bada hau da lekhukotasun handi hura: Jainkoak bere Semeaz errendatu duena. 10 Jainkoaren Semea baithan sinhesten duenak badu Jainkoaren lekhukotasuna bere baithan; Semea baitan sinhesten ez duenak gezurti egiten du Jainkoa, zeren ez baidu sinhesten Jainkoak bere Semeaz errendatu izan duen lekhukotasunean. 11 Eta lekhukotasun hura da, bizitze eternala eman darokula Jainkoak; eta



bizitze hura haren Semea baithan da. **12** Semea duenak badu bizitzea; Semea ez duenak bizitzea ez duke.

**13** Hauk eskribatzen darozkitzuet dakizuentzat bizitze eternala baduzuela sinhesten duzuenek Jainkoaren Semearen izenean. **14** Eta haren baithan fidantzia ematen darokuna da, entzuten baigaitu haren nahiaren arauerako galdetzen diogun guzietan. **15** Badakigu ezen entzuten gaituela galdetzen diogun guzietan; eta dakigu, zeren ardiesten baidugu galdetzen dioguna.

**16** Jakiten duenak haren anaiak egin dukela bekhatu bat heriotzerat ez dohana, galde beza eta ardietsiko du bizitzea haiñarentzat, zeñaren bekhatua ez baidoha heriotzerat; bada ordean bekhatu bat heriotzerat dohana, eta ez dut harentzat erraten othoitz egin dezazuela. **17** Gaixtake-ria guzia bekhatu da, baiñan bada bekhatu bat heriotzerat dohana. **18** Badakigu, nor ere Jainkoa ganik sorthua baida, eta haiñak ez duela egiten bekhaturik; aitzitik Jainkoa ganikako sortze hark begiratzen du eta izpiritu gaixtoak ez du ukitzen haiña. **19** Badakigu Jainkoa ganik garela gu, eta mundua den guzia izpiritu gaixtoaren botherearen azpian dela. **20** Badakigu halaber Jainkoaren Semea ethorri izan dela eta eman darokula adimendua, ezagut dezagun gatik egiazko Jainkoa eta izan gaitezen gatik haren egiazko Semea baithan. Hura da egiazko Jainkoa eta bizitze eterna-la. **21** Ene haurtxoak, begira zaitetze idoletarik. Amen.

## J. JAUNI APOST. BIGARREN GUTHUNA

### I. KAP.

**1** Aphezak andre Elektari eta haren haurrei, zeñak maite baiditut egiaz, eta ez nik bakharrik, baiñan orobat egia ezagutzen duten guziek ere, **2** gure baithan egoten den eta sekulan gurekien izanen den egia-eren gatik, **3** grazia, miserikordia eta bakea dizuela Jainko Aitak eta Jesukristo Aita-aren Semeak egian eta karitatean.

**4** Asko bozkario izan dut aurkhitzeaz zure haurretarik zeinbeit egian dabilzanak, Aita ganik errezibitu izan dugun manua-aren arauera. **5** Eta othoizten zaitut orai, andrea, ez manamendu berri bat eskribatzen banarotzu bezala, baiñan hastetik exlejitua izan zaikunaren arauera dezagun elkhar maita. **6** Bada karitatea Jainkoaren manamenduen arauera ibiltzean dago; hori da ezen manamendua, hastetik errezibitu izan duzuen, hortan ibill zaitzetzat.

**7** Zergatik hainitz enganatzaille ilkhi baidire mundurat, zeñek ez baidute aithortzen Jesukristo ethorri izan dela haragizko gorphutz batekien. Hori da enganatzaille eta Antekristo izatea. **8** Goardia emozue zeben buruei, gal ez detzatzuen egin ditutzuen obra onak, aitzitik sari bethe bat errezibi dezazuentzat. **9** Nor ere aldaratzen baida eta ez baidago Jesukristoren dotrinan, eta haiñak ez du Jainkoa bere; eta nor ere baidago haren dotrinan, eta haiñak bai Aita eta bai Semea bere ditu. **10** Baldin nihor heldu bada zuen ganat eta ez badu ekhartzen dotrina hori, ez dezazuela har etxerat, ez eta saluta ere. **11** Ezen hura salutatzen duena parzuner egiten da haren egitate gaixtoetan.

**12** Hainitx gauza nukelarik zuei eskribatzeko, ez dut egin nahi izatu paperez eta tintaz, esperantza baidut sarri zuekien izanen naizela, eta ahoz aho mintzatuko garela, zuen bozkarioa bethea izan dadin gatik. **13** Salutatzen zaituzte zure aizpa Elektaren hurrek.



## J. JAUNI APOST. HIRURGARREN GUTHUNA

### I. KAP.

1 Aphezak ene Kaio maiteari, egian maite dudanari.

2 Ene maitea, othoitz egiten diot Jainkoari bain ungi izan zaitezen zure egiteko guzietan eta bai zure ontasunean, nola baitzare zure arimari darauntsoten gauzetan. 3 Bozkario handi bat izatu dut ethorri izan direnean anaiak eta lekhukotasuna errendatu dutenean zure egiazko jainkotiartasunaz eta egia-aren arauera ibiltzeko duzun lehiaz. 4 Bozkario handiagorik ez dut ezen aditzeaz baiño ene haurrak egian dabilzala. 5 Ene maitea, girstiño leial bezala egiten duzu anaien alderat egiten dituzun gauza guzietan eta are lehortarren alderat egiten dituzunetan, 6 zeñiek lekhukotasuna errendatu izan baidute zure karitateaz Eliza guziaren aitzinean, eta ungi eginen duzu hek gidatzeaz eta laguntzeaz bere biyaiean Jainkoari dagokon maneran. 7 Haren izena gatik ezen abiatu izan dire, deusere hartzen ez dutela jentilletarik. 8 Halatan beraz guk behar ditugu ungi erre-zibitu halakoak, parzuner izan gaitzen gatik egiarentzat hek egiten dituzten gauzetan.

9 Eskribatuko nioken bada Elizari ere, baiñan hekien artean nausitasuna erabiltzerat aiher denak, Diotrefek, ez gaitu erre-zibitu nahi. 10 Horri dagokala baldin heldu banaiz horrat, erakutsiko diot zein gaixki egiten duen hizkuntza gaixtoz erasteaz gure kontra; eta hori aski ez balu bezala, berak ez ditu erre-zibitzen anaiak, eta erre-zibitu nahi dituztenak debekatzten ditu eta Elizatik kasatzen. 11 Ene maitea, ez dezazula imita gaixki dena, bainan bai ungi dena. Ungi egiten duena Jainkoa ganik da; gaixki egiten duenak ez du ezagutzen Jainkoa. 12 Demetriori lekhukotasuna errendatzen dio mundu guziak eta bai egiak berak ere; bada guk ere errendatzen diogu, eta badakizu gure lekhukotasuna egiazkoa dela.

13 Hainitz gauza banituen zuri eskribatzeko, baiñan ez dut egin nahi izatu tintaz eta plumaz, 14 zeren esperantza baidut sarri ikusiko zaitudala, eta orduan mintzatuko gare bekhoz bekho. 15 Bakea dela zurekien. Salutatzen zaituzte adiskideek. Saluta zatzituz gure adiskideak zeñ beregain.

## S. JUDA APOST. GUTHUNA KATHOLIKOA

### I. KAP.

1 Juda, Jesukristoren zerbitzariak eta Jakoberen anaiak, Jainko Aitak santifikatu eta Jesukristok konserbatu eta deithu izan ditueni, 2 miseri-kordia, bakea eta karitatea gaindiz dathorzkitzuela.

3 Ene maiteak, lehia handirekien gogo bainuen zuei eskribatzeko erkide dugun salbamenduaren gainean, mengoan aurkhitzen naiz orai egiteko, errekeritzen zaituztedalarik, arren guduka zaitezten gogotik behin sailnduei eman izan zaien fedea gatik. 4 Sarthu izan dire ezen gure arterat gizon batzu, aspaldidanik Eskrituretan seiñalatuak direnak kondenatuak izateko; Jainkoaren beldur gabeak, gure Jainkoaren grazia ganbiatezen dutenak lohikerian bizitzeko estakuru batetarat, eta Jesukristo gure nausi bakharra eta gure Jauna ukhatzen dutenak.

5 Orhoitarazi nahi zaituztet bada, baidakizkitzue berdin gauza guziak: Jesusek populua athera zuenean eta salbatu Ejiptotik, ondoan sinhetsi ez zutenak suntsiarazi zituela. 6 Bere lehentasuna begiratu ez zuten aingeruak berriz, aitzitik bere egoitza propiala utzi izan zutenak, egun handiko jujeamendukotzat erresalbatuak daduzkala, ilhunbepean gathe eternalenez estekaturik; 7 hala nola Sodoma eta Gomorra eta hekien haurzoko hiriak, hek bezala lohikeriari abandonatu zitzaizkoenak eta bertzelako haragi baten ondoan abiatu ere zirenak, egin izan baidire su eternalaren exenplu bat jasan izan duten gastigez. 8 Manera berean dute hauk ere bere haragia hidoiztatzen, autoritate beharkitua mezprezatzen eta kargu handitan direnez gaizki erasten.

9 Mikael arkanjelua deabruarekien zihardukanean Moiseren gorputzaren gainetik, ez zen ausartatu madarizionezko sententzia bat ematerat haren kontra; xoilki hark erran zuena zen: «Jaunak erabill dezala hire gainean bere botherea». 10 Hauk ordean aditzen ez dituzten gauza guziak behindik behin kondenatzen dituzte blasfemiorekien; naturalki bestia mutuek bezala ezagutzen dituzten gauza guziez berriz baliatzen dire bere buruen gaizkoatzeko. 11 Zorigaitz hekientzat, zeren Kainen bidean abiatu baidire, sariaren egarriz Balaam bezala enganatuak izanik; abandonatzen





baitzaizko deserregelamenduari eta Koreren alboratamendua segituz galduko baidire hura bezala.

**12** Jende batzu dire bere othruntzetan likhitsak, jaunkorreen dauntzanak deusen beldur gabe, bere buruen bazkatzeaz baizen artharik ez dutenak. Hedoi batzu dire urik gabekoak, haizeek harat hunat darabiltzatenak. Arbola batzu, ihartzean baizen loratzen ez direnak, fruiturik ekhartzen ez dutenak, bietan hillak, erroetarik atheratuak. **13** Itsasoko uhin dorphe batzu dire, konfusioezko arrapoa etxatzen dutenak. Izar errebelatu batzu, tenpesta ilhunbetsu bati iguriki behar zaizkonak eternitate guzikotz. **14** Horietaz profetisatu ere du bada Enox Adamen ondoko zazpi garren izan denak, erraten duelarik: «Huna non dathorren jauna milliunea dituen sainduekien, **15** guzien kontra jujeamendua ematerat, eta bentzutzerat gaixtagin guziak, egin izan dituzten gaixtakeria guziez, eta bekhatoros gaixtoek Jainkoaren kontra erasi dituzten ahakar guziez». **16** Murmuratzaille batzu dire bethi errenkuraz daudezenak, bere nahikaren arauera dabiltzanak, orgulleriazko hitzik baizen ahoan ez dutenak, bere intresa gatik presunen admiratzaille jartzen direnak.

**17** Zuek ordean, ene maiteak, orhoit zaitezte Jesukristo gure Jaunaren Apostoluek aitzinietik erran izan darozkitzueten gauzez, **18** zeiniek erraten baitzarotzuen azken denboretan ethorriko direla enganatzaille batzu bere gutzieren arauera ibilliko direnak gaixtakerietan. **19** Jende batzu dire, berak aldaratzen direnak, gizon abrekarako batzu, Jainkoaren Izpiritua ez dutenak.

**20** Zuek ordean, ene maiteak, zeven buruak altxatzen ditutzuelarik edifizio izpirituak bat bezala zuen fede guziz sainduaren zimenduaren gainean, eta Izpiritu Sainduaz othoitz egiten duzuelarik, **21** zaudezte Jainkoaren amudioan, Jesukristo gure Jaunaren miserikordiaren begira bizitze eternalekotzat. **22** Errepreni zatzitzue behintzat ja berenez kondenatuak diren batzu. **23** Bertzeak berriz salba zatzitzue sutik bezala atheratzen ditutzuelarik; bertze batzu berriz ditutzuen urrikari, zebonentzat ere beldurtzen zaretela, eta duzuen higin arropa lizundu bat bezala haragiaren khutsua duen guzia.

**24** Botheretsu denari, bada, zuek begiratzeko bekhaturik gabe eta eramateko haren gloriaren thronuaren aitzinietat, xahu eta tatxa gabe, bozkarioz gaindi eginak, Jesukristo gure Jaunaren ethorgunean, **25** Jainko bakhar gure Salbatzaille denari Jesukristo gure Jaunaz, gloria eta magnifizentzia, nausitasuna eta botherea mende guzieren aitzinetik eta ori ere eta bai mendetako mende guzietan. Amen.

## J. JOANI APOST. APOKALIPSA EDO ERREBELAZIONEA

### I. KAP.

**1** Jesukristoren Errebelazionea, zeina eman baidio Jainkoak, agertze-ko bere zerbitzariari lauster gerthatu beharrak diren gauzak; hark igorrorrik bere aingerua ezagutarazi baidiotza Joanes bere zerbitzariari, **2** zeiniek irakatsi izan baidu Jainkoaren hitza eta lekhukotasuna eman Jesukristo ganik ikusi izan dituen gauza guziez.

**3** Dohatsu irakurtzen eta aditzen dituen profetia huntako hitzak eta begiratzen dituen huntan eskribatuak direnak, denbora ezen hurbill da.

**4** Joanesek Asian diren zazpi Elizei: grazia eta bakea dela zuekien «denaren, zenaren eta ethorri behar duenaren» partez, eta haren thronuaren aitzinean diren zazpi Izpirituen partez, **5** eta Jesukristoren partez, zein baida lekhuko fidela, hilletarikako lehen iaioa, lurreko erregeen prinzea, zeiniek maitatu izan baigaitu eta garbitu izan baigaitu gure bekhatuetarik bere odolean **6** eta egin izan baigaitu Jainko bere Aitaren erresuma eta aphez; hari dagoko gloria eta nausitasuna mendetako mendeetan, amen.

**7** Huna non heldu den hedoipean. Ikusiko dute begi guziek, bai eta zilhatu izan dutenek ere, eta lurreko populu guziek auhenak egiñen dituzte haren gainean. Bai, hala izanen da. **8** Ni naiz alfa eta omega, hastapena eta akhabantza, diotsa Jainko Jaunak, «denak, zenak eta ethorri behar duenak», guziz botheretsuak.

**9** Ni Joanes, zuen anaia eta zuen parzunera behazunean, erresuman eta pairagunean Jesukristo baithan, nintzen Patmos daritzan irlan Jaunaren hitza gatik eta Jesukristori lekhukotasuna errendatzea gatik. **10** Nintzen izan Izpirituaz altxatua igande egun batez eta nuen aditu ene gibeletik boz handi bat klaroin batena bezala, **11** ziotsana: «Ikusten duzuna eskriba zazu liburu batean, eta igorrozute zazpi Eliza Asian direnei, Efe-san, Esmirnan, Pergaman, Thiatiren, Sardisen, Filadelfian eta Laodizean».

**12** Itzuli nintzen ikusteko zer zen niri mintzo zitzaitan boza eta itzuli eta, ikusi nituen zazpi kandeler urrezko. **13** Eta zazpi kandeler urrezko-



en erdian ikusi nuen Gizonaren Semea iduri zuen bat, arropa luze batez bestitua eta bulharren gaiñean gerrikatua urrezko gerriko batez. **14** Haren burua berriz eta haren illeak ziren xuri lana xurla bezala eta elhurra bezala, eta haren begiek distiatzen zuten suaren kharrak bezala. **15** Haren oiñek baziduriten kobre fina labe gori batean denean bezala, eta haren boza ur handi batzuen habarrotsaren pare zen. **16** zituen bere eskuiñeko eskuan zazpi izar, eta haren ahotik bi ahotako ezpata zorrotz bat zen ilkhitzen, eta haren bisaia bain zen distianta nola iguzkia bere indarrean.

**17** Ikusi nuen bezain sarri, erori nintzen haren oiñetarat hilla bezala; bainan ibeni zuen bere eskuiñeko eskua ene gaiñean, erraten zarotalarik: «Ez duzula beldurrik, ni naiz lehena eta azkena **18** eta bizi naizena. Izan naiz hilla, bainan orai bizia naiz mendetako mendeetan, eta nik ditut heriotzearen eta ifernuaren gakhoak. **19** Eskriba zatzitzu, beraz, ikusi dituzun gauzak eta direnak, eta bai haukien ondoan ethorri behar direnak. **20** Huna misterioa ene eskuiñeko eskuan ikusi dituzun zazpi izarrena eta zazpi kandeler urrezkoena. Zazpi izarrek dire zazpi Elizetako aingeruak, eta zazpi kandelerek dire zazpi Elizak.

## II. KAP.

**1** Efesiako Elizaren aingeruari eskriba diozazu: Huna zer dioen zazpi izar bere eskuiñeko eskuan daduzkanak, zazpi kandelere urrezkoen erdian dabillanak. **2** Badakizkit zure egitateak, zure nekheak eta zure pairakortasuna. Badakit ezin jasan detzaketzula gaixtoak, frogatu dituzula apostoluak direla diotenak eta ez direnak, eta gezurti aurkhitu dituzula; **3** pairakor zarela, jasan ere duzula ene izena gatik eta ez zaitzula gogoa faltatu. **4** Ordean badut iroi bat zuri egiteko, zein baida utzi duzula zure lehenbiziko karitatea. **5** Orhoit zaite, beraz, nondik erori zaren eta egizu penitentzia; eta har zatzitzu zure lehenbiziko egitateak; bertzela sarri heldu natzaitzu eta khenduko dut zure kandelera bere lekhitik, baldin penitentzia egiten ez baduzu. **6** Baiñan hau baduzu: higin baidituztu Nikolaiten egitateak, zeinñak neronek ere higin baidituztu. **7** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei: garaitzen duenari emanen diot jaterat bizitzearen arbolako fruitutik, zein baida ene Jainkoaren paradisu.

**8** Esmirnako Elizaren aingeruari ere eskriba diozazu: Huna zer dioen lehen eta azken denak, billa izan denak eta bizi denak. **9** Badakit zure behazuna eta zure pobrezia, baiñan aberats zare eta belzten zaituzte

bere erasia gaixtoez judutar erraten diren batzuk eta ez direnek, aitzitik Satanen sinagoga direnek. **10** Ez zaitzela izi sofrituko dituztuz. Sarri ezarriko ditu deabruak zuetarik zenbeit presondegian, frogatuak izan zaitzetzat, eta izanen duzue pairatzeko hamar egunez. Zaren leial heriotzeraño eta emanen darotzut bizitzearen khoroa. **11** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei: garaituko duena ez da zaurtua izanen bigarren heriotzeaz.

**12** Pergamako Elizaren aingeruari eskriba diozazu. Huna zer dioen ezpata bi aldetarik zorrotza darabillanak: **13** Badakit nola zaudezen Satanen thronua den tokian, badadukazula ene izena eta ez duzula ukhatu izan ene fedea, Antipes ene lekhuko fidelak heriotzea pairatu izan duenean zuen artean, non egoten baida Satan, eta han. **14** Ordean zerbeit gauza aphur badut zure kontra: zer baidituztu hor Balaamen dotrina atxekitzen dutenak, zeinñak irakasten baitzioen Balak-i aurizkitzeko harriak ezartzen Israelgo umeen aitzinean, jan zezatentzat eta lohikerian eror zitezentzat: **15** Hala badituztu zuk ere Nikolaiten dotrina atxekitzen dutenak. **16** Halaber penitentzia egizu: bertzela sarri heldu natzaitzu, eta gudukatuko naiz hekien kontra ene ahoko ezpatarekien. **17** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei: garaitzen duenari emanen diot mana gordea dena, eta emanen ere diot harri xuri bat, eta harri hartan izen berri bat eskribatua nihork ez dakiena, errezibitzen duenak bai-zen.

**18** Thiatirako Elizaren aingeruari berriz, eskriba diozazu: Huna zer dioen Jainkoaren Semeak, begiak suaren kharra bezala dituenak, eta oiñak kobra fina iduri dutenak: **19** Badakizkit zure egitateak, zure fedea, zure karitatea, pobreez dadukazun artha, zure pairagunea eta zure azkeneko obrek ixitzen dituztela lehenbizikoak. **20** Ordean badut zerbeit gauza aphur zure kontra: zeren uzten baiduzu Jesabel, bere burua profetatzat egiten duen emaste hark, irakats dezan eta engana detzan ene zerbitzariak, erorarazitzeko hek lohikerian eta idolei sakrifikuak diren gauzetarik hei janarazitzeko. **21** Eman izan diot denbora penitentzia egiteko, eta ez zaio nahi urrikitu bere lohikeriaz. **22** Sarh etzanaraziko dut ohean, eta adulteria harekien egin dutenak atsekabe handitan izanen dire, baldin penitentzia egiten ez badute bere obra gaixtoez. **23** Haren umeak hillen ditut heriotzez, eta ezagutuko dute Eliza guziek ni naizela zundatzen ditudana gelzurriñak eta bihotzak; eta zuetarik batbederari emanen diot bere lanen arauera.



Zuei ordean erraten darotzuet, zuei **24** eta gaiñerako Thiatiran zaretenei eta doktrina horri ez darraizten guziei, eta Satanen barrentasunak, erraten duten bezala, ezagutzen ez dituztenei: Ez dut ezarriko bertze kargarik zuen gaiñean. **25** Guziarekien ere duzuenari atxekozue nathorren artean. **26** Garaituko duenari eta azkeneraño ene obrak begiratuko dituenari emanen diot bothere nazioeen gaiñean; **27** gobernatuko ditu burdinazko zigor batekien, eta lurrezko baxera batzu bezala xehakatuak izanen dire, **28** nik ere ene Aita ganik bothere hori errezibitu izan dudan bezala; eta emanen diot haiñari goizeko artizarra. **29** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei.

### III. KAP.

**1** Eskriba diozazu Sardiseko Elizaren aingeruari ere: Huna zer dioen Jainkoaren zazpi izpirituak dituenak eta zazpi izarrak. Badakizkit zure egitateak; izena duzu bizi zarela eta hilla zare. **2** Zaren atzarria eta borthitzatztzu hiltzerat dohazanak, ezen ez ditut aurkhitzen zure egitateak betheak ene Jainkoaren aitzinean. **3** Idukazu, bada, gogoan errezibitu izan duzuna ete entzun duzuna, eta begira zazu eta egizu penitentzia; ezen atzarria ez bazaude, ethorriko natzaitzu ohoin bat bezala, eta ez duzu jakiñen zer orenez ethorriko natzaitzun. **4** Hala ere bada, badituztu Sardisen zenbeit presuna bere jaunzkurak lizundu ez dituztenak, eta hek dire ibilliko enekien arropa xuritan, zeren merezi baidute. **5** Garaituko duena horla izanen da bestitua arropa xuriz, eta ez dut unatuko haren izena bizitzearen liburutik, eta aithortuko dut haren izena ene Aitaren aitzinean, eta haren aingueruen aitzinean. **6** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei.

**7** Filadelfiako Elizaren aingeruari eskriba diozazu: Huna zer dioen Sainduak eta egiaiak, zeñiek baidu Dabiden gakhua, zeñiek idekitzen baidu eta nihork ez zarratzen, zeñiek zarratzen baidu eta nihork ez idekitzen. **8** Badakizkit zure egitateak. Eman darotzut zure aitzinean athe bat idekia, zeña nihork ezin hers baidezake; zeren indar aphurra baiduzu, eta begiratu izan baiduzu ene hitza eta ez baiduzu ukhatu ene izena. **9** Emanen darozkitzut sarri zenbeit Satanen sinagogatikakoak, juduak direla erraten dutenak eta ez baidire; baiñan gezurra erraten baidute, sarri erakharriko ditut zure oiñetan ahozpez jartzerat, eta jakinen dute maite zaitudala. **10** Zeren begiratu izan duzun ene errana pairagunearen gaiñean, nik ere begiratuko zaitut zu tentazionearen orenetik, zein ethorriko baida

mundu guziaren gainerat lurrean daudenen frogatzerat. **11** Ethorriko naiz sarri. Atxekozu duzunari, bertze nihork har ez dezan zure khoroa. **12** Garaituko duenaz eginen dut harroin bat ene Jainkoaren tenpluan eta kanporat ez da ilkhiko gehiago, eta eskribatuko dut haren gaiñean ene Jainkoaren izena eta ene Jainkoaren hiriaren izena, Jerusalem berriarena, zerutik ene Jainkoa ganik jausten denarena, eta ene izen berria. **13** Beharriak dituenak adi beza zer erraten daroen Izpirituak Elizei.

**14** Eskriba diozazu Laodizeako Elizaren aingeruari ere: Huna zer dioen egia bera denak, lekhuko fidelak eta egiaiak, zein baida Jainkoak kreatu dituenen ethorkia. **15** Badakizkit zure egitateak; ez zarela ez hotz, ez bero. Oxala hotza baziñe edo beroa. **16** Baiñan zeren ephela zaren eta ez zaren ez hotza ez beroa, okhatuko zaitut ene ahotik, **17** baidiozu: Aberats naiz eta ontasunez gaindi egina eta ez dut deusen peiturik. Eta ez dakizu onbehar zarela eta urrikalkizun, pobre eta itsu eta bulhuzgorri. **18** Konseillatzen zaitut erosteaz ene ganik suan frogaturikako urrea, aberasteko eta arropa xuriak jaunzteko eta zure bulhuztasun ahalkagarria estaltzeko, eta kollirio bat begien gaiñean emateko ikus dezazun gatik. **19** Nik maite ditudanak erreprenitzen ditut eta gastigatzen; irazakazu beraz zure zeloa eta egizu penitentzia. **20** Huna, athean nago eta jotzen dut; baldin norbeitek aditzen badu ene boza eta idekitzen badarot athea, sarthuko naiz haren ganat eta afalduko naiz harekien eta hura ere enekien. **21** Garaituko duena jarraraziko dut enekien neure thronuan, neroni ere garai izanik jarri izan naizen bezala ene Aitarekien haren thronuan. **22** Beharriak dituenak adi beza, zer erraten daroen Izpirituak Elizei».

### IV. KAP.

**1** Horien ondoan behatu nuen eta ikusi nuen athe bat idekia zeruan; eta lehenbiziko boza aditu nuenak tronpeta batena bezala mintzo zitaitala erran zarotan: «Igan zaite hunat eta erakutsiko darozkitzut haukien ondoan arribatu behar diren gauzak». **2** Eta betbetan eramana izan nintzen Izpirituz, eta berehala ikusi nuen thronu bat ezarria zeruan eta norbeit jarria thronu haren gaiñean. **3** Eta jarria zegoenak iduri zuen jaspaharria eta sardaniaoa, eta thronua zen inguratua holtzadar batez esmaragda zidurienaz. **4** Thronuaren inguruan ziren hogoi eta laur bertze thronu, eta thronu hetan hogoi eta laur zahar jarriak, arropa xuriz bestitua, buruen gaiñean zituztela urrezko khoroak. **5** Thronutik ilkhitzen ziren xismistak, bozak eta ihurziriak, eta ziren thronuaren aitzinean zazpi lanpa



irazakiak, zein baidire Jainkoaren zazpi Izpirituak. **6** Thronuaren aitzinean zen berinazko itsaso bat bezala, kristailla ziduriena; eta thronuaren erditsuan eta inguruan ziren laur animalia begiz betheak aitzin gibeletan. **7** Lehenbiziko animaliak lehoiña zidurien, bigarrenak iduri zuen xahala, hirur garrenak zuen bisaia gizonarena bezalakoa, eta laugarrenak zidurien arrano bat hegaldaka dabillana. **8** Laur animaliek zuten bakhotxak seira hegal, betheak ziren begiz inguruan eta barranean, eta ez ziren gelditzen gau eta egun erratetik: «Saindu, Saindu, Saindu da Jainko Jaun guziz botheretsua, zena eta dena eta ethorriko dena».

**9** Eta animalia hek ematen ziotenean gloria eta ohore benedizioriekien thronuan jarria zegoenari, mendetako mendetan bizi denari, **10** art-hikitzen zituzten bere buruak hogoi eta laur zaharrek thronuan jarria zegoenaren aitzinean eta adoratzten zuten mendetako mendetan bizi dena, eta etxatzen zituzten bere khoroak thronuaren aitzinean, ziotelarik: **11** «Merezi duzu, o gure Jainko Jauna, errezibitzea gloria, ohore eta bothere, zeren zuk kreatu izan baidituzu gauza guziak, eta kure nahia gatik baidiraute eta kreatuak izan baidire».

## V. KAP.

**1** Orduan ikusi nuen thronuaren gainean jarria zegoenaren eskuiñeko eskuan liburu bat eskribatua barnetik eta kanpotik, zigillatua zazpi zigilluz. **2** Eta ikusi nuen aingeru bat bothere handitakoa deiagoraz erraten zuena: «Nor da gai idekitzeko liburua eta khentzeko horren zigilluak?». **3** Baiñan nihork ez zeruan, ez lurraren gainean, ez lurraren azpian ezin idek zezaken liburua, ez eta hartarat beha ere zezaken. **4** Eta ni urtzen hari nintzen nigarretan, zeren nihor ez zen aurkhitu gai zenik liburuaren idekitzeko, ez eta ere hari behatzeko.

**5** Orduan zaharretarik batek erran zarotan: «Ez dezazula egin nigarririk. Huna Judaren leiñutikako lehoina, Dabiden urthamea, zeñiek ardie-tsi baidu bere biktoriaz liburua idekitzeko botherea eta khentzeko haren zazpi zigilluak». **6** Behatu nuen eta ikusi nuen thronuaren eta laur aliamalien erdian eta zaharren erdian bildots bat hilla izana bezala, xutik zegoe-na eta zituena zazpi adar eta zazpi begi, zein baidire Jainkoaren zazpi Izpirituak mundu guzirat igorriak. **7** Ethorri zen eta hartu zuen liburua thronuan jarria zegoenaren esku eskuiñetik; **8** eta ideki izan zuenean liburua, laur animaliak eta hogoi eta laur zaharrak erori ziren ahuzpez bildotsaren

aitzinean, zituztelarik guziek harpak eta urrezko anpoillak urriñ onez beheak, zein baidire sainduen othoitzak. **9** Eta zuten kantatzen kantiko berri bat, ziotelarik: «Digne zare, Jauna, hartzeko liburua eta haren zazpi zigilluak idekitzeko, zeren hillarazia izan baitzare eta erresketatu izan baigaittzu Jainkoarentzat zure odolaz leiñu guzietarik, lengoia guzietarik, populu eta nazione guzietarik; **10** eta are egin izan baigaittzu errege eta aphez gure Jainkoarentzat; eta erregiñatuko ere dugu lurraren gainean».

Behatu nuen oraiño eta aditu nuen hainitz aingeruen boza thronuaren inguruan eta animalien eta zaharren inguruan; eta millaka eta millionka ziren, **12** zeñiek erraten baitzuten oihu goraz: «Digne da hillarazia izatu den bildotsa errezibi dezan botherea, Jainkotasuna, zuhurtzia, indarra, ohorea, gloria eta benedizioriekia». **13** Eta zeruan, lurraren gainean eta lurraren azpian diren kreatura guziak eta itsasoan direnak, eta bai hetan diren guziak aditu nituen erraten: «Thronuan jarria dagoenari eta bildotsari dagokote benedizioriekia, ohore, gloria eta bothere mendetako mendetan». **14** Eta laur animaliek erraten zuten: «Amen». Eta hogoi eta laur zaharrak erori ziren bere bisaien gainerat eta adoratu zuten mendetako mendetan bizi dena.

## VI. KAP.

**1** Ondoan ikusi nuen ideki zuela bildotsak zazpi zigilluetarik bat, eta aditu nuen laur animalietarik bat erraten ihurzuriaren pareko boz batekien: «Zato eta ikusazu». **2** Denbora berean ikusi nuen betbetan agertzen zaldi zuri bat, eta haren gainean jarria zenak zuen arbalesta bat, eta eman zitzaioen khoroa bat, eta abiatu zen Biktoria biktoriarene gainean eramaten dohan biktorios bat bezala.

**3** Ideki zuenean bigarren zigillua, aditu nuen bigarren animalia erraten: «Zato eta ikusazu». **4** Ordu berean ilkhi zen bertze zaldi bat gorria, eta haren gainean jarria zenari eman zitzaioen botherea eramateko bakea lurretik, eta egiteko gizonek elkhar hill zezaten; eta eman zitzaioen ezpata handi bat.

**5** Ideki zuenean hirugarren zigillua aditu nuen hirugarren animalia erraten: «Zato eta ikusazu». Ordu berean agertu zen zaldi beltz bat, eta haren gainean jarria zenak zuen balentza bat bere eskuan. **6** Eta aditu nuen boz bat laur animalien erditik bezala erraten zuena: «Lakha bat ogi



kornadu batean, eta hirur lakha garagar kornadu batean. Ez diozazutela egin kalterik mahats arnoari eta olioari».

7 Ideki izan zuenean laurgarren zigillua, aditu nuen laurgarren animalien boza, zeñak erraten baitzuen: «Zato eta ikusazu». 8 Denbora berean ikusi nuen zaldi ferdats bat, eta haren gainean jarria zenak zuen izena Herioa eta ifernua ondotik zarrarioen; eta eman zitzaioen botherea lurraren laur parteen gainean, hillarazitzeke gizonak ezpataz, gosetez, heriotzez eta lurrean diren bestiez.

9 Ideki izan zuenean bortzgarren zigillua, ikusi izan nituen aldarea-ren azpian Jainkoaren hitza gatik eta hari lekhukotasuna errendatzea gatik heriotzea pairatu izan zutenen arimak. 10 Eta deiagoraz zeudezen erraten zutelarik: «Noiz artean, Jauna, saildua eta egiatia zarena, egonen zare justizia egin gabe eta bendekatu gabe gure odola lurrean daudezenen gainean?». 11 Eta eman zitzaien guzietarok arropa xuri bana, eta erran zitzaien idurik zezatela errepausuan oraino denbora guti bat, konpli zedin artean hek bezala Jainkoaren zerbitzari direnen nonbrea eta hekien anaia hek bezain ungi heriotzea pairatu behar zutenena.

12 Ikusi nuen halaber, ideki zuenean seigarren zigillua, lur ikharatze handi bat egiten zela; iguzkia egin zen beltz sakhu illezko bat bezala, ilhargia berriz egin zen guzia odola bezala. 13 Eta izarrak erori ziren zerutik lurraren gainerat, fiko ondo batek, haize handi batez higitua denean, bere fiko sasoatu gabeak erortzerat uzten dituen bezala. 14 Zerua goan zen liburua itzulikatu bat bezala, eta mendi guziak eta irlak higitu ziren bere lekhetarik; 15 eta lurreko erregeak, prinzeak, gerlako ofizialeak, aberatsak, botheretsuak eta gizon guziak, ala esklaboak ala libro zirenak, gorde ziren lezeetan eta mendietako arroketan, 16 eta erran zaroen mendiei eta arrokei: «Eror zaitzete gure gainerat eta geriza gaitzatzue thronuaren gainean jarria dagoenaren bistatik eta bildotsaren koleratik, 17 zeren ethorri baida hekien irakiduraren egun handia. Eta nork iraun dezake hekien aitzinean?».

## VII. KAP.

1 Haukien ondoan ikusi nituen laur aingeru turraren laur kantointan, itxekitzen zituztela lurreko laur haizeak, egin ez zezatentzat haizerik lurraren gainerat, ez itsasoaren gainerat eta ez arbola baten gainerat ere. 2 Ikusi nuen oraino bertze aingeru bat igaten zela iguzki jaikitetik, zakhar-

kela Jainko biziaren seinalea; eta deiagora egin zaroen lurrari eta itsasoari, kalte egiteko botherea zuten laur aingeruei, 3 erraten zuelarik: «Ez diozazuela egin kalterik lurrari ez itsasoari eta ez arbolei, seinlatu dituzkegun artean gure Jainkoaren zerbitzariak bere bekhokietan». 4 Eta aditu izan nuen ere seinlatuen nonbrea zela ehun eta berrogoi eta laur millena Israelgo umeen leinu guzietarik.

5 Judaren leinutik ziren hamabi milla seinlatuak; Rubenen leinutik hamabi milla seinlatuak; Gad-en leinutik hamabi milla seinlatuak; 6 Aser-en leinutik hamabi milla seinlatuak; Nephthaliren leinutik hamabi milla seinlatuak; Manaseren leinutik hamabi milla seinlatuak; 7 Simeonen leinutik hamabi milla seinlatuak; Lebiren leinutik hamabi milla seinlatuak; Isakaren leinutik hamabi milla seinlatuak; 8 Zabulon-en leinutik hamabi milla seinlatuak; Josefren leinutik hamabi milla seinlatuak; Benjaminen leinutik hamabi milla seinlatuak.

9 Ondoa ikusi nuen tropela handi bat nihork ezin konda zezakena, nazione guzietarik, leinu guzietarik, populu guzietarik eta lengoia guzietarik, xutik zeudezela thronuaren aitzinean eta bildotsaren aitzinean, bedituak arropa xuriz eta palmak bere eskuetan zituztelarik. 10 Eta oiheraz zeudezen, erraten zutelarik: «Eman bekio gloria gure Jainkoari, zein jarria baidago thronuaren gainean, eta bildotsari, zeren hark salbatu baidago». 11 Eta aingeru guziak zeudezen xutik thronuaren eta zaharren eta laur animalien inguruan; eta ahozpe jarriarik thronuaren aitzinean, adortatu zuten Jainkoa, 12 ziotelarik: «Amen. Gure Jainkoari dagoka benedizio-nea, gloria, zuzurtzia, esker ona, ohorea, botherea eta indarra mendetako mendetan. Amen».

13 Ordua zaharretarik batek hitza harturik, erran zarotan: «Arropa xuriz bedituak diren horiek nor dire eta nondik ethorriak dire?». 14 Ihardetsi nioen: «Jauna, zuk dakizu». Eta erran zarotan: «Horiek dire aflikzio-nea handiak pairaturik heldu direnak, eta bere arropak garbitu izan dituztenak eta xuritu bildotsaren odolean. 15 Hargatik dire Jainkoaren thronuaren aitzinean eta dute hura zerbitzatzen gau eta egun bere tenpluan; eta thronuan jarria dagoena egonen da horien gainean. 16 Ez dire gosetuko ez egarrituko gehiago, eta ez iguzkiak ez berorik batek ere ez ditu gehiago nekhatuko, 17 zeren thronuaren erdian den bildotsa izanena baida horien artzaina, eta eramane baiditu ur bizizko ithurrietat eta xukatuko baiditu Jainkoak nigar guziak horien begietarik».



## VIII. KAP.

1 Ideki zuenean Bildotsak zazpi garren zigillua, guziak egon ziren ixilik zeruan oren erdi batez hurren. 2 Eta ikusi nituen zazpi aingeru Jainkoaren aitzinean daudezenak, eta eman zitzaizten zazpi tronpeta. 3 Orduan ethorri zen bertze aingeru bat eta egon zen aldarearen aitzinean urrezko inzensario bat zadukala, eta eman zitzaizkon hainitz urrin on suerte, ofrenda zitzantzat saildu guzien othoitzak Jainkoaren thronuaren aitzinean den aldare urrezkoaren gainean. 4 Eta igan zen sailduen othoitzez eginikako inzensuen khea aingeruen eskutik Jainkoaren aitzinerat.

5 Ondoan hartu izan zuen aingeruak inzensarioa eta bethe zuen aldareko sutik, eta arthiki zuen lurraren gainerat, eta egin ziren ihurtzuriak, bozak eta xismistak eta lur ikharatze handi bat. 6 Orduan zazpi aingeru zazpi tronpetak zituztenak preparatu ziren tronpeta jotzerat.

7 Lehenbiziko aingeruak tronpeta jo zuen; eta erori izan zen lurrerat babazuza eta sua odolez nahastatua, eta lurraren eta arbolen heren partea erre izan zen eta belhar ferde guzia xizkortua.

8 Bigarren aingeruak jo zuen tronpeta eta mendi handi sutan zen bat bezala erori zen itsasorat, eta itsasoaren heren partea egin zen odol. 9 Eta itsasoan bizi diren kreaturen heren partea hill izan zen, eta untzien heren partea galdu.

10 Hirur garren aingeruak jo zuen tronpeta, eta izar handi bat suz irazakia, zuzia bat bezala, erori zen zerutik ibaien heren partearen gainerat eta ithurrien gainerat. 11 Izar hark zuen izena Azenzioa, eta uren heren partea ganbiatu baitzen azenziotarat, gizonetarik hainitz hill izan ziren ur hetarik edanik, zeren kharmindu izan baitziren urak.

12 Laur garren aingeruak jo zuen tronpeta, eta joa izan zen iguzkia- ren heren partea eta ilhargiaren heren partea eta bai izarren heren partea; halako moldez, non ilhundu izan baitzen hekien heren partea eta egunak galdu izan baitzuen bere argiaren heren partea, eta gauak ere bai orobat.

13 Orduan ikusi nuen eta aditu nuen arrano baten boza, zeruaren erditik hegaldaka zohanarena, zeinek erraten baitzuen oihugoraz: «Zorigaitz, zorigaitz, zorigaitz lurrean daudezenei, tronpeta jo behar duten bertze hirur aingeruak erraterat dohazenaren ariaz».

## IX. KAP.

1 Bortzgarren aingeruak jo zuen tronpeta eta ikusi nuen izar bat zerutik erori zena lurrerat eta eman zitzaion lezoko putzuaren gakhua. 2 Ideki zuen lezoko putzua, eta altxatu zen putzutik khe bat labe handi batetako khea bezalako; eta ilhundu ziren iguzkia eta airea putzuko khez. 3 Eta putzuko khetik ilkhi ziren larrepota batzu, zein barriatu baitziren lurraren gainerat eta eman zitzaien bothere bat lurreko eskorpionek duten bezalako; 4 eta exlejitu izan zitzaien, ez ziozatela egin kalterik lurreko belharrari, ez ferde ziren garabei, eta ez arbolei ere; baizen xoilki Jainkoaren seinalea bere bekhokietan izanen ez zuten gizonei. 5 Eta eman zitzaien botherea ez hek hiltzekoa, baiñan tormentatzekoa bortz ilhabetez; eta hek sofriarazitzen duten tormenta eskorpionak gizona zilhatzen duenean egiten ohi duena bezalako da. 6 Denbora hartan bilhatuko dute gizonek herioa, eta ez dute aurkhituko; desiratuko dute hiltzea, eta ihesi goanen zaie herioa.

7 Larrepota hekien figura, bada, zen zaldi gudukotzat preparatu batzuen idurikoa. Bere buru gainetan zituzten khoroa batzu bezala, urrezkoak ziduritenak, eta hekien bisaia ziren gizonen bisaia bezalakoak. 8 Illeak zituzten emasteen illeak bezalakoak, eta hekien hortzak ziren lehoiñenak bezalakoak. 9 Bazituzten halakreta batzu burdinazko halakretak bezalakoak, eta hekien hegalean habarrotsa zen hainitz zaldi gudurat lauster egiten dutenetako xarriotena bezalako. 10 Buztanak zituzten eskorpionenak bezalakoak, eta eztenak ere bazituzten buztanetan; eta bazuten bothere gizonei kalte egiteko bortz ilhabetez. 11 Eta zuten bere gaineko erregetzat Leze hosiñeko Aingerua, hebraikoz daritzana Abadon, grekez berriz Apollion, erran nahi baida Galtzaillea. 12 Lehenbiziko zorigaitz hori iragan da, eta huna bertze bia oraiño ondotik heldu direnak.

13 Seigarren aingeruak jo zuen tronpeta eta aditu nuen boz bat Jainkoaren begien aitzinean den aldare urrezkoaren laur kantoinetarik ilkhitzen zena, 14 ziotsana tronpeta zuen seigarren aingeruari: «Lexa zatzitzu Eufrateko ibaia handiaren gainean estekatuak daudezen laur aingeruak».

15 Berehala lexatuak izan ziren laur aingeruak, zeinak preparatuak baitzeudezen orenaren, egunaren, ilhabethearen eta urthearen begira, hiltzeko gizonen heren partea. 16 Eta zaldizko armadaren kontua zen berrehun millionetako; aditu nuen ezen erraten hekien nonbrea. 17 Eta huna nola ikusi izan nituen zaldiak bisioan: Hekien gainean jarriak zirenek zituzten halakreta suzkoak, hyazintzakoak eta sufrezkoak, eta zaldien



buruak ziren lehoiñen buruak bezalakoak; eta hekien ahotik sua eta khea eta sufrea ziohan. **18** Eta hirur plaga horietaz, erran nahi da, hekien ahotik ilkhitzen zen suaz, kheaz eta sufreak, hilla izan zen gizonen heren parte. **19** Zaldi hekien botherea ezen hekien ahoetan da eta hekien bustanetan; zeren hekien bustanak sugeenak bezalakoak baidire, buruak dituztenak, eta hetaz dute ere zaurtzen. **20** Eta bertze gaiñerako gizon plaga horietaz hillak izan ez zirenak ez ziren jarri ere urrikitan bere eskuezko obrez, ez gehiago adoratzeko deabruak eta urrezko, zilharrezko, kobrezko, harrizko eta zurezko idolak, zeñek ezin baidezakete ez ikus, ez adi, eta zeñ ezin ibili ere baiditezke. **21** Eta ez zuten egin penitentzia bere gizon hiltzez, ez bere pozoatzekeriez, ez bere lohikeriez, ez bere ohoinkeriez.

## X. KAP.

**1** Ikusi nuen berriz bertze aingeru bat indar handitakoa jausten zela, zerutik hedoi batez inguratua eta holzadar bat buruaren gaiñean zuena; haren bisaia iguzkia bezala zen eta haren oiñak ziren suzko harroiñak bezala. **2** Zuen bere eskuan liburutto bat idekia eta ezarri zuen bere eskuiñeko oiña itsasoaren gaiñean, ezkerrekoa berriz lurraren gaiñean. **3** Eta egin zuen oihu gora bat lehoinaren orroa bezalako, eta hark oihu egin zuenean, zazpi ihurtzurik adiarazi zituzten bere bozak. **4** Eta zazpi ihurtzuriak adiarazi zituztenean bere bozak, ni eskribatzerat nindohan, baiñan aditu nuen boz bat zerutik erraten zarotana: «Zigilla zatzitzu zazpi ihurtzuriaren erranak eta ez detzatzula eskriba». **5** Orduan itsasoaren eta lurraren gaiñean xutik zegoela ikusi izan nuen aingeruak altxatu zuen eskua zerurat; **6** eta juramentu egin zuen mendetako mendetan bizi denaz, zeñek kreatu izan baiditu zerua eta zeruan diren guziak, lurra eta lurrean diren guziak, itsasoa eta itsasoan diren guziak, denborarik ez zela izanen gehiago, **7** baiñan zazpi garren aingeruak bere boza adiaraziko zuen egunean eta tronpeta jonen zukenean, akhabatuko zela Jainkoaren misterioa, bere zerbitzari profetez deklaratu izan duen bezala.

**8** Eta aditu nuen zerutikako boza berriz ere mintzo zitzaitala eta erraten zarotala: «Zohaz eta har zazu liburu idekia itsasoaren eta lurraren gaiñean xutik dagoen aingeruaren eskutik». **9** Joan nintzen aingerua ganat eta erran nioen eman ziezadala liburua, eta erran zarotan: «Har zazu liburua eta irets zazu; kharminduko du zure sabela, baiñan zure ahoan gozo izanen da ezta bezala». **10** Hartu nuen bada liburua aingeruaren eskutik eta iretsi nuen, eta zen ene ahoan ezta bezain gozo; ordean iretsi izan

nuenean, kharmindu zen ene sabela. **11** Orduan erran zarotan: «Berriz ere behar diozute profetisatu nazioeei, populuei, lengoia diferentetako gizonei eta hainitz erregeri».

## XI. KAP.

**1** Eman zarotedan gero kanabera bat haga bat bezalako eta erran zarotedan: «Altza zaitte eta neurth zazu Jainkoaren tenplua eta aldarea; neurtzatzitzu han adoraten dutenak ere. **2** Tenpluaren kanpoko alde ordean utzazu eta ez dezazula neurt, zergatik utzi baitzaie hura jentillei eta hiri saindua ostikatuko dute berrogoi eta bi ilhabethez. **3** Baiñan emanen daroet mezua ene bi lekhukoei, eta profetisatuko dute milla eta berrehun eta hirur hogoi egunez sakhuz bestituak. **4** Hauk dire bi azitun ondo eta bi kandeler lurraren Jaunaren aitziañean daudezenak. **5** Baldin nihork hei gaixkirik egin nahi badaroe, su bat ilkhiko da hekien ahotik, hekien etsaiak iretsiko dituena; eta baldin nihork hei kalterik egin nahi badaroe, horla beharko du haiñak hilla izan. **6** Hauk badute botherea zarratzeko zerua, uririk egin ez dezantzat hek profetisatuko duketen denboran; eta badute botherea ganbiatzeko urak odoletarat eta jazartzeko lurrari plaga suerte guziaz nahiko duten guzian.

**7** Eta akhabatuko duketenean bere lekhukotasuna, leze barnetik igiten den bestiak eginen du gerla hekien kontra; garaituko ditu eta hillen ditu. **8** Eta hekien gorphutzak egonen dire etzanak hiri handiko karriketetan, zein deitzen baida izpiritualki Sodoma eta Ejipto, zeinetan gurutzefikatua izan baida hekien Jauna ere. **9** Eta ikusiko dituzte leiñu guzitako, populu guzitako, lengoia guzitako, nazione guzitako jendeek hekien gorphutzak hirur egun eta erdiz, eta ez dituzte utziko ezartzerat sepulturan. **10** Lurreko habitantak boztuko dire hekien heriotzeaz; alegerantziak egiñen dituzte eta presentak igorriko darozte elkharri, zeren bi profeta hek tormentatu izan baidituzkete lurraren gaiñean zeudezenak».

**11** Baiñan hirur egunen eta erdiren buruan bizitzezko Izpiritua sarrazazi zuen Jainkoak hekien baithan; altxatu ziren xutik bere oiñen gaiñean, eta hek ikusi izan zituztenak sesituak izan ziren izialdura handi batez. **12** Orduan aditu izan zuten boz handi bat zerutik hei erraten zaroena: «Igan zaitzete hunat» eta igan ziren zerurat hedoipe batean, bere etsaiak ikusten zituztela. **13** Ordu hartan berean egin zen lur ikharatze handi bat eta hiriarren hamargarren parte erori izan zen, eta hill izan ziren lur ikharatze har-



tan zazpi milla gizon; bertze gaiñerakoak izitu ziren, eta eman zioten gloria zeruko Jainkoari. **14** Bigarren zorigaitza goan da; eta horra hirugarrena non heldu den.

**15** Zazpi garren aingeruak jo zuen tronpeta eta aditu izan ziren zeruan boz handi batzu ziotenak: «Iragan da mundu huntako Erresuma gure Jauna ganat eta haren Kristo ganat, eta erregiñatuko du mendetako mendetan. Amen».

**16** Denbora berean hogoi eta laur zaharrak, Jainkoaren aitzinean bere kadiretan jarriak daudezenak, erori ziren ahozpeztan eta adoratu izan zuten Jainkoa, ziotelarik: **17** «Eskerrak darozkitzugu ematen, Jauna, Jainko guziz boheretsu ziñena, zarena eta ethorri behar zarena, zeren baliatu baitzare zure bohere handiaz eta erregiñatzen baidutzu. **18** Hasarratu dire nazioneak eta ethorri diteke zure koleraren denbora eta golardoa ematekoa zure zerbitzari profetei eta sainduei eta zure izenaren beldurra dutenei, xiperrei eta handiei, eta desegitekoa lurra gaizkoatu dutenak». **19** Orduan ideki izan zen Jainkoaren tenplua zeruan, eta ikusi izan zen haren alientziaren arka haren tenpluan, eta egin ziren xismistak, bozak, lur ikharatze bat eta babazuza handi bat.

## XII. KAP.

**1** Gauza miragarri bat agertu izan zen zeruan: emaste bat iguzkiat inguratua, ilhargia bere oiñen azpian zuena eta hamabi izarrezko khoroa bat buruan.

**2** Eta izorra baitzen, heiaigoraz zegoen erditzeko minez eta erditzean sentitzen zituen doloreez. **3** Bertze gauza miragarri bat ere ikusi izan zen zeruan: dragoin handi gorri bat zazpi buru zituena eta hamar adar; eta bere buruetan zazpi burute. **4** Bere buztanaz herrestan zaraman zeruko izarren heren partea, eta erorarazi zituen lurrerat, eta dragoin hura gelditu izan zen emazte erdi behar zuenaren aitzinean, erdi zitekenean haren semea irestea gatik. **5** Erdi zen bada seme batez, zeiniek gobernatu behar ko baitzituena nazione guziak burdiñazko zigor batekien, eta goratua izan zen haren semea Jainkoa ganat eta haren thronurat. **6** Eta emastea goan zen ihesi deserturat, zeinetan baitzuen gorde lekhu bat Jainkoaz preparatua, han hazia izateko milla eta berrehun eta hirur hogoi egunez.

**7** Egin zen gero gudu handi bat zeruan: Mikael eta bere aingeruak hari ziren guduan dragoiñaren kontra, eta dragoiña ere berriz eta bere

aingeruak hari ziren guduan. **8** Ordean hauk izan ziren flakoenak, eta haukientzat tokirik gehiago ez zen aurkhitu zeruan. **9** Eta dragoin handi hura, suge zahar hura, Deabrua deitzen dena eta Satana, mundu guzia engantzen duena, arthikia izan zen lurrean behera eta haren aingeruak ere arthikiak izan ziren harekien batean.

**10** Eta aditu nuen boz handi bat zeruan ziotsana: «Orainxe da ifinia gure Jainkoaren salbamendua eta indarra eta erresuma eta haren Kristoren botherea, zeren arthikia izan baida gure anaien akusatzaillea, gure Jainkoaren aitzinean gau eta egun hekien akusatzen hari zena. **11** Ordean hek garaitu izan zaizko bildotsaren odolaren ariaz eta haren hitzari errendatu izan dioten lekhukotasunaren ariaz; eta guphidetsi gabe bere biziak, pairatu dute heriotzeraiñokoan. **12** Hargatik bada zaitztezte alegera zeruak, eta zuek, hetan zaudeztenak; zorigaitz lurrari eta itsasoari, zeren jautsi izan baida deabrua zuen ganat irakidura handi batez bethea baidaki ezen denbora apherua duela».

**13** Ikusi izan zuen ondoan dragoiñak egoitzia zela lurrerat, jarraiki zitzaioen seme batez erdi izan zen emasteari; **14** ordean eman zitzaizkon emasteari bi hegal arrano handi batenak, hegalda zedin gatik deserturat bere gorde lekhurat, zeinetan hazia baida denbora batez, denborez eta denbora erdi batez, sugearen bistatik kanpoan.

**15** Orduan arthiki izan zuen sugeak bere ahotik urez ibaia bat bezala emastearen ondotik, hura bere uretan atzematea gatik. **16** Baiñan lagundu zuen lurra emastea, ideki zuen bere galtzarbea, eta hurrupatu izan zuen dragoiñak bere ahotik arthiki izan zuen ibaia. **17** Eta hasarraturik dragoiña emastearen kontra, goan zen gerla egiterat haren bertze hurrei, zeiniek begiratzen baidituzte Jainkoaren manamenduak eta zeiniek baidiraute Jesukristori lekhukotasuna errendatzen. **18** Eta gelditu zen itsasoko harearen gaiñean.

## XIII. KAP.

**1** Eta ikusi nuen itsasotik igaten bestia bat zituena zazpi buru eta hamar adar, eta bere adarren gaiñean hamar diadema, eta bere buruen gaiñean blasfemiozko izenak. **2** Nik ikusi nuen bestiak iduri zuen leoparda bat; haren oiñak ziren hartzaren oiñak bezalakoak; haren ahoa zen lehoiñaren ahoa bezalakoa, eta hari eman zioen dragoiñak bere indarra eta bere bohere handia. **3** Eta ikusi nuen haren buruetarik bat hiltze-





raiñokoan zaurthua bezala, baiñan zauri hillgarri hura sendatu zitzaioen eta mundu guzia miretsirik jarreiki zitzaioen bestiari. **4** Adoratu zuten dragoiña, zeïnek eman baitzaien botherea bestiari, eta adoratu zuten bestia ere erraten zutelarik: «Nor da bestiaren pare? eta nor guduka ahal diteke haren kontra?».

**5** Eta eman zitzaion aho bat orgilleriazko hitzak eta blasfemioak erraten zituena; eta eman ere zitzaion botherea gerla egiteko berrogoi eta bi ilhabetez. **6** Ideki zuen bada ahoa blasfematzeko Jainkoaren kontra, blasfematzeko haren izena eta haren tabernaklea eta zeruan daudezenak. **7** Eman ere zitzaion botherea sainduei gerla egiteko eta hek garaitzeko; eta eman zitzaion bothere leiñu guzien gaiñean, populu eta erdara eta nazione guzien gaiñean. **8** Adoratu izan zuten turraren gaiñean daudezen guziek, zeïnen izenak ez baidire eskribatuak munduaren hastean danik hillarazia izatu den bildotsaren bizitzeko liburuan. **9** Baldin nihork badu beharririk, adi dezala. **10** Gathibutasunerat eramanen duena goanen da bera ere gathibutasunerat. Ezpatatz hillen duena bera ere ezpatatz hilla beharra izanen da. Hemen da sainduen pairagunea eta fedea.

**11** Ikusi nuen oraiño bertze bestia bat lurretik altxatzen zena, eta zituen bi adar bildotsarenak bezalakoak; ordean mintzo zen dragoiña bezala. **12** Eragiten zuen lehenbiziko bestiaren bothere guzia haren begietan, eta adora arazi zaroen lurrari eta han daudezenei lehenbiziko bestia, zeïñaren zauri hillgarria izan baitzen sendatua. **13** Egin zituen prodijio handi batzu, bai halako moldez, non sua jautsarazitzen baitzuen zerutik lurrerat gizonen begietan. **14** Eta balakatu izan zituen lurreko egokiak, bestiaren aitzïñean egiteko botherea zuen prodijioen gatik, erraten zaroe-larik turraren gaiñean egoten direnei, egin ziozatela imajina bat ezpata kolpea errezibitu izan zuen bestiari eta hala ere bizia zenan. **15** Eman zitzaion ere botherea bestiaren imajinara izpiritua emateko, eta imajina hura mintzaratzitzeko eta bestiaren imajina adoratzeko ez zuketean guziak hillaratutzeko. **16** Obligatuko ere ditu guziak, xiperrak eta handiak, aberatsak eta pobreak, libro direnak eta gathibu direnak, ekhartzerat bestiaren karaktera bere esku eskuïñean edo bekhokian, **17** halako moldez, non nihork ezin erosiko baidu, ez salduko, bestiaren karaktera edo izena edo haren izenaren kontua izanen duenak baizen. **18** Hemenxe da zuhurtzia. Adimendurik duenak konda beza bestiaren kontua; kontua da ezen gizon batena, eta haren kontua da sei ehun eta hirur hogoi eta sei.

#### XIV. KAP.

**1** Behatu nuen eta ikusi nuen Bildotsa xutik zegoela Siongo mendien gaiñean, eta harekien ehun eta berrogoi eta laur milla presuna, zutenak haren izena eta haren Aitaren izena eskribatua bere bekhokietan. **2** Eta aditu izan nuen boz bat zerutik ur handi batzuen habarrotsa bezalako eta ihurtzuri handi baten habarrotsa bezalako; eta nik aditu nuen boz hura zen githarra jotzen hari diren hainitz gitarra joilleen soiñua bezalako. **3** Zuten kantatzen kantu berri bat bezala thronuaren aitzïñean eta laur animalien eta zaharren aitzïñean; eta nihork ezin kanta zezaken kantu hura, baizen ehun eta berrogoi eta laur milla hek, zeïñak erosiak izan baidire lurretik. **4** Hek dire emastekiekien lohitu izan ez direnak, birjinak baidire. Hek dire Bildotsari darraitzanak dohan toki guzietarat. Hek dire gizonen artetik erosiak izan direnak, lehenbizikoetarik konsekratuak izateko Jainkoari eta Bildotsari. **5** Eta hekien ahoan ez da aurkhitu izan gezurrik; hala tatxa gabe ere dire Jainkoaren thronuaren aitzïñean.

**6** Gero ikusi nuen bertze aingeru bat hegaldaka ziohana zeruaren erditik zakharkela Ebanjelio eternala, hura irakasteko lurreko egokiei, nazione guziei, leiñu guziei, erdara guzietakoei eta populu guziei; **7** eta zio-tsan heigoraz: «Zareten beldur Jainkoaren eta emozue gloria, zeren ethorri baida haren jujeamenduaren ordua; eta adora zazue zerua eta lurra, itsasoa eta ur ithurria egin ikan dituen».

**8** Ondoan ethorri zen berze aingeru bat eta erran zuen: «Erori da, erori da Babilonia, hiri handi hura, zeïnek bere lohikeriaren irakidurako arnotik edanarazi izan baidaroe nazione guziei».

**9** Haukien ondoan berriz ethorri zen hirur garren aingeru bat, zio-tsana oiñu goraz: «Baldin nihork adoratzeko badu bestia eta haren imajina edo hartzen badu haren karaktera bere bekhokian edo bere eskuan, **10** haiñak edanen du Jainkoaren irakidurazko arnotik, haren irazakiduraren kalitzean preparatua den arno phuru hartarik eta izanen da tormentatua suz eta sufrez aingeru sainduen aitzïñean eta Bildotsaren presentzian. **11** Eta hekien tormentako khea altxatuko da mendetako mendetan, eta ez dute izanen sosegurik ez gauaz eta ez egunaz bestia eta haren imajina adoratu izan duketenentzat, edo haren izenaren karaktera hartu duketenentzat. **12** Hemenxe da sainduen pairagunea, zeïnek begiratzen baidituzte Jainkoaren manamenduak eta Jesusen fedea».



13 Orduan aditu izan nuen boz bat zerutik, erraten zarotana: «Eskriba zazu: Dohatsuak dire hillak, Jauna baithan hiltzen direnak. Oraindik dio Izpirituak: Deskantsatuko dire bere nekhetarik, ezen bere obrak bada-rraizte».

14 Eta beha nindagoelarik, ikusi nuen hedoi xuri bat, eta hedoi haren gainean jarria Gizonaren Semea zidurien bat, zuena buruaren gainean urrezko khoroa bat eta eskuan igitei zorrotz bat. 15 Bertze aingeru bat ilkhi zen tenplutik, oihu handi egiten zioela hedoiaren gainean jarria zegoenari: «Erabillazu zure sega, eta egizu uzta, ethorri da ezen denbora uzta egitekoa, zeren lurreko uzta zorhitua baida». 16 Hedoiaren gainean jarria zegoenak, bada, erabilli zuen bere igiteia lurraren gainean eta uztatua izan zen lurra.

17 Bertze aingeru bat oraino ilkhi zen zeruan den tenplutik, hark ere baitzuen igitei zorrotz bat. 18 Bertze aingeru bat berriz ilkhi zen aldaretik, zeinek baitzuen bothere suaren gainean; eta egin zioen oihu gora igitei zorrotza zuenari, erraten zioelarik: «Erabillazu zure igitei zorrotza eta ebaki zatzu lurreko mahastiko mulkhoak, zeren zorhituak baidire hango mahatsak». 19 Erabilli zuen, bada aingeruak bere igitei zorrotza lurraren gainean, eta ebakirik hango mahatsa, arthiki zuen Jainkoaren kolaren dolhare handirat. 20 Eta dolharea zapatua izan zen hiriaz kanpoan, eta dolharetik ilkhi zen odola bazen zamarien bridetaraino milla eta sei ehun estadioren hedaduran.

## XV. KAP.

1 Ikusi nuen zeruan bertze prodijio bat handia eta miragarria: zazpi aingeru, zeinek baitzituzten azkeneko zazpi plagak, zeinetaz baida akhabatzen Jainkoaren irakidura. 2 Eta ikusi nuen beirazko itsaso bat bezala suz nahastekatua; eta bestia, haren imajina eta haren izenaren kontua garaitu izan zutenak zeudezela beirazko itsasoa bezalako haren gainean, Jainkoaren gitarrak zituztelarik. 3 Eta zuten kantatzen Moise Jainkoaren zerbitzariaren kantua eta Bildotsaren kantikoa, ziotsatelarik: «Handiak eta miragarriak dire zure egitateak, o Jainko Jaun guziz botheretsua; justuak eta egiazkoak dire zure bideak, o mendetako Erregea. 4 Nor ez da zure beldur izanen, Jauna? Nork ez du glorifikatuko zure izena? Ezen zu bakharra zare urrikalmenduz bethea; ethorriko ere zaizkitzu nazione guziak

eta jarriko dire ahozpez zure aitzinean, zeren agertu baidire zure jujeamenduak».

5 Horien ondoan behatu nuen eta ikusi, idekitzen zela lekhukotasuneko tabernaklearen tenplua zeruan. 6 Eta ilkhi ziren tenplutik zazpi plagak zituzten zazpi aingeruak liño garbiz eta xuriz bestituak, eta urrezko gerrikoez bulharren gainean gerrikatuak. 7 Orduan laur animalietarik batek eman izan zaroen zazpi aingeruei zazpi xopera urrezko, mendetako mendetan bizi den Jainkoaren koleraz betheak. 8 Eta bethe zen tenplua khez Jainkoaren majestatearen eta handitasunaren presentzian; eta nihor ezin sar ziteken tenpluan, akhabatu zitezken artean zazpi aingeruen zazpi plagak.

## XVI. KAP.

1 Eta aditu nuen boz handi bat tenplutik erraten zaroena zazpi aingeruei: «Zohazte eta isur zatzitzue Jainkoaren irakiduraren zazpi anpoillak lurraren gainerat».

2 Goan zen lehenbizikoa eta isuri izan zuen bere anpoilla lurraren gainerat, eta ethorri zitzaien zauri dorphe eta gaixto bat bestiaren seiñalea zuten gizonei eta haren imajina adoratu izan zutenei.

3 Bigarren aingeruak isuri izan zuen bere anpoilla itsasoaren gainerat eta egin zen hill baten odola bezala; eta itsasoan bizia zuen guzia hill izan zen.

4 Hirugarren aingeruak berriz isuri izan zuen bere anpoilla ibaien gainerat eta ur ithurrien gainerat, eta odol bilhakatu izan ziren. 5 Eta aditu nuen uretako aingerua erraten: «Justua zare, Jauna, zarena eta ziñena. Saindua zare horlako jujeamenduak ematen baidituztu; 6 zeren sainduen eta profeten odola isuri izan duten, zuk ere hei odola eman diozute edaterat, merezi dute ezen». 7 Aditu nuen bertze aingeru bat aldaretik erraten zuena: «Baiki, Jauna, Jainko bothere guzia duzuna; egiazkoak eta justuak dire zure jujeamenduak».

8 Laur garren aingeruak isuri izan zuen bere anpoilla iguzkiaren gainerat eta eman zitzaion indarra tormentatzeko gizonak suaren berotasunaz. 9 Erre ziren gizonak su handi batez eta blasfematu zuten Jainkoaren izena, zeinek baidaduzka plaga horiek bere botherean, eta ez zuten egin penitentzia hari gloria emateko.



**10** Bortzgarren aingeruak isuri izan zuen bere anpoilla bestiaren thronuaren gaiñerat eta egin zen haren erresuma ilhumbetsu eta ausiki zituzten gizonek bere mihiak dolorearen handiz. **11** Blasfematu izan zuten Jainko zerukoa bere doloreak gatik eta bere zauriak gatik, eta ez zuten egin penitentzia bere egitatez.

**12** Seigarren aingeruak isuri izan zuen bere anpoilla Eufrateko ibaia handi haren gaiñerat eta agortu izan zen hango ura, bidea egiteko iguzkia ilkhitzetik ethorri behar zuten erregeei. **13** Orduan ikusi izan nituen ilkhitzzen dragoinaren ahotik, bestiaren ahotik eta profeta falsoaren ahotik hirur izpirituz lizun negalen idurikoak. **14** Dire ezen deabruen izpirituek prodijioak egiten dituztenak, eta mundu guziko erregetarat goaten direnak, hek billaratzitzeko gudurat Jainko bothere guzitakoaren egun handikotzat. **15** Sarri heldu naiz ohoiña bezala. Dohatsu atzarria dagoena eta bere tresnak begiratzen dituena, beldurrez bulhuzia ibill ez dadin eta ager ez dezan bere ahalkeria. **16** Bildu izan zituzten errege hek hebraikoz Armagedon daritzan lekhurat.

**17** Zazpigarren aingeruak isuri izan zuen bere anpoilla airerat eta ilkhi zen boz handi bat tenplutik, thronuaren aldetik, ziotsana: «Egin du hekienak». **18** Ordu berean egin ziren xismistak, habarrotsak eta ihurtzuriak; eta egin zen lur ikharatze bat hain handia bai, non egundaiño ez baitzen izatu, gizonak lurraren gaiñean direnaz geroztik, halako lur ikharakterik eta hain handirik. **19** Eta egin zen hiri handia hirur zathitan; nazionetako hiriak erori izan ziren, eta Babilonia handia ethorri izan zitzaion gogorat Jainkoari bere hasarrean eta zuminduraren arnozko kalitza hari edaterat emateko. **20** Irla guziak goan ziren ihesi eta mendiak urmariatu izan ziren. **21** Eta babazuza handi bat talentu baten pisukoa erori izan zen zerutik gizonen gaiñerat; eta blasfematu zuten Jainkoa gizonek babazuza-plaga gatik, zeren handia baitzen hainitz plaga hura.

## XVII. KAP.

**1** Orduan ethorri zen zazpi anpoillak zituzten zazpi aingeruetarik bat. Mintzatu zitzaitan eta erran zarotan: «Zato; erakutsiko darotzut emasteki galdu handiaren kondenezioa, zeïña baidago jarria ur handiaren gaiñean, 2 zeïñarekien lohitu izan baidire lurreko erregeak, eta zeïñak hordiarazi izan baiditu lurreko egokiak bere lohikeriako arnotik».

**3** Eta eraman izan baininduen izpirituz bakhar lekhurat, ikusi izan nuen emaste bat jarria, blasfemiozko izenez bethea zen bestia eskarlata kolorezko baten gaiñean, zeinek baitzituen zazpi buru eta hamar adar. **4** Emasteki hura zen bestitua purpraz eta eskarlatez, berregindua urrez, barri preziatuz eta perlaz, eta zuen kopa urrezko bat eskuan bere lohikeriako abominazionez eta likhitsez bethea. **5** Eta haren bekhokian izen hau zen eskribatua: «Misterioa, Babilonia handia, lurreko lohikerien eta abominazioeen ama».

**6** Eta ikusi nuen emasteki hura horditua sainduen odolaz eta Jesusen marthiren odolaz, eta hura ikusteaz harritu nintzen eta espantatu. **7** Orduan erran zarotan aingeruak: «Zertaz zare miretsia? Nik erranen darotzut emastekiaren misterioa eta hura ekhartzen duen bestia, zazpi buru eta hamar adarretakoarena. **8** Ikusi izan duzun bestia izatu da eta ez da; eta igan beharra da tulunbiotik eta gero suntsitu beharra alde batetarat; eta espantatuko dire lurrean daudezenak, zeïnen izenak ez baidire eskribatuak bizitzeko liburuan munduaren hastapenetik, ikusteaz bestia ohi zena eta gehiago ez dena. **9** Eta hauxe da horren sentsua zuhurtziaz bethea: zazpi buruak zazpi mendi ditezke, zeïnen gaiñean jarria baidago emastekia; orobat zazpi errege ditezke. **10** Bortz hillak dire; bat bada oraiño eta bertzea oraiño ez da ethorri; eta dathorreanean denbora aphurrez egon beharko du. **11** Eta bestia, zein baitzen eta zein ez baida, eta hura bera da zortzi garrena; eta zazpitarik ere da eta sarri suntsitzerat doha. **12** Ikusi izan dituzun hamar adarrak hamar errege dire, zeïnek erresuma ez baidute oraiño errezibitu, baiñan botherea errezibitu dute errege bezala oren batenzat bestiaren ondoan. **13** Hauk xede bat eta bera dute, eta bere indarra eta botherea emanen diote bestiari. **14** Hauk gerla egiñen diote Bildotsari, eta bildotsak garaituko ditu bek, zeren Jaunen Jauna baida eta Erregeen Erregea; eta harekien direnak dire deithuak, hautatuak eta fidelak».

**15** Erran zarotan oraiño: «Ikusi izan dituzun urak, zeïñetan baidago jarria emasteki paillarda hura, dire populuak, nazioak eta erdarak. **16** Bestiari ikusi diotzotzun hamar adarrak dire emasteki galdu hari gaitx nahiko diotenak, hura desolatuko dutenak, bulhuziko dutenak, haren haragiak iretsiko dituztenak eta bera suan erreko ere dutenak. **17** Jainkoak ezen eman daroe bihotzean egin dezaten hari lakhet zaiोजना, eman diotzen bere erresuma bestiari, konplituak izan daitezten artean Jainkoaren erranak. **18** Eta emasteki ikusi izan duzuna da lurreko erregeen gaiñean eregiñatzen duen hiri handia».



## XVIII. KAP.

**1** Horien ondoan ikusi nuen bertze aingeru bat jausten zena zerutik, zuena bothere handi bat, eta lurrak argitzen zuen haren gloriaraz. **2** Egin zuen oiuhu bere indar guziaz erraten zuelarik: «Erori da, erori da Babilonia handia, eta egin izan da deabruen egoitza eta izpiritu lohi guzien eta hegaztin lizun eta higingarri guzien gordelekhua, **3** zeren haren lohikeriaren kolerazko arnotik edan izan duten nazione guziek; eta lurreko erregeak lohitu izan dire ere harekien, eta lurreko merkatariak aberastu izan dire hark bere atsegiñetako erabilli izan dituen sobranietarik».

**4** Aditu nuen bertze boz bat ere zerutik, erraten zuena: «Ikhi zaite hortik, ene populua, beldurrez ezen parterik duzuen horren bekhatuetan eta horren plagetan, **5** zeren igan izan baidire horren bekhatuak zeruraino, eta orhoitu izan da Jauna horren gaixtakeriez. **6** Bihur diozozue ordainez zer ere berak egin izan baidarotzue, eta hura; eta are bihur diozozue bietakoa bere egitatean arauera; hark edaterat eman izan darotzuen edateko beretik edanaraz diozozue bietan haiñbertze. **7** Zenbat ibilli izan baida handiagoan eta atsegiñetan, eta hanbat eman diozozue tormenta eta dolore, zeren erraten baidu bere gogoan: «Jarria naiz erregeñatza, ez naiz alhargun eta dolurik ikusiko ez duket». **8** Hargatik bada dire egun berean ethorriko haren plagak, herioa, dolua eta gosetea; eta da suaz errea izanen, zeren botheretsu baida hura kondenatuko duken Jainkoa.

**9** Orduan egonen dire nigarrez eta auhenez haren gainean harekien lohitu izan diren eta atsegiñetan bizi izan diren lurreko erregeak, ikusiko duten orduan haren erretzearen khea. **10** Urrundik egonen dire haren tormenten iziapenez, eta erranen dute: «Oi hau zoria eta zorigaitza, Babilonia, hiri handia eta hiri borthitza, betbetan ethorri izan baida hire kondanazionea!».

**11** Lurreko merkatariak ere nigarrez eta hats beherapenez egonen dire haren gainean, zeren nihork ez baiditu erosten gehiago hekien salkariak. **12** Urrezko eta zilharrezko salkari hek, harri preziatuak, perlak, liñu finak, purpurak, sedak, eskarlatak, usain onetako zur mota guziak, ebolikazko muble guziak, harri preziatuzkoak, kobrezkoak, burdinazkoak eta marbola harrizkoak, **13** zinamoma urrin onak, ur usain onetakoak, inzen-sua, arnoa, olio, irin lorea, ogi bihia, kargako abreak, ardiak, zamariak, karrosak, esklaboak eta libroak, **14** hire desira eta atsegina egiten ohi zuten

fruituak goan zaizkin hire ganik; delikatasun eta ostendade guzia akhabo dun hiretzat, gehiago aurkhituko ez ditun».

**15** Gauza horietako merkatariak eta harekien aberastu izan direnak haren ganik urrun egonen dire haren tormenten iziapenez nigarretan eta hats beherapenetan; **16** erraten dutelarik: «Helaz, helaz, hiri handi hura, liño finez, purpuraz eta eskarlatez bestitua zena, eta urrez, harri preziatuz eta perlaz estalia! **17** Betbetan urmariatu izan baidire hanbat aberatstasun; eta pillotu guziak, itsasoan dabiltzan guziak, marinela eta itsasoan enplegu dutenak urrundak egon zaizko. **18** Eta oihuz jarri dire ikusi dutenean hiri erre haren tokia, erraten dutelarik: «Zein hiri izan da egundaino hiri handi hau bezalakorik?». **19** Estali dituzte herrautsez bere buruak eta deia-goraz jarri izan dire nigarretan eta auhenetan, erraten dutelarik: «Helaz, helaz, hiri handi hura, zinetan aberastu izan baidire untziak itsasoan zituzten guziak harekien egiten ohi zituzten irabaziez; betbetan izan baida iraulia. **20** Bozkaria zaite horren gainean, zerua, eta bai zuek ere, apostolu sailduak eta profetak, zeren justizia egin baidarotzue hartaz».

**21** Orduan altxatu izan zuen aingeru borthitz batek harri bat, errota harri handi bat bezalakoa, eta arthiki itsasorat erraten zuelarik: «Hunelakotxe abiaduran izanen da arthikia Babilonia hiri handi hura, eta gehiago ez da aurkhituko. **22** Eta gitarrarien boza, ez musikanoena, eta ez xirola eta tronpeta joileena ez dun adituko gehiago hire baithan; zer nahi ofiziotako ofizialerik batere ez dun aurkhituko hire baithan gehiago, eta errota harriaren habarrotsa ez dun adituko hire baithan gehiago. **23** Lanpen argiak ez din argituko hire baithan gehiago, eta ez oraino esposaren esposaren eta esposoaren boza dun adituko hire baithan, zeren hire merkatariak baitziren lurreko prinzeetarik, zeren hire edari pozoatuez zortuak izan baidire nazione guziak». **24** Eta hiri hartan aurkhitu izan ere da profeten eta sailduen odola eta bai lurraren gainean hillaraziak izan diren guziak.

## XIX. KAP.

**1** Horien ondoan aditu izan nuen tropela hainitzen boz bat bezala, zeruan erraten zuena: «Alleluia, agur, gloria eta bothere gure Jainkoari dagoka; **2** zeren egiazkoak eta justuak baidire haren jujeamenduak, zeren kondenatu izan baidu bere lohikeriaz lurra uhertu izan duen emagaldu handi hura, eta bendekatu izan baidu bere zerbitzarien odola, haren



eskuek isuri izan dutena». **3** Eta berriz ere erran zuten: «Alleluia»; eta haren erretzearen khea altxatu zen mendeen mendetakotz. **4** Orduan erori ziren ahozpepe hogoi eta laur zaharrak eta laur animaliak eta adoratu zuten Jainko thronuaren gainean jarria zegoena, erraten zutelarik: «Amen, alleluia». **5** Eta ilkhi zen boz bat thronutik, erraten zuena: «Lauda zazue gure Jainkoa haren zerbitzari zaretzen guziek eta haren beldurra duzuenek, xipiek eta handiek».

**6** Aritu izan nuen oraino ere tropela handi baten habarrotsa bezala, ur handi batzuen habarrotsa bezala eta ihurtziri handi batzuen habarrotsa bezala, erraten zutenena: «Alleluia, zeren erregiñatzen baidu gure Jainkoak, bothere guzia duenak. **7** Boz gaitezen eta alegera gaitezen eta demogun hari gloria, zeren ethorri baidire Bildotsaren ezteiak eta haren emaztea preparatua baida, **8** eta eman baitzaio besti dadin lino finez, diztiantez eta xuriz, lino fin hura ezen sainduen justizia da».

**9** Aingeruak orduan erran zarotan: «Eskriba zazu: Dohatsu Bildotsaren ezteietako afarira deithuak direnak». Erran zarotan halaber: «Jainkoaren hitz hauk egiak dire». **10** Berehala arthiki nintzen haren oiñetarat hura adoratzeko, baiñan erran zarotan: «Begirautzu hori egitetik; zerbitzaria naiz, zure kide eta zure anaien zeñek Jesusi errendatu izan baidiole lekhukotasuna. Jainkoa dezazu adora, ezen profeziatzko Izpiritua Jesusen lekhukotasuna diteke».

**11** Gero ikusi nuen zerua idekia, eta agertu zen zaldi zuri bat; eta haren gainean jarria zena deitzen zen Fidela eta Egiatia, justutasunekien jujeatzen duena eta gudukatzen dena. **12** Haren begiak ziren suaren kharra bezala; bazituen buruan diadema hainitz, eta zuen izen bat eskribatua, nihork ezagutzen ez duena berak baizen. **13** Zen bestitua odolez tintatua zen arropa batez eta haren izena deitzen da Jainkoaren Berboa. **14** Zeruan diren armadak hari zarraizkon, zaldi zurien gainean jarriak, lino xuriz eta garbiz bestitua. **15** Eta haren ahotik ilkhitzen zen ezpata bat bi aldetarik zorrotza, hartaz jazartzeko nazioneei, ezen hark ditu hek gobernatuko burdiñazko zigor batekien, eta hark du ere ostikatzen Jainko bothere guzia duenaren furiazko eta irakidurazko arnoaren dolharea. **16** Eta du bere arroparen eta bere ixterraren gainean eskribatua: «Erregeen Erregea eta Jaunen Jauna».

**17** Ondoan ikusi nuen aingeru bat iguzkian xutik zegoena, zeñek oiñu egin baitzaroen gora zeruaren erditik hegaldatzen ziren hegatzin guziei, erraten zaroelarik: «Zatozte eta bil zaitezte Jainkoaren afari handi-

rat, **18** jan detzatzuen erregeen haragiak, gerlako ofizialeen haragiak, indartsuen haragiak, zaldien eta hekien gainean direnen haragiak eta libro eta esklabo, xiper eta handi guzien haragiak».

**19** Eta ikusi nituen bestia eta lurreko erregeak eta hekien armadak bilduak, gerla egiterat zaldiaren gainean jarria zenari eta haren armadari. **20** Bainan hartua izan zen bestia eta harekien batean profeta falsoa, haren aitzinean prodijioak egin izan zituena, zeñetaz enganatu izan baitzituen bestiaren karaktera hartu izan zutenak eta haren imajina adoratu izan zutenak; eta biak bizirik arthikiak ikan ziren sua eta sufrea zeitxaizkoen lekhurat. **21** Bertzeak hillak izatu ziren zaldi gainean jarria zegoenaren ahotik atheratzen zen ezpatatz; eta hegatzin guziak ase ziren hekien haragietarik.

## XX. KAP.

**1** Ikusi nuen berriz aingeru bat jausten zerutik leze hosineko gakhua eta gathe handi bat bere eskuan zuena. **2** Hartu izan zuen dragoiña, suge zaharra, zein baida deabrua eta Satana, eta estekatu izan zuen milla urtherentzat. **3** Egotzi zuen tulunbioan behera, zarratu zuen han, eta ibeni zuen zigillu bat haren gainean, engana ez detzantzatz gehiago nazionek akhaba ditezken artean milla urtheak, zeñen ondoan lexatua behar baidu izan denbora gutitakotz batetakotz.

**4** Ikusi nituen halaber thronu batzu eta hetan jarri izan zirenak, eta jujeatzeko botherea eman izan zitzaien hainei. Ikusi izan nituen oraino Jesukristori lekhukotasuna errendatze gatik eta Jainkoaren hitza gatik buruak ebakiak izan zituztenen arimak, bestia ez haren imajina adoratu izan ez dutenenak, haren seiñalea bekhokian ez eskuan hartu izan ez dutenak. Eta bizi izan ziren eta erregiñatu izan zuten Jesukristorekien milla urthez. **5** Bertze hillak ez dire biztu akhaba ditezken artean milla urtheak. Hori da lehenbiziko biztea. **6** Dohatsu eta saindu da parte duena lehenbiziko biztean. Hainen gainean bigarren heriotzeak ez du bothererik; aitzitik haiñak izanen dire Jainkoaren eta Jesukristoren aphez eta erregiñatuko dute harekien milla urthez. **7** Eta akhabatu ditezkenean milla urtheak, lexatua izanen da Satana eta atherako da bere presondegitik eta irabaziko ditu lurraren laur kantoiñetan diren nazionek, Gog eta Magog, eta bilduko ditu gudurat, hekien kontua izanen baida itsasoko harea bezala. **8** Barraiatu ziren lurraren hedadurat «eta inguratu zuten sainduen ostea eta



hiri maitea. **9** Ordean jaustarazi izan zuen Jainkoak zerutik su bat, zeinek iretsi izan baitzituen; eta deabrua, hek irabazten ohi zituena, arthikia izan zen suzko eta sufrezko lakhuarat, zeinetan bestia **10** eta bai profeta falsoa tormentatuak izanen baidire gau eta egun mendetako mendetan.

**11** Ikusi izan nuen halaber thronu handi zuri bat eta norbeit haren gainean jarria, zeinen aitzinetik goan baitziren ihesi lurra eta zerua, eta tokirik ere ez zen aurkhitu hekienik. **12** Ikusi izan nituen gero hillak, handiak eta xiperrak, xutik thronuaren aitzinean, eta liburuak idekiak izan ziren; gero berriz idekia izan zen bertze liburu bat, zein baida bizitzearena, eta hillak jujeatuak izan ziren liburuetan eskribatuak zirenen gainean bere obren arauera. **13** Itsasoak bihurtu zituen haren uretan hill izan zirenak; herioak eta ifernuak bihurtu zituzten halaber zituzten hillak, eta batbedera jujeatua izan zen bere egitateen arauera. **14** Eta ifernua eta herioa arthikiak izan ziren suzko lakhuarat. Hura diteke bigarren heriotzea. **15** Eta aurkhitu izan ez zena eskribatua bizitzearen liburuan arthikia izatu zen suzko lakhuarat.

## XXI. KAP.

**1** Gero ikusi nuen zeru berri bat eta lur berri bat, lehenbiziko zerua ezen eta lehenbiziko lurra goanak ziren eta itsasorik ez zen gehiago. **2** Eta nik Joanesek ikusi izan nuen hiri saildua, Jerusalem berria, jausten hari zela zerutik, Jainkoa ganik, aphaindua bere senharrarentzat berregintzen den espos bat bezala. **3** Eta aditu nuen boz handi bat thronutik heldu zena eta erraten zuena: «Huna Jainkoaren tabernaklea gizonkillakoa eta egonen da hekiekien; hek haren populua izanen dire, eta Jainkoa bera hekien artean izanen da hekien Jainkoa. **4** Xukatuko ditu Jainkoak nigar guziak hekien begietarik eta heriorik gehiago izanen ez da, ez auhenik, ez heia-gorarik, ez dolorerik; zeren lehenagoko gauzak iragan baidire». **5** Orduan erran zuen thronuan jarria zegoenak: «Huna gauza guziak berri egiten ditut». Eta erran izan zarotan niri: «Eskriba zazu, ezen hitz hauk hagitz dire gerthuak eta egiazkoak». **6** Erran zarotan oraiño: «Akhabo da. Ni naiz alfa eta omega, hastapena eta akhabantza. Egarri denari emanen diot nik edaterat ur bizizko ithurritik dohaiñik. **7** Garaituko duena haukien jabe izanen da eta izanen naiz haren Jainko eta hura izanen da ene haur. **8** Baiñan beldurtiez eta sinhets gaitzez, exekrableez eta gizon hiltzailleez, lohiez, pozoatzailleez, idolatrez eta gezurti guziez denaz bezanbatean,

hekien parte izanen da suz eta sufrez dirakien lakhuan, zein baida bigarren heriotzea».

**9** Ethorri izan zen gero zazpi anpoilla azkeneko zazpi plagez betheak zituzten zazpi aingeruetarik bat; mintzatu zitzaitan eta erran zarotan: «Zato eta erakutsiko darotzut Bildotsaren emaste den esposa». **10** Eta eraman ninduen Izpirituz mendi handi eta gora batetarat eta erakutsi izan zarotan Jerusalem hiri saildua jausten hari zela zerutik Jainkoa ganik. **11** Bazuen hark distadura bat jainkozkoa, eta haren argiak iduri zuen harri preziatu bat, jasje harri kristaillaren pareko bat bezalakoa. **12** Zuen murraila bat handia eta gora, zeinetan baitziren hamabi portale eta portaletan hamabi aingeru eta izen batzu eskribatuak, zein baitziren Israelgo semeen hamabi leiñuen izenak. **13** Iguzki ilkhitzetik ziren hirur portale, ouestetik hirur portale, eguberditik hirur portale eta iguzki sartzetik hirur portale. **14** Hiriko murrailak bazituen hamabi zimendu, eta hetan ziren Bildotsaren hamabi Apostoluen izenak.

**15** Niri mintzo zitzaitanak zuen urrezko kanabera bat, neurtzekotzat hiria eta hango portaleak eta murraila. **16** Hiria da laur aldetarik berdinez ezarria, hanbat luze zenbat baida zabal; neurthu izan zuen hiria bere urrezko kanaberaz, hamabi milla estadiotaraiño koan; eta haren luzetasuna, haren goratasuna eta haren zabaltasuna berdinez dire. **17** Neurthu zuen halaber haren murraila ere, zein baitzen ehun eta berrogoi eta laur besotakoa gizonaren neurritz, zein baitzen aingeruarena. **18** Murraila zen bastitua jasje harriz eta hiria bera zen erre phuruzkoa, iduri baitzuen beira garbiz egiña.

**19** Hiriko murrailen zimenduak ziren harri preziatu mota guziez berreginduak. Lehenbiziko zimendua zen jazpezkoa, bigarrena safirazkoa, hirugarrena kalzedoniazkoa, laugarrena esmaraldazkoa, **20** bortzgarrena jardonixezkoa, seigarrena sardoniozkoa, zazpi garrena krisolitezkoa, zortzigarrena berillazkoa, bederatzigarrena topazezkoa, hamargarrena krisoparezkoa, hamekagarrena hyazinthezkoa, hamabigarrena amet-histezkoa. **21** Hamabi portalak ziren hamabi perla, bakhotxarentzat bat, eta portale bakhotxa zen egiña perla batez eta hiriko plaza zen erre phuruz, berina klar klara zidurienez. **22** Tenplurik ez nuen ikusi izan hirian, zeren Jainko Jaun bothere guzia duena baida eta Bildotsa hango tenplua. **23** Eta hiriak ez du iguzkiaz ez ilhargiaz argitua izateko beharrik, zeren eta Jainkoaren gloriak baidu argitzen eta Bildotsa baida haren lanpa. **24** Nazioneak ibilliko dire haren argitan eta lurreko erregeek ekharriko dute



bere gloria eta bere ohorea harat. **25** Hango portaleak ez dire zarratuko egunaz, ezen gauik han izanen ez da. **26** Harat ekharriko dute nazioeen gloria eta ohorea. **27** Ez da sarthuko harat deusere lohi denik, ez abominazionerik edo falseriarik egiten duenik, baiñan xoilki Bildotsaren bizitzeko liburuan eskribatuak direnak.

## XXII. KAP.

**1** Erakutsi izan zarotan oraiño ur bizizko ibaia bat, kristailla bezain klara, Jainkoaren eta Bildotsaren thronutik heldu zena. **2** Hiriko plazaren erdian eta ibaia haren bi basterretan zen bizitzeko arbola hamabi fruitu ekhartzen dituen, ematen duelarik ilhabethe guziez bere fruitua eta arbola hartako hostoak dire nazioeen sendatzeko. **3** Madarizionerik gehiago han izanen ez da, aitzitik Jainkoaren eta Bildotsaren thronua han izanen da, eta bere zerbitzariak zerbitzatuko dute. **4** Ikusiko dute haren bisaia, eta ekharriko dute haren izena eskribatua bere bekhokietan. **5** Gauik gehiago han izanen ez da; eta ez lanpen beharrik, ez iguzkiaren argiaren beharrik ez dute izanen, zeren eta Jainko Jaunak argituko baiditu eta erregiñatuko dute mendetako mendetan.

**6** Ondoan erran izan zarotan: «Hitz hauk hagitz dire sinhestea merezi dutenak eta egiazkoak; eta profeten Izpirituen Jainko Jaunak igorri izan du bere aingerua erakusterat bere zerbitzariak sarri gerthatu behar direnak. **7** Ethorriko naiz sarri. Dohatsu liburu huntako profeziaren erranak begiratzen dituenak».

**8** Ni Joanes naiz, gauza hauk aditu eta ikusi izan ditudana. Eta aditu eta ikusi nituenean, arthiki izan nintzen hauk erakusten zarozkidan aingeruaren oiñetarat hura adoratzekotzat. **9** Baiñan erran izan zarotan: «Begrautzu hori egitetik, ezen zerbitzari bat naiz, zure kidea eta zure anaia profeten kidea; eta liburu huntako profeziaren erranak begiratuko dituztenen kidea: Jainkoa dezazu adora». **10** Ondoan erran izan zarotan: «Ez detzatzula zigilluaren azpian eman liburu huntako profeziaren hitzak, denbora ezen hurbil da. **11** Injustizia egiten duenak egin beza oraino; lohi dena lohi bedi oraiño; justu dena egin bedi justuago oraiño eta saindu dena santifika bedi gehiago ere oraiño. **12** Sarri heldu naiteke eta ene saria neurekien dut, bihurtzeko batbederari bere obren arauera. **13** Ni naiz alfa eta omega, lehena eta azkena, hastea eta akhabantza. **14** Dohatsu bere arropak garbitzen dituztenak Bildotsaren odolean, izan dezatentzat burupe biziaren

arbolan eta athetarik sar daitezentzat hirian. **15** Khen hemendik ozarrak, pozoatzaileak, lohiak, gizon hiltzaileak eta idolatreak eta falseria maitatzen eta egiten duketen guziak. **16** Nie, Jesusek, igorri izan dut ene aingerua gauza hautaz zuei lekhukotasuna errendatzeko Elizetan. Ni naiz Dabiden urthamea eta semea, izar distianta, goizeko izarra. **17** Izpiritua eta esposak dute erraten: «Zato». Aditzen duenak ere erran beza: «Zato». Egari dena bethor, eta nahi duenak har beza bizitzeko uretik dohainik.

**18** Deklaratzen daroet ezen liburu huntako profeziaren hitzak adituko dituzten guziei, baldiñetariak nihork hei deusik iratxakitzen badaroe, eroraraziko dituela Jainkoak hainaren gaiñerat liburu huntan eskribatuak diren plagak. **19** Eta baldin nihork khentzen badu deusik liburu huntako profeziaren hitzatarik, khenduko du Jainkoak ere hura biziaren liburutik eta hiri saindutik, eta ez dio emanen parterik liburu huntan eskribatuak diren agintzetan.

**20** Dio gauza hautaz lekhukotasuna ematen duenak: «Baiki, sarri heldu naiz eta lauster. Amen. Zato, Jesus Jauna». **21** Jesukristo gure Jaunaren grazia dela zuekien guziekien. Amen.

